



2019
64, 2, 1

EUSKERA

2019
64, 2, 1

IKERKETA ZENBAKIA

- Coyos Etxebarne, Jean-Baptiste: “Euskara batua eta euskalkiak Ipar Euskal Herrian: Pertzepziozko dialektologian oinarritua den inkestaren bigarren zatia”
- Iñigo Ariztegi, Andres eta Rekalde Irigoien, Paskual: “Zenbait toponimoren lekukotasunak Bortzirietako, Malerrekako eta Baztango agiri zaharren argitan”
- Larrañaga Arrieta, Josu: “*Galdo(n)a* izenari buruzko txostena”
- Larrañaga Arrieta, Josu: “*Urazemendi* eta *Urazandi* izenei buruzko txostena”
- Lobera Revilla, Gotzon: “Ekarpen bat exonomastikari, Homeroren *Iliada* oinarri hartuta”
- Navascués Basterra, Mikel eta Iurrebaso Biteri, Iñaki: “Diglosia eta endodiglosia arnasguneetan. Ondarroako nerabeen hizkuntza-gaitasuna eta erabilera-ohiturak: euskara eta gaztelania; batua eta tokiko euskara”
- Oyarzabal Ostolaza, Irantzu: “*Ternuako penak* eta gazte-literatura”
- Salaberri Izko, Iker: “Euskarazko bihurkarien historiaz: hizkuntza ukipena eta errepikapen gramatikalizazioa”
- Salaberri Muñoa, Patxi: “Mikelestorenaren *Zerura nahi duenak* liburuaren edizioak mintzo”
- Santazilia, Ekaitz eta Taberna Irazoki, Mikel: “*Uscaldunac garen ezquero*. Berako euskal testu administratibo berri bat (1822)”

Oharrak

- Zugazaga Martikorena, Lontzo: “Mikel Zarate eta euskera baturako bideak” [1980]



EUSKERA



Euskera 2019, 64, 2, 1
247-902



2019
64, 2, 1

EUSKERA

2019
64, 2, 1

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak

Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca

Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque

Work and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language

IKERKETA ZENBAKIA

EUSKERA



Euskera 2019, 64, 2, 1, 247-902, Bilbo. ISSN 0210-1564

E U S K E R A



2019
64, 2, 1
BILBO
ISSN 0210-1564



EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Telefonoa: 94 415 81 55 • Faxa: 94 415 81 44

posta elek.: info@euskaltzaindia.eus • webgunea: www.euskaltzaindia.eus

Aldizkari hau beste agerariekin trukutzen da

Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones

Cette revue s'échange avec d'autres publications

This journal can be exchanged for others by agreement

Testuen hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564

Lege Gordailua: BI-1244-58

Diseinua: www.ikeder.es

Aurreinprimaketa: Composiciones Rali, S.A.

Costa, 12-14, 7º izda. – 48010 Bilbo

Inprimategia: G.Z. Printek, S.A.L.

2020ko urrian inprimatua

EUSKERA AGERKARIA

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da eta 1920. urtetik argitaratzen da. Urteko lehen zenbakiak (buletinak) Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen ditu, eta bigarrenak Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu. Zenbakiak urtea bukatu eta hurrengo sei hilabeteetan argitaratzen dira. Ikerketa artikuluak argitaratzeko, Idazketa kontseiluak, anonimotasuna bermatuz, kanpo ebaluatzaileen iritzia jasoko du.

***Euskera* agerkaria honako aurkibide, zerrenda eta datu-baseetan dago:**

- Azkue Bibliotekaren katalogoan
- Euskaltzaindiko webgunean
- Latindex Katalogoan
- Inguma datu-basean
- ISOC datu-basean
- Linguistic Bibliography datu-basean
- Dialnet datu-basean
- Emerging Sources Citation Index-en (ESCI)

Kalitate adierazleak:

CIRC (2019): C maila

MIAR (2018): 8.0 (ICDS)

La revista *Euskera* es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y se publica desde 1920. El primer número del año (el boletín) recoge los trabajos y actos académicos de Euskaltzaindia mientras que el segundo se dedica a publicar artículos de investigación originales, reseñas de libros y similares. Los números se publican dentro del semestre posterior a finalizar el año. Para publicar artículos de investigación, el Consejo de redacción, garantizando el anonimato, recurre a expertos externos.

La revista *Euskera* está disponible en los siguientes catálogos y bases de datos:

- Catálogo de la Biblioteca Azkue
- Página web de Euskaltzaindia
- Catálogo Latindex
- Base de datos Inguma
- Base de datos ISOC
- Base de datos Linguistic Bibliography
- Base de datos Dialnet
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

Indicadores de calidad:

CIRC (2019): Categoría C

MIAR (2018): 8.0 (ICDS)

La revue *Euskera* est l'organe officiel de l'Académie de la Langue Basque / Euskaltzaindia ; sa publication a démarré en 1920. Le premier numéro de l'année (le bulletin) présente les travaux et la vie de l'Académie de la Langue Basque / Euskaltzaindia ; le second quant à lui publie des articles concernant des travaux de recherche, des comptes rendus de livres, ou autres sujets similaires. Les numéros sont publiés au cours du semestre qui suit la fin de l'année. En ce qui concerne la publication d'articles de recherche, le Comité de rédaction s'entoure d'experts extérieurs à qui il garantit l'anonymat.

La revue *Euskera* est présente sur les catalogues et bases de données suivants :

- Catalogue de la Bibliothèque Azkue
- Page web d'Euskaltzaindia
- Catalogue Latindex
- Base de données Inguma
- Base de données ISOC
- Base de données Linguistic Bibliography
- Base de données Dialnet
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

Indicateurs de qualité :

CIRC (2019) : Catégorie C

MIAR (2018) : 8.0 (ICDS)

Euskera is the official journal of *Euskaltzaindia* and has been published since 1920. The first number or bulletin published each year reflects the Academy's work and academic activities, while the second one contains original research articles, book reviews and the like. Issues are published in the six month period following the end of the year in question. For the publication of research articles the editorial board seeks the opinions of external evaluators, while preserving their anonymity.

The *Euskera* journal appears in the following indexes, lists and databases:

- Catalogue of the Azkue Library
- Website of Euskaltzaindia
- Latindex catalogue
- Inguma database
- ISOC database
- Linguistic Bibliography database
- Dialnet database
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

Quality indicators:

CIRC (2019): group C

MIAR (2018): 8.0 (ICDS)

EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA



IDAZKETA KONTSEILUA

Zuzendaria: ANDRES URRUTIA. Euskaltzaindia. Bilbo

Idazkari akademikoa: ANA TOLEDO. Euskaltzaindia. Donostia

Teknikaria: JON ARTZA. Euskaltzaindia. Bilbo

ADOLFO AREJITA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JEAN-BAPTISTE COYOS
Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona

JOSEBA ANDONI LAKARRA
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANDONI SAGARNA
Euskaltzaindia. Donostia

PATXI SALABERRI
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

MIKEL ZALBIDE
Euskaltzaindia. Donostia

AHOLKU BATZORDEA

MIXEL AURNAGUE
*CNRS, J. Jaurès Unibertsitatea.
Tolosa, Okzitania.*

MIREN AZKARATE
Euskaltzaindia. Donostia

JOXE AZURMENDI
Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia

MARTINE BERTHELOT
Perpignango Unibertsitatea. Perpignan

XARLES BIDEGAIN
*Paueko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitatea.
Baiona*

JOSU K. BIJUESCA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

GIDOR BILBAO
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

IÑAKI CAMINO
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANA ETXAIDE
Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea

JOSE RAMON ETXEBARRIA
Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo

MAITE ETXENIKE
Universitat de València. Valentzia

PATXI GOENAGA
Euskaltzaindia. Gasteiz

RICARDO GOMEZ
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

MANUEL GONZALEZ
Real Academia Galega. Coruña

MARTIN HAASE
Bambergo Unibertsitatea. Bamberg

JOSE IGNAZIO HUALDE
Illinoiseko Unibertsitatea. Illinois

ITZIAR IDIAZABAL
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

XABIER ITZAINA
*CNRS, Centre Emile Durkheim,
Sciences Po Bordeaux. Bordele*

JOSEBA INTXAUSTI
Euskaltzaindia. Donostia

IÑAKI IRAZABALBEITIA
Elhuyar Fundazioa. Usurbil

JACINTO ITURBE
Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa

JABIER KALTZAKORTA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JON LANDABURU
CNRS, Paris. Kolonbiako Kultura Ministerioa

ALBERTO LOIZATE
Basurtuko Ospitalea. Bilbo

JUAN MADARIAGA
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

JOAN MARTÍ
Institut d'Estudis Catalans, Secció Filològica. Bartzelona

ENEKO OREGI
Eusko Jaurlaritza. Gasteiz

JON ORTIZ DE URBINA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

ROSA MIREN PAGOLA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JOSE ANTONIO PASCUAL
Real Academia Española. Madril

TXOMIN PEILLEN
Euskaltzaindia. Baiona

IBON SARASOLA
Euskaltzaindia. Donostia

JOAN MARI TORREALDAI
Euskaltzaindia. Donostia

MIRIAM URKIA
UZEI. Donostia

JUAN JOSE ZUBIRI
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

Aholkulariak: JOSEBA ZABALETA eta ERRAMUN OSA (*Euskaltzaindia. Bilbo*).

E U S K E R A

AURKIBIDEA

- [255-290] “Euskara batua eta euskalkiak Ipar Euskal Herrian: Pertzepziozko dialektologian oinarritua den inkestaren bigarren zatia”
COYOS ETXEBARNE, Jean-Baptiste
- [291-341] “Zenbait toponimoren lekukotasunak Bortzirietako, Malerre-
kako eta Baztango agiri zaharren argitan”
ÍNIGO ARIZTEGI, Andres eta REKALDE IRIGOIEN, Paskual
- [343-375] “*Galdo(n)a* izenari buruzko txostena”
LARRAÑAGA ARRIETA, Josu
- [377-408] “*Urazemendi* eta *Urazandi* izenei buruzko txostena”
LARRAÑAGA ARRIETA, Josu
- [409-583] “Ekarpen bat exonomastikari, Homeroren *Iliada* oinarri hartuta”
LOBERA REVILLA, Gotzon
- [585-621] “Diglosia eta endodiglosia arnaguneetan. Ondarroako nera-
been hizkuntza-gaitasuna eta erabilera-ohiturak: euskara eta
gaztelania; batua eta tokiko euskara”
NAVASCUÉS BASTERRA, Mikel eta IURREBASO BITERI, Iñaki
- [623-649] “*Ternuako penak* eta gazte-literatura”
OYARZABAL OSTOLAZA, Irantzu

- [651-682] “Euskarazko bihurkarien historiaz: hizkuntza ukipena eta erre-pikapen gramatikalizazioa”
SALABERRI IZKO, Iker
- [683-810] “Mikelestorenaren *Zerura nahi duenak* liburuaren edizioak mintzo”
SALABERRI MUÑOIA, Patxi
- [811-869] “*Uscaldunac garen ezquero*. Berako euskal testu administratibo berri bat (1822)”
SANTAZILIA, Ekaitz eta TABERNA IRAZOKI, Mikel

OHARRAK

- [873-901] “Mikel Zarate eta euskera baturako bideak” [1980]
ZUGAZAGA MARTIKORENA, Lontzo

Euskara batua eta euskalkiak Ipar Euskal Herrian: Pertzepziozko dialektologian oinarritua den inkestaren bigarren zatia

Euskera unificado y los dialectos del País Vasco Norte: segunda parte de un estudio basado en la dialectología perceptiva

Le basque unifié et les dialectes en Pays Basque Nord : deuxième partie de l'enquête basée sur la dialectologie perceptuelle

Standard Basque and dialects in the Northern Basque Country: the second part of the survey based on perceptual dialectology

COYOS ETXEBARNE, Jean-Baptiste

Euskara eskuz esku (EEE) egitasmoa

Euskaltzaindia

Noiz jaso: 2020-01-16

Noiz onartua: 2020-03-09

Artikulu honetan, Euskaltzaindiaren *Euskara eskuz esku* egitasmoan eraman den inkesta soziolinguistiko bateko galdera irekien erantzunak aurkezten eta aztertzen ditugu. Galdera itxiei erantzunen emaitzak eta analisia jadanik argitaratuak dira (*Euskera*, 2018, 63, 2-1, 185-208). Hona bigarren erantzun multzo horren emaitza nagusi batzuk: inkestatuen arabera, Ipar Euskal Herrian euskara batua ez da ongi ezagutua, euskalkiekin nahasten da eta euskaraz eskolatuak ez diren euskaldunentzat zalantzazkoa da. Baina lehen arazoa lurralde horretan osoki nagusitzen den frantsesa da. Euskararen berean ere eragina du. Geroan, guti transmitituak izanez, euskalkiak ahulduko direla eta euskara batua indartuko dela da inkestatuengan aurreikuspen hedatuena.

Era batez edo bestez euskararen preskribatzaileak diren berrogei lekukoren erantzunei esker, euskara batuaren, euskalkien eta frantsesaren egoera eta haien arteko harremanak Ipar Euskal Herrian hobeki ulertzen ditugu, hizkuntza-ekosistema hori konplexua eta alda-korra dela kontuan hartuz.

Gako-hitzak: euskara batua, euskalkiak, Ipar Euskal Herria, pertzepziozko dialektologia, inkesta, galdera irekiak.

En este artículo presentamos y analizamos las respuestas dadas a las preguntas abiertas que se insertaban en la encuesta sociológica que se desarrolló como parte del proyecto de la Real Academia de la Lengua Vasca “Euskara eskuz esku” (‘Euskera de mano en mano’). Los resultados y análisis desarrollados en base a las preguntas cerradas del cuestionario han sido ya publicados (*Euskera*, 2018, 63, 2-1, 185-208). Pero lo que ahora nos atañe, estas serían las principales conclusiones de este segundo estudio: Analizando las respuestas vemos que el euskera unificado no es muy conocido en el País Vasco Norte, esta mezclado con los dialectos, y los no vascoparlantes dudan de su validez. El principal problema es el absoluto dominio del francés en este territorio. La predicción mas compartida entre los que han respondido al cuestionario es que los dialectos se van debilitando, baja su transmisión y como resultado de ello el euskera unificado se fortalece.

Las personas que han respondido a las preguntas poseen cierto prestigio en el ámbito del euskera y es por ello que sus opiniones son muy válidas para conocer la situación del euskera, de los dialectos vascos, del francés y de las interconexiones entre dicha lenguas en el País Vasco Norte. Aún así hay que tener en cuenta que el ecosistema lingüístico es complejo y cambiante en cada territorio.

Palabras clave: Euskera unificado, dialectos, País Vasco Norte, dialectología perceptiva, encuesta, preguntas abiertas.

Dans cet article sont présentées et analysées les réponses aux questions ouvertes d’une enquête sociolinguistique menée dans le cadre du projet “Euskara eskuz esku” (Le basque de main en main) de l’Académie de la langue basque. Les résultats et l’analyse des réponses aux

questions fermées ont déjà été publiées (*Euskera*, 2018, 63, 2-1, 185-208). Voici quelques-uns des principaux résultats de ce deuxième groupe de réponses : selon les enquêtés, le basque unifié n'est pas bien connu en Pays Basque Nord, il est mélangé aux dialectes et il pose des difficultés aux bascophones qui n'ont pas été scolarisés en basque. Mais le principal problème, c'est le français, langue ultra-dominante sur ce territoire. Il influe sur la langue basque elle-même. La prévision la plus répandue parmi les enquêtés est qu'à l'avenir, parce qu'ils sont peu transmis, les dialectes vont s'affaiblir et le basque unifié se renforcer.

Grâce aux réponses de ces quarante témoins tous prescripteurs de la langue basque d'une manière ou d'une autre, nous comprenons mieux la situation et les relations entre le basque unifié, les dialectes et le français en Pays Basque Nord, prenant en compte le fait qu'il s'agit d'un écosystème linguistique complexe et changeant.

Mots-clés : basque unifié, dialectes, Pays Basque Nord, dialectologie perceptuelle, enquête, questions ouvertes.

In this article, we present and analyse answers to the open-ended questions from a socio-linguistic survey carried out as part of Royal Academy of the Basque Language's "Euskara eskuz esku" ("Basque from Hand to Hand") project. The results and analysis of the answers to open-ended questions have already been published (*Euskera*, 2018, 63, 2-1, 185-208). These are some of the main results of this second set of answers: according to the respondents, standard Basque in the Northern Basque Country is not well known; it is mixed with dialects; non-Basque speakers doubt its validity. But the first problem is the general dominance of the French language in that territory. This affects the Basque language itself. The most widespread prediction among the respondents is that as dialects are not passed on in general they will be weakened, and standard Basque will be strengthened as a result of that.

Answers from forty respondents (who, in one way or another, have authority to speak about Basque) give us a better understanding of the situation of Basque, Basque dialects, French and the connections between them in the Northern Basque Country. It has been taken into account that the linguistic ecosystem is complex and ever-changing in the territory.

Keywords: Unified Basque, dialects, Northern Basque Country, perceptual dialectology, survey, open-ended questions.

1. Inkesta: helburu orokorrak, datuen biltze moduak eta lehen emaitzak

Artikulu honetan, *Euskara eskuz esku* (EEE) egitasmoaren baitan eraman izan den inkestaren bigarren emaitza multzoa aurkezten da¹. Berrogei leku-kok hamahiru galderako inkestari erantzun diote 2018ko lehen sei hilabete-koan, edo fitxa batean idatziz edo grabatu den elkarrizketa batean.

1.1. Inkestaren helburu orokorrak eta pertzepziozko dialektologia

Inkesta horren helburuak, besteak beste, Ipar Euskal Herrian euskara batua eta euskalkiak nola harremanetan diren aztertzea zen, euskara batua nola onartua zen ikertzea, euskalkien estatutua zein zen, haiei atxikimendua ebaluatzea, batuak eta euskalkiek zer geroa zuten inkestatuen ustez... Beste molde batez erranik, euskararen hizkuntza-ekosistema nola agertzen zaien inkestatuei lurralde horretan, hirugarren partaide bat gutxienez badela jakinez, hizkuntza nagusia den frantsesa. Zazpi galdera itxien erantzunei buruzko lehen emaitza multzoa argitaratu da (laburpena 1.3. lerroaldean ikus)².

Gai horiek aztertzeko eta inkesta sortzeko, pertzepziozko dialektologiaren printzipioetan bermatu da. Pertzepziozko dialektologiak hizkuntzalari ez direnek bariazio dialektala (beren hizkera, lurralde auzoena edo urrunagokoe-

¹ *Euskara eskuz esku* proiektuak Ipar Euskal Herriko hiltunei hizkuntza-aniztasuna kontuan hartzen duen euskara batuaren hedatzeko tresna linguistiko berria ematea du helburu. Egunero gaurkotua izanen den euskarri numerizatu erabilgarria sortuz, xedea euskaldunen galderei erantzutea da webgunearen testuen bidez edota, posta elektronikoz, erantzun zuzen baten bidez. Euskaltzaindiak ematen dituen gomendioak eta arauak proposatuko ditu, hizkuntza-alorren arabera sailkatuak, Ipar Euskal Herriko hizkuntza-aniztasunari dagozkionak azpimarratuz. *Euskara eskuz esku* egitasmoa 2018-2020 epean Europako Lurralde Garapen Funtsak % 65ez lagundua da (FEDER), Interreg V-A programaren barnean (Espainia-Frantzia-Andorra, POCTEFA 2014-2020). POC-TEFAren helburua mugaz gaindiko Espainia-Frantzia-Andorra lurraldearen ekonomia- eta gizarte-integrazioa indartzea da.

² Bi argitalpen izan ziren: Coyos, 2018, euskaraz, eta Coyos, 2019, ingelesez. Bigarren artikulua euskara eta Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa ezagutzen ez dituztenentzat egina da.

na) eta haren estatutua (zuzentasuna, goxotasuna, prestigioa...) nola ulertzen, hobeki erran, sentitzen dituzten aztertzen ditu. Hizkuntza-gertaerak ikertu baino, pertzepziozko dialektologiak hiltunen hizkuntza-kontzientzia ikertzen du. Hiltun baten hizkuntza-sinesmenak, sentimenduek eta jarrerek bere hizkuntza-ariketa eragiten dutela suposatzen du (Cramer, 2016). Hizkuntza-sinesmen, sentimendu eta jarrera horiek interes zientifiko handikoak dira hizkuntza bat, hizkuntza-komunitate bat edo harremanetan diren hizkuntzak zertan diren ebaluatzeko, ulertzeko (Paveau, 2008).

Inkesta sortu baino lehen, erabili behar genituen kontzeptuak argi izan behar ziren. Baina ez zen hola. “Euskalki” nozioa aski argi baldin bazitzaigun, XIX. mendetik aztertua baita, “euskara batua” erramoldea, aldiz, “euskalki” hitza bezalakoa ez zen. Eta ez bakarrik euskara mota hori aski berria baitzen. Ez, hizkuntza arautuak denak bezala, euskara batua hizkuntza-fenomeno konplexua da, anitza eta aldakorra. Batua ez da batere monolitikoa (Coyos, 2018). Datu zehatza baino, aurpegi anitzeko datu enpirikoa da. Hori ere inkestaren bidez ulertu nahi genuen, hobeki ulertu bederen, Ipar Euskal Herriko hizkuntza-testuinguruan.

1.2. Datuen biltze moduak

Inkesta bi moldez eginarazi zaie lekukoei. Alde batetik, dokumentu batean inkestatuak galdetegia bete du eta posta elektronikoz erantzunak itzuli ditu. Erantzunen luzera libre zen. Galderaren arabera, batzuek lerro batez erantzun dute, baina beste batzuek orrialde erdi bat baino gehiago bete dute. Bestetik, buruz buruko elkarrizketa egin da hamaika inkestatu-rekin, hamahiru galderak eginez. Elkarrizketak grabatuak izan dira eta transkribatuak. Gainera, lekuko grabatu horietarik batzuek idatzizko inkesta bete dute ere.

Inkestatuek zuten libertateak corpus zabal eta aberatsa eman du, aniztasun handikoa. Batzuetan ez diete galderei denei erantzun eta zenbaitek beste zerbait aipatu dute, baina beti euskara batuari eta euskalkiei buruz zerbait ekarriz, beren esperientzia pertsonala, iritziak, sentimenduak, usteak, jarrerak azalduz.

1.3. Hamahiru galderak eta galdera itxien emaitzak

Inkestan hamahiru galdera badira, batzuk itxiak (bai / ez) eta besteak irekiak. Artikulu honetan sei galdera irekien erantzunak azalduko eta aztertuko ditugu. Hori baino lehen, hona zazpi galdera itxien erantzunen emaitza nagusiak.

Inkestatuen % 95ek Ipar Euskal Herrian euskara batua beharrezkoa dela pentsatzen dute. Aldi berean, % 92,5ek Ipar Euskal Herriko hizkeren berezitasunak zaindu behar direla uste dute. Horretan kontraesanik ez da, bistan da. Beherago ikusiko dugun bezala, hiztun baten hizkuntza-erregistro ezberdinetan batua eta euskalkia horietarik bi izan daitezke. Bestalde inkestatuen % 80k euskara batuak Ipar Euskal Herriko euskalkiei kalterik ekartzen ez diela pentsatzen dute eta erdiak baino gehiagok euskara batu berezi bat badela orain Ipar Euskal Herrian. Azpimarra dezadan euskara batua izatea Ipar Euskal Herrian beharrezkoa ez dela nehork ez duela erran. Euskaltzaindiarentzat, euskara kudeatzen duten beste erakundeentzat eta, oro har, euskara biziberritzeko eragile denentzat horrez ohartzea biziki garrantzitsua da. Bistan da hizkuntza-hautaketetan azkenean, mintzatzeko edo idazteko mementoan, hiztuna dela erabakitzen duena sekula ahanztiz. Iduri luke lekukoentzat bi euskara mota horiek, estandarizatua eta tokikoa, beharrezkoak direla.

2. Inkestatuen profila

1.1. Ierroaldean erran dugu pertzepziozko dialektologiak lekuko gisa hizkuntzalari ez direnak hautatzen zituela. Hiztun arruntak erran nezake, nahiz, aldi berean, euskararen egoera Ipar Euskal Herrian gero eta gehiago aztertuz, euskaldun arruntik ez dela ohartzen naizelarik. Hemen «euskaldun zahar arrunt»en ikusmoldeak ez dira aztertu, euskara batua ezagutzen ez dutenak. Horietarik batzuek «euskara batua» erramoldea ere ez dute sekula entzun. Ikerketaren helburua ez zen euskara batuari buruz edo euskalkiei buruz Ipar Euskal Herrian entzuten diren aitziniritziak, estereotipoak edo klixeak biltzea. Batzuetan euskara ezagutzen ez dutenen bidez hedatuak dira. Hizkuntzei buruzko ideologian oinarrituak, eskolak, komunikabideek,

iritzi-liderrek jendarteko iritzian barreiatuak dira. Hori beste ikerketa baten aztergaia litzateke.

Ez, hemen hautatuak ziren lekukoek denek euskara lantzen dute: euskara eta euskaraz erakasten dute, euskaraz idazten dute eta beren lana argitaratzen, kazetariak dira, ahozko edo idatzizko itzulpen lanak egiten dituzte, euskara teknikariak dira tokiko kolektibitateetan, etab. Hots, Ipar Euskal Herriko bizi publikoan euskara “modelo” emaleak dira, bakoitzak bere modelo propioa eskainiz. Beren lanbidearengatik, euskararen transmititzailerik publikoak dira eta, gainera / ondorioz, zuzenki irakasleak bezala edo zeharka, preskribatzaileak dira³. Lanean hizkuntza-hautuak egin behar dituzte. Zein euskara mota erabil? Euskalkia, bat baldin badute, edo euskara batua? Zein euskara batua? Nor da publikoa, zein da erabilera testuingurua, zein da euskarazko mezua helburua...?

Hona, laburbilduz, inkestan parte hartu duten berrogei lekukoaren profil soziodemografikoa. Galderei erantzun baino lehen, fitxan datu pertsonal batzuk galdatauak zitzaizkien.

- **Sexua – Adina**

Sexuaren parametroan bi taldeak ez dira orekatuak: 14 emazte / 26 gizon. Adin-taldeak orekatuagoak dira: 35-49 urte: 4 emazte / 7 gizon, 50-64 urte: 7 emazte / 8 gizon, ≥ 65 urte: 3 emazte / 10 gizon. Aldiz 20-34 urteko taldean lekukorik ez da.

- **Sorterria**

Lapurdi: 11. Nafarroa Beherea: 15. Zuberoa: 6. Hegoaldea: 5. Frantzia: 3. Inkestatuen kasik % 40 Nafarroa Beherean sortuak dira.

- **Bizi herria**

Lapurdi: 24. Nafarroa Beherea: 6. Zuberoa: 7. Hegoaldea: 2. «Ez ezagutu»: 1. Sorterriari konparatzen baldin badiogu, Lapurdiko kostaldeko era-

³ Inkestan edo elkarrizketetan parte hartu dutenei denek eskerrak ematen dizkiet. Haien ekarpena gabe ikerlan hau ezinezkoa izanen zen.

kargarritasuna, Baiona-Angelu-Miarritze hirigunekoa bereziki, agertzen zaigu.

- **Nola ikasi duzu euskara?**

Datu pertsonaletan galdera horri ere erantzun behar zioten inkestatuek. Etxean: 35 (% 87,50), horien artean etxean bakarrik: 26, ikastolan ere: 2, autoikaskuntzaz ere: 7. Ikastolan: 1, AEKn: 1, AEKn eta autoikaskuntzaz: 1, autoikaskuntzaz: 1, erantzunik ez: 1. Familia transmisioa nagusitzen da. Datu garrantzitsu hori gogoan atxikitzeko izanen da inkestatik ateratuko diren datuak eta joerak ebaluatzeko mementoan.

- **Ofizio (ohi)a – Jarduera nagusia**

Irakasle (2. mailako, unibertsitateko, helduendako): 13 (% 32,50), idazle: 6, kazetari: 6, euskara teknikari: 6, itzultzaile: 4, beste (kultura eragile): 5. Irakasleen kategoria handiena da, inkestatuen herena.

3. Galdera irekiak: erantzunen aurkezpena eta analisisia

Galdetegia, 2. atalean erranik den bezala, euskalgintzan ari diren jendeei hedatua zaie, xede nagusia Ipar Euskal Herrian euskara batuari eta euskalkiei buruzko iritziak biltzea delarik. Hastapen intuizioa eta lan-hipotesia ziren lurralde horretan euskalkiak mantentzen baldin baziren, gutxi gora-behera, barnealdean bederen, Zuberoan bereziki, ber denboran batasun prozesu bat ari zela azkartzen Lapurdin eta Nafarroa Beherean. Hori batez ere belaualdi gazteenengan, lehen-lehenik irakaskuntzari esker, familia-transmisioa oro har aski ahula delarik. Gainera, adineko euskaldun zaharrak, tokiko euskara etxean ikasi zutenak euskara batua zer den jakin gabe, desagertzen ari dira. Hau da mugimendu orokorra Ipar Euskal Herrian ere, euskaldunek gero eta gehiago euskara batua zer den badakite eta gero eta gehiagok menperatzen dute ere. Euskara batu bat bederen, Euskaltzaindiarena *stricto sensu* ez bada ere.

Galdera irekien erantzunak azter ditzagun orain. Sei ziren: 4.a, 9.a, 10.a, 11.a, 12.a eta 13.a. Erantzunak aski anitzak izan dira, baina, halere, kon-

traesanezkoak izan gabe. Ikusmoldeak ezberdinak izan daitezke, euskaldun zahar batenak eta euskaldun berri batenak, baina bai ere euskaldun zaharren artean, ikuspuntuaren, aztertu den objektuaren eta aipagaiaren arabera.

Dena den, erantzun horiek azaltzen saia gaitzen joera nagusiak azpimarraz. Bistan da ondoko bilduma hau artikulu honen idazlearen subjektibotasunaren mende dago; sintesi hau beste norbaitek bestelakoa eginen luke.

3.1. 4. Zoin dira euskara batuari lotuak diren arazoak Iparraldean?

Laugarren galdera honen formulazioa ez da neutroa. Ipar Euskal Herrian euskara batuarekin arazorik badela pentsaraz lezake, eta *arazo* hitza konnotatua da. Zailtasuna, problemaren adiera edukitzen du. Baina, bistan da, inkestatuak arazorik ez zela erantzun zezakeen, batzuek egin duten bezala.

- **Galdera honen helburuak**

Oro har, helburua zen erantzunen bidez ulertzea nola euskara batua onartu den Ipar Euskal Herrian, zein neurritan, balizko zailtasunak zein diren. Inkestatuari ulertarazi behar zion inkestaren egilea (Euskaltzaindiaren lantalde bat) lurralde horretan euskara batuaren papera bakarrik baikorra ez dela entzuteko prestik zela. Arauzaleek, normazaleek eta kontrakoek, euskara batuaren zaleek, euskara batuaren aurkakoeak, euskalkien zaleek edo bi euskal erregistroen arteko bizikidetzaren orekatu eta baikorra ikusten zutenek beren ikusmoldea azal zezaketen. Hizkuntza-kontzientziaren, iritzi ezberdinen, balio-judizioen biltzea eta, ondorioz, joera nagusien agerraraztea biziki baliagarriak izan zitezkeen euskara batua Ipar Euskal Herrian nola sartu eta bizi den ulertzeko.

Banan-banan atera ditudan «arazoak» aurkeztuko ditut. Gorago «euskara batua» lokuzioa definitzeko zailtasunak azaldu ditut eta «arazo» hitza eztabaidatu dut. Azaldu izan zen arazo bakoitza erranaldi motz batez laburbilduko dut eta gero aipamen batzuen bidez azalduko dut, jakinez erranaldi horrek iruzkinen aniztasuna behar den bezala sintetizatzen ez duela. Beren iruzkinetan inkestatuak batzuetan «arazo» bat baino gehiago azaltzen dituzte, erranaldi berdinean zenbaitetan. Saiatu naiz bereizten eta sailkatzen. Berrogei inkestatuetarik galdera honi lauk ez diote erantzun.

- **Arazoa frantsesa da (eta gaztelania), ez euskara batua**

Has gaitezen erantzun mota honekin: euskara batuari loturik diren arazorik ez dela. Hona aipamen batzuk ikusmolde honetakoak. Batek idazten du: «Galdera interesgarria: iradokitzen duzue, beraz, Iparraldean batuarekin arazoak badirela. Nik arazoak frantsesarekin ikusten ditut. Usu entzuten dut, alabaina, batuaren edo beste euskalki baten kontrako solasik. Ene aburuz ez du zentzurik». Beste batek: «Arazorik ez diot ikusten, euskara batuari esker euskara zabaldu eta zabaltzen delako. Euskararen arazoa ez da euskara batua, baizik eta frantsesa eta gaztelania. Ez ditzagun oztopoak eta mugak guk ezarri, nahiko baditugu». Beste batek: «Enetako, nik ez dut ikusten arazorik. (...) Hegoaldean ere eztabaida biziki sutsuak, horren inguruan. Nik ikusten dut badela tresna bat balio diguna denei elkar ulertzeko, idatzian, ahozkoan. Jartzen dituela base komun batzu. Nonbait euskara batuaren defendatzaile bat naiz». Eta horrek hau dio: «Behar bada galdera hori iragan aldian idatzi beharko zen, zeren eta ene ustez ez da gehiago arazorik gaur egun euskara batuarekin Iparraldean. Orain dela berrogei urte edo berrogeita bost urte euskara batua sortzen ari zenean entzuten ziren gauza batzuk. “Hori espainola dela”. “Hori ez dela euskara”. Gaur egun ez da gehiago entzuten hori. Uste dut onartua dela. Osoki onartua da».

Ohart gaitezen lau inkestatu horiek gure inkestatu adinekoetan ez direla.

- **Euskara batua Iparraldekoa ez da, urruntasuna, aurkezpen arazoa**

Hona aipamen batzuk: «Senditzen dute oraindik hainbat jende batua dela Hegoaldetik datorren olatu bat. (...) nere ustez komunikazio lana ez da ongi egin eta batua senditzen da gauza bat urrunekoa». Halaber lekuko horrek: «Ipar Euskal Herriko euskal hiztun gehienek pentsatzen dute batua ‘besteen’ eta ‘beste nonbaiteko’ euskara dela, hots, ez dute etxekotua. Ainitzendako batua ‘Hegoaldekoen’, ‘espainolen’, ‘eskolan ikasi dutenen’, ‘idazleen’ euskara da baina ez haiena. “Batua ene euskara da ere”, horra biharko hiztunak gogoan ukan beharko duena». Inkestatu horrek batua ongi aurkeztua ere ez dela dio: «Euskara batua nola presentatua den da ene ustez arazo nagusia: hau da aurkezten zaigu, gure eguneroko ohitura linguistikoetatik kanpo dagoen hizkuntza bat bezala, gehien bat Hegoaldetik heldu

den zerbait». Ber ildoan horrek: «Nagusiki euskara batua Hegoaldeko euskaratzat harturik dela iduritzen zait. Euskalgintzan lanean ari den jende multzo baten iritiz, euskara batua kontuan hartzekoa baldin bada ere, herrialde desberdinetako biztanleen artean euskara batuaren sinesgarritasuna ez da hain handia». Inkestatu zuberotar horrek hizkuntza urruntasuna azpimarratzen du: «Gük heben Züberoan gure euskalkitik zinez hürrün edireiten dügü». Eta horrek berdin: «Euskara batua hein bat urrun da Xuberoko hizkuntzatik eta Bizkaikotik ere». Lekuko horrek ere: «Jende batzuei urrun zaiela. Hautu batzuk egiten direla Iparraldeko berezitasun zenbait kontuan hartu gabe».

Inkestatu horrek Ipar Euskal Herriko gizartean hedatuak diren bi aitziniritzi oroitarazten ditu (bistan da, aitziniritzi horien errealitatea zientifikoki neurtzeko litzateke): «Euskaldun ‘espainolen’ euskara bezala kontsideratu izan daiteke batzutan. Euskalkien suntsitzaile izan daitekela pentsa dezake-te beste batzuk». Beste batek hitzun zenbaiten euskara batuaren kontrako jarrera oroitarazten du: «Muturreko ikuspuntu batzuk: batzuk arrunt kontra, besteak zurruneği beharbada».

- **Euskara batua ez da ezagutua Iparraldean, nahasketa**

Hemen beste ikuspegi bat dugu, aitzinekoari lotua. Lekuko batek dio: «Jendeak eredurik ez du, Euskaltzaindiaren arauak eta *Hiztegi batua* ez ditu ezagutzen. Euskaltzaindiaz ikuspegi zaharkitua du. Hemen bakoitza bere gisa dabil». Eta zehazten du: «Batuari lotuak diren arazoak Iparraldean Hegoaldeko euskararen eragina da». Beraz euskara batua eta Hegoaldeko euskara nahasten dira. Beste batek dio: «Ainitz jendeak ez dute ezagutzen euskara batua, badela ere ez dakite eta ez dute ere batere sendi batu horren beharra. Emeki bada emeki gauzak ari dira aldatzen». Eta horrek: «Iduritzen zait arazorik handiena dela euskalkiak eta batuaren arteko nahasketa: gero eta gehiago jendeak, aditzarentzat, erranaldi berean erabiltzen dute berdin lapurtar forma bat, eta segidan batuazko forma bat, gehienetan, ene iduriko, lapurtar forma ezagutzen ez dutelako... berdin nafartar ala xiberotarrarentzat». Ber ildoan beste horrek: «Batez ere ez delarik alfabetatua, euskara batuaren arauak ez ditugu aski hurbiletik lantzen, ez ditugu ongi ezagutzen, batzutan nahasketa egiten». Irakasle batek: «Ene ikasleekin ikusten dituz-

tan problemak dira ez dakitela zer den euskara batua eta zer ez den. Zonbait aldiz batu egiteko nahiarekin (...) hemengoa baztertzen dute ustez ez dela batua. Adibidez *ene* bezala, ezarriko dute *nire* kopietan pentsatuz *nire* dela batua eta *ene* ez».

Inkestatu horrek, batua eta euskalki bat ezagutuak baldin badira ere, bien arteko oreka zailtasuna aipatzen du: «Ene ustez, euskaldun anitz nolabaiteko oreka baten bila gabiltza: euskara batua erabili, bai, baina zenbatetaraino? Euskalkien ezaugarri batzuk ere atxiki nahi ditugu, baina zein?». Horrek ere holako kezka: «Testuinguruena: noiz baliatu batua, noiz euskalkia?»

- **Euskara batua arazoa da euskaraz eskolatuak ez direnentzat**

Lekuko batek: «Eskolatua ez den jendearentzat gogolan gehiegi eskatzen duke, bereziki aditz batuaren aldetik, nahiz eta, eskolatuak denak ere indar berezi bat egin behar duen, astekari, egunkariak irakurtuz edo irratia entzunez, euskara batuaren bilakaera jarraitzeko». Beste batek: «Euskara batuari baino, belaunaldi arteko komunikazioari lotutako trabak dira uste dut. Eskola bidez euskaldundutako belaunaldiek ez dute arazorik nik uste. Etxeko euskara naturala dutenek dute berenganatzeko kezka gehiago. Baina zubiak eraikiz lortzen da gainditzen». Horrek batua ezagutzen dutenen eta ez dutenen arteko desbiderapena azaltzen du: «Ikastolak eta gau eskolak lotu dira euskara batuari, bai eta han hemenka aditu batzuk, baina ez jendetza arrunta. Euskalkiek dute oraindik lehentasuna. Jende batzuk batua hastio dute, beste zenbaitek ez baitezpada baina ez dute pratikatzen, ez ahozkoan, are gutiago idatzizkoan». Inkestatu horrek euskara batuaren ez ezagutzearen bi ondorio ezkor azaltzen ditu: «Iparraldeko anitzek ez dute (ongi) konprenitzen, bereziki ikastolan edo eskolan euskara ikasi ez duten horiek. Ondorioz, batua ez dute onartzen (beren) euskara bezala, beren euskara propioa pixka bat mespretxatzen dute». Beste batek: «Etxen ikasi duenak eta ez dena alfabetatua (anitz badira 40 urtetik harat, Lapurdi barnealde, B. Nafarroan eta Xiberun), horiek ez dakite nola erabili aditz bat. Adibidez “eginen dizut” erraiteko orde “eginen dautzut” erranen dute ez baitakite dizut erabiltzen denik ere. Ez dituzte euskara batuaren araudiak ezagutzen». Azken aipamen bat: «Agian ulertze arazo batzuk, euskara etxean ikasi duten adineko batzuekin. Xibe-

ruan, arazo horiek okerragoak dira, euskaldun zaharrek xiberutarra baizik ez baitute entzun».

- **Euskara batuak euskalkiak ahul litzake**

Hau da Ipar Euskal Herrian hedatu den beste aitziniritzi bat. Inkestatuek ez dute hola pentsatzen, baina kezka hau aipatzen dute: «Gero badira euskaldun batzuk ez dutena nahi batuera erabilia izan dadin, euskalkiak galtzeko arriskuan direla argumentatuz. Eskualde batzuetan azkarrago susmatzen da hori, Xiberun gehienbat». Inkestatu horrek lexiko arazoa azaltzen du: «Hiztegi kontuak dira gehien bat, nire iritzian. Argi da, Hego Euskal Herriko hedabideetan baliatzen den «euskara batu estandar» horrek euskaldunen gehiengoaren kokaleku den Gipuzkoaren erdialdeko hitzez osatuta dagoela, han ere egon daitezkeen euskararen berezitasunen eta –nola ez?– Ipar Euskal Herriko euskararen hiztegi zabaltasunaren kalteetan». Beste horrek, euskalkien galtzeaz gain, gorago aipatu den nahasketa azpimarratzen du gazteen hizkeran: «Ahozkoan bereziki naturaltasun falta gerta daitekeela, eta Iparraldeko edo tokian tokiko berezitasun batzuk galtzen direla; hots gazte anitz bereziki, gipuzkeraz ari direla, Iparraldekoak izanik ere».

- **Euskara batuaren “musika” ezberdina da**

Inkestatu batek idazten du: «Orokorki, inpresione hau datorkit (behar bada euskaldun zahar batentzat baizik balio duena) Iparraldeko euskara eta batua (gipuzkera) ez dira berdinak, ez dute musika bera. Gurea ibai goxo bat da. (...) Batuak badu, nik maiz senditzen dudan arabera bederen, halako metaliko bortitz bat». Galderari erantzun dioten hogeita hamasei inkestatuetarik bik dute holako ikusmolderik aipatzen. Bigarrenak, elkarriketatuak, dio: «Problema da euskararen galtzea, hori bai musika joana delarik eta hainbertze hainbertze trufatu baitira xaharretaz. (...) Pentsatzen dut trauma batzuk lehenagokoak izan direla; hori gehitu da, gehi trauma delarik ere musika horren galtzea».

Oro har, aipamen eta ikusmolde ezberdin horiek kontuan hartuz, erran dezakegu Ipar Euskal Herrian arazoak baino zailtasunak badirela euskara batuaren eta euskalkien artean. Oroitaraz dezadan inkestatuen

% 87,50ek euskara etxean ikasi dutela eta ondorioz haur denboran euskalki batez menperatu direla eta, bestetik, % 95ek Ipar Euskal Herrian beharrezkoa ikusten dutela euskara batuaren izatea. Halere, emeki-eme-ki, zailtasun horiek konpontzen dira euskara batuaren ezagutzaren garapenarekin. Bistan da euskalkiak eta tokiko hizkerak arriskuan direla, gutiago transmititzen baitira, baina ez bereziki euskara batuarengatik, lehenik hizkuntza-komunitate elebidun horretan nagusitzen den frantses hizkuntzarengatik baizik.

3.2. 9. Iparraldean egiten diren huts moten artean, zoin dira larrienak, zure ustez? Zoin dira ohikoenak?

- **Galdera honen helburuak**

Galdera horrekin inkestatuen beste alde bat agerrarazi nahi da. Ikusi dugun bezala denak era batez preskribatzaileak baitziren (irakasle, idazle, kazetari, itzultzaile, euskara teknikari... izanez), euskararen kalitatea nola ikusten zuten erran zezatela zen helburua. Hori ere lagungarria izan baitzitekeen EEE euskarri numerizatuaren sortzaileentzat eta erabiltzaileentzat: euskararekiko arazoak, dudak, balizko «hutsak», frantsesaren eragina, kal-koak, etab. agerraraztea.

Bederatzigarren galdera horrekin euskararen balizko puristek, garbitzaileek, zuzentzaileek, hipertzuzentzaileek, arauzaileek beren ikusmoldea eman zezaketen, baina bai ere eskalaren beste buruan “huts” nozioa bera dudan ezartzen zutenek edo hutsik ikusten ez zutenek. Oro har, inkestatuen hizkuntza-jarrera eta hizkuntza-zentzumena atera zitezkeen, berriz denek euskararekin lanbidea dutela oroitaraziz.

- **Galdera honi lotuak diren zailtasunak. Huts bat zer da?**

Lehen zailtasuna huts bat zer den jakitea da⁴. Beste zailtasunetarik bat da jakitea aipatu den hutsa euskara ikasten dutenek egiten dutenetz, euskal-

⁴ Horri buruz, frantsesa irakurtzen duenak Henri Frei hizkuntzalari suitzarraren 1929ko *La grammaire des fautes* liburua hastapenetik bukaerara irakurri beharko luke. Hona bakarrik Sarreraren

dun berriek ala ez, euskara guti erabiltzen dutenek edo egun oroz euskaraz mintzatzen diren Iparraldekoek. Irakasle horrek euskara ikasle heldu batzuen joera azaltzen du, frantsesez pentsatzea eta itzultzea: «Frantsesetik itzultzea nik uste dut B maila batetik goiti hori gutiago egiten da. Dependitzen du ikasleaz. Batzuk atxikitzen dute luzaz... biziki luzaz».

Hemen ere banan-banan inkestaturen iruzkinetan atera ditudan «huts motak» aurkeztuko ditut. Inkestatu batek “huts” bat baino gehiago aipa ditzake, batzuek hamar bat. Identifikatu ondoan sailkatuko ditut, huts bakoitza zenbat lekukok aipatu duten kontatuz. Berrogei inkestatuetarik bik galderari ez diote erantzun. Usuenik lekukoek «huts larrienak» eta «ohikoenak» ez dituzte bereizi. Batek idazten du: «Ez naiz gai hierarkia baten egiteko». Beste batek: «Zoin da larritasunaren neurria?». Eta bigarren mailako euskara irakasle batek hori dio: «Ez nezake erran larriena denik. Baina hau da niri txokatzen nauena eta ari bainiz egun guziz horren kontra borrokatzen klasean ikasleekin. (...) Behar bada horiek [ikasleek egiten dituzten hutsak] nagusituko dira eta hemendik hogoi urtera norma izanen da, araua izanen da eta hala» (horri buruz ikus Frei, 1929). Ondoko bilduman aipatu diren huts denak ez ditut zerrendatuko, baina bai gehiengoak. Inkestatu horren ustez huts anitz badira: «Larrienak: Hainbeste dira!!! Gramatika alorretik haste... Eta egoera tamalgarri honetan, he-dabideek –gehienez, euskarazko telebista eta irratiek– dute erantzukizun handiena». Eta horrek galderari hola erantzuten dio: «Ez dakit. Baina irratia anitzetan entzuten dut, eta anitzetan, frantsesetik hartu esamol-deak entzuten ditut».

Baina inkestatu horrentzat hutsa ez da gaia: «Ez dakit. Ez naiz batere euskara garbi eta on baten aldekoa. Nire ingurune familiar guzia erdaldun hutsa izan da betidanik. Etxeko euskara zer den ez dakit. Ikastolari esker euskaldundutako produktua naiz. Hutsak baino jendeak interakzioan ikus-tea zait inporta». Elkarriketatu batek dio: «Beraz zer da hutsa eta zer da ez?» Beste lekuko horrek erantzunean hizkuntza-hutsak baino euskaldun

lehen bi erranaldiak, nik itzulirik: «Zuzenaren eta ez zuzenaren arteko bereizketa gramatikariak topatzen dituen lehen zailtasunetarik bat da. Zer da deitzen hizkuntza-gertakari “zuzena” eta, “huts” bat denean, horrekin zer erran nahi da?» (17. or.).

batzuen jarrera salatzen du: «Euskaraz idazten eta irakurtzen ez ikastea; bilkura “nagusietan” frantsesez aritzea euskaldunekin; haurrei euskara ez irakastea eta ikastoletan ez jartzea. Frantsesez mintzatzea beti hasieran eta tartean euskaldunekin ere; taldean, euskara ez dakien bat dagoen bakoitzean, frantsesez egitea etengabe...».

- **Hutsik ez**

Batzuek huts nozioa bera zalantzan ezartzen dute. Hona idazle baten oharra: «Ez dut huts hain larririk ikusten gure erabileran, huts bakarra litzateke Iparraldeko euskara (batua) ez batere erabiltzea, preseski hutsak (larriak) egitearen beldurrez». Eta beste ikusmolde bat: «Batzuentzat huts bat dena ez da denentzat hala izaiten. Badira beti xuxenketa egiten artzen direnak, berek hutsik sekulan egiten ez balute bezala. Barkatu, ni ez naiz horietarik». Elkarriketatu horrek Iparraldeko joera eta Hegoaldekoa konparatzen ditu: «Nik ez dut ikusten Iparraldean egiten dugun huts berezirik; ez balinbada erdararen eraginez. Eta gainera Iparraldean Hegoaldean baino ainitzez hitz gutiago erabiltzen da frantsesetik españoletik datozenak. Hegoaldean, leku batzuetan, hango euskara ulertzeko behar duzu ere espainola jakin».

Baina gehiengoak hutsak aipatzen ditu. Irratilarik batek hau dio, bere lanaz mintzatuz: «Hutsak. Errepikatzen ditugu eta zaila zaigu garbitzea zeren eta oso errotoak dira gaur egunean akats horiek. Eta orduan lan bat egin behar horiek kentzeko. Denek dakizkigun akatsak dira. Batez ere frantses itzulpenak, pasiboa, nor nori nork. Baditugu bai akatsak». Eta itzultzaile horrek hizkuntza kalitatearen beste alde bat Ipar Euskal Herrian aipatzen du, arazo bat bere ustez: «Ez nuke horrela erantzungo [huts larrienez edo ohikoenez]. Ene ustez, IEH-n hizkuntzaz arduratzen diren zenbait pertsona eta erakundek erabaki batzuk hartzen dituzte “en petit comité” eta ondorioz ikuspegi hertsiegia dute».

Nik balizko «huts» edo arazo horiek ez ditut iruzkinduko, inkestatuen usteak sailkatuko eta azalduko ditut, besterik ez. Adibideak inkestatuenak dira; emanik den lehen forma okerra edo ezegokia da eta bigarrena zuzena edo egokia beren ustez, bistan da.

• **Frantsesaren eraginari lotuak diren hutsak: itzulpen zuzenak, kal-koak...**

- frantses itzulpenak, euskara frantsesez pentsatua baita: 4 inkestatu. Batak hau idazten du: «Hutsak egiten dira frantsesez pentsatzen delako eta gero euskarara itzultzen». Eta beste batek dio: «Ez nuke huts zehatzik aipatuko. Euskarazko testu anitz frantsesez pentsatuak direla ikustea iduri zait aski larri»;
- code-switching: 1 inkestatu. Esplikatzen du: «Code-switching egitea, erran nahi baita hizkuntza batean hasi bestean burutu, diglosia handi baten seinalea: euskaraz hasi frantsesez bukatu, frantsesez hasi eta euskaraz bukatu»;
- nor-nori-nork (eta nor-nori), datiboaren marka kenduz aditzean: 7 inkestatu;
- bihurkaria eta elkarkaria: 2 inkestatu. Adib. “ikusten naiz” / “ene burua ikusten dut”, “ikusiko gira” / “elkar ikusiko dugu”;
- alokutibotasuna ez erabiltzea: 2 inkestatu;
- alokutibotasuna erabiltzea testuinguru neutro batean: 1 inkestatu (irratian adibidez);
- pasiboaren erabilera: 2 inkestatu;
- narrazio orainaldia: 2 inkestatu. Adibidea nik asmatua da: «1849an Etxahun Barkoxek Xahori omenaldi testu bat idazten dio»;
- perpaus konpletiboa ez erabiltzea (-la): 1 inkestatu. Adib. «Ikusten dut hor da»;
- erramolde kalkatuak *gose, bero*: 2 inkestatu. Aipamena: «Gose dut edo bero dut!»;
- aditz ez jokatuaren erabilera: 3 inkestatu. Aipamena: «-tea/tzea atzizkiaren gehiegizko erabilera, -teko/tzeko edo -tzero(t)/tera(t) atzizkiaren orde»;
- erakusleen erabilera okerra: 1 inkestatu. Aipamena: «“Hau, hori, hura” erakusleen erabilera okerra hurbiltasuna kontuan hartu gabe»;

- ergatiboaren ez ematea (edo gaizki): 12 inkestatu. Lekuko batek “k sakratua” deitu du. Beste batek idazten du: «“Mattin erran du”, ez bakarrik euskaldun berrienganik, euskaldun xahar zenbaitenganik ere»;
- partitiboaren galtzea: 2 inkestatu. Batek idazten du: «Nik erran neza-ke ohikoenak direla larrienak usu eta frantsesetik hartzen den guzia. Ez dakit, ez da hanbeste ergatiboarena, ene iduriko ikusten dut biziki partitiboa galtzen ari dela»;
- instrumentala ez erabiltzea: 2 inkestatu. Aipamen bat: «“Baionari bu-ruz hitz egin du”, hobe “Baionaz hitz egin du”»;
- inesiboaren erabilera adlatiboaren ordeztu: 5 inkestatu. Adib. «Baionan joan naiz»;
- inesiboa gaizki erabilia: 1 inkestatu. Aipamena: «Lokatiboan -an bu-kaera kontsonanteen ondotik ere, -ean beharrean: “hitzan”»;
- mugatua (-a) mugagabearen ordeztu: 2 inkestatu;
- *bere* / *haren*: 3 inkestatu. Aipamen bat: «Bere desagertu zaigu»;
- *sobera* / *zinez*, -egi: 4 inkestatu. Adibideak: “sobera ongi zen” / “zinez ongi zen”, “sobera beroa” / “beroegi”;
- *baizik* (ez gabe) = *bakarrik*: 4 inkestatu. Adib.: “Hau baizik da”;
- zenbakiak: milakoak *eta* gabe: 4 inkestatu. Aipamen bat: «“mila hama-sei”, nik segurik beti bi mila eta (sic) hamasei entzun eta erran dut»;
- frantses hitza -arekin euskalduntzea: 1 inkestatu. Aipamena: «Fran-tziako mintzajearen “a” final bateki hitz baten euskalduntzea»;
- hizak -a berezkoa (organikoa) duen ala ez ez jakitatea: 3 inkestatu;
- hitzen ordena erranaldian: 5 inkestatu. Lekuko batek: «Ikusi nahi dut eta ez *nahi dut ikusi». Beste batek (zuberotarra): «Errandüren aldrebes ezartea (euskal egituraren ez errespetatzea)». Eta horrek euskara ikasten dutenez: «Euskaraz erraiten dute frantsesez erranen luketen bezala»;
- *r* edo *rr* gaizki ahoskatuak: 2 inkestatu.

- **Hegoaldeko euskararen, gipuzkeraren eraginari lotuak diren hutsak**

- aginteran edo subjontiboan, aditzoina + aspektu burutuaren egitura erabiltzea (“partizipioa”): 2 inkestatu. Adib. aginteran *Atxiki!* erratea *Atxik!*-en ordeztu, *Hartu!* *Har!*-en ordeztu. Aipamena: «Partizipioaren erabilera nahasia, Gipuzkoaren mimetismoz»;
- *deitu* (nor-nori-nork, Iparraldean nor-nork): 1 inkestatu. Adib. Hegoaldean «Deituko dizut»;
- iraganaldia (hurbila eta urruna): 1 inkestatu. Hau idatzen du: «Iragan hurbila eta iragan urruna ez dira gehiago kontutan hartzen. “Duela bi hilabete etorri zen”, “atzo etorri da”: orai dena iragan urrunean ezartzen da, atzokoa ere, “atzo etorri zen”»;
- diskurtso markatzaileak: 1 inkestatu. Hau idatzen du: «Hegoaldean baino urriago frantses juntagailuak erabiltzea (*bon, voilà*), nahiz gaztelaniazko *bueno* eta *klaro* ere entzuten»;
- lexiko-mailegatzea (Iparraldean baliokidea izanik ere): 1 inkestatu. Adibidez: *bikain*, *existitzen*. Hori huts bat ez da, ez ere bi hizkuntzen arteko kode-nahasketa. Iparraldeko lexikoaren aberastea da era batez, baina bai ere pobretzea izan daiteke ordezkatzeko osoa baldin bada.

- **Euskara mota ezberdinen nahasketa**

1 inkestatu. Lekukoak idatzen du: «Lehen, jendea bere herrian bizi zen, ia bizi osoa, beraz euskalkiak bazuen bere eremua, garatzen zen lekuaren, lanbideen ... arabera. Biztanleak guti mugitzen ziren. Gaur egun eskema hau guztiz aldatu da. Adibidez, nahiz eta Garazin bizi, batek Baionan lan egin dezake, eta asteburuetan Donostiara edo Bilbora joan. Euskara “nahasketak” gertatzen dira».

Hori 3.1. lerroaldean ikusi dugu jadanik. Nahasketa hori *stricto sensu* huts bat ez da.

- **Erregistroak gaizki erabiliak**

1 inkestatu. Hori aitzineko nahasketari hurbil zaio, berdina ez baldin bada. Inkestatuak erregistroa zer den zehaztu ez du.

- **Iparraldeko tokiko erramoldeak**

- nor-nork erabiltzea nor-nori-nork-en ordeztan (kostaldeko soletismoa deitu dena): 4 inkestatu. Lekuko batek aditza forma hori aipatzen du: «“Ogia ekarri nau” Sara, Senpere, Azkaine aldean...». Beste baten adibidea: «*zaitut* Saran *dautzut*-en ordeztan»;
- *ukan* / *izan*: 2 inkestatu. Aipamena: «Lapurdin, Senpere, Azkaine, Sarako inguruetan, “ukan” aditza ez da kasik sekula erabiltzen, “izan” aditzak du ordaintzen. Batzuentzat tokiko berezitasun bat da, beiratu behar litekena; enetzat huts bat da, zuzenarazi behar dena».

3.3. 10. Zuk, euskara batua non, noiz eta norekin baliatzen duzu?

- **Galdera honen helburuak**

Hamargarren eta hamaikagarren galderen bidez euskara batuaren eta euskalkiaren –inkestatuak bat baldin bazuen– erabilera ebaluatu nahi zen. Bistan da, hori gogoan atxiki behar dugu beti, holako emaitzak inkestaren erantzunetarik ateratzen dira, erran nahi baita datu aitortuak direla eta ez zientifikoki neurtuak. Datu zehatzak ez dira, baina halere, pertzepziozko dialektologiak printzipioz onartzen duen bezala, baliagarriak errealitatea hobeki ulertzeko.

Hamargarren galdera hau argia zen eta inkestatuak interpretazio arazorik ukan ez zukeen, beste galdera batzuekin gerta zitekeen bezala. Helburua zen jakitea hizkuntza-profesional horien euskara batuaren baliatzea nolakoa zen. Berrogei inkestatuekin erantzun fidagarria atera zitekeen, horietarik lauk (% 10) euskalkirik familian edo haurtzaroan ikasi ez zutela kontuan hartuz. Azken horiek euskara batua edo hobe euskara batu bat baizik ez dute ezagutzen eta baliatzen.

Inkestatuek denek euskara batua edo, hobeki erran, euskara batu mota bat (edo gehiago) ezagutzen dute. Berrogei inkestatuetarik hiruk galdera horri zuzenki erantzun ez diote. Erantzunak aski laburrak izan dira. Bizpahiru erranaldi usuenik. Batzuetan hitz bat. Adibidez: Non? «Hegoaldean».

Bestalde, gehienak, erantzun orokor bat eginez, hiru galderei (non, noiz, norekin) banan-banan erantzun ez die.

- **Erantzunen aniztasuna eta inkestaturen euskara batua**

Erantzunen bilduma aurkeztu baino lehen, hona aipamen hautatu batzuk inkestaturen jarreraren aniztasuna agerrarazteko. Hegoaldean sortu den irratilari batek dio: «Egunero baliatzen dut euskara batua. Ni Hendaian bizi naiz eta Hendaian badugu nahasketa handi bat. (...) Hegoaldekoek erraiten didate mintzatzen zira Iparraldekoak bezala, eta hemen errango didate mintzatzen zira oraindik gipuzkeraz». Nafarroa Beherean sorturik den euskara teknikari batek idazten du: «Euskara batua lanean erabiltzen dut (...), Hego Lapurdiko jendearekin ere bai. Berriki Donostian plantatu naizenez Donostian ere. Oro har eta aldaera batzuk erabiltzen badituzte ere (*gira* eta ez *gara*), batuko aditz formak gero eta gehiago erabiltzen dituzte (*dizut* eta ez *dauzute*, *diot* eta ez *dakot*)». Kulturen ari den beste batek: «Ez dut uste euskara batua baliatzen dutenik, nahiz hizkuntza pixka bat landu, nahasketak egiten segitzen dut, burura heldu dena naturaltasunez erabiliz. Saiatzen naiz leku publikoetan egiten dituzten animazioetan euskara batutik hurbil den hizkuntzan aritzea – menturaz ere Hegoaldera joaten naizelarik, Hegoaldeko hedabideetan hitza hartzen dutelarik?». Bigarren mailako irakasle batek dio: «Kasik nehorrekin. Ikasleekin idatzia; idazten dutelarik bakoitz euskara batuan idazten dut. Hori da araua nire buruari erran diotanez, bortxatzen niz horren egiterat. Batzuetan eskapatzen zaut, baina gero hop! Ezabatzen dut. “Eta barkatu erran dugu euskara batuaz idatziko gurela: *zaut* ez, ez, ez, *zait* idatziko dut, eta *daut* ez, ez, ez, *dit*. Bainan gero erabiltzen ez etxen, ez lan-kideekin. Klasean”. Bigarren mailako irakasle ohi batek batua beti erabiltzen du, baina “egokitua” solaskidearen arabera: Non? «Toki gehienetan batua egokitua». Noiz? «Denbora gehienetan batua egokitua». Norekin? «Denekin batua egokitua». Kazetari zuberotar batek: Norekin? «Zuberoan gertatzen diren Hegoaldeko euskaldunekin hitz egitean, adibidez... eta behin baino gehiagotan gertatu da hauek ez zirela ohartuta ere Zuberoan euskalki berezia dugula, uste zutelarik nire euskara estandar hori bera mintzatzen gurela hemen!... Zuberotarrez soilik mintzo zirenekin topatzen zirelarik, euren harridura ez zen gutxikoa...». Euskara teknikari batek, euskal-

dun berri denak: «Gehienetan, jende gehienarekin. Nik euskara 26 urtetan ikasi nuen, eta nire gurasoak ez dira euskaldunak. Beraz euskara batua baliatzen dut, nahiz eta jende batzuekin, euskalkiek batzuetan pixka bat “kutsatzen” nauten (hots Hegoaldekoekin baliteke “zer moduz” erratea, edo Baxe-Nafartar batekin “dautzut”)».

- **Sailkatze zailtasunak**

Erantzunak taula batean sartzen saiatu naiz (1. taula). Inkestatuak erantzun bat baino gehiago eman litzazke eta erantzun ezberdin horien sailkapena egiteko, zailtasun batzuk agertu zaizkit. Batzuek, adibidez, euskara batua Hegoaldean, Hegoaldekoekin erabiltzen dutela idazten dute, eta ez besterik. Aldiz, Ipar Euskal Herrian euskara batu berezi bat badela idatzi dute. Beraz, hamargarren galderari erantzuten diotenean aipatzen ez baldin badute ere, lurralde horretan ere batzuetan euskara batu bat erabiltzen dutela susma dezakegu. Berriz, *euskara batu* erramoldearen definizioaren aniztasuna agertzen zaigu, nahiz gizarte-mailan, hizkuntza-komunitatearen mailan, nahiz norbanakoaren mailan. Hau da, adibidez, galderari zuzenki erantzun ez dion euskara teknikari batek idatzi duena. Erabiltzen duen euskara (batua)ren izaera azaltzen du: «Ez dakit xuxen zer nolako euskara dutan, sar hitzan erran baitizuet partez aitamen erranetarik ikasia nuela (biak xiberotarrak) eta bestalde auto-formakuntza ez estandarra (hein batean hainbat euskalkien arteko nahasketa, batuarena sartuz), orduko lagun euskaldun euskalki ezberdinak medio. Batua ez estandarra erabiltzen dudala banerrake, ausartzen baniz». Itzultzaile horrek bere estrategia eta euskara batuaren mota azaltzen ditu: «Nonahi. Noiznahi. Nornahirekin ia. Aitortu behar dut gure euskalkia erabiltzean ere, den-mendreneko duda badudalarik –batez ere aditz forma ezohikoetan (ezan + KE!)–, batura jotzen dudala. Salbuespen bakarra, *toka-noka*. Orduan erosoago ari naiz “Baigorriko moldean” batuaz baino». Ondorioz euskara batu mota hori Baigorriko hizkerak “kutsatua” da, partez bederen.

Idazle horrek idazten du: «Denetan, lagun artean, Iparraldean bezain Hegoaldean, baina batzuetan nahitara etxeko euskaraz ere ari naiz». Beraz taulan “Beti” lerroan eman dugu, nahiz eta euskalkia ere batzuetan erabiltzen duen. Beste adibide bat. Unibertsitateko irakasle elkarrizketatu batek dio: «Iparraldean dependitzen du bainan ingurumen akademiko batean dudarik

gabe. Irratian ari nizalarik kasu emaiten dakot ene hiztegi, ene hitz egiteko moldeari dudarik gabe; eta klasean ere bainan ez ukatuz ene jitea. Nondik heldu nizan ez dut hori ukatzen eta gero Hegoaldean dependitzen non ere». Taulan hiru lerrotan eman dut: “Hegoaldean”, “lanean” eta “ekintza formaletan”. Beste batek euskalkia ez dutenekin eta Hegoaldean aipatzen ditu. Bietan eman dut, nahiz euskalkia ez dutenen artean Hegoaldekoak dauden.

- **Non – Noiz – Norekin: bilduma**

1. taula. Lekukoen euskara batuaren erabilera

	Zenbat	% (36 inkestatuetarik)
Beti (= nonahi, denekin)	5	% 13,88
Hegoaldean / Hegoaldekoekin	19	% 52,77
Lapurdiko kostaldean	3	% 8,33
Ene euskalkia ez dutenekin	6	% 16,66
Euskaldun berriekin	4	% 11,11
Euskara ikasten dutenekin	2	% 5,55
Ezezagunekin	3	% 8,33
Solaskidearen arabera	3	% 8,33
Lanean	18	% 50
Ekintza formaletan	5	% 13,88
Irakurketan / medietan	2	% 5,55
Etxean	1	% 2,77
Sekula	0	% 0
Erantzunik ez	4	kontuan ez hartuak ⁵

Hona ondorio zenbait. Erabilera aipatuenak dira, alde batetik Hegoaldean eta Hegoaldekoekin (% 52,77), eta, bestetik, lanean (% 50). Lehena ez da estonagarria. Badakigu hastapenetik euskara batuaren sortzaileek helburuen artean hori bazutela: euskaldunen arteko euskara idatzi mota bat

⁵ Galdera honen kasuan, eta ondokoan, Hegoaldeko dialektologoaren erantzunik ez ditut kontuan hartu.

sortzea elkar ulertzeko. Bigarrenak erakusten du euskara batua inkestatu horien lan-hizkuntza dela edo bederen hizkuntza erabilia lan egiteko. “Beti” erran dutenekin lotuak, kasik % 60 dira lanean erabiltzen dutenak. Gehiago direla pentsa dezakegu. Aldiz, ikusiko dugun bezala, euskalkia gutirentzat da lan-hizkuntza (irratia batzuetan salbu, Xiberoko Botza adibidez).

3.4. 11. Eta zure euskalkia non, noiz eta norekin baliatzen duzu?

- **Emaitzak ulertzeko ohar batzuk**

Berrogei inkestatuatarik hiruk galdera horri zuzenki erantzun ez diote edo elkarrizketan inkestagileek galdatu ez diete. Erantzunak sailkatu eta, 2. taulan bildu ditut. Erran bezala, 35 inkestatuk (% 87,50) euskara etxean ikasi dute, euskalki bat beraz. Batek bere euskara zein den ez zekiela idatzi du (3. 3. ikus), baina «etxean, ikastolan eta gizartean» euskalkia erabiltzen zuela. 10. galderan euskara batua beti erabiltzen duela idatzi baitu, ez dut hemen kontuan hartu.

Bik euskalkirik ez dute. Horietarik batek idazten du: «Ez dut euskalkirik, nerea den euskararik. Aldiz, Xiberoan, Lekeitio, Oztibarren edo Senperen nire solaskideekin sinkronizatzeko ahaleginak beti eginen ditut». Inkestatuen gehiengoak erantzun bat baino gehiago eman ditu. Bistan da, gerta daiteke duen erabilera gune (non), une (noiz) edo solaskide bat (norekin) aipa ez lezakeela. Hau da ere inkesta mota honen beste muga eta ahulezia.

- **Euskalkien erabileraren aniztasuna**

Dialektologo izan gabe, Hegoaldean sorturik den irratilari horrek euskalki-aniztasuna erabiltzen saiatzen da, familian edo lanean: «Joaiten naizenean nere herrira euskalkia erabiliko dut nere herrikoa. Burasoekin beste euskalki bat erabiliko dut eta hemen lanean edo juntatzen banaiz Azkaine-ko komertsio batekin entseatuko naiz berera moldatzen. (...) Belarrian atxikitzen ditugu erregistro ezberdinak, orduan entseatzen gira xurgatzen (...). Hizkuntza da gure artea hurbiltzeko jendearengana. (...) Borta idekiko digu hizkuntzaren bidez. Ni beti entseatzen naiz (...). Hortarako da euskalkia interesgarria neretako. Gero xiberutarrez aritzen nizen ez dut atxemaiten

baña bon entseatzen naiz». Idazle batek: «Anai arrebeekin, Oragarreko eza-gunekin, Amikuzeko jendeekin. Baina euskalki hori ere batuaren baitan dagoela iruditzen zait, eta ez dut halako konplexurik erabiltzeko». Inkestatu horrek bi euskalki balia litzake: «Familian, haur eta ilobekin, anaia-arrebekin, koinatekin.... eta gurutzatzen ditudan xiberotarrek. Bainan gertatzen zait ere lapurtarrez mintzatzea, solaskidea lapurtarra dutalarik eta sentitzen dutalarik ez duela euskara batua aise ulertzen».

Aspaldidanik Iparraldean bizi den bizkaitar horrek idazten du: «Bizkaiko eta bizkaiera egiten den Gipuzkoako eta Arabako herrietako lagunekin bizkaiera batua. Lehen Gipuzkoako beste herrietako gipuzkoar lagunekin gipuzkeraz ari nintzen, baina orain batueraz gehienetan. Iparraldeko gehienekin ere batueraz saiatzen naiz». Taulan lekuko hori “eskualdean” sailean eman dut, haren euskalkia Hegoaldekoa dela jakinez. Beste inkestatu horrek alokutibotasuna nola eta norekin erabiltzen duen zehazten du: «Toka-noka ene anaiarekin Landibarren, hurbileko adixkide batzuekin. Xuka: amarekin, familiarekin, Garazi-Oztibarre eskualdeko lagun batzuekin.... Zuka, ene euskalkian: lanean, eguneroko harremanetan».

- **Non – Noiz – Norekin: bilduma**

“Familia / etxean / sortetxean” saila anitz aipatu izan da (inkestatuen % 67,65). Halere sortetxean herrian gurasoekin mintza zaitezke, aldiz bizi etxean ez. Inkestatu batek, norekin galderari erantzunez adibidez, familia eta haurrak aipa litzakeela. Beraz sail hori ez da zehazki definitua eta zenbaki hori arretaz kontuan hartu behar da. Bestalde, “Familia / etxean / sortetxean”, “Haurrekin” (% 17,56), “Anai-arrebekin” (% 11,76) eta “Gurasoekin” (% 23,52) lotzen baldin baditugu, euskalkiak biziartzeko, familia era zabalean harturik gune estrategikoa dela ohartzen gara. Irakurle batek hori erran lezake: «Baina, hori bagenakien». Bai, edo hobeki erran, «susmatzen» edo «pentsatzen genuen». Inkesta honek zantzu bat gehiago ekartzen du. Hau da berrogei urte guttiagoko elkarrizketatu batek dioena. Hurrengo galderarekin aipatuko dugun euskararen erabileraren bilakaera bere euskal hitzun ibilbide pertsonalean erakusten du: «Ene amarekin. Gehiago sortetxean. Familiarekin. Nik erranen nuke nire biziko garai bati lotuak diren harremanei. Ahoz. Gero, idatziz pena dut erraitea, bainan uste dut sekulan

2. taula. Lekukoen euskalkien erabilera

	Zenbat	% (34 inkestatuetarik)
Ahal duten leku denetan	4	% 11,76
Iparraldekoekin	2	% 5,88
Euskaldun zaharrekin	7	% 20,58
Solaskidearen arabera	2	% 5,88
Eskualdean	10	% 29,41
Herrian (udala) / sorterrian	8	% 23,52
Karrikan	2	% 5,88
Ingurumen hurbilean, lagunekin	15	% 44,12
Familian / etxean / sortetxean	23	% 67,65
Haurrekin	6	% 17,65
Anai-arrebekin	4	% 11,76
Gurasoekin	8	% 23,52
Gurasoen belaunaldikoekin	1	% 2,95
Adinekoekin	1	% 2,95
Lanean / lankideekin	8	% 23,52
Lan idatzietan	1	% 2,95
Erantzunik ez	6	kontuan ez hartuak

ez litzaidake burutik pasatuko idaztea ene lankide bati edo edozoini euskalki hortan. (...) Nire kasuan hori hala da. Nire kasuan bada gazte denbora euskalkia. Eta gero beste garai batzuk gehiago euskara batuan. Ez dut hortako lotzen modernitate edo zahartasun ixtorio bati».

“Ingurumen hurbilean, lagunekin” (% 44,12) da bigarren sail aipatuena. Erranen nuke euskalkia dela hurbiltasunaren euskara, adiskidetasunarena eta lasaitasunarena. Euskalkiak erregistroetan bere lekua badu. Hori ere «bage-nakien», hemen ildo honetan beste zantzu bat badugu. Eta nik uste, nahi ala ez, denborarekin, euskalki bat menperatzen ez dutenek ere beste erregistroa(k) sortuko d(it)u(z)tela beharren eta zirkunstantzien arabera. Hau da 4. galderari (*Zoin dira euskara batuari lotuak diren arazoak Iparraldean?*) erantzuz-

nez, bigarren mailako irakasle ohi batek idatzi duena: «Erranen nuke erregistroen ez ezagutzak duela muga handiena ezarten. Euskalkiko erregistro zaindua erabiliko balitz, baturako urrats txikia geldituko litzatekeela uste dut. (...) Baina gazteak eremu informalean kokatzen dira gehienetan».

“Haurrekin” sailean % 17,65 guti dela iduri luke. Hain zuzen, inkestatu anitzek, denek egin ez baldin badute, haurrei euskara eman dietela susma dezakegu. Ehuneko hori apala da, baina euskararen familia transmisioa “familiar / etxean” sailean ere sar daiteke. Halaber, “anai-arrebekin” erabilera (% 11,76) apala da; baina anai-arrebekin euskalkiz mintzatzea ere “familiar / sortetxean” sailean sar daiteke.

“Lanean / lankideekin” sailean inkestatuen % 23,52 baditugu. Euskalkia erabilia da bereziki lankideekiko harremanetan lan-hizkuntza gisa baino gehiago. Azken erabilera hori Euskal Irratietan eta *Herria* astekarian gerta daiteke.

10. eta 11. galderen erantzunetarik ondoriozta genezake Fergusonen (1959) diglosiaren definizio klasikoa indarrean litzatekeela Ipar Euskal Herrian. Hain zuzen, euskararen bi barietate, euskara batua eta euskalkia, erabiliak dira, euskaldun batzuek bederen, eta horien arteko sailkatze funtzionala dugu. Sinplifikatzeko, “goi-barietatea” (*high variety*), batua, ekintza formaletan, literaturan, unibertsitatean, administrazioan, lanean... erabilia da eta eskolan nagusiki irakatsia. Euskalkia, “behe-barietatea” (*low variety*), familiar, inguru hurbilean, adiskideekin, alfabetatu gabeko hitzunekin erabilia da, solas informaletan. Baina euskararen kasuan, xehetasunetan sakonki sartu gabe hemen lekuri ez baita, definizio horren muga batzuk laster agertzen zaizkigu: goi-barietatea litzatekeen euskara batua euskalki ezberdinetako hitzunen arteko eguneroko ahozko hizkuntza-harremanen barietatea da eta, bestalde, hitzun batzuen ama-hizkuntza bilakatu da. Fergusonen definizioan goi-barietatearen bi ezaugarri horiek aitzinikusirik ez ziren.

3.5. 12. Zure ustez, zoin da euskara batuaren eta euskalkien geroa Iparraldean?

Hemen, bistan da, nehork ez baitaki zuzen zer gertatuko den, helburua zen berriz ere usteak, sentimenduak biltzea, optimistenak eta pesimistenak,

euskara batuzaleenak eta euskalkizaleenak, etab. Erantzunak 3. taulan bildu ditut.

Hemen, berriz ere, sailkatze zailtasunak izan dira eta hautatu ditudan sailetan erantzunak denak sarraraztea ez da erraza izan. Adibide bat. Inkestatu batek hau idazten du: «Ez dut ikusten euskarari gerorik baturik gabe eta euskalkieri oraino gutiago». Euskara biziko baldin bada, batua azkartuko dela ulertu dut eta euskalkiak ahulduko. Baina dedukzio hori eztabaidagarria da.

- **Ez dakiena**

Hona erantzun bat: «Ez naiz batere gai erantzuteko». Beste bat: «Ez dakit, ni ez naiz azti. Pentsatzen dut halere bermatu behar dugula». Eta beste bat: «Biziki abila dakiena. Ezin da “ustea” aipatu, “esperantza” baizik. Batez ere “geroa” zer den zehazten ez delarik. 50 urteren buruan euskara bizirik izanena da oraindik, batua zein euskalkiak. Baina 300 urteren buruan, ideiarik ez». Inkestatu hori ez dakien sailean eman dut. Eta hau ere: «Ene irudiko, euskalkiak indar handia du, eta atxikia izanen da gazteak haien herrietan gelditzen direno. Pertsonok ingurumenari eta kultura bati lotuak gara, tokitik atera ezkerro, beste eremuetako kulturekin funditzen joaten dela iruditzen zait. (...) hori nehork ez daki nola bilakatuko den, guhaurk ere ez baitakigu zer eragin jasoko eta sortuko dugun». Azken horrek idazten du: «Idatzizkoan, batua nagusituko dela erranen nuke. Ahozkoan, ez naiz aski aditua hipotesia sinesgarri bat emateko». Ez dakienekin sailkatu dut.

- **Geroaz erantzun zehatzik ez**

Hona orain inkestatu batzuek galderaren gaitik kanpo erantzun dutenen aipamen zenbait, kanpo ene ustez bederen. Inkestatu horrek galderari ez dio erantzuten: «Biek jakin behar due». Zuberotar batek hau idazten du: «Ene ustez euskara batua haste batean zinez lagüngarri da eüskaldün berrien. Harreman minimo bat segürtatzen dü eüskaldünen artean». Eta horrek hizkuntzaren kalitateaz idazten du: «Lehenik uste dut alimaleko galtzea izan dela euskalkietan 1910-1940 urteen artean sortu zirenen belaunalditik landa... Hortaz ohartu nintzen ene aita, ama, osaba, izebekin.... Ikusten dut

ene belaunaldikook euskara anitz pobreagoa dugula gehienetan, 1910-1940 urteetan sortutakoek sekulan egiten ez zituzten huts itsusiak eginez, gainera gorago aipatu ditudan batuarekilako nahasketa anitzekin, gure euskalki-ko forma ezagutzen ez dugularik... Beraz, zinez batua beharrezkoa ikusten dut nahi badugu goi-mailako hizkuntza bat atxiki Iparralde huntan...». Beste horrek ere ez du geroaz iritzirik ematen: «Nire ustez, euskara salbatzea izan behar da gure erronka, eta ez euskalkien eta batuaren arteko borrokak edo eztabaidak. Gure hizkuntza bakarra da, forma ezberdinekin, eta gure hizkuntza izan behar da gure kezka bakarra. Euskara batua irakatsiz eta idatziz, eta euskalkiak babestuz».

- **Euskalkien ahultzea eta batuaren azkartzea**

Inkestatu batek idazten du: «Batere ez dakit, baina, itxura guzien arabera, euskalkiak ahultzen, batua azkartzen». Sail honetan sailkatu dut eta ez ez dakitenekin. Elkarrizketatu batek dio: «Galdera zaila da. Euskara batuan oraindik mesfidantza handi senditzen dut. (...) Ikastoletatik jiten direnak, halaere, beste idekitasun bat badute jende helduek ez dutena eta horrek etorkizuna erakusten dit euskara baturantz. Euskara batuaren geroa indartuko dela pentsatzen dut, baina euskara batu Iparraldeko euskalkien zipriztendua». Beste elkarrizketatu batek dio: «Frantsesaren bidetik baldin bagoaz eta euskalkiek ez dute gero handirik. Ez dute gero handirik zeren eta eskolak kakotxen artean bere normalizazio lana egiten baldin badu untsalaz ordoki guziak eta apailatuko dira behar bezala. Ene iduriko eta Bourdieuk erraiten zuen bezala euskalkiak izanen dira des “signes distinctifs” edo talde batentzat edo idazle batentzat, zeren eta denok ikasten badugu mintzatzeko molde bertsua eskolan Iparraldean. Eta hemendik eta hogoita hamar urtetarat Hegoaldean eta Iparraldean euskara bertsua ukanen dugu». Inkestatu horrek idazten du: «Ez zait hain argi, baina, gorago idatzi dutan bezala, iduritzen zait euskalkiak ahultzen ari direla. Gisa hortan, euskara beiratzekotan, iduri luke euskara batuak duela etorkizunean gure hizkuntza zilotik ateratuko».

- **Euskalkien irautea eta batuaren azkartzea**

Posibilitate hori ere badugu. Inkestatu batek: «Ene ustez, euskalkiek irau-
nen dute, euskaldunek irauenen duteno... Eta Iparraldeko euskara batua

gero eta gehiago zabalduko...». Beste horrek hori dio: «Euskalkien geroa euskararen transmisioaren araberakoa da dudarik gabe. Eskolakoa baldin bada transmisioa batua izanen da eta standarte apal hori menturaz». Baldintzak aipatzen ditu, erabaki gabe. Halere sail honetan eman dut.

- **Biak elkarrekin biziko**

Inkestatu batek idazten du: «Biek badute geroa, euskara batua gehiago eremu formalean eta euskalkia/aldaerak (eta xuka, toka, noka ere) nagusiki informalean». Beste batek: «Elkar elikatzen dute, eta elkar elikatzen segituko dute». Soziolinguista horrek euskara biziarazteko baldintzak azpimarratzen ditu: «Eskualkiek iraunen dute, euskarak bizkor irauten badu. Erdibide bat aurkituko da euskara batu modernoa eta euskalki bakoitzaren artean, euskara batu historikoan gertatu den bezala. (...) Problema nagusia da euskararen bizitasuna. Bizkor izanen den neurrian ezberdintasunak barneratuko ditu, eta gizarte bizitzaren aldaketei egokituko zaie. Arriskua da euskara eskola hizkuntza bilaka dadin, gero militanteen hizkuntza eta azkeanean hizkuntzalarien hizkuntza, esperantoa bezala».

- **Euskalkien eta euskara batuaren ahultzea**

Beste ikusmolde bat: «Oro har, euskararen egoera kezagarria da. Bai euskara batuarena baita euskalkiena ere». Ondoko erantzun hau ere sail honetan sailkatu dut: «Ipar Euskal Herrian, oro har, euskararen egoera da zinez larria, mintzamenaren kontutik batez ere.... (...) Inkesta guziek segurtatzen eta errepikatzen daukute euskaradunen kopurua emendatuz doala belaunaldi gazteetan.... baina mintzamenak taigabe gibel egiten du!!! Bada hor zerbait makur dabilena... eta ez zaut iduri euskalgintzako egitura arduradunak eta are gutxiago politika kargudunak egoera horretaz horrenbestean ohartuta diren. Egoera larri horretan euskalkiek dute gehienik peko errekaratzea pairatzen. Nahiago nuke jakin Lapurdin eta Baxenabarren zenbat haur eta gaztek dakiten euren eskualdeko euskalkian edo azpieuskalkian mintzatzen... Oso guti izanen dira... Behar bada guraso euskaldunak dituztenak eta euren familietan euskalkiaren erabilera atxiki dutenak. Züberoako euskalkiaren egoera hobea da, hemengo Ikastola eta Gaü Eskolan zuberera baita irakatsia...».

- **Euskalkien desagertzea eta euskara batuaren azkartzea**

Elkarrizketatu batek dio: «Ene ustez euskalkiak desagertuko dira pixkanaka. (...) Lehenago jendea herrian bertan bizi zen eta ez zen sobera mugitzen. Orai eta mugimendu frango bada. Jende nahasketa anitz. Kanpotar anitz ere etortzen dire. Haurrak joaiten dira ikasketen egiterat harat eta hunat. Beraz ene ustez pixkanaka galduko da, euskalkien berezitasuna galduko die pixkanaka. Aldiz euskara batua mantenduko da eta azkartuko da». Inkestatu horrek idazten du: «Euskalkiak laster desagertuko dira nik uste, jadaneko hala da parte handi batean, gaurko gazteak (nik kostaldean ikusten ditudan partikulazki) gipuzkeraz ari dira jadaneko. “Iparraldeko batuaz” ari balira gaitz erdi. Etorkizuna batua da ez da dudarik, euskalkiak ez dira orain berreskuratuko, arras haur gutik ikasten baitu etxean, eta etxean ere, gaur egun haurrak dituzten gazteek ez baitute euskalkirik ematen (edo arras guti)».

- **Euskararen galtzea Ipar Euskal Herrian**

Elkarrizketatu horrentzat arazoa da euskararen galtzea: «Nik ez dut esperantzarik (...) Eztakit nola erran. Nik erran nezake ez dela euskara lanjerrean Hegoaldean salbatua delakotz eta nolabait Hegoaldean salbatua baita euskara salbatua da. Bainan iduritzen zaut Iparraldean ez dakit bature, ez nakike definitzen. Iduritzen zaut problema handiena dela euskararen galtzea euskara batua euskalkiak baino. Bainan, bon, dena den, euskararen barietatea aberastasun hori, hori, Hegoaldekoek hartuko dute».

- **Erantzunen bilduma**

“Euskalkien ahultzea eta batuaren azkartzea” da aurreikuspen hedatuena (% 32,35). Heren horri beste erantzunetan agertzen den “batuaren azkartzea” lotzen baldin bazaio, azkartze hori da inkestatuen gehiengoak aurreikusten duen bilakaera nagusia: 34 inkestatuetarik 19k (% 55,88). Ipar Euskal Herrian euskara batuaren presentzia azkartuko da beraz, eta “biak elkarrekin biziko” direla pentsatzen dutenak emendatuz, 24 inkestatu ditugu (% 70,58). Aldiz, euskalkien geroa ilunagoa da.

3. taula. Euskara batuaren eta euskalkien geroa lekukoen ustez

	Zenbat	% (34 inkestatuetarik)
Ez dakiena	5	% 14,70
Batuaren azkartzea	3	% 8,82
Euskalkien irautea eta batuaren azkartzea	2	% 5,88
Euskalkien ahultzea eta batuaren azkartzea	11	% 32,35
Euskalkien desagertzea eta batuaren azkartzea	3	% 8,82
Euskalkien eta euskara batuaren ahultzea	4	% 11,76
Euskalkien eta batuaren desagertzea	1	% 2,95
Biak elkarrekin biziko	5	% 14,70
Geroaz erantzun zehatzik ez	5	kontuan ez hartuak
Erantzunik ez	1	kontuan ez hartua

“Biak elkarrekin biziko” direla 5ek pentsatzen dute (% 14,70). Horietarik anitzek beharrezko baldintzak azpimarratzen dituzte, egoera hori gauza daitekeen. Beraz, optimismo itsu bat ez da, transmisioa beharrezkoa izanen da eta bi euskara moten arteko funtzioen banaketa ere.

“Euskalkien eta batuaren desagertzea”, hots euskararen desagertuko dela, edo bederen arrisku handian dela Ipar Euskal Herrian, batek baka-rrik susmatzen du (% 2,95). Aldiz, Hego Euskal Herrian euskara “salbatua” dela dio.

3.6. 13. Zerbait gehiago errateko ba ote duzu euskara batuari eta euskalkiei buruz Ipar Euskal Herrian?

Galdera ireki horrek inkestatuari parada ematen zion erran nahi zuena emendatzeko eta anitzek baliatu dute. Zazpik ez dute deus gehitu. Hona, beraz, berrogeita hamahiru inkestatuengan aipamen hautatu batzuk, era batez artikulua honen idazlearen antologia. Iruzkinek gabekoa.

«Ene ustez gerla faltsua da. Eztabaida ideologikoa. Euskara batua, orain ulertzen dugun bezala, euskalki bat gehiago da. Batua, euskalkien gainean

dagoela sinesten baldin badugu eta euskalkiaz (ba al dago horrelakorik?) mintzo direnak gaitzestera heltzen bagara orduan galdua da euskara bera».

«Lehen aipatu dudan bezala, euskara batua eta euskalkiak ez dira elkarren kontra ezarri behar. Euskaldun gehienek bederen bi hizkuntza menperatzen dituzte, gaztelera eta frantsesa. Gisa berean, euskaraz ere, batua eta bakoitzaren euskalkia ezagutzea baitezpadakoa dela uste dut».

«Gehitu nezakeen gauza bakarra da euskalkien –eta euskalkian– ikasteak ez duela inolako eragozpenik egiten euskara batu edo estandarraren ikas-teari. Bata-bestearen osagarri direla gauza jakina da... ‘Saint-Just’ antzeko ortodoxo batzuek ez badiote honi sinesten ere... alderantzizkoa erraitearekin batera!»

«Inportantea eta posible ikusten dut Iparraldeko euskararen berezitasuna atxikitzea, doi bat normalizaturik, bai idatzian, ahozkoan, literaturan. Indar hori egiten ahal genuke hemen, Hegoaldeko erranmoldeak ez sistematikoki mailegatzeko, Iparraldean badiorelarik. Guri deneri izanez elgar konprenitzea zaintzea Hegoalde eta Iparraldearen artean».

«Nik erran nezake frango pollita dela euskara batua ongi mintzatua delarik. Euskal irratian badiore zinez zinez ongi erabiltzen dutenak euskara batua. Eta hizkuntza pollita hizkuntza pollita da. Beina falta du euskalkien goxotasuna eta xamurtasuna eta hurbiltasuna hala hurbiltasuna. (...) Beina bestenaz frango liburu onak badiore euskara batuan idatziak».

«Bada batua eta batua. Badira Euskaltzaindiak finkatu arauak, hala nola aditz edo deklinabidearentzat. Horiek alfabetizatu guziek menperatu behar dituzte. Uste izan gabe, beren euskara txarra denik. Gaineratikoentzat ez dut ikusten zergatik Arberuako haurrek behar luketen erran «egingo dut» entzuten dutan bezala, eta ez «eginen dut»».

«Toka ta noka forma alokutiboak, enetako, euskalkiari lotuak direla zeren eta hola mintzo nizalarik barnekaldeko jendeekin mintzo niz. Eta berdin hemen ari den lankide batekin, eman dezagun Amikuztarra da. Aste guziez solas egiten dugularik biek noka ari gira forma horiek erabiliz. Enetako ez da posible batuaz, ez ditut menderatzen gainera eta ez da natural batere. Eta horregatik galtzen dira, ez balin badira, ez balin bada etxekoa».

«Bietan “toka-noka” formaren erabilpena ahultzen ari da. Ni, toka ari naiz nire bi seme ttipiekin, bainan gure ikastolan salbuespenetarik bat naiz. Pena handia».

«Batzuk lotsa dira ere beren euskalkiaz (35 urteko saratar batek errana: ez zela atrebitzen haurrei *nauzki, gan, ga* etab. bezalako formak baliatzea, ez baita aski “xuxen”. Bere garaian gure aitak berak ere ongi egin nahiz gauza frango aldatu zituen bere euskalkian.) Jende anitz, bereziki 50-70 urteko belaunaldikoak, beldur dira euskara ez aski onaren ematea izigarri aberatsa eta ederra dutelarik».

«Pozten naiz, ikusiz, azken urteetan, Euskaltzaindiaren hiztegian “Iparaldeko” hitz anitz sartu dela. Lan bat egin behar da, jendea horretaz ohar dadin. Adibidez, Iparraldeko jende anitzek “tailer” hitza erabiliko du, ez baitaki “atelier” hitza ere (*sic*) onartua dela. Hots, lan bat egin behar da, batuak gal dezan jende anitzen gogoan duen “Hegoaldeko” kutsu hori».

«Pertsonalki egunero dudak baditut, bereziki lanean itzulpen eta azpiti-tuluak egiteko momentuan... Ardura hiztegiak begiratzan ditut; aldiz gutitan joaiten naiz Euskaltzaindiaren arauen begiratzera. Ongi izanen da web-gune “ahinago” bat baldin bada Ipar Euskal Herriari dedikatu gomendio batzuekin... Beti presaka ibili behar delarik, uste dut baliagarri izanen dela».

«Ez duzue pentsatu egitea neurketa kantitatiboa ikusteko zenbatetaraino sartua den euskara batua? Ikastolek eta eskola publikoek zer erabilpen egingen duten batuaz eta euskalkiaz? Hartzen dituzu egiten diren kabalkadak, toberak, hartzen dituzu ekoizpen guziak, antzerkiak, libertimenduak. Batua-ren erabilpena zero. Batua egoiten da konfinatua idatziaren esfera hortan... eta gero euskaldun berrien hizkera da ere».

«Euskara batua beharrik izan da, nihaur horrekin alfabetatü niz eta plazer izan dü, ene garaian ez beitzen hainbeste dokümentü».

«Eginahal guztia egin behar dugu denok, Iparraldean (eta Hegoaldean ere) euskaraz mintzatzeko. Behar-beharrezkoa da herrian euskaraz mintzatzea, euskara batua ikastea euskalerrri osokoekin mintzatzeko. Eta noski, beharrezko da ere ahalik eta gehienok euskara lantzea, irratia entzutea,

telebista ikustea, irakurtzea, idaztea, euskaraz mintzatzea ahal den guztian, haurrak ikastolara eramatea...».

«Bukatzeko, hauxe amesten dut... "I have a dream!": euskaldun guztiok, euskal herritar guztiok, noizbait euskalki guztiak ulertuko ditugula, bakoitza berean mintzatuz lotsarik gabe. Eta eremu publikoan aldiz, Urdiñarbetik Sopelara eta Urruñatik Tuterara, euskara batu bakarra, Euskal Herri batuaren batua izanen dugula amesten dut». Hau da izanen azken aipamena.

4. Azken hitza

Bi artikulutan azaldu dudan ibilbide luzea bukatu da. Aztertu nahi genuen hizkuntza-egoera hori ez zen orain arte hurbiletik ikertua, Ipar Euskal Herrian euskara batuak, tokiko euskal hizkerek eta frantsesak osatzen duten sistema. Ipar Euskal Herriko hizkuntza-ekosistema aipatu baldin bada prentsan edo era orokorrean komunikabideetan, era batez Eusko Jaurlaritzak eramaten dituen inkesta soziolinguistikoetarik kanpo, zientifikoki ikertua guti izan da. Hemen proposatu den ikerketa, bide horretan urrats bat da.

Inkestaren hamahiru galderei berrogei lekukoen erantzunak bilduz, teorikoki bostehun eta hogeitazun eskura genitzakeen. Hona emaitza nagusi batzuk: lekukoen % 95ek inguru Ipar Euskal Herrian euskara batua beharrezkoa dela pentsatzen dute, % 90ek baino gehiagok lurralde horretako hizkeren berezitasunak zaindu behar direla, % 80k baino gehiagok euskara batuak euskalkiei kalterik ekartzen ez diela eta erdiak baino gehiagok euskara batu berezi bat badela orain lurraldean. Inkestatuen arabera, Ipar Euskal Herrian euskara batua ez da ongi ezagutua, euskalkiekin nahasten da eta euskaraz eskolatuak ez diren euskaldunentzat zalantzakoa da. Baina lehen arazoa lurralde horretan osoki nagusitzen den frantsesa da. Euskararen berean ere eragina du. Geroan, familian eta eskolan guti transmitituak baitira, euskalkiak ahulduko direla eta euskara batua indartuko dela da inkestatuengan aurreikuspen hedatuena.

Lekukoei esker euskara batuaren eta euskalkien arteko harremanak Ipar Euskal Herrian hobeki ulertzen ditugu, hizkuntza-egoera hori konplexua

eta aldakorra dela berriz azpimarratuz. Nahiz beren hizkuntza-sinesmen, sentimendu eta usteetan oinarriturik, berrogei lekuko horiek bizi publikoan euskararen preskribatzaileak izanez, lanean aritzeko egin behar dituzten hizkuntza-hautuak gogoetatzen dituzte. Horrengatik ikerketa honendako lehen hautuzko lekukoak ziren. Milesker berriz haiei.

Bibliografia

Coyos, Jean-Baptiste, 2018, «Euskara batua eta euskalkiak Ipar Euskal Herrian: inkesta pertzepziozko dialektologian oinarritua», *Euskera*, 63, 2-1, 185-208.

———, 2019, «The Dynamics between Unified Basque & Dialects in the Northern Basque Country: A Survey Based on Perceptual Dialectology», *International Journal of Language and Linguistics*, 6-1, 115-125.

Cramer, Jennifer, 2016, *Perceptual Dialectology*, www.oxfordhandbooks.com/view/10.1093/oxfordhb/9780199935345.001.0001/oxfordhb-9780199935345-e-60 (2018ko martxoan kontsultatua).

Ferguson, Charles A., 1959, «Diglossia», *Word*, 15, New York: 325-340.

Frei, Henri, 1929 [1993], *La grammaire des fautes*, Slatkine Reprints, Paris-Genève.

Paveau, Marie-Anne, 2008, «Les non-linguistes font-ils de la linguistique ? Une approche anti-éliminativiste des théories folk», *Pratiques - Linguistique, littérature, didactique*, 139-140, <https://journals.openedition.org/pratiques/1200> (2018ko martxoan kontsultatua).

Zenbait toponimoren lekukotasunak Bortzirietako, Malerreka eta Baztango agiri zaharren argitan

**Testimonios de diversos topónimos a la luz
de la documentación antigua de Bortziriak,
Malerreka y Baztan**

**Quelques témoignages sur les toponymes,
à la lumière de vieux documents de Bortziriak,
de Malerreka et de Baztan**

**Evidence of some toponyms in the light of old
documents from Bortziriak, Malerreka and Baztan**

INIGO ARIZTEGI, Andres
Euskaltzain osoa

REKALDE IRIGOIEN, Paskual
Euskaltzain osoa

Noiz jaso: 2020-01-30
Noiz onartua: 2020-03-09

Lan honen helburua da Nafarroako Bortziriak, Malerreka eta Baztan eremuetako artxi-boetan aurkitu diren toponimoen lekukotasun zaharrenak ilunpetik atera eta ezagutzera ematea. Izan ere, lortutako lekukotasun gehientsuenak XVI-XVIII. mendeetakoak izanik, badira XI-XV. etakoak ere. Antzinako lekukotasun horiek zenbait toponimoren nondik norakoak eta haien inguruko zalantzak argitzeko baliagarriak izaten ahal dira. Horretaz gain, lagungarriak dira euskal toponimiaren diakroniarako datu-baseak osatzeko eta, orokorrean, mesedegarriak onomastikaren alorreko ondare aberatsa sakonago ezagutzeko.

Gako-hitzak: toponimoak, oronimoak, hidronimoak, lekukotasun historikoak, *elkarrekikoak*, *eliak*.

El objetivo de este trabajo es sacar a la luz los testimonios más antiguos de topónimos extraídos de archivos del entorno de los valles navarros de Bortziriak, Malerreka y Baztan. Ciertamente, aunque la mayoría de los obtenidos pertenecen a los siglos XVI-XVIII, los hay también pertenecientes a los siglos XI-XV. Dichos testimonios antiguos suponen, sin duda, una importante ayuda para aclarar la referencia de muchos topónimos y para poder despejar posibles dudas. Sirven, además, para enriquecer las bases de datos para el estudio diacrónico de la toponimia vasca y proporcionan, en general, una ayuda para un mayor conocimiento del patrimonio onomástico.

Palabras clave: topónimos, orónimos, hidrónimos, testimonios históricos, *elkarrekikoak*, *eliak*.

Ce travail permet de faire connaître les témoignages les plus anciens concernant des toponymes extraits des archives des vallées navarraises des Cinco Villas, de Malerreka et du Baztan. Bien que la majorité d'entre eux soient de la période XVIe-XVIIIe siècles, certains d'entre eux viennent de la période XIe-XVe siècles. Ces témoignages anciens peuvent être très précieux pour expliquer l'origine de certains toponymes et lever de nombreux doutes. De plus, ils enrichissent les bases de données qui permettent une étude diachronique de la toponymie basque ; de façon générale ils permettent une meilleure connaissance du patrimoine onomastique.

Mots-clés : toponymes, oronymes, hydronymes, témoignages historiques, *elkarrekikoak*, *eliak*.

The aim of this work is to bring to light and provide the oldest evidence of toponyms that have been found in the archives of the Bortziriak, Malerreka and Baztan areas of Navarre. Most of the evidence obtained dates back to the 16th to 18th centuries; there is also some evidence dating from the 11th to 15th centuries. These ancient records may be of use in clarifying the nature of certain toponyms and any doubts there may be about them. In addition, they are helpful in compiling databases about Basque toponymy diachrony and, in general, they help towards a deeper knowledge of our rich onomastic heritage.

Keywords: place names, mountain names, river names, historical records, *elkarrekikoak*, *eliak*.

1. Sarrera

Lan honen xede behinena da toponimiaren informazioan sakontzea eta, orobat, lekukotasun berriak eskuratu eta ezagutaraztea, ahal den neurrian, aspaldikoak eta, horiekin batera, lehendik argitara emandako batzuk ere, lagungarritzat jo direnean. Lekukotasun berri horien bidez, zenbait toponimoren inguruko zalantzak argitzeko aukera izaten ahal da, toponimo horien nondik norakoak hobeki aztertu eta orain arte argitara emandako lanak osatzeko. Eta, zer erranik ez, seguru gaude toponimoen lekukotasun zahar-
rrak ilunpetik argitara ateratzeak onomastikaren ondarea aberasteko eta hobeki ezagutzeko aukera emanen duela.

Onomastikari dagokionez, Nafarroako artxiboetan gordetzen den ondarea aberatsa da. Zenbat eta gehiago arakatu, aztertu eta sakondu artxibo horietan, hainbat eta aberatsagoa eta sakonagoa da erdietsitako ondarea eta interesgarria toponimiaren diakroniarako lortzen den informazioa, hori guz-
zia lagungarri izaten ahal baita ondorio berriak atera eta ikerketan urrats berriak egiteko. Hori egiaztatzen dute lan honetan arakatutako artxiboek, hala nola Nafarroako Errege Artxiboko Doneztebeko Notarioen Protokoloek, zenbait herritako parroketako bataiatuen, ezkonduen eta hildakoen liburuek, eta Patxi Ondarrak bere garaian bildu eta gure eskura utzi zuen funts aberatsak, hots, Baztango Udaleko Artxiboan, Baztango Borda-Ubilloso familiaren fondoan eta Lekarozko Kaputxinoen komentuko Aita Donostia Artxiboan jaso zuen informazioak.

Begi-bistakoa bada ere, aipatzekoa da arakatutako artxibo horietan bertako onomastikaren berri ez ezik, eremu zabalago batena ere ematen dela, erraterako, Ipar Euskal Herriko eta Gipuzkoako herri batzuen.

Lekukotasunei dagokienez, ugarienak XVI-XVIII. mendeetakoak izanik ere badira, eta ez gutxi, XI-XV. mendeetako agiritatik jaso ahal izan direnak, batik bat *Patxi Ondarra Funtza* (POF) izeneko iturritik. Interesgarriak dira, gure ustez, euskal toponimiaren ikerketa sakonagoaren mesedetan, horietako gehienak ezezagunak edota argitaragabeak direlako.

2. Lekukotasunak

Atal bakoitzeko sarrerak (toponimoak) hurrenkera alfabetikoan zerrendatu ditugu, izenburu bakoitza dagokion forma ofizialaren arabera emanaz eta izaera ofiziala ez dutenak ustezko forma estandarrean idatziz.

Sarrera horietako bakoitzaren barnean, **Dokumentazioa** izeneko atalean, ezarri dira jasotako lekukotasunak, soilak edota bere testuinguruan, izen zehatz bakoitza letra etzanean jarria argiago adierazia gera dadin eta kronologiaren araberrako hurrenkera. Lekukotasun bakoitzaren ondotik heldu da, parentesi artean, dagokion urtea eta erreferentzia dokumentala, artxibokoa normalean eta zenbaitetan bibliografian aipatzen den argitalpenen batekoa.

Zenbaitetan, **Oharra** izeneko atala erabili da ohar argigarriren bat aipatzea komenigarria ikusi denean.

2.1. Ibar, herri eta auzoen izenak

2.1.1. *Nafarroakoak*

Aezkoa

Dokumentazioa: «lugar de Villanueva en el Valle de Ayezcoa» (1671, POF, BUA, 1); *Ayezcoa* (1786, NEAN, DPR, 135. k., 19. zk., in “Escritura de zesion que Joseph de Iriarte, natural de Ituren hizo para la labra, abugerar y numerar de robres cortados para los bageles de la Real Armada en Montes del balle de Ayezcoa”).

Oharra: Lekukotasunek *aietz* > *aetz* bilakaera baieztatzen bide dute (Belasko 1996: 48).

Aintzialde. Arizkun

Dokumentazioa: «Ainzialdea, barrio de Arizkun» (1691, POF, BUF, 1. ag., 1 atz., 2; 1693, POF, BUF, 1. ag., 2); *Aincialdea* (1758, POF, BUF, 1; 1762, POF, BUA, 4); *Aincialde* (1847, 1851, POF, LKB, ADA).

Oharra: Lekukotasunak bi motatakoak dira: *-a* artikuludunak (*Ainzialdea*, *Ainzialdea*) eta *a*-rik gabeak (*Aincialde*).

Aitzano. Gartzain

Dokumentazioa: «...*Ayçanoa*, de la parroquia de Garçayn» (c. 1500, NEAN, PDR, 8. k.); «...*maria de landaburu vezina del lugar de Aycanoa*» (1571, NEAN, DPR, 52. k.); «*barrio de Ayçanoa*» (1681, POF, BUA, 1 atz.); «...*Osando de Aizanoa* presbiter» [Urdazubi] (1745 [1203], POF, BUA, 1).

Oharra: Lekukotasun hauek aldaera artikuludunaren alde (*-a*) min-tzo dira, euskal forma arautu eta ofiziala *Aitzano* bada ere.

Alkerdi. Zugarramurdi

Dokumentazioa: «...*iglesia de santesteban de Alquerdi*» (1443, POF, BUA, 17 atz.); «...*granjas de Alquerdi*» (1443, POF, BUA, 21 atz.); *Alquerdi* (1769 [1482], POF, BUA, 3); *Alquerdi* (1586, POF, BUA, 3); *Alquerdi* (1687, POF, BUA, 24); «...*varrio de Alquerdi*» (1711, POF, BUA, 22; 1790, POF, BUA, 11).

Oharra: Aspaldidanik dokumentatutako auzo izena da, mendeetan zehar aldaketarik izan ez duena.

Almandoz

Dokumentazioa: *Almendoz* (1505, NEAN, DPR, 21. k., [5 aldiz] in “Escritura de poder para la curia romana del prior de Belate”, [latinez idatzia]; «*martin echeberria de Albandoz*» (1560, POF, BUA); «*joan de Albandoz*» (1593, APA, EL, 1, 6 atz.); «...*jurado de Albandoz*» (1560-1561, POF, BUF, 1 atz.); «*cathalina de Albandoz*» (1602, APA, EL, 1, 10); «*joanes de Albandoz*» (1614, APA, EL, 1, 14); «*martin de Albandoz*» (1633, APA, EL, 1, 26 atz.).

Oharra: Ikusten denez, *Almendoz* aldaera XIII. mendean ez ezik XVI. enean ere ageri da, eta *Albandoz* aldaeraren lekukotasunak ere badira XVI. eta XVII. mendeetan.

Altsasu / Alsasua

Dokumentazioa: «Murio un pobre natural de *Alsasu*» (1750, BPA, HL, 1, 278).

Oharra: Beran (Altsasutik urrun samar) aurkitutako XVIII. mende-ko lekukotasun hau (artikulu mugatzailerik gabekoa) bat heldu da hitz-bukaeran herri horren euskal era arautuarekin.

Altzate. Bera

Dokumentazioa: «...vezino de la tierra de bera, de la villa de *Alçate*» (1546, NEAN, DPR, 8. k.); «...veçino de la tierra de bera, del villaje de *Alçate*» (1554, NEAN, DPR, 17. k.); «*Alzate*, varrio de Vera» (1689, BPA, HL, 1, 37); «...calle o barrio de *Alzate*» (1787, POF, BUA, 1 atz.).

Oharra: Mendeak joan, mendeak etorri, auzo horren izena ez da aldatu. Bai, ordea, auzo horren kategorizazioa «villa», «villaje», «varrio» eta «calle».

Amaiur / Maya

Dokumentazioa: «... el vicario [...] deeliçatea, natural de *Amayur*» (1617, LPA, EL, 2, 202 atz.); «Maria de *Amayur*» (1623, IPA, BL, 3, 24); «Maria de *Amayur*» (1630, IPA, BL, 3, 51).

Oharra: Aipatzekoa da *Amayur* forma herriaren izenean agertzeaz gainera, deituretan ere ageri dela.

Aoiz / Agoitz

Dokumentazioa: *Aggoiz* (1016, Iñ., 2011: 1257); *Ahoiz* (1093, Iñ., 2011: 1257); «En la billa de *Aggoiz*» (1633, POF, BUA, 1 atz., 2 atz.). «Don Antonio de Ozcariz y Arce y Doña Thomasa Antonia de Iriarte y Eslaba, vezinos de *Agoiz*» (1747, BPA, BL, 3A, 154); «Garcia Garceitz *Daoitz*» (POF, BUA, 1780 [1231], 74); «Graciosa de Ituren natural de *Agoiz*» (1803, BPA, BL, 5, 364).

Oharra: Belaskok (1996: 73) dio «la forma *Agoi(t)* es relativamente moderna». Dena dela, lekukotasun hauen arabera, XI. menderako

badugu horren berri, bai eta XVII. mendeaz geroztik ere. Beraz, aspaldikoa da.

Apaioa. Azpilqueta

Dokumentazioa: *Apayoa* (1589, POF, BUA; 1758, POF, BUA, 1); *Apayo* (1620 [1366], POF, BUA, 1 atz.; 1691, POF, BUF, 1. ag., 1 atz.; 1695, POF, BUF, 8; 1758, POF, BUF, 1); *Apayoarana*, *Apaioarana*, *Apayo larrea* (1691, POF, BUF, 1. ag., 1 atz.); «...barrio de *Apaioa* de Azpilqueta» (1695, POF, BUA, 8; 1766, POF, BUA, 12); «Echeverria de *Apaioa*» (1758, POF, BUF, 1); *Apaioa* (1790, POF, BUA, 1 atz.).

Oharra: Forma artikuludunak eta artikulugabeak ageri dira dokumentazioan. Hala ere, datu historikoen arabera ematen du *Apaioa* (-a) beharko lukeela izan. Halaxe ahoskatzen da gaur egun: *Apaioko*, *Apaiotik*...

Arantza

Dokumentazioa: «...Pedro de Aranza y Juan de Apezechea testigos por palabras (...) del matrimonio de Esteban de Yrissarri natural de la villa de Goyzueta y Maria de Zala...» (1679, IPA, EL, 4, 16 atz.).

Oharra: Dokumentazioan, oro har, *Aranaz* ageri da. Alabaina, ezkontza anitzetan lekuko gisa ageri den *Pedro de Aranz* igantziarra, 1679ko aipu honetan *Pedro de Aranza* izenarekin idatzia dago. Beharbada ordurako *Arantza* ere ahoskatuko zelako?

Aurkidi. Zubieta

Dokumentazioa: *Urquidi* (1533, 1554, 1605, 1677, 1730, 1807, 1824, Iñ., 1996: 80); *Aurquidi* (1687, 1753, 1796, 1930, 1982, Iñ., 1996: 80).

Oharra: Izendapen ofiziala *Aurkidi* bada ere, dokumentazioa jatorrizko *Urkidi* aldaeraren alde mintzo da, bai eta auzo horren inguruko toponimia txikia ere: *Urkidibarrena*, *Urkidigaraia*, *Urkidisuso*... Gai-

nera, *Urkidi* aldaerak 1993. urtean egindako ahozko erabileraren bilketan oraindik bizirik zirauen (Iñ., 1996: 80).

Aurtitz. Ituren

Dokumentazioa: *Aurtiz* (1280, 1355, 1366, 1541, 1981, Iñ., 1996: 76).

Oharra: Egungo izendapen ofiziala *Aurtitz* bada ere, amaiera afrikatuarekin, mendeetan zeharreko dokumentazioan beti *Aurtiz*, amaiera frikariarekin, ageri izan da, bai eta ahozko erabileran ere. Halaber, kasu absolutiboan *Aurtiza* (-a artikuluekin) ahoskatzen da. Gainera, kontuan izatekoa da, herrien izendapenei amaieran artikulua gehitzeko joera, hala nola *Donéztua* (Doneztebe), *Gaztélua* (Gaztelu), *Óiza* (Oiz), *Urróza* (Urroz), *Erátsunà* (Eratsun) *Etxálarrà* (Etxalar), *Irúna* (Irun) eta abar, erabat arrunta dela Malerrekan eta inguru zabalago batean.

Azpilkueta

Dokumentazioa: «Michelco de Vrrasum jurado de Sant Andres de *Aizpilqueta*» (1756 [1482], 1. ag., 2 atz.); «Sant Andres de *Aizpilgieta*» (1756 [1482], 2. ag., 3); «...murio Maria de Larregui, pobre que pidia limosna ostiatim, natural de *Azpilqueta*» (1764, BPA, HL, 1, 346); «...bustalizas d'*Aizpilcoeta*» (1780 [1230], 116 atz., 24).

Oharra: Ikusten ahal den bezala, XV. mendera arte ageri den *Aizpil*-forma mantentzen da XVIII. mendean jasotako agiri zaharren erreferentzietan.

Baztan

Dokumentazioa: «...*tierra de Vaztan*» (1443, POF, BUA); «...*tierra de Baztan*» (1443, POF, BUA); «...*tierra y vniversidad de Vaztan*» (1600, 1641, POF, BUA); «...*tierra y valle de Vaztan*» (1607, POF, BUA); «...*la valle de Baztan*» (1638, POF, BUA); «...*comunidad de Vaztan*» (1641, POF, BUA); «*Valle y Vniversidad de Baztan*» (1801, POF, BUA).

Oharra: Lekukotasunak beti *Baztan* eta *Vaztan* badira ere, kategoriak bat baino gehiago dira: «tierra», «valle», «comunidad» eta «universidad».

Baztangoiza. Baztan

Dokumentazioa: *Baztangoyza*, *Baztangoiza* (1584, POF, BUA, 13 atz.); *Vaztangoyza*, *Vaztan goyza* (1584, POF, BUA, 9)¹.

Beintza-Labaien

Dokumentazioa: «Los lugares de Veynça y Labayen» (1543, NEAN, DPR, 23. k.); «En el lugar de Labayrein [...] en el lugar de Beynça» (1568, NEAN, DPR, 53. k.); «la villa de Beynça y Labayen» (1654, NEAN, DPR, 59. k.). *Beinza Labayen* (1727, POF, BUA, 2 atz.); *Beinza-Lauayen* (1789, POF, BUA, 1); *Beinza-Lavaien* (1815, POF, LKB, ADA).

Oharra: *Labayrein* forma dokumentazioan behin bakarrik ageri da.

Belascoain / Beraskoain

Dokumentazioa: «Magdalena Laviano hija de Dorrea y dueña del palacio de *Belasquain* [sic]» (1746, BPA, HL, 1, 258).

Oharra: *-oain* bukaera historikoki arrunta bada ere, XVIII. mendean dokumentatu da *-uain* bukaera.

Berrio

Dokumentazioa: «Parroquia de Berrio» (1540, NEAN, DPR, 15. k.); «veçino de Berryo» (1548, NEAN, DPR, 17. k.); *Los Verrios* (1698, POF, BUF, 14 atz.).

Oharra: Lehen bi lekukotasunek ez dute zehazten zein herriri dagozkien eta hirugarrena, segur aski, hiru herri hauei dagokie: Berriobeiti, Berriogoiti eta Berriozar.

¹ *Baztangoiza* Baztan udalerriko lau eskualdeetako bat da.

Berrizaun. Igantzi

Dokumentazioa: «...ferreria de Berricun» (1557, NEAN, DPR, 8. k.; 1558, NEAN, DPR, 10. k.; 1565, NEAN, DPR, 24. k.; 1594, NEAN, DPR, 28. k.); *Berricun* (1561, NEAN, DPR, 10. k.); *Verricun* (1562, NEAN, DPR, 12. k.); *Berricaun* (1632, NEAN, DPR, 50. k.).

Oharra: -zaun bukaera arrunta (izan) bada ere, -cun, -çun eta -caun bukaerakoak ere ageri dira.

Bertizarana

Dokumentazioa: *Bertiz-Arana* (1640, POF, BUA, 1); *Bertiçarana* (1650, POF, BUA, 3 atz.); «...la valle de Vertiz Arana» (1662, POF, BUA, 12. ag., 46); «...Martin de Xubindo alcalde interinario de la balle de *Bertizarana* y villa de Sumbilla» (1664, NEAN, DPR, 65. k.); «...alcalde del valle de *Bertizarana* y villa de Sumbilla» (1667, NEAN, DPR, 66. k.); «*Valle de Bertizarana*» (1781, 1847, POF, BUA); «*Valle de Vertiz Arana*» (1792, POF, BUA, 2 atz.).

Cuatro pueblos

Dokumentazioa: «*Cuatro pueblos de Bidasoa* que son las villas de Santesteban y Sumbilla y lugares de Narbarte y Elgorriaga» (1613, NEAN, DPR, 23000/1, ka., 6. zk.); «Conbenios de entre los *cuatro Pueblos de Vidasoa* y Berroaran con la villa de Aranaz» (1613, NEAN, DPR, 23000/1, ka., 22. zk.); «*Quatro Pueblos de Bidasoa*» (1613, NEAN, DPR, 23000/1, ka., 83. zk.); «Auto de reconocimiento de mojonos y de haver puesto nuevos entre el señor Dn Joaquin de Al-duncin señor del señorío de Vertiz y dichos *Quatro Pueblos* en los términos de Amaburucogana» (1728, ITUA, Ind., 2. lib.); «Faceria de *Quatro pueblos* e Ituren» (1807, NEAN, DPR, 165. k.).

Oharra: Bidasoa-Berroaran mendietako elkarrekikoa lau herrien (Doneztebe, Elgorriaga, Narbarte, Sunbilla) artekoa da eta Erdi Aroaz geroztik indarrean dago. Agiri zaharretan maiz ageri da idatzita *Cuatro pueblos (de Bidasoa y Berroaran)*, eta dokumentu horietan euskal ordainik ematen ez bada ere, ahoz *Lauerrik* erabili ohi da.

Cuatro villas

Dokumentazioa: «Quitamiento de *Quatro villas* de las pagas del rey» (1559, NEAN, DPR, 10. k.); *Quatro Villas* (1559, NEAN, DPR, 12. k.); «Poder de los jurados de *Quatro Villas* (Beynça-Labayen, Ezcurra, Saldias, Herasun)» (1563, NEAN, DPR, 10. k.).

Oharra: Ikusten ahal den bezala, Basaburu Txikia ibar historikoari *Cuatro villas* ere deitu izan zaio, gaztelania hutsean idatzitako agiri administratiboetan, jakina.

Doneztebe / Santesteban

Dokumentazioa: *Santesteban* (c. 1500, NEAN, DPR, 21. k.); «Las villas de Vera, Echalar, Eantzi, Aranaz, *Sant Esteban*, lugar de Sumbill...» (1543, NEAN, DPR, 9. k.). «endreçera llamada *Doneztebe*» (1546, Iñ., 1996: 111); *Doneztebelanda* (XVI. eta XIX. mendeen bitartean hainbatetan dokumentatua, eta *Doneztebezubia* XVII.enean (Iñ., 1996: 111).

Oharra: Erdi Aroaz geroztiko agirietan ibarra edota hiria aipatzean beti erdaraz izendatzen dira, *Sant Esteban de Lerin*, *San Esteban de Lerin* edo *Santesteban de Lerin*. *Doneztebe* euskal izendape-na, ordea, toponimia txikiari dagokion izen pare batean bakarrik ageri da.

Dornaku. Bera

Dokumentazioa: «Martin de *Tornaque*» (1618, BPA, BL, 1, 17); «Felipe de *Dornaque*» (1630, BPA, EL, 1B, 321); «Joanes de *Tornaque*» (1633, BPA, BL, 1, 126); «Maria de *Tornaque*, dueña de la Borda de Garycochea» (1691, BPA, HL, 1, 43); «Maria de *Tornacue*» (1698, BPA, HL, 1, 80); «Antonio de *Tornacue*» (1726, BPA, HL, 1, 179); «*Dornacu*, varrio de Vera» (1736, BPA, HL, 1, 209).

Oharra: Aipatzekoa da agiri zaharrenetan, izenaren hasieran egun arrunta den *D-* ahostuna baino maizago dokumentatzen dela *T-* ahoskabea.

Elbete

Dokumentazioa: «...parroquia de *Eluatea*» (1504, NEAN, DPR, 15. k.); *Eluate* (1564, NEAN, DPR, 11. k.), *Eluete* (1584, 1600, POF, BUA); *Eluetea* (1584, 1643, POF, BUA); *Elbetea* (1584, POF, BUA).

Oharra: *Elbete(a)*, oraingo izendapena, bertze izen baten bilakaera bada ere, XVI. menderako dokumentatzen denez gero, ez dugu uste modernotzat hartzekoa denik, erran izan den bezala: «El nombre de esta localidad [...] parece moderno» (Belasko, 1996: 169).

Eltzaburu

Dokumentazioa: «Montes de *Ezcaburu* Valdeuçama y terminos de Ybargoyara» (1548, NEAN, DPR, 19. k.).

Oharra: *Ezcaburu* lekukotasuna zaharra da, baina behin bakarrik agertu zaigu.

Endarlatsa. Bera

Dokumentazioa: «Martin de Huart, cuyo es el palacio y casa Huart, ferron de *Endaralasa* vezino de la dicha tierra de Bera» (1550, NEAN, DPR, 7. k.); «Martin de huart alias çalaynçarr, ferron de *Endaralasa*, vezino de la dicha tierra de Bera» (1550, NEAN, DPR, 8. k.); «Pedro Leguia de la casa Chispirane de Bera fue allado aogado en el paraje de *Endarlas*» (1699, BPA, HL, 1, 84); «...murio aogado en el rio de *Endarlas* [etxea] siendo criado de la dicha casa» (1701, BPA, HL, 1, 88); «...dueño de la cassa *Endarlas* de Vera» (1708, BPA, HL, 1, 120); «...criado de la casa *Endarlasa* [...] se haogo en el Rio Bidasoa» (1761, BPA, HL, 1, 324); «Juan de Iriart, natural de Semper, se encontro ahogado en el Rio junto a *Endarlasa*, termino de Vera» (1770, BPA, HL, 1, 380).

Oharra: XVI. mendetik XVIII. mendera bitarteko lekukotasunek argi uzten dute zein den izenaren bigarren zatia (*la(t)s* ‘erreka’, ‘ur-laster txikia’).

Erro / Erroibar

Dokumentazioa: «...mas le di para gil de *roybar*, mulatero veynte y tres ducados...» (1587, Iñ., 2011: 1262).

Oharra: 1587ko lekukotasunean dugu ibar honen euskal izendapena, *Erroibar*, oraindik ere bizirik dirauena.

Etxalar

Dokumentazioa: «Las villas de Vera, *Echalart* [sic, 7 aldiz agiri hone-tan], Eantzi, Aranaz, Sant Esteban, lugar de Sumbill...» (1543, NEAN, DPR, 9. k.); «Joanes de ayesta alias xurio vezino de la villa de *Echarral*» [sic, metatesiaz segur aski] (1543, NEAN, DPR, 19. k.); *Ychalarr* (1551, Iñ., 2019: 532); *Echalarr* (1581, NEAN, DPR, 42. k.); «...regacho que baja de *Hechalarr*» (1584, POF, BUA, 3 atz.); «ara-quinchoa de *Ychalar*» (1587, Iñ., 2019: 532); «graciana de loperena dexo [...] para la parroquia de *Ychalar* seis reales y a la basilica de santa cruz de *Ychalar* cincuenta reales» (1606, Iñ., 2019: 532); «anna de loperena y su marido petri de çabaleta [...] dexaron de legado [...] a la parroquia de *Ychalar* y a santa cruz hermita de *Ychalar* sendos ducados» (1615, Iñ., 2019: 532); «Joanes de *Ychalar*» (1656, Iñ., 2019: 532).

Oharra: Lekukotasun historikoekin batera, aipatzekoa da gaur egun, ahozko *Etxelar* eta *etxelartar* aldaerez gain, *Itxelar* eta *itxelar-tar* aldaerek bizirik dirautela, bai Bortzirietako herrietan, bai eta inguruko Sunbillan eta Oieregin ere, behinik behin (Iñ., 2019: 536-538).

Eugi

Dokumentazioa: «Baztan afronta con tierra de *Eugui arana*» (c. 1630, POF, BUA, 3); *Eugui Arana* (1711, POF, BUA, 23); *Euguiara-na* (1711, POF, BUA, 12); «...fundiciones de *Eugui*» (1768, POF, BUA, 9 atz.); «...fabricas de *Egui* [sic]» (1781, POF, BUF, 1); *Egui* [sic] (1785, POF, BUA, 1 atz.).

Oharra: Aipatzekoa da XVII-XVIII. mendeetan hiru aldiz ageri zai-gun *Eugiarana*, hots, (h)arana osaerarekin, mugakideak diren Erroi-barrek eta Esteribarrek *ibar* osaera dutelarik. Iruzkintzekoa ere, egun ahoz erabiltzen den *Egui* metatesidun forma bi aldiz gutxienez idatzirik agertzea XVIII. mendean.

Garaierria. Sunbilla

Dokumentazioa: «...una cassa en el varrio de Garaierria de Sumbilla»² (1683, NEAN, DPR, 4. k.).

Oharra: Behin bakarrik agertutako lekukotza da.

Gendulain

Dokumentazioa: «Joanes de azterayn vecino de Guindulayn junto a Pamplona» (1607, NEAN, DPR, 40. k.); «Juan Marin Ibarra natural de Gandulain» (1792, BPA, HL, 2, 110 atz.).

Oharra: Bitxia da bai *Guindulayn* aldaera, bai Erdi Aroko *Gandulain* ere XVIII. mendearen amaieran dokumentatu izana.

Guirguillano / Girgillao

Dokumentazioa: «...natural de Guirguillau» (1799, BPA, BL, 5, 260).

Oharra: Ematen duenez, *Girgillao* euskal formaren alde mintzo den lekukotasuna dugu, bilakaera honen arabera: *Guirguillano* > **Guirguillao* > *Guirguillau*.

Gorostapalo. Erratzu

Dokumentazioa: «...casa Yribarren de Gorostapalo de Errazu» (1750, POF, BUA, 1); «Maria Martina de Zozia muger que fue de Juan Francisco de Gorostipalo» (1800, BPA, HL, 2, 174); «viuda de Juan Gorostipalo» (1805, BPA, HL, 2, 208).

² Auzo izen hau *Altsuperea* etxea dagoen tokian kokatzen du agiri honek.

Oharra: *-palo* bukaerako izenak arruntak izan dira dokumentazioan, baita XVIII. eta XIX. mendeetan ere. Gaur egun arruntagoa da, ordea, *-polo* bukaerako izena ahoz entzutea (*Kostapólo*).

Ibargoiara

Dokumentazioa: *Ybargoyara* (c. 1500, NEAN, DPR, 21. k.); «...Yglesia parroquial de santa maria de *Ybargoyara*» (1538, NEAN, DPR, 28. k.); «...en la iglesia parroquial de nuestra señora de *Ybargoyara*» (1555, NEAN, DPR, 16. k.); «...jurados y vezinos de los lugares de Urroz Arce Ascarraga Ygunyn e Gaztelu que es la *tierra de Ybargoyara* e martin de donamaria vezino de la dicha tierra y martyn de urssua tanto en nombre propio como de los vezinos de Oyz...» (1555, NEAN, DPR, 23. k.); «...en doña maria *tierra de Ybargoyara*» (1563, NEAN, DPR, 8. k.); «*Tierra de Ybargoyara*» (1573, NEAN, DPR, 26. k.); «...martin de donamaria vezino de la *tierra de Ybargaraya* [sic]» (1575, NEAN, DPR, 26. k.); «*Valle de Ybargoyara*» (1577, NEAN, DPR, 52. k.); «*Tierra de Ybargoyara*» (1585, NEAN, DPR, 2. bis k.); «...lugar de Dona Maria del *Valle de Hibargoyara*» (1589, POF, BUA, 1); «...en el lugar de Donamaria y dentro de la casa del ayuntamiento del *Balle de Ybargoyara* se juntaron en concejo los jurados vezinos y concejo del *Balle de Ybargoyara* que son los lugares de Arce Ygunin Ascarraga de una [parte] y Gaztelu que es un concejo...» (1622, NEAN, DPR, 46. k.); «*La Valle de Ibargoyara*, compuesto por Gaztelu, Arçe, Ygunin, Ascarraga y Donamaria que hacen un concejo» (1646, POF, BUA, 1, 1 atz., 2 atz.).

Oharra: Gaur egun *Donamaria* izena duen udalerria, garai luze batean –Erdi Aroaz geroztik eta XIX. mendera arte–, *Ibargoiara* ibarra izan zen, beti horrela dokumentatua. Izendapen horren lekukotasun argietako bat da udalerrri horretako mugarri guztiak, oraindik ere, ohi den hasierako I letra (D letrara aldatu gabe) daramatela.

Igantzi

Dokumentazioa: «Las villas de Vera, Echalart, *Eantzi*, Aranaz, Sant Esteban, lugar de Sumbill...» (1543, NEAN, DPR, 9. k.); «Tomas de

loybiaga de *Yanci*» (1554, NEAN, DPR, 9. k.); «Villa de *Yanci*» (1554, NEAN, DPR, 15. k.); «Martyn de *Yanci*» (1559, NEAN, DPR, 18. k.); *Iganzi* (1568, NEAN, DPR, 39. k.); «...pedro de yrisarri de *Yganci* [...] la hija de arozandia de *Yganci*» (1587, NEAN, DPR, 39. k.); «Juanes de *Hiançi*, hijo legitimo de Remon de *Hiançi*» (1607, SPA, BL, 11 atz.); *Yganzi* (1622, NEAN, DPR, 47. k.); «Maria de Telechea viuda vecina de *Yganci*» (1623, NEAN, DPR, 23000/4 ka., 15. zk.); *Iganzi* (1623, NEAN, DPR, 47. k.); «se casaron Antonio de Larrea y Ana de *Yianzi* [sic] [...] fueron testigos Leon de *Yganzi*...» (1669, APA, EL, 1, 60 atz.); «Maria Felipha de *Yganci* de la casa Marichenea [de Vera]» (1773, BPA, BL, 3B, 223); «Juan Bautista de Ezponda, natural de *Yganci*» (1788, DPA, BL, 3, 142 atz.); «Miguel de Echenique viudo de Maria Josefa de *Iganci* de la casa Bonbabaita de Bera» (1794, BPA, HL, 2, 142).

Oharra: Ikusten denez, XVI. mendetik aitzina zenbait aldaera dokumentatu badira ere, lekukotasunik arruntena *Igan(t)zi* izan da.

Igoa

Dokumentazioa: *Igua* (1522, NEAN, DPR, 22. k.); «Joanes de *Ygua*» [Labaiengoa] (1552, NEAN, DPR, 22. k.); *Igua* (1716, ITUA, Ind., 2. lib.); «Martin Josef de Saldias, natural de *Ygua*» (1788, DPA, BL, 3, 132 atz.).

Oharra: Ikusten ahal den bezala, *-oa* > *-ua* bilakaera ongi gauzatua zegoen XVI. menderako.

Igurin. Donamaria

Dokumentazioa: «...en el lugar de *Yguynin* [sic, frankotan dokumentu berean]» (1530, NEAN, DPR, 16. k.); «el lugar de *Ygunyn*» (1541, NEAN, DPR, 18. k.); *Ygunin* (1543, NEAN, DPR, 63. k.); *Ygunyn* (1554, NEAN, DPR, 18. k.); *Ygunin* (1568, NEAN, DPR, 11. k.); *Ygunin* (1570, NEAN, DPR, 52. k.); *Ygunin* (1573, NEAN, DPR, 53. k.); «pierres de arce, veçino de *Ygunin*» (1585, NEAN, DPR, 2. k.); «lugar de *Ygunin*» (1585, NEAN, DPR, 2. k.); *Ygunin soroa* (1585,

NEAN, DPR, 2. k.); *Yguriayn* (1614, NEAN, DPR, 53. k.); *Ygunin* (1618, NEAN, DPR, 41. k.); *Ygunin* (1622, NEAN, DPR, 46. k.); *Ygunin* (1648, NEAN, DPR, 55. k.); *Ygunin* (1652, NEAN, DPR, 68. k.); *Ygunin* (1667, NEAN, DPR, 72. k.); *Ygunin* (1671, NEAN, DPR, 74. k.); *Ygunin* (1690, NEAN, DPR, 76. k.); *Igurin* (1752, 1753, 1762, 1769, 1771, NEAN, DPR, 23002/1 ka.).

Oharra: Argi ageri da *Igunin* > *Igurin* bilakaera XVIII. mendez geroztik gauzatu zela.

Illekueta. Bera

Dokumentazioa: «Graciana de *Yllecu* hija de Joanes de *Yllecu*» (1616, BPA, BL, 1, 3); «Magdalena de *Yllecu* hija de Pedro de *Yllecu*» (1689, BPA, BL, 2, 20); «Pedro de *Yllecu* de cassa de Conchenea» (1695, BPA, HL, 1, 74); «Ana de *Yllecu* de Zidardigaraya» (1701, BPA, HL, 1, 88); «Maria de *Yllecu*» (1714, BPA, HL, 1, 141); «*Illecueta*, varrio de Vera» (1719, BPA, HL, 1, 119); «...en el barrio de *Yllucueta* [sic, 2 aldiz]» (1787, POF, BUA, 1 atz., 6).

Oharra: Ematen duenez, Erdi Aroaz geroztik *Illeku* zena ez zen XVIII. mendera arte *Illekueta* bilakatu.

Ilundain

Dokumentazioa: «Pedro *Irundain* [sic] de Pamplona» (1780, NEAN, 260806 pro.).

Oharra: Kontuan izatekoa da XVIII. mendeko lekukotasun hau *Irundain* formarekin agertzea.

Landibar. Urdazubi

Dokumentazioa: «...granjas de *Lauandibar*» (1433, POF, BUA, 21 atz.); «...bustaliza de *Lauandibar* en propiedad y posesion del monesterio de Hurdax» (1443, POF, BUA, 21); «Fray Domingo de *Labandibar*, calonge de Vrdax» (1433, POF, BUA, 9); *Landibar* (1560, POF, BUA, 2); «...casas de *Labandibar*» (1584, POF, BUA,

14 atz.); «Fray Martin de *Labandibar*, suprior [...] Fray Martin de *Labandibar*, soprior [...] Fray Martin de *Landibar*, soprior» (1584, POF, BUA, 20 atz.); «*Lauandibar*, barrio de Vrdax» (c. 1600, [1584], POF, BUA, 73); «Juanes *Labandibar*, dueño de la casa catalincorena de Vrdax» (1652, POF, BUA, 1, 1 atz., 2, 2 atz.); «*La-bandibar*, barrio de Vrdax» (1652, POF, BUA, 1, 1 atz., 2, 2 atz.); «Miguel de *Landibar*, de Pamplona» (1663, POF, BUA, 1); *Landiuar* (1669, POF, BUA, 2); «barrio de *Lahandibar* [...] barrio de *Laandibar*» (1689, POF, BUA, 2); «*Landibar*, barrio de Vrdax» (c. 1700 [1482], POF, BUA, 2); *Landibar* (1722, POF, BUA, 1); «...lugar de *Olandiuar* de Vrdax» (1736 [1687], POF, BUA, 1); *Landiuar* (c. 1736, POF, BUA, 1); *Landivar* (1741, POF, BUA, 1); «*Landibar*, barrio de Vrdax» (1745, POF, BUA, 1); «*Labandibar*, barrio de Vrdax» (1780 [1552], POF, BUA, 21); «...barrio de *Labandibar*» (1780 [1561], POF, BUA, 22 atz.); *Labandibar* (1787 [1443], POF BUA, 1); *Landibar* (1790, POF, BUA, 6 atz.); «barrio de *Landivar*» (1850, POF, BUA, 4, 4 atz.).

Oharra: Bere garaian ohartarazi genuen bezala (Iñ. & Rek., 2018: 178), *Labandibar* da egun *Landibar* deitutako auzoaren jatorrizko izena, XV-XVIII. mendeetan zehar *Labandibar*, *Lauandiuar*, *Lahandibar*, *Laandibar* aldaerekin dokumentatua. XVIII. mendetik aitzina beti *Landibar* ageri da, baita behin edo bertze XVI. eta XVII.etan ere. Hortaz, ohar hartan bidegabakeriatzat jo genuen *Landibar* aldaeran oinarritzea auzo honen izenaren etimologia azaltzeko, bere osaeraren lehenbiziko elementua *landa* ‘vega’, ‘campo húmedo y fértil’ dela egiaztatuz.

Lekaroz

Dokumentazioa: «Sancho Juan de *Lecaroitz*» (1780 [1231], POF, BUA, 73).

Oharra: *Lecaroitz* lekukotasun berria da, behin bakarrik agertu dena XIII. mendeko testigantzari erreferentzia egiten dion XVIII. mendearen amaierako agirian.

Lekunberri

Dokumentazioa: «Maria de *Lecuberri*» (1643, APA, EL, 1, 40).

Oharra: Lekukotasun bakarra eta XVII. mendekoa bada ere, kontuan hartzekoa dateke *-n-* sudurkaririk gabeko testigantza hau.

Leorlaz. Urdazubi

Dokumentazioa: *Leorlas* (1584, POF, BUA, 10, 14 atz.); *Leorlaz* (c. 1600, POF, BUA, 74); *Leorlas* (1652, POF, BUA, 10; c. 1700 [1482], POF, BUA, 2); *Leorlaz* (1700, POF, BUA, 1); *Leorlas* (1743, POF, BUA, 1; 1769 [1482], POF, BUA, 3; 1779, POF, BUA, 6; 1780 [1482], POF, BUA, 19 atz.; 1784, POF, BUA, 3; 1850, POF, BUA, 3 atz.).

Oharra: Lekukotasunen arabera, *Leorlas* (< *Leorlats*) da aldaera nagusia, XV. mendetik hasi eta XIX. arte, nahiz eta bi aldiz ageri den *Leorlaz* aldaera ere.

Lotzabien. Beintza-Labaien

Dokumentazioa: «Endreçera de *Loçabien*» [hainbat aldiz urte hone-tako agirietan] (1546, NEAN, DPR, 11. eta 12. k.); *Lozabien* (1788, NEAN, DPR, 156. k.); *Lozabein* (1832, NEAN, DPR, 222. k.); *Lozabein* (1852, NEAN, DPR, 280. k.); *Lozabian* (1862, NEAN, DPR, 280. k.); *Lozabian* (1898, NEAN, DPR, 280. k.).

Oharra: Ematen duenez, XIX. mendeko bigarren erdialdera arte ez zen gertatu *Lozabien* (*Lozabein* metatesiduna tarteko) > *Lo(t)zabian* (bokal asimilazioaz) bilakaera.

Lumbier / Irunberri

Dokumentazioa: *Irunberri* (1587, NEAN, DPR, 39. k., in “Memorial de las deudas y recibos de garcia de dolare (tratante) de Santesteban”); «Juanes de *Yrunberri* vecino de la villa de Maia» (1657, POF, BUA, 2 atz.); «Phelipe de *Irunberri* natural de la villa de Yançi» (1681, APA, EL, 1, 76); «Maria de *Irunberri*» (1681, IPA, EL, 5, 2);

«Luyssa de *Irumberri*» (1681, IPA, BL, 5, 10 atz.); «Diego de *Irumberri* hijo de Phelipe de *Irumberri* y de Cathalina de Apezechea» (1682, APA, BL, 2, 14); «Martin de *Irunberri*» (1686, IPA, HL, 4, 21); «Bauptista de *Irumberri* hijo de Phelipe de *Irumberri* y de Cathalina de Apezechea» (1688, APA, BL, 2, 33); «Francisco de *Ilunberri* hijo de Phelipe de *Ilunberri* y de Cathalina de Apezechea» (1691, APA, BL, 2, 43); «murio Phelipe de *Irumberri*» (1716, APA, HL, 1, 89); «Julian de *Irumberri* y sus hijos vecinos de Marcilla» (1775, NEAN, 260588 pro., 162. zk.).

Oharra: XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan zehar herri batzuetan (Amaiur, Arantza, Doneztebe, Igantzi, Martzilla) jasotako dokumentazioan aurkitutako deiturak badira ere, interesgarria da egiaztatzea gehienetan hasierako forma *Irum-*, *Irun-* dela eta bi agiritan bakarrik *Ilum-*.

Luzaide / Valcarlos

Dokumentazioa: «...*Lucayde* dicha Balcarlos» (1612, POF, BUA, 3 atz.); *Luzaide* (1764, NEAN, DPR, 23002/1 ka.); «Juan de Nabarlaz, natural de *Luzaide*» (1766, BPA, BL, 3B, 42); «...termino de Valcarlos llamado en idioma vascongado *Luzaide*, se divide de los baigorrianos por el arroyo nombrado Eunzeguiarana...» (1865, [1569], POF, BUA, 346).

Mugairi. Oronoz

Dokumentazioa: «...en las casas de *Mugayry* que es en la valle de Vertiz...» (1544, NEAN, DPR, 10. k.); *Mugayri* (1566, NEAN, DPR, 19. k.); «Pedro de *Mugayri*» (1566, NEAN, DPR, 16. k.); «Joanes de *Mugayri* vezino de Oronoz» (1580, NEAN, DPR, 52. k.); «Pedro de *Mugayri*» (1589, DPA, BL, 30); «...borda con un mançanal sita en *Mugairi*» (1644, NEAN, DPR, 65. k.); «En el lugar de Oyeregui cavo la puente de *Mugayria* se juntaron de la parte de la Valle de Santesteban Juan de Almandoz alcalde de la villa de Santesteban y de la parte de la Valle de Baztan Leon de Gortayri jurado del lugar de

Oronoz...» (1646, NEAN, DPR, 4. k.); «...otra eredad en el termino de *Mugairi*» (1683, NEAN, DPR, 78. k.); «...Joanes de aguerrebere natural del lugar de Ciga y su casa llamada *Mugairi*» (1715, NEAN, DPR, 79. k.); *Mugairi* (1761, POF, BUA, 1. ag., 1; 3. ag.); *Mugairi* (1769, NEAN, DPR, 118. k.); «...en la benta nombrada *Mugaide* [sic], jurisdiccion de el lugar de Oronoz...» (1783, NEAN, DPR, 132. k., 7. zk.); *Mugairi* (1801, POF, BUA, 1); «...en la venta de *Mugayri*, jurisdiccion del lugar de Oronoz...» (1814, NEAN, DPR, 167. k.).

Oharra: Lau mendeetan zehar (XVI-XIX) *Mugairi* aldaera egiaztatzen duten 14 lekukotasunek argi adierazten dute zein den jatorrizko izena, etimologia gardenekoa dena, gainera. *Mugaire* aldaera nahiko berantiarra da, XIX. mendekoa ematen duenez, bokal itxiak irekitzeko joera ezaguna baita euskal toponimian, *Mugairi* > *Mugaire* bezala, *Oñati* > *Oñate*, *Santurtzi* > *Santurce*, etab. Lekukotasun horiek eskuetan, erabat baztertzekoa da, gure ustez, XVIII. mendera arte dokumentatu ez den *Mugaide* (< **Mugabide*) forma bakarra izaten ahal dela jatorrizko izena defendatzea: «...la documentación antigua no descarta que *Mugaide* fuese la forma antigua y original» (Belasko, 1996: 298).

Nabasturen. Lesaka

Dokumentazioa: «Ana de *Nabasturen*» (1575, LPA, BL, 1, 38 atz.; 1579, LPA, BL, 1, 46 atz.).

Oharra: *Nabatx* Lesakako auzoa da eta *Nabasturen* [sic] herri horretako bertze toponimo bat eta, gainera, Berako etxe bat. Pentsatzekoa da Lesakan XVI. mendean dokumentatuko *Nabasturen* (*Nabatx* + *guren*) izanen dela gaur egungo *Nabasturen* izenaren jatorria.

Oharriz. Lekaroz

Dokumentazioa: «Pedro de *Hoarrichena*» (1584, POF, BUA, 6); «Juanes de Echeverz, vecino de *Oharriz*» (1591, POF, BUA, 18); «Jeronimo de *Oharrichena*, jurado de Arizcun» (1615-1617, POF, BUA, 1); «Lugar de *Oarriz*» (c. 1630, POF, BUA, 6 atz.; 1694, POF,

BUF, 2; 1714, POF, BUF, 2 atz.); «...la casa de *Oharrichena* de Bergara» [Arizkun] (1693-1694, POF, BUF, 1 atz.); «Palacio de *Hoarriz*» (1739, POF, BUA, 3); «Petri Sanz de *Oharriz*» (1756 [1482], POF, BUA, 2. ag., 3); «*Huarritz* [deitura], natural de Lanz» (1759, BPA, BL, 3A, 393; 1763, BPA, BL, 3A, 567); *Ugarritz* [deitura] (1760, BPA, BL, 3A, 500); «...casa *Oarrichena*» [Arizkun] (1762, POF, BUA, 2, 8 atz.); *Uarriz* (1770, DOPA, BL, 73); «Maria Estevan de Echenique mujer que fue de Francisco de *Huarritz*» (1796, BPA, HL, 2, 154); «...barrio de *Hoarriz*» (1800, POF, BUA, 2 atz.); «Viuda de Sebastian de *Huarritz*» (1805, BPA, HL, 2, 210).

Oharra: XVIII. mendera arte dokumentatzen ez badira ere, ez dira bazter uztekoak hasieran *Ua-* edo *Uga-* duten aldaerak.

Oieregi

Dokumentazioa: *Oyeregui* (c. 1500, NEAN, DPR, 21. k.); *Oiaregui* (1630, POF, BUA; 1736, POF, BUA, 1, 3, 3 atz., 4); «...rector de *Oyaregui*» (1685, POF, BUF, 2); «Catalina de *Oyaregui* y Vertiz, mujer de Lorenzo de Elio» (1698, POF, BUF, 10); *Oyeregui* (c. 1700 [1566], POF, BUF, 1; 1784, POF, BUA, 4); «Lugar de *Oyeregui* del Valle de Vertiz Arana» (1792, POF, BUA, 1).

Oharra: Kontuan izatekoak dirudite *Oiar-*, *Oyar-* aldaerak dituzten XVII. mendeko hiru testigantzak.

Olazur. Zugarramurdi

Dokumentazioa: *Olasur* (1443, POF, BUA, 21); «sel de *Olasur-garaya*» (1443, POF, BUA, 22; 1584, POF, BUA, 2 atz.; 1752, POF, BUA, 3 atz.; 1785, POF, BUA, 3); *Olasurberea* (1443, POF, BUA, 22; 1584, POF, BUA, 2 atz., 10 atz.; 1752, POF, BUA, 3; 1845, POF, BUF, 2); «*Olasurberea*, sel del busto de Michelia» [Urdazubi] (1584, POF, BUA, 2 atz.); «...bustaliza de *Olasur*» (1630 [1182], POF, BUA, 11; 1745 [1203], POF, BUF, 1 atz.); *Olasur* (c. 1600, POF, BUA, 18; 1687, POF, BUA, 16); *Olasurcoattaca* (1687, POF, BUA, 33 atz.); «...termino de *Olasur* o Mugaroquia»

(c. 1700, POF, BUA, 2); *Olasurcoarria* (1711, POF, BUA, 31); «...sel de *Olasur*» (1776, POF, BUA, 3 atz.; 1785, POF, BUA, 3); *Olasurcoateca* (1776, POF, BUA, 12 atz.); *Olasurcoataca* (1845, POF, BUF, 4).

Oharra: Lekukotasunak *Olasur* formaren alde mintzo dira, erabat argi utziz aldaera hori ez dela 1880. urtera arte «la única vez que se documenta» (Belasko, 1996: 325).

Olejua / Olexoa

Dokumentazioa: «D. Diego de *Olexoa*» (1539, IEA, Olexoako fitxak); «...lugar de *Olexoa*» (1598, IEA, Olexoako fitxak); «D. Miguel Sanz de *Olexoa*» (1599, IEA, Olexoako fitxak); «...lugar de *Olexoa*» (1599, IEA, Olexoako fitxak); «abad de *Olexoa*» (1624, 1627, 1629, IEA, Olexoako fitxak); «Sanzho de *Olexoa*» (1631, IEA, Olexoako fitxak); «...lugar de *Olejua*» (1634, IEA, Olexoako fitxak); «...beneficiado de *Olexoa*» (1634, IEA, Olexoako fitxak); «Martin Gastea vecino de *Olexoa*» (1634, IEA, Olexoako fitxak).

Oharra: XVI eta XVII. mendeetako lekukotasun hauek *Olexoa* formaren alde mintzo dira.

Ordoki. Arizkun

Dokumentazioa: «Pedro de *Ordoqui*, jurado de la parroquia de Arizcun» (1591, POF, BUA, 16 atz.); «barrio de *Ordoqui*, de la parroquial del lugar de Arizcun» (1693, POF, BUF, 1).

Oronoz

Dokumentazioa: *Horonoz* (1584, POF, BUA, 5 atz.; 1607, POF, BUA, 1, 6 atz.); «Hernando de *Oronoz*, vecino de *Oronoz*» (1589, POF, BUA, 2); *Oronoz* (1620 [1366], POF, BUA, 1 atz.; 1685, POF, BUF, 1); «...heredad de pan sembrar en la parte llamada *Oronozburu*» (1685, POF, BUF, 1. ag., 1); «Palacio de *Oronoz*» (1709, POF, BUF, 1 atz.); «Palacio de *Horonoz*» (1709, POF, BUA, 6).

Osacain / Otsakain

Dokumentazioa: «...natural de *Otsacain*» [sic, 2 aldiz], (1766, BPA, BL, 3B, 44); *Otsacain* [sic, hiru aldiz] (1770, BPA, BL, 3B, 114); «...natural de *Otsacain*» (1772, BPA, BL, 3B, 180).

Oharra: Aipatzekoa da XVIII. mendean sei aldiz bildutako lekukotasun hauek *-ts-* afrikatua ageri dutela izenaren hasierako osagaian.

Pamplona / Iruña

Dokumentazioa: *Iruñea*, *Irunea* (1614, Iñ., 2011: 1266).

Oharra: Azpimarra daiteke Prudencio Sandoval Iruñeko apezpikuak 1614an argitara eman zuen *Catalogo de los obispos, que ha tenido la Santa Iglesia de Pamplona* [...] liburuan, Nafarroako hiriburuaren euskaral ordaina aipatzen duen aldiro *Iruñea* edo *Irunea* erabiltzen duela, inoiz ez *Iruña*. Eta, gure ustez, *Iruñea* modu argian idatzitako lehenbiziko aipua ez bada, zaharrenetakoa da, izan ere, Goñi Gaztanbidek argitara emandako latinezko *Yrunia*, etab. lehenagokoak baitziren eta Jimeno Juríok emandako toponimoak geroagokoak.

Saldias

Dokumentazioa: «En el lugar de *Saldies*» (1568, NEAN, DPR, 26. k.); *Saldies* (1623, NEAN, DPR, 53. k.).

Sarekoa. Zubiet

Dokumentazioa: *Sarea* (1860, 1890, 1927, 1933, 1982, 1990, Iñ., 1996: 79); *Sarecua* (1907, Iñ., 1996: 79); *Sarecoa* (1933, Iñ., 1996: 79).

Oharra: Izendapen ofiziala *Sarekoa* da, segur aski Zubietako oikonomoetan arrunta den *-koa* atzizkiaren aplikazioaren eraginez (ikus Iñ. 1996: 79, 428). Baina XIX. mendearen erdiaz geroztik jasotako dokumentazio idatzia eta 1991n bildutako ahozko testigantzak *Sarea* izendapenaren alde mintzo dira.

Suarbe

Dokumentazioa: *Suarbe* (1568, NEAN, DPR, 7. k.); «Joanes de Ynça abbad de las parrochiales de Oroquieta y *Xuarbe*» (1647, APA, EL, 1, 43); «Pedro de *Xuarbe*, cuyo es el palacio de *Xuarbe*» (1653, NEAN, DPR, 59. k.); «Juan de Orquin natural del lugar de *Xuarbe* y residente en el de Auza» (1781, NEAN, DPR, 23002/1 ka.).

Oharra: Kontuan izatekoak dira, bai *Xuarbe* aldaeraren alde mintzo diren XVII. eta XVIII. mendeetako lekukotasunak, bai eta Aingeru Irigarai³ XX.aren erditsuan argitara emandako oin-ohar interesgarri hori ere.

Sunbilla

Dokumentazioa: «...en el lugar de *Sumbill* [...] en el lugar de *Sumbilla*» (1494, NEAN, DPR, 23. k.); *Sumbil* (1495, NEAN, DPR); *Sumbilla* (c. 1500, NEAN, DPR, 21. k.); *Sumbil*, *Sumbilla* (1541, NEAN, DPR, 18. k.); «Las villas de Vera, Echalar, Eantzi, Aranaz, Sant Esteban, lugar de *Sumbill*...» (1543, NEAN, DPR, 9. k.); *Sumbilla* (1543, NEAN, DPR, 15. k.); «...lugar de *Sumbill*» (1561, NEAN, DPR, 12. k.); «Joanes de *Sumbill*, vezino del lugar de *Sumbill*» (1562, NEAN, DPR, 18. k.); *Sonbil* (1562, NEAN, DPR, 9. k.); «Maria de *Sumbil*» (1607, SPA, BL, 11); *Sunbilla* (1625, POF, BUA, 9. ag., 52); «Miguel de *Sumbil*» (1673, NEAN, DPR, 70. k.); «*Sumbil-landa*» (1772, POF, BUF, 2).

Oharra: *Sumbil* eta *Sumbill* aldaerak XVII-XVIII. mendeetan ere ageri dira.

Telleria. Urdazubi

Dokumentazioa: «...*Tejeria* del Monesterio» (1584, POF, BUA, 2 atz.; «...*Tejeria* del Monasterio» (c. 1600 [1486], POF, BUA, 1 atz.);

³ Herri izen honen ahoskerari dagokionez, honela zioen Aingeru Irigarai euskaltzainak: «la j tiene el sonido de x como ocurre en *Juarbe*, que los euskaldunes dicen *Xuarbe*» (A. Irigaray in «El euskera en Artajona», *Yakintza*, 1934, eta in *Geografía histórica de la lengua vasca* (siglos XVI al XIX), Edit. Auñamendi, 2. argitaraldia, 1960, 149-150).

«...barrio de *Telleria*» (c. 1600, POF, BUA, 73); *Tegeria* (c. 1600, POF, BUA, 76); «...barrio de *Tejeria*» (1725, POF, BUA, 2 atz.); «...barrio de *Texeria*» (1742, 1754, POF, BUA, 1); *Tellericolanda* [Urdazubi] (1780 [1584], POF, BUA, 26).

Tipulatze. Narbarte

Dokumentazioa: «...lugares de Narbarte Oyeregui y *Tipulaçe*» (1568, NEAN, DPR, 7. k.); *Tipulaçe* (1571, NEAN, DPR, 7. k.); «...lugar de *Tipulaçe*» (1573, NEAN, DPR, 26. k.); «...lugar de *Tipulaze*» (1575, NEAN, DPR, 26. k.); *Tipulaz* (1602, POF, BUA, 1 atz.; 1672, NEAN, DPR, 58. k.); «Juanes *Tipulaz*, alias buruluzea» [Legasa] (1607, POF, BUA, 2); «...termino redondo de *Tipulaz*-Huarte [Oieregi]» (1676, NEAN, DPR, 66. k.); *Tipulaz* (1690, NEAN, DPR, 84. k.); *Tipulaz* (1771, NEAN, DPR, 23002/1 ka.); «*Tipulaz* landa» [Oieregi] (1792, POF, BUA, 4 atz.); «...barrio de *Tipulaz*» (1792, POF, BUA, 4 atz.).

Oharra: Ikusten denez, XVI. mendean *Tipulaçe* edo *Tipulaze* zena, XVII.etik aitzina *Tipulaz* bilakatu zen, eta azken hau da gaur egun ahoz erabiltzen dena ere.

Tudela / Tuteru

Dokumentazioa: «Joanes de Çarandia alias *Tutera*» (1595, Iñ., 2011: 1274); *Tuterarena* (1639, Iñ., 1996: 545; Iñ. & Rek., 2018: 199); «...murio Bernardo Rapun, guarda de tabaco, natural de la ciudad de *Tutela* [sic]» (1736, BPA, HL, 1, 208).

Oharra: Iturenen dokumentatutako 1595eko lekukotasuna da gure ustez, oraingoz behintzat, Erriberako hiriaren euskal ordainaren testigantzarik zaharrena, 1639rako etxe baten izenean islatua gelditu dena⁴.

⁴ Lekukotasun hauen arabera, beraz, erabat baztertzekoa da Ricardo Ciérbidek (2002: 308) dioena: «En cuanto a *Tudela-Tutera* se consideró oportuno desechar el invento de **Tutera*, porque era del todo punto de vista aberrante [...]».

Uharte Arakil

Dokumentazioa: «...cabe la villa de *Uarte de Valdaraquil*» (1540, NEAN, DPR, 18. k.).

Ultzama

Dokumentazioa: «Montes de Ezcaburu *Valdeuçama* y terminos de Ybargoyara» (1548, NEAN, DPR, 19. k.); «Val de *Uçamoa* [...] cle-recia de *Uçamoa*» (1600, POF, BUA); *Vlçama* (c. 1600, POF, BUA, 1); *Vlçamoa* [...] *Vlçamua* [sic] (c. 1600, POF, BUA, 1); *Vlçamoa* (1630, POF, BUA, 3); «Valle de *Vlçamoa*» (1651, POF, BUA, 3 atz.); «Valle de *Ulçama*» (1708, POF, BUA, 5); *Uçamoa* [...] *Ulçama* (1711, POF, BUA, 12); «Petrus de *Vlçamoa*» [Urdazubi], (1745 [1082], POF, BUF, 1 atz.); *Vlçama* (1781, POF, BUA, 10 atz.); «Ven-ta de *Ulçama*» (1880-1890), POF, BUA, 2. ag., 1).

Oharra: Deigarriak dira XVII-XVIII. mendeetan zehar *-oa* amaie-rarekin ageri diren zazpi lekukotasun (horietako bat, gainera, XI. mendeko agiri bati erreferentzia egiten diona), bai eta *-ua* duen bat ere.

Urrutiña. Eratsun

Dokumentazioa: *Hurrutino* eta *Urrutino* (1546, NEAN, DPR, 11. k.); *Urrutiño* (1547, NEAN, DPR, 11. k.).

Oharra: Eratsungo auzo honen XVI. mendeko lekukotasunak *-no* / *-ño* atzizki txikigarriaren alde mintzo dira.

Usetxi

Dokumentazioa: *Ussexi* (1460, NEAN, DPR, 1. k.).

Zalain. Bera

Dokumentazioa: *Çalain* (1581, NEAN, DPR, 42. k.); «*Zalayn*, varrio de Vera [...] *Zalayn*, varrio de Lessaca» (1689, BPA, HL, 1, 37).

Ziga

Dokumentazioa: «Machico de Arreneche de *Zihiga* y Pedro de Navarrolaz de *Zihiga*» (1482, POF, BUA, 1. ag., 2 atz., 3 atz., in “Escritura de faceria entre el valle de Baztan, el Monasterio de Urdax y Zugarramurdi”); *Cihiga* (c. 1500, NEAN, DPR, 21. k.); *Ziga* (1584, POF, BUA, 6); «miguel de echandi vecino de Çuraurre de la parroquia de Çiga» (1627, POF, BUA, 20. ag., 70; 1643, POF, BUA, 1); *Ciga* (1631, POF, BUA); *Cihiga* (1756 [1482], POF, BUA, 2. ag., 3); «...rector de *Zihiga* y Berroetta» (1756 [1482], 1. ag., 3 atz.).

Oharra: Izenaren jatorriari dagokionez, adierazgarriak dira hasieran *Cihi-* / *Zihi-* daramaten lekukotasunak, XV., XVI. eta XVIII. mendee-takoak direnak.

Ziganda

Dokumentazioa: «Juan Martin Lozen, natural de *Ziguenda* [sic]» (1779, BPA, HL, 2, 20).

Zigaurre. Ziga

Dokumentazioa: «Martyn polit vezino de Çuraurre» (1573, NEAN, DPR); «...lugar de *Zuraurre*» (1630, POF, BUA, 6 atz.; 1660, POF, BUA, 3 atz.); «miguel de echandi vecino de Çuraurre de la parroquia de Ciga» (1631, POF, BUA); «barrio de *Zuraurre*» (1656, POF, BUF, 7); «vecino de *Zudaurre* [sic, behin edo bertze]» (1660, POF, BUA); *Zuraurre* (1668, NEAN, DPR, 72. k.); «Construcción del puente de piedra llamado Zubizabaletaco Larran que esta entre los lugares de Irurita y *Zuraurre*» (1668, NEAN, DPR, 72. k.).

Oharra: Nahiko argia da, ematen duenez, *Zuraurre* dela auzo honen jatorrizko izena eta ez *Zigaurre*.

Zilbeti

Dokumentazioa: «Joanes de *Cilveyti*, alchatero» (1567, NEAN, DPR, 24. k.); «Joanes de yriarte, alias *Cilbeyti*» (1573, NEAN, DPR,

25. k.); «Joanes de yriarte, alias *Cilbeti*, de Çubieta» (1585, NEAN, DPR, 25. k.); «Miguel de Çilbeti, jurado de Esnoz» (1671, POF, BUA, 280).

Oharra: XVI. mendeko bi lekukotasunetan *-beyti* / *-veyti* da ageri dena.

2.1.2. Gipuzkoakoak

Gipuzkoa

Dokumentazioa: «...Provincia de *Ypuzcoa*» (1645, IPA, EL, 4, 3); «murio en Berastegui, en la Provincia de *Ypuzqua*» (1686, APA, HL, 1, 64); «Francisca de Borda natural de Alca de la provincia de *Ipuzcoa*» (1690, ITUA, Ind., 1. lib.); «Juan de *Ypoucha*, natural de los Alduides, pasando el termino de Yanzi se ahogo y se encontro su cuerpo al par de Zalainzar» (1777, BPA, HL, 2, 3).

Alonimoa:

Dokumentazioa: «...se trayga de la *Prouincia* vn official carbonero esperto...» (1617, POF, BUA, in “Concordias de la villa de Aranaz y los dueños de la casa y herrería de Arranibar”); «...un pobre de la *Provincia* que andaba pidiendo limosna ostiatim» (1719, BPA, HL, 1, 154); «...murio una muchacha de la *Provincia*, pobre» (1734, BPA, HL, 1, 204).

Oharra: Ikusten ahal denez, Nafarroan Gipuzkoa aipatu nahi zenean, XVII. eta XVIII. mendeetako gaztelaniazko testuetan *Provincia* alonimoa modu nahiko arruntean erabiltzen zen.

Pasaia

Dokumentazioa: «Martyn de Peña habitante en *Pasaia* que es en la provincia de Guipuzcoa» (1610, SPA, BL, 16 atz.).

Oharra: Interesgarria da *Pasaia* euskal izendapena XVII. mendearen hasierako Sunbillako dokumentazioan ageri izana.

2.1.3. *Ipar Euskal Herrikoak***Ainhoa**

Dokumentazioa: «...Frater Petrus de Añoa, Dei Gracia Abas Monasteri de Urdax» (1082, POF, BUA in “Escritura de donacion del Rey a Pedro de Asnares”); «...fray Martin de Añoa susprior y calonge, fray Pedro de Añoa granero y calonge, Fray Joan de Añoa calonge, fray Martin Sanz de Añoa calonge, fray Juancheco de Añoa racionero [del monasterio de Vrdax]» (1443, POF, BUA, 9); *Aynoa* (1564, NEAN, DPR, 19. k.); «Maria Joan de Añoa» (1579, LPA, BL, 1, 46 atz.); «Carlos de Añoa hijo de Martin de Añoa» (1582, LPA, BL, 1, 52 atz.); «herreria de Añoa» (1584, POF, BUA, 3 atz.); «...la endrecera y puesto donde se juntan los dos ríos que vienen de Hororbidea y de Añoa que es de la herreria bieja del monesterio» (1584, POF, BUA, 14 atz.); «...rio que baja de la herreria de Añoa» (1600, POF, BUA, in “Compromiso y sentencia arbitraria entre el valle de Baztan y el Monasterio de Urdax”); «Catalina de Añoa» (1621, LPA, EL, 2, 206 atz.); «Maria de Añoa y Miguel de Añoa» (1634, LPA, EL, 2, 230 atz.); «Joanes de Fagoaga, natural de Añoa» (1659, APA, EL, 1, 53 atz.); «Catalina de Añoa» (1681, LPA, HL, 3, 201); «Miguel de Aynoa, vecino de Aino» (c. 1700 [1527], POF, BUA, 1); «los abuelos maternos [de Ursula Josepha Simona de Zuaznabar] fueron don Nicolas de Aragorri natural de Endaia y doña Juana de Olavide, su legitima muger natural de Añoa» (1771, BPA, BL, 3B, 142); «Petrus de Añoa abad del monasterio de Vrdax» (1745 [1360], POF, BUA, 1); *Añoa* (1782, POF, BUA, 1, 1 atz.).

Oharra: Azpimarratzekoa da *Añoa* formaren lekukotasun ugari ageri direla Nafarroa Garaiko eremu honetako dokumentazio zaharrean, modu arruntean egiaztatzen baita XI. eta XVIII. mendeen arteko agerietan.

Akize

Dokumentazioa: «...Jose Lorenzo de Aguirre murio en *Aquiz*» (1776, BPA, HL, 1, 428).

Oharra: *Aquiz* [sic], ez *Aquize* edo *Aquice*.

Arrangoitze

Dokumentazioa: «Ana Francisca Arrangoiz murio en Ichasu, Reyno de Francia» (1776, BPA, HL, 1, 425).

Oharra: *Arrangoiz* [sic], ez *Arrangoize* edo *Arrangoice*.

Azkaine

Dokumentazioa: «Fray Lorenz de Azcain» [Urdazubi] (1443, POF, BUA, 1); *Azcayn* (1566, NEAN, DPR, 16. k.); «...murio Estebania de Iturbide, natural de Azcain» (1723, BPA, HL, 1, 171); *Azcain* (1750, POF, BUA; 1764, NEAN, BPR); *Azcayn* (1765, NEAN, BPR)⁵; «...lugar de Azcain» (1788, LPA, EL, 5, 164 atz.); «Francisco Esteban de Peña murio en Azcain» (1804, BPA, HL, 2, 204).

Jean Elizalde euskaltzain azkaindarrak 1930eko hazilaren 27an Azkainen egindako «Euskaltzaindian sarrera» hitzaldian (*Euskera*, 1931) honako hauek ageri dira: «Azkaingo hefi edefeko» (70. or.); *azkaindar* (73. or.). Eta Lacombe emandako erantzunean: «Azkaini duzun atxikimendua» (78. or.); «Azkaingo hefian dut nik nire etxea, xoko polit batean umilki gordea» (78. or.); «Azkaingo eskuara» (83. or.).

Oharra: Herri honen euskal izen arautua *Azkaine* bada ere, lekukotasun hauek guztiak *Azkain* aldaeraren alde mintzo dira.

Barkoxe

Dokumentazioa: «Petrizanz de Barcoyx» (1539, Iñ., 1996: 244; 1544, Iñ., 1996: 285); «Thomas de Barcox, presbitero de Ituren» (1593, APA, EL, 1, 6 atz.); «Joanes de Barcox» (1620, Iñ., 1996: 49); «Miguel de Barcoz» [Lasa] (1669, POF, BUA, 6, 7); «...la dicha Maria de Barcox [...] es bruxa» (1676, Iñ., 1996: 541).

⁵ 1764. eta 1765. urteetako lekukotasunak Jose Mari Zelaieta Errandonea ikertzaile beratarak emanak dira.

Biarritz

Dokumentazioa: «Pedro de yriarte rector de *Mearriz* [sic, zenbait aldiz] y canonigo de Bayona» (1631, POF, BUA, 28. ag., 14), *Meharritz* (1631, POF, BUA, 37. ag., 22); «...de *Mearriz* [...] y canonigo de Bayona» (1634, POF, BUA).

Biriatu

Dokumentazioa: «...natural de *Veriatu*» (1771, BPA, BL, 3B, 145; 1772, BPA, BL, 3B, 186); «Domingo Barreneche murio en *Beriatu*, Reyno de Francia» (1776, BPA, HL, 1, 427).

Kanbo

Dokumentazioa: «...murio Maria Echeverria, natural de *Gambo*» (1736, BPA, HL, 1, 209); *Gambo* (1745, BPA, HL, 1, 255).

Oharra: XVIII. mendeko bi lekukotasun hauek forma zaharraren hasierako G- mantentzen dute.

Larresoro

Dokumentazioa: «...murio Erlosanz, vezino de *Larresoro*, Probinzia de Labort» (1720, APA, HL, 1, 93); «...Aroztegui, natural de *Larresoro*» (1765, BPA, BL, 3A, 25).

Senpere

Dokumentazioa: «...herron [sic] de *Sanper*» (1584, POF, BUA, 7); *Semper* (1586, POF, BUA, 2 atz.); *Senper* (c. 1600, POF, BUA, 4; 1789, POF, BUA, 4); «*Semper*, provincia de Labort» (1725, POF, BUA, 2, 2 atz.); «Juan de Iriart, natural de *Semper*, se encontro ahogado en el Rio junto a Endarlasa, termino de Vera» (1770, BPA, HL, 1, 380); «Miguel Laralde natural de *Semper*» (1806, BPA, HL, 2, 222).

Urepele

Dokumentazioa: *Vrepela* (1671, POF, BUA, 286 atz.); «...la regata que nace debaxo de Ausaroicogaña y baxa a *Vrepela*» (c. 1700, POF,

BUA, 1); «...la regata de *Vrepela* subiendo los montes para Ronzesvalles» (1785, POF, BUA, 1 atz.).

Oharra: Herri honen euskal izen arautua *Urepele* bada ere, aurkitutako lekukotasun hauek jatorrizko *Urepel* aldaeraren alde mintzo dira ematen du, alde batera utzi gabe XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan dokumentatzen den *Urepela* aldaera.

Urruña

Dokumentazioa: «*Urruña*, provincia de Labort» (1706, BPA, HL, 1, 108).

Zuberoa

Dokumentazioa: «...Juan de Hugarte frances, natural de *Ziberua* [sic]» (1789, BPA, HL, 2, 89).

2.2. Bertze zenbait toponimo

2.2.1. Oronimoak

Adi

Dokumentazioa: *Ahadi* (1784, POF, BUA, 1); *Ahadi* (1785, POF, BUA, 1 atz.).

Oharra: *Ahadi* aldaera ageri da XVIII. mendeko bi testigantzetan, oraindik ere inguruan, Bankan erraterako, ahoz ahoskatzen den moduan.

Alkaxuri

Dokumentazioa: *Alcachury* (1660, POF, BUA, 1 atz.); *Alcasuri* (1733, POF, BUA, 3 atz.); *Alcachuri* (1769, POF, BUA, 3; 1790, POF, BUA, 12; 1856, POF, BUA); *Alcachurialdea* (1790, POF, BUA, 12 atz.).

Alkurruntz

Dokumentazioa: «*Alcurrunz superior, Alcurrunz inferior*, bustalizas del Palacio de Irurita» (1576 [1230], POF, BUA, 16); «*Alcurruzberea*, sel del busto de Michelia» (1584, POF, BUA, 2 atz.); «*Alcurruz behe-rea* sel del busto de Michelia por la parte de Orobidea» (1584, POF, BUA, 2 atz.); «...pusieron por mojon una gran piedra junto a un regacho de *Alcurruz beherea*» (1654, POF, BUA, 1); «sel de *Alcurruzco behosaroya* por la parte de Orobidea» (c. 1700, POF, BUA, 1); «sel de *Alcurruz saroya* por la parte de Orobidea»; (c. 1700, POF, BUA, 1); «monte *Alcurrunz*» (1762, POF, BUA, 2 atz.); «*Alcurruz* que segun escritura de 1654 se llamaba Peña de Aguila» (1784 [1654], POF, BUA, 6 atz.); «*Alcurrunzbeherea* o *Arluce* [...] *Alcurrunzbeherea* o *Arluz*» (1845, POF, BUA, 3).

Oharra: Ematen duenez, *Alkurruntz* forma *Alkurruz*-tik bilakatutakoa da, eta azkeneko bi testigantzek *Arluze* edo *Arluz* mendia *Alkurruntz* bera dela diote, ez bertze bat.

Aralar

Dokumentazioa: «...el termino de Yruleguy que es situado en la tierra de Arayz y se affruenta de todas partes con terminos del lugar de Leçaeta y con terminos de Betelu y Herrazquin y con el termino de *Aralarre*» (1546, NEAN, DPR, 16. k.); «...que se affruenta de una parte con los terminos de Betelu y de la otra con los terminos de Herrazquin y de la otra con el termino realenco de *Aralarr* y de la quarta con el termino del señor de Heraso» (1556, NEAN, DPR, 15. k.).

Oharra: XI. eta XII. mendeetako *Aralarre* lekukotasun ezagunak XVI.enean ere badirau.

Ekaitza

Dokumentazioa: «*Ecayzgaraycoa* sel que esta a la parte de Yturen y Vidassoa» (1613, POF, BUA, 4); «*Ecayzberecoa* sel que esta a la parte de Yturen y Vidassoa» (1613, POF, BUA, 4); «...arroyo de *Ecay-*

za» [Arantza]; «...sel de *Ecayz garaycoa* [...] sel de *Ecayz berea* [...] sel de *Ecayzberecoa*» (1619, POF, BUA, 3 atz.)

Oharra: Lekukotasunen arabera, izen hau kasu absolutiboan *Ekaitza* (-a) dela ematen du.

Irakurri

Dokumentazioa: «...menas y meneras de *Ydocorri* [...] un agujero grande nuebo para buscar e sacar mena por de dentro de la tierra azia los abismos en los termynos del lugar dezcurra en *Ydocorri* en la parte y endreçera llamada Yturriça» (1539, NEAN, PDR, 20. k.).

Oharra: Antza denez, mendi honen egungo *Irakurri* izendapen ofiziala –XX. mendeko testigantzen arabera ezarria–, XVI. mendean ageri den jatorrizko *Ydocorri*-tik bilakatutakoa izan daiteke. Kontuan izatekoa da, halaber, Nafarroako Aizpurgi herrian ere badela *Idokorri* izeneko mendia, 1064. urtetik gaur egun arte horrela dokumentatua.

Otsondo

Dokumentazioa: «...sel del busto de Michelia en *Otsondo*» (1584, POF, BUA, 2 atz.); «...sel del busto de Michelia en *Osondo*» (1584, POF, BUA, 4, 11 atz.); «...sel del busto de Michelia en *Hossondo*» (1584, POF, BUA, 2 atz.); «...sel del busto de Michelia en *Ossondo*» (1584, POF, BUA, 10 atz.); «sel de *Otsondo* en lo propio del Valle de Baztan» (c. 1700, POF, BUA, 1); *Otsondo* (c. 1700 [1660], POF, BUA, 1 atz.); «...calzada en el camino a *Osondo*» (1736, POF, BUA, 11); «...sel de *Otsondo*» (1748, POF, BUA, 2); *Otsondocogaña* (1748, POF, BUA, 2); «*Otsondo* en el camino real desde Maia para Vrdax» (1752, POF, BUA, 6); «...sel o llano de *Otsondo*» (1757, POF, BUA, 5 atz.); «...sel y paraje llamado *Otsondo*» (1766, POF, BUA, 1 atz., 8, 9); *Otsondo* (1769, POF, BUA, 1); *Otsondo* (1776, POF, BUA, 14 atz.); *Otsondocogaña* (1776, POF, BUA, 14 atz.); «monte de *Otsondo*» (1778, POF, BUA, 1); *Otsondocogaña* (1789, POF, BUA, 14); *Otsondo* (1850, POF, BUA, 4, 5 atz.).

Oharra: Agiri zaharretan XVI. mendeaz geroztik dokumentatzen den *Otsondo* izendapena da oraindik ere euskaraz bizirik dirauena.

2.2.2. *Hidronimoak*

Basakaitz

Dokumentazioa: «...el rio que descende de la endreçera llamada *Basacayz* el cual divide los terminos de Ezcurra y Erasun» (1543, NEAN, DPR, 10. k.); «Endreçera de *Basacayz* que es del dicho lugar de Ezcurra [...] asta el prado de Sarrudico lecea» in “Contrato de faceria entre Ezcurra y Herasun” (1547, NEAN, DPR, 12. k.); «... el agua que corre de *Bassacayça*» (1551, NEAN, DPR, 15. k.); «... el dicho rrio que baxa de Ezcurra y *Basacaiça*» (1551, NEAN, DPR, 22. k.).

Oharra: Basaburua aldean sortu eta Eratsun eta Ezkurra herriek muga egiten duten tokitik pasatzen den erreka da *Basakaitz*, Ezkurra ibaian isurtzen dena.

Orabidea

Dokumentazioa: «...en *Ororbidea*, punto del comienzo del termino redondo que pretende tener el monasterio» (1584, POF, BUA, 3); «*Hororbideberea*, sel del busto de Michelia entre Baztan y Vrdax» (1584, POF, BUA, 2 atz., 10 atz.); «*Ororbideberea*, sel del busto de Michelia» (1584, POF, BUA, 4); «...rio de *Hororbidea*» (1584, POF, BUA, 3 atz., 9 atz.); «...la endrecera y puesto donde se juntan los dos ríos que vienen de *Hororbidea* y de Añoa que es de la herreria bieja del monesterio» (1584, POF, BUA, 14 atz.); «...rio de *Ororbidea*» (1584, POF, BUA, 3 atz.); «...el rio que baja de *Ororvidea*» (c. 1600 [1584], POF, BUA, 78); «...en *Orovide*, limite de Baztan con Zugarramurdi» (c. 1600, POF, BUA, 53); «en *Ororvide*, limite de Baztan con Zugarramurdi» (c. 1600, POF, BUA, 55); «*Ororbidebeerea*, sel de Michelia» (c. 1600 [1584], POF, BUA, 1); *Ororbidea* (1622, POF, BUA, 20 atz.); *Orozvide* (c. 1630, POF, BUA, 12 atz.); *Ororbidea*

(1652, POF, BUA, 1 atz.); «rio de *Orobidea* que baxa tocando las tapias de la huerta del dicho monasterio» (c. 1700 [1482], POF, BUA, 2 atz.); «*Orobide beherea*, sel en lo propio del Valle de Baztan» (c. 1700, POF, BUA, 1); «rio llamado Hugarana u *Oravidea*» (c. 1700, POF, BUA, 1); «Hugarana u *Ororvidea*» (1711, POF, BUA, 36); *Orozbidea* (1711, POF, BUA, 26); *Orobidea* (1725, POF, BUA, 3); *Orabidea* (1725, POF, BUA, 1); *Orobidea* (1727, POF, BUA, 1 atz.); «...venta de árboles de roble y haya en *Orobidea*» (1731, POF, BUA, 3 atz.); *Orobidea* (1744 [1609], POF, BUA, 1); *Orobidea* (1762, POF, BUA, 2 atz.); «rio llamado *Orovidea* o Vgarana» (1771, POF, BUA, 4); «rio llamado Vgarana u *Orovidea*» (1776, POF, BUA, 10); «...herreria que el Monasterio pretendia construir a la ribera del río *Orozbidea*» (1779 [1584], POF, BUA, 2); «...rios que vienen de *Ororbidea*» (1780 [1584], POF, BUA, 26); «*Orobia*, castañal en termino comun del valle» (1786, POF, BUA, 2 atz.); «*Orovidea* o Ugarana» (1798, POF, BUA, 4 atz.); «...molino de *Orobidea*» (1825, POF, BUA, 1); «...molino de *Orabidea*» (1825, POF, BUA, 1); «...molino de *Orovidea*» (1841, POF, BUA, 1 atz.); «...molino de *Orobidea*» (1845, POF, BUA, 4).

Honako toponimo hauek ere dokumentatzen dira:

Orolarr, *Oralar*, *Orolari* (1584, POF, BUA); *Orelarre* (1600, 1753, POF, BUA).

Oharra: Ikusten ahal denez, XVI. eta XVII. mendeetako lekukotasun ugariak *Ororbidea* aldaera erakusten dute, bai eta XVIII.ean ere ageri den pare batek. *Orozbidea*, *Orobidea* eta *Orabidea* aldaerak XVIII. mendetik honat dokumentatzen dira. Beraz, zail da izendapen honen oinarria *Orobidea* ‘camino del oro’ dela defendatzea (Belasko, 2000: 496). Dena dela, ikertzaile honek aitortzen du berak emandako definizio hori hagitz zalantzazkoa dela.

Zumarrezta

Dokumentazioa: *Çumarrixta* (1546, NEAN, DPR, 11. k.; 1547, NEAN, DPR, 12. k.); «...martinu de *Cumarrixta*, ferron de Recu-

ma, vezino de Leyça» (1566, NEAN, DPR, 18. k.); «Joanes de Çubiri, hermano de don Pedro de Çubiri que estuvo por ferron en Çumarritzta» (1587, NEAN, DPR, 39. k.); «Cristobal de Zumarritzta, maestro cantero, vezino de Lezo» (1659, NEAN, DPR, 71. k.); *Zumarritzta* (1750, ITUA); «...ferreria de Zumarritzta» (1832, NEAN, DPR, 4. k.).

Oharra: *Zumarritzta* aldaeraren lekukotasunak ugariak dira XVI-XIX. mendeetan zehar. Forma horretaz gain ageri den *Zumarresta* eta gaur egun erabiltzen diren *Zumarresta* eta *Zumarrezta* formak, ematen duenez, jatorrizkoaren aldaerak dira.

2.2.3. Bertzelakoak

Aranibar

Dokumentazioa: «...ferrona de Aranibar» (1549, NEN, DPR, 21. k.); «...ferron de Aranibarr» (1559, NEAN, DPR, 10. k.); «Joanes de Arranibar dueño de la casa y herreria de Arranibar» (1617, POF, BUA 1, 1 atz., 5 atz.); «Joan de Aranibar, cuyo es Aranibar» (1617, POF, BUA, 7); «Juan de Aranibar cuyo es el palacio de Aranibar» (1623, POF, BUA, 3. ag., 37); *Arranibar* (1629, APA, HL, 1, 17 atz.); «Joanes de Arranibar alias beguileun» (1630, APA, HL, 1, 19).

Oharra: *Aranibar* eta *Arranibar* ageri dira maiz eta aldi bertsuetan biak. Gaur egun erabiltzen dena *Aranibar* da, bai toponimoari dago-kionetan, bai horretatik sortutako familia deiturretan ere. Ematen du -rr- eta -r- kontsonanteen arteko txandaketa garbia dela izen hone-tan, nahiz eta erran izan den «la confusión entre -rr- y -r- no ocurre en vascuence» (Belasko, 1996: 264).

Asura

Dokumentazioa: *Asura arana* (1531, NEAN, DPR, 16. k.); «...en-dreçera de Asura arana» (1546, NEAN, DPR, 11. k.); «...ferrando de Herassun, ferron de la ferreria de Asura, vezino del lugar de Hera-

ssun» (1549, NEAN, DPR, 19. k.); «...ferreria de Asura, de Erasun» (1552, NEAN, DPR, 8. k.); «...ferron de Asura» (1556, NEAN, DPR, 23. k.); «En la cassa de anotación de la fabrica real de Asura, jurisdiccion del lugar de Herasun» (1743, NEAN, DPR); «...en los terminos de Asura arana» (1832, NEAN, DPR, 4. k., in “Facería de yerbas y aguas entre Erasun y Beinza-Labayen”).

Oharra: Antza denez, *ola* edo *etxea* aipatzean *Asura* deitzen zitzaion, baina dermio zabalagoa adierazi nahi zenean *Asura arana*.

Axular

Dokumentazioa: «Axular, sel del busto de Michelia» (1584, POF, BUA, 2 atz., 10 atz.); *Axularrena* [casa de Vrdax] (1584, POF, BUA, 14 atz.); *Axularena* [casa en Leorlas] (1584, POF, BUA, 16 atz.); «*Ajular*, sel del busto de Michelia» (1584, POF, BUA, 4); «*Axular*, sel de Michelia» (c. 1600 [1584], POF, BUA, 1); *Ajularena* (c. 1600 [1584], POF, BUA, 79); *Ajular* [casa en Vrdax] (1619, POF, BUA, 1); «Pedro de *Axular*, licenciado, de Sara, arrendador de los cuartos de las Cinco Villas y Valle de Baztan» (1625, POF, BUA, 7. ag., 50); «Pedro de *Axular*, rector de Sara» (1627, POF, BUA, 24. ag., 83 atz.); «Juana Xelay, viuda, casera en *Axular*» (1647, POF, BUA, 1); *Ajular* [casa en Vrdax] (1652, POF, BUA, 1); *Achular* [casa de Vrdax] (1688, POF, BUA, 1); «casa de *Ajular* propia del Monasterio» (1736 [1688], POF, BUA, 2); «...puesto llamado *Axular*» (1738, POF, BUA, 1); «casa vecinal propia del Monasterio llamada *Ajular*» (1748, POF, BUA, 3 atz.); «*Axular*, sel del Termino Redondo de Vrdax» (1753, POF, BUA, 2 atz.); «una pieza de pan sembrar en el puesto llamado *Axular*» (1754, POF, BUA, 1); «*Ajular*, sel en el Termino Redondo del Monasterio» (1776, POF, BUA, 21); «sel de *Ajular*» (1779, POF, BUA, 6 atz.); *Asular* (1784, POF, BUA, 2 atz.); *Ajular* in “Ejecutorial de 1748 se dice que es sel que el Valle poseía en el Término Redondo y que debía transferir al Monasterio” (1787 [1748], POF, BUA, 3); «casa llamada *Asular*, a diez minutos del pueblo en dirección al puente» (1850, POF, BUA, 5 atz.); «monte llamado *Asura* o *Asular*» (1850, POF, BUA, 8); «monte de *Asura* o *Asular*,

tasado en 240 reales» (1851, POF, BUA, 1 atz.); «casa llamada *Asular* y sus bienes, tasado en 24.179 reales y 24 maravedíes» (1851, POF, BUA, 1 atz.).

Oharra: Lekukotasun hauen arabera, zalantzazkoa dirudi, noizbait adierazi den bezala, *Atsular* izaten ahal dela izen honen oinarritzko forma.

Bereterzubia

Dokumentazioa: «...el puente llamado *Bereterçubia* cabe Repaz» [entre Narbarte, Oieregi y Tipulatze] (1553, NEAN, DPR, 15. k.); «el puente de *Bereterçubia*» (1557, NEAN, DPR, 17. k.); «...edificaron un puente de piedra [Bereterçubia] al río que vaxa de Baztan y entra en el valle de Vertiz» (1568, NEAN, DPR, 7. k.).

Oharra: Oieregitik Narbarterako sarreran dagoen zubi ederrari (ikus argazkia) zegokion izendapena da.

1. irudia. Oieregitik Narbarterako sarreran dagoen zubia



Iturria: Andres Iñigo Ariztegi

Lamiarrieta

Dokumentazioa: «...en la endręera llamada *Lamiarrieta* [...] lugar donde se reunian los de un quartel de Baztan que hacian Arizcun Herraçu y Azpilcueta...» (1594, NEAN, DPR, 43. k.); «...pieza de *Lamierrita* afrontada con molino de Vrsua y pieza de Enecorena de Arizcun» (1691, POF, BUF, 1. ag., 1); «Palacio de *Lamierrita*» (1777, POF, BUF, 1 atz.); «Puente de *Lamierrita*» (1779, POF, BUF, 19. ag., 23); «Fuente de *Lamierrita* que esta junto al puente» (1803, POF, ADA); «...fenera junto al molino afrontado con posesiones de *Lamiarrieta*» (1823, POF, ADA, 2); *Lamierrita* (1851, POF, BUA, 3. ag., 1).

Oharra: Lekukotasun zaharrenean *-arri-* ageri da, ondoren *-erri-* bilakatua.

3. Zenbait ondorio

Lortutako lekukotasun historikoez zenbait ondoriotara iristeko bidea irekitzen dute edo, gutxienez, argi ematen, bertzeak bertze:

- a) Zenbait izenen etimologia argitzen laguntzeko: *Aizpilcoeta*, *Aizpilcueta* (Azpilkueta), *Urquidi* (Aurkidi), *Zihiga* (Ziga).
- b) Izen batzuen oraingo formaren antzinatasuna egiaztatzeko: *Agoitz* (Aoiz / Agoitz), *Alquerdi* (Alkerdi), *Aranza* (Arantza), *Axular*, *Elbete*, *Erroibar*, *Gorostapalo*, *Iganzi* (Igantzi), *Iruñea* (Iruña), *Irundain* (Ilundain), *Lamiarrieta*, *Mugairi*.
- c) Zenbait toponimok deituretan edota familia izenetan ere duten presentzia egiaztatzeko: *Amayur* (Amaiur), *Irunberri* (Nafarroako herri edo udalerri baten erreferentzia izaten ahal den kasuetan).
- d) Toponimo batzuen forma absolutiboa artikuluduna den ala ez argitze-ko, hala nola *Apaioa* (-a), *Ekaitza* (-a), edo egungo forma artikulugabea, garai batean artikuludun gisa erabiltzen zela egiaztatzeko *Ainzialdea* (Aintzialde), *Ayçanoa* (Aintzano).

- e) Izen batzuek izan dituzten zenbait aldaeraren berri izateko: *Albandoz* (Almandoz), *Aranza* (Arantza), *Aizpilcoeta*, *Aizpilcueta* (Azpilcueta), *Cilbeyti* (Zilbeti), *Egui* (Eugi), *Berriçun* (Berrizaun), *Igurin* (Igunin), *Igua* (Igoa), *Larrasoro* (Larresoro), *Oyaregui* (Oieregi), *Uzamoia*, *Vlçama*, *Vlçamoia*, *Vlçamua* (Ultzama), *Xuarbe* (Suarbe), *Ychalar* (Etxalar).
- f) Izen batzuen lekukotasun zaharren bilakaera egiaztatzeko: *Tornaque* > *Dornaku*, *Gambo* > *Kambo*.
- g) Zenbaitetan eskribauek gaztelaniazko agiri administratiboetan, euskarazko izenen mailegu gisa edo, sorrarazi dituzten izendapenak: *Cuatro pueblos* (*Lauerrik*), *Cuatro villas* (*Basaburu Txikiko lau herriak*).
- h) Jadanik galduta dauden zenbait toponimok izan duten bizi luzea egiaztatzeko: *Ibargoiara* erraterako, bai eta orain arte jaso ez diren izen batzuen berri izateko ere: *Bereterzubia*, *Garaierria*.
- i) Oraingo toki izen arautu edota ofizial batzuen jatorrizko izena ezagutzeko: *Aurtiz* (Aurtitz), *Azcain* > *Azkain* (Azkaine), *Idocorri* > *Idokorri* (Irakurri), *Illecu* > *Illeku* (Illekueta), *Labandibar* (Landibar), *Leorlas* > *Leorlats* (Leorlaz), *Lozabien* > *Lotzabien*, *Olasur* (Olazur), *Ororbidea* (Orabidea), *Sarea* (Sarekoa), *Urepel*, *Urepela* (Urepele), *Urquidi* > *Urkidi* (Aurkidi), *Urrutiño* (Urrutiña), *Zuraurre* (Zigaurre).
- j) Toponimo batzuen euskarazko aldaeraren erabilera ezagutzeko edota noiztik diren ezagunak egiaztatzeko: *Girgillao* (Guirguillano), *Irundain* (Ilundain), *Iruñea* (Iruña), *Otsacain* > *Otsakain* (Osacáin), *Pasaia*, *Tutera* (Tudela).
- k) Izen batzuek mendeetan zehar izan duten txandaketaz jabetzeko: *Aranibar* / *Arranibar*.
- l) Toponimo batzuen egungo ahoskerarekin bat datozen aspaldiko testigantza historiko batzuk egiaztatzeko: *Ahadi* (Adi), *Añoa* (Ainhua), *Axular*, *Azkain* (Azkaine), *Otsondo*.

4. Eranskina

4.1. *Eli(a)* osagarria daramaten toponimoak

Osagarri hori duten dozena bat toponimo, behinik behin, dokumentatu ahal izan dira XVI-XVIII. mendeetako agiritan Belate, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi, Aldude eta Orreagari dagokien eremuan. Honako hauek:

Alduideelia. Aldude

Dokumentazioa: «...el vizconde de Echauz atento a poner y puso un nuevo busto de bacas en los dichos montes de Alduide y le puso por nombre *Alduide helia* recogiendo grande numero de bacas y bueyes de vezinos particulares de Bayguer y haciendoles pagar cantidades de dineros asi por acogerlos como por la yerba que gozaban en los dichos montes como si el fuera señor dellos» (1613, POF, BUA, 4).

Animelia. Urdazubi-Baztan

Dokumentazioa: «...busto de *Animelia* del Monesterio» [Urdazubi] (1584, POF, BUA, 2 atz., 9 atz., 12, 13; 1600, POF, BUA, 1 atz., 2, 2 atz.; 1607, POF, BUA, 5; c. 1700, POF, BUA, 6 atz., 7; 1780 [1584], POF, BUA, 23 atz., 24; 1786 [1584], POF, BUA, 1); «...busto de *Animeelia*» (1584, POF, BUA, 10 atz.); «...busto de *Anime elia*» (1584, POF, BUA, 11); «...busto de *Arimelia* del Monesterio» (1584, POF, BUA, 2 atz., 6; 1769 [1482], POF, BUA, 11).

Antsomotzelia. Orreaga

Dokumentazioa: «*Ansomezelia* y Fermerelia bustos que la casa de Roncesballes tiene de continuo invierno y verano en los montes de Anizlarrea y Astabizcar» (1638, POF, BUA, 1 atz., 2, 2 atz.); «...busto de *Anssomezelia* y Fermerelia» (1643, POF, BUA, 1); «el cabil-do de la Casa Real de Roncesballes tiene dos bustos de vacas en los terminos de Anizlarrea llamados *Anssomozelia* y Fermer elia para los inviernos [...] los veranos pasan a Altabizcar y Garazportua, ambos terminos propios de Roncesballes» (c. 1650, POF, BUA, 1).

Belateelia

Dokumentazioa: «...dicho sel [de Elordi Urdinsu, llamado tambien Errebelu y Busto de Belate, y tema de conflicto entre el valle de Baztan y la villa de Lantz, así como con Ultzama, con cuyos términos confina] lo han gozado los de Baztan y han construido en el chozas y cabañas mientras duro el busto de *Velate elia* [...] dice estar el dicho sel en medio de los dos caminos de Velate y Odolaga» (1651, POF, BUA, 1, 2, 3).

Bizcondeelia. Aldude

Dokumentazioa: «...busto de bacas de *Bizconde elia* junto a los mojones de Erro y Eugui que el bizconde de Echauz ha cambiado de nombre al de Recart elia por querer adquirir alguna posesion mas y otras cosas» (1612, POF, BUA, 2); *Vizconde helia* «...el vizconde de Echauz atento a poner y puso un nuevo busto de bacas en los dichos montes de Alduide y le puso por nombre Alduide helia recogiendo grande numero de bacas y bueyes de vezinos particulares de Bayguer y haciendoles pagar cantidades de dineros asi por acogerlos como por la yerba que gozaban en los dichos montes como si el fuera señor dellos» (1613, POF, BUA, 4).

Fermerelia. Orreaga

Dokumentazioa: «...Ansomozeria y *Fermerelia* bustos que la casa de Roncesballes tiene de continuo, invierno y verano en los montes de Anizlarrea y Astabizcar» (1638, POF, BUA, 1 atz., 2, 2 atz.); «...busto de Anssomezelia y *Fermerelia*» (1643, POF, BUA, 1); «el cabildo de la Casa Real de Roncesballes tiene dos bustos de vacas en los terminos de Anizlarrea llamados Anssomozeria y *Fermer elia* para los inviernos [...] los veranos pasan a Altabizcar y Garazportua, ambos terminos propios de Roncesballes» (c. 1650, POF, BUA, 1); *Fermerelia* (1638, POF, BUA, 2).

Gorrelia. Urdazubi-Baztan

Dokumentazioa: «busto de *Gorrelia*» (1584, POF, BUA, 9 atz., 11, 12; c. 1600, POF, BUA, 1; c. 1700, POF BUA, 6 atz., 7); «...sel de *Gorrelia*

en Baztan» (1723 [1619], POF, BUA, 2 atz.); «busto de *Gorrelia* que era del Monasterio antes de su adjudicación al Valle, teniendo este que pagar al año 52 ducados al Real Monasterio por permitirle el goce y aprovechamiento de sus yeruas, aguas y pasto» (c. 1733, POF, BUA, 7 atz.); 1769 [1482], POF, BUA, 11; 1744, POF, BUA, 1 atz.); «busto de *Gorrelia* cedido por el Monasterio de Vrdax al valle de Baztan en el año 1584» (1779 [1584], POF, BUA, 1); «...busto de *Gorelia*» (1584, POF, BUA, 3, 6; 1786 [1584], POF, BUA); «...sel de *Gorrelea*» (1769 [1482], POF, BUA, 9); «*Gorrielia*, busto del Monesterio» (1584, POF, BUA, 2 atz.).

Mezelia, Mizelia. Orreaga

Dokumentazioa: «...hubo excesos lebantando baquerias o bustos de mas llamados Cilbetelia y *Mezelia* que ha tenido y tiene invierno y verano Roncesballes [...] en esos bustos reciben por porcionistas a los de balderro y baygorri» (1638, POF, BUA, 1, 3); «la Casa Real de Roncesballes tiene otros dos bustos y vacadas en los montes reales de Alduide llamados Cilbetelia y *Mizelia*, con doze porcionistas cada uno» (c. 1650, POF, BUA, 1).

Mikelia, Mitxelia. Urdazubi-Baztan

Dokumentazioa: «Olazurberea, sel del busto de *Michelia*» (1584, POF, BUA, 2 atz.); «*Michelia*, busto cedido por el Monasterio de Vrdax al Valle de Baztan en el año 1584» (1779 [1584], POF, BUA, 1); «...busto de *Miquelia*» (c. 1700, POF, BUA, 6 atz., 7); «busto de *Miquelia* que era del Monasterio antes de su adjudicación al Valle, teniendo este que pagar al año 52 ducados al Real Monasterio por permitirle el goce y aprovechamiento de sus yeruas, aguas y pasto» (c. 1733, POF, BUA, 7 atz.); «...busto de *Miquelia*» (1744, POF, BUA, 1 atz.); «...busto de *Miquelia*» (1780 [1584], POF, BUA, 23 atz., 24, 25 atz.); «...busto de *Miquelea*» (1769 [1482], POF, BUA, 11).

Ordokielia. Zugarramurdi

Dokumentazioa: «...sel de *Ordoqui elia*» (1723 [1619], POF, BUA, 2 atz.).

Oharra: Dokumentazioaren arabera, *Ordoqui elia*, bai eta *Hurrizordoqui* edo *Vrrizordoqui* izeneko sarioiak ere, Zugarramurdiko dermiokoak dira: *Hurrizordoqui* «bustaliça en propiedad e posesion del monasterio de Hurdax en Çugarramurdi» (1443, POF, BUA, 22); «*Hurrizordoqui*, sel del busto de Michelia» (1584, POF, BUA, 2 atz.); *Vrrizordoqui* «sel de valle [de Baztan] en lo jurisdiccional de Zugarramurdi» (1748, POF, BUA, 6; 1765, POF, BUA, 1; 1776, POF, BUA, 14). Aldiz, *Ordoqui* hitza daramaten *Ordoquiandia*, *Mizpiraordoquieta* sarioiak Aldudekoak ziren: «sel de *Ordoquiandia*» (1669, POF, BUA, 4); «sel de *Mizpiraordoquieta*» (1669, POF, BUA, 3).

Rekartelia. Aldude

Dokumentazioa: «busto de bacas junto a los mojones de Erro y Eugui que el bizconde de Echauz ha cambiado de nombre al de *Recart elia* por querer adquirir alguna posesion mas y otras cosas» (1612, POF, BUA, 2).

Zilbetelia. Orreaga

Dokumentazioa: «...hubo excesos lebantando baquerias o bustos de mas llamados *Cilbetelia* y *Mezelia* que ha tenido y tiene invierno y verano Roncesballes [...] en esos bustos reciben por porcionistas a los de balderro y baygorri» (1638, POF, BUA, 1, 3); «la Casa Real de Roncesballes tiene otros dos bustos y vacadas en los montes reales de Alduide llamados *Cilbetelia* y *Mizelia*, con doze porcionistas cada uno» (c. 1650, POF, BUA, 1); «...bustos de *Zilbetelia* y *Mezelia*» (c. 1638, POF, BUA, 2).

Azken oharra: Bertze lekukotza bat da **Eliberria** (endrecera de *Eliberria*)⁶, Anizlarrearen barrenean kokatzen zen dermio zatia, Orrea-

⁶ Iturria: Mapa general que comprende los términos de Anizlarrea propios de la Real Casa de Roncesvalles y de la endrecera de Eliberria de la villa de Goizueta. Ohar hau dakar: "Es copia del que hicieron D. Francisco de Hugartemendia y D. Fernando Martínez Corcín arquitectos en el año 1792 con asistencia del Lic. D. José Martínez, juez de Letras. Rentería, 1º de abril 1863".

gako Kolegiatak 1541ean Goizuetako herriari epe luze baterako eman ziona ‘enfiteusis’ moduan, hots, azienda edukitzeko ez ezik, zuhaitzak ere landatu ahal izateko⁷.

4.2. *Elkarrekikoa*

Dokumentazioa: «...venta de monte *Elcarrequicoa* [entre Donamaria, Oiz y Urroz] (1709, NEAN, DPR, 85. k.); «Auto de recorrimiento y reconocimiento de mojones y afijamiento de uno hecho de el termino llamado *Elcarrequicoa* por las personas destinadas por los lugares de Urroz, Donamaria, Gaztelu y los dueños de los palacios (de Arbizu) de Oiz...» [*Elcarrequicoa* confina con terminos del Valle de Ultzama y los pueblos de Urroz, Oiz, Gaztelu y Donamaria] (1787, NEAN, DPR, 136. k. 6. zk.).

Oharra: Bi agiri hauek egiaztatzen dute J. Corominasek zioen «...el navarro *facería* ‘terreno de pasto que hay en los linderos de dos o más pueblos’, lo emplea Azkue en su *Supl.* definiendo el vco. *elkarkiko* (deriv. de *elkar* ‘mutuamente’) empleado en Ulzama» (J. Corominas – J. A. Pascual, *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*, 1980 [2. berrinprimaketa, 1989], G-MA liburukiaren HAZ III. sarrera, 330. or.).

Geroagoko dokumentazioak ere hori bera egiaztatzen du. Izan ere, Ituren eta Urroz udalerriek elkarrekin duten ‘*facería*’ri *elkarrikoa* izendapen laburtua ematen zaio 1928. urteaz geroztik Iturengo Udaleko Artxiboko agirietan, eta gaur egun ahoz ere bai (Iñ. 1996: 250), baina bere jatorrizko izena *elkarrekikoa* da, Iturengo Udaleko Artxiboan 1828. eta 1924. urteen arteko agiri liburuetan ageri den honako dokumentazioaren arabera: «Escritura de *facería* entre la villa de Ituren y lugar de Urroz [...] el término mancomunado llamado *Elcarrequicoa*» (1828., 1847. eta 1858. urteetako ag.); «...el monte *Elcarrequicoa* propio de esta villa y lugar de Urroz» (1893-12-04ko ag., 22. lib., 68); «el puente de *Elcarrequicoa*» (1899-12-17ko ag., 28. lib., 39); «...se acuerda pedir a D. Ignacio Sansiñena las dimensiones de la bor-

⁷ Hala dio Bixente Hernandorena Goizuetako erretore zenak, 1981ean “Anizlarre. Lehen eta orain” izenburuarekin prestatu eta eskura jarri zigan txostenak.

da que trata de hacer en *Elcarrequicoa* para tratar con los vecinos de Urroz acerca de la concesión que se acostumbra hacer en tales casos» (1902-04-13ko ag., 28. lib., 62); «...se acuerda colocar 100 plantas de roble en el monte *Elcarrequicoa*» (1906-01-08ko ag., 28. lib., 108); «...monte de Abe-lo y *Elcarrequicoa*» (1912-12-07ko ag., 28. lib., 206); «...sacar leña de *Elcarrequicoa*» (1918-05-19ko ag., 28. lib., 290); «...monte de *Elcarrequicoa*» (1918-12-17ko ag., 28. lib., 294); «...se acordó avisar al Sr. Alcalde de Urroz de Santesteban, para que el próximo domingo venga una comisión a esta Sala Consistorial a recibir el importe de los robles que se vendieron del monte *Elcarrequicoa* en subasta pública, correspondiéndoles la mitad de las 5.950 pesetas, deducidos los gastos» (1924-10-23ko ag., 42. lib., 79); «... monte de *Elcarrequicoa*» (1924-12-08ko ag., 42. lib., 85).

Oharra: Toponimo honek eragin zuzena izan du euskal hiztegian, bai baitzen oinarri aski gaztelaniazko ‘facería’ hitzaren jatorrizko euskal ordai-na *elkarrekiko* dela egiaztatu ahal izateko. Hala onartu du berriki Euskaltzaindiak⁸.

5. Laburtzapenak

ADA = Aita Donostia Artxiboa

ag. = agiria

APA = Arantzako Parrokiako Artxiboa

BL = Bataiatuen Liburua

BPA = Berako Parrokiako Artxiboa

BPR = Berako Notarioen Protokoloak

BUA = Baztango Udaleko Artxiboa

⁸ **elkarrekiko** 3 iz. Bi herri edo gehiagoren mugen artean dauden larre eta urak, hitzarmen baten bidez, herri horiek erabiltzen dituztenak. Ik. **zilegi** 3. *Ituren eta Urroz udalerrien arteko elkarrekikoa Ameztia mendian dago. Bidasoa-Berroaran mendietako elkarrekikoa lau herrien artekoa da eta Erdi Aroaz geroztik indarrean dago. (Euskaltzaindiaren Hiztegia).*

BUF = Borda-Ubillos Fondoa

c. = circa

DPA = Doneztebeko Parrokiako Artxiboa

DOPA = Donamariako Parrokiako Artxiboa

DPR = Doneztebeko Notarioen Protokoloak

EL = Ezkonduen Liburua

HL = Hildakoen Liburua

IEA = Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa

Iñ. = Iñigo, A.

IPA = Igantziko Parrokiako Artxiboa

ITUA = Iturengo Udaleko Artxiboa

k. = karpeta

ka. = kaxa

lib. = liburua

LKB = Lekarozko komentuko biblioteka

LPA = Lesakako Parrokiako Artxiboa

NEAN = Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

POF = Patxi Ondarra Funtsa

pro. = prozesua

Rek. = Rekalde, P.

SPA = Sunbillako Parrokiako Artxiboa

6. Erreferentziak

6.1. Iturriak

Arantzako Parrokiako Artxiboa: Bataiatuen Liburuak, Ezkonduen Liburuak eta Hildakoen Liburuak.

Berako Parrokiako Artxiboa: Bataiatuen Liburuak, Ezkonduen Liburuak eta Hildakoen Liburuak.

Donamariako Parrokiako Artxiboa: Bataiatuen Hirugarren Liburua (1739-1811).

Euskaltzaindia: *Euskal Onomastika Datutegia* (www.euskaltzaindia.eus).

Igantziako Parrokiako Artxiboa: Bataiatuen Liburuak, Ezkonduen Liburuak eta Hildakoen Liburuak.

Iturengo Udaleko Artxiboa: Notarioen Protokoloak.

Lesakako Parrokiako Artxiboa: Ezkonduen Liburuak eta Hildakoen Liburuak.

Nafarroako Gobernua: Nafarroako Errege Artxibo Nagusia. Notarioen Protokoloak. Doneztebeko Notariotza. Berako Notariotza.

Patxi Ondarra Funtza: P. Ondarrak Baztango Udaleko Artxiboan, eta Lekarozko komentuko Borda-Ubilloso familiaren fondoan eta Aita Donostia Artxiboan jasotako lekukotasun argitaragabeak.

Sunbillako Parrokiako Artxiboa: Bataiatuen Lehenbiziko Liburua (1598-1658).

6.2. Bibliografia

Belasko, M., 1996, *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra*. Iruñea: Pamiela.

———, 2000, *Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra*. Iruñea: Pamiela.

Ciérbide, R., 2002, «Observaciones a la normalización toponímica. Los casos de Navarra y el País Vasco», *Pulchre, bene, recte: homenaje al prof. Fernando González Ollé*, (coord. C. Saralegui & M. Casado). EUNSA, 303-311.

Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua, 1990, *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra*, (koord. J. M. Jimeno Jurío). Iruñea.

Iñigo, A., 1996, *Toponomástica histórica del Valle de Santesteban de Lerín*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

———, 2011, «Toponimia nagusiaren lekukotasunak Prudencio de Sandoval Iruñeko apezpikuaren 1614ko Katalogoan», *Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina* (Iker, 26, CD-ROM), (argit. Sagarna, A.; Lakarra, J.; Salaberri, P.). Bilbo: Euskaltzaindia, 1255-1280.

———, 2019, «Etxe > itxe aldaera Malerrekako eta Bortzirietako toponimia historikoaren argitan batik bat», *Fontes Linguae Vasconum*, 128. Iruñea: Nafarroako Gobernua, 527-540.

Iñigo, A. & Rekalde, P., 2018, «Euskal oikonimia Baztan-Bidasoa eremuko lekukotasun historikoen argitan», *Engraxitik Garazira, Izenen misterioa Nafarroan*, (zuz. Ana Zabalza Seguín). Zizur Txikia: Aranzadi, 163-249.

Nafarroako Gobernua, 1992-1999, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra*, I-LIX, (zuz. J. M. Jimeno Jurío). Iruñea: Nafarroako Gobernua.

Salaberri, P., 2005, «Origen y significado de la toponimia de Navarra», *La Onomástica en Navarra y su relación con la de España. Actas de las primeras Jornadas de Onomástica* (Iruñea, 2003), (koord. J. L. Ramírez Sádaba). Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 91-127.

Zaldua, L. M., 2015, «“Saro” entitate geografikoaren banaketa, esanahia eta etorkia toponimiaren argitan», *Fontes Linguae Vasconum*, 119. Iruñea: Nafarroako Gobernua, 175-221.

***Galdo(n)a* izenari buruzko txostena**

Informe sobre el nombre Galdo(n)a

Rapport sur le nom Galdo(n)a

Report on the name Galdo(n)a

LARRAÑAGA ARRIETA, Josu

josularra@gmail.com

Filologoa eta euskara teknikaria

Noiz jaso: 2020-02-13

Noiz onartua: 2020-04-30

Aspalditik dokumentatzen da Mutriku *Galdo(n)a* izena. Etxea, deitura eta auzoa izendatzeko erabili izan da. Idatzizko eta ahozko lekukotasunak aintzat hartuta, etxea eta auzoa *Galdoa* gisa normalizatzeko argudioak ematen dira artikulu honetan. Horretarako, oinarrian *Galdo(n)a* izena duten Mutrikuko zenbait toponimo ere aztertzen dira; halaber, amaiera bereko bestelako toponimoek (*Zestoa*, *Arroa*) izan ohi duten bilakaera ere aipatzen da.

Gako-hitzak: Galdoa, Galdona, Mutriku, toponimia.

El nombre *Galdo(n)a* se documenta en Mutriku desde fechas tempranas. Hace referencia a una casa, a un apellido y a un barrio. En este artículo se ofrecen distintos argumentos para proponer la forma *Galdoa* a la hora de normalizar la denominación de la casa y el barrio, todo ello a la luz de los testimonios escritos y orales. Para esa propuesta, también se analizan otros topónimos de dicha localidad que toman como base el nombre *Galdo(n)a*. Así mismo, se menciona la evolución que suelen sufrir otros topónimos con la misma terminación (*Zestoa*, *Arroa*).

Palabras clave: Galdoa, Galdona, Mutriku, toponimia.

Le nom *Galdo(n)a* est présent depuis longtemps à Mutriku. Il a été utilisé comme nom de maison, nom de famille ou nom de quartier. Grâce à des témoignages écrits et oraux, cet article apporte des arguments qui incitent à choisir la forme normalisée du nom de maison et de quartier *Galdoa*. Sont aussi étudiés quelques toponymes de Mutriku basés sur le nom *Galdo(n)a*. L'article montre aussi quel a été le destin d'autres toponymes comportant la même terminaison (*Zestoa*, *Arroa*).

Mots-clés : Galdoa, Galdona, Mutriku, toponymie.

At Mutriku the name *Galdo(n)a* has been on record for a long time. It has been used for a house, as a surname, and for a neighbourhood. Taking written and oral records into account, in this article we will state the case for using *Galdoa* as the standard name for the house and the neighbourhood. To this end, some toponyms from Mutriku based on the name *Galdo(n)a* have also been examined; the evolution of other toponyms with the same ending (*Zestoa*, *Arroa*) is mentioned too.

Keywords: Galdoa, Galdona, Mutriku, toponymy.

Xedea

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak *Galdona* izen ofiziala duen eta Akademiaren datutegian *Galdoa* izenaz ageri den Mutrikuko auzoaren izenaren inguruko txostena egitea. Ondorioz, txosten honen xedea da Mutrikuko auzoak atzo eta gaur izan duen idatzizko eta ahozko erabilera azterzea, eta, datu horiek eskuetan, izena arautzeko proposamena egitea.

Aurkezpena

Galdona edo *Galdoa* izenaren atzean kontzeptu ezberdinak egon litezke: *Galdoa* auzoa, auzo bereko *Galdoa* baserria, kaleko *Galdona* etxea (edo jau-regia) eta *Galdona* deitura. Eta, jakina, baita *Galdoa* auzoko bestelako izen batzuk ere: *Galdonako kanpina*, *Galdoamendi*, *Galdoaldea*...

Txosten honetan, idatzizko dokumentazioan agertzen diren formak ikusiko ditugu lehendabizi; ondoren, bigarren atalean, ahozko erabilerari erreferatuko diogu; hirugarren atalean, aipatutako datuak eskuetan, forma normalizaturako proposamena egingo dugu; eta, laugarren zatian, “Eranskinak” jasoko ditugu: erabilitako laburduren eta siglen aurkibidea (artxiboak, eskribauak eta bestelakoak), eta kontsultatutako bibliografia.

1. Idatzizko lekukotasunak

Zenbait iturri dokumental hustuta (artxiboak eta bibliografia), datu adierazgarriak eskuratu ditugu. Dokumentatu ditugun aipamenak eranskin gisa jaso ditugu amaieran (4.1.), baina datuok euren testuinguru egokian ulertzeko, atal honetan, *Galdo(n)a* izeneko etxeen alderdi historikoaren berri emango dugu; *Galdona* deituraren euskarazko formaz ere arituko gara.

1.1. *Galdona* izenaren jatorria eta *-ona* amaiera

Hizkuntzalari batek baino gehiagok aztertu ditu *-ona* > *-o(a)* amaieradun toponimoak:

Con respecto a los sufijos «-ana», «-ona», indicaré que están representados en Vizcaya por «Aramaiona», «Bedarona», «Castrejana», «Lejona», «Lemona», «Libarona», «Luchana», «Mallona», «Quintana» y «Sopelana» por lo menos, nombres que, paralelamente, sufren de una caducidad de «n» que hace que sean pronunciados «Aramaio», «Lemoa», etc., hoy día, y en la mayoría de los cuales es fácil encontrar los personales que los compusieron («Aramaeus», «Vedius», «Castricius», «Lemonius», «Libarius», «Lucius», «Mallius», «Quintus»). (Caro Baroja, 1945: 95)

Handik hamar urtera, beste hau idatzi zuen Koldo Mitxelenak:

“-ona”: terminación frecuente en nombres de poblaciones de Guipúzcoa y Vizcaya, cuya forma popular es “-oa” (...) Es corriente también en apellidos: Acilona, Bertendona, Durañona, Letona, Licona (var. Licaona), Mallona, Zamacona, Zarandona, etc. (Mitxelena, 1955: 138[489])

Patxi Salaberrik bere aldetik hau adierazi zuen 2013an:

...creo que estamos ante lo que en origen era un acusativo de nombres que en principio se declinaban por la tercera, según el modelo *-o*, *-onis*, pero que posteriormente, en latín tardío, quizás a través de su uso en acusativo (*-one(m)*), ha sido adaptado a la declinación *-ona*, *-onae*, por el alargamiento del tema en nasal mediante el sufijo... (Salaberri, 2013: 213)

Salaberriren arabera, jabetza adierazten du amaiera horrek:

Viendo los topónimos de Vasconia que tienen la terminación *-ona* en romance y *-oa* (> *-o* en algún caso) en euskera, está claro que indican posesión, que el lugar en cuestión era en un tiempo propiedad de la persona portadora del nombre que está en la base o, más esporádicamente, lugar dedicado a la deidad que el nombre de base indica. (Salaberri, 2013: 213)


Gipuzkoa eta Bizkaiko adibideak ematen ditu Salaberrik: *Arrona* > *Arroa*, *Zestona* > *Zestoa*, *Lejona* > *Leioa*, *Lemona* > *Lemona*. Herri-izenok

honela azal daitezkeela aipatzen du: **(villa) arrona* (Arrus)¹, **(villa) zestona* (**Caestus*, **Cestus* / *Caestius*, *Cestius*), **(villa) leiona* (*Laedius*, *Laegius*, *Leius*), **(villa) lebona* (*Laebus*).

Valeriano Yarzak *Galdona* toponimoa aipatzen du:

“no se puede descartar que tales topónimos encierren el femenino, -ona, de un antropónimo en -onus: (...). El nombre *Calidona*, tan semejante al apellido *Galdona* en Vasconia, tiene su correspondiente masculino, *Caldonus*”. (Yarza, 2015: 371)

1. irudia. *Galdona* toponimoaren lehen aipamena



Iturria: MUA-164, Copias de cuentas de propios y arbitrios, 1504. urtea, 4r

... las tierras conçeçgiles que eran por las partes de **Gualdona** e Yurre e Çaturraran...

1.2. *Galdona* deitura han eta hemen

Gorago aipatu dugun bezala, *Galdona* izeneko baserria eta berori kokatuta dagoen auzoaz gain, kaleko jauregi itxurako etxe bati ere halaxe esaten zaio, *Galdona*. Baina, etxeak eta bestelako tokiak izendatzen baditu ere, ez genuke ahaztu behar *Galdona* deitura.

Sarritan, herri jakin bateko toponimia eta antroponimia aztertzen direnean herri horri lotutako iturri dokumentalak kontsultatzen dira (udal-ar-

¹ V. Yarzak antzeko ideiak jasotzen ditu: “señalábamos las localidades guipuzcoanas de *Arrona* y *Cestona* como portadoras del sufijo -ona añadido a los nombres de varón *Arrius* o *Varro* y *Sextus*” (Yarza 2015: 371-372).

txiboa, familia-artxiboak, aldundiaren dokumentazioa, herrian lan eginda-ko eskribauen protokoloak, eta abar), eta ez da kontuan hartzen inguruko herrietako dokumentazioa. Horrek, jakina, ikuspegi distortsionatua erakusten digu; izan ere, norberaren herriko eskribauek eta parrokoek “ondo” idazten zituzten betiko izenak (etxe-izenak, deiturak...)².

Egia esan, herriari lotutako dokumentu batzuetan forma “erlaxatuagoak” topa ditzakegu (kontu-liburuak, zirriborroak...), baina are ikuspegi zabala-goia emango digute beste herri batzuetan sortutako dokumentuek.

Antroponimian zentratuta, eta, bereziki, deituretan, nekez topatuko dugu Mutrikun bertan *Galdona* deitura beste era batera idatzita. Lekeitiora eta Itziarrera (Deba) joko dugu deitura horren beste aldaera batzuen bila.

1549ko azaroaren 5ean *Maria de Balentina* y *Galdoa* izeneko jaioberria bataiatu zuten Lekeitioko Jasokundeko Andre Maria elizan:

A cinco dias del mes de nobiembre batize una hija de Andres de Balentina e Maria Peres de Galdoa, tubo en brazos ssiendo abad su padrino Anton del Puerto y su muger Barbara...³.

Sasoi hartan ezezaguna egingo zitzaion lekeitiarrei Mutriku aldeko deitura hura, eta, jakina, ahoz erabiltzen zuten forma jasoko zuen bataio-agiria osatu zuen parrokoak.

Beste adibide bat: 1593. urtean Lekeitioko Cristobal de Amezqueta eskribauak ahalorde-eskritura bat egiletsi zuen⁴, bertan *Inesa de Elorriaga Galdoa* mutrikuarrak parte hartu zuen. Baina, beste era batzuetan ere agertzen

² Juan Ramón de Iturrizak 1787an idatzitako eta 1885. urtean luzeago argitaratu zuten lan batean (Iturriza 1885: 873) Ondarroako udalaren 1801eko akta transkribatzen da: “Se conserva por tradición verbal la voz de Licoa; pero así los Escribanos, como los curas escribian Licon, como escriben Arrona, Cestona, cuando en el idioma puro son denominados estos pueblos Arroa, Cestua ó Cestoa...”.

³ BEHA, Lekeitio, 1. bataio-liburua, 1513-1613, 1549-11-05, 20v.

⁴ BFAH, Lekeitio, N13/428, Eskribaua: CA. “Escritura de poder otorgada por Inesa de Elorriaga Galdoa, vecina de la villa de Motrico, en nombre de María Juan de Gainza, su convecina, en favor de Santiago de Bátiz, vecino de la anteiglesia de Ispáster, para que cobre de San Juan de Ibaseta, vecino de la villa de Lequeitio, nueve ducados procedentes de una obligación”.

dira dokumentuan emakume horren izen-deiturak: *Ynessa de Helorriaga y Galdoa* eta *Ynesa de Galdoa*.

Eskribau beraren eskutik, eta egun bereko beste eskritura batean, pertsona bera agertzen zaigu, baina beste izen batekin *Ynesa de Helorriaga vezina de Motrico*⁵.

Mutrikuko bataio-liburuetan *Ynesa de Galdona y Elorriaga* izeneko bat topatu dugu, 1556-11-01ean bataiatua⁶. Badirudi pertsona bera dela. Ederra deitura-dantza! Baina, gure aztergaiari dagokionez, Mutrikuko *Galdona* deitura ahoz esango zuten bezala ageri zaigu: *Galdoa*. Lekeitioko eskribauak, Mutrikuko parrokoak ez bezala, ez zuen ahalegin berezirik egin “ondo” idazteko, eta ahozkoa eraman zuen paperera.

Lekeitiotik Itziarrera salto egin eta beste adibide bat ekarriko dugu.

1639ko urtarrilaren 24an Antonio de Garagarça apaizak *Baptista Galdoa* jaioberria bataiatu zuen Itziarren (Debako auzoa, gaur egun):

En 24 de hen^o de mill y seiscientos y treinta y nueve años baptize a Baptista hijo de Maria de Galdoa soltera y (...) fueron sus compadres Joan de Rementeria y Magdalena de Gainça Uçarraga serora.

Urte bereko uztailaren 2an apaiz berberak beste jaioberri bat bataiatu zuen Itziarren, *Mari Ana de Galdoa y Larraguibel*:

En 2 de jullio de 1639 baptize a MariAna[sic] de Galdoa hija legitima de Domingo de Galdoa, y Maria de Larraguibel su legitima muger fueron sus compadres el m^e Santiago de Larraguibel carpintero y Fran^{ca} de Aguirre vz^a[vezina] de Motrico, fueron testigos Joan de Aristondo y Inacia de Uzcanga.

1650. urtean azken horren ahizpa bat bataiatu zuten Itziarren, *Maria de Galdona Ansorregui y Larraguibel*:

⁵ BFAH, Lekeitio, N13/429, Eskribaua: CA (Escritura de poder otorgada por Inesa de Elorriaga, vecina de la villa de Motrico, como cesionaria de María Juan de Gainza, de la misma vecindad, en favor de Santiago de Bátiz, residente en Gardata, para que cobre de San Juan de Ibaseta, vecino de la de Lekeitio, nueve ducados procedentes de una escritura de obligación).

⁶ Gurasoak: Simon de Galdona eta Marina de Elorriaga.

En 18 de Julio de 1650 baptize a Maria hija legitima de Domingo de Galdona Ansorregui i Maria de Larraguibel su legitima muger y fueron sus padrinos Domingo Ochoa de Ansorregui i Lassao, i Maria Agustin de Iturrioz....

Biak ahizpak izanik, zer dela eta bati *Galdoa* eta besteari *Galdona*? Detaille garrantzitsu bat, bigarren ahizpa horren bataio-agiria ez zuen aurreko parrokoak egin, Lino de Alviçurik baizik. Azken apaiz horrek “ondo” ikasiko zuen deitura idazten, eta ez ahoskatzen zen bezala!

1.3. *Galdoa* baserria

2. irudia. *Galdoa* baserria, *Galdoa* auzoan



Iturria: Gipuzkoa Kultura, KO: 56009: 1x

Aspaldikoak ditugu *Galdoa* baserriaren lehen lekukotasunak, baita *Galdona* abizenarenak ere.

Gorago adierazitako arrazoiengatik, eskribauek eta elizakoek joera konterbadorea izan dute deiturak idazteko orduan, baita etxe-izenak idatziz

jasotzeko orduan ere. Hori dela-eta nekez dokumentatzen dira *Galdoa* eta *Galdua* formak, nahiz eta ahoz segur aski barra-barra erabiliko ziren. XVIII. mendearen erdialdetik aurrerako lekukotasunak jaso ditugu: *el de Galduacoa* (1742), *ynquilino de Galdua* (1748), *caseria de Galdoa* (1751), *Galdoacoa* (1752), *heredad de Galdoacoa* (1759), *el de Galdoa* (1763), *en el [partido] de Galdua* (1788), *Fraisco Galdua* (1847), *Galdua* (1928, 1940, 1951)...

Bitxia da 1847. urtean dokumentatutako “Fraisco Galdua” izena. Segur aski Galdoa baserrikoa izango zen Frantzisko hura, eta ahozko izenaz gain baserriarena ere jasotzen da, ezizen gisa. Ahozko lekukotasunen atalean ikus daitekeenez, oraintsura arte eutsi zaio izendatze-joera horri: pertsona-izena + baserri-izena.

1.4. Oinarrian *Galdoa* izena duten toponimoak

Kontu jakina da leku-izen ezagun baten euskarazko bertsioa ezagutzeko, sarritan, izen nagusi horren eratorri xumeagoek pista edo zantzu interesgarriak ematen dizkigutela. Sasoi batean, ahoz *Galdoa* eta *Galdua* esan arren, argi zuten *Galdona* zela forma “jasoa, serioa eta txukuna” idatziz emateko. Baina, *Galdoa* izena beste elementu batzuei elkartutakoan, itxura aldatu eta ahozkotik hurbil zeuden formak jaso ziren idatziz. Horren adibide batzuk ekarriko ditugu: *Galdaondo*, *Galdoabelar*, *Galdaomendi*...

- *Galdaondo*

1461. urtekoa da *Galdaondo* izenaren lehen aipamena. Etxe-izena, auzoa edo deitura baino lehenagoko aipamena da gainera.

Saturraran aldea izendatzen zuen, Saturrarango haitzaren ingurua, zehatz esateko. Gaur egun ez dago bizirik izen hori, guk behintzat ez dugu jaso.

Galdaondo forma da gehien dokumentatzen dena: 1461, 1547, 1566, 1576, 1595 eta 1610. urteetako dokumentazioan⁷ aurkitu baitugu. Baina 1615. urteko eskritura batean aldaera interesgarri batekin egin dugu topo: *puesto de Galdoaondo*. Hara hor forma osoa!

Galdaondo edo *Galdoaondo* izenen oinarrian, gure ustez, *Galdoa* + *ondo* dago (*Galdoaondo* > *Galdaondo*). Azken batean *Galdoa* auzotik hurbil dago *Gald(o)aondo*.

Oso ohikoa da Mutrikun *-ondo(a)* elementua eranstea toponimoei. Batzuetan artikulua hartzen du eta beste batzuetan ez. Hona hemen adibide batzuk: *Ybrrondo* (1569, [Iurreondo]), *Arondo* [baserria] (1675), *Beorlar ondoa* [aurkintza] (1677), *partido de Armenchaondoa* (1721), *partido de Ysas-siondo* (1722), *Leorreten ondoa* (1788), *Echerre-ondo* (1905)...

• *Galdoabelar*

Sasoi bateko dokumentazioak beste izen bitxi baten berri ematen digu: *Galdoabelar* edo *Galdonabelar*.

Aipamen batzuk: *Galdona velaar* (1535), *Galdonabelaar* (1535), *Galdonabelar* (1543), *Galdona belar* (1543), *Galdona belar* (1556), *Galdoabelaar* (1609)⁸.

Galdo(a) belar, beraz. Bigarren elementuak ez dauka zerikusirik belarra-rekin ('hierba')⁹, beste "belar" bat da horkoa.

Mitxelenak honela azaltzen du:

Como me indica Dassance, «belar, sobre todo como último miembro, es probablemente el término que, tanto en Landucci como en Leizarraga significa "frente"». (Mitxelena, 1955: 68[146]).

Han eta hemen kopeta edo bekokia ere izendatzen du *belar* hitzak. Baina, adiera horrez gain, beste esanahi batzuk ere badauzka, horietako

⁷ Ikus bitez eraskinean aipamen zehatzak.

⁸ Azken adibide hori oso interesgarria da, *Galdoabelaar*: "Galdoa" forma, bi osagaiak elkartuta eta A geminatua.

⁹ Gainera, historikoki, Mutrikun mendealdeko aldaera agertu ohi da: "bedar".

bat “frente, fachada, cara, parte delantera”. Maurice Harriet (XIX. mendea) eta Silvain Pouvreuren (XVII. mendea) hiztegieta adiera hori agertzen da. Azken horrek honela dakar: “Etxe belarra, devant de maison, frontispice”.

Mutrikun bertan *-belar* osagaia duten beste toponimo batzuk daude: *Arno velar* (1614, 1630), *Laranga belar* (1805), *San Juan Velar* (1832).

- **Galdoamendi**

XIX. mendearen hasieratik behintzat ematen zaio izen hori auzoari eta mendiari. Hona hemen aldaera batzuk: *Galduamendi* (1814, 1817, 1850, 1865, 1905), *Galdonamendi* (1996, 2000, 2001), *Galdona-Mendi* (1951), *Galdua-mendixa* (2002), *Galdoamendi* (2010, 2019).

Gaur egun ere bizi-bizirik dago izen hori: *Galduamendi(xa)*.

- **Galdoaldea**

Gutxitan dokumentatzen den arren, osaera garbia du: *Galdoa* + *aldea*. *Galdualdia* (1846), *Galdua Aldia* (1951).

1.5. Galdona dorrea, kalean

3. irudia. Galdona jauregia 1954. urtean



Iturria: AGG-GAO_OA6163, Portada de la iglesia y casa de Karterokua

XVII. mendearen bigarren erdialdean jauregi-itxurako etxe dotorea eraiki zuten *Galdona* abizenekoek Mutrikuko Txurruka plazan. Han eta hemen¹⁰ irakur daiteke Sevillan jaiotako Juan Galdona Muñozek eraiki zuela etxe ezagun hori, baina itxura denez, bere aitak –Juan Lopez de Galdona kapitainak– eman zuen eraikitzeak agindua.

1665. urteko eskritura batean¹¹ eraikitzen ziharduten etxe horretako hargintzako obren deklarazioa egiten da. 1666. urteko beste eskritura batean berriz, zurgintzako lanetarako aztertzaileak izendatu zituzten, baina ordurako hilda zegoen Juan Lopez de Galdona.¹² Badirudi, beraz, Juan Galdona Muñozek amaitu zuela *Galdona* jauregia.

Dokumentuetatik erauzitako aipamen-zerrendan galdonatarren etxea izendatzeko *casa torre*, *casa solariega* eta antzekoak aipatzen dira, izan ere jauregi itxurako kale-etxe dotorea da.

Etxe honi *Karterokua* edo *Karteronekua* ere esan izan zaio XX. mendean, postaria bertan bizi zelako.¹³

Eraikina, Kultur Ondasun kalifikatuta dago 1964ko urtarrilaren 17ko aginduaren bidez. 1995eko abenduaren 29ko dekretu¹⁴ bidez babes bereziko kategoriakotzat jo zuten “Galdona etxea”.

¹⁰ “Este edificio fué construido por don Juan de Galdona y Muñoz, natural de Sevilla, procurador juntero de Motrico en 1684 y su alcalde ordinario en 1687, Caballero de la orden de Santiago en el mismo año 1687”. (Aldabaldetrecu 1979: 179). “Don Juan construyó en la plaza de Motrico la casa, que todavía se conserva, adornada con sus escudos familiares” (Atienza 1969: 522).

¹¹ GPAH 1/2639, 79v.

¹² Juan Lopez de Galdona Ybarra, Mutrikun jaio zen 1609an eta 1665. urteko uztailean hil zen, artean obra amaitu gabe zegoela.

¹³ Ohikoak izan dira Mutrikun jabearen –edo errentariaren– lanbidea, ezizena edo deitura oinarri hartuz eratuko etxe-izenak: *Zidargingoa*, *Txitxarakoa*, *Botikakoa*, *Lakakoa*... Antzinako joeraren araberako izenetan -koa (-goa) atzizkia dugu nagusi, berriagoetan, berriz, -nekoa amaiera gailentzen da (*Azkaratenekoa*, *Bernabenekoa*...).

¹⁴ 1995eko abenduaren 29ko 545/1995 DEKRETUA, Mutrikuko (Gipuzkoa) Hirigune Historiko Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzozko izendapenaz sailkatzeko eta hura zaintzeko babes era (GAO, 23 zk., 1996-02-01, 1346. or.).

Mutrikuko Hiri Antolamenduko Arauetan ere babes bereziko erregimen-a aitortzen zaio “Galdona etxeari” (GAO, 39 zk., 1998-02-27, 2509. or.).

2. Ahozko lekukotasunak

1. Galdoa auzoko bizilaguna¹⁵

Ahozkoaren transkripzioa	Euskara batuan
“Gure barriotik beera do Galdúa baserrixa, Galdóna esate(n) seen, baiña Galdúa, guk Galdúa esaten gendun, oaiñ Diputaziak or kamiñuan ipiñi reu Galdoa isena”. “Barrixuai guk Galdóna mendíxa beti, Galdónamendixa es, basarritxarrok Galdúa mendíxa [esaten diogu]”.	Gure barriotik behera dago “Galdua” baserría, Galdona esaten zuten, baina Galdua, guk Galdua esaten genuen, orain Diputazioak hor kaminoan ipini du “Galdoa” izena ¹⁷ . Barrioari guk “Galdona-mendixa” beti, Galdonamendixa ez, baserritarrok “Galdua mendixa” [esaten diogu].

2. Galdoa auzoko bizilaguna¹⁷

Ahozkoaren transkripzioa	Euskara batuan
Galdónamendi, Galdúamendi [auzoa] Galdúa [baserría] Tomas Galduako ta Maria Galduako...	Galdonamendi, Galduamendi [auzoa] Galdua [baserría] Tomas Galduako eta Maria Galduako...

3. Mijoko bizilaguna¹⁸

Ahozkoaren transkripzioa	Euskara batuan
[Auzoa]: Galdúmendixà. Galdúmendítxarrak [bertakoak].	[Auzoa]: Galdumendixa. Galdumendítxarrak [bertakoak].

¹⁵ Gizezkoa (Mutriku, 1935). Grabazioa: 2020-01-07.

¹⁶ Bide-seinalea jarri dute oraintsu.

¹⁷ Emakumezkoa (Mutriku, 1946). Grabazioa: 2020-01-07.

¹⁸ Gizezkoa (Mutriku, 1937). Grabazioa: 2020-01-07.

Ahozkoaren transkripzioa	Euskara batuan
[Baserria]: Galdúa. Galdúakuak, Kurpitzakuak, Idurrekuak... Txikiña Galduko, o bestelako Jose Luis Galduko, o Tomas Galduko, Txikiñan semia Tomas san ta Tomas Galdua. Galdúra nijua.	[Baserria]: Galdua. Galduakuak, Kurpitzakuak, Idurrekuak... Txikiña Galduko, edo bestelako Jose Luis Galduko, edo Tomas Galduko, Txikiñaren semea Tomas zan eta Tomas Galdua. Galdura noa.

4. Mutrikuko kaletarra¹⁹

Ahozkoaren transkripzioa	Euskara batuan
[Auzoa]: Galdónamendi. Bai, Galdúamendi, Galdónamendi ra e! [Baserria]: Mutrikun Galdúa. Mutrikun esaten da Galdúa.	[Auzoa]: Galdonamendi. Bai, Galduamendi, Galdonamendi da e! [Baserria]: Mutrikun Galdua. Mutrikun esaten da Galdua.

Laburbilduz, **auzoa izendatzeko** lekuko guztiek sail bereko aldaerak erabiltzen dituzte: *Galduamendixa* (1), *Galduamendi* (2, 4), *Galdumendixa* (3).

- Lau lekukoetatik, han eta hemen entzundakoaren eraginez (edo *Galdona* forma ofizialaren eraginez) itxura denez, *Galdonamendi* erantzun dute lehendabizi, baina berehala erantzun dute euren kasa ahoz darabilten benetako forma: *Galdu(a)mendi(xa)*.
- Hiru lekukok *Galdua-* (*Galdona* > *Galdoa* > *Galdua* > *Galdu*) forma darabilte; laugarren batek, berriz, *Galdu-*.
- Jentilizioa edo jatorria adierazteko forma ere jaso dugu: *galdumenditxarrak* [galdoamenditarrak].

¹⁹ Gizonezkoa (Mutriku, 1936). Grabazioa: 2019-12-12.

Baserría izendatzeko, berriz, lau lekukoek *Galdua* forma darabilte.

- Deklinabidea hartzeko orduan, hiruk (1, 2, 4) *Galduako*, *Galdua[r]a* sailekoak darabiltzate, batek, ordea, *Galduko*, *Galdura* (3) bezalakoak darabiltza.
- Jatorria adierazteko eta, ia ezizen bezala, honelakoak jaso ditugu: *Tomas Galduako* (2), *Tomas Galduko* (3), *Tomas Galdua* (3), *Maria Galduako* (2), *Jose Luis Galduko* (3).

Txurruka plazako etxea (Txurruka plaza, 6) izendatzeko, *Galdona* izena erabiltzen da. Gorago aipatu dugun bezala *Karterokua* edo *Karteronekua* ere esaten zitzaion sasoi batean, bertan bizi zelako postaria.

3. Izen ofizialak eta normalizaziorako proposamena

2002ko uztailaren 4an Mutrikuko udaleko osoko bilkurak udalerriko auzoen izenak finkatu zituen: *Artzainerreka*, *Astigarribia*, *Galdona*, *Ibiri*, *Laranga*, *Mijoa*, *Mizkia*, *Olabarrieta* eta *Olatz*.²⁰

Kontu jakina da udalerrietako izenen ofizialtasuna udalaren eskumenekoa dela. Orain arte, guk dakigula behintzat, *Galdona auzoa* formaren alde egin du udalak, nahiz eta ahozko forma nagusia *Galduamendi* edo *Galdua* izan.

Euskaltzaindiak, bere aldetik, *Galdoa* forma proposatzen du euskara idatzirako.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ere, 2001. urtetik behinik behin, *Galdoa* forma darabil errepideen izenetan. Itxura denez, errepide-izenen kasuan, aldundiak Euskaltzaindiak euskara estandarretarako proposatzen dituen formen alde egiten du. Oraintsu (2019ko irailean), aldundiak Galdoarako bidea adierazten duen bide-seinalea jarri du: *Galdoa*. Mutrikun, orain artean, gutxitan ikusi denez forma hori idatziz, akats tipografikoa izan dela pentsatu dute askok.

²⁰ 2010. urtean argitaratu zen erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO, 41. zk, 2010-03-03, 60. or.).

Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza (2019-10-11) egunkarian, honelako titullarra eman zioten albiste txiki bati: “Txarto idatzi eta kokatutako seinaleak ipini dituzte Mutrikuko errepidean”, eta Galdoarako bide-seinalea aipatu zuten: “Galdonara joateko bidean, Mutrikuko sarreran, Galdona ipini beharrean ‘Galdoa’ jartzen duen seinalea ipini zuten duela aste batzuk”.

4. irudia. Galdoarako bide-seinalea



Iturria: *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*, 2019-10-11.

Oñatin dagoen Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoak, dokumentuak etiketatzeko orduan Euskaltzaindiak euskara idatzirako proposatzen dituen forma estandarrak erabiltzen ditu dagoeneko. Aztergai dugun izenaren kasuan, *Galdoa* darabil Oñatiko artxibo horrek.

Argi dago aldaketa batzuek, txukunak eta ondo dokumentatuak izan arren, aurkako jarrerak sor ditzaketela (“beti esan da horrela, bizi guztian...”). Baina ulertu beharra dago hizkuntzaren historian izenak forma asko izan dituztela, bai ahoz, bai idatziz. Eta, normalizazioari dagokionez, idatziz forma horietako baten alde egiteak besteak ez erabiltzea dakar, ezinbestean.

Galdoa izenaren kasuan, idatzizko dokumentazioak garbi azaltzen du zein izan den euskarazko forma. Eta, horren indargarri, belaunaldiz belaunaldi gungaino heldu den ahozko erabilerak ere garbi erakusten digu bidea. Baten batek pentsa dezake azken urteetan *Galdona* idatzi eta ahoz *Galdua* esan den hori orain *Galdoa* idaztea arrotz samarra gerta dakiekeela herritarrei; baina, *Arroa* eta *Zestoa* izenetan gertatzen den bezala, azalpen egokiak emanez gero, herritarrek ondo bereiziko dituzte ahozko eta idatzizko forma arautuak. Kasu horietan, orain badakite sasoi batean *Arrona* eta *Cestona* idazten ziren haiek, ahoz *Arrua* eta *Zestua* esan arren, *Arroa* eta *Zestoa* idazten direla.

Edonola ere, *Galdoa* izenaren alde eginez gero, lasaitasunez, eta pedagogia egokiaz azaldu beharko zaie herritarrei Administrazioak hartutako erabakiaren arrazoia.

Gauzak horrela, izenak normalizatzeko bidean, forma hauek proposatzen ditut:

- *Galdoa* baserria.
- *Galdoa* auzoa (*Galdoamendi* auzoa).
- *Galdoaldea* aurkintza edo parajea.
- *Galdona* jauregia [kaleko etxea, Txurruka plazan]²¹.

4. Eranskinak

4.1. Idatzizko lekukotasunak²²

1461, **Galdaondo, punta de [t]** (MUA-001; Fernández 2007: 62): “e dende por la mar a la piedra forcajada e llamada Esquelancharria, que es en la punta de Galdaondo, de partes de la mar fasta Viscaya”.

²¹ *Galdona* idatzi dugu, kasu horretan pertsona baten deitura duelako oinarrian eta, itxura denez, ez ahoz, ez idatziz, ez duelako izan *Galdoarako* bilakaerarik.

²² Laburdura guztiak beherago agertuko ditugun arren, hona, argibide modura, aipamenen ondoan kortxeteen arteko garrantzitsuenak: **d**, deitura; **b**, baserria (*Galdoa* auzoan); **a**, auzoa; **k**, kaleko etxea (edo dorretxea, jauregia); **t**, bestelako toponimoa.

1469, **Galdona** [d] (AHDZ, Gipuzkoa, C, Apelaciones Caja 269-20, 2747): “Pedro Perez de Galdona, vecino de Motrico”.

1480, **Galdona** [d] (AGS, RGS, LEG, 148011, 57): “Pedro Perez de Galdona” [mutrikuarra].

1491, **Galdona** [d] (GPAH 1/2562, A282r [1537. urteko kopia]): “Maria Pascoal de Galdona”.

1497, **Galdona** [d] (ARCHV, REG. DE EJECUTORIAS, CAJA 112, 19): “Martin de Galdona” [Mutrikuko biztanlea].

1498, **Galdona** [d] (MUA-219; Fernández 2007: 84): “Pedro Peres de Galdona vesyno de la villa de Motrico cogedor que fuystes de las alcavalas de la dicha villa de Motrico”.

1504, **Gualdona** [t] (MUA-164: 4r; Fernández 2007: 122): “a mirar las tierras conçeçigiles que eran por las partes de Gualdona e Yurre e Çaturraran”.

1506, **Galdona** [d] (MUA-164; Fernández 2007: 184): “Martin de Galdona e Pedro de Yurre servieron con sus bueyes en carrear las piedras grandes”.

1528, **Galdona, la vyña de** [t] (GPAH 1/2559, F25r, Eskribaua: JLL).

1529, **Galdona, el castañal de** [t] (GPAH 1/2560, A5r, Eskribaua: JLL).

1529, **Galdona** [t] (GPAH 1/2560, C197r, Eskribaua: JLL): “el sendero que ba de galdona pa[ra] curpita”.

1529, **Galdona** [t] (GPAH 1/2560, A35r, Eskribaua: JLL): “un pedaço de tierra en galdona...”.

1530, **Galdona** [t] (GPAH 1/2560, C255r, Eskribaua: JLL): “...el castañal de Galdona (...) por la ladera el fresnal de Galdona...”.

1531, **Galdona** [t] (GPAH 1/2561, A85r, Eskribaua: JLL): “una vyna (...) en el lugar de Galdona...”.

1535, **Galdona** [t] (GPAH 1/2569, D45r, Eskribaua: DIL): “la vyna q yo he e tengo en Galdona”.

1535, **Galdona velaar, mançanal de** [t] (BFAH, GORTAZAR 2444/004).

1535, **Galdona, casa de** [b] (BFAH, GORTAZAR 2444/004; GPAH 1/2562, A149r, Eskribaua: JLL).

1537, **Galdonabelaar, vina de** [t] (GPAH 1/2562: 219r, Eskribaua: JLL): “una vina que yo la dha Maria Ramos tengo en el lugar llamado galdonabelaar”.

1543, **Galdonabelar, tierra de** [t] (GPAH 1/2571, C53v, Eskribaua: DIL): “una tierra que yo tengo en galdonabelar”.

1543, **Galdona belar, bina de** [t] (GPAH 1/2571, C59r, Eskribaua: DIL): “Yten la bina de herbicho e otra bina que tengo en Sn P^o[Pedro] e otra que tengo en Olabeta e otra en galdona belar...”.

1543, **Galdona** [b] (GPAH 1/2571, B50v; C16r, Eskribaua: DIL): “Domingo de Yturriça el de Galdona...” (B50v). / “Garcia de Arrieta alias de Galdona” (C16r).

1544, **Galdona, casa de** [b, t] (GPAH 1/2564, C162r, Eskribaua: JLL): “dos binas que nos abemos y thenemos en el lugar llamado por su nonbre Galdona juridion de la dha villa de Motrico... (...) la vina de la casa de Galdona...”.

1547, **Galdaondo** [t] (MUA-311, 17): “...e llevamos el vaso de Lasao a Galdaondo por dos vezes...”.

1549, **Galdoa** [d] (BEHA/F006.228 (2489/002-01, Lekeitio, bataioa, 1549-11-05, Maria Balentina Galdoa): “A çinco dias del mes de nobiembre batize una hija de Andres de Balentina e Maria Peres de Galdoa tubo en brazos ssiendo abad su padrino Anton del Puerto y su muger Barbara...”.

1556, **Galdona belar, casa e caseria nombrada** [b] (GPAH 1/2596, A19v, Eskribaua: OSB).

1556, **Galdona** [b, t] (GPAH 1/2596, A20v, Eskribaua: OSB): “Otro monte rrobleidad de arboles grandes en el pago nombrado de galdona juridicion dla dha villa” / “otro monte pequeno entre las casas de yurre e galdona”.

1566, **Galdaondo** [t] (GPAH 1/2580, G: 23r, Eskribaua: SI): “Yten mas la tierra e nozedal de mixoa que por linderos por la una parte el agoa que

baxa de Arceraen pa[ra] Galdaondo e por la otra el camino que ba pa[ra] Galdaondo”.

1576, **Galdaondo** [t] (BFAH, Ondarroa, 0005/016: 3): “que en Galdaondo andaban dando la red barredera los de Deba a tomar el pescado que pudiesen (...) acudio mucha gente de la dha Villa a la dha Galdaondo algunos por tierra por el camjno de Arrigorri e otros por el arenal e por Arbide...”.

1591, **Galdona, puesto do[nde] dicen** [t] (GPAH 1/2588, F7v, Eskribaua: SI): “la mi tierra que yo he y tengo [en el] puesto do dicen galdona termino y juron de la dha villa...”.

1593, **Galdoa** [d] (BFAH, Lekeitio, N13/428, Eskribaua: CA): “Ynesa de galdoa v^a[vecina] de M^o[Motrico]” / “Poder que dio Ynessa de galdoa vezina de Motrico a Santiago de Batiz para cobrar”. / “Ynessa de Helorriaga y Galdoa vezina que dixo ser de la v^a de Motrico”.

1594, **Galdona, caseria de** [b] (GPAH 1/2589, B39r, Eskribaua: SI): “mis casas e caserías de Galdona e Ybrrre de Juso e Ybiri Chipia e sus tierras de pan llebar, prados e pastos e montes robledales e castañales, e mançanales, e nozedales e huertas e binas”.

1594, **Galdona** [b?] (MUA-312, 118): “...se le haze cargo de 612 mrs que se an de cobrar de la serora de Galdona por la sisa de çiertas sidras que bendio de un bizcayno”.

Gaitasun hori, gainera, ez da dimentsio bakarrekoa. Oro har, oinarrizko lau trebetasun aipatu izan dira²: ulermena (hizkuntza entzunda ulertzea), hitz egiteko gaitasuna, irakurtzeko gaitasuna eta idazteko gaitasuna (Baker, 1997: 31). Lau gaitasun horiek, halaber, multzokatze biren bitartez sailkatu izan dira:

- Batetik, ahozko-idatzizko irizpidea aintzat hartuta: ahozko gaitasunari buruzkoak dira ulermena eta hitz egiteko gaitasuna; idatzizko gaitasunari (*literacidad*) dagozkio irakurtzeko eta idazteko gaitasunak.

² Lau gaitasun horiei, bosgarrena ere erantsi izan zaio: hizkuntza horretan pentsatzea. (Baker, 1997: 35).

- Bestetik, hartze-ekoizte irizpidean oinarrituta: hizkuntza hartzeari dagozkion gaitasunak dira hizkuntza ulertzea eta irakurtzeko gaitasuna; eta hizkuntza ekoizteari dagozkionak beste biak (hitz egitea eta idaztea).

Litekeena da, hortaz, lehen aipatzen genuen nagusitasuna ezberdina izatea trebetasunak aintzat hartuta. Adibidez, hitz egiterakoan Hx hizkuntzan moldatzea hobeto, baina idazterakoan Hyn moldatzea hobeto.

Bestalde, arrunta da elebidunek gaitasun-maila ezberdindua izatea gizarte-bizitzako alor (*domain*, jardungune, erabilera-eremu) ezberdinetan. Oro har, gaitasuna erabilera-maiztasunarekin garatzen delarik, arrunta da elebidunak hobeto moldatzea Hx hizkuntzan hizkuntza horretan komunikatu izan diren eremuetan eta hobeto moldatzea Hy hizkuntzan nagusiki edo soilik bigarren hizkuntza horretan komunikatu izan diren jardunguneetan (Grosjean, 2015).

Hizkuntza baten jabekuntza, prozesu soziala izanik ere, hizkuntza batean hitzunak duen gaitasuna gizabanakoaren ezaugarri psikologiko-kognitiboa da. Gaitasun hori dinamikoa da, eta, beraz, aldakorra pertsonaren bizitzaren fase ezberdinetan (Grosjean, 2018: 9).

2.2. Diglosia eta endodiglosia

Elebidun hitza, baina, ez zaie gizabanakoei soilik aplikatzen eta hizkuntza bi partekatzen dituzten gizarteak izendatzeko ere erabiltzen da: “una comunidad bilingüe se podría definir como aquella en la que se hablan dos lenguas o en la que todos sus componentes o una parte de ellos son bilingües” (Moreno Fernández, 2009: 211).

Hizkuntza-komunitateari begiratuta, elebitasun sozialaren fenomenoak *diglosia* izena hartu du kasu jakinetan³. Izan ere, elebitasunak esanahi asko

³ Elebitasun sozialeko kasu guztiak biltzen dituen hiperonimo gisa, *multilingual community* erabiltzen da maiz (Kloss 1969). *Multilingual community* guztiek ez dute diglosiarik: elebitasun sozial guztiak ez dira diglosia. Modu bateko elebitasun soziala (bereziki Ferguson-ek edo Fishman-ek zehazturiko ezaugarri-sorta) ageri duten gizarte elebidunetan, ez gainerakoetan, esaten da diglosia dagoela.

eduki ditzake eta, gizabanako mailan gertatzen den fenomeno izanda, “elebitasunaren antolaketa makrosozialerako” (Vila eta Boix, 1998) beste termino baten premia azaltzen da. Halaxe iruditu zitzaion, behintzat, Fergusoni (1959) historian zehar etenaldiz betetako erabilera izan zuen “diglosia” berba berreskuratu zuenean.

Fergusonek diglosiari buruz emandako jatorrizko azalpena hizkuntza beraren aldaeren arteko banaketa aski egonkorrean oinarritzen da. Erabilera-eremuetatik abiatuta, goi-mailako funtzioak betetzen zituen aldaera bat eta behe-mailakoak betetzen zituen beste bat deskribatu zituen (Ferguson, 1959).

Diglosia dagoenean, beraz, adiera biak *L* (*Low*, azpikoa) eta *H* (*High*, gainekoa) gainjarrita daude lurralde berean eta bakoitzaren erabilera-eremua osagarria da (Ferguson, 1959). Erabilera-eremuen banaketa horri konpartimentazio soziofuntzionala esaten zaio, eta banaketa hori diglosiaren funtsa dela esan genezake. Egoera horren hainbat funtsezko ezaugarri aipa daitezke (Zalbide, 2011: 41-52):

- Funtzioari dagokionez, aldaeren arteko gainjartzea txikia da eta bakoitzaren erabilera-eremuak mugatuak egon ohi dira. Oro har, *L* aldaera herri-hizkerari dagokio eta transmisio naturalez (etxean eta komunitate hurbilean) jaso ohi da. *H* ere hiztun-elkartearen aldaera da, baina eremu formalagoetan (eskola bidez nagusiki) eskuratu ohi da.
- Banaketa hori aski egonkorra da. Ferguson-en arabera, “a relatively stable language situation”⁴.

⁴ “relatively” hori justu zenbat den, ez da zehazten erraza. Honela dio Fergusonek definizioaren 6. puntuan: “it might be supposed that diglossia is highly unstable, tending to change into a more stable language situation. This is not so. Diglossia typically persists at least several centuries, and evidence in some cases seems to show that it can last well over a thousand years”. (Ferguson, 1959: 332 or.) Honela azaldu izan du Kloss-ek, alemanez, definizio hori: “Diglossie im Sinne Fergusons kann definiert werden als der **seit Generationen domänenweise abgegrenzte Gebrauch** zweier nah verwandter Sprachformen (...)”. Nola mugatu Kloss-en “seit Generationen” hori? Fishman-ek, galdera horri erantzunez, gutxieneko epe-muga operatiboa ezarri izan dio egonkortasun-eskemari: **gutxienez hiru belaunaldi** dirauen hizkuntza-egoera situazio egonkortzat hartu liteke. (Letrakera lodia geurea).

- Aldaerek antzekotasun genetikoa dute, baina ezberdintasun ugariak dituzte. Aldaera bat ezagutze hutsak ez dakar bestea ulertzea.
- Herentzia literarioa dauka *H*-k, bai lehen, bai orain bertan daukan ekoizpenean. *H* aldaera da prestigiduna, berari atxikitzen zaio zuzentasunaren ideia.
- *H* aldaera landuagoa da, jarduera jasorako gaituagoa eta gramatika konplexuagokoa. Lexiko aldetik ere, berba teknikoak *H* aldaerari dagozkio, *L* aldaera beste eremu batzuetara mugatuta utziz: etxeko, lagun-giroko, harreman informal hurbilekoetara.

Fergusonen diglosian oinarrituta, Fishmanek kontzeptuaren adiera zabaltu zuen, hizkuntza bereko aldaera bien arteko banaketa soziofuntzionalari ez ezik, bi hizkuntzen artekoari ere aplikatuz. Haren iritziz, diglosia eta elebitasuna ez dira fenomeno bera, baina aldi berean gerta daitezke. Nolabait esatearren, elebitasuna hitzunei dagokie eta diglosia hitzunok osatzen dugun komunitateari (Zalbide, 2011: 46). Gaur egun, Fergusonen jatorrizko ereduak barne-diglosia edo endodiglosia azaltzeko erabiltzen da (Vila eta Boix, 1998 eta Coyos, 2010) eta Fishmanena kanpo-diglosia edo exodiglosia azaltzeko.

Fishmanen ereduak diglosiari emandako zentzu berria asko erabili izan da hizkuntza ahulduen egoerak aztertu izan dituzten ikerlarien artean. Fishmanek hiru ekarpen nagusi egin zizkion Fergusonen oinarritzko deskribapenari, Zalbideren (2011) arabera:

1. Diglosia fenomeno soziala da, eta banaketa soziofuntzionala du ardatz nagusia. Fergusonen hitzetan *language situation*, Fishmanen esanean *societal arrangement*. Hizkuntzen erabilera-eremuen (*domain*-en Fishmanen hitzetan, jardunguneen Zalbideren itzulpenean) azterketa soziala egiteko aukera ematen du.
2. Diglosiak ezaugarri psikolinguistikoa dauka: hizkuntza-komunitateko gaitasuna desberdina da hizkuntza bakoitzean. Horrez gain, aldaera bakoitza eskuratzeko bidea desberdina da. Alde batetik, aldaera egunerokoa da, etxekoa eta bizia –Zalbideren hitzetan, *gatz*- eta *piperduna* (Zalbide, 2011, 2019)– eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen da;

bestetik, *H* aldaera soziala da, beranduagokoa, eta bigarren mailako sozializazioan (eskola bidez nagusiki) eskuratzen da.

3. Diglosiak ezaugarri ebaluatiboa dauka. Hau da, *H* aldaerak duen balorazioa eta estatusa *L* aldaerak duena baino hobea da.

Diglosiari dagokionez, euskararen eta erdaren arteko harremana azterterakoan, diglosiaren jatorrizko esanahitik aldendu egin izan da Euskal Soziolinguistika, hizkuntza gutxituen ikerketan gatazkaren paradigmak izan duen eraginaren ondorioz (Zalbide, 2011). Gatazkaren paradigmatik egin-dako ekarpen horietan dugu “ideologia diglosiko” (Garí, 1990: 57-58), “diglosia glotofagiko” (Sánchez Carrión, 1974) eta antzeko ideien jatorria. Gatazkaren paradigmaren baliagarritasunari lepoa eman gabe, lan honetan Fergusonen eta Fishmanen diglosiaren esanahia landu dugu, Ondarroako nerabeen egoeraren azterketa sinkronikoa izan delako helburua, garapena aztertzea baino gehiago.

2.3. Diglosia eta endodiglosia Euskal Herrian

Gorago esan bezala, diglosiaren jatorrizko definizioak (Ferguson, 1959) hizkuntza beraren aldaera bi kontrajartzen ditu. Ahaidetasun horretatik haratago eraman du Fishmanek (1967) diglosiaren ideia, hizkuntzen artean ere diglosia egon zitekeela azalduz. Harrezkero, hizkuntza baten aldaeren arteko diglosia *endodiglosia* izendatu izan da eta hizkuntza desberdin biren arteko diglosia, *exodiglosia* (Zalbide, 2011: 84).⁵

Kontzeptu horiek gureru ekarritik, euskara batuaren eta tokiko hizkeren arteko harremanean, euskara batuak *H*-ren lekua hartzeko asmoa du (har-tarako sortu zen partez bederen), bere oinarrian den erdialdeko euskalkia-rekin batera. Diglosiaren eredu klasikoan, euskararen eta erdaren artean, aldiz, erdarek *H* aldaera osatzen dute eta euskarak *L* aldaera. Hala ere, endodiglosiaz berba egiten dugunean, non dago hizkuntza barneko diglosia-ren eta dialekto-estandar harremanaren arteko muga kontzeptuala? Galde-

⁵ Ez dira termino bakarrak. Iturrietara jo nahi balitz ikus *in-diglossia* eta *out-diglossia* (Kloss 1969), *Binnendiglossie* eta *Ausendiglossie* (Besch 1975, Kloss 1976) eta abar.

ra hori bera egin zion bere buruari Mikel Zalbidek (2011: 44) eta hainbat adibide ipini arren, erantzunik ez zela ondorioztatu zuen, diglosia eta dialekto-estandar harremana parekatuz, azkenean. Harreman hori aztertzeko saiakera egin du berriki Coyos-ek (2018) euskara batuak Iparraldean duen harrera aztertzeko. Pertzepziozko dialektologiatik egin du azterketa autoreak, hiztunak informazio-iturri erabilgarria izan daitezkeela erakutsiz.

Endodiglosiak gurean izan ditzakeen zantzuak aztertzeko, fenomenoaren alderdi ebaluatiboa, aldaera bakoitzak duen balorazioa, landu izan da. Hala, Zuazoren (1992, 2001) lanera joz, euskararen aldaeren estatusa baldintzatzen duten jarrera eta iritzien gorabeherak ikusiko ditugu. Nagusitasunari dagokionean, Iparraldea eta Hegoaldea bereizten ditu, Iparraldean kostaldeko lapurterak eduki izan duen entzutea aipatuz eta Hegoaldean beterriko gipuzkeraren abantaila azpimarratuz (Zuazo, 1992). Autore berak aurreiritzi linguistiko izendatzen duen fenomeno gertatzen da, bere berbekin esanda, “Hiztunik arruntenak ere, hierarkia argia somatu uste izango du. (...) ‘Lilurak’ eraginda prestigiodun hori erabiltzen ahaleginduko da, bestea, zenbait esparrutan, behinik behin, baztertu eta bertan behera utziko duelarik.” (Zuazo, 1992: 38).

Zuazok bizkaierak jasandako estigma du hizpide eta sasoiaren arabera mendebaldeko euskalkiaren estatus baxua (Fergusonen *L* aldaera) argudio ezberdinen pean gertatzen dela azaltzen du. Batetik, XVIII. mendean, euskalkiak elkarri mokoka zebiltzan garaian, bizkaiera zakar eta baldartzat jotzen zutenak zeuden. Bestetik, XX.era etorrira, zakar eta baldar izateaz gainera, bizkaieradunen euskara zaila eta ulergaitza dela esaten zutenak azaldu ziren (Zuazo, 1992).

Berba zehatzak darabiltza Zuazok testu berean, Euskal Herrian endodiglosia egoeran gaudela esaten duenean. Hala ere, erdialdeko euskararen eta Hegoaldeko gainerako aldaeren arteko norgehiagokatik harago, esan ote genezake Batua / mendebaldekoa diglosiaren aurrean gaudenik?

Horretarako, italieraren estandarizazioari begiradaxo bat eman diezaiokegu, haien *questione della lingua* aspalditik delako eztabaidagai popularra. Italia “batua” sortu eta sendotzeak arazo nabarmenak ekarri dizkie italierra-hiztunei, *selva dei dialetti* (Mioni eta Arnuzzo-Lanszweert, 1979) hartan

kontsentsua lortzea latza bezain ezinezkotzat joaz. Harira joanez, italiera estandarren jatorrian toscaniera dago. Historia eta etorri literarioa duen aldaera izanik, zalantza gutxi izan zuten estandarra Toscanako dialektotik hartzeko. Italia bateratu eta herrialde berria sortzeak lehenengo, eta faxismo garaiak gero, italiera estandarra hedatu zuten (Mioni eta Arnuz-zo-Lanszweert, 1979). Autore italiar horien proposamenen endodiglosiaren norabidea argia da, dialektorearen elebakartasunetik estandarren elebakartasunerako joera aipatzen dute, hots, ordezkapena ikusi daiteke. Gatazkan oinarritutako paradigmatik edanez (Juaristi, 2019), diglosia (endodiglosia) ordezkapen-prozesuaren fase gisa irudikatzen dute autoreek.

Euskararen aldaeren arteko banaketa soziofuntzionalari dagokionez, oraindik ere ezarri gabe daude aldaera bakoitzaren muga eta erabilera-eremuak, tokiko hizkerek euskara batuarekin duten harremanean ikus daitezkeenak. Mugak argitu gabe edukitzeak, banaketa soziofuntzional orekatu eta iraunkorra zaildu egiten du, eta ikasleek erregistro edota aldaera egokia erabiltzeko oztopoak aurkitu ditzakete. Euskalkiaren eta batuaren arteko gurutzatzea saihesteko Zuazok *Euskararen sendabelarrak* liburuan konpartimentazioa proposatu zuen, izen hori ipini ez zion arren, aldaera bakoitzari bere eremuak emanez (Zuazo, 2001: 171-181):

- Aisialdian, euskalkia eta horren lagunarteko hizkera erabiltzea proposatzen du.
- Irakaskuntzan, hiru maila bereizten ditu:
 - Haur Hezkuntzan, ahozko jarduna nagusi den sasoian, herriko hizkeran jardutea proposatzen du.
 - Lehen Hezkuntzan, tokiko batua menderatzera ailegatu beharko lirateke ikasleak.
 - Bigarren Hezkuntzan eta hortik aurrerako prestakuntzan, euskara batua izango litzateke eredia.
- Lan arloan, kanpora begirako komunikazioan (idatzizkoan, besteak beste) euskara batua erabiltzea proposatzen du. Ahozko jardun formalerako, tokiko batuari uzten dio lekua.

- Herri hedabideetan, tokiko batua edo euskalki jaso (horien bien arteko desberdintasuna zaila izan daiteke batzuetan) eta ahozko jardueran herri hizkera tartekatze aukera proposatzen ditu.
- Administrazioan, euskara batua proposatzen du.
- Literaturan, erabilera-eremu berezia denez, sortzailearen esku uzten du erabakia.

Euskararen aldaeren arteko banaketa soziofuntzionala ezartzeak berebiziko garrantzia izan dezake, euskara nagusi duten eremuetan bereziki.

2.4. Arnasguneak

Ukipenean dauden hizkuntzen banaketa geografikoa ez da homogenea. Leku batzuetan hizkuntza batek beste hizkuntzak baino funtzio eta erabilera-eremu gehiago izan ditzake bereganatuta. Hizkuntza gutxituen kasuan, *L* aldaera nagusi den eremuei arnagune esaten zaie euskaraz (Zalbide, 2019), Fishmanen “*Breathing space*” terminoaren ordain gisa. Arnasguneak esaldi batean biltzeko, Fishmanen berbak dakartza Zalbidek: “*demographically concentrated space where X-ish can be on its own turf, predominant and unharassed*” (Fishman, 1991 In Zalbide, 2019: 18).

Horrela, euskara jaun eta jabe den eremua da arnagunea, kanpotiko inolako derrigortasunik gabe euskaraz diharduena, “eremu geoterritorial segurua”, Zalbideren (2019: 19) berbetan. Testu berean, autoreak arnaguneen honako ezaugarri hauek azpimarratzen ditu (Zalbide, 2019: 20-30):

- Euskal kontzentrazio demografiko handia du arnaguneak: euskaraz dakite bertako herritar guztiek edo gehienek eta eguneroko jardunean euskaraz mintzo dira.
- Arnasgune barnean berbetan ari direnean, euskara da nagusi, beste edozein hizkuntza tartean nabarmen sartu gabe. Euskaraz berba egitea arau inplizitua da.
- Euskararen transmisioa bermatuta dago belaunaldiz belaunaldi.

- Etxean, eskolan, kalean eta aisialdian euskaraz mintzo dira arnasguneetako biztanleak eta, ahal duten heinean, lanean ere bai. Molde horrek pitzadurak jasan ahala, arnasmuneak eraldatuz joango da.

Zalbidek dioenez, arnasmune guztiak ez dira, gaur egun, “maila berean arnasmune”. Mailaketa horren arabera, euskarazko jardunaren nagusitasun handiko arnasmuneen eta nagusitasun apalagokoen artean bereizten du. Lehenak arnasmune *beteak* ditugu eta bigarrenak arnasmune *erasanak* (Zalbide, 2019: 18-22).

Arnasmuneak teorikoki zer diren argituta, nola erabaki gune bat (udalerri bat edo eskualde bat, kasu) arnasmune den edo ez, eta arnasmune izatekotan arnasmune betea edo erasana den? Zalbideren ikuspegi teorikotik abiatuta, kontzeptu horiek operatibizatzeko proposamena garatu dugu berriki (Iurrebaso, 2019), gaur egun Hego Euskal Herriko udalerriei buruz eskura dagoen informazio demolinguistikoa baliatuz. Bertan, biztanleria-zentsuen arabera euskararen etxeko erabilera % 60tik gorakoa den udalerriak jotzen dira arnasmunetzat. Horien barruan, arnasmune betetzat jotzen dira erabile-ra hori % 80a gainditzen duten udalerriak eta arnasmune erasantzat etxeko erabilera % 60-% 80 bitartean duten udalerriak. Irizpide horiek berak aplikagarriak dira kaleko erabileraren datuetarako ere.

Zer harreman dago lehen landu dugun diglosiaren kontzeptuaren eta arnasmuneen artean? Euskal Herrian diglosiarik egon ote litekeen aztertzen hasita haxe dio Zalbidek:

(...) ezer izatekotan arnasmuneetako horixe da gure gaurko eta hemengo diglosia (...) horietan ere ez diglosia tradizional betea, baina bai menderik mendeko diglosiaren eskema nagusitik hain-hain urrundurik ez dagoen moldaera (...) hori da XXI. mende-hasiera honetara arte bizirik iritsi den euskal/erdal diglosiaren eszenarioa: eszenario nagusia eta ia bakarra. (Zalbide, 2011: 96)

Euskararen gaurko egoera ezagututa, etxean eta kalean euskarak presentzia ohargarria duen ingurumenetan diglosia eguneratu bat birmoldatzea eta hari indarrean eustea proposatzen du lehenengo erronkatzat, euskara oro har indarberritzeko aurrerapauso gisa. Aurrerapauso hori lortzeko bidean arnasmuneek berebiziko garrantzia dutela azpimarratzen du, diglosiak daka-

rren euskararen eta erdararen –kasu honetan, gaztelaniaren– konpartimentazio soziofuntzional nolabaitekoa berezkoa izan delako bertan duela gutxira arte (Zalbide, 2019). Konpartimentazioa badakigu nola gertatu izan den joan den mendeetan: erdarak irakurketaren, idazketaren, administrazioaren eta hezkuntzaren eremuak bete izan ditu, euskarak erabilera-eremu informalak (etxea, auzoa, lagun-giroa, kalea...) nagusitasun argiz betetzen zituen bitartean. Behinolako konpartimentazio hura asko aldatu da azken hamarkadotan. Euskaratik erdararako mintzaldaketa osoa gertatu da leku askotan, hasteko. Euskararen galera hain ondorio kaltegarria iritsi ez den kasuetan, bestalde, ahuldu (hainbatean kraskatu) egin da behinolako konpartimentazio zurrun hura: euskara eremu formaletan sartu da (irakas-kuntzan, administrazio publikoan, zerbitzuetan...) baina, aldi berean, bere-bereak diren jardunguneetan atzera egin du erdararen inpaktupean. Arnasgune askotan, orain gutxira arte bereak izandako hainbat eremutan (etxea, lagun-giroa, kalea...) ahulago ageri zaigu euskara; erdara indartzen ari da bertako eremu informalean. Aldaketa hori, etxeko erabileraren bilakaeran antzematen da nagusiki (Iurrebaso, 2019).

Arnasguneetako hizkuntza-ukipenak dimentsio bi dituela esan dezakegu: [gaztelania/euskara] bata, eta [batua/tokiko hizkera] bestea. Bigarren dimentsio horri buruz, euskara batuaren eta tokiko euskararen eremukako erabilerari buruz ez dugu datu askorik aurkitu. Hutsune hori betetzera dator, besteak beste, gure ikerketa.

2.5. Ondarroa: Bizkaiko arnasmunerik populatuena

Bizkaiko kostaldean dago Ondarroa, Lea-Artibai eskualdean. 8.593 biztanle ditu (Eustat, 2016) eta eskualdeko herririk handiena da. Bai Ondarroa eta bai Lea-Artibai osoa arnasmune dira, aipatu berri ditugun irizpideei jarraituta. Lea-Artibai da, Urola-Kostarekin batera, EAEko eskualderik euskaldunena (Iurrebaso Biteri, 2015). Ondarroa da arnasmunetzat jo ditza-kegun Bizkaiko udalerrien artean populatuena, eta Hego Euskal Herriko hiru arnasmune populatuenen artean dago (Azpeitia eta Azkoitiaren atzetik). Horrez gain, Ondarroa inguratzen duten herri guztiak dira arnasmune –Lekeitio, Berriatua eta Mutriku–. Hori garrantzitsua da Ondarroa euskal-

dun mantendu izana azaltzeko (Albizu eta Arana, 2018). Herriaren arnagune izaera deskribatzeko, 2016ko biztanleriaren estatistiken datuak ikus ditzakegu A. taulan:

A. taula. Etxeko hizkuntza, lehen hizkuntza eta hizkuntza-gaitasuna. Ondarroako hitzunak, 2016

	Kopurua	Ehunekoa (%)
Etxeko hizkuntza		
Euskara	5.466	63,6
Gaztelania	2.238	26,0
Biak	600	7,0
Beste bat	289	3,4
<i>Guztira</i>	8.593	100,0
Lehen hizkuntza		
Euskara	5.775	67,2
Gaztelania	1.769	20,6
Biak	474	5,5
Beste bat	575	6,7
<i>Guztira</i>	8.593	100,0
Hizkuntza-gaitasuna		
Euskaldunak	6.620	78,5
Ia euskaldunak	765	9,1
Erdaldunak	1.047	12,4
<i>Guztira</i>	8.432	100,0

Iturria: EUSTAT, biztanleria estatistikak, 2016.

Etxeetako erabilerari begiratuta, Ondarroako etxeetan euskaraz hitz egiten dute hirutik bik, eta lautik batek gaztelaniaz. Beraz, goragoko arnaguneen sailkapenari jarraituz, Ondarroa arnagune erasana dela esan dezakegu. Hizkuntza-gaitasunaren aldetik, bost hitzunetatik lau dira euskaraz ondo hitz egiteko gai. Hizkuntzaren transmisioari dagokionez, lehen hizkuntza euskara dutenak heren bi dira.

Kale-erabilerari buruzko datuek are argiago erakusten dute Ondarroan euskarak duen nagusitasuna: euskararen erabilera % 79,7koa zen 2016ko neurketaren arabera. Beste arnagune askotan bezala (Iurrebaso, 2019) gehiago erabiltzen da euskara Ondarroako kaleetan bertako etxeetan baino. Errealitate hau berri samarra da, duela gutxira arte etxea izan baita euskararen gotorleku nagusia.

B. taula. Hizkuntzen kale-erabilera Ondarroan, 2016

	Kopurua (behatutako hiztunak)	Ehuneko (%)
Euskaraz	3.695	79,7
Gaztelaniaz	820	17,7
Beste hizkuntzetan	119	2,6
Guztira	4.634	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, erabileraren kale-neurketa, 2016.

Kale-erabilerari dagokionez, euskara gehien egiten dutenak haurrak (% 92,1) eta gazteak (% 92,9) dira. Helduen artean, elkarrekintzak hamarretik zazpi euskaraz izan dira (% 72,9). Antzeko emaitzak ikusi daitezke Albizu eta Aranaren (2018) ikerketan ere, umeen eta gazteen artean ikusi baitzuten euskararen erabilerarik altuena.

Dena dela, goragoko informazio-iturriek herriari buruzko datu orokorrak dakartzaten arren, Ondarroako nerabeei dagozkien datu zehatzak Jon Fernandezek (2019) egindako lanetik atera ditzakegu. Haren arabera, Ondarroan ikasten duten 16-18 urteko nerabeen ia hiru laurdenek lehen hizkuntza euskara dute eta etxeko hizkuntzari begiratuta, hamarretik zortzi baino gehixeagok euskara du etxeko hizkuntza (Fernandez San Martin, 2019). Balio horiek Ondarroaren arnagune izaera *erasan* eta *bete* arteko muga kokatzen dute.

Arnaguneetako nerabeek hizkuntza ofizialetan izan dezaketen gaitasunari buruzko ikerketak gutxi dira, eta euskara batuaren eta euskalkiaren gaitasuna aztertzeke helburua duenik ez dugu aurkitu. Gauza bera gertatzen

da erabilera-eremuekin ere: nerabeek izan dezaketen euskara batuaren erabilerrari buruzko ikerketarik ez dugu aurkitu.

Hori horrela izanik, nerabeek euskaraz, tokiko hizkeran eta gaztelaniaz (ahoz zein idatziz) komunikatzeko dituzten gaitasunak neurtuko ditugu, *ezagutzazko galderak* (*knowledge questions* Peytcheva, 2019: 503) erabiliz, haien autopertzepzioak aztertuz. Azkenik, eguneroko bizimoduan hiru aldaerok zein eremutan erabiltzen dituzten ikertuko dugu.

3. Ikerketa-galderak eta hipotesiak

Gure ikerketaren helburu orokorra da, egungo arnasguneetan diglosiaren (eta, beraz, endodiglosiaren) eredu klasikoa aplikatu ahal izateko zantzurik aurkitu ote daitekeen aztertzerakoan, ekarpen enpiriko bat egitea. Komunitate batean (Ondarroan gure kasuan) diglosiarik baden edo ez aztertzeo, ezinbestekoa litzateke bertako adin-multzo guztien errealtatea aztertzea. Gure ekarpena mugatua izango da, hortaz: gai horretara hurbilpen xume bat egin nahi dugu, Ondarroako nerabeen errealtatea aztertuta.

Horretarako, nerabeon hizkuntza-gaitasunari eta erabilerrari buruzko errealtatea deskribatuko dugu, honako lau ikerketa-galderak erantzuten ahaleginduz:

1. Zein da Ondarroako nerabeen hizkuntza-gaitasun erlatiboa, euskaraz eta gaztelaniaz?
2. Zein da Ondarroako nerabeen euskararen eta gaztelaniaren erabilera, erabilera eremuka banatuta?
3. Zein da Ondarroako nerabeen hizkuntza-gaitasun erlatiboa, euskara batuan eta tokiko euskaran?
4. Zein da Ondarroako nerabeen euskara batuaren eta tokiko euskararen erabilera, erabileraeremuka banatuta?

Lau galdera horietako bakoitza hainbat hipotesi eta azpi-hipotesiren birtartez garatu dugu:

3.1. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa I: euskara eta gaztelania

1. Ondarroako nerabe gehienek gaitasun aitortu handiagoa izango dute euskaraz, gaztelaniaz baino. Hipotesi horri dagozkion azpi-hipotesiak:
 - 1A. gehienek euskaraz hobeto hitz egingo dute gaztelaniaz baino.
 - 1B. gehienek euskaraz hobeto irakurriko dute gaztelaniaz baino.
 - 1C. gehienek euskaraz hobeto idatziko dute gaztelaniaz baino.

3.2. Erabilera I: euskara eta gaztelania

2. Ondarroako nerabeek gaztelaniaz baino gehiago egingo dute euskaraz, ikerlanean aztertutako erabilera-eremu guztietan.
3. Diglosiari buruz esandakoa kontuan hartuta, gaztelania (*H* aldaera) indartsuago azalduko zaigu erabilera-eremu formaletan, eta euskara (*L* aldaera) indartsuago erabilera-eremu informaletan.

3.3. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa II: euskara batua eta tokiko euskara (Ondarroako hizkera)

4. Ahozko trebetasunetan (ulermenean eta mintzamenean) Ondarroako hizkeran *ondo* moldatzen direnak gehiago izango dira batuan *ondo* moldatzen direnak baino.
5. Idatzizko trebetasunetan (irakurmenean eta idazmenean) gehienek batuz gaitasun hobea adieraziko dute Ondarroako hizkeran baino.

3.4. Erabilera II: euskara batuaren eta tokiko euskararen (Ondarroako hizkeraren) erabilera

6. Nerabeek maizago hitz egingo dute Ondarroako hizkeran, euskara batuan baino.

7. Endodiglosiari buruzko azalpenak ikusita, euskara batua (*H* aldaera) indartsuago azalduko zaigu erabilera-eremu formaletan, ez-formaletan baino.

Hipotesi hauek balioztatu eta gero, ondorioen atalean, Ondarroako nerabeen hizkuntza-errealitatearen ezaugarriak laburbiltzeaz gain erabilera-datuei begiratuko diegu: batetik, euskararen eta gaztelaniaren arteko banaketa aztertuko dugu, eta, bestetik, euskara batuaren eta tokiko euskararen artekoa. Erabilera-molde horiek deskribatzeko *diglosia* kontzeptua egokia ote den analizatuko dugu.

4. Metodologia

Ikerketa honetarako erabili dugun metodologia kuantitatiboa izan da. Hartarako teknika, berriz, inkesta autoaplikatua. Jarraian, xehetasun nagusiak azalduko ditugu.

4.1. Unibertsoa, lagina, akats-tartea

Ondarroako DBHko 3. mailako ikasleek parte hartu dute ikerketan: 14-15 urte inguruko nerabeak ditugu, beraz, aztergai. Ondarroako ikastetxeetan, bertako nerabeek ez ezik Berriatuakoek ere ikasi ohi dute. Berriatuako euskararen egoera Ondarroakoaren oso antzekoa da; arnagune izaera du Berriatuak ere. Ikerlan honetan zehar, “Ondarroako nerabeak” aipatuko ditugunean, izatez Ondarroako ikastetxeetan ikasten ari diren Ondarroako ikasle guztiez eta Berriatuako gutxi batzuez arituko gara. Izan ere, adin horretako Ondarroako ikasle guztiak ditugun arren, Berriatuako ikasle guztiek ez dute Ondarroan ikasten. Herri bien arteko arnagune izaeran desberdintasun txiki batzuk badirela jakinik ere, hizpide dugun gairako “Ondarroako nerabe” izenaren pean bildu ditugu guztiak.

Gure ikerketaren unibertsoa Ondarroako ikastetxe bietan matrikulatutako ikasle guztiek (92 lagunek) osatu dute. Datu-bilketa egunean falta izan ziren ikasleak tarteko, lagina 77 ikaslek osatu dute, horietatik 38 (% 49,4)

neskak eta 39 (% 50,6) mutilak izan dira; 62 (% 80,5) ikastetxe publiko-koak eta 15 (% 19,5) ikastolakoak; 69 (% 89,6) Ondarroa bertakoak eta 8 (% 10,4) Berriatuakoak. Ikasle hauek guztiek D ereduan ikasten dute.

Unibertsoa eta lagina aintzat hartuta, $\pm$ % 4,5eko akats tartearekin egin dugu lan, % 95eko konfiantza-mailan eta hipotesirik kontrakoena kontuan hartuta ($p=q=0,50$ denerako, alegia).

4.2. Datuak biltzeko prozedura eta landa-lana

Landa-lana 2019ko maiatzean eta ekainean egin dugu. Norberak betetako galdetegiaren teknika erabili dugu. Aplikazioa banakakoa eta Internet bidezkoa izan da, eta ikasgela bakoitzeko (lau ikasgela guztira) parte-hartzaile guztiek aldi berean bete dute bakoitzari zegokion galdetegia. Aplikazioaren aurretik, ikasgelaz ikasgela joan gara parte-hartzaileei ikerketa aurkezteko, anonimotasuna eta konfidentzialtasuna ziurtatzeko eta agertu zitezkeen zalantzak argitzeko.

4.3. Galdetegia

Euskara batuaz idatzitako 41 galderaz osatu dugu galdetegia. Hona hainbat xehetasun:

Hizkuntza-gaitasunaz galdetzeko, hamasei galdera txertatu ditugu galdetegian, neurtutako lau aldaera (euskara –zehaztu gabe-, gaztelania, euskara batua eta Ondarroako hizkera) eta lau trebetasunetarako (ulertu, hitz egin, irakurri, idatzi), zentsuaren moldearekin bat datorren hiru aukerako eskala erabili dugu. Adibidez: *Zelan ulertzen duzu gaztelania?* -Bat ere ez/ Nekez/ Ondo.

Gaitasun erlatiboa neurtzeko, sei galdera txertatu ditugu, aldaera-pare bi (euskara/gaztelania eta euskara batua/Ondarroako hizkera) eta hiru trebetasunetarako (berba egin, irakurri eta idatzi). Kasu horietan ere hiru erantzun-aukera eskaini ditugu eta eredu honi jarraituz egin ditugu galderak: *Zelan idazten duzu hobeto, euskaraz ala gaztelaniaz?* -Gaztelaniaz/ Bietan berdin/ Euskaraz.

Erabilerak neurtzeko, hamasei galdera txertatu ditugu. Horrela, hainbat erabilera-eremu eta rol-harremanetan egiten duten erabileraz galdetu diegu. Lehenengo, bederatzi eremutan euskara-gaztelania erabilerari buruz galdetuz eta ondoren, euskarazko erabileraren barruan, batuan eta tokiko euskararen egiten duten erabilera zazpi eremutarako bereizteko eskatuz (neurtutako eremuak zehazki zeintzuk izan diren emaitzen grafikoetan ikus daitezke). Erabilerari buruzko hamasei galderetan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bost urtean behin egin ohi duen Inkesta Sozio-linguistikoaren ereduari dagozkion bost erantzun-aukerak erabili ditugu. Hona adibide bat: *Zein hizkuntzatan egiten duzu berba lagunekin zaudenean? Beti gaztelaniaz/ Gaztelaniaz, euskaraz baino gehiago/ Euskaraz eta gaztelaniaz, berdin/ Euskaraz, gaztelaniaz baino gehiago/ Beti euskaraz.*

Azkenik, aldagai askeak txertatu ditugu: bizilekua (*Ondarroan/ Beste herri batean*), sexua (*Neska/ Mutila*) eta gurasoen jatorria (*Biak eskualdekoak/ Bat eskualdekoa eta bestea kanpokoak/ Biak kanpokoak*).

4.4. Erabilera-eremu bakoitzerako nerabeen batez besteko erabileraren kalkulua

Ikertu ditugun aldagaiak izatez ordinalak diren arren, erabilerari dagozkion galderen emaitzak zenbaki bihurtu ditugu. Horretarako, erabileraren erantzun-aukerak (“beti gaztelaniaz” aukeratik “beti euskaraz” aukerara doaz) eraldatu egin ditugu, euskararen erabileraren ehunekoa kalkulatzuz. C taulan ikus daiteke aldagaia birkodetzerakoan erantzun bakoitzari esleitu diogun balioa:

C. taula. Euskararen erabilerari buruzko jatorrizko galderetatik aldagai kuantitatiboa sortzeko irizpideak

Erantzuna	Euskararen erabileraren ehunekoa
Beti gaztelaniaz	% 0
Gaztelaniaz, euskaraz baino gehiago	% 25
Euskaraz eta gaztelaniaz, berdin	% 50

Erantzuna	Euskararen erabileraren ehunekoa
Euskaraz, gaztelaniaz baino gehiago	% 75
Beti euskaraz	% 100

Horrela, parte-hartzaile bakoitzaren erantzuna ehunekotara ekarrita eta ehuneko horien guztien batezbestekoak kalkulaturik, erabilera-eremu bakoitzean euskararen batez besteko erabilera kalkulatu dugu.

Irizpide berari jarraituz kalkulatu ditugu eremuz eremu Ondarroako hizkeraren erabilera-tasak.

5. Emaizten aurkezpena eta hipotesien balioztatzea

5.1. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa I: euskara eta gaztelania

Ondarroako nerabeek emandako erantzunen artetik, lau trebetasunetan euskaraz zein gaztelaniaz dituzten gaitasunei buruzkoak bildu ditugu *D. taulan*. Datuei begiratuta, nabarmentzeko moduko lehen emaitza hau da: nerabe gehienek esanean, bai gaztelaniaz eta bai euskaraz ondo moldatzen dira ikerlan honetan aztertutako lau trebetasunetan. Kasu guztietan, gutxiengoa dira bai euskaraz eta bai gaztelaniaz nekez moldatzen direla edo batere moldatzen ez direla erantzun dutenak.


D. taula. Hizkuntza-gaitasuna euskaraz eta gaztelaniaz.

Ondarroako DBHko 3. mailako ikasleak, 2019 (%)

	Ulertu		Hitz egin		Idatzi		Irakurri	
	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania
Ondo	97,4	93,5	94,8	74,0	92,0	80,5	90,9	90,9
Nekez	2,6	6,5	5,2	23,4	6,7	18,2	7,8	9,1
Batere ez	0,0	0,0	0,0	2,6	1,3	1,3	1,3	0,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	(77)	(77)	(77)	(77)	(75)	(75)	(77)	(77)

Gaitasun erlatiboari buruzko erantzunak 1. grafikoa aurkeztu ditugu. Argi ikusten denez, euskararen aldeko nagusitasuna agerikoa da ahozko gaitasunari dagokionez, baina ez idatzizko trebetasun biei dagokienean.

1. grafikoa. Hobeto moldatzen diren hizkuntza.
Ondarroako DBHko 3. mailako ikasleak, 2019 (%)



Taula eta grafiko horietako datuetan oinarrituta, lehenengo hipotesia eta bere baitako hiru azpi-hipotesiak balioztatu ditzakegu.

Lehenengo hipotesia (*Ondarroako nerabe gehienek gaitasun aitortu handiagoa izango dute euskaraz, gaztelaniaz baino*) hein batean bete da, baina ez erabat. Izan ere, hiru azpi-hipotesietatik bi (1A: *Gehienek euskaraz hobeto hitz egingo dute gaztelaniaz baino* eta 1C: *Gehienek euskaraz hobeto idatziko dute gaztelaniaz baino*) bete egin diren arren, bat baieztatu gabe geratu da (1B: *Gehienek euskaraz hobeto irakurriko dute gaztelaniaz baino*). Ikus dezagun:

1A azpi-hipotesia (*Gehienek euskaraz hobeto hitz egingo dute gaztelaniaz baino*) bete egin da: euskaraz gaztelaniaz baino hobeto hitz egiten dutela diote nerabeen heren bik (% 68,8); horien aurrean oso gutxi dira (hamarretik bat, % 9,1) gaztelaniaz euskaraz baino hobeto moldatzen direla diote-

nak; ia laurden batek (% 22,1) erantzun du berdin moldatzen direla hizkuntza bietan hitz egiteko orduan.

1C hipotesia ere (*Gehienek euskaraz hobeto idatziko dute gaztelaniaz baino*) bete egin da: euskaraz hobeto idazten dutela esaten dutenak (% 40,3) gaztelaniaz hobeto idazten dutela esaten dutenak (% 19,4) baino gehiago dira. Aldea, hala ere, ez da hitz egiteko gaitasunean jasotakoaren bestekoa; hizkuntza bietan idazteko gaitasuna parekoago ikusten baita. Multzo handiena (% 41,5) hizkuntza bietan berdintsu idazten dutela diotenek osatzen dute.


1B hipotesian (*Gehienek euskaraz hobeto irakurriko dute gaztelaniaz baino*), aldiz, espero genuen emaitzaren aurkakoa aurkitu dugu: gaztelaniaz hobeto irakurtzen dutela dioten nerabeak (% 31,2) gehiago dira euskaraz hobeto moldatzen direla uste dutenak (% 27,3) baino. Kasu honetan ere, multzo handiena (% 40,3) hizkuntza bietan berdintsu irakurtzen dutela diotenek osatzen dute.

5.2. Erabilera I: euskara eta gaztelania

Nerabeen erabilera-ohiturak eremuka aztertuta (ikus 2. grafikoa), hiru multzo nagusitan bana ditzakegu:

- Euskararen nagusitasun nabarmeneko erabilera-eremuak: euskararen erabilera % 90etik gorakoa. Multzo honetan sartzen dira ikaskideen arteko harremanak (euskararen batez besteko erabilera: % 97,4), irakasleekikoak (% 92,2), lagunekikoak (% 92,2) eta eskolaz kanpoko ekintzetakoak (% 90,4).
- Euskararen nagusitasuna argia izanda ere, gaztelaniaz ere toki nabarmena duen eremuak: medikuarenean (euskararen batez besteko erabilera: % 79,2), etxean (% 78,3) eta sare sozialetan (% 73,1).
- Euskararen nagusitasunik gabeko eremuak: liburu, aldizkari eta abarren irakurketa (euskararen batez besteko erabilera: % 40,3) eta telebista ikustea (% 27,0).

2. grafikoa. Euskararen eta erdararen erabilerearen batez besteko ehunekoak, erabilera-eremuen arabera. Ondarroako DBHko 3. mailako ikasleak, 2019 (%)



Gure hipotesietara itzuliz, bistan da zer pentsatzen genuen: Ondarroako nerabeek gaztelaniaz baino gehiago egingo zutela euskaraz beti, arnagunee-tan gaztelaniarenak izandako hainbat leku ere (eskola eta udal mailako zer-bitzu publikoak adibidez) azken hamarkadotan euskaldundu egin direlako. Hipotesi hori (2. *Ondarroako nerabeek euskara gaztelania baino gehiago erabili-liko dute aztertutako erabilera-eremu guztietan*) ezin izan dugu erabat baieztatu. Oro har, aztertutako eremu gehienetan nerabeen euskararen erabilera-tasa aski altua da (% 70etik gorakoa); euskara nagusi da errealitate sozialean funtsezkoak diren hainbat eremutan: eskola-giroan, lagunartean eta etxean, besteak beste. Hala ere, bi alorretan erdara da nagusi: telebista-kontsumoan (non euskararen erabilera % 27,0n gelditzen den) eta liburu-al dizkarien irakurketan (% 40,9). Ezin, hortaz, hipotesi hori guztiz baieztatu.

Erabilera-eremu formalak eta informalak aztertzen zituen hipotesia (3. *Gaztelania –H aldaera– indartsuago azalduko zaigu erabilera-eremu formalean, eta euskara –L aldaera– indartsuago erabilera-eremu informalean*) ezin dugu baieztatu. Aztertutako erabilera-eremuak formal-informal irizpidetik begiratuta, ez dirudi hizkuntzen erabilera-eremuon izaera formalago edo informalagoaren arabera aldatzen denik. Adibidez, oro har formaltasunari atxiki ahal zaizkion

eskola-giroko erabileretan du euskarak pisurik handiena, baina formaltasunari lotu ahal zaion liburu-aldizkarien irakurketan gainerako eremu gehienetan baino ahulago azaltzen zaigu euskara. Hara beste adibide bat: erabilera-maila bertsua aurkitu dugu medikuarenean (eremu formal argia) eta etxean (eremu informal argia). Ez dirudi, hortaz, behinolako formaltasun-informaltasun bereizkundeak erabakitzen duenik Ondarroako nerabeen hizkuntza-hautua.

5.3. Hizkuntza-gaitasun alderatua II: euskara batua eta tokiko euskara (Ondarroako hizkera)

Jasotako erantzunen artetik, euskara batuan eta tokiko euskararen (lau trebetasunetan) duten gaitasunari dagozkionak *E.* taulan bildu ditugu. Bai batuan eta bai tokiko euskararen, aztertutako lau trebetasunetan nerabe gehienek ondo aritzeko gai direla adierazten dute. Bada, ordea, salbuespen esanguratsu bat: nerabeen ia heren bik (% 63,6) zera dio: euskara batuan ondo hitz egiteko ez dela gai. Bestalde, neurtutako trebetasun guztietan gehiago dira Ondarroako hizkeran ondo moldatzen direla diotenak euskara batuan ondo moldatzen direla diotenak baino.


E. taula. Hizkuntza-gaitasuna Ondarroako hizkeran eta batuan.
Ondarroako DBHko 3. mailako ikasleak, 2019 (%)

	Ulertu		Hitz egin		Idatzi		Irakurri	
	Onda- rroakoa	Batua	Onda- rroakoa	Batua	Onda- rroakoa	Batua	Onda- rroakoa	Batua
Ondo	100,0	88,3	96,1	36,4	90,9	79,2	96,1	87,0
Nekez	0,0	11,7	1,3	59,7	5,2	18,2	3,9	11,7
Batere ez	0,0	0,0	2,7	3,9	3,9	2,6	0,0	1,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	(77)	(77)	(77)	(77)	(75)	(75)	(77)	(77)

Euskararen aldaera bietako gaitasun erlatiboa aztertuta, gehiengoak tokiko hizkeran hobeto moldatzen dela dio. Aldea oso handia da, bereziki,

berba egiteko gaitasunari dagokionez (% 89,5ek dio hobeto moldatzen dela tokiko hizkuntzan eta % 2,6k bakarrik dio hobeto moldatzen dela euskara batuan). Aldeak hain nabarmen ez izan arren, idazterakoan eta irakurtzerakoan ere gehiago dira Ondarroako hizkeran batuaz baino hobeto moldatzen direla diotenak (ikusi 3. grafikoa).

3. grafikoa. Hobeto moldatzen diren aldaera.
Ondarroako DBHko 3. mailako ikasleak, 2019 (%)



Formulatu ditugun hipotesiei helduta, laugarren hipotesia (*Ahozko trebetasunetan –ulermenean eta mintzamenean– Ondarroako hizkeran ondo moldatzen direnak gehiago izango dira batuan ondo moldatzen direnak baino*) baiez-tatu egiten dute inkestako datuek bete-betean: tokiko euskara ondo ulertzen dutela erantzun dutenak (% 100,0) gehiago dira euskara batua ondo ulertzen dutela erantzun dutenak baino (% 88,3). Mintzamenari dagokionez, tokiko euskararen hobeto moldatzen dira hamar nerabetik bederatzirek (% 89,5) eta oso gutxi dira (% 2,6 besterik ez) batuaz hobeto moldatzen direla diotenak.


Idatzizko gaitasunetan, berriz, ez da gure hipotesia bete (*5. Idatzizko trebetasunetan –irakurmenean eta idazmenean– gehienek batuaz gaitasun hobea adieraziko dute Ondarroako hizkeran baino*). Gure ustearen kontra, gehiago

dira Ondarroako hizkeran hobeto irakurtzen dutela diotenak (% 45,4), batuaz hobeto moldatzen direla diotenak baino (% 27,3). Eta gehiago dira, halaber, alde handiagoarekin gainera, idazterakoan Ondarroako hizkeran hobeto moldatzen direla diotenak (% 50,6), batuaz hobeto moldatzen direla diotenak baino (% 23,4).

5.4. Erabilera II: euskara batua eta tokiko euskara (Ondarroako hizkera)

Nerabeek euskaraz egiten dutenean erabiltzen duten aldaerari dagokionez, Ondarroako hizkeraren erabilaren ehunekoa oso altua da aztertutako erabilera-eremu guzti-guztietan, 4. grafikoa ikus daitekeen bezala. Batuak toki gehixeago du irakasleekiko harremanean, (Ondarroako hizkeraren batez besteko erabilera % 84,9koa, batuarena % 15,1) eta medikuarekikoan (Ondarroako hizkeraren batez besteko erabilera % 79,5, batuarena % 20,5), baina eremu horietan ere tokiko euskara da askogatik nagusi.

4. grafikoa. Ondarroako hizkeraren eta euskara batuaren erabilaren batez besteko ehunekoa, erabilera-eremuaren arabera. Ondarroako DBHko 3. mailako ikasleak, 2019 (%)



Gaiari buruzko hipotesi biei dagokienez:

Seigarren hipotesia (*Ondarroako nerabeek Ondarroako hizkera gehiago erabiliko dute euskara batua baino, aztertutako erabilera-eremu guztietan*) guztiz baieztatzen dute datuek: tokiko hizkeraren erabilera nagusi da batuarekiko aztertutako eremu guzti-guztietan, alde handiarekin gainera.

Eremu formal eta informaletako erabilerak alderatzen zituen 7. hipotesia ere (*Euskara batua –H aldaera– erabilera-eremu formaletan, ez-formaletan baino indartsuago azalduko zaigu*) baieztatzen dute datuek: aldea oso handia ez bada ere, aztertutako eremu formalagoetan (irakasleekiko harremanean eta medikuarekikoan) gehiago jotzen dute batura eremu informalagoetan baino.

6. Ondorioak

6.1. Euskara eta erdara Ondarroako nerabeen artean: alde nabarmenak erabilera-eremuen arabera

Ondarroako nerabeen hizkuntza-gaitasunari eta erabilerari buruzko datuek, lehenik eta behin, udalerrri horien arnagune izaera baieztatzen dute. Datuek argi erakusten dute euskara dela bertako nerabeen artean hizkuntza nagusia: euskara da gehienek (ahoz behintzat) hobeto darabilten hizkuntza eta euskara da erabilera-eremu hurbilekoetan (lagunekin, etxean, ikaskideekin...) nagusi. Datu hauek bat datoz, bestalde, oro har, zentsu eta kale-neurketek eskaintzen dizkigutenekin.

Nahiz eta euskara nagusi izan, gaztelaniak ere toki esanguratsua du Ondarroako nerabeen artean: gehien-gehienak gai dira hizkuntza horretan aritzeko, bai ahoz eta baita idatziz ere. Are gehiago: irakurtzeko gaitasunari dagokionean, gaztelaniaz euskaraz baino hobeto moldatzen direla diotenak gehiago dira euskaraz hobeto moldatzen direla diotenak baino. Harritu egin gaitu datu horrek, kontuan hartuta Ondarroako nerabe gehienak etxetik euskaldun direla eta, eskolan ere D ereduari ikasi dutenez, nagusiki euskaraz aritu izan direla euren prestakuntza-prozesuan. Lagin handiagoetan oinarritutako ikerketek joera kezagarri hau berretsiko balute, komenigarria izango litzateke errealitate horren arrazoiak sakontzea.

Nerabeen erabilerari dagokionez badu bere tokia gaztelaniak, jakina, baina toki hori bigarren mailakoa da aztertutako eremu gehienetan: orokorrean askoz gutxiago egiten dute gaztelaniaz, euskaraz baino. Horrela, euskara nagusi da nerabeen jardunean, hala nola ikaskideekin, irakasleekin, lagunekin eta eskolaz kanpoko ekintzetan daudenean. Horrela dira kontuak, maila apalagoan izan arren, medikuarenean, etxean eta sare sozialetan ari direnean ere. Salbuespen esanguratsu bi daude, ordea: liburu-albizkariak irakurtzerakoan, batetik, eta telebista kontsumoan, bestetik. Horietan (telebistaren kasuan nabarmenago) gaztelaniazko kontsumoak pisu handiagoa du euskarazkoak baino. Erabilera-eremuetan euskararen erabilerak duen pisuaren hurrenkera hori bat dator, 2015. urtean Euskal Autonomia Erke-degoko DBH 2ko ikasleei buruz *Arrue* ikerketak (Martinez de Luna Perez de Arriba eta Suberbiola Unanue, 2017) aurkitutakoarekin. Zehazki, komunikabideetan eta kultur kontsumoan euskararen erabilerak duen maila apala konstante bat da gaiaren inguruan egindako ikerketetan.

Ondarroako nerabeetara itzulita: hizkuntza baten eta bestearen artean ba al dago diglosia-egoera baten berri emango ligukeen konpartimentazio soziofuntzionalik? “Konpartimentazio” hitzari hainbat testuinguru klasiko-tan lotu izan zaion banaketa zurrunik (eremu batzuetan euskaraz bakarrik, beste batzuetan erdaraz bakarrik) ez dugu aurkitu. Aztertu ditugun erabilera-eremu guztietan erabiltzen dira, gutxi-asko, euskara eta gaztelania. Alabaina, banaketa zurrunik ez badago ere, nerabeen eremukako euskara-erdaren erabilera ez da ausaz erabakitzen eta erabilera-eremuak zerikusi handia du hiztunen hizkuntza-hautuarekin, Ondarroako nerabe gehienek aldatu egiten baitute euren hizkuntza-hautua mintzakideen eta erabilera-eremuen arabera.

Zein zerikusi du erabileraren eremuz eremuko konpartimentazio horrek diglosiaren eredu klasikoak azaltzen duen goi-formal eta behe-informal mailako banaketa soziofuntzional teorikoarekin (Fishman, 1967; Zalbide, 2011)? Labur esanda, gaur egungo Ondarroako nerabeek ez dute euskara gehiago erabiltzen behe-informal mailako jardunean, ezta gaztelania gehiago ere goi mailako jardun formalean. Diglosia-egoera klasikoa ezaugarritzen duen elementu garrantzitsu hori, hortaz, aski itxuraldatuta ageri zaigu Ondarroako belaunaldi gazteenaren jardunean. Interesgarria izango litzateke,

alde batetik, nerabe horien gurasoek eta aitona-amonek gaur dituzten erabilera-ohiturak aztertzea eta, bestetik, azken urteetako erabilera-joeretan sakontzea, zeren horrela, Ondarroan (eta arnaguneetan) diglosia klasikoa galbidean den edo eraldatzen ari den erabaki ahal izango baikenuke. Ez dago esan beharrik, funtsezko zeregin horrek erabat gainditzen dituela gure ikerketaren helburuak.

Nerabeengana itzulita, zeren arabera azaldu daiteke, beraz, eremuz eremu datuek erakusten duten hizkuntza bien erabilera-maila banatua? Zerk azaltzen du euskara (eta gaztelania) gehiago edo gutxiago erabiltzea eremu batzuetan eta besteetan? Hipotesi gisa esan dezagun, eremuaren arabera erabilera aldatzeak zerikusia izan dezakeela eremu horietako bakoitzean hiztunak dituen benetako erabilera-aukerek. Hau da, aurrez aurreko harremanetan, mintzakideen hizkuntza-gaitasunarekin (euskaraz egiteko gai diren edo ez) eta kultura-kontsumoaren kasuan, hizkuntza batean eta bestean dagoen kultura-eskaintzarekin. Izan ere, erabilera-maila altuenak mintzakide guztiak (edo ia guztiak) euskaldunak izango direla pentsatu daitekeen eremuetan aurkitu ditugu: ikaskideekin, irakasleekin edo lagunekin ari direnean. Euskararen erabilera-maila baxuagoa da euskara erabiltzeko aukera apur bat apalagoa den eremuetan, mintzakideen artean eraldadunen kopurua handiagoa baita. Hala nola, etxean (zentsuko datuen arabera Ondarroako etxeetan bizi diren hiztunen % 21,5 ez dira euskaldunak) edo medikuarenean. Ildo beretik, irakurketen eta batez ere telebistaren arloan euskarak duen erabilera apalak zerikusi zuzena izango luke hizkuntza bakoitzeko eskaintzarekin; gaztelaniaz dagoen eskaintzarekin konparatuta, euskarazko eskaintza askoz urriagoa (eta askotan nerabeek kontsumitu nahi dituzten produktu-moldeetatik urrunagoa) baita. Dena den, interpretazio hori hipotesi mailan utzi beharko dugu oraingoz, argia eman ahal izango diguten ikerketa berrien zain.

6.2. Batua eta tokiko euskara Ondarroako nerabeen artean: endodiglosiaren hasieran?

Euskararen aldaerak ere (batua eta tokiko euskara, zehazki) aztertu ditugu ikerketa honetan. Hara datu guztien lehenengo interpretazioa: nerabeen

erantzunen arabera, bai euren hizkuntza-gaitasunean eta baita euren erabileran ere, tokiko euskarak nagusitasun handia dauka. Konparazio bat eginenez, Ondarroan euskarak gaztelaniarekiko duen nagusitasuna baino erabatekoagoa da tokiko euskarak batuarekiko duena. Inkestan jasotako datuen arabera, jakina. Tokiko euskararen nagusitasuna hainbestearainokoa da, ezen indartsuagoa baita eremu guztietan, baita hasieran gure hipotesietan batuaren eremu berezkoagotzat jo genituen trebetasunetan (idazteko eta irakurtzeko gaitasunean) eta erabilera-eremuetan ere (irakasleekin, medikuarenean...).

Bestelako ondoriorik atera aurretik, auzi honetan gure datuek izan dezaketene baliozkotasuna zalantzan jarri behar dugu. Gizartea ikertzeko tekniken artean, inkesten berezko muga nagusietako bat da (inkesten datuak irakurtzerakoan inoiz begi paretik kentzea komeni ez dena) beti erantzun aitortuetan oinarritzea (Juaristi Larrinaga, 2003; Peytcheva, 2019). Horrela, zorrotz begiratuta, ikerketa honetan guk ez dugu jaso Ondarroako nerabeen hizkuntza-gaitasunaren edo euren erabileraren berri. Informazio hori zuzenean jasotzeko bestelako ikerketa-teknikaren bat erabili beharko genuke, gaitasun-froga objektiboak edo erabilera neurtzeko behaketa sistematikoak, esaterako. Horren ordeaz, ikertuek euren hizkuntza-gaitasunaz eta erabileraz aitortutako informazioak osatzen du gure ikerketaren lehengaia. Eta euren erantzunek ez dute zertan guztiz bat etorri benetan aztertu nahi dugun errealitatearekin, soziolinguistika arloan behin baino gehiagotan frogatu izan den bezala (Iurrebaso Biteri, 2012; Ó Riagáin, 2018). Gure kasuan, harritzekoa iruditzen zaigu nerabeen erantzunek azaleratzen duten Ondarroako hizkeraren nagusitasun izugarria, nerabe gehienek tokiko hizkeran batuaz baino hobeto irakurtzen eta idazten dutela erantzun dutenean, besteak beste. Ez dugu, ordea, inongo bitartekorik benetan erantzun horien eta errealitatearen artean egon ote daitekeen alborapena zenbatzeko. Nolanahi ere, iradokitzen dugun moduko alborapenik balego, esan nahiko luke ikasleek direna baino “tokikoago” azaltzeko nahi kontziente edo inkontzientea dutela. Joera hori ez litzateke harritzekoa izango, beste ikerketa batzuk aintzat hartuta, behinik behin.

Horrela, alderdi kontzienteari begiratuta, nerabeen artean “Ondarroako tokiko euskaradun” agertzeak duen balorazio positibo argiaz edota euskara

batuaren balorazio ez hain positiboaz ohartu gaitezke, Eneritz Albizu eta Goizane Aranak (2018) adin-tarte ezberdinak aztertuz aurkitu zuten “tokiko euskararekiko harrotasunaren” ildotik. Zentzu berean, euskal hiztun *legitimoen* ikerketan Ortega eta bestek (2013) esandakoari jarraituz, ezaugarri bi dituzte euskaraz egiten duten hiztun berrien artetik *euskaldun* estatusa lortzen dutenek: euskara testuinguru informalean erabiltzeko gai dira eta euskalkia daukate. Euskal hiztun berriek *legitimotzat* zer jotzen duten ikusita, beraz, euskalkidun hiztunek (arnasguneetako biztanleek besteak beste) *hiztun legitimoa* zein den ikertzeak argi gehiago ekarriko luke, gure ikerketako datuetan azaldutako “tokikotasunari” buruzko azalpenetara. Aldaera biei buruzko iritzi eta jarrerak ez ditugu, tamalez, gure ikerketan landu. Ziur gaude emaitza mamitsuak eta interesgarriak eskuratuko lituzkeela gaia berriaz aztertuko lukeen ikerketa batek.

Dena dela, gaur-gaurkoz ez dakigu jarrera horiek zein neurritan duten zerikusia euskara batuan hitz egiteko (eta are ulertzeko) bost nerabetik hiruk adierazi dituzten mugekin (% 36,4k bakarrik erantzun dute euskara batuaz ondo hitz egiteko gai direla). Edonola ere, etorkizuneko ikerketek arnasguneetako nerabeek euskara batuaz jarduteko duten zailtasuna baieztatuko balute, zer pentsatua emango luke euskara batuaren irakaskuntzaren helburu eta lorpenei buruz.

Amaitzeko, eta endodiglosiaren gaiari zuzenean helduta, Ondarroako nerabeek euskaraz dihardutenean, tokiko euskara zein eremutan eta euskara batua zein beste eremutan erabiltzen duten aztertuta, ondorio nagusi bi ditugu: batetik, eta antzeko ikerketen (Fernandez San Martin, 2019) emaitzen bide beretik, tokiko euskara da nagusi aztertutako eremu guztietan, alde handiarekin gainera. Bestetik, eremuz eremu alde aipagarriak daude eta dauden alde horiek azaltzeko, endodiglosiaren eskema teorikoa erabili daiteke, oro har, euskara batua goi-formal mailako eremuetan gehixeago erabiltzen delako behe-informal mailakoetan baino. Datuek ez dute, ordea, gaur egun endodiglosia eredu beteaz hitz egiteko aukerarik ematen. Litekeena da, ordea, batuaren eta tokiko euskararen artean gaur egun erabile-ra-eremuen arabera ikusten diren alde horiek etorkizunean sakonduko balira, endodiglosiaren hasiera izatea gure ikerketa xume honek islatu duen Ondarroako egoera.

7. Bibliografia

Abathian, M. R., 2019, Language shift. In Darquennes, J., Salmons, J., Vandenbussche, W. (ed.), *Handbücher zur sprach- und kommunikationswissenschaft / Handbooks of linguistics and communication science (HSK)*. 501-513. Berlin, Boston: De Gruyter.

Albizu Lizaso, E. eta Arana Arexolaleiba G., 2018, Bermeo eta Ondarroa. Hizkuntzaren garapenean eragiten duten faktoreak. *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 107, 133-164.

Baetens Beardsmore, H., 1989, *Principis bàsics del bilingüisme* (1. ed.). Bartzelona: La Magrana.

Baker, C., 1997, *Fundamentos de educación bilingüe y bilingüismo*. Madril: Cátedra.

Coyos, J. B., 2010, «Hizkuntza-ukipena», in Zarraga, A.; Coyos, J-B; Hernandez, J.M.; Joly, L.; Larrea, I.; Martinez, L.V.; Uranga, B. eta Bilbao, P., *Soziolinguistika Eskuliburua*, 135-184. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2018, «Euskara batua eta euskalkiak Ipar Euskal Herrian: inkesta perzeptziozko dialektologian oinarrituta», *Euskera*, 63 (2), 185-208.

Ferguson, C. A., 1959, «Diglossia», *Word*, 15 (2), 325-340.

Fernandez San Martin, J., 2019, «Ondarroako nerabeen hizkuntza ohiturak sare sozialetan. Kode alternantzia eta erregistroak», *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 119, 41-85.

Fishman, J. A., 1967, «Bilingualism with and without diglossia; diglossia with and without bilingualism», *Journal of Social Issues*, 23 (2), 29-38.

Garí, J., 1990, «El bilingüisme segons Aracil», *Anuari de l'Agrupació Borrianenca de Cultura: revista de recerca humanística i científica*, 1, 55-68.

Grosjean, F., 2015, *Parler plusieurs langues: Le monde des bilingues*. Paris: Albin Michel.

———, 2018, «Être bilingue aujourd'hui», *Revue française de linguistique appliquée*, XXIII (2), 7-14.

Iurrebaso Biteri, I., 2012, «Metodozko hainbat proposamen euskararen erabilera zertan den aztertze», *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 84, 89-120.

———, 2015, «Udalerri erdaldunak euskalduntzen eta euskaldunak erdalduntzen, arnaguneak arriskuan», *EAE*, 1981-2011. *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 95, 71-101.

———, 2019, «Hego Euskal Herriko Arnaguneak Zenbatzen. Arnaguneen operatibizazioaren inguruko ekarpena», *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 110, 115-126.

Juaristi Larrinaga, P., 2003, *Gizarte ikerketarako teknikak: Teoria eta adibideak*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

———, 2018, «Adostasunaren eta gatazkaren paradigmak euskal soziolinguistikan», *Euskera*, 63 (2), 299-322.

Kloss, H., 1969, «Types of multilingual communities: A discussion of ten variables», in Lieberman, S. (ed.), *Explorations in Sociolinguistics*. Bloomington: Indiana University, Research Center for the Language Sciences, 7-17.

———, 1976, «Über “Diglossie”», *Deutsche Sprache*, 4, 313-323.

Martinez de Luna Perez de Arriba, I. eta Suberbiola Unanue, P., 2017, *Arrue ikerketa: EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan, 2011-2015*. Txosten tekniko. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua: Vitoria-Gasteiz.

Mioni, A. M. eta Arnuzzo-Lanszweert, A. M., 1979, «Sociolinguistics in Italy», *International Journal of the Sociology of Language*, 21, 81-108.

Moreno Fernández, F., 2009, *Principios de sociolingüística y sociología del lenguaje* (4. Ed.). Bartzelona: Ariel.

Ó Riagáin, P., 2018, *Measures of language proficiency in censuses and surveys : A comparative analysis and assessment*. Cham, Suitza: Palgrave Macmillan.

Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Urla, J. eta Uranga, B., 2013, «Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: “nolako euskalduna naiz?”», *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 87-88, 151-170.

Peytcheva, E., 2019, «Surveys», in Darquennes, J., Salmons, J., Vandenbussche, W. (Ed.), *Handbücher zur sprach- und kommunikationswissenschaft / Handbooks of linguistics and communication science (HSK)*. 501-513. Berlin, Boston: De Gruyter.

Sánchez Carrión, J. M. “Txepetx”, 1974, «Bilingüismo, diglosia, contacto de lenguas. Hacia una delimitación de conceptos. *Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”*», 3-79.

Vila F. X. eta Boix E., 1998, *Sociolingüística de la llengua catalana*. Bartzelona: Ariel.

Zalbide, M., 2010, *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, 2011, «Diglosiaren purgatorioaz. Teoriatik tiraka», *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 79-80, 13-152.

———, 2015, «Euskara indarberritzea, Mitxelenaren aburuz: noraino eta nola», *Euskera* 60 (1) 19-48.

———, 2019, «Arnasguneak: etorkizuneko erronkak», *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 110, 11-78.

Zuazo, K., 1992, «Euskaldunek euskalkienganako izan dituzten jarrerez», *Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”*, 25-48.

———, 2001, *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.

Ternuako penak eta gazte-literatura

Ternuako penak y Literatura Juvenil

Ternuako penak et Littérature pour la Jeunesse

Ternuako penak and young adult fiction

OYARZABAL OSTOLAZA, Irantzu
Irakaslea

Noiz jaso: 2020-03-20

Noiz onartua: 2020-06-06

Artikulu honek Bernardo Atxaga idazlearen *Bambulo* saileko *Ternuako penak* (1999) liburua, R. L. Stevenson *Treasure Island* (1881) obra klasikoarekin alderatu du, euskal idazlan horri buruzko irakurketetan sakontzeko xedez. Horretarako, biek partekatzen duten generoaren nondik norakoak aurkeztuko dira lehenik, esparru honetako eredu kanonikoak eta euskal testu gogoangarri horrek dituen ezaugarri jakin batzuk agerian jarritz. Alderaketaren ondorioek, gazte-literaturaren ezaugarriak hausnartuaz batera, *Ternuako penak* liburuak izan ditzakeen erabilera didaktikoei bidea ireki nahi diete.

Gako-hitzak: haur- eta gazte-literatura, euskal literatura, ahozko literatura, ezaugarriak, pertsonaiak, testuartekotasuna.

Este artículo tiene el objetivo de profundizar en la lectura del libro *Ternuako penak* (1999) escrito por Bernardo Atxaga dentro de la colección *Bambulo*, y para ello la autora lo compara con el clásico de R.L. Stevenson *Treasure Island* (1881). Con esa finalidad se presentarán las características del género que ambas obras comparten, resaltando de esa manera unas especificidades que presenta tanto el modelo canónico como este memorable texto vasco. Las conclusiones, aparte de reflexionar sobre las características de la literatura juvenil, quieren abrir una vía a las posibles alternativas didácticas que pueda tener el libro *Ternuako penak*.

Palabras clave: literatura infantil y juvenil, literatura vasca, literatura oral, características, personajes, intertextualidad.

Cet article permet une lecture approfondie du livre intitulé *Ternuako penak* (1999) écrit par Bernardo Atxaga dans la collection *Bambulo*, où on le compare à l'œuvre classique de R.L. Stevenson *L'île au trésor* (1881). L'article présente les caractéristiques du genre partagé par les deux œuvres et souligne ainsi des spécificités qui figurent aussi bien dans cette œuvre classique que dans l'œuvre basque. Les conclusions présentent non seulement une réflexion sur les caractéristiques de la littérature pour la jeunesse, mais elles ouvrent aussi une voie à de possibles alternatives didactiques que pourrait avoir le livre *Ternuako penak*.

Mot-clés : littérature pour enfants et pour la jeunesse, littérature basque, littérature orale, caractéristiques, personnages, intertextualité.

This article aims to look in depth at Bernardo Atxaga's book "Ternuako penak" (1999 – *Bambulo* Collection) by comparing it with RL Stevenson's classic "Treasure Island" (1881). To this end, we will first examine the genre they both belong to by looking at its canonical models, and at some specific features of this memorable Basque text. The conclusions of this comparison, together with a reflection on the characteristics of young adult fiction, seek to pave the way for the educational uses that "Ternuako penak" may have.

Keywords: young adult fiction, Basque literature, oral literature, characteristics, characters, intertextuality.

1. Sarrera

Euskal haur- eta gazte-literatura¹ oinarritzat hartuta, Bernardo Atxagaren *Bambulo* saileko *Ternuako penak* (1999) liburua eta Robert Louis Stevenson eskoziar idazlearen *Treasure Island* (1881) idazlan klasikoaren arteko alderaketa egitea du helburu artikuluko honek, Atxagaren obra hori sakonago hausnartzeko asmoz. Horretarako, biek partekatzen duten generoaren nondik norakoak aurkeztuko ditut lehenik, esparru honetako eredu kanonikoak eta euskal testu gogoangarri horrek dituzten berezitasun zehatz batzuk azalera ekarriz. Alderaketa horren ondorioek, gazte-literaturaren ezaugarriak arakatuaz batera, *Ternuako penak* liburuaren erabilera didaktiko posibleak aintzat hartu eta irakaskuntza-bidean jarri nahi dituzte. Hala, besteak beste, ahozko literaturaren eta euskal haur- eta gazte-literaturaren arteko lotura nabarmena erakusten digula frogatuko da, egile beraren *Obabakoak* (1988) eta *Behi euskaldun baten memoriak* (1991) liburu ospetsuei buruzko azterketek argitu duten ildo beretik; eta, gazteen heltze prozesuaren hausnarketa eginaz batera, arrotz-herriekiko aurrejuzguen aurrean gogoeta sakona egiteko aukera ere ematen digula ikusiko da. Bestalde, Xabier Etxanizek (2007) iradoki zuenari jarraituz, Atxagarentzat HGLaren produkzioa esperimentazioaren eta askatasun sortzailearen espazioa da; horregatik komenigarria da oso, genero honetako idazlanetan jorratu zituen berrikuntzak eta geroago helduen narratiban erabili zituenak elkarri lotzea. Gure artikuluko honek bide horretako zenbait iradokizun ere eskainiko du.

2. HGLaren ezaugarriak eta historia apur bat

Ikertzaileek (Wadham eta Ostenson, 2013) haur-literaturaren hasiera 1600 inguruan jarri arren, gazte-literaturaren historia motzagoa dela esan daiteke. Nerabezaroa oraindik giza-bizitzaren arotzat ez zuten hartzen eta horixe gazte-literaturaren historia beranduago hastearen arrazoi nagusia. Amy S. Patteek (2004, *apud*. Lluch, 2012) dioenez, nerabezaroaren subjek-

¹ Aurrerantzean HGL laburduraz aipatuko da.

tuak bere buruaren inguruan hausnartzen duen garaia da. Hori lehenengoz egin zuena G. Stanley Hall izan zen, 1904ko bere *Adolescence* liburuan. Baina hala ere, nahikoa urte igaroko dira genero hau benetan kontuan hartzerako. Gerraostean, 1960ko hamarkadan, gizarteak nerabetasun ideia onartu zuen eta adin-tarte horrek ezaugarri eta behar desberdinak zituela ohartu zen. Kritiko gehienek ustean, S. E. Hintonen 1967ko *The Outsiders* eta Paul Zindelen 1968ko *The Pigman* liburuekin jaio zen gazte-literaturaren generoa, horietan munduaren nolakotasuna gazteen begietatik azaltzen baitzen. 70eko hamarkadaren etorrerarekin, aldaketak ikusiko ditugu generoan. Komunikabideek gero eta *rol* edo eginkizun garrantzitsuagoa izango dute gazteen bizitzan, eta horien irakurtzeko ohiturak aldatu egingo dira, hots, gutxiago irakurriko dute.

Hori guztia kontuan hartu arren, gazte-literaturari buruzko definizio zehatza ematea ez da gauza erraza; 1950-60ko akademikoek gazte-literatura 13 eta 18 urte bitartekoek irakurritako edozer zela zioten. Definizio hori oso zabala zen, ez baitzituen soilik gazteentzat ziren liburuak kontuan hartzen, baita haur eta helduentzat idatzitako literatura ere; horiek guztiak gazteek irakurtzen baitzituzten. Hortaz, Wadhamak eta Ostensonek (2013) generoaren inguruan emandako definizio zehatzagoa hauxe da: bereziki gazteen ikuspuntua islatzen edo adierazten duten eta nagusiki gazteentzat merkatu-ratu diren liburuak edo obrek osatzen dute HGLa. Are gehiago, erregistro errealista narratibo fantastikoetan islatuta dagoela esaten da (Lluch, 2012).

HGLaren kontzeptua, bereziki, bi helbururekin agertu dela dio López Gaseni ikertzaileak (2010): batetik, xede komertzialarekin, bere merkatuaren hedapena bilatuz, horrela gazteei zuzendutako produktuak helaraziko baititu. Mende berri honetan, baina batez ere, *Harry Potter* fenomenoaren eraginez, «bultzaden bidezko irakurketa» izenekoaren zirkuitu berria ezarri da horren erakusle. Irakurketa horiek ez diote lehenagokoari jarraitzen, merkatuarentzat pentsatuta baitaude (Lluch, 2012). Eta bestetik, helburu hezitzailearekin, hau da, irakurle gazteek bizitzaren aspektu desberdinei buruz hausnar dezaten eta baita irakurle gaztetxoek kopuruak gora egin dezan ere.

Aztergai dudana gazte-literaturaren genero honetan aurkituko dugun corpusari dagokionez, bi azpimultzo bereizi ohi dira lehenik eta behin, eta

haur-literaturan gertatzen den moduan, gazteei zuzenduta ez dagoen, baina horiek oro har irakurriko duten azpicorpus bat aurkituko dugu. Orokorrean, *moldatautako* literatura izango da (azpimultzo) horretakoa. Beraz, literatura kanoniko bati buruz ari gara (gazteek helduentzat den literatura irakurtzen baitute, normalean). Beste azpicorpusa espezifikoki gazteei zuzendutako literaturaz osatua dago, gai sozial eta pertsonalez dihardutenekin osatua, hein handi batean. Baina horietan helburu sozial eta hezigarriak literarioekin lehian egongo dira.

Generoak, beraz, jarraian zerrendatuko ditudan ezaugarri orokorrak ditu (Hill, 2014):

- genero dibertsitatea (abentura, zientzia-fikzioa, fantasia, misterioa, maitasuna...);
- istorioak azaltzeko ikuspuntu desberdinak;
- istorioak garatzeko baliabide ezberdinak (prosa, poesia...);
- argumentu irudimentsuak;
- adin horretako arazo garrantzitsuak jorratzea: hazkuntzaren krisia, familia harremanak, eskolako integrazioa, laguntasunaren ulermena, maitasuna, mundua... (Lluch, 2012); edota droga-mendekotasuna, anorexia, kale-indarkeria, abusu sexualak, eskola-porrota... (Diaz Armas, 2006, *apud.* Lluch, 2012);
- garapen edo heltze prozesu bat azaltzea, autoestimua konkistatze bat, alegia (Diaz Armas, 2006, *apud.* Lluch, 2012);
- aurretik ezagutzen ez genituen pertsonaia bereizgarriak sortzea;
- deskribapenen espazio txikia (Lluch, 2012);
- narratzailearen espazioaren garrantzia: guztia daki, edota informazioa dosifikatzen eta kontrolatzen bizi du gertatzen dena, irakurleen arreta bereganatzeko (Lluch, 2012).

HGLan nabarmenenak diren berezitasunei erreparatuz, azpimarragarria da, lehenik, istorioetako protagonistak gazteak edo nerabeak direla, eta beraz, argumentuko gertaerak eta arazoak horiekin lotuta daudela. Horrega-

tik, argumentuaren erdigunea edo zentroa protagonista bera da, eta hurrengo ezaugarri hauek biltzen dituen pertsonalitatea izango du: intuitiboa, sentikorra, azkarra, eta independentea. Gainerako pertsonaiak, berriz, hurbilak izango dira, oro har, eta istorioen hasiera eta arazoak, berriz, nahiko agerikoak, hots, aurreikus daitezkeenak (Hill, 2014).

Egun, gazte-literatura, ezaugarri bereizgarriak dituen obren azpimultzo bati esker garatu da, eta horrek helduen zein haurren literaturatik bereizten du. Generoaren ezaugarriarik berezkoena istorioak gazteen ikuspuntutik kontatzea da, pertsonaia gazteak azaltzeaz gain. Gazteen mundu-ikuskerak islatzea izan ohi du helburu, beraien hizkuntza/hizkera, sentimenduak eta ideiak adieraziz. Gazteentzako liburuek gizabanakoaren zailtasunen deskripzio edo garatze bat azaltzen digute. Horregatik, kontakizunetan ageri diren elkarriketak gazteen hizkeraz idatzita ikusiko ditugu; eta horren bidez, idazleak haienganako nolabaiteko hurbiltasuna erakutsi nahi du. Hori dela eta, obra hauetan azaltzen den mekanismo diskurtsibo indartsu eta eragin-korrena elkarriketa da (Lluch, 2012), arestian iradoki bezala, atal deskribatzaileak bakanak direlarik, eta ekintzak bizi eta azkar garatzen direlarik.

Istorioen alderdi formalari buruz hitz egiterakoan, nobelak motzak izan ohi direla identifikagarria da, gehienez ere 200 orrialdekoak baitira gehienak. Lan honetan aztertuko ditudan bi liburuek duten hedadurari begiraturaz gero, alde nabaria ikusiko dugu. Atxagaren istorioak 110 orrialde ditu, eta Stevensonren liburuaren itzulpenak 264 orrialde. Beraz, biak sartuko lirateke baremo horretan, baina bigarrena ohi baino zertxobait luzeagoa da, gaurkoak baino estandar zabalagoak zituen garaia baitagokio.

Sintaxiaren aldetik, helduen literaturan erabiltzen diren perpaus konplexuak eta pasarte deskribatzaile ugariak saihestuko dira genero honetan. Baina sinpletasun horrek, ez du edukiak konplexutasun falta duenik esan nahi. Askotan liburu hauen eskuragarritasuna eta eduki-sinpletasuna nahasi egin ohi dira. Berez, edozein irakurlerentzako irakurgaiak izan daitezke, artikulua honetako gure bi aztergaiak diren bezala. Izan ere, HGLa aberatsa eta interesgarria da irakurle guztientzat (Wadham eta Ostenson, 2013).

Aurreko ezaugarriak kontuan hartzen baditugu, protagonistaren ekintzak eta erabakiak narrazioan planteatzen den gatazkaren emaitzaren faktore

nagusiak izango dira. Eta hortaz, generoaren berezitasun agerikoa honako hau litzateke: guztia protagonistaren inguruan edo protagonistaren baitan gertatzen denez, bere erabakiek istorioaren nondik norakoa determinatuko dute. Gazteak erabaki okerra hartuz gero, oro har, kontakizunak ez du amaiera gozorik edukiko. Baina, aldiz, erabakiarekin asmatuz gero, azkenean bera zoriontsua dela edo bere helburua lortu duela amaituko da kontakizuna.

Bukatzeko, literatura mota hau bereizten duen beste berezkotasun bat, eduki dezakeen erabilera didaktikoa da; ikasgelan gazteei zein haurrei hainbat alorretako aspektuak lantzeko eta irakasteko erabil daitekeela, alegia (Wadham eta Ostenson, 2013). Orokorrean, hortaz, ondoko kontzeptu hauek barneratzeko balia genezake HGLa:

- Hasteko, unitate tematiko bateko ezinbesteko galderak erantzuteko balio dezake, liburu hauek jorratzen dituzten gaiak hausnartuz, esaterako.
- Bigarrenik, literaturaren teoriari eta analisi edo kritikari buruzko formak eta jakintzak irakasteko balio dezake, eta baita literaturazko elementu eta tresnak irakasteko ere.
- Jarraitzeko, barne-hausnarketa eta -garapenerako tresna gisa ere erabil daiteke, literaturak munduarekiko pertzepzio eta esperientzia zabal dezakeela jabetu daitezen nerabeak.
- Eta azkenik, literaturaren eta komunitatearen edota norbanakoaren esperientzien inguruko elkarrizketak bultzatzen ditzaitez, gazteen ikuspuntutik, betiere.

XIX. mendearen atarian euskal HGLaren lehen ekarpenak eduki genituen arren, generoaren hasiera 1960ko hamarkadak markatu zuen. Garai horretan, arestian literatur azpigeneroaren beraren ibilbidean aipatu dugun ikuskera-aldaketaz gain, euskal gizarteak zenbait aldaketa berezi ezaugu zuen. Ikastola klandestinoak sortu eta euskarazko irakaskuntzaren oinarriak ezarri ziren, batetik; eta bestetik, aurrerapen ekonomiko zein pedagogikoak heldu ziren. Hala ere, Etxanizek (1997) dionez, egoera benetan 1980an irauli zen, euskal haur-literaturan *boom* bat gertatu baitzen,

eta ondoren gazte-literatura ere garatu egin zen. Hamarkada horretan, errealismoak garrantzi handia izango du, eta nobela historiko, abenturazko eta umoretsuek paper garrantzitsua izango dute. Hasieran helduentzako literaturako generoa zen abentura-eleberria, gerora, haur eta gazteen artean arrakasta handia lortuz joango da, nagusi bilakatzeraino. Horretan, J. Verne, R. L. Stevenson eta E. Salgariren lanak izan dira gazteentzat erakargarrienak. Beraz, HGLko korrante zaharrenetako bat izanik ere, gaur egun abenturazko narrazio errealistak dira ugarietak, bai itzulpen, bai sorkuntza-arloetan. Itzulpenen artean, Stevenson *Altxor uhartea* dugu generoaren eredu, eta horregatik, generoaren liburu kanokikoa denez, adibide eta aztergai izango dut lan honetan, Maria Garikanok eginiko itzulpena baliatuz (1991). Itzulpen hori Ibaizabal argitaletxeak kaleratutako *Literatura Unibertsala* bildumaren barruan plazaratu zen. Karlos Zabalak (1992/07/03) *Euskaldunon Egunkarian* azalduta moduan, liburu horren «euskarazko bertsioa egokia, neurrikoa, bizia» da.

3. Bernardo Atxaga euskal HGLan

Bernardo Atxaga gaur egungo euskal literaturaren idazlerik garrantzitsuenak dela esan daiteke. Gure komunitate txikiak haratago, atzerrian, euskal autorek ezagunena dugu eta bere obrak ditugu itzulpenik gehien izan dutenak. Gure artean, fenomeno soziokulturala ere bada, hein handi batean (Etxaniz, 2007); bere lanak hainbatetan berrargitaratuak eta askotan itzuliak izan direnez, erabat ezagun bilakatu da Euskal Herrikan kanpo ere. Bere literatura ibilbidearen hasieran, antzerkia, poesia eta ipuingintza lantzen zituen, baina beti helduentzat sortutakoak ziren bere lanak. Haur-literaturara, bada, zeharka iritsi zela esan dezakegu; Joan Karlos Egilleor ilustratzailerak haurrentzako liburu bat egitea proposatu zionean, alegia. Lankidetzan hori burutzea onartu, eta Atxagaren haur-literaturako lehenengo bi liburuk iritsi zitzaizkigun: *Nikolasaren abenturak eta kalenturak* (1980), eta *Ramuntxo detektibea* (1980).

Lau alditan bana dezakegu Atxagaren HGLaren produkzioa, Etxanizen (2007) eta Arroita jauregiren (2012) sailkapenak kontuan hartuta:

- a) 1980-84 urteetan, hasierako lanak, haur-literaturari dagozkio: *Nikolasaren abenturak eta kalenturak* (1980), *Ramuntxo detektibea* (1980), *Chuck Aranberri dentista baten etxean* (1982), eta *Siberia treneko ipuinak* bilduma (1982-84).
- b) *Obabakoak* obraren garaikoak, aldiz, gazte-literatura lanak dira: 1984ko *Bi letter jaso nituen denbora gutxian* eta *Sugeak txoriari begiratzten dionean*, zein *Bi anai* (1985).
- c) Literatura errealistaren aroan ere gazte-literaturari eman zion lehen-tasuna: *Behi euskaldun baten memoriak* (1991) liburu gogoangarrian, helduei zuzendutako *Gizona bere bakardadean* (1993), *Zeru horiek* (1995) edota *Soinujolearen semea* (2003) eleberrietan bezala, euskal memoria soziopolitikoaren auziei heldu zien.
- d) *Xola* (1995-2011) eta *Bambulo* (1998-1999) txakurren bildumek ere badituzte ezaugarri amankomunak.

Orokorrean, HGLko obren bidez, arrakasta handia lortu du Atxagak. Arrakasta horren lekuko dira irabazi dituen sariak (Arroitajauregi, 2012), hala nola, *Sugeak txoriari begiratzten dionean* lanarekin lortutako Lizardi saria (1983), IBBYren ohorezko zerrendan sartzea (1994) *Behi euskaldun baten memoriak* obrarekin, *Shola y los leones* izeneko gaztelaniazko bertsioarekin erdietsitako Espainiko HGLko edizio-saria (1995) eta *Xola eta basurdeakekin* irabazitako Euskadi saria –HGLan– (1997), besteak beste.

4. *Ternuako penak*

Komeni da argitzea, *Xola* serieko narrazioen kasuan bezala, *Bambulo* txakurraren ibilerak hiru liburutan bildu dituela. Lehena, *Lehen urratsak* deiturikoa da, 1998an argitaratutakoa. Bigarrena ere, *Krisia*, urte berean kalera-tu zuen. Eta hirugarrena, *Ternuako penak*, urtebete beranduago. Beraz, hirurak bi urteko epean eman zituen ezagutzera. Esan liteke, protagonista horri dagokion emankortasuna nolabait agortua zuela 1999an argitaratu zuen azken honekin, izan ere, liburuaren zati handiena marinel batek kon-tatuko duen istorio batek beteko du, eta ez txakurraren beraren ibilerek.

Xola txakurraren ibileren serieak, aldiz, ibilbide luzeagoa egin du, eta haur-literaturari estuago lotu zaio.

Esan bezala, hiru liburutan argitaratutako *Bambulo* seriea, euskaraz eta gaztelaniaz kaleratu zen epe laburrean 1998-99 artean; eta hirugarrena soilik, *Bambulo. Ternuako penak / Bambulo. Amigos que cuentan* (1999), aztergaitzat hautatu dut hemen. Beste biek in alderatuta, ezaugarri bereziak ditu eduki eta forma aldetik, aurrerago azalduko dudanez. Euskarazko seriea Donostiako Erein argitaletxearen eskutik argitaratu zen 2000. urtean, *Gure klasikoak* izeneko bildumari hasiera emanez eta gazteentzat Homeroren *Odissea* edota Ovidioren *Metamorfosiak* bezalako klasikoaren euskarazko egokitza-penak argitaratuz. Gaztelaniazkoa, berriz, Madrileko Alfaguarari esker kaleratu zen. Bi bertsiok izenburu orokor bat daramate: *Bambuloren istorio bambulotarrak / Las bambulísticas historias de Bambulo*, eta bietan ilustratzailerle Mikel Valverde gasteiztarra da.

4.1. Narrazioaren ezaugarri bereizleak

Pertsonaien haritik, López Gaseniren (2018) esanetan, *Bambulo* txakur antropomorfikoa da, gizaki-pertsonalitatearen ezaugarri bereizgarri batzuk dituen aldetik: hitz egiteko, idazteko eta irakurtzeko gaitasuna. *Bambulo* Bilboko familia baten txakurra da. Familia lau senidek osatua da: Mariak (ama), Ariadnak (alaba zaharrena), Jonek (seme ertaina), eta Ainhoak (alaba gazteena) osatzen dute. Horietaz gain, beste hiru pertsonaia ere baditugu liburuetan. Lehena, bigarren eta hirugarren liburuetako epilogoetan azalduko den aita, *Ternuako marinela* deituraz. Bigarrena, gertakizun bati lotutakoa da –ama lanean ari den bitartean, familiako hurrek aurkituko duten liburutegi sekretu batekin, hain zuzen–, Pantxi Baratzuri Buru sukaldaria. Eta hirugarrena eta azkena, *Bambuloren* idazkaria.

Egiturari dagokionez, kontaketa markodunaren taxua hartu du liburuak, hots, istorio baten barnean, istorio bat baino gehiago ditugu. Beste modu batera esanda, istorio bati beste istorio arinago batek jartzen dio markoa, horregatik deitzen zaio «kontaketa markoduna» (Toledo, 2008: 470). Tarte batez istorio markoko pertsonaia bat kontalari bihurtuko da, edo (pertso-

naia) batzuk kontalari bihurtuko dira, eta beste istorio garatuago batzuei sarbidea emango die edo emango diete. Ondorioz, testuaren egitura narratiboan maila diegetiko ezberdinak bereizi behar dira. Gérard Genettek (1972) dionez, narrazio batean kontatzen diren gertaera guztiak istorio hori sortu duen kontaketa-ekintza baino goragoko maila diegetiko batean kokatzen dira. Hiru kontaketa maila bereizi ditu Genettek, *Ternuako penak* liburuaren egitura ulertzen lagunduko digutenak:

- a) Lehenen, maila estradiegetikoa da. Kontalaria maila estradiegetikoan kokatzen da, beraz, kanpotik kontatuko du istorioa. Kasu honetan, idazkaria da kontakizun estradiegetikoaren narratzaile. Hitzaurre ohi-koarekin hasiko da, idazkariak irakurleei ongietorria emango die, isilik egondako denbora baten ondoren (liburuaren 1-33 orrialdeak dira).
- b) Bigarrenen, maila intradiegetikoari dagokiona da. *Hura solasa gau hartakoa!* izeneko kapituluarekin hasiko da (1999: 28-34) eta idazkariaren hitzak hasten diren unean amaitu (1999: 111-119). Lehenik, idazkariak eta txakurrak hitz egingo dute, baina maila honetan, afarian zehar, txakurraz gain, familiako partaideek ere egingo dute solas: Marinelak, Mirenek, Jonek, Ainhoak eta Ariadnak. Horietako hiruk istorioak kontatuko dituzte.
- c) Hirugarrenen graduko narrazioa maila metadiegetikoan dago, eta bigarrenen mailako protagonistek kontatzen dituzten istorioez osatua da. Hiru narrazio desberdin identifika ditzakegu istorioan.
- I) Zorobambulen istorioa: Bambulo txakurrak Jesusen jaiotzaren *bere bertsioa* kontatuko digu, testu bibliko sakratuaren edukia birmoldatuz: Jainkoaren eta aingeruaren bitartez izan beharrean, txakur gupidatsuei esker ateratzen zen salbu Herodesen atzaparretatik Jesus umea. López Gasenik «trabestimendu parodikoa» dela dio (2018: 238)².

² (...) el travestimiento burlesco (...) en rasgos generales, se puede definir como “la reescritura de un texto noble, conservando su contenido fundamental y su movimiento pero imponiéndole otro estilo”. El travestimiento supone, en definitiva, una actualización del texto parodiado, ya que normalmente implica una trivialización burlesca de un texto consagrado» (González Doreste, 1993: 87).

- II) Scott eta Amundsen istorioa: Ariadnak esploratzaileek Hego polora eginiko espedizioa kontatu nahiko du, baina bere aitak eten egingo du.
- III) Urkizuren istorioa: luzeena da, liburuko atal zabal bat hartzen baitu. Ternuako marinela, hau da, familiako aitak hartuko du hitza. Urkizu izeneko marinela gaztearen istorioa kontatuko du, *Urkizu marinela ibilerak* (1999: 34-111) izeneko eta liburuko narrazio nagusia izango da, hamabi kapitulutan banatuta. Urkizu izeneko marinela gazteak Ternuara bidaiatuko du arrantzan eta merkataritzan diharduen itsasontzi batean; han herrixka batean, bertako biztanleekin neguko hilabete gogor batzuk igaroko ditu berak bakarrik, arrisku handien erdian.

Horren ondoren, berriro ere bigarren graduako kontakizunera bueltatuko da liburua, *Bambuloren negarra* izeneko zatiarekin (1999: 111-119); Bambulok kontatuko duen txoriaren narrazioak egiten du trantsizioa, maila meta-diegetikotik intradiegetikora. Urkizuk istorioaren amaieran ikusiko duen txori urdina eta txakurrari liburutegian azalduko zaion luma urdineko txori moko-luzea berberak dira. Azkenik, berriro ere lehenengo graduako kontaketa itzuliko da, bertan Idazkariak Bambuloren istorio berriak argitaratzeko promesa egingo dielarik irakurleei.

Berez, bi plano diegetikotan banatu daitezke hiru mailako kontakizun horiek. Lehenengo biek (estradietikoak eta intradietikoak) bat osatzen dute, eta azkenekoak, bigarrena. Hortaz, liburu honen estruktura narratiboa konplexua dela esandezakegu, baina, berez, ipuingintzan aski tradizionala; berbarako, *Mila eta bat gauko* ipuinen egitura. Ipuin horietan, eta izenburuak berak iradokitzen digunez, Xerezade ipuin-kontalariak, bizia salbatu beharrez, gaez gau luzatu zituen bere kontakizunak, eta haietan txertaturiko beste hainbat kontakizun.

4.2. Intertestualitatea

Liburuaren pertsonaien eta kontaketa-mailen egituraz gain, liburuan eraikitako euskal intertestualitate-sare aberatsa ere interesgarria da. Miren-

txu Irigaraik (2002) dio autoreak elkarriketa batean azaldu zuela, istorio hau egiteko, *Ternuako penak* izeneko eta zehatz datatu gabeko (XVII-XVIII) kantu batean oinarritu zela.

Gérard Genette (1989) teorialariaren transtestualitatearen terminologia ezagunaren arabera, hipertestualitate deritzanaz ariko ginateke kasu hone-tan. A hipotestua datatu gabeko kantua (*Ternuako penak*) izango litzateke, eta B hipertestua *Bambulo* serieko hirugarren liburuko Ternuako marinelak kontaturiko Urkizuren istorioa.

A. Arkotxaren (2010) esanetan, *Ternuako penak* deitutako idazkia Patri Urkizuk argitaratu zuen lehenengoz, 1986an, *Bertso zahar eta berri, 1789 ize-narekin*. 1987an G. Elortzak argitaratu zuen, gaztelaniara itzulia, *Itsasoa III* entziklopedian. Originala Manu de la Sotak egindako 1966ko kantu-bilduma osoarekin batera dago Baionako Erakustokian; eta Agustin Xahok bere *Can-cionero* lanean bildua zuen kantu horixe bera (Urkizuk 2006an argitaratua).

Kantua trilogia edo hirukote baten zati da Urkizuren 1986ko edizioan. Lehenik, *Partiada tristea Ternuara* zatia dago, ondoren, *Itsassoco perillac* ata-la, eta azkenik, *Ternuaco penac*. Azken hau izango da *Bambuloren* liburuan azaltzen zaiguna, baina jatorrizko bere 13 ahapaldietatik, 6 baino ez ditugu bertan; lehenengo bostok eta azkena.

Ternuako penak

Untzi batzu salbaturik,
itsasoa pasaturik,
arribatu Ternuarat,
behar duten portutarat.

Ternua da mortu hotza,
eremu triste arrotza,
laboratzen ez den lurra,
neguan bethi elhurra.

Han oihan, sasi handiak,
larreak eta mendiak,
harri, arroka gogorrak,
lur agor eta idorrak.

Egunaz ez da pausurik,
ez gabaz errepasurik,
trabailuan bethi presa
lana garai ezin sesa

Ezin geldti, hori behar,
bethi egun, bethi bihar,
astelegun guzietan,
besta eta igandetan

Gau-egunez lanez ase,
neurrimenduz bethi gose,
galdu jateko astia,
loa dute garastia.

Han otsoak eta hartzak,
basoko bestia guziak,
alimalien herria,
desertu izigarria.

Ternuan dira salbaiak,
eta iskimau etsaiak,
giza bestia kruelak,
hilik jaten marinela.

Barbarian bizitzea,
galeretan zahartzea,
ez da pena gehiago,
Ternuan ez gutiago.

Hango lanak eta penak,
akabatzen ez direnak
lan bat egin duteneko
mila baituzte hasteko.

Han ez da behar nagirik,
ez gezurrez den eririk,
han dakite eragiten,
alferra fetxo egiten

Kamainan dago eria,
triste errain eroria,
nihork ez du urrikari,
zeren ez den lanean ari.

Uda luzean Ternua,
marinelen infernua,
herrian parabisua,
bai azken errepausua.

Datatu gabeko kantuari buruzko datuak bilduta, aipagarria da oso, bate-tik, paratestualitateari dagokionez, liburuaren izenburuak koplen zatiaren izenburua eramatea; eta bestetik, Atxagak Urkizu ikertzaileari alusio zuzena egitea, protagonistari haren izena emanez. Hortaz, egileak aipamen zuzena eskainiko dio bere iturri izan zen testuari eta hura ezagutzera emandako ikertzaileari aitormena egingo dio, beraz.

Bestalde, *Bambulo* serieko beste liburuetan bezalaxe, liburu honetan testuartekotasuna mendealdeko kulturaren gertaera eta idazlanei hedatzen zaie, Bibliaraino hain zuzen. Testuinguru horretan, Bambulok Jesusen jaio-tzaren bere bertsioa kontatuko du, lehen aipatu dudana bere arbaso Zoro-bambulen laguntzaz eta modu hipertestualean trabestituz.

Liburuaren azken zatian, intertestualitatearen bi adibide aipa ditzakegu, beste askoren artean. Lehenengoa, lehen esan dugun hirugarren eta bigar-ren graduko narrazioen trantsizioa markatzen duen txoria litzateke. Atxa-gak *Obabakoak* (1988) liburuan kokatu zuen ipuin metaliterario batean dioen moduan, hots, *Ondo plagiatzeko metodoa* izeneko istorioko protagonis-

ta narratzaileak, ametsetan Axularrekin hitz egiten du, eta hark esandakoak esnatzean gogoratzen ditu, eta hark ametsean bildutako pikoek laguntzen diote esnatzean asmatu behar duen plagio zuriak egiteko metodoarekin. Maila onirikoa eta errealtateko maila iragaten dute pikoek. Gisa berean, Urkizuren istorioaren amaieran aipatzen da Urkizuk eta bere lagunek luma urdineko txori bat ikusi zutela itsasotik etorri eta *tupik* gailurrean kokatzen (1999: 112). Marinelak Urkizuren istorioa amaitu ondorengo liburutegiko paseotxoan, Katulo poeta latindarraren poema bat irakurriko du Bambulok. Horra, beraz, bere aurreko liburuetan lagundu dion txori-luma urdin bera liburuaren erpinera etortzen zaiola:

«Egin negar, Venus. Egin negar, Maitasun.
 Eta zuek ere bai, gizon sentiberok.
 Hil egin da nire lagunaren txolarrea,
 txolarre hura, nire lagunaren gutizia,
 hark bere begiak adina maitatzen zuena,
 goxoa baitzen ezta bezala, eta ume batek
 bere ama bezala ezagutzen baitzuen bere jabea;
 ez zen sekula bere magaletik aldentzen,
 baizik eta, harat-honat jauzika,
 bere amandrearentzat bakarrik egiten zuen txio...»

(Atxaga, 1999: 118).

Modu horretan, intertestualitatea egiten du Katuloren testua integratuz, eta *Bambuloren* aurreko liburuekin intratestualitate-erreferentziez lotzen du azken liburu hau, txakur literaturazalearen aurreko abenturekin batasuna eta segida bermatuz.

5. *Altxor uhartea*

Gazte-literaturaren klasiko eta eredu bilakaturik, bereziki arrakastatsua izan zen Robert Louis Stevenson-en obra hau. Jakina denez, liburua ez zen berez adin gaztekoentzat idatzia izan, gerora etorri zitzaion bere zenbait ezaugarriren ondorioz adin gaztekoentzako espezializazio hori. Aztergai du-dan *Ternuako penak* liburuarekin zenbait antzekotasun eta desberdintasun

nabari zaizkio Urkizuren narrazioari dagokion atalean, eta hori dela eta, bien arteko alderaketa emankorra suerta daitekeela deritzogu.

- *Young Folks* izeneko aldizkarian argitaratu zen, zatika, 1881eko urrian hasi eta 1882ko urtarrila bitartean. *Itsas sukaldaria* izenburuarekin azaldu zen, baina ez zuen arrakasta handirik izan, eta gerora, *Altxor uharte*a moduan kaleratzean, garaiko klasiko eta eredu bilakatu zen. Naturalismoaren garaiko testua da, eta M. Garikanoren (1991) iritziz, giza esperientziaren berri emango digun liburua.
- Pereira eta Vilarren (2007) esanetan, Georgiar Aroaren amaieran kokatuko da liburua, XVIII. mendearen eta XIX. mendeko Ingalaterra Viktoriarerako bidean. Piraten eta barku handien narrazioen aldia izango da, Stevenson eta bere jarraitzaile garaikideen iritziz, bizitzeko modu galdua da jadanik, legenda bihurtu dena, eta orduan askatasun indibiduala *lortzea* Aro Viktoriarrean baino errazagoa zen. XIX. mendeko Viktoriaren Ingalaterrak Industria Iraultzak ekarritako hedapen demografikoa ezagutuko du, baina HGL generoa ez da oraindik finkatuta egongo, irakurleria zabalarentzako literatura bera ere garapen bidean baitago. Literaturaren garrantzia, beraz, mende horretan areagotu zen, Pereira eta Vilarren (2007) iritziz, hartzaile-kopurua irabazi baitzuen. Horrela bihurtu zen Stevensonen narrazioa gazteen formakuntzarako literaturaren eredu.

*Altxor uharte*ako protagonista eta kontalaria Jim Hawkins gaztea da, bere gurasoekin bizi da *Admiral Benbow* izena duen ostatuan. Bertan egiten du lan egunero mahaiak zerbitzatu, garbitu, eta bezeroei jaramon egiten. Baina egun horietako batean, Billy Bones izeneko pirata bat azalduko da, eta hankaz gora jarriko da familiaren egoera. Hainbat pirata etsai etorriko zaio bisitatzerako eta sekreturen bat ezkutatzeko duela pentsatuko du orduan Jimek. Benetan erakartzen du piratak, baina beldur handia ematen dio aldi berean.

Mutikoaren aita gaixorik dago, ohean, eta tarteka, Livesey doktorea etorriko da nola dagoen ikustera. Egunak joan ahala, Bones pirata ere gaixotzen hasiko da, adinarengatik eta gorputz barnera sartzen duen ron kantitatearengatik... Bitarte horretan, mutikoaren aita hil egingo da. Kapitaina

bere azkenetan dagoela, mutikoari bere kaxa zahar bat zabaltzeko eskatuko dio, eta bertan dagoen mapa Livesey doktoreari eramateko; hark lagunduko baitio gerora etorriko denarekin. Mapa hori Flint kapitain ospetsuak ezkutatatu zuen altxor-uharte batekoa da. Eta beraz, horren jakitun diren beste pirata maltzur batzuk Billyren heriotzaren berri jakitean, bertara azalduko dira haren bila. Hala ere, ordurako, Jim eta bere ama estatutik aterako dira eta Livesey doktorearekin harremanetan jarri.

Maparen laguntzaz altxorraren bila joatea pentsatuko dute Livesey sendagileak, Trelawney *squire*ak eta Smollet kapitainak, Jimekin batera. Baina horietaz gain, eskifaia dezente handia izango da, asmo iluneko piratez josia, hots, hasieran erabakitakoarekiko desleial jokatu duten gizon doilorrez osatua. Horien artean, John Silver *Luxea* dago, itsasontziko sukaldaria eta pirata ohia izango dena. Honek izaera aldetik, anbiguotasuna azalduko du ezaugarri nagusitzat istorio guztian zehar. Sukaldariak eta beste pirata desleialek ere altxorra eskuratu nahi dute eta nagusien aurka jazartzen dira. Talde ona Jimek, bere hiru lagunak eta beste bi piratek osatuko dute. Eta gaiztoa, sukaldariak eta eskifaiaiko beste pirata guztiek. Alabaina, azkenean, talde gaiztokoa den Silverri esker salbatuko da mutikoa beste pirata gaiztoengandik. Amaieran, altxorra talde onak eskuratuko du, Silverri bere burua (gaiztakeriatik) libre gelditzeko aukera emanez.

6. Ternuako penaken eta Altxor Uhartearen kidetasunak

Bi liburu hauen alderaketa egiterakoan, Atxagak bere hirugarren emanaldi hau idazteko Stevenson eredutzat hartu bide zuela egiaztatzen duten zenbait antzekotasun topatu ditut. Atal honetan agerikoak diren ezaugarrietan oinarrituta, horiekin batera desberdintasunak ere ekarri ditut.

Lehenik, aipatzekoa da bi liburuetako protagonistak umezurtzak direla. Urkizu, bere aldetik, zazpi urte zituenetik da umezurtza, benetan umezurtza. Eta Jimi, berriz, aita hil zaio, eta ez du nahikoa botere edukiko bere garapen pertsonalean eragiteko. Horregatik, aita hil aurretik ere, Billy kapitainak semetzat hartuko du eta aitarena egingo du. Hala ere, berezko aita hil eta handik gutxira hilko da Billy ere, eta hortaz, amak erakusten duen ezgaita-

sunaren ondorioz, *umezurtz* bilakatuko da guztiz Jim. Gainera, biak oso gazteak (14-15 urte gutxi gorabehera) eta azkarrak dira. Heroi gazteak eta saiatuak, prestu eta erneak dira, Atxagaren obretan aurkituko dugun beste zenbait protagonistaren antzera, hala nola, honen aitzindari diren 1985ko *Bi anaiko* Paulo edo *Sugeak txoriari begiratzan dionean*eko kontalaria. Kasu honetan, ordea, protagonistak arrakastaz amaituko ditu Ternuako bere ibilerak, eta bere jarrera prestuaz gaindituko ditu egoera latzak, Jimek bezalaxe.

Bigarrenik, bi protagonistek pertsonaia helduago bat izango dute erreferente eta gidarizat, helduarorako bidea bakarrik egin beharrean. Jim Hawkinsek pertsonaia bat baino gehiago hartuko du eredutzat. Lehenengo, Billy Bones pirata: hark esandakoa jarraituko du, eta nahiz eta haren beldur izan, miretsi egingo du. Jimen geroagoko pertsonaia-erreferenteen artean, Schneiderrek (2010) aitaren figura mota desberdinak bereizten ditu. Alde batetik, *zintzoen* artean, Livesey doktorea dago, beti mutikoa salbatzeko eta laguntzeko prest dago, eta ontasunari dagozkion balioak transmitituko dizkio. Eta bestetik, *gaiztoen* artean, John Silver *Luxea* daukagu, bere interesen arabera jokatu arren, Jim oso gustuko du eta haren erretorikaren eta gainerako jokabideen erdua hartuko du gazteak, arriskutik salbu ateratzeko. Halaber, pirata *gaiztoak* salbatu egingo du, bera egon izan ez balitz, eskifaia seguruena hil egingo baitzuen, baina tratu bat egin eta beste piratekiko portaera desleiala erakutsiaz, biek batera euren burua salbatzea lortuko dute, azkenean.

Euskal eleberriko Urkizuren kasuan, protagonista bere buruaz fio da eta bakarrik egiten du bidea, baina egoeraz jabetzen denean, Joanesen eta Matushen aholkuak jarraituko ditu bere arazoei aurre egiteko. Batez ere, agureak kantatutako koplak gogoratuko ditu behin eta berriz arriskuan dagoenean, lagungarri egingo zaizkio oso. Horretaz gain, aurrez jakinarazi gabe, Matushek *winchester 73* eskopeta utzi dio gordelekuan, eta mutilak han dagoela jakinik, larritasun une batean arma erabili egingo du.

Emakumezkoen pertsonaiei erreparatuz, bi istorioetan horien kopuru urria nabarmena da. Hala ere, azaltzen diren apurren artean, *rol* edo egin-kizun oso garrantzitsua izango du horietako batek protagonisten bizitzan. Atxagarenean, esaterako, Motimak, kanpamentuko Nanuk buruzagiaren

emazteak, Urkizuri larrituta ohartarazten dio inuitek bera jateko asmoa dutela; horrelaxe jabetuko da protagonista bere arriskuaz eta gertatu den guztiari zentzua hartuko dio. Errepara dezagun Motima mutilatua dela, piraten moduan gorputz atal bat galdu du bere jokaeren ondorioz. Piratek, begia, hanka edo esku bat, edo gorputzeko beste zatiren bat, borrokan galdua dute edo zigorrez moztua. Motimari, aldiz, mihia moztu diote zigortzat, Urkizu ohartarazi ez dezan, haren aldeko jarrera hartzen baitu bere senarrari aurre eginez. Atxagaren pertsonaia femenino hori aktiboa da narrazioan. Protagonistaren ama babeslearen lekua betetzen du nolabait. Stevensonek, aldiz, protagonistaren amari erabaki gaitasunik ez dio esleitu, ez dago emakume ohartzailerik Stevensonaren narrazioan. Halere, ohargarria da Silverren *Flint kapitaina* izeneko loro emeaz baliatu dela Jimi arriskuan dagoela jakinarazteko. Schneiderrek (2010: 127-128) azaldutakoa baliagarri zaigu honetarako:

There are only three female characters in Robert Louis Stevenson's *Treasure Island*: Jim Hawkins's mother, the pirate Long John Silver's wife and his parrot *Captain Flint*. Ironically, only two of them are human characters, and two of them *belong to* Long John Silver. (...) That Silver's parrot is female can only be recognized by the fact that the animal is referred to as *she* although it is named after a male pirate, *Captain Flint*, who Silver formerly sailed with. As opposed to the human female characters in the story, the parrot plays an active part, at least in one decisive moment, when Jim Hawkins joins the pirates in the stockade on the island by mistake. It is Captain Flint who betrays Jim's presence to the pirates and who reveals to Jim where he has arrived: (...) Thus the one female character that plays a key role in the novel has a man's name –that of a ruthless pirate– and is an animal. (Schneider, 2010: 127-128)

Jarraitzeko, bi kontakizunetan ditugu izaera aldetik anbiguotasuna azaltzen duten pertsonaiak. Urkizuren istorioan, hainbat ditugu. Lehenengoa Joanes kapitaina da, bere interesen arabera jokatzeko du beti. Hori dela eta, alde batetik, protagonistari laguntzen dio harengan konfiantza jarritz eta inuiten herrian *gotorlekuan* arrain ketua eta galleta ugari utziz; baina bestetik, ez dio traba handirik jartzen negu osoa *iskimauekin* –inuitekin, alegia–, pasatzeko prest dagoela esaten dionean. Horregatik, batzuetan protagonis-

taren aldekoa dela iruditu arren, besteetan mutilaren segurtasuna ez ote duen jokoan jartzen ere susmoa daukagu. Bigarrena Matush izango da, askotan mutikoa izutu eta ohartaraziko du, baina horrek ere Ternuatik alde egingo du gaztea bertan utzita. Amaieran, ordea, berak utzitako *winchester*-rri esker salbatuko du bizia protagonistak, baita inuit komunitatearena ere, mutikoak ehizarako erabiltzen duelako. Horretan, istorioaren hirugarren pertsonaia anbiguoena Motima da. Hasieran gorroto duela dirudien arren, azkenean, bere ekintza izango du mutikoak arriskua dagoela ulertzeko giltza. Jimen abenturan, berriz, John Silverrek egingo du zeregin hori. Bere interesen arabera jokatu du beti, eta beraz, ez da inoiz argi geratuko noren alde dagoen. Azkenean, ordea, mutikoa oso maite duela aitortuko du, istorioan zehar beti babestu duela, eta bukaeran ere bai.

Aurretik aipatu dudan moduan, Atxagak erruz baliatu du Stevensonen eredu narratiboa bere liburu, artikulu eta hitzaldietan. Stevensonek ere, bere istorioa egiteko itsaslapurreten narratiba erabili zuen intertestu gisa; izan ere, garaitsu horretan idatziriko tankera horretako istorio guztiak benetako piratekin eta pirateriaren inguruko testuetatik sortu ziren, sortu ere. Piraten ekintzak, hots, ontziko beren jarrerak, besteei eraso egiteko modua, altxorrak partekatzeko modua... gertakari historikoetan oinarrituta daude. Bestetik, eredu beste lan batzuk izan zituela aitortu zuen autoreak berak, Schneiderren (2010) arabera. Batetik, Edgar Allan Poe eta bere *The Gold Bug* bezalako ipuin fantastikoa, Flint kapitainaren eskeletoaren ideia hortik hartuko baitu; bestetik, Washington Irvingen Billy Bonesen istorioa, pirata horren izatea beste batzuk egiteko eredutzat erabili baitzuen. Zehazki, John Silver *Luxea* hango Henry kapitainarengan inspiratua dago, eta Ben Gunn *Rio Pun Goko* Benjamin Gunnengan.

Bestalde, Urkizuren abenturak gertatzen diren lekua ere, Ternua, egiazko altxorren uhartea izan da euskaldunentzat. Handixek garraiatutako elikagaiak eta animalia larruek beren Euskal Herriko komunitatea mantentzeko aberastasun ugaria zekarten. Hortaz, XVIII. mendeko kopletan deskribaturiko Ternuako lurrek, Atxagari protagonistaren abenturak kokatzeko *gertaleku* erreala eta sinesgarria eskaini diote. Portutxoa edo *Port aux Basques* (1998: 38) izeneko leku isolatua da, uhartea, urez inguratua egon beharrean, izotzez isolatua, Atlantiko iparraldean kokaturiko irla erraldoi batean. Hantxe ga-

ratuko da drama, Jim Hawkinsek bezala, Urkizuk munduarekin interaktuatzen ikasiko duen lekuan.

Bi istorioetan garrantzia handia duten objektuak ditugu. Batetik, mutikoak aurkituko duen altxorra dugu, nortasun bikoitza duen mutikoaren laguntzaileari, John Silverri, askatasun aukera emango diona. Ternuako lurreko elikagaiak eta larruak dira, aldiz, euskaldunentzako egiazko altxorra. Bestetik, mapa da objektu gutiziatua *Altxor uhartean*; *Ternuako penaken* aldiz, Urkizuren hizkuntzetarako dohainaren osagarri haren azkartasuna da egiazko *altxorren mapa* eta, horretaz gain, zibotaren joko sinplea baliatzen du inuitekin harremanetan hasteko; horrek sortuaraziko du Urkizuren, haurren eta Motimaren arteko erlazioa, eta baita azken horren bikoiztasunean Urkizuren aldera ebatziaz ere. Gainera, azkenean, zibotaren jabe egingo da Motima (eta Silver ere bai), altxorren zati baten jabe izango da. Azkenik, liburuaren euskal izenburuari ere erreparatu behar zaio, izan ere, *Altxor uhartea* deritzon horretan, genitiborik gabeko izenburua dugu, eta itzultzaileak nahiz sortzaileak metafora bat egin nahi izan duela pentsatu dugu. Gazteentzat aukera paregabeak dakartzan uharte batez ari da, alegia, uhartea bera da altxorra. Kasu honetan, aipatutako moduan, euskaldunentzat ere Ternua euskal arrantzaleen altxorra zen, eta gaztearentzat bere balioa erakusteko parada. Beraz, hemen ere paralelismoa dago bi kontakizunen artean.

Antzekotasunekin amaitzeko, nagusiena honako hau dela esan daiteke: biak *coming-of-age* istorioak direla, hots, mutiko edo neskato heldugabe baten egoera zailei aurre eginez, esperientzia lortu eta bere heldutasunera iristeko prozesua kontatzen duten istorioak dira. Beraz, helburu didaktikoa izango dute biek, konplexutasun moralak jorratuz: ongiari eta gaizkiari dago-kiona, hain zuzen. Nolabait, artxitektu generiko beraren kide dira bi testuok, eta Stevensonena ere kanoniko gisa jotzen du Atxagarenentzat.

Stevensonena eta Atxagaren narrazioen arteko aldeak nabariak dira ordea, idazleen idazmoldea, baloreak eta interesak garai ezberdinetako giza ikuspegiaren lekuko diren heinean. Desberdintasun nabarmenena liburuaren egituran datza, geure ustez. Stevensonena istorioan maila diegetiko bakarra dago, hau da, estilo uniforme, baina konplexua da pertsonaien nahiz gertakarien

ugaritasunarengatik. *Bambulorenean*, aldiz, ikusi dugunez, hiru mailatan bereizten da narrazioa, eta Urkizurena maila metadiegetikoan proiektatu da edo marko narratibo batean sartu, baina maila bakoitzean kontaturiko istorioak xumeak dira, korapilo handi-handirik gabeak, edukiak soil-soilak ez diren arren. Estiloari dagokionez, berriz, ezaugarri oso ezberdinak dituzte bi narraziook, izan ere, hasieran genioen moduan, Stevensonen narrazioa helduentzako abentura liburuen prosan idatzia dago; eta ez du oraindik, gazte-literaturak hartuko duen zenbait ezaugarri, hala nola, 200 orrialdetik beherako kopurua, prosa bizia eta azkarra, ekintza eta elkarriketzen ugaritasuna eta deskripzioen laburtasuna. Atxagarenak, aldiz, horiek guztiak ditu, eta gainera, haur-literaturako ezaugarri nabariak dituen *Bambulo* seriearen markoan txertatua dago, ezaugarri horiek are gehiago nabarmentzen direlarik. Horretaz gain, helduaroan dauden gaztetxoei zuzenduriko erregistro atseginez eta umore leunez idatzia dago hasieratik amaierara arte Atxagaren liburua, nahiz eta errealdismoari dagozkion bizitzaren alde ilunen erreferentziak ez diren falta, baina tragikotasunari biderik eman gabe.

Bestalde, bi narraziootan dagoen ikuspuntu ezberdintasunen artean nabariena sentiberatasunari dagokiona da: narrazioan arriskuek berekin dakarten dramatismoa puntu desberdinetatik enfokatuta dago bi istorioetan. *Altxor uhartearen* kasuan, XIX. mendeko kontakizun errealista izanik, piraten basakeriaren beldurra nagusitzen da istorio osoan barrena, eta anbizio (txar) handiko pertsonaien ekintzen ondorioz, gertaera larriak gertatzen dira narrazioan zehar. *Ternuako penak* liburuan, berriz, garai bertsuan kokatua egon arren, beldurra inguru naturalak sortzen du: Artikoko irlako hotzak, izotzak, goseteak, piztiek, salbaiek.... Piratek ez bezala, protagonistek Ternuako klimaren gogortasunak eragindako gosetearen ondorioz hartuko dituzte erabaki dramatikoak, amaieran Kalautek Urkizuri azaltzen dionez. Inuitek Urkizu hiltzeko erabakiak goseteen du jatorria, ez haien oker moralean edo zentzugabeko indakerian (Atxaga, 1998).

Modu berean, bi kontakizunotan laguntzaileen generoa aldatuta azaltzen zaigu, XX. mende amaierako genero kontzientziaren ondorioz agian. Lehenagokoa den Stevensonen istorioan, John Silver eta Flint kapitaina dira protagonistaren laguntzaile erabakigarriak, hots, bat gizonezkoa eta bestea emakumezkoa; nahiz eta Livesey doktoreak eta Smollet kapitainak eta Tre-

lawney *squireak* ere lagunduko dioten. Atxagarenean, aldiz, erabakigarria Motima da, emakumezkoa, alegia, Joanes eta Matush marinelez gain, Urkizuk faltan dituen aita-amen figurak beteko dituztenak.

Bestalde, protagonista femeninoari eman dion funtzio garrantzitsuenengatik, eta dramatismoaren ardatza pertsonen handinahi gaiztoan kokatu beharrean, inguru naturalaren laztasunera eraman izanagatik, gure garaiko pentsamenduaren isla diren testuen ezaugarriak dituela azpimarra dezakegu. Baina bereziki azpimarragarria dena da, *iskimau* –‘gizajale’– esaten dioten inuit komunitatearen izen onari erakutsitako begirunea. Atxagaren liburuak sentiberatasun garaikidea erakusten du, generoari nahiz giza komunitateei dagokienez.

7. Ondorioak

Aurretik azaldutako guztia kontuan hartuta, HGLa gainerako literatur generoetatik bereizten duena bere erabilera hezitzailea dela esan dugu. Hori Bernardo Atxagaren produkzio literarioan nabarmendu da, batez ere, aztertu dudana *Bambulo* seriean, baina horretan ez ezik, *Behi euskaldun baten memoriak* (1991) edota *Sugeak txoriari begiratzeko dihonean* (1984) lanetan ere ikusi da, gazteen kulturazaletasuna pizteko saiakerengatik.

Ternuako penak deitutako hirugarren emanaldia serieko beste biak baino *errealistagoa* da alde horretatik, protagonistaren irudia aldatuta azalduko baita Urkizuren narrazioaren moldearengatik. Edonola ere, didaktikotasun horren adierazgarri aparta dela esan dezakegu, mezu edo balio moralak transmititu nahi dituelako Atxagak bertan; hala nola, justizia, besteak beren itxurarengatik ez epaitzearen irakaspena, heriotzaren hurbiltasuna, norberak lagun hurkoarekiko eduki beharko lituzkeen harremanak, besteekiko tolerantzia eta entzutearen balioa... Bereziki azpimarragarria da, ordea, aurreko liburuetako *Bambuloren* haur-literaturako fabularen markoaren baitan, gazte-literaturaren taxuko *coming-of-age* narrazioa kokatu duela.

Halaber, Urkizu pertsonaiaren esperientzia aurkeztearen arrazoia, haur eta gazte irakurleei bizitzaren nondik norakoak azaldu nahia izango da, bai-

ta irakurleengan hausnarketa eragitea ere, pertsonaiaren portaera eredutzat aurkeztuz. Urkizuren prestutasuna, ernetasuna eta jarrera positiboa azpimarratzen dira, baina, gisa berean, bere izaera apala eta lagunartekoa; horrexek laguntzen dio giro arrotzean ere aurrera ateratzen.

Gaztearen heziketa helburu izatea da Stevenson *Altxor uharte*arekiko duen parekotasun handiena, biotan azaltzen zaigun pertsonaien bikoiztasuna norberaren naturaren nolakotasunaz hausnartzeko eskola baita, hau da, inor ere ez dela guztiz ona edo gaiztoa. Gainera, zenbait elkarrizketatan Atxagak berak, gaur egun klasikotzat jotzen diren egileen irakurle sutsua dela aitortu du (Olaziregi, 1999) eta haien artean Stevenson aipatu izan du sarritan. Horregatik, ez dirudi desagokia *Ternuako penak* libururako, *Altxor uharte*a eredu hartu izana, nahitara edo oharkabean.

Alderaketa-lanean zehar identifikatu ditudan bestelako ezaugarriek beste herrialde bateko literaturaren eta euskararen artean alde nabarmenik ez dagoela ikustera garamatzate. Ohartzekoa da, bestalde, Atxagak Ariadnak kontatu nahi duen Amundsen eta Scotten pareko jartzen duela Urkizu esploratzaile gaztea. Gisa horretan, Ternuako marinelen narrazio honen bidez, euskaldun itsasgizonen ausardiaren aldarrikapen xumea egingo du (1999: 24 eta 112):

–Scott eta Amundsenen espedizioak kontatuko ditut ala ez? –galdetu zuen Ariadnak apur bat petralduta.

–Ez –erantzun zion bere aitak, Ternuako marinelak. Bere lasagna begi itxi-ireki batean jan eta gero, hitz egiteari ekin nahi zion. Ezin zuen isilik jarraitu. Ezta inola ere. Bakailao arrantzan ibili bitartean galdutako aukera guztiak bereganatu nahi zituen.

–Zegatik, aita? –galdetu zion Ariadnak.

–Ba ni ez naizelako Scott eta Amundsen horiek baino gutxiago. Ni ere poloan ibiltzen naiz, eta kontu asko jakiten ditut han. Horietako bat kontatu nahi nizuke. Oso labur. Ematen al didazue hasteko baimena? (1999: 23-24)

Azkenik, ahozko literaturaren eta euskal narratibaren arteko zubia ere guztiz aipagarria da. Batetik, Atxagak bere unibertso literarioan erabiltzen

dituen baliabideen artean, transtestualitatea da hori bermatzeko modu egokiena, izan ere, kasu honetan, ahoz igorritako kantu batean oinarritua baitago autoreak asmatuko duen istorioa; baina, bere horretan, ahozko literaturatik harturiko osagaien testuartekotasunaren adierazle diren zantzuak ere aurkituko ditugu obra honetan. Esan bezala, liburuaren izenburuak eta protagonistaren izenak datatu gabeko kopletan dute oinarria, eta esanguratsua da itsasoko narrazioetan *Ene mutilik ttipiena* bezalako baladetan kontatzen diren moduko jazoera dramatikoak iradokitzen dituzten kopletatik, gosete handienetan antropofagia gertakarien oihartzuna integratu izana narrazioan, bestelako jatorria duten Betleemgo haurraren jaiotzarenarekin edota Katuloren poemarekin nahastean.

Bestetik, ahozko literatura narratibarekin lotzeko bigarren arrazoia, idazlearen arima fabulista da, zeren, *Bi anai* (1985) eta *Behi euskaldun baten memoriak* (1991) lanetan bezala, «pertsonaia irrazional gogoangarria» (Olaziregi, 1998: 140-145) dugu protagonista narrazio horretan, Mo behia, *As-takiloak* edota *Xola* serieetan bezalaxe. Fabulek edo alegiek, ahozko ipuingintzaren azpigeneroa izanik, animaliak dituzte protagonista, eta beraz, *Bambulo* seriea alegia modernotzat har genezake; txakurra baita istorioetako protagonista antropomorfikoa, bere kezkak eta interesak intelektualak diren arren. Modu berean, amaieran, kulturari eta heziketari buruzko hausnarketa gaia eskaini du egileak, zeharka bada ere; eta liburuak ere hala, lehen aipatu ditudan baloreak, hain zuzen, erakutsi ditu, bereziki pertsonak ezagutzen ikasteko beharra, egoerak egoki ebaluatzen, justizia bilatzen eta ingurukoekiko prestu izaten. Azken batean, ingurukoekin dituen *harremanen eskolan* Urkizu nerabearen *heziketa informala* du kontagai liburuaren muinak.

Laburbilduz, ahozko literaturak gure historiaren parte izandako gertakarien berri emateaz gain, euskal narratiban oihartzuna izan duela azpimarraitu nahiko nuke, eta Atxagaren obrak lotura sakonak dituela euskal ahozko tradizioarekin, bere liburuaren oihartzun handiari esker, aitortpena eta berri-rakurketa garaikidea opa dizkiolarik. Kasu honetan, gainera, kopletan azal dutako errealitate gordinak geografia literario errealista sortzeko oinarria eman dio egileari. Ondorioz, testu horrek literatura lan atsegina eta ederra dastatzeko aukera eskainiaz batera, euskal historiaren eta ahozko literatu-

raren arloko gaiak jorratzeko parada eman digu, eta gure garai bateko nahiz egungo baloreei buruz hausnartzeko beta ere ekarri digu nazio, arraza, genero edota moralari buruzko aurreiritziak auzitan jarritz.

8. Bibliografia

Arkotxa Scarcia, A., 2010, «*Ternuaco Penac* deitu idazkiaz zenbait ohar», *Lapur-dum Revue d'études basques*, Centre de recherche sur la langue et les textes basques UMR 5478, 1998, 103-123.

Arroitajauregi, J., 2012, *Egungo euskal haur eta gazte literatura: katalogo bat*, Donostia: Etxepare.

Atxaga, B., 1998, *Bambulo: Lehen urratsak*, Donostia: Erein.

———, 1998, *Bambulo: Krisia*, Donostia: Erein.

———, 1999, *Bambulo: Ternuako penak*, Donostia: Erein.

Etxaniz, X., 1997, *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*, Iruña: Pamiela.

———, 2007, *Bela Kabelatik Ternuara Atxagaren Haur eta Gazte Literatura*, Iruña: Pamiela.

Genette, G., 1972, *Figures III*, Paris: Seuil.

———, 1989, *Palimpsestos. La literatura en segundo grado*, Madrid: Taurus.

González Doreste, D. M., 1993, «Notas (hipertextuales) sobre la parodia genettiana: a propósito de *Palimpsestos*», *Revista de Filología de la Universidad de La Laguna*, 12, 83-103.

Irigarai M., 2002, «Écriture pour enfants traduction et réécriture dans *Bambulo* de Bernardo Atxaga: *Ternuako penak* // *Amigos que cuentan* ('Les peines de Terre-Neuve' // 'Des amis qui comptent/content')», *Lapur-dum*, 7, 348-352.

López Gaseni, J. M., 2010, «Las normas preliminares en la literatura juvenil traducida al euskera», *Anuario de investigación en Literatura Infantil y Juvenil*, 8, 29-45.

———, 2013, «Zenbait iritzi euskal HGLaren orainaz eta geroaz», *Behinola*, 27, 15-25.

———, 2018, «Las bambulísticas historias de Bambulo», *El mundo está en todas partes: La creación literaria de Bernardo Atxaga/Iker González-Allende y José Ángel Asunce Arrieta*, Barcelona: Anthropos.

Lluch, G., 2012, «La narrativa para los adolescentes del siglo XXI», in B. A. Roig, I. Soto & M. Neira (koord.), *A narrativa xuvenil a debate (2000-2011)* 39-57, Vigo: Xerais. Interneten eskuragarri: <<http://www.cervantesvirtual.com/nd/ark:/59851/bmch7293>> [Azken ikustaldia: 2019/06/06].

Olaziregi, M. J., 1998, *Bernardo Atxagaren irakurlea*. Donostia: Erein.

———, 1999, «Bernardo Atxaga, candidato al Andersen», *CLIJ*, 119, 30-36.

Pereira, A. eta Vilar, M., 2007, «Treasure Island: historical background and literary analysis», in *E-fabulations: E-journal of children's literature*. Artikulu elektronikoa: <<https://ler.letras.up.pt/uploads/ficheiros/4290.pdf>> [Azken ikustaldia: 2019/06/06].

Schneider, C., 2010, *Pirates as Heroes: Moral Ambiguity in Teenage Fiction*, Lama-delaine / Pétange. Interneten eskuragarri: <<https://portal.education.lu/inno/Tra-vaux-de-candidature/ArtMID/3717/ArticleID/977/Pirates-as-Heroes-Moral-Ambiguity-in-Teenage-Fiction>> [Azken ikustaldia: 2019/06/06].

Stevenson, R., 1881, «Treasure Island», *Young Folks*, 19-20. London: Young Folks Magazine. [Euskarazko itzulpena: Garikano, M. (1991). *Altxor uhartea*, Euba: Ibaizabal].

Toledo, A., 2008, «Kontaketa markodun», *Literatura Terminoen Hiztegia*, Bilbo: Euskaltzaindia.

Wadham, R. L. eta Ostenson, J. W., 2013, *Integrating young adult literature through the Common Core Standards*, Westport, CN: Libraries Unlimited.

Zabala, K., 1992, «Altxorren bila», *Euskaldunon Egunkaria* (1992/07/03). Susa Literatura sarean: <<http://www.susa-literatura.eus/kritikak/egunkaria/krit0364.htm>> [Azken ikustaldia: 2020/05/23].

Euskarazko bihurkarien historiaz: hizkuntza ukipena eta errepikapen gramatikalizazioa

**Sobre la historia de los reflexivos vascos: contacto
lingüístico y gramaticalización replicativa**

**Sur l'histoire des réfléchis basques: contact linguistique
et grammaticalisation réplivative**

**On the history of Basque reflexives: language contact
and replica grammaticalization**

SALABERRI IZKO, Iker
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2020-02-17
Noiz onartua: 2020-04-30

Lan honetan euskarazko *buru*-egitura bihurkaria Erdi Aroko latinarekiko ukipenaren ondorioz sortu zelako hipotesia plazaratzen da, errepikapen gramatikalizazioa delako mekanismoaren bidez. Hipotesi honen arabera, prozesuaren iturria Erdi Aroko latinean ediren daitezkeen *buru* hitzaren erabilera anaforiko eta bihurkarietan bilatu beharra dago. Proposamen honek euskararen historiarako eta berreraiketarako dituzkeen ondorioak ere eztabaibatzen dira.

Gako hitzak: Bihurkaritasuna, errepikapen gramatikalizazioa, Erdi Aroko latina, euskararen historia.

En este trabajo se presenta la hipótesis de que la construcción reflexiva vasca basada en la palabra *buru* surgió como resultado del contacto con el latín medieval, a través del mecanismo conocido como gramaticalización replicativa. Según esta hipótesis, el origen del proceso se encuentra en usos anafóricos y reflexivos de la palabra *cabeza* en el latín medieval. Se analizan asimismo las consecuencias que esta propuesta tendría para la historia y reconstrucción del euskera.

Palabras clave: Reflexividad, gramaticalización replicativa, latín medieval, historia del euskera.

Dans ce travail on présente l'hypothèse que la construction réfléchie basée sur le mot *buru* est apparue à la suite du contact avec le latin médiéval, au moyen du mécanisme connu comme grammaticalisation répliative. Suivant cette hypothèse, l'origine du processus se trouve dans les usages anaphoriques et réfléchis du mot *tête* dans le latin médiéval. On analyse aussi les conséquences que cette proposition aurait pour l'histoire et reconstruction du basque.

Mots-clés: Réflexivité, grammaticalisation répliative, latin médiéval, histoire du basque.

This study puts forward the hypothesis that the Basque reflexive *buru*-construction arose by virtue of contact with medieval Latin, by means of the mechanism known as replica grammaticalization. According to this hypothesis, the process was triggered by anaphoric and reflexive uses of the word *head* in medieval Latin. The potential implications are addressed which this proposal may have for the history and reconstruction of Basque.

Keywords: Reflexivity, replica grammaticalization, medieval Latin, history of Basque.

1. Sarrera¹

Euskararen aitzin-historia berreraikitze orduan, ahaide ezagunik (izan) ez duen hizkuntza genetikoki bakartua izanik, bi baliabide nagusi ditu eskura iker-tzaileak: barne-berreraiketa eta alderaketa tipologikoa (Mitxelena, 1963: 16-17; Lakarra, 2005: 408). Lan honetan bi metodoak bateratzen dituen hurbilpena egiten da, euskararen ezaugarri gramatikal baten (*buru* hitzean oinarritutako egitura bihurkariaren) lekukotzeen aitzineko garaia berreraikitze. Xede hau kontuan izanik, 1.1 atalean euskarazko bihurkaritasuna adierazteko baliabideei ikuspegi tipologikoaren barnean so egiten zaie; 1.2 atalean, berriz, alderaketa egiten da euskararen inguruko hizkuntzekin, egungoekin zein historikoekin, eta 1.3 atalean bihurkari marken gramatikalizazio bidea zehazten da. 2.1 eta 2.2 ataletan euskarazko *buru*-bihurkariak dituzkeen zenbait iturri eztabaidatuta-koan, ikerketa honek euskararen historiako izan ditzakeen ondorenak aur-kezten dira 3. atalean. Laugarren atalean, azkenik, ondorioak ateratzen dira.

1.1. Euskarazko bihurkariak ikuspegi tipologikoan


Euskaltzaindiak (1991: 62) bihurkaritasuna honela definitzen du: per-paus bereko aditz berak bi izen sintagma adierazten ditutenean eta hauek erreferentziakideak direnean, hots, izaki bera aipatzen dutenean, bihurka-ritasunaz ari garela erran daiteke. Erreferentziakideak diren bi sintagma horietako batek normalean bizidun eragilea adierazten du, eta bertzeak ja-sailea; gainera, lehenbizi datorrenari *aurrekaria* deitu ohi zaio, eta bigarre-nari *bihurkari marka* (Faltz, 1977: 3-4). Horrela, bada, *Jonek bere burua eba-ki du* esaldian, *aurrekaria Jonek* da eta *bere burua* bihurkari marka.

¹ Artikulu honek Espainiako Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak diruz zuzkitzen duen *Diacronía de la animacidad: aproximación tipológica al origen de las marcas animadas* ikerketa proiektuaren sostengua du (PGC2018-098995-B-I00).

Lan honen lehenbiziko bertsio bat Aziti Bihia Hizkuntzalari eta Filologo Elkarteak 2020ko martxoaren 25ean antolatu *Etseti Bihia: Hizkuntzalaritza eta Filologia berrogeialdian* jardunaldian aurkeztu zen. Egileak jardunaldiko parte hartzaileei, batez ere Iraide Ibarretxe-Antuñanori, beren oharrengatik eskerrak eman nahi dizkie. Patxi Salaberri Zaratigiri ere esker anitz zor dizkiot, artikulua gainean egindako iruzkin eta zuzenketa guztiengatik.

Munduko hizkuntzen artean bihurkari markak aditzezkoak izan ohi dira, hots, hizkiak, adberbioak edo aditz jokabidea erabiliz adierazten direnak, edota izenezkoak, hau da, izenen eta izenordainen bitartez bideratzen direnak (Lehmann, 2015: 45-52). Bigarren multzoari erreparatuz gero, hiru talde nagusi daude: (a) izen edo izen sintagma balioa duten bihurkariak; (b) izenordain balioa dutenak; eta (c) bihurkari atxikiak, izenordaina eta bertzelako osagai bat dituztenak (König, 2007: 107-111). Schladden (2000) ikerketa tipologikoaren arabera, munduko hizkuntza gehienek (140/150, % 93.3) izenean edo izenordainean dute bihurkari markaren jatorria. Egitura bihurkarion izenezko edo izenordainezko iturri etimologikoa, gainera, eskuarki (89/150, % 60.1) *gorputz*, *buru*, *larri*, *hezur* edo antzeko gorputz-atal izena (GA1a) izaten da. Hauetatik *buru* GA1ean oinarritutako egitura bihurkaria dutenak zenbait eremu geografikotara daude mugatuta, baina, oro har, ez dira guti (77/950, % 8.1) (Evseeva & Salaberri, 2018: 395):

1. irudia. *Buru* hitza zentzu bihurkarian erabiltzen duten munduko hizkuntzen mapa (Evseeva & Salaberri, 2018, 395)



Euskara, beraz, horrelako egitura bihurkaria duen Europako hizkuntza bakanetakoa da. Antzekoak edireteko, gure kontinentean, hungarierara jo beharra dago: izenordain bihurkarizat erabiltzen den *mag-* erroak etorkiz *gorputza*, *soina* erranahia du, egun *hazia*, *bihia* (Szent-Iványi, 1964: 64). Ber-

tzela, Ural mendikatearen hego-mendebaldean (erzyan eta mokshan), Kaukason (abkhaz-adyghe hizkuntzetan eta georgieran) edota ipar Afrikan (amazigeran eta berbereraren bertzelako aldaeretan, Marokoko arabieran) kausi daitezke etimologiaz *buru* erranahia duten izenordain bihurkariak (Evseeva & Salaberri, 2018). Zentzu honetan, beraz, euskara mendebaldeko europar hizkuntzen artean berezi antza dela erran daiteke.

Ohar hau garrantzitsua da, euskarazko *buru*-bihurkariak joera tipologiko unibertsalen emaitza izateko aukera ezeztatzen ez badu ere, murriztu behintzat egiten baitu. Bertze modu batera adierazita, euskararena munduko hizkuntzetako joera tipologikoen isla dateke, baina mendebaldeko Europan horren ezaugarri ezohikoa izateak bertzelako azalpena bilatzera bultzatzen du. Gai honi 1.2. eta 2. ataletan helduko zaio berriz.

Zernahi ere den, *buru* elean oinarritu egitura (1a) ez da euskarak bihurkaritasuna adierazteko daukan baliabide bakarra: anitzetan xede bera iragankorra izan ohi den aditza iragangaiztearen bidez, hau da, osagarri zuzena adierazteari utziaz lor daiteke (1b), eta hau, hortaz, aditzeko estrategia dela erran daiteke. Honetaz landa, zehar osagarria kasu guti batzuetan bere horretan utz daiteke (i) aldi berean subjektuaren erreferentziakidea eta pertsona izenordaina bada, eta (ii) destinatibo marka badarama (1c)². Hau, beraz, izenordaineko estrategia da:

(1) a. *gizon hark bere burua hil nahi zuen*

b. (*)*ispiluan gaizki ikusten naiz*

c. *ardo hau beretako gorde nahi du*

Kazeninek (2001: 926) dioenez, munduko hizkuntzek bihurkaritasuna adierazteko baliabide bakarra (izenezkoa) izan ohi dute, edo bi (izenezkoa eta aditzezkoa). Oro har, beraz, eredu tipologiko hedatuena gehienez ere bi estrategia bihurkari ukaitea da, eta hau baino gehiago dituzten hizkuntzak gutitan kausitzen dira (Haspelmath, 2008: 47). Euskara, berriz ere, alderdi honetatik berezikara da, ez hainbertze mundu mailan, baina bai inguruko hizkuntzen aldean.

² Azkeneko hauei de Rijkke (2008: 365) *bihurkari ahulak* deitzen die, *buru*-egiturak (*bihurkari indartsuak*) ez bezala berariazko forma bihurkaririk ez dutelako.

Atal honi bukaera emateko, aipatu beharra da hiru estrategia bihurkari hauen (1a-c) egoera ez dela egonkorra, ez aldaezina: testu zaharretan ikus daitekeen moduan, euskararen historian zehar hainbat garapen jasan dituzte (Mounole, 2011: 147, 270; Evseeva & Salaberri, 2018: 397-403; Salaberri Izko, 2020: 22-23, 27-28). Honetaz hirugarren atalean mintzo gara berriz.

1.2. Egitura bihurkariak euskararen inguruko hizkuntzetan

Jakina denez, euskarak, mende guti iraun zuten germaniar eta arabiar eraginak salbu, azken mila eta bortzehun urteetan latina izan du inguruan lehenbizi, eta latin hizkuntzak ondoren (Mitxelena, 1964). Ukipen egoera luze eta hertsia honen ondorioz, euskarak gramatikaren maila ia guztietan hizkuntza horien eragin nabaria jasan du. Lan honetako ildoari jarraituz, hortaz, zentzuzkoa litzateke aipatu hizkuntzek historian gaindi izan dituzten bihurkaritasuna adierazteko baliabideei so egitea.

Latin klasikoan eta arruntean *mēd*, *tēd*, *nōs* moduko pertsona izenordainak erabiltzen ziren lehen eta bigarren pertsonen bihurkaritasuna adierazteko (Väänänen, 1967: 199-200). Pertsona izenordain hauek antzeko balioa duten *me*, *te*, *nos*... formak utzi dituzte egungo erromantzeetan. Hirugarren pertsonan, berriz, eta salbuespenak salbuespen, mendealdeko indoeuropar hizkuntza gehienek duten eta jatorri ilunekoa den **se-/s(e)we-* izenordain bihurkaria dute baliabide nagusitako, zein, gainera, diakronikoki nahiko egonkorra baita (Puddu, 2005; Viti, 2009). Latina eta erromantzeak ez dira salbuespen, hauetan **se-/s(e)we-* izenordainaren ondorengoak kausi baitaitezke, bai egun, bai historian zehar (2a-c, de Lorris & de Meung, 1920; Puddu, 2005: 76; Weiss, 2009: 332; Salvi, 2011: 346-351; Dworkin, 2018: 112):

- (2) a. *amābo*, *accurrite*, *ne se interēmat*
 love.1SG.FUT rush.2PL.IPFV NEG REFL kill.3SG.PRES.SBJ
 ‘Erregu egiten dizut, joan azkar, ez dezan bere burua hil’³ (Plautusen *Cistellāria*, 643, ca. K. a. II. mendea)

³ Euskara ez bertze hizkuntza orotako adibideen lerroarteko glosak *Leipzig glossing rules*-en (Bickel et al., 2015) arabera egin dira, ingelesezko laburpenak barne.

- b. *car il se volt faire*
 since 3SG REFL want.3SG.PRES make.INF
homme
 man
 ‘Bere burua gizon egin nahi duelako’ (*Testament de Maistre Jehan de Meung*, 128, 1296)
- c. *e cuando se vío en esta*
 and when REFL see.3SG.PST in this
tristencia el rey tan grand
 sadness DEF king so great
 ‘Eta erregeak bere burua horren tristetasun handian ikusi zuelarik’
 (Alfonso X. Jakitunaren *General estoria*, 4. atala, ca. 1280)

König & Siemundek (2000: 117), **se-/s(e)we-* izenordainaren islak ukraineraz duen portaera morfosintaktikoa ikusita, GAI batetik atera ote den aztertzen dute. Hau, edozein kasutan, ustekeria hutsa da, eta, ondorioz, ez dago mendebaldeko indoeuropar hizkuntzetako bihurkari marka nagusia euskarazko *buru*-egiturarekin berdintzerik.

Horrela ikusita, ez du ematen hizkuntza indoeuroparrekiko edota erromantzeekiko ukipenak euskarazko *buru*-egitura bihurkariaren sorreran inolako eraginik izan duenik. Haatik, hemen bi kontu azpimarratu beharrak dira: alde batetik, eta aitzineko 1.1. atalean azaldu denez, ohikoa da munduko hizkuntzek bihurkaritasuna adierazteko egitura bat baino gehiago izatea. Bertze aldetik, latinak eta erromantzeek estrategia bihurkari nagusizat *me*, *te*, *nos* formak (lehenbiziko eta bigarren pertsonan) eta **se-/s(e)we-* izenordain bihurkaria (hirugarren pertsonan) izateak ez du erran nahi inoiz bertzelako baliabide bigarrenkaririk izan ez dutela. Ikus Erdi Aroko latineko (3a) eta okzitanierako (3b) hurrengo adibideak (Jensen, 1986: 88; Ramos, 2000: 66):

- (3) a. *trado meum caput vel vinea*
 trade.1SG.PRES 1SG.POSS head for vineyard
mea
 1SG.POSS
 ‘Neure burua neure ardantzearen truke aldatuko dut’ (Valpuestako Andre Mariako kartularioak, ca. 1094)

- b. *que per amor ten hom son cors*
 SUB for love keep.3SG.PRES man 3SG.POSS body
plus gen
 more nicely
 ‘Maitasunagatik batek bere burua modu atseginagoan gorde
 beharko lukeela’ (Gaucelm Faiditen *Olerkiak*, ca. 1200)

Bihurkaritasuna adierazten duten bi adibideok garai bertuko testuetatik atereak dira, eta euskarari eragin dioten bi hizkuntzatan daude idatzita: Erdi Aroko latinean eta okzitanieran, hurrenez hurren. Lehenean *buru* (*caput*) hitza da egitura bihurkariaren oinarri, eta bigarrenean *gorputz* (*cors*), hau da, biek GAIak darabiltzate, euskarak bezala. Gainera, latineko adibidea (3a) Hegoaldetik biziki hurran izkiriatura da, Gaztelaren eta Arabaren arteko muga, eta okztanierakoa (3b) Iparraldetik ez hagitz urruti, egungo Frantziako hego-mendebaldean, sortu eta hazi zen trobadoreak egina. Horrelako adibideak ez dira bakanak erromantzeen historian zehar, ugariak baizik, 2. atalean erakutsiko den moduan.

Hau jakinda, erraza da pentsatzea (3a-b) moduko adibideen eta euskarazko *buru* hitzean oinarrituriko egituraren artean nolabaiteko lotura izan daitekeela. Haatik, euskarak erromantzeekin historian barna izan duen erlazio asimetrikoa ezagututa, arrazoizkoena *buru* duten egitura horien etorkia euskaratik kanpo bilatzea da. Ondorioz, hemen hurrengo hipotesia plazaratuko da: euskarak *buru* hitzaren erabilera bihurkariak latinetiko hizkuntzekiko ukipenaren ondorioz garatu zituen, Erdi Aroan, errepikapen gramatikalizazioa delako mekanismoaren bidez. Proposamen hau bermatzen duten adibide eta datu gehiago eztabaidatu aitzinetik, bihurkari marken gramatikalizazioaren eta errepikapen gramatikalizazioaren inguruko azalpena eginen da ondoko atalean.

1.3. Bihurkariak, ukipena, gramatikalizazioa eta errepikapen gramatikalizazioa

Hizkuntzalaritza historikoaren eremuan nahiko hedatuta dago ukipen egoerek hizkuntza aldaketa bultzatzen eta azkartzen dutelako ustea (Thomason, 2001: 10; Aikhenvald & Dixon, 2007: 19). Gainera, egitura bihur-

kariak hizkuntza ukipenaren ondorioz errazen hedatzen diren ezaugarri gramatikalen artean daude (Geniušienė, 1987: 303; Heine, 1999: 9-10; Schladt, 2000: 107-108). Ondorioz, erran daiteke hizkuntzalaritza historikoko eta ukipen linguistikako datuek bihurkari marken jokamoldeaz erakusten dutenak lan honetako hipotesia bermatzen duela.

Hemen gramatikalizazioak honako hau adierazten duela ulertzen da: balio lexikoa duen osagaiak bere gain ezaugarri gramatikalak hartzea, edota ezaugarri gramatikalak dituen osagaia are gramatikalago bihurtzea (Hopper & Traugott, 2003: 2). Prozesu hau ulertzeko era honen arabera, gramatikalizazioak elkarrekin lotutako lau mekanismo barne hartzen ditu: (i) *zuritze semantikoa*, hau da, osagaiak bere erranahi edukia galtzea; (ii) *hedatzea* edo *testuinguru orokortzea*, hots, osagaia testuinguru gehiagotan erabiltzea; (iii) *kategoriagabetzea* edo osagaiak ezaugarri morfosintaktikoak galtzea; eta (iv) *hots higadura*, osagaiak bere gorputza murriztea (Kuteva *et al.*, 2019: 3). Goiko 1.1 atalean azaldu den moduan, sarrien gertatzen den gramatikalizazio bideetako bat *GAIa > bihurkari marka* da. Hondarreko kasu honetan, gramatikalizazioko lau mekanismoek (i-iv) hurrengo urratsak (4a-c, 5a-d) dituzte (Schladt, 2000: 113-116):

(4) Aldaketa semantikoa

- a. Lehen urratsa: GAIa perpauseko osagarri zuzena da, eta jatorrizko erranahia baizik ez du.
- b. Bigarren urratsa: GAIa sinekdoke bidez berrinterpretatzen da, subjektuarekiko erreferentziakidetasuna hartu eta bihurkari bilakatzen da. Edozein kasutan, egiturak oraindik erranahi hitzez hitzekoa zein bihurkaria ukan ditzake.
- c. Hirugarren urratsa: GAIak bakarrik irakurketa bihurkaria izan dezake, eta bertzelakoak ere gara ditzake, hala nola elkarkaria.

(5) Aldaketa formala

- a. Lehen urratsa: GAIak morfosintaxian (kasu-markatzean eta komunztaduran) eta sintaxian (hitz-hurrenkeraren askatasunean eta edute izenordainaren presentzian) izen sintagma osoaren portaera du.

- b. Bigarren urratsa: GAIak, aukeran, ezaugarri morfosintaktiko eta sintaktiko murriztuak izan ditzake: komunztadura galtzea, hitz ordena zurruntzea, edutezko izenordaina desagertzea.
- c. Hirugarren urratsa: GAIak nahitaez jokamolde sintaktiko murriztua du, hau da, subjektuaren erreferentziakidea izan behar du, perpausean funtzio bakarra izan dezake, eta ez du hitz hurrenkera aldatzen ahal.
- d. Laugarren urratsa: GAIak ez du, dagoeneko, izen sintagmaren ezaugarri morfosintaktikorik, eta izenordaintako har daiteke.

Oro har, bihurkarien gramatikalizazio urrats hauek (4a-c, 5a-d) izenetik adizkiranzko bidea erakusten dute, izenordaina dela bitarteko, eta hau da 1.1 atalean erakutsi den munduko hizkuntzetako bihurkari marken aniztasunaren arrazoia (Heine, 1999: 7). Egile batzuek, gainera, gramatikalizazio bide honi anafora izateko urratsa gehitzen diote, hurrengo eran (Evseeva & Salaberri, 2018: 424):

- (6) Izena > anafora > (izenordain) bihurkaria > (izenordain) elkarkaria > hizkia

Aldaketa diakroniko hauen (4a-c, 5a-d, 6) banaketa ezagutzea biziki erabilgarria izan daiteke lan honetako hipotesia argitzen laguntzeko, euskarazko *buru*-bihurkarien gramatikalizazio maila eta, ondorioz eta hein batean, *adina* neurtzeko tresnatzat erabil daitekeelakoeta Salaberri Izkok (2020: 24-26), hots, Evseeva & Salaberri (2018: 397-403) eta Salaberri Izkok (2020: 24-26) erakusten duten moduan, XVI. eta XVII. mendeetako euskararen badira *buru*-egituraren erabilera anaforikoak. Bertze zenbait ezaugarriekin batean, honek adierazten du euskarazko *buru*-bihurkariak gramatikalizazio bidearen hasieran daudela, euskara arkaikoan (1400-1600)⁴ batez ere. Horrela, bada, litekeena da prozesu honen sorrera Erdi Aroan izatea. Gai honi 2. eta 3. ataletan helduko zaio berriz.

⁴ Euskararen banaketa historikoari begira, lan honek Lakarraren (1997: 516) proposamena hartu du oinarri.

Azkeneko hamarkadetakoa hizkuntza ukipenaren inguruko lanetan behin baino gehiagotan azpimarratu da kontaktu-egoerek hainbat osagairen gramatikalizazioa eragin dezaketela (Schladt, 2000: 107-108). Ildo honetatik, gramatikalizazioaren hainbat azpimota bereizi dira: hemen horietako bat, *errepikapen gramatikalizazioa* (EGa) deitu zaiona, azalduko da (Heine & Kuteva, 2003). EGak, ukipen egoeran bakarrik sortzen den gramatikalizazioa izanik, gutxienez bi hizkuntza barne hartzen ditu: eredu-hizkuntza (E-hizkuntza), ukipen egoeran dauden bertze hizkuntzendako eredia ezartzen duena, eta errepikapen-hizkuntza (ER-hizkuntza), E-hizkuntzak ezarritako eredia jasotzen eta garatzen duena (Heine & Kuteva, 2003: 531). EGan gramatikalizazio prozesu oso bat E-hizkuntzatik ER-hizkuntzara hedatzen da, hurrengo mekanismoen bitartez (Heine & Kuteva, 2003: 539, 2005: 92; Ziegeler, 2017: 317):

(7) Errepikapen gramatikalizazioa (EG)

- a. ER-hizkuntzaren hiztunek antzematen dute E-hizkuntzan badela gramatika kategoria jakin bat: Ex.
- b. Hiztunok E-hizkuntzakoaren baliokidea den kategoria (ERx) sortzen dute, beren hizkuntzako materiala erabiliz.
- c. Xede hau erdiesteko, E-hizkuntzan gertatu dela *uste duten* gramatikalizazio bidea errepikatzen dute, hurrengo formularen bidez: $[Ey > Ex] = [ERy > ERx]$.
- d. ER-hizkuntzaren hiztunek ERy kategoria ERx gisa gramatikalizatzen dute.

Ohart bedi irakurlea hemen ER-hizkuntzako gramatikalizazioa ($ERy > ERx$) burutu daitekeela, E-hizkuntzako ($Ey > Ex$) gertatu gabe ere: horregatik aipatu da (7b)-n *E-hizkuntzan gertatu dela uste duten gramatikalizazio bidea* pasartea. EGa, gainera, ukipen egoeran dauden edozein bi hizkuntzaren artean gauza daiteke, hauek ahaideak izan edo ez, tipologikoki antzekoak izan edo erabat desberdinak. Egia erran, usu aipatzen den EGaren adibidea, hain zuzen, euskararen eta erromantzearen (frantsesaren, gaztelaniaren, okzitanieraren) artekoa da: euskarazko aspektu burutugabearen marka (-tzen, -ten) jatorriz atzizki nominalizatzailearen (-tze, -te) eta inesibo

markaren (-n) bateratzea da. Haaseren (1992: 93) arabera, Iparraldeko euskalkietan -tzen atzizkiaren erabilera (8a) okzitanierako aditz progresiboen (8b) antzeko egitura sortzeko saiakeraren ondorioa da:

(8) a. *zerbait egi-te-n dut* (jatorrizko erranahia: *zerbait egiten ari naiz*)

b. <i>èste</i>	<i>a</i>	<i>her</i>	<i>quacòm</i>
be.1SG.PRES	in	do.INF	something
'Zerbait egiten ari naiz'			

Arrazoitze honen arabera, euskara atzizki nominalizatzailea (-tze) erromantzeko infinitiboaren (*her*) baliokidetako erabiltzen hasi zen, eta inesibo marka (-n) erromantzeko preposizioaren (*a*) ordeztu. Haatik, euskarazko -tze + -n egiturak, erromantzeko progresiboak ez bezala, gramatikalizazio bidean aitzina egin zuen, aspektu burutugabearen marka bihurtzeraino (Haase, 1992: 93-94; Mounole, 2008: 586). Bertze modu batera erranda, *nominalizazioa* + *inesiboa* > *progresiboa* > *aspektu burutugabea* gramatikalizazio bidea erromantzearekiko ukipenak eragin zuen, baina gero euskaraz berariazko garapena izan du, erromantzez gertatu ez dena.

Hau bera da lan honetan *buru*-bihurkarietara agitu zela proposatzen dena: Erdi Aroko latinetikako mintzaireretan *buru* eta *gorputz* hitzek erabilera bihurkariak izan zitzaizkieten (3a-b). Eredu honi (E-hizkuntzari) jarraikiz euskarak, ER-hizkuntza izanik, *buru* hitzean oinarrituriko egitura bihurkaria gramatikalizatu zuen. Erromantzeak, bere aldetik, *buru* eta *gorputz* hitzen erabilera bihurkariak galdu zituen; euskarak, aldiz, bereak gorde. Ondorioz, egungo euskararen egitura bihurkari nagusia Erdi Aroko erromantzearen ereduaren neurri bateko isla dela erran daiteke. Hipotesi hau bermatzen duten zenbait adibide agertuko dira hurrengo atalean.

2. Egitura bihurkarien balizko iturriak

Erabilerari dagozkion zenbait goiti-beheiti salbu (Mounole, 2011: 270; Salaberri Izko 2020: 23), euskalki guztiek dute *buru*-egitura bihurkarita-

sunak adierazteko baliabide nagusi⁵. Hala ere, ongi jakina denez, euskalkiek erromantze desberdinen eragina jasan dute Erdi Arotik hona. Hortaz, eta datuak aztertzeke erarik aproposena delakoan, hemen Iparraldeko euskalkietako adibideak okzitanierakoekin eta frantsesekoekin batera ikertu dira (ikus 2.1 atala). Hegoaldekoak, berriz, Erdi Aroko latinekoe-kin, gaztelaniakoekin eta nafar erromantzekoekin batean aipatu dira (ikus 2.2 atala).

Aztertu den latinaren eta erromantzeen corpusak X. eta XVIII. mendeen artean idatzitako testuak hartzen ditu. Hainbat eratako iturriak izan dira kontuan, bertzeak bertze ohiko hiztegiak (Blaise, 1975; Niermeyer, 1976; Migne, 1977 [1858]), hiztegi etimologikoak (Wartburg, 1929; Ernout & Meillet, 2001; de Vaan, 2008), corpus digitalak (Real Academia Española, 1994; Ricketts *et al.*, 2013; Galves *et al.*, 2017; Guillot-Barbance *et al.*, 2017; Quetglas & Gómez, 2019), testu edizioak (Lazar, 1995; Ramos, 2000; Monreal & Jimeno, 2008; Dworkin, 2018) eta gai honetaz diharduten lanak (Brunot, 1909; Jensen, 1986; Pérez, 2007).

2.1. Iparraldean eta inguruetan

Azpiatal honetako daturik garrantzitsuenak okzitanieratik hartuak dira, hau baita Erdi Arotik gutxienez XVIII. mendearen hondarrera arte, hau da, lan honetan garrantzizkoa den epean zehar, Iparraldeko euskalkietan eragirik handiena izan duen mintzaira (Haase, 1992: 19). Antza denez, Erdi Aroko okzitanieran *edutezko izenordaina* + *co(r)s* ('gorputza') egitura pertsona izenordainaren ordeztu, hots, zentzu anaforikoan erabiltzea zilegi zen, baita ohikoa ere: «*Mos cors* lit. 'mon corps' est une périphrase emphatique pour *ieu*, toute comme *sos cors* et *vostre cors* peuvent servir de substituts pour *el* et *vos*» (Jensen, 1986: 88). Ondorioz, hainbat lan klasikotan horrelako erabilerak kausitzen dira (9a-c, Jensen, 1986: 88):

⁵ Hau, batez ere, historiari begira da egia; egungo joera, gehienbat ahozko euskaran eta orobat erromantzeak eragina, iragangaiztearen erabilera biderkatzeranzkoa da (Euskaltzaindia, 1991: 63).

- (9) a. *per que mos cors las abnega*
 for SUB 1SG.POSS body 3PL.F deny.3SG.PRES
 ‘Nik ukatzen ditudalako’ (Jausbert de Puyciboten olerkia, 5.37, ca. 1230)
- b. *sos cors val ben per*
 3SG.POSS body be.useful.3SG.PRES well for
armas Olivier o Rotlan
 defend.INF Olivier or Roland
 ‘Berak Olivier edo Errolan babesteko balio du’ (*Chanson de la Croisade Albigeoise*, 72.10, ca. 1275)
- c. *meravill me cum vostre cos*
 astonish.3SG.PRES 1SG SUB 2PL.POSS body
s’orguoilla
 REFL=take.pride.3SG.PRES
 ‘Zure harrotzeko moduz miraz nago’ (Comtessa de Diaren olerkia, 2.15, ca. 1210)

Erdi Aroko okzitanierako adibide hauetan (9a-c) *edutezko izenordaina* + *co(r)s* egiturak ez du zentzu hitzez hitzekorik, eta testu bereko aitzineko izaikiei egiten die erreferentzia, ez perpaus berean daudenei. Bertze gisan erranda, egitura hauek balio anaforikoa dute, hitzez hitzekoa edo bihurkaria izan beharrean. Ez da erabat garbi horrelako adibideetan (9a-c) zergatik erabiltzen den egitura hori, ohiko pertsona izenordain soilaren ordeiz. Dirudienez, *edutezko izenordaina* + *co(r)s*-ek, izenordain hutsaren parean, balio adierazkorra du eta, beraz, ardurakoagoa da olerkietan (Kriegel *et al.*, 2019: 335).

Mota honetako (*edutezko izenordaina* + *corps*) testigantzak ez daude, edonola ere, okzitanierara mugaturik. Erdi Aroko eta geroko frantsesean (1100-1800 urteen artean, goiti-beheiti), ahozko aldaeretan eta dialektoetan batez ere, antzekoak ediren daitezke. Honen adibide garbia, bereziki, esaera zaharrek (10a-d) ematen dute (Chaudenson, 1973: 360):

- (10) a. *se traiter bien le corps*
 REFL treat.INF well DEF body
 ‘Nork bere burua ongi zaintzea’ (Antoine Furetière, *Dictionnaire de l’Académie française*, 1694)

- b. *se tuer le coeur et le corps*
REFL kill.INF DEF heart and DEF body
'Esker txarreko ekintzan gogor lan egitea' (*Dictionnaire de Trévoux*, 1704-1771)
- c. *faire litière de son corps*
make.INF litter of 3SG.POSS body
'Nork bere burua arrisku handian paratzea' (Féraud, 1787)
- d. *porter bien son corps*
carry.INF well 3SG.POSS body
'Osasun ona izatea' (*Dictionnaire de Trévoux*, 1704-1771)

Gisa honetako egiturak Erdi Aroko frantsesezko literaturan (11a-b) ere lekukotzen dira, okzitanieran bezalatsu; esanguratsua da, gainera, Anguleman jaio zen baina denbora batez (1525etik 1549ra) Nafarroako erregina izan zen Margaritak anaiari izkiriatu gutunetan ere aurki daitezkeela (11c, Anglade, 1931: 217; Kriegel *et al.*, 2019: 334-336):

- (11) a. *jo cunduirai mun curs en Roncesvals*
1SG drive.1SG.FUT 1SG.POSS body to Roncesvalles
'Neure burua Orreagara zuzenduko dut' (*Chanson de Roland*, 892. b., ca. 1100)
- b. *mais je le fis sor mon cors défendant*
but 1SG 3SG do.PTCP by 1SG.POSS body defend.GND
'Baina neure burua defendatuz egin nuen' (*Huon de Bordeaux*, 1350, ca. 1250)
- c. *l'ennuy que j'ay de ne*
DEF=annoyance SUB 1SG=have.PRES of NEG
pouvoir mener mon corps selon
be.able.INF lead.INF 1SG.POSS body by
ma volonté
1SG.POSS will
'Nik daukadan enbarazua, neure burua nahierara ezin zuzentzeagatik' (Margarita Nafarroakoaren *Gutunak*, ca. 1550)

Okzitanierako (9a-c) eta frantseseko (10a-d, 11a-c) adibide hauek lan honetako hipotesia bermatzeko orduan bi oztopo dituzte: alde batetik, eta gaur egungo euskarazko *buru*-egitura ez bezala, batzuk (9a-c) ez dira bihurkariak, anaforikoak baizik. Bertze aldetik, *gorputz* izena darabilte, ez *buru*. Bi zailtasun hauek datu historikoen eta tipologikoen bidez gaindi daitezke. Lehen oztopoaren kariaz, oroitu beharra dago, autore batzuen arabera, GAIek erabilera anaforikoa hartzea bihurkari markaranzko gramatikalizazio bidean aitzineko urratsa dela (cf. 1.3 atala). Beraz, gramatikalizazio bide honek, teorian behintzat, aurreikusten du euskarazko *buru*-egitura bihurkaria izan baino lehen –edota izan bitartean⁶– anaforikoa izan zela. Hau bera da, hain zuzen ere, XVI. eta XVII. mendeetan Iparraldeko testuetan ikusten dena (12a-b):

(12) a. *hebetic ioan gabe ene buruya eguin vehar duçu ene nahia* (Etxepare, 1980: 206)

b. *ene bekhatuek iragan eta erdiratu dute ene burua* (Axular, 2015: 277)

Esaldi hauetan *ene buruya* eta *ene burua* egiturek ez diote perpaus bereko osagaiari erreferentzia egiten, testuan lehenago aipatutakoei baizik. Horrela bada, *ni* izenordain anaforikoaren ordezkotza daudela erran daiteke, Erdi Aroko okzitanierako eta frantseseko lekukotasunetan bezalaxe. Horrelako testigantzak (12a-b) XVI-XIX. mendera arteko testuetan bakarrik edireten dira eta, hortaz, ongi konpontzen dira *izena* > *anafora* > (*izenordain*) *bihurkaria* gramatikalizazio bidearen proposamenarekin.

Honek bigarren zailtasunera bideratzen gaitu. Honi begira erran beharra dago, lehenik eta behin, bai *gorputz* eta bai *buru* GAIak direla eta morfosintaktikoki (edutezko izenordainari, kasuari, komunztadurari eta abarri begira) jokamolde iduritsua dutela eta, beraz, biak ala biak ikuspegi tipologikotik baliokidetzat, hots, GAIean oinarritutako izenordain bihurkaritzat har daitezkeela. Ondorioz, errepikapen gramatikalizazioan bihurkaria adieraz-

⁶ Osagai gramatikal berak (kasu honetan, euskarazko *buru* izenak) aldi berean gramatikalizazio bide bereko urrats bat baino gehiago (GAia edo hitzez hitzekoa, anaforikoa eta bihurkaria) erakustea usaia da hizkuntza aldaketan. Gertakari honi *geruzatzea* (*layering*) deitu ohi zaio (Hopper, 1991: 22).

teko erabiltzen den GAI jakinaren hautuak ez du izugarrizko garrantzirik, GAIa den bitartean. Bigarrenik, aipatzekoa da Iparraldeko euskalkien historian badirela *gorputz* hitzaren erabilera anaforiko (13a) eta bihurkariaren (13b) etsenplu bakan zenbait:

- (13) a. *ipharra balimbada goraintzi Salari ene khorpitzaren cherkha jin dadila sarri* (Salaberri, 1870, 286)⁷
- b. *gaou batés tripa huzic béré corpusa usthen du escabella baten gaira érorτέρα < Un soir, le ventre vide, il se laissa tomber sur un escabeau* (Aurrekoetxea & Bidegain, 2004, 124)

Azkenik, ez da ahantzi behar Axularrek (2015: 121-122) behin gutienez latineko *corpus* *buru* hitza erabiliz itzultzen duela:

Hala erraiten du Jondone Paulok: *Et si distribuero in cibos pauperum omnes facultates meas, et tradidero corpus meum, ita ut ardeam charitatem, autem, non habuero, nihil mihi potest* (1 Cor. 13). «Dudan guztia probei eman badiazet ere, eta neure burua erratzera utz badezat ere, etzaizkit hek guztiak deus baliatuko, baldin karitaterik <221> ezpadut».

Horrela, bada, eta lan honetako hipotesiaren argitan, proposa liteke euskarara arkaikoan jatorrizko hiztegiko *buru* hitzaren eta erromantzeko *co(r)(p)s*-en artean bazela neurri bateko baliokidetasun semantikoa, (9a-c), (10a-d) eta (11a-c) perpausak euskarara egokitzea eta, ondorioz, errepikapen gramatikalizazioa gertatzea ahalbidetu zuena.

2.2. Hegoaldean eta inguruetan

Aitzineko azpiatalean ez bezala, hemen daturik garrantzitsuenak Erdi Aroko latinetik hartuak dira, hau baita, okzitanierako eta frantseseko per-

⁷ *Atharratzeko gazteluaren kantuaren* ezagutzen den bertsio zaharrenean, Xahok bilduan, *ene tcherca* irakurtzen da (Kaltzakorta, 2017: 134). *Ene tcherca* eta *ene khorpitzaren cherkha* esamoldeen arteko aldakortasun honek adierazten du Salaberriren bertsioan *khorpitz*-ek erranahi anaforikoa izan dezakeela.

pausak lekukotuta dauden garai berean, *buru* eta *gorputz* hitzen erabilera bihurkaria usuenik kausitzen den hizkuntza. Mitxelenak (1992, 674), OEH-ko *buru* hitzaren sarreran, hurrengoa dio: «en documentos latinos próximos al área vasca son frecuentes *hoc caput*, *meo capo*, etc. referidos al que habla». Euskararekin ukipenean zeuden Erdi Aroko latinen aldaerek, beraz, *bere burua* eta *neure burua* erran nahi zuten egiturak erabiltzen bide zituzten perpaus bereko subjektuari erreferentzia egiteko, hots, zentzu bihurkarian. Errenteriako hizkuntzalariak pasartean latineko adibiderik ematen ez badu ere, garai eta alderdi horretako latinean idatzitako testuei begiratua emateak haren oharra berresteko aukera ematen du: XII. mendeko Valpuestako⁸ (Burgos) Andre Maria kodexean, adibidez, *capo*-bihurkarien zenbait adibide (14a-b) ediren daitezke (Ramos, 2000: 66, 78):

- (14) a. *trado meum caput vel vinea*
trade.1SG.PRES 1SG.POSS head for vineyard
mea
1SG.POSS
'Neure burua nire ardantzearen truke aldatuko dut' (Valpuestako Andre Mariako kartularioak, ca. 1094)
- b. *ego Fredulfus episcopus sic conmento*
1SG Fredulfus bishop thus entrust.1SG.PRES
meo capo ad atrium Sancte Marie
1SG.POSS head to house Saint.GEN Mary.GEN
'Nik, Fredulfus apezpikuak, hortaz neure burua Andre Maria etxeari (elizari) uzten diot' (Valpuestako Andre Mariako kartularioak, ca. 1094)

Euskararen Erdi Aroko eremutik pixka bat urrunduz gero, Iberiar penintsulan gutienez bi alderdi gehiagotan ediren daitezke *capo*, *corpus* edota antzeko hitz formetan oinarritutako egitura bihurkariak. Lehen eremua Asturiasen eta Gaztela-Leongo iparraldean dago kokatuta (15a-b, Pérez, 2007: 317). Bigarrena, berriz, Katalunia aldean (15c, Quetglas & Gómez, 2019):

⁸ Onomastika datuek adierazten dutenez, XII. mendean Valpuesta eremu euskaldunetik hurren bide zegoen (Salaberri Zaratiegi, 2018: 298-302).

(15) a. *kapite nostro ponemus ad*
 head.PL 1PL.POSS.PL place.1PL.PRES at
seruiendum atque martir-es tuo-s
 service.DAT as martyr-PL 2SG.POSS-PL
 ‘Geure buruak martiritako paratzen ditugu zure zerbitzuan’
 (Leongo katedrale artxiboko dokumentu bilduma, 983)

b. *omn-es sumus principe-s et duce-s*
 all-PL be.1PL.PRES prince-PL and duke-PL
capitum nostrorum
 head.GEN.PL 1PL.POSS.GEN
 ‘Denok gara geure buruen printze eta duke’ (*Chronica Adefonsi Imperatoris*, 208-218, 1157)

c. *in primis concedo corpus meum*
 in first confer.1SG.PRES body 1SG.POSS
ad domum S. Cucuphati
 to house Saint Cucuphas
 ‘Lehenik eta behin, neure burua done Kukufateren etxeari eman-
 nen diot’ (Sant Cugat del Vallèsko kartularioa, 1097)

Caput-en eta *corpus*-en erabilera bihurkariok (14a-b, 15a-c) Erdi Aroan hitz hauek zentzu adierazkorrean eta anaforikoan ibiltzeko joerarekin zeri-kusi garbia dute (16a-b, Blaise, 1975: 256; Migne, 1977: 619):

(16) a. *corpus reg-is*
 body king-GEN
 ‘Erregea bera (erregearen gorputza)’ (Tomas Aquinokoaren *Summa de veritate catholicae* 4, 84, 1274)

b. *corpus castr-i*
 body castle-GEN
 ‘Gaztelua bera (gazteluaren gorputza)’ (Tomas Rymerrren *Foede-ra*, ca. 1400)

Ondorioz, erran daiteke lekukotze hauek bi kontu agertzen dituztela: alde batetik, Iberiar penintsulako Erdi Aroko latinak euskarak jasan duen *izena* > *anafora* > (*izenordain*) *bihurkaria* gramatikalizazio bide bera egin du,

eta bertzetik, Iberiar penintsulako Erdi Aroko hizkuntzetan hedatua zen *gorputz* eta *buru* hitzak zentzu anaforikoan eta bihurkarian ibiltzeko joera. Izan ere, joera hau bera dokumentatua dago garai bertsuko nafar erroman-tzean (17a), gaztelanian (17b-c), katalanean (17d) eta portugesean (17e, Real Academia Española, 1994; Lazar, 1995; Monreal & Jimeno, 2008, 246; Galves *et al.*, 2017; Quetglas & Gómez, 2019)


- (17) a. *los XII ricos ombres deuen iurar*
 DEF twelve rich men must.3PL.PRES swear.INF
a=l rey de curiar=le el cuerpo
 to=DEF king to protect.INF=3SG DEF body
 ‘Hamabi gizon aberatsek erregeari babestuko dutela zin egin behar diote’ (*Joana II eta Filipe Evreuxkoaren zin-egite agiria*, 1329)
- b. *mi agrauio de mi cuerpo*
 1SG.POSS grievance of 1SG.POSS body
sobre Babilonia
 due.to Babylon
 ‘Nire atsekabea, Babiloniak sortua’ (*Biblia ladinada I-i-3*, ca- 1400)
- c. *más querría que me quisiese como*
 rather want.3SG.COND SUB 1SG love.3SG.SBJ as
a su cuerpo
 AM 3SG.POSS body
 ‘Nahiago nuke bere burua bezala maiteko banindu’ (Melchor de Santa Cruzen *Floresta española*, 276, 1574)
- d. *yo offir lo meu cos a*
 1SG offer.1SG.PRES DEF 1SG.POSS body to
combatre
 fight.INF
 ‘Neure burua borrokatzeko eskaintzen dut’ (*Històries e conquestes del realme d’Aragó e Principat de Catalunya*, B21, ca. 1450)
- e. *ofereçia seu corpo a pelejar*
 offer.3SG.PST 3SG.POSS body to fight.INF
 ‘Bere burua borrokatzeko eskaintzen zuen’ (*Bíblia de Lamego*, ca. 1490)

Ohart bedi irakurlea Iberiar penintsulako erromantzeetako adibideon (17a-e) antzekoak diren *buru* hitzaren erabilera, Hegoaldeko euskalkietan, testurik zaharrenetan ere dokumentatzen direla (18a-c):

- (18) a. *oshoac vere burua mandatariric onaena* (Urkixo, 1919, 50)
- b. *banabil burua ezin sinisturic, erasuna elicaturazat arturic* (Lakarra, 1996, 270)
- c. *Silveroc, au ençun eguien orduan, bere buruari ichi eusan lurrera jausten* (Bilbao et al., 2010: 44)

Hurrengo irudiak Behe Erdi Aroko (X-XV. mendeetako) latinetiko hizkuntzetan *buru* eta *gorputz* hitzen erabilera anaforikoak eta bihurkariak le-kukotuta dauden eremuak erakusten ditu, lan honetarako egin den bilake-taren emaitzen arabera (non gorria = latina; beltza = portugesa; marroia = katalana; laranja = gaztelania; horia = nafar erromantzea; urdina = okzitania eta berdea = frantsesa):

2. irudia. Behe Erdi Aroko erromantzeetan *buru* eta *gorputz* hitzen erabilera anaforikoak eta bihurkariak dokumentatzen diren eremuak (mapa Michaelis et al., 2013-n oinarritua)



Irudian ikus daitekeen moduan, testigantzetatik bi multzok, Valpuestakoek eta nafar erromantzekoek, Behe Erdi Aroan euskara mintzatzen zen alderdiaren barruan izateko aukera handia dute. Bertze lekukotasunak ere ez daude euskal eremutik arunt urruti: gehienak Iberiar penintsulako iparraldean eta egungo Frantziako hegoaldean biltzen dira. Ohartu beharra dago, gainera, hizkuntza hauetatik bakar batek ere ez duela gaur egun *buru* edo *gorputz* hitzetan oinarritutako egitura bihurkaririk: hau bat dator, 1.3 atalean azaldu moduan, Erdi Aroko ER-hizkuntzako (euskarako) hitzunek zeukaten *izena* > *anafora* > (*izenordain*) *bihurkaria* gramatikalizazio bidea E-hizkuntzan (erromantzez) gauzatu zelako ustearekin, eta euskaraz gauzatu bide den aspektu burutugabearen gramatikalizazioaren ildo berekoa da.

Ondorioz, *buru*-egitura bihurkaria erromantzeetatik mailegatua dela sinesteak hurrengo galderara garamatza: eredua zein hizkuntzak osatu zuen eta, beraz, berrikuntza zein euskalkitan agertu zen lehenbizi? Honi begira, hiru aukera nagusi dirateke: (a) lehenik Iparraldeko euskalkiek hartu zuten *buru*-bihurkarienezako eredua, okzitanieratik; (b) lehenik Hegoaldeko euskalkiek hartu zuten eredua, latinetik, gaztelaniatik edota nafar erromantzetik; (c) Iparraldeko eta Hegoaldeko euskalkiek aldi bertsuan hartu zuten eredua, hizkuntza desberdinetatik.

Aurreko atalean agertu moduan, Erdi Aroko okzitanieran ez dago *buru* hitzean oinarritutako egitura anaforikorik, ez bihurkaririk, *gorputz* ibiltzen dutenak baizik; *buru* eta *gorputz*, biak ala biak, GAIak eta ondorioz tipologikoki baliokideak badira ere –har bedi gogoan Axularren latineko itzulpena–, *buru* ez agertze horrek lehen (a) hipotesia onartzea zailtzen du. Hirugarren (c) proposamenak ere ez du arras sinesgarria ematen, kasualitate handiegia baitirudi erromantze desberdinek, zeinek bere alderdian, euskaran eragin bera izateak.

Bigarren (b) iradokizuna, berriz, hiru puntuk bermatzen dute: lehenik eta behin, Erdi Aroko mintzairen artean bakarrik Pirinioetatik hegoaldeko latinak erakusten ditu *buru* hitzaren zalantzarik gabeko erabilera bihurkariak; bigarrenik, hizkuntza honetako testigantzak (Valpuestakoak, batez ere) euskararen eremutik gainerako gehienak baino hurbilagokoak dira; eta, hirugarrenik, *buru* hitzaren erabilera anaforiko ia denak Iparraldean baizik ez ditugu. Hau kasualitatea dateke menturaz, baina iradokitzen du Iparraldeko

euskalkiek *izena* > *anafora* > (*izenordain*) *bihurkaria* gramatikalizazio bidea Hegoaldekoen ondotik eta, beraz, mantsoago egin zutela. Ondorioz, pentsa liteke egitura hau garatzen lehenak Hegoaldeko euskalkiak izan zirela, eta berrikuntza bertatik Iparraldera hedatu zela. Proposamen honek euskararen historiarako izan ditzakeen ondorioak hurrengo atalean azalduko dira.

3. Egitura bihurkarien historiaz eta aitzin-historiaz

Aurreko atalean argudiatu da euskarak *buru*-egitura bihurkaria erroman-tzeekiko ukipenaren ondorioz, errepikapen gramatikalizazio bidez eta menturaz Behe Erdi Aroan garatu zuela. Orain arte munduko hizkuntzez ezaguna dena oinarri hartuta, bihurkaritasuna adieraztea ezaugarri unibertsala dela uste denez gero⁹ (Geniušienė, 1987, 152), honako galdera hau egin dezakegu: euskarak, *buru*-egitura gramatikalizatu aitzin, zer baliabide zuen bihurkaritasuna adierazteko?

Euskarak egun dituen bihurkari marketatik (1a-c), eta *buru*-egitura alde batera utzita, ez da lehen testigantzen aitzineko garairako iragangaiztea (1b) ez berreraikitzeak arrazoirik. Ikuspegi hau bermatzen duten bi zergatik dira aipagarriak: alde batetik, aurreneko lekukotasunetatik egungo egoerara arte euskararen aditz sistema errotik aldatu bada ere (Mounole, 2011, v; Lakarra, 2018: 25), bihurkaritasuna adierazteko aditza iragangaiztea testurik zaharretan eta hizkuntzaren historia idatzi osoan zehar aurki daiteke (19a-c):

- (19) a. *lohi eçarri vkan draut neure beguén gainera, eta garbitu naiz, eta ikusten dut* (Leizarraga, 1990: 640)
- b. *eçagutcen dut, aitortcen, eta confessatcen leguesqui edireiten eta eracusten naicela hobēduri iaincoaren majestate offensatuaz* (Pouvreau, 1664: 74)
- c. *Andra Menina Arandañoco (zein zan bere lengusina) eracusi zan encargù onetan ondo debotèa eta fina* (Zuloaga, 2015: 186)

⁹ Ohartu beharra dago (a) bihurkaritasuna adieraztea eta (b) bihurkaritasuna adierazteko baliabide bereziak izatea gauza bana direla: izan ere, badira (b) bezalakorik ez daukaten hizkuntzak (Haspelmath, 2008: 43).

Bertze aldetik, eta batez ere Iparraldeko euskalkiei begira, iragangaiztea XVI. eta XVII. mendeetan egungo euskaran baino gehiagotan erabiltzen da bihurkaritasuna adierazteko (Mounole, 2011: 147; Salaberri Izko, 2020: 23). Maiztasuna aintzat edukirik, hizkuntza-aldaketan ezaugarri batek bertzea ordezkatzeko duenean, osagairik zaharrenaren agerraldiak denborarekin murrizten dira, desagertu edo gramatikaren bazterreko eremuetan fosilizatu arte (Bailey, 1973: 77; Kroch, 2001: 720). Hartara, eta –nahiz eta egungo ahozko hizkuntzan joera berriz ere gibeleratekoa izan– *buru*-bihurkariak neurri batean ordezkatu duela onartuz gero, pentsa daiteke lehenbiziko testigantzen aurreko euskaran bihurkaritasuna adierazteko iragangaiztea hedatuta zegoela. Gauza bera erran daiteke (1c) moduko *bihurkari ahulez*: honelakoan testigantzak XVI-XVII. mendeetan ez dira gutitan kausitzen (20a-c):

- (20) a. *eta nolaco baitaite hitz hau bakhotcharentçat, hau berori adituren du orduan beretçat* (Etxeberri Ziburukoa, 1981: 174)
- b. *etzaretela bada arthatsu biharamunaz: ecen biharamunac beretaco artha vkanen du* (Leizarraga, 1990: 301)
- c. *eçe berac içanen baitirade beretaco borrero cruelac* (Berriain, 1626: 15)

Azkenik, euskara arkaikotik lehenbiziko euskara modernorako bidean *guzti* + *-au/-ori* egituraren erabilera anaforikoak (21a-b) eta bihurkariak (21c-d) aurki daitezke mendebaldeko testuetan¹⁰:

- (21) a. *arren, esaçu guztiau çurea nax ta erraz daguiquet* (Bilbao et al., 2010: 77)
- b. *ene guztiau ceure eguin eguiçu* (Bilbao et al., 2010: 151)
- c. *baneroean echurea, chitez guztiau galduric* (Lazarragaren B eskuizkribua)¹¹
- d. *vaquiçu zurea orain gustiau naçana* (Sarasola, 1983: 88)

¹⁰ Eneko Zuloaga, ahozko adierazpena.

¹¹ Hemen eskuragarri: <https://klasikoak.armiarma.eus/lazarraga/trans055.htm>.

Laburbilduz, Behe Erdi Aroan *buru*-egitura hizkuntza-ukipenaren ondorioz gramatikalizatu aurretik ere, ematen du euskarak, hizkuntza-tipologiaren argitan, bihurkaritasuna adierazteko egungoa bezain sistema konplexua, hots, hiru baliabidek (iragangaizteak, *bihurkari ahulek* eta *guxti + izenordain erakuslea* egiturak) osaturikoa zuela. Lan honetan azaldutako datuek, gainera, aurreko zenbait lanetakoekin batera (Sarasola, 1979; Mounole, 2011; Evseeva & Salaberri, 2018; Salaberri Izko, 2020), euskaraz bihurkaritasuna adierazteko izan diren baliabideen kronologia ezartzea ahalbidetzen dute:

(22) Euskarazko bihurkarien kronologia

- a. Behe Erdi Aroa arte: iragangaiztea, *bihurkari ahulak*, *guxti + izenordain erakuslea* egitura (azkena mendebaldean bakarrik (?)).
- b. Behe Erdi Aroa: *buru*-egitura bihurkariaren sorrera, errepikapen gramatikalizazioz.
- c. XVI-XIX. mendeak: *guxti + izenordain erakuslea* egituraren gain-behera, *buru*-egituraren erabilera anaforikoen azkeneko lekuko-tzeak.
- d. XVIII. mendea: edutezko izenordain bihurkarien eta ohikoen arteko bereizketa (Linschmann-Aresti legea) galtzea.
- e. XIX-XXI. mendeak: iragangaiztearen pixkanakako murriztapena (idatziz bakarrik), *buru*-ren eta aditzaren arteko numero komunztadurak nahitaezkotasuna galtzea.

Datuok, alde batetik, Erdi Aroko euskararen ikuspegi garbiagoa ematen dute, orain arte egin diren proposamenek (Reguero, 2012; Salaberri Zaratiegi, 2018) kontuan hartu ez duten gramatikaren alderdia azaltzen dutelako. Bertze aldetik, euskararen historia argitzeari ekarpena egiten diote, bihurkaritasunaren garapena ere ez baita gramatika historikoetan (Trask, 1997; Gorrotxategi *et al.*, 2018) aintzat eduki.

4. Ondorioak

Lan honetan, munduko hizkuntzen datuak oinarri hartuta, erakutsi da euskarazko *buru* hitzean oinarritutako egitura bihurkaria duen hizkuntza

bakanetakoa dela. Hau, joera tipologiko unibertsalei ez ezik, hizkuntza-ukipen egoera historikoari ere zor zaiola proposatu da. Zehazkiago erran, euskarak *buru*-bihurkaria erromantzeekilako ukipenari zor diola adierazi da, eta prozesu hau errepikapen gramatikalizazio delakoaren bidez gertatu zela. *Buru*-egituraren iturriari begira, Behe Erdi Aroko latinetik mendebaldeko euskarara zabaldu zatekeen, eta hortik, denbora tarte ez oso luzean, gainerako euskalkietara, hipotesirik sinesgarrienaren arabera betiere. Proposamen hau kontuan izanik, bihurkaritasuna adierazteko baliabideek euskararen historian izan duten garapenaren kronologia, eta euskarak Erdi Aroan ukan dituzkeen bihurkaritasuna bideratzeko eskuartearen ikuspegia aurkeztu dira. Azkenik, datu hauek aurretzean euskararen (aitzin-)historia berantiarra deskribatzeko saioa egiten duten lanek kontuan hartu beharko lituzketela nabarmendu da.

Aipatu lanak

Aikhenvald, Alexandra & Dixon, Robert, 2007, *Grammars in contact: a cross-linguistic typology*. Oxford: Oxford University Press.

Anglade, Joseph, 1931, *Grammaire élémentaire de l'ancien français*. Bosgarren argitalpena. Paris: Armand Colin.

Aurrekoetxea, Gotzon & Bidegain, Xarles, 2004, *Haur prodigioaren parabola Ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Axular, 2015, *Gero*, Blanca Urgellen edizioa. Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.

Bailey, Charles-James, 1973, *Variation and linguistic theory*. Washington: Center for Applied Linguistics.

Beriain, Juan, 1626, *Doctrina christiana escrita en romance y bascuence*. Iruñea: Carlos de Labayen.

Bickel, Balthasar; Comrie, Bernard & Haspelmath, Martin, 2015, *Leipzig glossing rules*. Hemen eskuragarri: <https://www.eva.mpg.de/lingua/resources/glossing-rules.php>.

Bilbao, Gidor; Gómez, Ricardo; Lakarra, Joseba A.; Manterola, Julen; Mounole, Céline & Urgell, Blanca, 2010, *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Blaise, Albert, 1975, *Dictionnaire latin-français des auteurs du Moyen-Âge*. Turnhout: Brepols.

Brunot, Ferdinand, 1909, *Histoire de la langue française des origines à 1900, Volume 3, La formation de la langue classique*. Paris: Armand Colin.

Chaudenson, Robert, 1973, «Pour une étude comparée des créoles et parlers français d'outre-mer: survivance et innovation», *Revue de Linguistique Romane*, 147/148, 342-371.

Dworkin, Steven, 2018, *A guide to Old Spanish*. Oxford: Oxford University Press.

Ernout, Alfred & Meillet, Antoine, 2001, *Dictionnaire étymologique de la langue latine: histoire des mots* (laugarren argitalpena). Paris: Klincksieck.

Etxeberri Ziburukoa, Ioannes, 1981, *Manual devotioñezcoa*. Patxi Altunaren edizioa. Bilbo: Euskaltzaindia & Ediciones Mensajero.

Ettxepare, Bernat, 1980, *Linguae vasconum primitiae*. Patxi Altunaren edizioa. Bilbo: Euskaltzaindia.

Euskaltzaindia, 1991, *Euskal gramatika lehen urratsak-I*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Evseeva, Natalia & Salaberri, Iker, 2018, «Grammaticalization of nouns meaning “head” into reflexive markers: a cross-linguistic study», *Linguistic Typology*, 22(3), 385-435.

Faltz, Leonard, 1977, *Reflexivization: a study in universal syntax*. University of Californiako doktore tesia.

Galves, Charlotte, de Andrade, Aroldo & Faria, Pablo, 2017, *Tycho brahe parsed corpus of historical Portuguese*. Hemen eskuragarri: <http://www.tycho.iel.unicamp.br/~tycho/corpus/texts/psd.zip>

Geniušienė, Emma, 1987, *The typology of reflexives*. Berlin & New York: de Gruyter.

Gorrotxategi, Joakin; Igartua, Iván & Lakarra, Joseba A. (arg.), 2018, *Euskara-ren historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Guillot-Barbance, Céline; Heiden, Serge & Lavrentiev, Alexei, 2017, *Base de français médiéval*. Hemen eskuragarri: <http://bfm.ens-lyon.fr/>.

Haase, Martin, 1992, *Sprachkontakt und Sprachwandel im Baskenland: die Einflüsse des Gaskognischen und Französischen auf das Baskische*. Hamburgo: Helmut Buske.

Haspelmath, Martin, 2008, «A frequentist explanation of some universals of reflexive marking», *Linguistic Discovery*, 6(1), 40-63.

Heine, Bernd, 1999, «Polysemy involving reflexive and reciprocal markers in African languages», in Zygmunt Frajzyngier & Traci Curl (arg.), *Reciprocals: forms and functions*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 1-29.

Heine, Bernd & Kuteva, Tania, 2003, «On contact-induced grammaticalization», *Studies in Language*, 27(3), 529-572.

———, 2005, *Language contact and grammatical change*. Cambridge: Cambridge University Press.

Hopper, Paul, 1991, «On some principles of grammaticalization», in Elizabeth Traugott & Bernd Heine (arg.), *Approaches to grammaticalization, Volume I, Focus on theoretical and methodological issues*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 17-35.

Hopper, Paul & Traugott, Elizabeth, 2003, *Grammaticalization*. Cambridge: Cambridge University Press.

Jensen, Frede, 1986, *Syntaxe de l'ancien occitan*. Tübingen: Niemeyer.

Kaltzakorta, Jabier, 2017, *Euskal baladak: azterketa eta edizio kritikoa I*. Bilbo: Labayru Fundazioa & Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.

Kazenin, Konstantin, 2001, «Verbal reflexives and the middle voice», in Martin Haspelmath, Ekkehard König, Wulf Oesterreicher & Wolfgang Raible (arg.), *Language typology and language universals: an international handbook, Volume 2*. Berlin & New York: de Gruyter, 916-927.

König, Ekkehard, 2007, «Vers une nouvelle typologie des marques réfléchies», in André Rousseau, Didier Bottineau & Daniel Roulland (arg.), *L'énoncé réfléchi*. Rennes: Presses Universitaires de Rennes, 107-129.

König, Ekkehard, & Siemund, Peter, 2000, «Intensifiers and reflexives: a typological perspective», in Zygmunt Frajzyngier & Traci Curl (arg.), *Reflexives: forms and functions*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 41-74.

Kriegel, Sibylle, Ludwig, Ralph & Pfänder, Stefan, 2019, «Dialectes - créolisation - convergence», in Andreas Dufter, Klaus Gröbl & Thomas Scharinger (arg.), *Des parlers d'oil à la francophonie: contact, variation et changement linguistiques*. Berlin & Boston: de Gruyter, 299-348.

Kroch, Anthony, 2001, «Syntactic change», in Mark Baltin & Chris Collins (arg.), *The handbook of contemporary syntactic theory*. Londres: Blackwell, 699-729.

Kuteva, Tania; Heine, Bernd; Hong, Bo; Long, Haiping; Narrog, Heiko & Rhee, Seongha, 2019, *World lexicon of grammaticalization*. Bigarren argitalpena. Cambridge: Cambridge University Press.

Lakarra, Joseba A., 1996, *Refranes y sentencias (1996): ikerketak eta edizioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, 1997, «Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri», *ASJU*, 31(2), 447-535.

———, 2005, «Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco», *Acta Palaeohispanica*, 9, 407-470.

———, 2018, «Euskararen historiaurrea», in Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritz, 23-230.

Lazar, Moshe, 1995, *Biblia ladinada: escorial I. J. 3*. Wisconsin: Hispanic Seminary of Medieval Studies.

Lehmann, Christian, 2015, *Thoughts on grammaticalization*. Hirugarren argitalpena. Berlin: Language Science Press.

Leizarraga, Joanes, 1990, *Jesus christ gure iaunaren testamentu berria, othoitza ecclesiasticoen forma, catechismea, kalendrera, ABC edo christinoen instructionea*. Theodor Linschmannen eta Hugo Schuchardten edizioa. Bilbo: Euskaltzaindia.

de Lorris, Guillaume & de Meun, Jean, 1920, *Le roman de la rose, Volume 4*. Ernest Langloisen edizioa. Paris: Librairie de Firmin-Didot.

Michaelis, Susanne; Maurer, Philippe; Haspelmath, Martin & Huber, Magnus, 2013, *Atlas of pidgin and creole language structures online*. Leipzig: Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology. Hemen eskuragarri: <https://apics-online.info/>.

Migne, Jacques, 1977 [1858], *Lexicon manuale ad scriptores et infimae latinitatis*. Paris: Jacques Migne.

Mitxelena, Koldo, 1963, *Lenguas y protolenguas*. Salamanca: Salamancako Unibertsitatea.

———, 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Donostia: Auñamendi.

———, 1992, *Orotariko euskal hiztegia, Volume 5, Berr-Daf*. Bilbo; Desclée de Brouwer & Euskaltzaindia & Mensajero.

Monreal, Gregorio & Jimeno, Roldán, 2008, *Textos histórico-jurídicos navarros, Volume 1, Historia antigua y medieval*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

Mounole, Céline, 2008, «Perifrasi zaharra mendebalde eta erdialdeko euskara zaharrean: azterketa kuantifikatiboa eta proposamen berria», *ASJU*, 41(1), 67-138.

———, 2011, *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitateko doktore tesia.

Niermeyer, Jan, 1976, *Mediae latinitatis lexicon minus: a Medieval Latin-French/English dictionary, Volume 1*. Leiden: Brill.

Pérez, Estrella, 2007, «Caput in the Medieval Latin from Asturias and León», *Listy Filologické*, 130-3/4, 311-328.

Pouvreau, Sylvain, 1664, *San Frances de Sales Genevaco ipizpicvaren philothea*. Paris: Claude Audinet.

Puddu, Nicoletta, 2005, *Riflessivi e intensificatori: greco, latino e le altre lingue indoeuropee*. Pavia: Università di Pavia.

Quetglas, Pere & Gómez, Ana, 2019, *Corpus documentale latinum Cataloniae*. Hemen eskuragarri: <http://gmlc.imf.csic.es/codolcat/>

Ramos, Emiliana, 2000, *Los cartularios de Santa María de Valpuesta: análisis lingüístico*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Real Academia Española, 1994, *Corpus diacrónico del español*. Hemen eskuragarri: <http://corpus.rae.es/cordenet.html>.

Reguero, Urtzi, 2012, «Erdi Aroko euskararen historia kanpotik eta barnetik», *ASJU*, 46(2), 63-160.

Ricketts, Peter; Akerhurst, Ron & Reed, Alan, 2003, *Concordance de l'occitan médiéval*. Birmingham: University of Birmingham.

Rijk, Rudolf de, 2008, *Standard Basque: a progressive grammar*. Cambridge & Londres: Massachusetts Institute of Technology Press.

Salaberri, Jean-Dominique-Julien, 1870, *Chants populaires du Pays Basque*. Baiona: Lamaignère.

Salaberri Izko, Iker, 2020, «Grammaticalization of reflexivity in Basque: a corpus-based diachronic and typological analysis», *Journal of Historical Linguistics*, 10(1), 1-41.

Salaberri Zaratiegi, Patxi, 2018, «Euskara Erdi Aroan», in Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 287-344.

Salvi, Giampaolo, 2011, «Morphosyntactic persistence», in Martin Maiden, John Smith & Adam Ledgeway (arg.), *The Cambridge history of the Romance languages, Volume 1, Structures*. Cambridge: Cambridge University Press, 318-381.

Sarasola, Ibon, 1979, «Nire/neure, zure/zeure literatur tradizioan», *Euskera*, 25(2), 431-466.

———, 1983, «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», *ASJU*, 17, 69-212.

Schladt, Matthias, 2000, «The typology and grammaticalization of reflexives», in Zygmunt Frajzyngier & Traci Curl (arg.), *Reflexives: forms and functions*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 103-124.

Szent-Ivány, Béla, 1964, *Der ungarische Sprachbau: eine kurze Darstellung mit Erläuterungen für die praxis*. Leipzig: VEB Verlag Enzyklopädie.

Thomason, Sarah, 2001, *Language contact*. Edinburgh: Edinburgh University Press.

Trask, Robert, 1997, *The history of Basque*. Londres: Routledge.

Urkixo, Julio, 1919, *El refranero vasco, Volume 1, Los refranes de Garibay*. Donostia: Martin, Mena y Compañía.

Vaan, Michiel de, 2008, *Etymological dictionary of Latin and the other Italic languages*. Laiden & Boston: Brill.

Väänänen, Veikko, 1967, *Introducción al latín vulgar*. Manuel Carrión itzulpena. Madril: Editorial Gredos.

Viti, Carlotta, 2009, «Anaphorische und reflexive Strukturen im Altgriechischen und im Lateinischen», *Indogermanische Forschungen*, 114, 143-172.

Wartburg, Walter von, 1929, *Französisches etymologisches Wörterbuch: eine Darstellung des galloromanischen Sprachsatzes*. Bonn: F. Klopp.

Weiss, Michael, 2009, *Outline of the historical and comparative grammar of Latin*. Ann Arbor & New York: Beech Stave Press.

Ziegeler, Debra, 2017, «Historical replication in contact grammaticalization», in Daniel Van Olmen, Hubert Cuyckens & Lobke Ghesquière (arg.), *Aspects of grammaticalization: (inter)subjectification and directionality*. Berlin & Boston: de Gruyter, 311-352.

Zuloaga, Eneko, 2015, «Diego Lorenzo Urkizuren 1740ko zortzikoak», *ASJU*, 49(1/2) 179-201.

Mikelestorenaren *Zerura nahi duenak* liburuaren edizioak mintzo

**Sobre las diferentes ediciones del libro
de Mikelestorena *Zerura nahi duenak***

**Sur les différentes éditions du livre de Mikelestorena
*Zerura nahi duenak***

**About the different editions of Mikelestorrena's book
*Zerura nahi duenak***

SALABERRI MUÑO, Patxi
patxi.salaberri@ehu.eus

Noiz jaso: 2020-02-11

Noiz onartua: 2020-05-30

Agerikoa da ez dela Mikelestorenarena ikertzaileen arreta erakarri duen obra, eta ez soil-soilik liburuaren izaera erlijiosoagatik edota bere literatur estatus subalternoagatik. Horrek guztiak ikerketa-idorte horretan franko lagundu badu ere, nabarmena da baduela azterketarako esparru historiko-ideologikotik eta hizkuntzari dagokionetik harago doan interesik; alegia, edizioen katramilaren ingurukorik, batetik, eta ingurune eta abagune politikoekiko mendekotasunari buruzkorik, bestetik. Hipotesiak eta zalantzak tarteko, auzi horien guztien gaineko ikuspegi orokorraren jorraketa aurkezten du artikulua honek. Liburuaren bilakaeraren eta bariazio guztien berri ematen duen bertsioa erantsiko da amaieran, edizio ezagun oroz osatua.

Gako-hitzak: Euskal literatura, XVIII, Mikelestorena, *Zerura nahi duenak*, edizio-eraketa.

Es notorio que no ha sido la obra de Mikelestorena de especial interés para los investigadores, y no solo por su carácter religioso o por su estatus literario subalterno. Si bien es verdad que los factores citados han contribuido a esa carencia, no es menos cierto que la obra tiene interés más allá del ámbito histórico-ideológico y lingüístico. Es decir, por un lado tenemos los quebraderos de cabeza que generan sus diferentes ediciones, y por otro lado, el que hace referencia a su subordinación a un determinado contexto político. Entre hipótesis y dudas, el artículo presenta una propuesta de visión general sobre las circunstancias que rodean a esta obra. Al final se muestran todas las ediciones conocidas de ella, detallando cuál ha sido su desarrollo y las variaciones que ha habido.

Palabras clave: Literatura vasca, XVIII, Mikelestorena, *Zerura nahi duenak*, comparación de ediciones.

Il est clair que l'œuvre de Mikelestorena ne revêt pas d'intérêt particulier pour les chercheurs, qu'il s'agisse de son caractère religieux ou de sa valeur littéraire mineure. Même si ces aspects ont contribué à ce manque d'intérêt, il est pourtant certain que cette œuvre revêt un intérêt allant bien au-delà des domaines historique, idéologique et linguistique. Nous avons d'une part ceux qui ont publié les différentes éditions, et d'autre part l'édition qui fait référence à sa subordination à un contexte politique précis. Entre hypothèses et doutes, cet article propose une vision générale sur les circonstances qui entourent cette œuvre. À la fin de l'article sont citées toutes les éditions connues de cette œuvre où l'on voit son évolution et ses variations.

Mots-clés : Littérature basque, XVIII, Mikelestorena, *Zerura nahi duenak*, comparaison des éditions.

It is obvious that Mikelestorena's book fails to attract the attention of scholars, and not only for reasons related to his religious character or his subordinate literary status. However,

it is necessary to underline that, in addition to its historical-ideological and linguistic interest, the work does not lack notorious elements of analysis, both referred to the editions made and to the situation of subordination of the book with respect to the political juncture. Among hypotheses and certainties, this article presents a general review of Mikelestorena's work in its most fundamental aspects. It is accompanied by an annex that, based on the five known editions, accounts for all textual variations.

Keywords: Basque literature, XVIII, Mikelestorena, *Zerura nahi duenak*, edizio-erkaketa, edition-comparison.

1. Mikelestorena: bi zertzelada biografiko

Jose Antonio Mikelestorena Endara –liburuetan, *Joseph Miquelestorena*– Lesakan jaioa da 1710ean. Erlijio-bidea hautatu eta Iruñean burutu zituen hartarako ikasketak. Apaiztu ere, nafar hiriburuan egin zuten apaiz, hogeita lau urte zituela. Ondoren, Irunen eta Donostian aritu zen abade zenbait urtez, harik eta Lesakara itzultzeko aukera izan zuen arte. Bertan hil zen 1785ean.

Haren bizitzaz eta mirakuluez albiste gehiegirik egon ez arren, badakigu Sebastian Mendibururen laguna edo lankidea izan zela garai batez behintzat. Oartzuarrak eman zituen berria eta data:

(...) dirè aun más en boda de Don Luis Arburu respetable Beneficiado del mismo Oyarzun, y digno de fe (...). Este pues, haviendo oido en una mission, que *el año de 1745* hizè alli, quanto dije à cerca de las danzas –apenas he dicho tanto en parte alguna sobre el asumpto– dijò a *Miquelestorena*, que (...) *era entonces mi compañero* (...). (P. Altuna, 1982, II: 373; geurea da letra etzana¹)

Eta jesulagunak berak eskaini zigun oharkizun hartan Mikelestorenaren ideologi soslaiaz falta zitzaigun ukitua:

Aunque hay tamboril que convida todos *los días de fiesta en Lesaca*, se puede decir, que *no ha havido allí danzas estos 28 años [1737-1765 bitartean, alegia] por la oposición, que les haze don Joseph Antonio Miquelestorena*. (P. Altuna, 1982, II: 372; g.l.e.)

Hau da, Larramendik gordinki kritikatu zuen Mendiburu bera bezain hertsia eta intrantsigentea, agidanez, herriko dantzen aurrean.

¹ Aurrerantzean: g.l.e.

Munta gutxiagoko idazki banaka batzuk kenduta², *Zerura nahi duenak har dezakeen bide erraza*³ izenda genezakeen liburua da ezagutzen zaion bakarra. Edo zehatzago esanda, liburu bakarra, baina edizio anitzekoa aldi berean.

Guk dakigula, bost aldiz inprimarazi zen liburua, denak ñabardura edo bereizgarriren batez edo bestez hornituak. Izan ere, ohiko argitalpen finko eta aldagabearen kaleratze ugariaren lekuan, Mikelestorenak edizio guztietara hedatu zituen moldaketa-aldaketok, oso xumeak gehienetan⁴, baina arreta berezia eskatzen duenik saihestu gabe.

Bada, bereizgarrien ildo horretan, nabarmendu beharrekorik, batik bat azken edizioari dagokiona eta, geure ustez, garaiko dinamika politiko-erlijiosoarekin estu uztarturik dagoena. Alderdi linguistiko-filologikotik aztertuta, ez da hura, ziurrenik, interes gehien sorraraz lezakeena, baina bai, zalantzarik gabe, ikuspuntu ideologikotik begiratuta, garai hartako egoeraren lekuko aratz bilakatzen baitu horrek liburuttoa. Baina ez gaitezen premiarik gabe aurrera, lerro batzuk beherago helduko zaio-eta gaiari.

2. Oharkizun bibliografikoa

Manuel Larramendi hiltzean haren gelan aurkitu omen zuten 1744ko edizioa albora utzita⁵, bost dira, Altzolak jaso bezala⁶, egunotara iritsi

² Baldin munta gutxiagokoa bada 1544an luzatutako «diploma matriz referente á la fundación del convento de Hernani, escrito en latin» delakoaren gaztelaniazko itzulpena: «La traducción fué hecha en 29 de Agosto de 1767 por D. José Antonio Miquelestorena, notario apostólico; y (...) capellán mayor de las Carmelitas de San Sebastián y luego beneficiado de la parroquia de Lesaca y director del nuevo convento de esta orden en la misma villa» (Arzak & Soraluze, 1894: 574-575). Beranduago, 1768an, hitzaurre gisako bat atondu zion gaztelaniaz Hernaniko moja agustindarren erregelaren edizioari (ik. J. M. Bidador, 1999).

³ Artikulu honen idazpuruan bertan erakutsi bezala, Mikelestorenaren liburuaz era generikoan mintzatzean, izenburu bateratu-eguneratua erabiltzea hobetsi dugu.

⁴ Grafiari, ortografiari eta aditz-formei dagozkienak nagusiki: *nai/nay*, *biotz/bihotz*, *det/dut*, *zara/zera*, *dezaquen/dezaquean*, etab.

⁵ Irakurketa-akats bati zor bide baitzaio haren albistea. Ikus, halere, P. Altuna, 1984: 81.

⁶ Mikelestorenaren liburuari buruz: «(...) ha obtenido, por lo menos, cinco ediciones: dos no fechadas y otras tres en los años 1749, 1751 y 1754. No tengo más noticias que de estas ediciones verificadas las cinco en Pamplona» (Alzola, 1967-1979: 245).

zaizkigun edizioak, azken biak datarik gabe kaleratuak. Honako hauek, hain zuzen⁷:

A

Cerura nai duenac ar dezaquean vide erraza, D. Joseph Miquelestorenac eracutsia. Bear bezala. Iruñeco Martinez libruguillearen ondorengoan Echean. 1749.

B

Cerura nai duenac ar dezaquean vide erraza, Don Joseph Miquelestorenac eracutsia. 1751. Urtean. Behar bezala, Iruñean: Geronimo Anchuela, Libru guilearen Echean.

C

Cerura nayduenac ardezaquean, vide erraza. D. Joseph Miquelestorenac, Lesacaco Apezac eracusten duena. Bear diran baimenaquin. Iruñean: Martin Joseph Radaren Echean, 1754 urtean.

X

Cerura nai duenac ar dezaquen vide erraza, Don Joseph Miquelestorenac aguertua. Behar bezala. Iruñean: Martin Joseph Rada-ren Echean.

Z

Cerura nayduenac ardezaquean, vide erraza. Don Joseph Miquelestorenac, Lesacaco Apezac eracusten duena. Bear diran baimenaquin. Iruñean: Longás Echean.

Ohikoa izan da –eta ohikoa da oraindik ere– inprimatze-urtea zehaztu gabe kaleraturiko bi argitalpenok kronologikoki ere azkentzat eta, hurrenez hurren, gainerakoen ondokotzat hartzea⁸. Beste zerbait proposatuko da hemen, ordea, ausardia barkatzen bazaigu bederen.

⁷ Identifikazioak errazteko, aurrerantzean alfabetoko lehen hizki larriak (A, B, C, X eta Z) baliatuko ditugu edizio desberdinak aipatzean.

⁸ Hala-hola datatuak badira ere, edizio bi hauen transkribapenak <<http://www.vc.ehu.es/gordai-lua/HomePage.html>> delako estekan aurki daitezke. Berdin esan daiteke 2010etik aurrera sarean kontsultagai dauden originalen datazioaz (ikus *Bibliografia* atala).

Oroitarazi behar da, bestalde, bere garaian liburu arrakastatsua suertatu zen arren, ez zitzaiola geroztik bestelako ediziorik prestatu; harrigarriro, dena den. Horren ustezko arrazoietan ere arakatu nahiko genuke hemen.

Erantsi dezagun, azkenik, oso gutxi direla egun ezagutzen diren aleak, hain zuzen ere, guk dakigula, ale bana besterik ez baita gordetzen edizio gehienetatik, eta haietako bat, zoritxarrez, ia oroigarri aurritu huts bilakatua.

3. Edizio datatuak

3.1. A edizioa [Martinez, 1749]

Argitaratze-data eransten duten edizioen artean, Martinezen ondorengoek 1749an kaleratutako A edizioari dagokio egun Donostiako Udal Liburutegian eskuragarri dagoen alea. Ongi zaindua eta osorik mantendua, egokiro apailatutako argitalpen batez mintzo dira haren orrialdeak. Diogun bidenabar, Alzolak bezala⁹, guk geuk ere ez dugula argitalpen horren beste alerik ezagutzen.

Formatuaren aldetik txikia¹⁰ eta irudi zenbaitez hornitua, oso era orekatuan eskaintzen da testua, izan ere, orrialdeen neurriaren arabera taxututa ematen baitira atal asko, bereziki *Meza enzuteco modua* delakoari dagozkionak¹¹.

⁹ Badirudi ale honetaz ziharduela Alzolak honako hau idaztean: «El único ejemplar de esta edición que conozco pertenece al farmacéutico iruñés, residente en San Sebastián, don Jesús Cilveti Azparren. Lo adquirió por la considerable suma de cinco mil pesetas, hace no muchos años» (Alzola, 1967-1979: 245).

¹⁰ Honela mintzo da Alzola liburutxoaz: «114 páginas, 0,10 x 0,07 m. Lleva abundantes viñetas, bien ejecutadas. En las páginas 95-109 se inserta una Novena al Corazón de Jesús (*Jesusen Biotzaren bederatzurrena*), y en las páginas 110-114, estrofas cantables que comienzan: *Gure gusto, gure atseguin, / Gure Jesus maytea; / Cere Biotceco Suan / erre zazu gurea*» (Alzola, 1967-1979: 245). Ideia azkar bat egin dezakete irakurleek, hogeita hamarna inguru karaktereko hamazortzi lerroz osatutako orrialde-eredua irudikatzen badute.

¹¹ Edizio horretako irudiak direla eta, onar bekigu paratestuen inguruko aztertze-lerro bat irekitzeko balio lezakeen oharñoa: Mikelestorenaren *Meza enzuteco modua* atala hornitzen dituzten irudiak bezalakoak dira –antz handikoak, esan nahi baita– 1821ean Bartzelonan argitaratu zen *Meditaciones para el Santo Sacrificio de la Misa* liburuan ageri direnak. Izan ere, liburu anonimoaren

Hurrengo argitalpenek, esan bezala, ez dute irudirik tartekatzen.

Bitxikerien esparrura joaz, badu edizio honek alderdi tipografiko hutsera mugatzen bide denik ere. Izatez ere, une batetik aurrera, *n* hizkiak desagertu eta, haien orde, tileta [˘] ezarri ohi zaie aurreko bokalei. Alegia, fenomeno anekdotiko hutsa izatetik¹² aski ugaria izatera igaro da orrialde bakar batean, 61.enean hain zuzen, dozena bat aldiz agertzeraino iritsi baita (eta ez guztiak, dirudienez, tipo-faltagatik edo tokia aurrezteko asmoarekin burutuak): *cebiltzaneã, nēdin, cenidã, cenuē, berritzē, izã ditecē*, etab.

3.2. B edizioa [Anchuela, 1751]

Aurrekoa baino formatu zertxobait txikiagoan konposatua da Jeronimo Anchuelak¹³ 1751n argitaratu B edizioa¹⁴, eta ongi orekaturik eskaintzen du testua 104 orrialdetan barrena¹⁵. Ez du inolako irudirik edo laminarik eranstean.

Hemen, edizio horretatik ezagutzen dugun ale bakarraren formatu elektronikoa baliatu ahal izan dugu lan hau burutzeko¹⁶. Orrialde guztiekin eta aski ongi mantendua, inprimatze akats batzuk besterik ez du aleak ezaugarritzat¹⁷.

osagaiak (Meza eta Gurutze-bidea, batik bat) eta ezaugarriak ikusita, serioosi pentsa daiteke Mikelestorenaren ediziotik –edota beronen iturri izandakotik– kopiatuak izan zirela.

¹² Behin edo behin baino ez da azaltzen aurreko orrialdeetan: 31 (*ematē*), 33 (*campoã*)...

¹³ Jeronimo Anchuela hamazazpi urtez aritu zen inprimatzaile Iruñean (1736-1753). Lar definitu gabeko arazoak medio, Ibáñez eta Domingo izeneko inprimatzaileekin batera jardun zuen geroztik.

¹⁴ Grafikoki irudikatuz, hogeita hamalau bat karaktereko hamazazpi lerroko orrialde-eredua.

¹⁵ Vinsonena da deskribapena: «Très pet. in-8 –104 p.–. Titre encadré de petits fleurons. Coll.: Titre, p. 1-2; prières du matin, du soir, du jour, du mois, 3-13; de la confession et de la communion, 13-36; manière d'entendre la messe, 37-60; chemin de la croix, 61-79; neuvaine au coeur de Jesus, 80-102; table, 103-104. Je n'ai jamais vu d'autre exemplaire que celui, très médiocre, que je possède» (Vinson, 1891: § 82).

¹⁶ Olaso Dorrea Sorrerakundearen jabetzakoa (orain Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan: CD 0026).

¹⁷ 63. orrialdeko lehendabiziko zortzi lerroen ezker aldean inprimatu gabe daude hasierako hizkiak (silabak). Antzeko zerbait gertatzen da 95. orrialdearen azken lauzpabost lerroetan ere. Guztiz ezabaturik geratu zen, azkenik, 99. orrialdeko behealdea (lau bertso-lerro eta erdi, hain zuzen).

Gainera dezagun ez duela edizio horrek ere bitxikeria tipografikorik falta, 27. orrialdetik aurrera ç letra baliatzeko *apeta* erakusten baitu tipografoak behin baino gehiagotan, eta ageriko koherentziarik gabe gainera¹⁸: «*Eliçan baçter-etara* beguira edo gogoia, *Eliçaz* campoan neducala egoteac, eta *çure* Gorpuz Santuac ambat *aldiç* uquitu dituzten nere mihi-ezpañez ain contu guti *iduquitç*ac, edo ambat aldiz behar ez diràn *hitçaquin* ciquintceac» (27); «*adoratçen*, ta maitatçen» (30); «etortcen *çaitzunean*» (33); «Erre *çaçu* cere suz nere bihotza, ta utzazu gucia zurea dirudiela, *içan* ez *deçan*, zuc nay ez duzun» (53-54), etab. (Geurea da, noski, letra etzan oro).

3.3. C edizioa [Rada, 1754]

Argitalpen guztietan aipagarriena, zalantzarik gabe, Martin Joseph Radak 1754an kaleratutako C delakoa dugu, oso berandura arte inork ez baitzuen haren berririk izan. Lehen albistea 1960an iritsi zitzaigun, Pedro Díez de Ulzurrun medikuaren bitartez. Esku artean izan dugun alea –ez bide dago edizio honen besterik– haren aitona anaia Isidoro Díez de Ulzurrun txoitiñodunak Zildotzeko Perutxena familia-etxean utzitako liburuen artean aurkitu zen¹⁹.

Aurkitzaileak berak azaldu zuenez:

(...) *he encontrado* (...) también el mismo año [1957an] 32 *hojas del libro* titulado: “*Cerura nayduenac ardezaquean vide erraza*, D. Joseph Miquelestorena, Lesacaco Apezac eracusten duena. Iruñean: Martin Joseph Radaren echean, 1754 urtean”. (Díez de Ulzurrun, 1960: 378)

Díez de Ulzurrunek liburu-zatiaren luzeraz zioena zalantzan jarri gabe ere, begiratu azkar batek argiro erakusten du erdiko kaieratxoa (11-22 bitarteko orrialdeei dagokiena, preseski) falta zaiola gaur egun.

¹⁸ Letra-tipo baten gabeziak edota beste baten oparotasunak baino ezin esplikatu lezakeen hautua ez bada, behintzat.

¹⁹ Gure eskerrik beroena Itziar Díez de Ulzurrun Sagalari, aletxoa kontsultatzeko eman dizkigun erraztasunengatik.

Hortaz, 1754ko edizioko ale bakarretik salbatu den txatalak hogeit hamar orrialde besterik ez du une honetan. Oso orrialde gutxi, tamalez, edizioaren taxuzko azterketa burutzeko, baina nahikoak, aldi berean, ezaugarri nagusiez jabetzeko eta, honatx interesgarriena: nonbait hogeit hamar urte beranduago gutxienez Longasen inprimategian kaleratuko zen azken edizioa bezalakoa dela atzemateko. Berdina testuan, berdina formatuan (in-16^o, 10 x 6,5 cm) eta berdina baita tipografian ere. Berdin-berdina, beraz, baina ezin egiazta dezakegun salbuespen ñimiño batekin, ziurrenik: suposatzekoa da, Longasenak ez bezala, Radaren edizio honek *Jesusen Bihotzaren bederatziurrena* izango zuela azken atalean itsatsia, eta ez, berehala ikusiko den legez, harenak daraman *Acto Fedecoa* delakoa.

Erantsi beharrik ez da Díez de Ulzurrunek Zildotzen aurkitu zituen orrialdeak liburuttoaren aurreneko pleguarenak baino ez direla, hau da, A letrari dagozkionak.

4. Datarik gabeko edizioak

4.1. X edizioa [Rada, d.g.]

Bitxia izan arren, Radareneko edizio aipatu berriak ez du antz formal gehiegirik irarkola berean kaleratu zen beste argitalpen honekin²⁰, izenburua ere moldatua –zertxobait ukitua, hobeto esanda– baitzekarren.

X izendatua dugun argitalpen hau²¹ inolako datarik gabe inprimatu zen eta, ondorioz, zabalik geratu zen aieru eta hipotesitarako ataka.

Haietako bat dugu *Eusko Bibliographian* iradoki zena: 1754?. Alabaina, argudiorik gabeko proposamena izatean, ez zen argi geratu noraino ez ote zen Radak urte berean kaleratutako C edizioarekin nahastatu ondoko kon-

²⁰ Alzolak ale bakarra ezagutu omen zuen (Alzola, 1967-1979: 246).

²¹ Artikulu honen burutzapenerako Eusko Legebiltzarreko liburutegiko alearen fotokopia erabili izan da (orain sarean: <<http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/8886>>). Aleari 97. eta 98. orrialdeak falta zaizkio (*Jesusen Biotz mayteari* izeneko kantikarenak), Anchuelaren edizioko alearekin osa daitezkeenak, formalki B edizio hori baita gehien hurbiltzen zaion edizioa.

klusio azkarra izan. Guztiarekin, beherago azalduko den bezala, erdiz erdi asmatu uste zuen.

Beste argitaratze-data gatazkatsu bat dugu Bidador zenak plazaratutakoan:

(...) fue realizada también en la imprenta que Martín Joseph Rada poseía en la calle Estafeta, por tanto *debe ser anterior a 1772*, y el único ejemplar que se conoce lo localizó Altzola en la biblioteca particular de Juan Ramón Urquijo Olano en 1965. (Bidador, 1999; g.l.e.)

Horretan ere ez dago argi zergatik iradoki zuen iruindarrak argitaratze-muga kronologiko hura, baina uste izatekoa da Rada 1772an zendu zela pentsatzen zuelako izan zela, eta ez bestegatik. Oker zebilen, hala izan bazen, Martin J. Radak –Iturbidek dioenez (2015: 302)– 1751-1775 bitartean jardun baitzuen Iruñean inprimatzaile.

Baina argi da, halaber, ez zuela Bidadorrek aintzat hartu une haietan argitalpen-mota honen bizi-iraupenerako guztiz erabakigarri suertatzen ari zen bestelako gertakaririk ere. Ez, antza, Jesuiten kanporaketa (1767/04/02)²², eta ez nonbait handik sei urtera burutuko zen Lagundiaren deuseztapena ere; gertakari horiek, izatez ere, *espíritu jesuitikoa* mantentzen eta islatzen zuen oro bilakatuko baitzuten susmagarri, berdin liburuak zein haien egile edo inprimatzaileak²³. Giro hartan, ezin *jesuitikoagoa* zen Jesusen Bihotzaren de-

²² Askoz lehenago hasia zen jesuiten aurkako giroa berotzen inguruotan: «(...) antes del decreto de extrañamiento de Carlos III se fue difundiendo la idea de que también en España se decretaría la expulsión. Ya en 1762 hablaba Mayans de que la Compañía “en muchas partes se va aniquilando y me parece que en España de aquí a pocos años acabara de expirar” [9-VIII-1762]» (Mestre, 1996: 126).

²³ Salbuespenak salbuespen, agerikoa da Mikelestorena bezalako euskal elizgizonentzat ez zela ezezaguna josulagunen kanporaketekin batera inguruko herrialde katolikoetan sortua zen giro bortitza, lehenago Portugalen [1759: «(...) los sucesos de Portugal tuvieron un eco sorprendente en Europa» (Mestre, 1996: 101)], eta geroxeago Frantzian [1762: «(...) las provincias del País Vasco y Cataluña empezaron a recibir jesuitas franceses que se habían negado a jurar el decreto de los parlamentos» (Mestre, 1996: 115)]; «(...) [1764rako] el rector de San Sebastián [Loiola] había acogido calurosamente a sus hermanos de Francia»; eta Frantzisko Xabier Idiakez Gaztelako probintziala zenak: «(...) aconsejaba no se publique demasiado su presencia [josulagunena, alegia], no entren muchos jesuitas juntos, ni lo hagan todos por San Sebastián, sino también por

bozioa bera ere²⁴ nekez libra zitekeen susmoetatik²⁵, eta, hortaz, haren *bede-ratziurrena* sustatzen eta hedatzen zuten liburuak ere espiritu *beltzaren* erakusgarritzat har zitezkeen *de facto*.

Guztiarekin ere, maizegi ahazten den gertakari larriagoa eta erabakigarriagoa dugu euskal literaturan bertan, datarik gabeko edizio honi muga kronologiko zehatzagoren bat jartzeko ere baliagarri suerta litekeena. Alegia, aipatu antijesuitismoarekin lotura zuzenik aitortu ez zitzaion arren, tiro batez aldi berean bi txori gogaikarri garbitzen zituen gertakari latz batez ari gara.

Hartara, Gaztelako presidentea zen Arandako konde *ilustratuaren* agindu glotofobia zela eragile eta bide, 1766ko azaroaren 10etik aurrera arras ezi-nezko bilakatu zen euskarazko ediziorik kaleratzea. Zoritxarreko astelehen hartan Nafarroako Erret Kontseiluak euskal letren suntsipen sistematikoa bilatzen zuen neurri politikoa bereganatu eta aldarrikatu zuen erresuma guztian. Gure Kardaberaz mistikoaren erlijiozko lantxo ezin *jesuitikoagoa* hartu zen aitzakiatzat: Loiolako Inazioren bizitzari buruzko liburua. Luzea bada ere, merezi du pasarte gogorra ekartzea:

En Pamplona, en Consejo, lunes a diez de noviemtre de 1766, los muy ilustres señores D[o]n. Josef Contreras, Regente en cargo de Virrey, Don Josef Lanciego, Don Ignacio Azcona, Don Agustín de Eguía, Don Manuel Olazaga, Don Leopoldo Pabía (?) y Don Juan

Pamplona» (Mestre, 1996: 116). Eta beranduago Erromatik hurbil –Napolosko erresuman (1767) eta Parmako dukerrian (1768)–, jesuitismoarekiko intolerantziaren albisteak erraz eta eurrez hedatu baitziren gure geografian barrena.

²⁴ «La devoción al Corazón de Jesús ha estado íntimamente ligada a la Compañía. En las revelaciones a Santa Margarita se encomendaba a la Orden de San Ignacio el encargo de propagar la devoción al Sagrado Corazón» (Revuelta, 2008: 380). Ikus, orobat, beheargoko 5.2 atala.

²⁵ Iturbidek jasotzen duenez, debozio haren aitzindari eta bulkatzaile nagusietako bat izan zen J. Croiseten *Dévotion au Sacré Cœur de Jésus* liburua (1691). *Indexean* sartua egon zen 1704tik 1887ra arte (Iturbide, 1997: 191). Guztiarekin ere, liburuaren gaztelaniazko itzulpenaren lehen edizioa 1734an burutu zen Iruñako Joseph Joachin Martinezen irarkolan eta hainbat edizio izan zuen hurrengo urteetan, jesuitek abian jarritako debozioaren dinamikarekin bat eginez (Iturbide, 2016: 166). Areago: «(...) en los talleres navarros del siglo XVIII se imprimieron siete títulos de este autor y seis reediciones, lo que hace un total de trece ediciones; tres obras fueron primeras ediciones españolas y cuatro de ellas vieron la luz en vida del autor» (Iturbide, 1997: 196).

Asensio Esterripa, oidores de él; dijeron que el día 6 de octubre próximo pasado se presentó a nombre del P. Agustín de Cardaberaz, de la Compañía de Jesús, Maestro de estudios en el Colegio de Loyola, un Epítome original de la Vida de San Ignacio de Loyola, escrito en vascuence, pidiendo licencia para su impresión, y sometido a la censura del P. Martín de Urriza (...) la dio sin haber hallado reparo que pudiese embarazar la licencia que se solicitaba. Y que en este estado, se halla el Consejo prevenido por carta de 1º del presente mes del Excelentísimo Señor Conde de Aranda, Presidente de Castilla, *para que no se permitan impresiones en otra lengua que la castellana*, inteligible a toda la nación, y *que por punto general se nieguen semejantes licencias en este Consejo sin especial notica suya*. Por lo que, en consideración y cumplimiento de esta orden, mandan que el referido Epítome original de la Vida de San Ignacio, escrito en vascuence, se archive con todo el espediente formado en su razón juntamente con la citada orden de dicho Excmo. Señor, para que no se contravenga, y que a este mismo fin, y para que no puedan alegar ignorancia, se haga saber este aviso a todos los impresores de este Reino, con apercibimiento de que por cualquier contravención serán castigados con severidad, y que de haberse practicado lo referido, se ponga certificación de este auto, que lo rubricaron sus señorías, y en fe de ello firmo yo el secretario –con acuerdo del Real Consejo– Nicolás de Arrasta, secretario. (Lopetegi, 1973: 22; g.l.e.)

Espedientean erantsitako gaztiguek erakusten duten bezala, azaroaren 12an eta 13an eman zitzaien erabakiaren berri Nafarroako inprimatzaile guztiei; eta ziurtatua uzteko, honako hau gehitu zuten jarraian:

Certifico yo, el escribano real infrascrito, que según se me ha informado por varios libreros y otras personas, no hay en esta ciudad y Reino más prensas ni imprentas, que las que tienen los sujetos nombrados en las seis notificaciones anteriores, y para que conste, firmo en Pamplona, a 13 de noviembre de 1766. Joaquín López, escribano. (Lopetegi, 1973: 24)

Jakina, Mikelestorenaren X edizioa argitaratu zuen Rada Etxeaz ere mintzo da, espresuki mintzo ere, nafar eskribaua. Honatx inprimatzailearen emazte eta semeari jakinarazi zien gaztigua:

En la ciudad de Pamplona, dicho día, trece de noviembre de 1766, yo el infrascrito escribano real, *hice saber el auto acordado del Real Consejo antecedente, a Josefa Burguete y Josef Francisco de Rada, su hijo, vecinos de esta ciudad, que viven en una casa y compañía, y corren con el manejo de la imprenta y prensas de Martín Josef de Rada, impresor, marido y padre respectivo, de los susodichos, por la privación de juicio que padece éste; para que les conste de su tenor, y enterados, dijeron se dan por notificados, y que observarán puntualmente lo acordado en dicho auto.* Esto respondieron y firmaron, y en fe de ello, yo el escribano. (Lopetegi, 1973: 23; g.l.e.)

Argi da, beraz, 1766ko azaroaren 13tik aurrera Rada Etxeak ere ez zuela euskarazko libururik argitaratzeko baimenik. Eta ez, agidanez, asmorik ere. X argitalpena aurretik kaleratua behar zen, nahitaez.

Ez da falta, horratik, Mikelestorenaren liburuaren argitalpen-muga kronologiko hura beranduagora eramatera bulka lezakeen arrazoirik. Izatez ere, erraz pentsa liteke Radaren alargunak (1775-1787 bitartean) edota beren semeak (1787-1800 bitartean) eman zezaketela argitara *Martin Joseph Radaren Etxean* zigiluaren pean. Ez dirudi, halere, datuek hori pentsatzera daramatenik.

Ezta pentsatzera ere, erantsiko genuke jarraian, Anchuelak oraindik lanean zegoenean burutu zuela Radak berea, Mikelestorena bera inplika zezakeen iskanbila-iturri gogorra izango baitzukeen inprimatzaile berriak merkatuan finkatzen hasi baino lehen.

Logikoagoa da –eta testu-ezaugarriek, berehala ikusiko den bezala, horretara garamatzate– X delako hau 1754ko edizioa baino zertxobait lehenago inprimatua izan zela uste izatea, ez zatekeen-eta inondik ere arrazoizko izango, Radak hobe eta propioagoa zuen 1754ko edizioa prestatua eta kaleratua izan ondoren, zaharragoa zen eta Anchuela inprimatzailearen eskuetan ibilia zen haren pareko eta antzeko batez baliatzea, zertarako eta, azken batean, edizio zaharkitu bat saltzeko.

Horren kariatara, hipotesiak erraz pentsatzera eramán gintzake, agian Anchuelak inprimatze-lanari utzi berri zionean burutu zuela Radak edizioa. Erraza zuen, izan ere, euskarazko argitalpenen merkatuan argitaratzaile batetik uzten zuen tokia irabazteko bidea: Mikelestorengana jo, eta honen bai-

menarekin eta Anchuelaren liburu arrakastatsuaren gainean burutu zituen zuzenketak eta aldaketatxo berriak paperean jasota, esparru berrirantz abiatzea besterik ez zeukan Rada jaunak...

Argi uste legoke, beraz, 1753-1754 bitartean inprimatu zela X edizioa; eta 1754an kaleratutako C delakoa baino lehen, edonola ere. Horretaz mintzo bide dira B eta X edizioen arteko antzak eta aldeak... eta horretaz mintzo, baiki, C edizioarekiko desberdintasunak. Eta aurrera dezagun, orobat, lesakarraren liburuaren Z argitalpenak ere baduela eztabaida honetan zeresanik; itzalgaizka bada ere.

4.2. Z edizioa [Longas, d.g.]

Ez da, egia esan, Longas Etxean kaleratutako edizioa²⁶ egokien ulertu eta interpretatua izan dena, ongi asko baitaki honetan ibili denak, *Jesusen Biho-tzaren bederatziiurrena* delakoa bertan ez agertuagatik, horren konstatazioa egin eta, harridura-aurpegirik ere jarri gabe, aurrera jotzearekin askietsi dugula ikerlariok maiz gure lana. Eta egiazki berezia eta arretaz hartzeko modukoa da argitalpena.

Kontuak argitze aldera, Bidadorrek kaleratze-datatz dioenari hel dakioke hasteko:

(...) fue impresa en la imprenta de José Longás, por tanto *posterior a 1775*, y es de la que mayor número de ejemplares se conoce (...); comparándola con las ediciones precedentes, resulta algo más corta ya que no incluye la novena al Sagrado Corazón de Jesús ni la tabla de materias. (Bidador, 1999; g.l.e.)

Itxura duenez, lar debideratu gabe ibili zen honetan iruindarra inprimatze-data iradokitzean, ezaguna baita Jose Longas 1774-1795 bitartean²⁷ ari-

²⁶ Alzolak emanak dira ezaugarriak: «En 12.^o, de 100 x 64 mm 3-92 páginas a línea tirada» (Alzola, 1967-1979: 246). Zuzendu beharra dago halere Alzolak dioena, formatua *in-16^o* baita, C edizioarena bezalakoa.

²⁷ Zehaztapenik ematen ez badu ere, sumatzekoa da Iturbidek 1997an proposatutako datuan –hau da, Longas 1775-1992 bitartean aritu izan zela inprimatzaile zioen hartan– oinarritu zela orduan Bidador (ikus Iturbide, 1997: 197).

tu zela Iruñean (Iturbide, 2015: 302)²⁸. Horratik, ezin ahantz daiteke Longas Echean azaltzen dela liburuaren azken edizio horren azalean, eta ez inprimatzailearen izen-deiturak erakutsiko lituzkeen ohiko formularen bat (Jose Longas-en Echean edo Jose Longas Libru guilearen Echean...)²⁹.

Ohartaraz dezagun jarraian, edizio honek Radak 1754an kaleratu zuen C edizioaren *contrefaçon* edo sasifaxsimile modukoa dirudiela lehen begiratuan bertan, azaleko testuaren inguruko enmarkatze-iruditik hasita³⁰. Hau da, motibazio zehatzak ezagutzen ez ditugun arren –Nafarroa guztira hedatutako argitaratze-debekutik at, esan nahi baita–, haren kopia betegina prestatu nahi izan zuen Longas Etxeak; egilearen baimenarekin, argitaratzean bizirik bazen behintzat, edo baimenik gabe.

Jakina, garrantzizkoa izan liteke egilearen baimenaren auziari erreparatzea. Izan ere, daitekeena da 1774-1786 bitartean kaleratua izana liburua egileak txertatu aldaketekin³¹, Arandaren 1766ko aginduaren jakinarazpen zuzenik ez izatean, ez konturatuarena egin baitzezakeen Longas inprimatzaileak. Baina zinez pentsa daiteke, halaber, hurrengo hamar-hamabost urteetan ere –egilea zendua zenean, alegia– argitaratua izan zitekeela, apika C edizioan ageri ez ziren moldaketak bestek burutuak, eta edonola ere, Arandaren gainbehera eta des-terrua zirela eta³², haren debeku *euskarafoboa* era nasaiagoan har zitekeenean.

²⁸ Beste data bat ezartzen zaio obra honi Eusko Legebiltzarreko fitxategian, Gutiérrez del Cañok emandako datuaz baliatuz (hots: «Longás trabajó en Pamplona entre 1776 y 1791»), denbora-tarte horretan kokatzen baita argitalpena. Bertako alearen fotokopia erabili izan dugu hemen (orain sarean: <<http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/8884>>).

²⁹ Garrantzizkoa izan liteke datua, zeren eta 1795etik aurrera, eta bost bat urtez, haren alarguna eta semea arduratu baitziren inprimategiaz (Iturbide, 2015: 302), eta, beste hainbatetan legez, erraz asko gerta zitekeen, esku artean dugun liburuaren eitea gogoan izanik, bigarren garai horretan argitaratua izana, eta ez Jose Longas bizi zenean. Froga argiagorik behar, edozein modutan.

³⁰ Gogoratu beharrekoa da, hipotesien eskualde irristakorretik atera gabe, 1754ko edizioak utzitako orrialde eskasetatik formalki ezberdintzeko zaila den edizio horrek bazukeela alde nabarmenik Longasenarekin erkatzean, honen *Acto Fedecoak* haren *bederatziurrenaren* ordezkio berrikuntza baitirudi.

³¹ Hipotesiak hipotesi, Radak Anchuelaren edizioarekin bezala joka zezakeen Longasek, inpresio-lanbideari heltzean, Radaren 1754ko edizioarekin.

³² Monarkiaren konfiantza galduta, Jaenera erbesteratua izan zen 1794an. Handik lau urtera zendu zen.

Dena den, gauza bat izan zitekeen –izango zen, seguruenik– euskarazko argitalpenen debekuari hala edo hola aurre egiteko ahalegina eta beste bat –agian une batzuetan arriskutsuagoa–, *espíritu jesuitikoa* itsatsita zeramaten liburuei berriro heldu nahi izatea.

Ildo horretan, edizio hau euskaraz bai, baina amaierako *bederatziurrena* gabe argitaratu zen, haren ordeiz *Acto Fedeco*, *Esperantzaco*, eta *Caridadecoac* atala erantsi zitzaizlarik.

Ez dugu, tamalez, argitalpen berri horren eta ez aldaketon arrazoiak azalpenik, ez behintzat liburuak berak isla dezakeenetik harago doanik. Dena da, izatekotan ere, susmo eta aieru. Eta, besterik ezean, susmatze hutsaren *kume* baino ezin izan daitezke, gorago iradoki bezala, bederatziurrenaren desagertzearen arrazoiak ere.

Ilunpe bertsutan genbilzke, aldi berean, atal berriaren eransketaren arrazoiak argitu nahi izango bagenu: agian, liburuaren *gorputza* gehiegi ez kalte-tzea zuen argitaratzaileak xedeetako bat, tamainaren aldetik ere antzekoak izan zitezen edizioak, baina, jakina, izan zitekeen errazak omen ziren zeruko bide haiek osatzera ere bazetorkeela berrikuntza³³.

Ez litzateke faltako, halaber, *Acto Fedecoaren* eransketan Erasmoren *Preparación y aparejo para bien morir* liburuaren transposizioa ikus lezakeenik, besteren artean, aurreko atalarekin ere –*Calvarioco estacioac*– modu esplizituan uztartzen delako amaierako hau³⁴.

³³ Osatzera diogunean, Kardaberazek zioen zentzuan esan nahi dugu, hots, hark Asteteren kati-xima bukatutakoan eta bere ekarpena erantsi baino lehenago ezarritako ohartxoan zioenaren il-dokoan: «Emen bi gauzaren gañean contuan ipiñi nai det iracurlea. Lembicia: badira laburregui-tzat dauqueenac Asteteren urrezco liburuchoa, batezere Confesioco, ta Comunioco Sacramentuai dagozten gauzetan. Emendic dator bacoitzac bere erasquiña egotzi nai izatea (...) ta gañeracoa utzitzen du Animen zaien escuetan: eta on lizaque contuz arguitara ematea zembait Eracusaldi Confesioco Sacramentuen, ta lenvico Comunioaren gañean. Bigarra: Aita Agustiniñen cem-bait hitz aldatu ditugu (...) Ta atzanean, ecusiric, Aita berac dacartziela gauz on asco, ta oen ar-tean obra onen esquintzeco era, Fede, Esperanza, ta Caridadezco Afectoac (...), eguin da aleguiña gauz oec ederqui ipintzeco, ta (...) arguitara ateratzeco» (Kardaberaz, d.g., c.1762: 62-63).

³⁴ Irakurleek ondo dakitenez, honela eman zion bukaera Erroterdamekoak bere liburuttoari: «Subamos en fin desnudos con el Señor a la cruz, despojados de todas las aficiones terrenales, elevados en el amor de la vida celestial, para que podamos dezir con sant Pablo. El mundo esta

Baina zeinahi ere den susmoen egiantzekotasuna edota azken argitalpenaren datazioa, zinezko asmoa eta egile/eragilea, zabalagoa eta gaitzagoa da orain hemen planteatzen diren zalantzen esparrua. Guk, dena den, ez genituzke beste hauek ere ikusmiratik galdu nahi: liburuaren formatu eta egituraketaren arrazoia, bertan burututako testu-kenketa eta eransketa horien funtzio ideologiko-defentsiboaren maila, etab. Ikus dezagun zer eman dezakeen horietan guztietan argitalpenen arteko oihanean barneratzeak.

5. Edizioen artean biraka: hipotesiak finkatzen

Aurreneko begiratuak erakusten duenaren arabera, hiru multzo nagusi antzematen dira bost argitalpenon sailean: jatorrizkoa bide den A edizioari legokiokeena, B edizioak eta haren *kume* zuzena dirudien X delakoak osatua eta, azkenik, orri-kopuru ezin eskasago utzi duen C-k eta, dirudienagatik, haren ondorengo aizundua den Z edizio interesgarriak osatuko luketen multzoa.

Lehendabiziko ahaidetasunak markatzen hasita, argi dago, multzo bakoitzaren barneko aleen arteko urruntasunak urruntasun³⁵, A eta C-Z multzoek ematen diotela liburuari nolabaiteko *egonkortasun* testuala; eta B-X edizioek, berriz, forman eta edukian *oharñoa* eskatzen dutenak diruditela. Alegia, hitz, aditz edo forma esanguratsuenetako zenbait mahai-

crucificado en mi, y yo al mundo. En esta cruz enclavados con tres clavos, de Fe, de Esperança, de Caridad, perseveremos constantemente en la pelea contra Satanas, hasta que aviendole vencido, digamos: *In manus tuas Domine commendo spiritum meum*. Y con estas palabras passemos a la eterna vienaventurança, mediante la gracia y favor de nuestro Redemptor Iesu Christo. A quien con el Padre, y Espiritu santo sea gloria eterna. Amen» (Erasmus, 1555: 40 ifrentzua). Mikelestorenaren garaikidea zen Da Porto Maurizio frantziskotarrak ere kolofoi berdintsuarekin amaitu zuen Gurutze-bideari eskainitako *Via Sacrea spianata ed illuminata* liburu ospetsua (ikus gaztelaniaz, 1932).

³⁵ Ezagunak dira X edizioaren izenburuko desbideraketa (*dezaquen* vs beste lau edizioen *dezaquean*), A edizioak bakarrik dakarren pasarte luzea (87) edota Z edizioak eskaintzen dituen testu-berrikuntzak (ikus, esaterako, 55-56).

ratu nahi izanez gero, hauexek lirateke pareka litezkeen lehen eskutadakoak³⁶:

A eta C-Z	B-X
<i>zerazten/ceraten</i>	<i>zarazten</i>
<i>ez badaquizu</i>	<i>ez pa-da-quizu</i>
<i>gutiren</i>	<i>guchiren</i>
<i>daducatciena</i>	<i>daduzcana</i>
<i>bacera</i>	<i>bazara</i>
<i>dioztzat</i>	<i>diozkat</i>
<i>naizan</i>	<i>nazan</i>
<i>ordu</i>	<i>hordu</i>
<i>esan</i>	<i>erran</i>
<i>ditut-cebiltzanean-zaquizquit</i>	<i>dituz-cebiltzañean-zaquitquit</i> (akatsak guztiak, eta azkena, birritan errepikatua)
<i>citacitzun</i> (akatsa)	<i>citzaitzun</i>
<i>nazazun...</i>	<i>nazazula...</i>

Desberdintasunen zerrenda llabur horrek, segidan ikusiko den moduan, A-k eta C-Z-k ez dakartzaten pasarteak (B: 28; X: 29) itsastea faltako luke, adibideak argiago mintza litezen.

Horiek eta horrelakoak direnak ditugu ustezko multzoak egituratzen eta trinkotzen dituzten ezaugarriak batetik, eta, aldi berean, multzoak elkarrengandik ere bereizten dituztenak.

Irudiz, bederen, A deitu edizioaren testua da gainerakoen oinarrian dagoe-na. Hartatik jasoa da, ustez, beste guztietan atzematen den ehundura nagusia,

³⁶ Geroago zehaztuko diren arrazoiak medio, ez da zerrendatxoan *bederatziumenetik* eta *Acto Fedecotik* bildutako adibiderik emango. Bestalde, adibideak zein orrialdetan dauden jakin nahi dezanak *Eranskinera* jo dezake.

eredua eskaintzen duena, hala atal larriei zein txikienei dagokienez nola erre-dakzioari berari. Noiz zuzendua edota moldatua, noiz osatua edo era koheren-teagoan egokitua³⁷, edizio hartatik³⁸ abiatu ziren gainerako edizioak eta haren erreferentzia egiten dute etengabe. Badira, halaz eta guztiz, elkarren artean antz handia duten edizioak eta baita elkarrengandik gehiago urruntzen direnak ere.

B edizioa eta X delakoa, esaterako, oso dira antzekoak oro har. Elkarren arteko dibergentziak gutxi eta grafiko-formalak dira nagusiki. Elementu asko daude hori erakusten dutenak, baina nabarmenena besterik ez aipa-tzearren, *Comulgatcean, ta comulgatu-ondoan eguin behar dena* atalera jo ge-nezake: beste hiru edizioetan –hots, A, C eta Z deitutakoetan– ageri ez den sarrera luze bat –orrialde batekoa– azaltzen da eskuen artean darabiltzagun bi hauotan eta, ondoren, beste edizioetan agertzen den jatorrizko testuare-kin uztartzeko trantsizio-pasarte bat, lerroaldearen amaiera ere desberdin samar geratu zelarik (B-X: 29-30). Berdin gertatzen da A eta Z edizioetan³⁹ azaltzen ez den hainbat *berrikuntza* gehiagorekin ere⁴⁰.

Baina aurkeztutako multzokatze formala malgutzuz, hel diezaigun au-rren-aurrenik B-X edizioen arteko lotura eta ahaidetasunen azalpenari eta, aldi berean, A-rekiko erakusten dituzten desberdintasunenari.

5.1. A eta B-X edizioak

Eskema gisara, bi urrats nagusi hauek antzematen dira esku artean ditu-gun hiru edizioon artean:

³⁷ Handia da lehen edizio honetan –eta gutxitu arren, ez da zeharo zuzenduko gerokoetan– azal-tzen den anabasa (orto)grafikoa, berdin agertzen baitira, esaterako, *bear* zein *behar*, *honetan* zein *orretaraco*, *biotz* zein *bihotz*..., eta maiz asko lerroalde berean jarrita (ikus, esaterako, 84. orrialdea).

³⁸ Edizioen ñabardurak ikusita, okerrik egiteko beldurrik gabe esan genezake, jatorrizko eskuiz-kribua –arketipoa– lehendabiziko edizio hartarako baino ez zela erabili, eta hurrengo argitalpenen moldaketak eskuarki aurreko edizioen bat baliatuz burutu zirela.

³⁹ Gogora bedi C delakoak ez duela erkaketa osorako biderik eskaintzen, hogeit orrialde besterik ez baitu.

⁴⁰ Ikus, besteak beste, *Amairugarren gurutzeco otoitza* hasieran erantsitako hiru *badaquitak* eta dagozkien esaldi konpletiboak (B: 77-78; X: 76-77).

- B edizioak A zuzendu du, eta zuzenketa gehienak automatikoki igaro dira gero X delakora⁴¹.
- X edizioak B zuzendu du, bai honek A-tik jasotako *akats* edota forma ustez berezietan eta bai gainerakoetan ere.

Lehen urratsean, oso dira nabarmen B edizioak A-ri egin dizkion testu-eransketak, ezabaketak eta egokitzapenak.

I) Testu-eransketak⁴²:

→ *Comulgatu-ondoan eguin bear dena* (A: 25) > *Comulgatcean, ta comulgatu-ondoan eguin behar dena* (B: 28).

→ *Comunioco maiera urbiltcen zaranean urbilduco zara, beguiac lurrean dituzula, ta humiltasunez, ta erresetuz beteric. Apezac Hostia Santua aguertcen duenean, errain dezū arequin batean, hirur aldiz: Ez naiz ni, Jauna, ez, çu artceco diña: asqui da zūc hitz bat erratea, nere anima sendatceco. Artuco dezū guero, nor artcen duen ezagutcen duenac beçala, begui bilduequin, ta gogo bihotzac beragan daduzcatzula. Artu orduco joain zara baztercho batera, edo cere toquira; ta, ezaguturic, zū zarala Sagrario bat* (B: 29-30)⁴³.

→ *cerura igatearequin* (A: 70) > *cerura zū igatea-requin* (B: 60).

→ A-k ez dakarren eta praktikan Gurutze-bideko hamabosgarren geldialdia den *Azqueneco gurutzeco otoitza*. Aguercen zaio *Magdalena-ri* atala (B: 78-79)⁴⁴.

→ *utcatzen daquien* (A: 108) > *utcatcen ez daquien* (B: 95) (testuinguruan, oso akats larria).

II) Testu-ezabaketak:

→ *ta soñecoa, azotex urratu cizuten, Gorputcetic tiraca etsaiac quentcenarequin artu cenuen Oñace, ta doloreac gatic, indazu nere becatuen,*

⁴¹ Salbuespen nahikorekin, halere: *vicitceco* (A: 1) > *vicitzeco* (B: 3) > *vicitceco* (X: 3); *iru* (A: 2) > *irur* (B: 4) > *iru* (X: 4); *arquitcen* (A: 2) > *arquitzen* (B: 5) > *arquitcen* (X: 4)...

⁴² Esanguratsuenak baizik ez dira hona ekarriko.

⁴³ X-k aldaketa txikiren bat baino ez du egiten: *Hosti, zū, bezala...* (X: 29).

⁴⁴ Egokitzapen txikiren bat baino ez du egiten X-k; interesgarriena: *Passio santa* (X: 78).

ta aztura gaistoen soñeco ciquiñac quentceac emain didan Oñacea eramateco gracia. Amen (A: 87) > desagertu (B: 73).

→ baita escatu ere ceniola cere Aitari nere oben, ta culpa gucien barcacioa [...] zure graciarkin batean (A: 90) > desagertu (B: 75).

III) Testu-aldaketak:

→ erabilli behar zaituzte (A: 10) > erabillico zaituzte (B: 13).

→ diezaquegu (A: 33) > dezaque (B: 38).

→ dauden (A: 53) > daudenen (B: 50)

→ Gorputz gucia odol, ta nequez betea ceneducala, ta anima neque edo dolorezco itsaso eguiñic, azqueneco atsa nigatic eman cenuen (A: 89) > Gorputza odolez, ta oñacez betea, ta anima nequezco itsaso eguiñic, azqueneco asnaseraño iduqui cenituen (B: 75).

→ indazu harren, ez zure nequeric, ta ez zure semearen eriotza becatu berriequin, berritceco gracia (A: 91) > indazu arren, zure nequeac, eta semearen eriotza becatu berriequin, berritu gabe vicitceco gracia (B: 77).

→ Azqueneco Gurutceco otoizta (A: 92)⁴⁵ > Amalau-garren Gurutceco otoizta (B: 77).

→ Cere Gorputcean eraman cenituen neque andi, ta eriotza gogorren ondoan Gorputza bera gurutcean ill, ta illen sepulturara eraman cezatela uztearequin, guizon eguiarzoa cinala eracutsi cenuen Jesus nere Jaungoico Ona, ni gatic eraman dituzun neque andi, ta eriotza gatic escatcen dizut, izan nadilla ni, comulgatcen nazan gucietan, zure Sepulcro garbia, utci nazazun orduan cere graci, ta amorez betea (A: 92-93) > Ba daquit, Jesus maitea, Gorputcean eraman cenituen, nequeac neque andi-gogorrac cirala: ba-daquit, ill ondoan illen sepulturara eraman cinduztela; ta badaquit, Jaincoa ez-cic [sic] guizon eguiarzoa zarala. Ni gatic eraman dituzun neque andi, ta eriotza gogorra gatic escatcen dizut, izan nadilla ni, comulgatcen nazan gucietan, zure Sepulcro garbia; ta utci nazazula cere graci, ta amorez betea (B: 77-78)⁴⁶.

⁴⁵ Hamalau geldialdiko Gurutze-bidea (A) hamabosteko bilakatzen da B-X-Z edizioetan.

⁴⁶ Nimiñoak dira kasu honetan gero X-k B-ren testuari egin dizkion aldaketak: badaquit, zirala, ezecic, eriotz eta utzi.

Mordoska da, halaber, *bederatziurrenaren* barnean datorren bertso-sailari dagokion aldaketa-sorta:

- *Ez daude loyac utsic* (A: 110) > *Etceuden bacarric loyac* (B: 98).
- *Eldu gara* (A: 111) > *emen gatoz* (B: 99).
- *Nere icaren, nere otzen / berotceco labea* (A: 112) > [*Egon behar ez ote dut / nic or be*]ti gordea (B: 99-100)⁴⁷.
- *amorez errea* (A: 112) > *animen labea* (B: 100).
- *damuz nago, urriqui dut / zu orrela ecustea* (A: 112) > *Cein andi ta gogorra den, / daramazun nequea!* (B: 100).
- *culpac ezartzen diote* (A: 113) > *ezartcen diote culpac* (B: 101).
- *ardira* (A: 113) > *autsi* (B: 101).
- *expata* (A: 113) > *burdiña* (B: 101).
- *culpa gaisto, oben gogor* (A: 113) > *culpa gaisto, ta oben gogor* (B: 102).
- *artzen dago charqueriac* (A: 114) > *charqueriac artcen dago* (B: 102).
- *ez ote dut maitatuco* (A: 114) > *ez dut behar maitatu* (B: 102).
- *nic artuco ez ote dut* (A: 114) > *artu behar ez dut nic* (B: 102).
- *Biotzeco Atea* (A: 114) > *sar nadin or Atea* (B: 102).

Zuzenketei gagozkiela, eta exhaustibotasun-asmorik gabe segitzen badugu ere⁴⁸ —egarri hori berdindu ahal izateko baitute irakurleek amaierako *Eranskina*—, honako hauek dira grafia arloan azpimarra litezkeenak:

⁴⁷ Mendibururen bertsioa baliatuz berreraikia (ikus amaierako *Eranskina*).

⁴⁸ Zerrendak ez luzatzearen, ez ditugu hona ekarriko oker idatzitako hitzen zuzenketak [*miñgain* (A: 27) > *mingain* (B: 32); *Sauarequin* (A: 29) > *Santa-requin* (B: 34); *aguiz* (A: 111) > *arguiz* (B: 99); *guerotzic* (A: 112) > *gueroztic* (B: 100), etab.]; sortutako akats berriak [*ondasunez* (A: 29; X: 34) > *ondasunze* (B: 34); *ditut* (A: 50) > *dituz* (B: 47); *cebiltzanean* (A: 61) > *cebiltañean* (B: 55); *zaquizquit* (A: 61, 75) > *zaquitquit* (B: 56, 64); *eguitea gatic* (A: 64) > *egutea-gatic* (B: 58); *cinduz-tzen* (A: 75) > *cinduzten* (B: 64); *itzaturic* (A: 88) > *itzatutic* (B: 74); *nic* (A: 90) > *nit* (B: 75)];

– *-tz-* > *-tc-*: *guelditzeco* (A: 12) > *guelditceco* (B: 15); *escatzen* (A: 16) > *escatcen* (B: 20); *etzindecen* (A: 17) > *etcindecen* (B: 21); *etzion utzi* (A: 19) > *etcion utci* (B: 22-23).

– Baina sarri alderantziz, hots, *-tc-* > *-tz-*: *ortcequin* (A: 8) > *ortzequin* (B: 11).

– Inoiz, gainera, *-tz-* > *-c-*: *oartzen* (A: 26) > *oarcen* (B: 30)...⁴⁹.

Bitxia bezain sistematikoa, aldi berean, jainkotasunari dagozkion izen nagusiekiko jokamoldea, *ukiezinak* balira edota *kutsatuak* izateko arriskua balute bezala, bereizi egiten baitira gidoi batez lekuan-lekuan dagokien kasu-markatik. *Jesus* eta *Bihotz* izenak dira horretan nabarmenenak: *Jesus-en*, *Bihotz-eco* (B: 3), etab.⁵⁰

Ez ahanztekoa, bestalde, hitz batzuetan osagaien artean egiten den be-reizketa sistematikoa: *goizoroco* (A: 1) > *goiz oroco* (B: 3); *egunoro* (A: 55) > *egun oro* (B: 51)...

Ortografiari dagokionez, *h* hizkiaren presentzia sistematikoagoa (edo) da:

– *bear*, *biotz* (A: lehen orritik aurrera) > *behar*, *bihotz* (B: azaletik aurrera; ez, ordea, beti-beti); *itz* (A: 11, 32, 83...) > *hitz* (B: 14, 36, 47 [*hitzez* eta *hitzac*], 71...); *au* (A: 35, 61, 109) > *hau* (B: 40, 59, 96)⁵¹; *al baño* (A: 43) > *hal baño* (B: 44); *al bezala* (A: 61) > *hal bezala* (B: 56); *ala* (A: 78) > *hala* (B: 66), *harren* (A: 88, 91) > *arren* (B: 74, 77)...

edota bietatik dutenak [*nerea ez-cic* (A: 53) > *nereac ez-eic* (B: 50)]. Berdin jokatu dugu aski sistematikoak ez diren moldaketekin [*ta* (A: 85) > *eta* (B: 72)].

⁴⁹ Berdintsu *zoazen* (A: 17) > *zoacen* (B: 20), nahiz eta, aldi berean, *gaucequin* (A: 8) > *gauzequin* (B: 11), etab.

⁵⁰ Oharra merezi dute dibinitatea izendatzeko aldaerek. Izan ere, A edizioak *Jainco* erabiltzen du nagusiki (34 bider) eta inoizka *Jaungoico* (zazpi bat aldiz baino ez). Antzeko proportzioan segitzen du B edizioak A-ren joera hori, nahiz eta X-ra pasatuko den *munstroa* ere asmatuko duen [*Jauncoa* (B-X: 44)]. X edizioak *Jangoico* hitza ere erabiliko du hiru bat aldiz (X: 3, 31, 43). Z edizioan, azkenik, *Jaungoico* forma da sistematikoki erabiltzen dena [38 bider, gehi tipografi akatsen bat, hots, *Joungoico* (Z: 11)].

⁵¹ Baina ez beti.

– Baina, *honetan* (A: 84) > *onetan* (B: 71); *asma hal adiña* (A: 88)
> *asma-al adiña* (B: 74); *horien* (A: 88) > *orien* (B: 74)...

Anitz dira edizio batetik bestera egokituriko adizki eta aditz-formak, normalean hizkera-hautuarekin uztartuak:

naizan (A: 28) > *nazan* (B: 33); *ceran*, *cera* (A: 18) > *zaran*, *zara* (B: 22)⁵²; *zeraxten* (A: 2) > *zaraxten* (B: 5); *duzun* (A: 5, 90) > *dezun* (B: 7, 75)⁵³; *daducatciena* (A: 18) > *daduzcana* (B: 21); *diozcat* (A: 27, 43) > *diozcat* (B: 32, 44); *ciotzan* (A: 98) > *ciozcan* (B: 83); *dietedan* (A: 73) > *diedan* (B: 63); *citacitzun* (A: 81) > *citzaitzun* (B: 69); *ditza-dau* (A: 83) > *ditzadan* (B: 70); *zauden* (A: 112) > *zaran* (B: 100); *dituzanac* (A: 112) > *dituzunac* (B: 100); *goratzatzu* (A: 56) > *gora-iz-quitzu* (B: 52); *ez badaquizu* (A: 7) > *ez pa-da-quizu* (B: 10)⁵⁴; *urricari zaquizquigu* (A: 43) > *urricaldur zaquizquigu* (B: 44); *urraturic* (A: 89) > *urratuac* (B: 75); *acabatcen* (A: 95) > *acabatze* (B: 80)...

Aditzotan bezala, lexikoaren arloan ere ez da falta hautatu hizkerarekin lotura bide duen moldaketarik:

guchiren (A: 8) > *gutiren* (B: 11); *essan*, *essaten* (A: 12...) > *erran*, *erraten* (B: 15...) ⁵⁵; *essanac* (A: 46) > *erranac* (B: 46); *Virgiña Ama* (A: 19) > *Virgini Ama* (B: 21); *presenta bat* (A: 33) > *present bat* (B: 38); *escaincera* (A: 55) > *esqueincera* (B: 51); *migaiñarequin* [sic] (A: 25) > *mihiarequin* (B: 28); *bertce* (A: 88) > *beste* (B: 74); *amecagarren* (A: 87) > *amaica garren* (B: 74); *itce* (A: 88, 89) > *iltce* (B: 74, 75)...

Haietako batzuk uztartuta dirudite, baiki, Mikelestorenak espero zituen irakurleen euskalkiarekin edota haien ustezko hizkuntz ezagutzarekin (ikus hurrengo atala):

⁵² Adizki interesgarria izan liteke honako hau edizioen arteko filiazio-loturak finkatzeko orduan, B eta X edizioek (kasu bat gehiago bigarrenetan) era sistematikoan egiten baitute *zara* formaren alde. Guztiarekin ere, salbuespenen bat ere isurtzen zaie: *cera*, *cerala* (B-X: 23).

⁵³ Baina inguruetan bertan –eta urrunago ere– hainbat *duzu* mantenduz. Nahasmendua eta anabasa, beraz.

⁵⁴ Ildo berekoak: *ez-ba-dezu* (A: 8) > *ez-pa dezu* (B: 10); *ez-badere* (A: 39) > *ez-pa dere* (B: 42), etab.

⁵⁵ Baina ez beti (B: 83; X: 82).

alque, ta lotsa gatic (A: 86) > *lotsa gatic* (B: 73); *ohatce gogorra gatic* (A: 88) > *ohatce, edo oi gogorra gatic* (B: 74), etab.

Berdintsu gertatzen da kasu-marken aldaketa gehienekin ere:

lanzaz (A: 9) > *lanzez* (B: 12); *guciai* (A: 22) > *guciei* (B: 25);
guciaquin (A: 84) > *guciequin* (B: 71); *gucitic* (A: 85) > *guciz* (B: 72);
graciaz (A: 29) > *graciz* (B: 33)⁵⁶; *diranequin* (A: 37) > *diranac* (B: 42); *oracioetan* (A: 68) > *oracio-an* (B: 59)...

Esan bezala, B edizioak A-ri egindako zuzenketak dira horiek guztiak, gero X ediziora automatikoki igaro direnak.

Hurrengo urratsean X edizioa da B zuzendu duena, bai honek A-tik jaso dituen *akats* edota forma ustez berezietan eta bai gainerakoetan ere. Grafia-ri dagokionez, adibidez, nabarmena da *y* > *i* bilakaera, asko eta asko (ez guztiak) baitira aldatzen diren hitzak. Gogoratzeko modukoa da honako esaldi zati hau: *maytatu nay nuque Ayta* (A: 31; B: 36) > *maitatu nai nuque Aita* (X: 36); edota orrialde bakarrean, ia jarraian lerrokatuta, ageri diren hitzok: *zaytuen, zaytez, nay, gaytecn, Ayta gana, maytatceco* (A: 104; B: 90) > *zaituen, zaitez, nai, gaitecen, Aita gana, maitatceco* (X: 89).

Gainerako moldaketen tankerez ohartzeko, zerrendatxoari erreparatzea besterik ez dago⁵⁷:

Miquelestorenac eracutsia (A-B: azala) > *Miquelestorenac aguertua* (X: azala); *iru* (A: 2, 99) > *irur* (B: 4, 85) > *iru* (X: 4, 84); *Biotcean: ta Biotz* (A: 6) > *Biotz-ean: ta Biotz* (B: 8) > *Bihotz-ean: ta bihotz* (X: 8); *amabat* (A: 9; B: 11) > *ambat* (X: 11); *erretcen* (A: 11; B: 14) > *erretzen* (X: 13); *Profeta, ta Apostolai* (A: 46; B: 45) > *Profetei, ta Apostolei* (X: 45); *gañeracoai* (A: 51; B: 48) > *gañeracoei* (X: 48); *dutenac* (A: 53; B: 50) > *dutenai* (X: 50); *Hostia* [birritan, jarraian (A: 58; B: 54)] > *Hosti* (X: 54); *lagunzat* (A: 80; B: 68) > *laguntzat* (X: 68); *flaquidiaz* (A: 83; B: 71) > *flaquiaz* (X: 70); *zure* (A: 103) > *zere* (B: 90) > *zure* (X: 88); *bederatzi-urrena* (A: 95, 96...; B: 80, 81...) > *bederatzi-urrena* [X: 79 (hirutan)...]; *bederatzi urren* (A: 109) >

⁵⁶ Baina *graciz* (A: 109) > *graciaz* (B: 97).

⁵⁷ Artikuluaren luzera dela eta, ez da hemen sailkapenik eskainiko.

bederatciurren (B: 97) > *bederatzurren* (95); *dezaqueanetan* (A: 96) > *di-ditequeenetan* (B: 81) > *diteque-enetan* (X:80); *guenuque* (A: 107; B: 94) > *guenituque* (X: 92); *damu* (A: 107; B: 94) > *damua* (X: 92); *itzatzu* (A: 110; B: 98) > *itzazu* (X: 96).

Ikusi bezala, denetarik azaltzen da bertan: akats-zuzenketak, azaleko moldaketak, hitz egokitzapenak (egokiak zein ez hain egokiak), jatorrizko testura itzularazitakoak, berrikuntzak, etab.

Azpimarratzeko modukoa da, bestalde, lehen edizio bietan argitaratu zen jakulatoria-zerrendako baten ezabaketa, gero beheraxeago, konpentsazio-nahiak bulkatuta edo, beste batekin osatua izan zena: *Jesusen icerdia, gracizco viciz bete nazazu* (A: 103; B: 89) > Ø (X edizioan). Haren ordeztasunak: *Ez nadilla ni ortic beñere atera* (X: 88)⁵⁸.

X edizioak B delakoari egiten dizkion zuzenketak harago ere badoaz, B-k ez baititu beti akatsak A-tik jasotzen. Ohartzekoa da, adibidez, bat-batean tartekatu duen ç grafiadun sorta luzea [*çuten, gorputça, Calıçac...* (B: 27-41...)], gero X-k bere onera dakartzanak [gehienetan A-n bezala, ç baliatuz, baina ez beti: *beçala* (B: 93) > *becala* (X: 91)].

Gainerakoei dagokienez, honelakoak aurkituko dituzte irakurleek, besteren artean, bertsio osatuan barrena:

egunan (A: 55) > *eguenan* (B: 51) > *egunean* (X: 51);
adesquide (A: 56) > *aidsquide* (B: 52) > *adisquide* (X: 52);
irugarren (A: 77) > *iruzgarren* (B: 66) > *irurgarren* (X: 65);
gure (A: 107) > *guere* (B: 94) > *gueren* (X: 92);
egunecoa (birritan, A: 108) > *ecunecoa* (B: 95, 96) > *egunecoa* (X: 93, 94);

⁵⁸ Jesusek isuria izan arren, haren izerdiari zuzendutako jakulatoria ezohikoa eta, areago, askorentzat guztiz desagokoa zen Jainkoaren Bihotz Sakratuaren Odolaren eta Uraren maila berean tokia hartzeko, ezaguna baita, teologi eztabaidetatik at [ikus Salaberri, 2019-a], noblezia gutxiko isurkaritzat jotzen dela izerdia oro har. Besteak beste, Biblian bertan: eguneroko ogia jan ahal izateko madarikazio bezala daramate bekatarik batzuk (ez guztiek, agidanek) izerdia.

amoreac gatic (A: 109) > *omoreac gatic* (B: 97) > *amoreac gatic* (X: 95);

*arantz*a (A: 113) > *anantz*a (B: 101) > *arantz*a (X: 99);

aratzequin (A: 113) > *arajntz-equin* (B: 101) > *arantz-equin* (X: 99);

zure erdiratzallea (A: 113) > *lantza erdiratzallea* (B: 101) > *lantz erdiratzallea* (X: 99).

Ez dira ahaztu behar X-ren proposamen berriak edota formak homogeneizatzeko ahaleginak:

dezaquean (A-B: azala) > *dezaquen* (X: azala); *nitzaquean* (A: 14; B: 17) > *nitzaqueen* (X: 17);

zera (A: 6) > *cera* (B: 9) > *zara* (X: 9);

ecarritzazu (A: 56) > *ecarz-quitzu* (B: 52) > *ecazquitzu* (X: 52).

Bitxikerien artean, zeruko *Santu* eta *Santa* izenak edizio guztietan ongi bereizi diren arren (A: 22; B-X: 25; Z: 27), X edizioak gaztelerazko genero gramatikala aplikatuz tratatzen ditu hitz larriak *santu/santa* izenlagunak eranstea⁵⁹:

Escritura Santuan (A: 46; B:45) > *Escritura Santan* (X: 45); *Eliz Ama Santuac* (A: 51; B: 49) > *Eliz Ama Santac* (X: 49); *Sepultura Santua* (A: 92; B: 77) > *Sepultura Santa* (X: 76); *Passio Santua* (B: 77) > *Passio Santa* (X: 78).

A, B eta X edizioen arteko uztarketa dela eta, honelaxe labur liteke bertsoen bilakaera-eskema: $A \rightarrow B \rightarrow X$. Alegia, A-k egindako akatsak B-k zuzendu ditu, eta B-k dakartzanak X-k zuzendu ditu.

Labur-zurrean, eta *itzulpena* eginez: argitaratzaileek Mikelestorena liburuaren egile, zuzentzaile eta solaskide izan zutela inolaz ere ahaztu gabe, zinez baieztatu daiteke Martinezen edizioa (1749) Anchuelak bere 1751koa burutzeko erreferentzia bezala erabili zuela, eta Anchuelarena, geroxeago,

⁵⁹ Gainerakoetan B edizioak dakar X-rekin bat dagien salbuespen bakarra: *anima Santa-requin* (B-X: 34).

hark inprimatze-lanari uztean (1753), Radak baliatu zuela bere datarik gabeko X argitalpena atontzeko eta argitaratzeko, betiere, noski, 1754an kaleratuko zuen edizio berriaren aurretik.

Horrek guztiak, lehenago aditzera eman lege, 1753 eta 1754 bitartean jarriko luke Radaren X edizioaren argitaratze-dataren aitzurkula.

5.2. C-Z edizioak

C eta Z edizioak erkatuta –edo, nahiago bada, edizio biak erkatzeko C delakoak gorde dituen hogeitaz hamar orrialdeen arabera–, garbi dago, gorago aurreraturako moduan, Z-k, transkribatze-akatsen bat gorabehera, C edizioaren kopia betegina izatea bilatu zuela⁶⁰.

Ez dira C eta Z arras berdinak, jakina, kopia perfektura ezin eraman zitezkeen alde nimenak baitituzte haien artean bereizgarri, baina tamaina, konposaketa, ortotipografia, puntuazioa, orrialdeak, paginazioa, espazioak⁶¹, paratestuak, akatsak..., hots, edizioaren osagai gehien-gehienak edizio –barka simila!– *fotokopiatu* batez mintzo dira, oro har. Izan ere, guk dakigula, Euskal Literaturaren arloko edizioetan ezagutzen den *contrefaçon*ik zorrotzena da Longasena.

Bereizgarrien artean, labur adierazita, honako hauek dira C-k utzi dituen hogeitaz hamar orrialde horietan detektatu izan ditugunak:

⁶⁰ Beste ezer baino lehen nabarmendu behar da A ediziotik aski hurbil ageri dela Z (eta C) delakoa, eskuarki zuzenketa ortografikoz [h-a sistematikoago hainbat hitzetan (*Bihotz, behar...*), etab.] eta formalez ongi asko hornitzen badu ere. Ohi bezala, ez da falta edizio bietako batean tartekatutako testu-diferentziarik. Ikus, adibidez, A-k bai baina Z-k ez dakarren pasartea [«*baita escatu ere ceniola cere Aitari (...) barcacioa* (90)] edo, alderantziz, Z-k bai (heine batean, B-k eta X-k bezalatsu) baina A-k ez dakarren *Azqueneco Gurutceco Otoitza. Aguertzen zayo Magdalenari delakoa*, harritzekoa bada ere, hamabosgarren *estazioa* litzatekeena [askoz lehenagotik zuen Eliza katolikoa finkatua hamalau geldialdiko gurutze-bidea, hain zuzen ere, Inozentzio XI.aren bitartez, 1686.09.05ean (ikus Salaberri, 2019-a)].

⁶¹ Espazioa antolatzeko orduan, orri-amaieran hurrengo orrialdeetako lehen hitzak iragartzen dituzten silabei dagozkien desplazamendu *ikusgarrienak* milimetro eskasekoak betiere.

Orrialdea	Rada (1754)	Longas (d.g.)
6	<i>gogoz</i>	<i>gozoz</i>
7	<i>Arratsean</i>	<i>Arratsetan</i>
23	<i>, edo</i>	
	<i>nagusi</i>	<i>naguisi</i>
	<i>trebe</i>	<i>tribe</i>
24	<i>ceritzan,</i>	<i>ceritzan</i>
25	<i>artceco</i>	<i>artececo</i>
27	<i>Jesus,</i>	<i>Jesus</i>
29	<i>maian</i>	<i>main</i>
31	<i>inguratua</i>	<i>ingurutua</i>

Gainerakoa, esan bezala, berariaz burututako kopia zehatz batez mintzo da, grafikoki ere zehatza⁶².

Horrelakoetan froga erabakigarriak ohi diren akatsei⁶³ gagozkiela, ondo-ko hauek ditugu edizio bietan errepikatzen diren ozenenak:

A dareco (hots, *Aldareco*; C-Z: 6)

dutzu (hots, *dut zu*; C-Z: 8)

Et zaitzu (hots, *Etzaitzu*; C-Z: 9)

itsutasen (hots, *itsutasunez*; C-Z: 23)

ellumbez (hots, *illumbez*; C-Z: 23)

alditz (hots, *aldiz*; C-Z: 29]

expadazu (hots, *expaduzu*; C-Z: 32)

becaturic (hots, *becatutic*; C-Z: 32)

⁶² Bitxienak diruditen formak—ez baitira gainerako edizioetan agertzen—barne: *hurteoro*, *hurteco*, etab.

⁶³ Eta akatsak izan gabe ere, beste hiru edizioetatik aldentzen diren forma komunak ere gehituko genituzke hemen, hala nola *quenticitzaquela* (A-B: *quen citzaqueala*; X: *quen citzaquela*), eta besteren bat gehiago.

Hori ikusita, beraz, ez da arrazoirik nahitaez erkatu gabe geratu behar izan diren gainerako orrialdeak ere ildo berekoak izango ez zirela pentsatzeko. Berdin-berdinak zirela, esan nahi baita.

Baina, kontuz! Edizio biak larru berdinekoak bai, baina desberdintasun handi eta larria zuten haien artean ziurrenik, nonbait *Acto Fedeco* delakoa-ren eransketak islatuko lukeena. Eta *ziurrenik* diogu, frogatu ezinezko inferentzia bat mahairatzen ari garela jakinez, C izenekoak ez baitu –barka eten-gabeko erredundantzia– ale osorik utzi.

Uste izatekoa da, bai, C edizioak –A, B eta X izenekoek bezala– erantsita izango zuela Jesusen *Bihotzaren Bederatzi-urrena* atala, nahiz eta ez, ziur asko, amaierako *Arquivea*, A eta Z edizioek ere ez baitakarte horrelakorik.

Liburuaren ezaugarri berriak ulertzeko hipotesiren bat bilatu nahi izatekotan, bestalde, zinez pentsa liteke Z edizioan Bihotz Sakratuaren debozioaren erakusgarri zen *Jesusen Bihotzaren bederatziurrena* atala (22 orrialdeko luzerakoa) ez eranstearen⁶⁴, eta, aldi berean, *Acto Fedeco*, *Esperantzaco*, eta *Caridadecoac* atala (5 orrialdekoa) gehitzearen funtsezko arrazoia, erabat lotua egon zitekeela Erromako Elizarekiko zintzotasuna erakutsi nahi izatearekin. Alegia, ordura arte liburuaren egile eta erabiltzaileek burututako *hanka-sartze jesuitikoa* gorabehera, Eliza ofizialaren barnean zeudela adierazi eta aldarrikatzea zitekeen xedea.

Ez da ahaztu behar –eta ez diogu errepikatzeko aukerari gibel eman nahi– Jesusen Bihotzaren debozioaren hedapena jesuiten enpeinuaren fruitua izan zela hein handi batean:

(...) esta expansión sufrió un brusco frenazo en muchos países tras la expulsión de estos últimos y su posterior disolución, en 1773. El regalismo jurisdiccionalista y el jansenismo anticurialista se aliaron contra los jesuitas y contra el Sagrado Corazón, que –como afirma De Giorgi– se había convertido en el “*emblema del jesuitismo*”. Por primera vez la devoción se identificaba con el catolicismo perseguido por el poder civil. (Cano Medina, 2007: 51)

⁶⁴ Orrialde bateko *Arquivea* bera ere ez dakar.

Hortaz, haien erbesteratzearekin antonomasiaz *jesuitikoa* zen debozio hark automatikoki egin zuen beherantz 1767tik aurrera. Izan ere, data hartatik aurrera politikoki desagokia eta egunerokotasunetik *ezabatua* gertatu zen estatu espainiarrean jesuiten Lagundiarekin uztartutako oro.

Are gehiago, handik gutxira erlijiosoki ere desagoki bilakatu zen unibertso harekin loturikoa, esan bezala, Erromako Elizak ofizialki debekatu baitzuen Lagundia. Hain zuzen ere, Frantzia eta Espainiako monarkien hertsapen politikoa zela eta, Klemente XIV. elizburuak Jesusen Konpainiaren deuseztatzea agintzen zuen *Dominus ac Redemptor* ibiltorri apostolikoa *–laburra–* promulgatu zuen 1773ko uztailaren 21ean.

Luengo izeneko jesuita garaikideak jaso bezala, Longasen inprimategia indarrean jarritako unean:

(...) *la devoción al Corazón de Jesús, perseguida en todas partes y aun en el estado mismo de la Iglesia, precisamente porque es cosa peculiar en algún modo de la aborrecida Compañía de Jesús.* (Luengo, 1767, X, 44)

Eta zer esanik ez, noski, euskaraz idatzia bazetorren delako debozioa, bederatziurrena edo dena delakoa.

Zilegizkoa da pentsatzea lesakarraren obraren ale gehienek desagertuak ere horretan dituela, segur aski, sustraiak; besteak beste, esan nahi baita.

Nolanahi ere den, Longasen ediziora itzuliz, bat baino gehiago dira azalarazten dituen galderak eta zalantzak. Batetik, edizioaren eragile/editorearen arazoa, aukera posibleen artean geratzen baita Mikelestorena hil eta gero –1785etik aurrera, hortaz– argitaraturiko edizioa izatea, horrek zekartzan eta dakartzan duda-muda guztiekin. Eta ez da garrantzi gutxienekoa galde lezakeena, ea Z edizioan editoreak berak –ez egileak– erabaki ote zuen *bederatziurrena* ezabatzea eta, *Acto Fedecoaz* ordezte. Izatez ere, trukaketa burutu zen moduari erreparatuz gero, Mikelestorenak nekez egingo zukeen gauza dirudi horrek, hots, pentsaezina baita delako atala Juan Irazustaren katiximatik (Irazusta, 1939: z.g.) zegoen zegoenean

hartu –bere hizkerara egokitu ere egin gabe, alegia– eta inongo buruhaus-terik gabe liburuan itsats zezakeenik⁶⁵.

Baiezko erantzunean errazago antzeman liteke *contrefaçon* delakoa (edizio aizundua) burutzeko arrazoia, eta, batik bat –barka erredundantzia–, atal garraiatuan (*Acto Fedecoa*) inolako ukitu edota doikuntza linguistikorik egin ez izanaren kontua⁶⁶.

Horrezaz gainera, beranduago egina izateak ez luke inolaz ere deuseztatuko *contrefaçon*aren argitalpen-urtea 1798-1800 epekoa –edo beranduagokoa– izateko posibilitatea⁶⁷, oro har Arandako kondearen desagertzearekin batera hasi baitzitzaien euskarazko liburuei inprenten atea berriro irekitzen⁶⁸.

Lesakarrak kontrolatutako edizioaren hipotesian barneratuz gero (1785. urtea baino lehenagokoa beharko lukeena, jakina), bidezko lirudike pentsatzea Mikelestorenak, susmoak garbitzeko ahalegin modura edo, urrin *jesuitikorik* gabeko liburutxoak kaleratu nahi izango zuela amaieran eta hartatik zetorrela delako testu-trukaketa. Alabaina, liburu guztiari zerion *urrrin* hura⁶⁹, harrigarriro, ez zen ukitu ere egin Longasen edizioan. Eta zinezko

⁶⁵ Zehaztapen gehiago in Salaberri, 2019-a.

⁶⁶ Ezaguna denez, atal berria Mikelestorenarena ez zen gipuzkera betean isuria aurkitzeak areagotu izan du gero gure autoreari egotzi zaion gipuzkerarako joeraren ospea.

⁶⁷ Saiakera hartarako, inprentaren izena zertxobait moldatu behar izan bazuten ere, esan nahi baita. Gogora bedi Longasen alargunaren eta semearen ardurapean geratu zela irarkola 1795etik aurrera eta eskuarki haren izenak ere egoera berria islatzen zuela.

⁶⁸ Mende berriaren hasierakoak dira J. A. Mogel (1800), Añibarro (c.1802), Agirre Asteasukoa (1803) eta besteren argitalpenak.

⁶⁹ Ezin ahantz daiteke Jesusen Bihotzaren debozioaren fruitu aski esplizitua dela Mikelestorenaren liburu guztia, *Calvarioco estacioac* izeneko atala salbuespen (nahiz eta huraxe izan *de facto* debozioaren benetako oinarria). Hasierako ataletik hasita [Ongui *vicitceco modu labur errazac*: «*ala escatcen dizut zure Biotzeco amoreagatic*» (1749: 2)], bigarrenetik jarraituz [Goicetic *arratseraño eguin bear diran cembait gauza atalaren buruan*: «*Jan otordu gucietan Aita gurea, ta Ave Maria, & c. Jesusen Bihotzeco amore penen icenean*», «*Jesus, maitatcen dut zure Biotza*» (1749: 3), «*Jesus maitea, zure Biotzari non nai, ta nion baño gueiago Aldareco Sacramentuan zor diodan amoreari erantzutea gatic*» (1749: 3-4)], eta *Contricioa* delakotik igarota [«*gorde zaitzala Jesusen Biotcean: ta Biotz onen amoreac gatic essain duzu*» (6)] eta azken unera arte, etengabekoa da Jesusen Bihotzaren presentzia: konfessorearen oinetara baino lehen esan beharreko otoitzean (bi aldiz,

arrazoia, hipotesia deuseztatuko lukeena, Z edizioa egileak kontrolatu gabe-ko argitalpena izatean letzake; eta, jakina, argitaratzaileari –ez egileari– edo lausotua geratu zitzaion hori testuaren jarioan edo, egiazkoago dirudiena, ez zuen pasarteak birmoldatzeko lanik hartu nahi izan.

Edonola ere, bata izan hipotesia zein bestea, galdera maltzurrago batera eramán gintzakete jarraian: ordura arteko edizio *jesuitikoak* disimulatu/estali/ordeztu edo merkatutik kendu nahi izango ote zituzten Mikelestorenak edota argitaratzaileek, edizio *faksimile* haren argitaratzearekin?

Egia bada Bidadorrek zioena (alegia, azken edizio hau «*es de la que mayor número de ejemplares se conoce*»⁷⁰), argi legoke aurreko edizioak *indukzioz* desagertu –hots, desagerrarazi– zirela eta azken honi egokitu zitzaiola jendearen artean, begirada inkisitorialen beldurrik gabe edo, irauten segitzea.

Aukera bat izan ala bestea, aise suma liteke atal berriaren eransketa ez zela hala-holako inprobisazioaren fruitu izan, eta bai, ordea, Eliza erromatarrarekiko leialtasun-adierazpena. Hartara, Mikelestorenak –edota dena delako editoreak– argi utzi nahi izango zukeen kutsu *jesuitikoko* argitalpenei uko egiten zuela eta sinésleen artaldean segitzen zuela leial eta irmo. Eta, badaezpada ere, horren aldarri eta lekuko aratz utzi nahi zuela azken edizioaren lerro berrietan: *Sinisten det Ama Eliza Santa Catolica Erromacoac sinisten duan guztia, eta fede onetan nai det vici, eta il* (Z: 89-90).

Aldi berean, ongi neurtua eta pentsatua zela frogatzen zirikada modukoren bat ere atzeman liteke liburuan barrena. Ildo horretan, behialako haren *eppur si muove* delakoa ongien isla dezakeen jarrera, *Calvarioco vide*

15 orrialdean), komulgatzerakoan esan beharreko otoitzean [«*zure Biotcetic nai nuque, nere gaitzac bear duten, erremedioa atera*» (24)], komulgatu ondoan eskerrak ematean [«*zure Biotzaren idurira nerea moldatzèra*» (30)], «*Sartuco naz Ceruco atseguin, ta gusto guciac bildu dituen zure Biotzean*» eta «*zure Biotzaren amore guciarequin*» (31)], eta meza entzuteko moduan [«*artuco da Jesusen Biotceraño: ta Biotz orretan icasico du*» (34)], «*Amorez erretcen dagoen zure Biotceco sutic eman bear diguzu cerbait, bero dedin gurea, ta mayta zaitzagun gogotic*» (55)], «*Atera bitez Purgatorio sutic, an erretcen daudenac, eta lembicico lecuan Jesusen Biotza, ta Ama Virgíña, gueyena maytatu dutenac*» (56)], «*Amorez Biotza erretcen daducazun*» (58)], «*zure Biotcean gorde nendin, cere bularra idiquia utci cenidan*» (61)].

⁷⁰ Bizpahiru besterik ez, guk dakigula.

assitcean eguin bear den otoitza izenekoan txertatu zuen esaldi esanguratsu honetan legoke laburturik: *Orretaraco escatcen dizut Bihotz gucitic, Elizaren behar, estutasun, edo necesidadeac gatic* (Z: 67). Horrela –ohartuki egina, alegia– izan balitz moldaketa, ez zatekeen *Bihotz* horren lehen letra larria ustekabeko akats tipografiko bati zegokion zerbait izango –fededunaren *bihotza* ez baita hizki larriz aditzera ematen–, nahita burututako oroitzapen edo omenaldi bati zegokiokeena baizik. Eta ez dirudi kasualitate hutsari egotz lekiokoenik, Elizak une hartan zituen *behar, estutasun, edo necesidadeac* iradoki eta gogora ekartzearena ere.

Aieruzko bihurrikeria hauen posibilitateaz eta errealitateaz C edizioa baino ezin mintza zitekeen, agidanez, eta, jakina, harekin erkatuta egiazta beharko litzateke orain hori guztia. Alabaina, gorde diren hoge orrialde eskasek ez dute, zorigaitzez, aukera apur hori ere eskaintzen.

Azpmarratu beharrik ez da: azken hori frogatuko balitz, argi eta garbi geratuko litzateke dagoeneko iradokia duguna, hots, orri bakan batzuk besterik gorde ez duen C edizioa (1754koa) izan zela Mikelestorenak moldatu eta kontrolatu zuen azken bertsioa, eta Z delakoa, berriz, besteren eskutik igaroa eta bestek, atal bat ezabatuz eta beste bat erantsiz, birmoldatua.

6. Hizkeraz eta idazkera-koherentziaz bina hitz

6.1. Hizkeraz

Mikelestorenaren edizioak eskuetan, aurreneko zalantzetako bat izan ohi da ea zer-nolako hizkera eta zein euskalkitakoa ote den lesakarrak darabilena. Eta zalantza sortzen da agian kanon dialektologikoaren eraginagatik bideratuegia izan dezakegulako auzia, eta, horren arabera, euskalki zehatz baten ezaugarri aratzak aurkitzea espero dugulako testuetan.

Jakina da Mikelestorenaren jokaleku erreala iparraldeko goi nafarreraren esparrua izan zela nagusiki (elkarren artean mugakide diren udalerrietan, hain zuzen: Lesaka-Irun-Oiartzun), nahiz eta, dakigunaren arabera, gipuzkera *tipiko*arena ere (Donostia) ukitu zuen bolada batean.

Haren idazlana, beraz, puntu horretatik abiatuz jorratu beharko litzateke bai ala bai, hizkuntzaren ezaugarri formaletan sakondu nahi izanez gero, behintzat. Alabaina, ez dugu hemen bidaia hori era sistematikoan burutzeko asmorik, alde batetik lan honen xederako interes gehiegirik ez lukeelako eta, bestetik, alferlana litzatekeelako, aipatu irizpide ortodoxoen arabera espero zitezkeen ezaugarriak ez baitira uste bezain maiz eta garbi ageri haren obran, eta bai, aldiz, berezko hizkerari ez bide dagozkionak franko.

Horren orde, beraz, literatur intuiziotik hurbilago dabilen metodologia bati heltzeko bidezidorra hautatu dugu guk hemen; antzeko ondoriotara iristeko, akaso.

Izatez ere, eta guztiaren gainetik⁷¹, Mendiburu lagun oiartzuarraren erreferentziazko *Jesusen Bihotzaren debocia* (1747) liburuaren irakurketaren eragina⁷² sumatzen uste zaio lesakarrak bere obran baliatutako hizkerari, eta, modu bereziagoan beharbada, 1749an Martinezen ondorengoen etxean kaleratu zuen lehen edizioan.

Eta zertan antzeman eragina? Bada, aurreneko intuizio-unea okerrezi ez badabilkigu, bertan parte hartu zuen Larramendi ospetsuaren hitzaurre entzute-tsuan eta Mendibururen obran bertan erraz identifika daitezkeen hainbat ezaugarri eta baliabideren erabileran eta, hartaz gainera, idazteko modu finkorik ez egoteak zekarren anabasa gisakoa ere bereganatu bide zuelako lesakarrak.

Eta bereziki azpimarratu nahi genuke anabasaren faktorea, azken batean besterenetik xurgatu zuen koherentzia ezak berak desitxuratu uste zuelako Mikelestorenaren hizkera.

Jakina, nekeza genuke Larramendiren eta Mendibururen idazkerek Mikelestorenean utzi zituzten aztarna guztiak orain hemen aztertzea, baina,

⁷¹ Horrek ez luke inolaz ere baztertuko Kardaberazek 1744an Iruñeko Anchuelarenean kaleratu zuen Dutariren itzulpen (erdi-)galduren eraginik.

⁷² «A este Padre deben los Bascongados, además de las meditaciones sobre los principales misterios de nuestra religión, y otras obras no menos importantes, *el libro más precioso de la devoción al Corazón de Jesús que se conoce en su lengua*, enriquecido con la novena y las reglas de la congregación del mismo Corazón divino. Está impreso el 1747, y reimpresso el 1751 en Pamplona» (Uriarte, 1880: 365; g.l.e.).

testuei arreta poxi batez erreparatuz gero, egia da ez litzatekeela laburra suertatuko lesakarrak haienetatik jasotakoen zerrenda⁷³.

Hobeto ulertuko da adibideren batez edo bestez adierazita.

Larramendiren hitzaurrean eta Mendibururenean etengabekoa da *dezu* adizkiaren erabilera, printzipioz bederen lesakarraren hizkuntz azturarekin kontrastean zegoena. Alabaina, ondoko pasartean islatzen den legez, Mikelestorenaren *hizkuntz hautuak* horri ere egiten dio men:

Arratsean etzin baño len, ecusico *duzu*, certain, edo nola pasatu *duzun* eguna: arquintzen *baduzu*, cembait gaucetan utseguin *dezula*, escatuco diozu Jaincoari barcacioa, ta essain *dezu* Actu Contricioz-coa guisa onetan. (A: 5-6; g.l.e.)

Eta men egiten dio bai lehen edizio honetan eta bai, adizkiok aliritzira bezala jarririk edo, ondokoetan ere; hau da, pasarte honetan bertan, batzuetan *duzu-dezun-baduzu-dezula-dezu* izango da adizkien hurrenkera (B-X: 7), eta besteetan *dezu-dezun-badezu-duzula-dezu* erakoa (C-Z: 7), guztietan mugakide diren euskalki desberdinei dagozkien formak (*dezu/duzu*) txandakatuz, eta, itxura duenez –kasualitatez?–, gipuzkeraren areagotze-moduan jarririk⁷⁴.

Noski, hautu hori –ez derrigorrean inkoherentzia eta ez nahitaez ezeren zuritzaile– ulertu edo ahal izateko, gogoan har liteke Larramendik *Coro-*

⁷³ Honatx, erakusgarri modura, Mikelestorenak Mendibururenetik hartu eta bere lanean zuzen emandakoen eskutada bat: grafia (*essan*, *maitatceco*, *siñisten*); idazteko era [*ez pa zoazque* (Mendiburu: 258), *nai ez pa dezu* (267), *etzaitzula* (257), *lembaitlen* (272)]; kasu-marka batzuk [*daudenai*, *bazterrai* (267); *ortzaquin* (283)]; kasu-marka zenbait –gidoiarekin edo gidoirik gabe – bereizteko joera (x-*requin*, -*gana*, -*gatic*); lexikoa (*adiraci*, *erditsi*, *Jesus Ona*), aditz- formak [*daducatien* (257), *daduzcate* (304), *naz*, *esca zagozu* (270); *emain dizut* (269), *izain lizaque* (298); *ditezquean* (264), *cenuqueana* (292), *cezaquean*, *citzaquean* (318)]; sinonimo-bikoteak [*cutsu*, *edo reliquia* (39), *otoitza*, *edo oracioa* (354, 357...)]; zalantzak eta nahasmenduak [*apaintzeco/apaintceco* (287), *artceco* (287) / *artzen* (344), *ondoratcen/ondoratzea* (345), *comulgatcen* (345) / *comulgatzen* (346), *cera* (271) / *zara* (290), *dut-dugu* / *dezu*]; bestelakoak [*asserretu lecuan* (Mendiburu, 320) / *erori lekuan* (Mikelestorena, 50)], etab.

⁷⁴ Hau da, lehen edizioan hiru aldiz *duzu* eta bi aldiz *dezu*; 1751koan eta Radaren d.g. delakoan bi bider *duzu* eta hirutan *dezu*, eta 1754koan eta Longasenean behin bakarrik *duzu* eta lau aldiz *dezu*.

grafia liburuan ohartarazi zuena, besteren artean, Mikelestorenaren erlijiozko eginkizunen jokaleketako ustezko irakurleen hizkuntz usadioez ere mintzo baitzaigu:

En Beterri, desde Irún hasta Rentería inclusive, usan la terminación labortana *dut, duzu* sin interrupción; desde San Sebastián hasta Tolosa interrumpidamente *det, dezu, du [...], degu, dezue, dute [...]*. (1882: 268-269)

Hein batean, behintzat, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko hizkeren borondatezko hibridazioa, hortaz, Mikelestorenaren kodean.

Baina hori esan bezain azkar aitortu behar da idazteko era aski nahasia erakutsi zutela gure josulagunek lehen liburu eredugarri hartan eta lesakarrak bere edizio gehienetan, berdin eman baitzituzten era batera zein bestera idatzirik –koherentzia larregirik gabe, alegia– perpaus-osagarri gehienak.

Mikelestorenaren edizioetan begiratu azkar batek islatu bezala, xume-xumeak dira teoriarik euskalki esparru bakoitzari dagozkion bereizgarriak, logika gehiegirik gabeko nahasmendua azaltzen da-eta han-hemen testuetan barrena⁷⁵.

Eta hizkera-ezaugarria bainoago, ildo nahasi berekoa dirudi partizipioan *-n* duten aditzekin lesakarrak erakusten duen erabilerak, idazlana euskalki guztien arrago bilakatzea lortzen baitu oharkabeaz:

Al dezun egunean *enzunen* duzu Meza bat. Ecin ba-zoazque Elizara, *enzungo* dituzu gogoz, ta deseoz egun artant [sic] munduan ematen diranac. Egunoro *essain* duzu ichecoequin [...]. (1749: 4; g.l.e.)

Ironiak aparte⁷⁶, Mikelestorenaren irizpideak, argi da, anitzak dira. Anitzak eta eklektikoak, alegia.

⁷⁵ Beste baterako utzi beharko dugu testuek koherentzian irabazteko erakusten dituzten moldaketa esanguratsuenen azterketa. Argitu beharrik ez da aditz-denborari dagozkion egokitzapenez (*artu dituen* > *artu cituen*, *maite cenuen* > *maite duzun*...), pertsonenez (*aguer nindequean* > *aguer litequean*, *utci cenuen* > *utci cenion*...) eta bestelakoez ari garela.

⁷⁶ Arrazoi pedagogikoez bultzatu ote zuten pentsatzeko zalantza gehiago egon zitekeen, baldin gehiagotan jokatu izan balu *inkoherentzia* horrekin, oso bitxia egiten baita, aipatu adibide berera

Anekdotiko samarra den arren –Mikelestorenaren erdialdeko euskara mugakidean ez baita lar bereizten alde batekoa zein bestekoa–, lehen edizioan bakarrik ageri den *bertce* forma har genezake esku-argi gisa, hain zuzen ere, birritan eta orrialde berean (A: 88) baino ez baita azaltzen, eta betiere beste bospasei *besterekin* lehian.

Ekialdeko hizkera-formak direla eta, *erran* aditza dugu esanguratsuene-tako bat. Halere, B eta X edizioetan baino ez da aurkitzen, eta aditz horren geroaldia osatzeko, gipuzkerazko laguntzailearekin osatuko du edizio bietan [*errain dezu* (B: 28; X: 29)], ondoan *hirur* zenbatzailea daramatelarik⁷⁷.

Ezaguna da, bestalde, euskalki-desberdintasunen identifikagarri eragin-korragotzat hartu ohi direla aditzaren inguruko ezaugarriak. Alabaina, sailkapen dialektologikoetan sartu gabe ere, gogoan hartu behar da Mikelestorenak geroaldirako darabiltzan *essain*, *joain*, *edain*, *emain* formak ohikoak zirela Mendibururen jaioterrian eta inguruetan ere Larramendiren garaian:

En Oyarzun [ezagunak dira] por *esain*, *emain* y otros acabados en -n, y también *esanen*, *emanen*, *eguien*, en vez de *esango*, *emango*, *eguingo*: y lo mismo es en sus vecindades de acá y de Navarra. (Larramendi, 1882: 269)

Ezin jakin, bada, forma haiek jatorriz zetorkion hizkerari tokia eman nahi ziolako zerabiltzan ala eredutzat hartuak zituen idazleen erabilpenaren eraginagatik jokatzeko zuen horrela.

Eta ez da bereizi-ezintasun hori gainditzen edizioen azterketa hutsarekin. Adibidez, aditz-formen azterketak, ezer ematekotan, agian Mikelestorenaren obra irizpide desberdinez multzokaturik ikusteko aukera eman lezake, ez euskalki garbiren aztarnek bideraturik. NOR paradigmaren kasuan, orainaldian, hauxe da islatzen dena: *cera[n]* (A: 2, 18; C-Z: 3, 23) eta *bacera* (A: 26; C-Z: 32) vs *zara[n]* (B: 4, 22, 100; X: 4, 22) eta *bazara* (B-X: 30).

itzuliz, segidan jarritako bi esaldietako «*enzumen*» *bateratuak* (C-Z: 6) gainerako edizioetan forma bikoitzean –*enzungo* eta *enzumen*– aurkitzea (A: 4; B-X: 6).

⁷⁷ A-k ez du behin ere eskaintzen [*h*]inur forma. Eta diogun bidenabar: *laur* zenbakia kasu bakar batean baino ez dela ageri bost edizioetan, *laurgarren* formapean (X: 90).

Aldi berean, baina, multzoen *araua* hautsiko lukeen forma, A edizioan ere ageri baita: *zara* (A:110; B: 98; X: 96).

Kontrasterako kasu bakarra egon arren, muga argiagoo-edo legoke pluraleko bigarren pertsonan ere: *zerazte[n]* (A:2) / *zarazten* (B-X: 5) / *cerate[n]* (C-Z: 5).

Ez luke arazorik emango pluraleko lehen pertsonak, edizio guztietan berdina baita: *gara* (A: 110, 111; B: 98; X: 96); *[ba]gara* (A: 33; B-X: 38; Z: 40); *gara[ño]* (A: 56; B-X: 53; Z: 56); *gara[la]* (A: 107; B: 94; X: 92)...

Euskalkiei baino gehiago, gipuzkeraren esparruko ustezko irakurleei begira burututako bitxikeria interesgarri bat da B edizioan (eta, orrialde horiek galduta badituzte ere, C eta X edizioetan ere agertuko zela suposatzekoa da). Bada, izan ere, A edizioan esapide bat, *eldu gara* (A: 111), nafarreraren esparrukoak ez zirenentzat ulergaitza edota, okerrago zena, gaizki uler zitekeena⁷⁸; hurrengo edizioan⁷⁹ Mikelestorenak erdialdeko euskalkia zerabiltenentzat ulergarriagoa zen silaba kantitate bereko formula batez ordezkatu zuen bertso-zatia, *emen gatoz* idatziz (B, 99)⁸⁰.

Baina panorama nahaspilatsu horrek sorrarazitako zalantza gaindigaitzen aurrean, egia da ez dakigula argi oraindik, han-hemen azaldutako nafarre-kutsu apurra lausotu eta gipuzkera hedagarriago baterantz hurbiltzeko asmoa izan balute bezala ez ote zuten jokatu nahi izan C-Z edizioek, B-X edizioetako *erran* guztiak *esan* bilakatu baitzituzten⁸¹, eta, aldi berean, hitz ulertezinak-edo zeritzenak egokitu⁸² (*aitciñean* > *aitciñean edo abrean*; *cere*

⁷⁸ Bortzirietan-Malerrekako hizkeran bederen *bidean gaude*, *baina ez gara iritsi* esanahiarekin bizirik dago gaur egun ere. Alegia, Axularren *Gomendiozko kartan* azaltzen den *heldu nintzen*; *ez derautazu iguriki* haren parekoa: *bidean nentorren*; *ez didazu itxaron* (Axular, 1643: 3).

⁷⁹ X edizioan orrialde hori falta bada ere, B-koa bezalako bertsioa jaso zela adierazten dute gainerrako kanta-zatiek [ikus, batik bat, hirugarren ahapaldiari dagokion hasiera (*Etceuden bacarric lo-yac*; X: 96) eta azkena osorik (*Ez dut behar maitatu*; X: 100)].

⁸⁰ Mendibururen bertsioan ere *emen gatoz* ageri da (1762: 109).

⁸¹ Berdintsu beste hitz zenbaitekin ere: *guti* > *guchi*, *gaua* > *gaba*... Aski modu sistematikoan *Jaungoico* bilakatu zuen *Jainko* hitzaren aldaketaren arrazoia, ordea, etimologia argiagooa baliatzeko nahian bilatu beharko litzateke ziurrenik.

⁸² Mendibururen gogoko sinonimo-uztardura (*edo*) baliatuz, hain zuzen.

oben > cere oben edo culpac...), adizkiak inoizka ukitu (*zara/zarazte > cera/cerate...*), etab.

Horrekin guztiarekin batera, gutxienez edizioak multzokatzeko –eta dagokien *stemma* atontzen hasteko– balia litezkeen bestelako *isoglosak* ere antzeman daitezke han-hemenka. Hori da *-en/-ela* eransteko unean *-ke* edo *-keen* daramaten adizkiekin gertatzen dena. Horretan, nabarmena denez, X edizioa da Mikelestorenaren usadiotik⁸³ gehien urruntzen dena:

<i>dezaquean</i> (A-B-C-Z: azala)	<i>dezaquen</i> (X: azala)
<i>citzaqueala</i> (A: 19; B: 23)	<i>citzaquela</i> (X: 23; C-Z: 24)
<i>cenuqueana</i> (A:22; B: 26), <i>cenuquean</i> (Z: 27)	<i>cenuquena</i> (X: 26)
<i>ditequean</i> (A: 33; B: 38; Z: 40)	<i>ditequeen</i> (X: 38)

Guztiarekin ere, ez zaio X edizioari, arreta gutxiko imitazio-efektuagatik ziurrenik, besteen erabilera-indarrari edo zor zaion adizki-sortarik falta: *nuquean* (X: 40, 58), *dezaquean* (49), *nindequean* (53), *nezaquean* (59), *ditezquean* (91), etab.

Berriz ere, nonbait, irizpide lar finkaturik gabeko hautua Mikelestorenarena.

Agerikoa da, Larramendirena ahantzi gabe, Mendibururen eredurantz jo nahi izan zuen bete-betea⁸⁴. Eta logikoa zen, zeren eta, elkarren arteko hurbiltasun fisikoaz eta afektiboaz gainera, hizkera-esparru berak uztartzen baitzuten elizgizon biok.

6.2. Idazkeraz

Orain artekoaren ildoko zerbait baizik ezin aipa liteke Mikelestorenaren bestelako hautuez eta *anabasez* ere, maiz asko besterenetan –josulagunen

⁸³ Mendibururena bezalako usadioa izanik, hain preseski [ohikoagoa honetara...]. Ikus haren *dezaquean* (1747: 9), *lituquean* (13), *ditequeana*, *cezaquean* (14), *dagoquean* (22), etab.

⁸⁴ Hona Mendibururen 1747ko liburutik jasotako hainbat adibide: *charraquin* (96), *soñecoquin* (97), *ortzaquin* (112), *guciaquin* (162), *ariñaquin* (235)...; *daudenai* (5), *zaldiai* (17), *gauzai* (150), etab. Berdintsu jokatu zuen Larramendik ere: *náspillai*, etab.

obretan, hain zuzen— antzemandako iparrorratzak gidatzen duela ematen baitu.

Jokamolde nahasi hori, edizioen moldaketetan barrena ahulduz joan bazen ere, ez zen zeharo aldatu.

Zehatzago —ezen ez argiago— ikus daiteke gidaritza eklektiko hori atal desberdinetara hurreratuz. Grafiari dagokionez, esaterako, Mendibururen *-tce*, *-tci* (*urtcen*, *guelditcea*, *utci*) eta Larramendiren *-tze*, *-tzi* direlakoan aurrean, Mikelestorenak —estatistika zehatzik gabe ari gara— bietatik bildu zuen gainerako edizioen erreferentzia izan zen lehenean, eta Mendibururen lerroetatik hurbilago —homogeneoago— jokatzan saiatu zen gero gainerakoetan⁸⁵.

Ortografiari gagozkiola, Larramendirenean sistematikoa da Mendiburuk *h* letrarekin dakartzan hainbat hitz *h*-rik gabe aurkitzea (*biotz*, *bear*). Lesakarraren A edizioan andoaindarrak darama horretan garaipena. Baina lehen edizio hartara isuri zuen *hautua* nahasia izan bazen ere, agerikoa da taxuzkoago bihurtzen joan zela bigarrenetik aurrera. Berdin debozio sakratuaren muina zen *Bihotz* hitzaren kasuan⁸⁶, nola etsenplutzat jarri dugun *behar* delakoarenean⁸⁷.

Jarauntsitako irizpide malgu horiekin jokatzan du, era berean, hainbat konsonante-elkarketaren kasuan. Izatez ere, <*nz*, *lz*, *rz*> elkarketetan berdin

⁸⁵ Baina zalantza franko eta irizpide-batasunik eza erakusten ditu beti lesakarrak, *-tce/-tze/-tçe/-ze/-ce* edota *-tci/-tzi* aldakien artean hautatzeko orduan. Adibidez, *comulgatzeco* (A: 17), *comulgatceco* (B-X: 20), *comulgaceco* (C-Z: 21).

⁸⁶ Hori da, adibidez, *Jesusen Biotz Mayteari* bertsoetan erakutsi zuena: lehen edizioan berdin ikus daiteke *biotcecoren* ondoan (A: 110-113 orrialdeetako guztiak honela), *biotzeco* forma (114, hiru aldiz). Eta berdintsu ortografiatzen den bezainbatean: A edizioan, anabasa berdintsuarekin jokatzan du *biotz/bihotz* bikotearekin ere. Alabaina, koherentzia gehixeago erakutsiko du B-X-Z edizioetan, eta hitz horretan behintzat homogeneizazio aski sistematikoa burutu zuen, akatsen bat gorabehera, *Bihotz* bilakatuko baitzuen hurrengo edizioetan efektu guztietarako: *Bihotzeco*, *Bihotzean*, etab.

⁸⁷ Esan bezala, ez da inondik ere bateratua hasieran *bear/behar* bikotearekin azaltzen duen *irizpidea*. Nahas-mahas horren erakusgarria da lehen edizioko 84. orrialdea, *bear* (behin baino ez) eta *behar* (hiru aldiz) azaltzen baitira hamar lerroxkatan. Ohargarria, dena den, nola geroke edizioetan areagotzen den *behar* formaren presentzia bestearen kaltetan, nahiz eta, harrigarriro, A, C eta Z edizioek *bear* delakoa zuzendu gabe mantentzen duten azaleko informazioan. Inprimatzaileek ohi dituzten inertziei zor zaien akatsa, beharbada.

balia ditzake txistukari frikariak zein afrikatuak⁸⁸: *enzun/entzun*, *etorze/etortze*, *zorzi/zortzi*, *zabilza/dabiltza*, *cembilzala/cembiltzala*, *ilzeco/iltcen*... Nabarmendu behar da, dena den, <ns, rs> ageri diren kasuetan lesakarrak ia ez duela salbuespenik egiten: *bearsu*, *indarsu*, *persona*, *pensatu*, *manso*, *consagratu*...

Ohartarazteko modukoak dira, halaber, ahozko ebakeraren isla erakusten duten fonema-elkarketak, batik bat, aditz laguntzailearen aurreko ez partikula erabiltzean azaleratzen den anbiguotasuna dela bide. Partikulak kate mintzatuan sorrarazten duen aldaketa fonetikoaren errepresentazioarekin idazten du hainbatetan Mikelestorenak, baina soil-soilik <z + z> elkarketetan [*etzaion* (A: 8), *etzaitzu* (A: 9), *etcenuque* (A: 25), *etzaitut* (A: 29), *etab.* (berdin edizio guztietan)]; <z + b> direlakoetan [*ez paduzu*, *ezpaduzu* (A: 26)]; eta <kontsonantea + z> [*quentcedilla* (Z: 33), *iltcen* (= *il cen*) (Z: 35)]; ez besteetan [*ezdiet* (Z: 18), *ezdut*, *ezdaquit* (Z: 20)]. Irudipena dugu, aipatu josulagunen ezpalekoak direla hauek ere⁸⁹.

6.3. Bilakaeraz

Esan genezake, jesulagunen eraginaren eta Mikelestorenaren geroagoko bilakaera propioaren erakusgarri argiena <y> hizkiaren erabileran dugula, nabarmena baita eragin hori A-B edizioetan (*bay*, *gayac*, *guyenac*, *ayentzat*, *oyec*, *zayela*, *Ayta*, *noycean*, *loyac*, *etsayaren*...) ⁹⁰, eta nabarmena, orobat, haren desagertzea X eta C-Z edizioetan.

Argitalpen guztiak batera hartuta, bada, onartu beharrekoa dirudi ez dela falta Mikelestorenean idazkera erregulartzeko eta finkatzeko ahaleginik. Eta esan bezala, C-Z edizioak dira horretan gehien bereizten direnak.

H hizkia har dezakegu bilakaera gisako horren lehendabiziko erreferentzetzat.

⁸⁸ Antzera Larramendiren lerroetan (*hizcúnza/hizcuntza*, *Euscalerrienzat/Euscáldunentzat*...) eta Mendibururen orrialdeetan (*enzute/entzute*...).

⁸⁹ Mendiburu: *etzaitzula* (1747: 133), *etzaitzala* (131), *etcenuque* (140, 146), *ezpacera*... Eta Larra-mendi: *ezpadira*, *etzaitzatela*, *eztezu*...

⁹⁰ Adierazgarria da A edizioan azaltzen den perpaus hau: *maytatu nay nuque Ayta etemoa* (31).

Erakusleetan⁹¹, esate baterako, C-Z edizioak dira hasierako *h*-a sistematikoen baliatzen dutenak⁹², ez kasu guztietan ordea: *hau* (4, 8, 12, 18, 22, 32, 33, 82...) ⁹³, *hori* (10, 62), *horiec* (14, 49, 71), *honen* (9, 20), *haren* (24, 40), *honetan* (4, 18, 21, 77), *horretan* (58), *hartan* (6, 65), etab.

Ahal formaren aldagaiak maiz ageri dira, baina *h*-dunak, itxuraz, oso banaketa arbitrarioan emanak, eta gehienak C-Z argitalpenetan: *hal dezun egunean* (C-Z: 6); *halic onguiena* (C-Z: 25; Z: 42); *hal beçala* (B: 56), *hal bezala* (X: 56); *conta hal baño...* *guei*ago (B-X: 44; Z: 47); *asma hal adiña neque-requin* (A: 88; Z: 80); *alheguin* (Z: 87).

Ohargarria, orobat, bakanka baino ez datozen hitzen kasua. Orotara, behin bakarrik ageri da Mikelestorenean *honetako* izenlagun *h*-duna (Z: 41); eta hiru aldiz *hala* adberbioa (B-X: 66; C-Z: 4, 19). Zenbatzaileetan, *hirur* da *h*-rekin azaltzen den bakarra, eta behin baino ez (B: 28; X: 29)⁹⁴. Eta ez bide dago *h* esanguratsu gehiagorik lesakarrarenetan.

Bilakaera horretan, oso deigarria da C-Z edizioetan kasu-marka bitan islatzen den homogeneizatzeko-fenomenoa: ia zeharo sistematikoa sozietibo pluralean, batetik [-*equin* > -*aquin*: *gaistoaquin* (C-Z: 8), *ortzaquin* (11), *gauzaquin* (111)...]⁹⁵, eta zehaztapen bat behar duen datibo pluralean, bestetik. Azken honetan A, B, C eta Z edizioek -*ai* darabilte kasu-marka ohiko gisara (*apostolai*, *lurrai*, *gañeracoi*), eta X edizioa da salbuespena, -*ei* hartzen baitu markatzat (*lurrei*, *gañeracoei*, *etsaiei*...). Jokamolde bateratzaile horrek

⁹¹ Ezin da ahaztu atal honetan nola jokutzen zuten Larramendik (berdin *onec*, *onen*, *oni*, *oyec*... zein *hori*, *hura*, *harc*, *horiec*, *horiei*...) eta *h*-zaleagoa zen Mendiburuk (*hau*, *hura*, *hoec*..., baina, aldi berean, *oec*, *orietatic*...).

⁹² Gainerako edizioetan fenomeno anekdotikoa da *h*-aren erabilera: *hau* (A: 2, 26, 28...; B-X: 31 (birritan), 40...), *hori* (A: 85); *horien* (A: 89), etab.

⁹³ Testua zenbakiekin alferrik ez betetzeko, Z edizioari dagozkion orrialdeak baino ez ditugu emango, jadanik maiz errepikatu den bezala, C edizioaren ale *irenduak* 1-10 eta 23-32 orrialdeak besterik ez baitu utzi.

⁹⁴ Edizioetan ez dago *inu*/[*h*]*irur* zenbatzaileen banaketa koherenterik.

⁹⁵ A-B-X edizioetan ez da horien estiloko ale solterik falta [*guciaquin* (A: 32; B-X: 37), *hitzaquin* (A: 23; X: 27; C-Z: 29) zein *hitçaquin* (B: 28)], baina ohikoena ekialdeago -*equin* marka da.

ez du kentzen, dena den, orrialde beretan bestelako formak ere aurkitzea: *echecoequin* (C-Z: 7), esaterako.

Besteak baino koherenteagoak dirudite C-Z edizioek⁹⁶ beste hainbat ataletan ere. Nabarmen horietako bat juntagailu kopulatiboaren erabilerari dagokiona da: edizio bizki horiek nahiko modu sistematikoan jokatu zuten beste edizioetako *ta* konjuntiboak *eta* bilakatzen.

Guztiarekin ere, ez da gogotik ezabatu behar Z edizioak —ez genuke gauza bera baieztatuko C edizioaz— baduela eragozpen larririk ere hizkuntzaren ikuspuntutik begiraturik. Ildo horretan, gogorarazi behar da bertan islatzen den joera gipuzkerazalearen inpresioa indartu izan duen *Acto Fedecoak* ez dirudiela Mikelestorenarenak burutua, bestek garraiatua baizik; hau da, gorago azpimarratu legez, itxura guztia du bestek jasoa dela edizio horretako atala Juan Irastusta alkizarraren katiximatik, zuzen-zuzenik eta inolako egokitzapenik gabe.

7. Azkentza

Artikuluaren barrena jorratutakotik korolariorik gisakorik atera beharko babiliz, honako hauetara labur litezke funtsezkoenak:

- a) Mikelestorenaren *Zerura nahi duenak* izeneko liburua bost edizio izan zituen, lan honetan ondoko hizki larriez identifikatu ditugunak: A argitalpena (Martinez, 1749), B (Anchuela, 1751), C (Rada, 1754), X (Rada, d.g.) eta Z delakoa (Longas, d.g.).
- b) Datazio zehatzetara iritsi ez arren, argitaratze-datarik gabeko X eta Z edizioetan hurbiltze kronologiko zorrotzagoa proposatu dugu, faktore politiko-erlijiosoaren eta testu-ezaugarrien azterketaren ondorioz. Hartara, lehen 1753-1754 bitartean argitaratu bide zen, eta askoz ere beranduago (1800. urtetik hurbil, nonbait) Z delakoa.

⁹⁶ *Calvarioco estacioac* izeneko atalean bitxia da erakusten den jokabidea. Lehen, seigarren eta azkeneko estazioei ezarritako izenburuetan A-B-X edizioek [X]garren gurutzeco otoitza eskema darabilten arren, hirugarrenetik bosgarrenera (biak barne) eta zazpi-zortzigarrenetan [X]garren gurutzeta hutsa erabiltzen da. Alde horretatik ere, askoz bateratuagoa da (C-)Z edizioa.

- c) Alde desberdinak aztertuta, hiru multzotara bil litezke edizioak: gainerako edizio guztien oinarrian den A delakoa lukeena, B eta X argitalpena, eta aipatu zioengatik aztergaitzagoa den C eta Z edizioek osatua.
- d) Z edizioaren erreferentzia eta eredu zen C delakoa Mikelestorenaren ardurapean burutu zen, itxura duenez, lesakarrak prestatu zuen azkena, hain zuzen. Alabaina, arazo politiko-ideologikoak tarteko, C-tik urrunarazten zuen *Acto Fedeco* izeneko atala erantsi zitzaion Z edizioari amaieran, arazotsua suertatzen ari zen *Jesusen Bihotzaren bederatziurrenaren* ordeez.
- e) Maila idatzian, oro har, irizpide nahasiak eta homogeneousotasunik gabekoak dituzte edizio guztiek ezaugarri, betiere lehen edizioetan Mendiburu eta Larramendiren idazkera-ereduetatik abiatuak dirudiela. C eta Z edizioek irizpide-koherentzia eta erregulartasun gehiago azaleratzen dute.
- f) Haien arteko desberdintasunak desberdintasun –aski xumeak, gehienetan–, edizioek ez dute euskalki-ezaugarri agerikorik erakusten, ez behintzat gipuzkeraren eta nafarrera garaian fusio-guneak islatzen dituenetatik harago lihoakeen zehaztasunik. Ezer ohargarriarik izatekotan, Mikelestorenari suposatzen zitzaion ekialdeko euskalkiaren ezaugarrien nolabaiteko ezabatze mailakakoa litzatekenabarmenena.

Garbi geratu uste da hori guztia aurreko orrialdeotan, eta amaierako *Eranskinean* aurki daitezke horren frogak.

Baina behin honaino iritsirik, eta denbora eta orrialde-kopurua ere sobera gainditurik, beste baterako utzi beharko ditugu hari solteak lotzeko aha-lerinak eta haietatik tiratzetik atera litezkeen lerro berriak arakatzekoak. Esan gabe dago oihan horretan sartu nahi lukeenari laguntzera datorrela honen ondoko edizio erkatuen itsaskina.

Bibliografia

Altuna, P., 1982, *Mendibururen idazlan argitaragabeak. Edizio kritikoa*, I eta II. Bilbo: Euskaltzaindia & Editorial Mensajero.

———, 1984, «La auténtica biblioteca de Larramendi», *Muga*, 28 (1984) 66-81.

Alzola, N., 1967-1979, «Notas bio-bibliográficas sobre J. A. Miquelestorena», *La Gran Enciclopedia Vasca*, II (1979) 244-246.

Anonimoa, 1821, *Meditaciones para el Santo Sacrificio de la Misa*. Bartzelona: Brusi.

Arzak, A. eta Soraluze, P. M., 1894, «Arqueología guipuzcoana. Hernani. El monasterio de san Agustín (Continuación)», *Euskal-Erria. Revista Bascongada*, 30 (1984) 572-576.

Axular, P., 1643, *Gero*. Bordele: G. Millanges.

Bidador, J. M., 1999, «Aniversario de la obra *Zerura nai duenak ar dezakean bide erraza* del lesakarra Jose Antonio Mikelestorena», *Diario de Noticias*, 1999/11/07.

Cano Medina, L., 2007, *La devoción al Sagrado Corazón y a Cristo Rey en España y su recepción por los metropolitanos españoles (1923-1931)*. Roma: Pontificia Università della Santa Croce. [Doktoretza-tesia]. Interneten eskuragarri: <<https://www.ijse.org/cano/LuisCanoMedina-SagradoCorazonCristoRey.pdf>>.

Croiset, J., 1741, *La Devoción al Sagrado Corazón de Jesús*, I. Bartzelona: Mauro Martí.

Da Porto Maurizio, L., 1732, *Via Sacra, explicada, e iluminada con las declaraciones hechas por la Santidad de N. SS. P. Papa Clemente XII*. Bartzelona: Juan Piferrer.

Díez de Ulzurrun, P., 1960, «El catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828», *Euskera*, 5 (1960) 377-403.

Erasmus Erroterdameko, 1555, *Preparación y aparejo para bien morir*. Anberes: Martin Nuncio.

Galliffet, J., 1743, *L'excellence de la Devotion au Coeur adorable de Jesus-Christ*. Lyon: Henri Declaustre.

Gutiérrez del Caño, M., 1899-1900, «Ensayo de un catálogo de impresores españoles desde la introducción de la imprenta hasta fines del siglo XVIII», in *Revista de Archivos, Bibliotecas y Museos*, III (1899: 662-671) eta IV (1900: 77-85, 267- 272, 667-678 eta 736-739).

Irazusta, J., 1739, *Doctrina christiana eguin zuana erdaraz, Aita Gaspar Astete, Jesuitac. Ipini du Eusqueraz Don Juan de Yrazusta, Erretore Hemialdecoac, ceña dan Provincia Guipuzcoacan, bere Feligresiac aurrari Doctrina eracusteco; eta añaditcen dio Encanacio-*

co, eta Eucaristiaco Mysterioen esplicacioa, baita ere confesio on baten condicioac, eta Acto Fedeco, Esperantzaco, eta Caridadecoac. Iruñea: Joseph Joaquin Martinez.

Iturbide Díaz, J., 1997, «La edición navarra del Año *Christiano* de Jean Croiset. Un testimonio de venta de libros por suscripción en el siglo XVIII», *Príncipe de Viana*, 210 (1997) 191-222.

———, 2007, *Escribir e imprimir. El libro en el Reino de Navarra en el siglo XVIII*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

———, 2015, *Los libros de un reino. Historia de la edición en Navarra (1490-1841)*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

———, 2016, «La biblioteca de un próspero pamplonés del Siglo de las Luces. *El hombre de negocios* Juan Francisco Garisoain (1695-1750)», *Huarte de San Juan. Geografía e Historia*, 23 (2016), 157-194.

Kardaberaz, A., d.g. (c. 1762), *Christauaren Doctrina, Aita Astetec erdaraz, eta guero Aita Agustín Cardaberacec euscaraz arguitara emana*. Donostia: Lorenzo Josef Riesgo Montero.

Larramendi, M., 1882, *Corografía de Guipúzcoa*. Bartzelona: J. Subiranaren alarguna eta seme-alabak.

Lopetegi, L., 1973, «Introducción», in A. Kardaberaz, *euskal lan guziak*, I. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 5-47.

Loiola, J., 1739, *Meditaciones del Sagrado Corazón de Jesús*. Valladolid: Congregación de la Buena Muerte.

Luengo Rodríguez, M., 1767, *Colección de papeles varios*. Azpeitia: Loiolako Historia Artxiboa. [XVIII. mendeko eskuizkribuak, 10. apala].

Mendiburu, S., 1747, *Jesusen Bihotzaren Debocioa*. Donostia: B. Riesgo Montero. Interneten eskuragarri: <<http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/9125>>.

———, 1760, *Jesusen amore-nequeei dagozten cembait otoitz-gai*. Iruñea: Juan Antonio Castilla.

———, 1762, *Euscaldun onaren viciera, mezaren entzun-vide labur erreza, errosarioco amarrecoen asiera eta cembait bederatz-urren edo novena*. Iruñea: Martin Joseph Rada.

———, 1765, «Carta del P. Mendiburu al R. P. Prov. Idiaquez. 1765», in *Mendibururen idazlan argitaragabeak. Edizio kritikoa*, II. [P. Altuna (arg.), 1982]. Bilbo: Euskaltzaindia & Editorial Mensajero, 363-379.

Mestre Sanchís, A., 1996, «Reacciones en España ante la expulsión de los jesuitas de Francia», *Revista de Historia Moderna*, 15, 101-128.

Mikelestorena, J., 1749, *Cerura nai duenac ar dezaquean vide erraza*. Iruñea: Joseph Joaquin Martinez.

———, 1751, *Cerura nai duenac ar dezaquean vide erraza*. Iruñea: Jeronimo Anchuela (Olaso Dorrea Sorrerakundearen jabetzapekoa). [Euskaltzaindiaren Azkue Liburutegian kontsultagai].

———, 1754, *Cerura nayduenac ardezaquean, vide erraza*. Iruñea: Martin Joseph Rada.

———, (d.g.), *Cerura nai duenac ar dezaquen vide erraza*. Iruñea: Martin Joseph Rada. Interneten eskuragarri: <<http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/8886>>.

———, (d.g.), *Cerura nay duenac ar dezaquean, vide erraza*. Iruñea: Jose Longas. Interneten eskuragarri: <<http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/8884>>.

Revuelta González, M., 2008, *La Compañía de Jesús en la España Contemporánea*, III. Madril: Universidad Pontificia Comillas.

Salaberri, P., 2019-a, «Testu-erlazioak eta eklektizismoa zeruko bidean (Oharra Mikelestorenaren *Zerura nahi duenak* liburuaz)», *Egan* 72-3/4, 9-58.

———, 2019-b, «Mikelestorenaren *Cerura nai duenac* liburuaren lehen edizioa (1749)», *Karmel* 308, 29-70.

Telletxea Idigoras, J. I., 1967, «Traducción al euskera del catecismo del P. As-tete. Larramendi y Mendiburu», *Euskera*, 12 (1967) 301-314.

———, 1990, «Cardaveraz, Larramendi y Mendiburu», in *Escritos breves. Obras del padre Larramendi*, [Telletxea Idigoras (arg.)]. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones eta Gipuzkoa-Donostia Kutxa, 573-580.

Uriarte, J. E., 1880, *Principios del reinado del Corazón de Jesús en España*. Madril: B. M. Araque.

Vinson, J., 1891. *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Paris: J. Maisonneuve.

Eranskina

ZERURA NAHI DUENAK HAR DEZAKEEN BIDE ERRAZA (Edizio kontrastatua)

OHARKIZUNA

Ondoren datorren bertsioaren erreferentziek adierazitako legez, Z deitu dugun edizioa –hots, Iruñeko Longasen Etxean datarik gabe kaleratu zena– hartu da edizio osatua burutzeko oinarri gisa. Esana dugu jadanik kronologikoki azkena izan zela, baina formalki, dakigunez, Radak 1754an inprimatutakoa bezalakoxea. Mikelestorenak atondutako azken bertsioaren berri ematen duen edizioa da, hortaz, (C-)Z delakoa⁹⁷.

Ezaugarri hori eta aurreko edizioetatik bereizten duten gainerako faktoreak izan dira, azken buruan, Z edizioa erreferentziazat hartzera bulkatu gaituztenak, bai testuan, (orto)grafian, zuzenketetan zein formen erregularitasunean, huraxe agertzen baita koherenteen eta bateratuen.

Z edizioak ez dakarren *Jesusen Bihotzaren Bederatziaurren* eskaini ahal izateko, Radaren datarik gabeko edizioa eta Anchuelaren 1751koa ere erabili dira (X eta B, hurrenez hurren), lehena, zuzenagoa den heinean, horretarako erreferentzia nagusi gisa, eta bigarrena aurrekoari falta zaizkion txatalak osatzeko⁹⁸. Era berean, *Arquiveda* delakoak ere X edizioan du jatorria.

Edizioen arteko dibergentzia guztien berri emateko ezintasunaren aurrean, inoiz, testuak argitze aldera, ukituren bat edo beste eman izan zaie puntuazioari eta tipografiari. Azken honetan, adibidez, era homogeneoagoan jarri dira lerroburuak, eta letrakera beltzez nabarmendu atal

⁹⁷ Desberdintasun esanguratsu bat uste zegoen bien artean, Longasek *Acto fedecoa* izenekoa tarrekatu baitzuen Radarenak bide zekarren *Jesusen Bihotzaren Bederatziaurren*aren ordez.

⁹⁸ Z eta X-B aleei falta zaizkien orrialdeak zein pasarteak dagokien tokian adieraziko diren edizioen bitartez osatu dira. Hori da, esate baterako, 99-100 orrialdeen kasua, non A ediziotik (1749) eta Mendibururen *Euscaldun onaren viciera* obratik atera behar izan diren *adabakiak*.

nagusien izenburutzat hartutakoak⁹⁹. Kako karratuen artean ([I]) doazen zenbakiak orrialdeek dagokien edizioan daramaten zifra adierazteko baliatu dira.

CERURA/ NAYDUENAC/ AR DEZAQUEAN¹⁰⁰,/ VIDE ERRAZA./

D. JOSEPH MIQUE-/ *lestorena, Lesacaco Ape-/ zac eracusten duena*¹⁰¹.
*Bear diran baimenaquin./ Iruñean: Longás Echean*¹⁰².

[2]¹⁰³

[3]

Ongui vicitzeco¹⁰⁴ modu labur errazac

GOIZOROCO¹⁰⁵ OTOITZA

Nere Jauna, eta Jaungoicoa¹⁰⁶, milla esquer sortu ninzanetic honara, zure escutic artu ditudan ondasun, ta favore guciac gatic. Zure icenean nere

⁹⁹ Hau da: (1.) *Ongui vicitzeco modu labur errazac*, (2.) *Meza entzuteco modua*, (3.) *Calvarioco estacioac*, (4.) *Acto Fedeco* eta (5.) *Jesusen Bihotzaren bederatz-urrena*.

¹⁰⁰ X edizioa: *dezaquen*.

¹⁰¹ A-B edizioak: [...] *Miquelestorenac eracutsia*.

X:[...] *Miquelestorenac aguertua*.

¹⁰² A: *Bear bezala, Iruñeco*/ MARTINEZ Libru/ guillearen ondoren/ goen Echean. 1749.

B: 1751. Urtean/ BEHAR BEZALA,/ IRUÑEAN: Geronimo/ Anchuela, Libru guil-/ learen Echean.

C: *Bear diran baimenaquin./ Iruñean*: Martin Josef Rada/ ren Echean. 1754 urtean.

X: BEHAR BEZALA./ Iruñean: Martin Jo-/ seph Rada-ren/ Echean.

¹⁰³ A edizioan, azalaren ifrentzuan amabirjina baten irudia eta ondoko testua: «AVE MARIA/ GRATIA PLENA/ DOMINUS TECUM».

¹⁰⁴ A-X: *vicitceco*.

¹⁰⁵ B-X: *Goizoroco*.

¹⁰⁶ A-B: *ta Jaincoa*.

X: *ta Jangoicoa*.

egun honetaco itz¹⁰⁷, asmo, gogo, ta lan on guciac. Indazu Jesusen Bihotceco¹⁰⁸ [4] amoreagatic, diranac ongui eguiteco gracia. (*Nai duenac bere animaren, nai duenac gueiena zor dien Purgatorioco animen favoretan ofrecituco ditu.*) Jesus maitea, ez dedilla egun honetan¹⁰⁹ becatuaren loiric nere bihotcean¹¹⁰ sartu: hala escatcen¹¹¹ dizut zure Bihotceco¹¹² amoreagatic. *Aita gurea, &c. ta Ave Maria, &c.*

Guciz¹¹³ garbia ceran Jesusen Ama maitea, lagun zaquzquit¹¹⁴ egun hau garbiro pasatcen¹¹⁵. *Izur¹¹⁶ Ave Maria, &c.*

Nerequin zabiltzan¹¹⁷ Aingueru Guardiacoa, nere iceneco, nere devocio¹¹⁸ Santu, ta Ceruan [5] arquitcen¹¹⁹ ceraten¹²⁰ guciac, izan zaitezte egun nere lagunzalle¹²¹ onac. *Aita gurea, ta Ave Maria, &c.*

¹⁰⁷ A-B-X: hitz.

¹⁰⁸ A: Biotzeco.

B-X: Bihotzeco.

¹⁰⁹ A-B-X: onetan.

¹¹⁰ A: biotzean.

B-X: bihotzean.

¹¹¹ B: escatzen.

¹¹² A: Biotzeco.

B-X: Bihotzeco.

¹¹³ A-B-X: Guztiz.

¹¹⁴ A-B-X: zaquizquit.

¹¹⁵ A-B: pasatzen.

¹¹⁶ A-X: Iru.

¹¹⁷ A-B-X: zabilzan.

¹¹⁸ A-B-X: devocioco.

¹¹⁹ A-B: arquitzen.

¹²⁰ A: zerazten.

B-X: zarazten.

¹²¹ A-B-X: lagunzalle.

GOICETIC ARRATSERAÑO EGUIN BEHAR¹²² DIRAN, CEMBAT¹²³ GAUZA¹²⁴

Jan otordu, gucietan. *Aita gurea, &c. ta Ave Maria, &c.* Jesusen Bihotceco¹²⁵ amore penen icenean.

Orduoroco¹²⁶ Jesusen Ama Virginari *Ave Maria, &c.* Irabazten dira berroquei eguneco Indulgenciac. *Ave Maria* esan ondoan, esaten bada.

Jesus maitatcen¹²⁷ dut zure [6] Bihotza, eta esquez nago Virgiña Amari, lagun daquidan orain ta beti.

Beste berroquei egunecoac irabazten dira orduoro, eta noiznai esatearequin. Jesus maitea, zure Bihotzari¹²⁸ non nai, ta nion baño gueiago A dareco¹²⁹ Sacramentuan zor diodan amoreari eranzuteagatic, nai niquezu eman nere bihotz¹³⁰ oso osoa.

Hal¹³¹ dezun egunean, enzunen dezu¹³² Meza bat. Ezin zoazquenean¹³³ Elizara, enzunen¹³⁴ dituzu gozoz¹³⁵, ta deseoz egun hartan¹³⁶ munduan ematen diranac.

¹²² A: *bear*.

¹²³ A-B-X: *cembait*.

¹²⁴ B-X edizioek dakarten *Arquividea* delakoan: *Goizetic arratserañoico gauzac*.

¹²⁵ A-B-X: *Bihotzeco*.

¹²⁶ A-B-X: *Ordu/-oro*.

¹²⁷ A-B-X: *maitatzen*.

¹²⁸ A: *Biotzari*.

¹²⁹ A-B-X: *Aldareco*.

¹³⁰ A: *biotz*.

¹³¹ A-B-X: *Al*.

¹³² A-B-X: *duzu*.

¹³³ A-B-X: *ba/-zoazque*.

¹³⁴ A-B-X: *enzungo*.

¹³⁵ A-B-C-X: *gogoz*.

¹³⁶ A: *artant*.

B-X: *artan*.

[7] Egun oro esain dezu¹³⁷ echecoequin¹³⁸, edo campoan bazabilza, bacaric, Ama Virginaren Rosario Santua.

Cere bearri, beguiaz¹³⁹, cere mingain, ta bihotzaz¹⁴⁰ iduquico duzu becatuz loitu ez ditecen egun gucian contu.

Arratsetan¹⁴¹ ecin¹⁴² baño len, ecusico dezu¹⁴³, certan, edo nola pasatu dezun¹⁴⁴ eguna, arquitcen¹⁴⁵ badezu¹⁴⁶ cembait gaucetan utseguin duzula¹⁴⁷, escatuco diozu Jaungoicoari¹⁴⁸ barcacioa, ta esain dezu Acto¹⁴⁹ Contricioz-coa guisa onetan.

[8] CONTRICIOA

Nere Jesu-Christo Jauna, Jaungoico, ta Guizon eguiazcoa, nere Criadore, ta Redentorea ceren ona zaran, eta¹⁵⁰ maite zaitudan gauza gucien gañean, damu dut zu¹⁵¹ ofendituaz, nai ditut confesatu nere becatu guciac, eta utci diranac¹⁵²,

¹³⁷ A-B-X: *duzu*.

¹³⁸ A-B-X: *ichecoequin*.

¹³⁹ A-B-X: *bearri/-/beguiez*.

¹⁴⁰ A: *biotzaz*.

¹⁴¹ A-B-C-X: *Arratsean*.

¹⁴² A-B-X: *etzin*.

¹⁴³ A-B-X: *duzu*.

¹⁴⁴ A: *duzun*.

¹⁴⁵ A: *arquitzen*.

¹⁴⁶ A-B-X: *baduzu*.

¹⁴⁷ A-B-X: *dezula*.

¹⁴⁸ A-B-X: *Jaungoari*.

¹⁴⁹ A-B-X: *Actu*.

¹⁵⁰ A-B-X: *ta*.

¹⁵¹ Testuan, C edizioan bezala, lotuta hitz biak: *dutzu*.

¹⁵² A-B-X: *nai ditut confesatu, ta utzi nere becatu guciac, beren ocasio*. Hemen, *diranak* = *guztiak*.

beren ocasio, eta¹⁵³ vide gaistoaquin¹⁵⁴, zure gracia, edo lagunzarequin batean.

Hau¹⁵⁵ esan, edo eguin, ta ondoan escatuco diozu Virgiña Ama onari¹⁵⁶ irur¹⁵⁷ Ave Mariarequin, gaba¹⁵⁸ pasatceco¹⁵⁹, deusetan [9] utseguin¹⁶⁰ bague, gorde zaitzala Jesusen Bihotcean¹⁶¹, eta¹⁶² Bihotz¹⁶³ honen¹⁶⁴ amoreac gatic esain duzu, Aita guerea¹⁶⁵, &c. eta¹⁶⁶ Ave Maria, &c.

GAÑERACO DEMBORAN EGUIN BEHAR¹⁶⁷ DIRANAC¹⁶⁸

Etzaitzu hasteric joain baruren bat, edo cerbait mortificacio eguin bague.

¹⁵³ A-B-X: *ta*.

¹⁵⁴ A: *gastioequin*.

B-X: *gasto-equin*.

¹⁵⁵ A-B-X: *Au*.

¹⁵⁶ A-B-X: *Virgiña Amari*.

¹⁵⁷ A-B-X: *iru*.

¹⁵⁸ A-B-X: *gaia*.

¹⁵⁹ A-B-X: *pas/s/atzece*.

¹⁶⁰ X: *urseguin*.

¹⁶¹ A: *Biotcean*.

B: *Biotz-ean*.

X: *Bihotz-ean*.

¹⁶² A-B-X: *ta*.

¹⁶³ A-B: *Biotz*.

X: *Bihotz*.

¹⁶⁴ A-B-X: *onen*.

¹⁶⁵ A-B-X: *gurea*.

¹⁶⁶ X: *ta*.

¹⁶⁷ A: *bear*.

¹⁶⁸ B-X edizioek dakarten *Arquividea* delakoan honela: *Hasteco, illeco* eta urteco [B] / ta urtetaco [X] *gauzac*.

Confesatuco cera¹⁶⁹ hasteoro¹⁷⁰, amabostetic amabostera, ogueian, bein edo beranduenean illetic illera.

Ez dezazula jai igandeetan Meza nagusira joan bague [utzi] [10] utci¹⁷¹. Ez dezazula vezperetara falta, ez ta Rosario Santu, edo beste¹⁷² edocein devociozco¹⁷³ lan, edo obratara¹⁷⁴ ere.

Egun hoitan¹⁷⁵ iracurricu duzu¹⁷⁶ cerbait, edo leituco libru onen batean: edo¹⁷⁷ iracurtcen¹⁷⁸ ez badaquizu¹⁷⁹, iracurzalleren bati hori¹⁸⁰ zure aitciñean, edo abrean¹⁸¹ eraguiñen diozu.

Eguizu hurteoro¹⁸² hurteco¹⁸³ confesio generala.

Ocasio gaistoetatic igues eguiteco, etsaiaren, eta¹⁸⁴ araguiaren tentacioac garaitceco¹⁸⁵, eta¹⁸⁶ mundu eroa oiñ pean erabiltceco¹⁸⁷, ecarrico

¹⁶⁹ A: *zera*.

X: *zara*.

¹⁷⁰ B-X: *haste oro*.

¹⁷¹ A-B-X: *utzi*.

¹⁷² A-B-X: *veste*.

¹⁷³ A: *devocizco*.

¹⁷⁴ A-B-X: *obretara*.

¹⁷⁵ A-B-X: *oitán*.

¹⁷⁶ X: *dezu*.

¹⁷⁷ B-X: ez da *edo* ageri.

¹⁷⁸ A-B-X: *iracurcen*.

¹⁷⁹ B-X: ez *pa-da-quizu*.

¹⁸⁰ A-B-X: *ori*.

¹⁸¹ A-B-X: bi hitz hauek (*edo abrean*) ez dira azaltzen.

¹⁸² A-B-X: *urteoro*.

¹⁸³ A-B-X: *urteco*.

¹⁸⁴ A-B-X: *etsayaren, ta*.

¹⁸⁵ X: *garaiceco*.

¹⁸⁶ A-B-X: *ta*.

¹⁸⁷ A-B-X: *erabiltceco*

duzu noicean bein cere gogora, zure [11] vicitza, ta egunac laburrac dirala, zure vicitzan eguiten duzun¹⁸⁸ guciaz, il bezain laster, eman behar¹⁸⁹ diozula, deus gordeco etzaion Jaungoicoari¹⁹⁰ contu, estu¹⁹¹ eta arrigarria, eta¹⁹² contu hau¹⁹³ ongui ematen ez baduzu¹⁹⁴, beharco¹⁹⁵ duzula, Jaungoicoa Joungeico den artean¹⁹⁶, egosten, ta erretcen¹⁹⁷ egon infernuan.

*Edertasun, ondasonac¹⁹⁸
lurra bere gauzaquin¹⁹⁹,
eriotzac uzten ditu
urraturic ortzaquin²⁰⁰.*

*Contu andi, contu gogorr²⁰¹,
becatuen contua!
[12] ni zu emateco nago,
ez non daquit, ez nola.*

¹⁸⁸ A-B-X: *dezun*.

¹⁸⁹ A: *bear*.

¹⁹⁰ A-B-X: *Jaincoari*.

¹⁹¹ X: *esta*.

¹⁹² A-B-X: *ta*.

¹⁹³ A-B-X: *au*.

¹⁹⁴ A: *ez-ba-dezu*.

B-X: *ez-pa/-/dezu*.

¹⁹⁵ A: *bearco*.

¹⁹⁶ A: *duzula, Jaincoa den artean*.

B-X: *duzula, Jaincoa Jainco den artean*.

¹⁹⁷ B: *erretzen*.

¹⁹⁸ A-B-X: *ondasunac*.

¹⁹⁹ A: *gaucequin*.

B-X: *gauzequin*.

²⁰⁰ A: *ortcequin*.

B-X: *ortzequin*.

²⁰¹ A-B-X: *gogor*.

Contu hau²⁰² pasatuco da
guchiren aitzinean²⁰³;
bigarren izugarria
munduaren aurrean.

Non zabilza, certaco da
ambat²⁰⁴ becatu itsusi?
Asco da bat, Infernuan
erretceco²⁰⁵ zu beti.

Zure begui loi ciquiñac
egoïn dira lerturic,
zure zain, ta zure ezurrac,
su ta gar biurturic.

Suzco lanzaz²⁰⁶ belarriac,
bihotza²⁰⁷ iltce²⁰⁸ josiric,
sabela iduquico duzu²⁰⁹
pozoi, ta azufre eguiñic.

[13] Beti tiratuco dizu
Dragoiac mingañetic,
arrac erorico dira
buru gorputz gucitic.

Ango suac, ango garrac
edain dituzu beti:

²⁰² A-B-X: au.

²⁰³ B-X: gutiren aitzinean.

²⁰⁴ A-B: amabat.

²⁰⁵ A-B-X: erretzeco.

²⁰⁶ B-X: lanzez.

²⁰⁷ A: biotza.

²⁰⁸ A-B-X: ilce.

²⁰⁹ A-B-X: dezu.

*milla suge zapo dira
mai artaco janari.*

*Odol muñac iraquiten,
ezur zañac urturic,
aragui gucia egoín da
icatz eguin ta erreric.*

*Otso tzarrac, basa urdeac²¹⁰
an ortzac zorrozuric,
erabil²¹¹ behar²¹² zaituzte
urratu, ta lerturic.*

[14] CONFESATU BAÑO LEN EGUIN BEHAR²¹³ DIRAN GAUZAC²¹⁴

Lembicicoa: becatuen contua ongui ateratzea²¹⁵. Bigarrena: becatuen gañean ciñezco damu, ta urriquimentua arcea²¹⁶, ceren diran Jaungoico²¹⁷ guztiz mitagarri baten contra eguiñac, edo ceren escua ematen dioten, Jaungoicoari²¹⁸, Cerua quendu, ta infernuan beti erretcen²¹⁹ iduquitceco horiec²²⁰ eguiten dituen. Irurgarrena²²¹: ez berriz becatuetara itzultceco²²²,

²¹⁰ A-B-X: *bas-urdeac*.

²¹¹ B-X: *erabillico*.

²¹² A: *bear*.

B-X: Ø

²¹³ A: *bear*.

²¹⁴ B-X edizioek dakarten *Arquivea* delakoan *Confesatu baño lenagocoac* da izenburua.

²¹⁵ A-B-X: *ateratzea*.

²¹⁶ A-B-X: *artzea*.

²¹⁷ A-B-X: *Jainco*.

²¹⁸ A-B-X: *Jaincoari*.

²¹⁹ X: *erretzen*.

²²⁰ A-B-X: *oriec*.

²²¹ A-B-X: *Irurgarrena*.

²²² A-B-X: *itzultceco*.

eta²²³ becatuen ocasio gaistoetatic igues eguiteco, eguiazco asmo, [15] edo propositu sendo bat arcea²²⁴.

Confesatcera zoacenean ongui²²⁵ beguira zazu, certara zoacen, eta²²⁶ no-requin izt²²⁷ eguitera. Aserretua daducazun Jaungoico andiarequin baqueac eguitera zoaz. Bere lecuana ta bere escu guziarequin daducan Confesore Jaunarequin itz²²⁸ eguitera zoaz. Itz²²⁹ eguiotzu, bada, begui, ta bihotz²³⁰ humillaquin²³¹. Ez diezagozula deus ere gorde; gucia daquien Jaungoicoa²³² beguira dago, osoro esaten bandituzu²³³ cere oben, edo culpac²³⁴, ta biotza²³⁵ damuz, eta²³⁶ proposituz [16] betea daducazula, guci guciac barcatceco, bere hume maite zu eguiteco, graciaz, edo dohaiez²³⁷ betetceco²³⁸, becatuarequin galdu dituzun ondasun, edo merezimentu guciac itzultceco²³⁹,

²²³ A-B-X: *ta*.

²²⁴ A-B-X: *artzea*.

²²⁵ A-B-X: Ø

²²⁶ A-B-X: *ta*.

²²⁷ A: *itz*.

B-X: *hitz*.

²²⁸ B-X: *hitz*.

²²⁹ B-X: *hitz*.

²³⁰ A: *begui biotz*.

B-X: *begui-bihotz*.

²³¹ A-B-X: *humillequin*.

²³² A-B-X: *Jaincoa*.

²³³ A: *esaten badituzu*.

B-X: *erraten ba/-dituzu*.

²³⁴ A-B-X: *cere obenac*.

²³⁵ A: *eta biotza*.

B-X: *eta bihotza*.

²³⁶ A-B-X: *ta*.

²³⁷ A-B-X: *doayez*.

²³⁸ A-B: *betetzeco*.

²³⁹ A-B-X: *itzultceco*.

eta²⁴⁰ secular aserretu ez balitzaitzu²⁴¹ bezain, zurequin adisquide guelditce-
co²⁴². Baña cerbait, esan behar den gauza²⁴³, gordetcen badiozu, leneco be-
catu gucien²⁴⁴, eta²⁴⁵ eguiten duzun confesio gaistoco²⁴⁶ cate izugarri bate-
quin loturic ucico zaiti²⁴⁷, ta len baño zurequin aserreago gueldituco da²⁴⁸.

Ongui artcen²⁴⁹ den absolucioac [17] berequin dacartci²⁵⁰, Christo Jaunac
gugatic isuri zuen odolaren mercedentu guciac²⁵¹. Mercedentu horiequin²⁵²,
iturrian ongui beraturicaco oiala baño obequi garbitcen da, behar²⁵³ bezala
confesatcen²⁵⁴ denaren anima confesatcera²⁵⁵ zoacenean eguizu contu, Christo
Jauna iltcen²⁵⁶ Calvario Santura zoacela, an eman zuen odol gucia, edo odola-
ren valioa cere bihotcean²⁵⁷ arcera²⁵⁸, ta dituzun, animaco loi guciac quencera.

²⁴⁰ B-X: *ta*.

²⁴¹ B-X: *ez palitzaitzu*.

²⁴² A: *guelditzeco*.

²⁴³ A: *Baña esan bear den gauzaric*.

B-X: *Baña erran behar den gauzaric*.

²⁴⁴ A-B-X: *guciequin*.

²⁴⁵ A-B-X: *ta*.

²⁴⁶ A-B-X: *gaistoaren*.

²⁴⁷ A-B-X: *utzico zaitu*.

²⁴⁸ A-B-X: *ta len baño eserreago gueldituco da zurequin*.

²⁴⁹ A-B-X: *artzen*.

²⁵⁰ A-B-X: *dacartzi*.

²⁵¹ A-B-X: *mercedentuac*.

²⁵² A-B-X: *oriequin*.

²⁵³ A: *bear*.

²⁵⁴ A-B-X: *confesatzen*.

²⁵⁵ A-B-X: *confesatzera*.

²⁵⁶ A: *il cen*.

B-X: *ill cen*.

²⁵⁷ A: *biotzean*.

B-X: *Bihotzean*.

²⁵⁸ A-B-X: *artzera*.

[18] CONFESOREAREN OÑETARACO BAÑO LEN,
ESAN²⁵⁹ BEHAR²⁶⁰ DEN OTOITZA²⁶¹

Ah, nere Jaungoico ona²⁶², badaquizu, bai, cein gaistoa nazan ni, eta²⁶³ cein gogorra! Cere graciaren golpez bera zadazu arrizco bihotz²⁶⁴ hau, hone-tan²⁶⁵ sar dedin zure amorea, ta ar ditzadan beguitan eguin ditudan, eta²⁶⁶ eguin nitzaquean²⁶⁷ becatu guciac. Aita Eternoa, zure Seme maiteac eraman cituen neque doloreac gatic, barcatuac guerta bitez harren²⁶⁸ nere becatuac. Ez diezagozula beguiratu nere gogorrari²⁶⁹, beguira [19] zaguzu²⁷⁰ dolorez nere culpac gatic erdiratua dagoen aren Bihotzari²⁷¹. Ez niri beguiratu baca-rric, beguira zadazu nere culpac bere gañ artu dituen zure Semearequin batean. Honen²⁷² escuetan utci ditut nere gauzac: Honen²⁷³ Bihotzean²⁷⁴

²⁵⁹ A: *esan*.

B-X: *erran*.

²⁶⁰ A: *bear*.

²⁶¹ B-X edizioek dakarten *Arquividea* delakoan honela: *Confesatzecoan esan bear [B] / behar [X] den otoitza*.

²⁶² A-B-X: *Jainco maitea*.

²⁶³ A-B-X: *ta*.

²⁶⁴ A: *biotz*.

²⁶⁵ A-B-X: *onetan*.

²⁶⁶ A-B-X: *ta*.

²⁶⁷ X: *nitzaquean*.

²⁶⁸ A-B-X: *arren*.

²⁶⁹ B: *nere bihotz gogorrari*.

X: *nere biotz gogorrari*.

²⁷⁰ A-B-X: *zagozu*.

²⁷¹ A: *aren Biotzari*.

B-X: *Jesus onarenari*.

²⁷² A-B-X: *Onen*.

²⁷³ A-B-X: *Onen*.

²⁷⁴ A: *Biotzean*.

B-X: *Bihotzean*.

nai nuque sartu nere bihotza²⁷⁵, itzuli liezadan nere bidebague²⁷⁶, nere oben ta culpen damuz urturic, zure beguietara atera ledin, zuri damuric emain ez dizun guisan, edo estaduan. Hala²⁷⁷ guerta dedilla, ta irabaz deza dala nic, arcera²⁷⁸ noan absolucioarequin²⁷⁹ batean, zure bendicio santua, ta gracia.

[20] CONFESATU TA ONDOAN²⁸⁰ ESAN²⁸¹ BEHAR²⁸² DENA²⁸³

Milla, ta milla esquer Jaungoico²⁸⁴ maitea, ceren lotua nenducaten becatuen cate izugarriac urratu, ta auts eguiñac utci²⁸⁵ dituzun²⁸⁶ Ez dut nic indarric: ez daquit nola zure misericordia, ta piedadea laudatu: lauda zaitza-tela nere icenean Ceruan diran Aingueru, ta Santu guciac. Uste dut, zure laguntzarequin²⁸⁷ batean, ez nazala berriz becatuen cate gaistoetara itzulico. Ceruco Santuac gatic, [21] cere Seme maite, eta²⁸⁸ onen Ama garbiagatic escatzen²⁸⁹ dizut, didazula nere asmo, edo proposito honetan²⁹⁰ beti iraute-co behar dudan gracia gucia.

²⁷⁵ A: *biotza*.

²⁷⁶ A: *bidebagueen*.

B-X: *vide-bagueen*.

²⁷⁷ A-B-X: *Ala*.

²⁷⁸ A: *artzera*.

B-X: *artcera*.

²⁷⁹ A-B-X: *absolucioarequin*.

²⁸⁰ A-B-X: *Confesatu/-/ondoan*.

²⁸¹ B-X: *erran*.

²⁸² A: *bear*.

²⁸³ B-X edizioek dakarten *Arquividea* delakoan honela: *Confesatu ondoco*a.

²⁸⁴ A-B-X: *Jainco*.

²⁸⁵ A-X: *utzi*.

²⁸⁶ Galdera-ikurra da edizio honetan ageri dena.

²⁸⁷ B-X: *laguntzarequin*.

²⁸⁸ A-B-X: *ta*.

²⁸⁹ A: *escatzen*.

²⁹⁰ A-B-X: *propositu onetan*.

COMULGATU BAÑO LEN EGUIN BEHAR²⁹¹ DENA²⁹²

Comulgaceco²⁹³ zaudenean, beguiratuco duzu ongui, edo pensatuco, certa-ra zuacen²⁹⁴, ta norgana, edo nor datorren zugana. Zugana dator Jesus maitea, Jaungoico²⁹⁵, eta²⁹⁶ Guizon eguiazcoa, Aitaren escuietic²⁹⁷ dagoena. [22] Ceruaren, ta lurrearen²⁹⁸ jabea, zu eguin cinduena, bere escutic zaduzquiena²⁹⁹, zu galdu etcindecen³⁰⁰, Guizon eguin cena, eta³⁰¹ zure beguiratce, queñu, ta eguin³⁰², edo asmatu dituzun gauzaric chiquienen contu estu arrigarria artu behar³⁰³ dizuna: Jaun bat gucia³⁰⁴ daquiena, ondasunez betea, bazterric bague-co anditasuna duena, Ceruan diran Aingueru, ta Santuac beguiratce batequin icara daducatciena³⁰⁵; Jaun hau³⁰⁶ bada da bocadu eguiñic zuregana datorrena. Arritua dago Eliza, nola Jaungoicoa³⁰⁷ eguin cen Guizon, eta³⁰⁸ sartu [23] Vir-

²⁹¹ A: *bear*.

²⁹² B-X edizioek dakarten *Arquividea* delakoan honela: *Comulgatu baño lenagocoa*.

²⁹³ A: *Comulgatzèco*.

B-X: *Comulgateco*.

²⁹⁴ A: *zoazen*.

B-X: *zoacen*.

²⁹⁵ A-B-X: *Jainco*.

²⁹⁶ A-B-X: *ta*.

²⁹⁷ A-B: *escoyetic*.

X: *escoietic*.

²⁹⁸ A-B-X: *lurraren*.

²⁹⁹ A-B-X: *zaduzcana*.

³⁰⁰ A: *etzindecen*.

³⁰¹ A-B-X: *ta*.

³⁰² X: *ta zuc eguin*.

³⁰³ A: *bear*.

³⁰⁴ A: *gaucia*.

³⁰⁵ B-X: *daduzcana*.

³⁰⁶ A-B-X: *au*.

³⁰⁷ A-B-X: *Jaincoa*.

³⁰⁸ A-B-X: *ta*.

giña³⁰⁹ Ama garbiaren sabelean: *Non horruisti Virginis uterum*: gueiago arritu behar³¹⁰ luque, ecusiric sartcen duzula zuc ambat becatuen³¹¹ sugue, ta sierpe iduqui dituen cere barren orretan.

Badaquizu nor ceran³¹² zu? Zu cera³¹³ aren beguietan aur char bat, cere ezaguera edo adimentua itsutasen, ellumbez³¹⁴ betea daducazuna, eta³¹⁵ cere bihotza³¹⁶ becatuz josi³¹⁷, eta³¹⁸ loi eguiña. Ecusi zazu, baldin, Centurion, edo soldaduen nagusi³¹⁹, guizon prestu, Evangelico ura ezpazan³²⁰ tribe³²¹ Christo Jauna bere echean artcera³²², [24] nola trebe izain zara³²³ zu Christo Jauna bera cere icha, edo barren ciquin orretan arceco³²⁴? San Pedroc, ceren gaistoa cela ceritzan etcion³²⁵ utci³²⁶ nai oñac garbitcen³²⁷; utcico³²⁸ diotzazu zuc beldurric bague, daquizun bezain gaistoa cerala, oñac, eta den gucia bere Jaungoicota-

³⁰⁹ B-X: *Virgini*.

³¹⁰ A: *bear*.

³¹¹ A-B-X: *becaturen*.

³¹² B-X: *zaran*.

³¹³ B-X: *zara*.

³¹⁴ A-B-X: *itsutasunez, ta illumbez*.

³¹⁵ A-B-X: *ta*.

³¹⁶ A: *biotza*.

³¹⁷ A-B-X: *josi*.

³¹⁸ A-B-X: *ta*.

³¹⁹ A-B-C-X: *nagusi*.

³²⁰ A: *ez pazen*.

B-X: *ez-pacen*.

³²¹ A-B-C-X: *trebe*.

³²² A: *artzera*.

³²³ A-B-X: *zaran*.

³²⁴ A: *artzeco*.

³²⁵ A: *etzion*.

³²⁶ A: *utzi*.

³²⁷ A: *garbitzen*.

³²⁸ A: *utzico*.

sunarequin³²⁹ sartcen³³⁰? Etzuen uste San Juan Bautistac, quentcitzaquela³³¹ Christo Jaunaren zapatetaco locarriac: Aingueruac berac ez tira³³² behar³³³ bezain garbiac haren³³⁴ beguietara ateratceco³³⁵; eta³³⁶ zu atrebitcen³³⁷ cera, ambat becatu iduqui dituen, [25] cere barreneco lece izugarri orretan arcera³³⁸ Jaun andi ura bera? Halic³³⁹ onguiena garbitu, ta apaindu bague, etcenuque³⁴⁰ artuco cere eche charrean Erregue bat; ta Erregue gucien Erreguea or artececo³⁴¹, garbitu duzu ongui, ta apaindu virtutez, cere biotceco³⁴² iche char, ambat demboraz, becatuaren ciquinqueriac³⁴³, ta pozoiez beteric egondu den ori?

Certara ore³⁴⁴ dator zuregana Erregue andi ori? Animaco eritasun eta³⁴⁵ beharren³⁴⁶ azpitic zu ateratcera³⁴⁷; zuri cere zorrac barcatce-

³²⁹ A-B-X: Jaincotasunarequin.

³³⁰ A: sartzen.

³³¹ A-B: *quen citzaqueala*.

X: *quen citzaquela*.

³³² A-B-X: *ez dira*.

³³³ A: *bea*.

³³⁴ A-B-X: *aren*.

³³⁵ A: *ateratzeco*.

³³⁶ A-B-X: *ta*.

³³⁷ A: *atrebitzen*.

³³⁸ A: *artzera*.

B-X: *artcera*.

³³⁹ A-B-X: *Alic*.

³⁴⁰ A: *etzenuque*

³⁴¹ A: *artzeco*.

B-X: *artceco*.

³⁴² A: *biotzeco*.

B-X: *bihotceco*.

³⁴³ A-B-X: *ciquinqueriz*.

³⁴⁴ A-B-X: *ote*.

³⁴⁵ A-B-X: *ta*.

³⁴⁶ A: *bearren*.

³⁴⁷ A: *ateratzera*.

ra³⁴⁸, zu bere adisquide, eta³⁴⁹ berequin bat [26] eguitera, eta³⁵⁰ zuri bere graciaren vicitza³⁵¹ ederra ematera.

Virgíña Amaren sabelera etorcearequin aditcera³⁵² eman zuen Christo Jaunac: anitz nai ciola munduari: ta etorcearequin³⁵³ bein, ta ascotan cere³⁵⁴ biotcera³⁵⁵, ez du ongui asco, edo claroqui aditcera³⁵⁶ ematen, nai zaituela zu berea eguin, eta³⁵⁷ ondasunez betea utci³⁵⁸? Ustu zazu³⁵⁹ bihotza³⁶⁰, ta garbitu ongui, ondasun oriequin betea gueldi dedin: esca zagozu Espiritu Santuari, biguñ diezazula, bere doai, ta virtuteaquin³⁶¹, edertu diezazula, ta apaindu, orren [27] Erregue andiari eman behar³⁶² diozun zure bihotceco³⁶³ hostatua. Esca zaiezu cere Aingueruari, ta Aldarean arquitcen³⁶⁴ diran guciai³⁶⁵, Ceruco Santu, ta Santai, gucien gañean, artcera³⁶⁶ zoacen Jesus onaren Ama maiteari, eracutsi diezazutela, cer eguin

³⁴⁸ A: *barcatzera*.

³⁴⁹ B-X: *ta*.

³⁵⁰ B-X: *ta*.

³⁵¹ X: *vizitz*.

³⁵² A: *aditzera*.

³⁵³ A: *etorcearequi*.

³⁵⁴ A-B-X: *zure*.

³⁵⁵ A: *bihotzera*.

B-X: *bihotcera*.

³⁵⁶ A: *aditzera*.

³⁵⁷ A-B-X: *ta*.

³⁵⁸ A: *utzi*.

³⁵⁹ X: *za/ü* [sic].

³⁶⁰ A: *biotza*.

³⁶¹ B-X: *virtuteequin*.

³⁶² A: *bea*.

³⁶³ A: *bihotzeco*.

³⁶⁴ A-B-X: *arquitzen*.

³⁶⁵ B-X: *guciei*.

³⁶⁶ A: *artzera*.

behar³⁶⁷ duzun³⁶⁸ Erregue andi ori zure icheratzen³⁶⁹ denean, eta³⁷⁰ dagui-
tela berac, zuc eguin behar³⁷¹ cenuquean³⁷², ta berac daquiten gucia.

[28] COMULGATCERACOAN³⁷³ ESAN³⁷⁴ BEHAR³⁷⁵ DEN OTOITZA³⁷⁶

Bihotz³⁷⁷ becatuen damuz erdiratu bat escatzen³⁷⁸ duzun, Jaungoico ona,
indazo³⁷⁹ cerorrec, orretaraco behar³⁸⁰ dudan urriquimentu gucia. Ecin ecusi
ditut, zu atsecabez bete zaituzten³⁸¹ nere becatu ciquiñac: damu gueiena³⁸² ema-
ten didatenac dira, Aldareco Sacramentu³⁸³ Santuaren contra eguin ditudanac,
nere comunio gaisto, edo provecho³⁸⁴ guchicoac, Elizan³⁸⁵ bazterretara³⁸⁶ begui-

³⁶⁷ A: *bear*.

³⁶⁸ A-B-X: *dezun*.

³⁶⁹ A: *icheratzen*.

³⁷⁰ A-B-X: *ta*.

³⁷¹ A: *bear*.

³⁷² A-B: *cenuqueana*.

X: *cenuquena*.

³⁷³ A-B-X: *Comulgatzeracoan*.

³⁷⁴ A: *esan*.

B-X: *erran*.

³⁷⁵ A: *bear*.

³⁷⁶ B-X edizioek dakarten *Arquivea* delakoan honela: *Orduco otoitza*.

³⁷⁷ A: *Biotz*.

³⁷⁸ A-B: *escatzen*.

³⁷⁹ A-B-X: *indazu*.

³⁸⁰ A: *bear*.

³⁸¹ B: *çaituzten*.

³⁸² X: *guciena*.

³⁸³ A: *Sacrameutu*.

³⁸⁴ A-B-X: *probechu*.

³⁸⁵ B: *Eliçan*.

³⁸⁶ B: *baçter-etara*.

X: *bazter etara*.

ra, edo gogoia, [29] Elizaz campoan neducala egotea, eta zure³⁸⁷ Gorputz³⁸⁸ Santuac ambat aldiz³⁸⁹ uquitu dituzten nere mihi, ezpañaz³⁹⁰ ain contu guti iduquitceac³⁹¹, edo ambat aldiz behar³⁹² ez diran hitzaquin³⁹³ ciquintceac³⁹⁴. Ceren Balthasar Babiloniaco Erregue arc bere main³⁹⁵ paratu cituen Jerusalemgo Elizaco³⁹⁶ Calizac³⁹⁷, galdu cituen bere Imperioco baster andia, eta il zuten³⁹⁸ bere etsaiaren soldaduac: cer castigu mereci dut nic, ceren ambat aldiz³⁹⁹, nere mingaiñ ezpañaz⁴⁰⁰, anima, ta gorputza⁴⁰¹ loitu ditudan? Bada Jerusalemgo Calicetan Cecenen [30] odola sartcen⁴⁰² cen; eta nere Gorputcean⁴⁰³ Christo Jaungoico⁴⁰⁴, ta Guizon eguiatzcoaren odola. Ah, Jesus ona, lotsaz, ta alquez beteric nator zure⁴⁰⁵ mai Santura! Zure⁴⁰⁶ Biho-

³⁸⁷ B: çure.

³⁸⁸ A-B-X: Gorpuz.

³⁸⁹ B: aldiç.

³⁹⁰ A: mihi-ezpañaz.

B-X: mihi-ezpañez.

³⁹¹ A-X: iduquitzeac.

B: iduquitçeac.

³⁹² A: bear.

³⁹³ B: hitçaquin.

³⁹⁴ A: ciquintzeac.

³⁹⁵ A-B-X: maian.

³⁹⁶ B: Eliçaco.

³⁹⁷ B: Calizac.

³⁹⁸ B: çuten.

³⁹⁹ A-B-X: aldiz.

⁴⁰⁰ A-B-X: ezpañac.

⁴⁰¹ B: gorputça.

⁴⁰² A: sartzen.

⁴⁰³ A: Gorputzean.

B-X: Gorputcean.

⁴⁰⁴ A-B-X: Jainco.

⁴⁰⁵ B: çure.

⁴⁰⁶ B: çure.

tcetic⁴⁰⁷ nai nuque, nere gaitzac behar⁴⁰⁸ duten remedioa⁴⁰⁹ atera; loi pitsic ecin eraman duen, ta amorez erretcen dagoen zure Bihotzac⁴¹⁰ garbi dezala nerea; eta⁴¹¹ daguiela beste ainbeste nere mingañarequin⁴¹², begui, ta beharriacquin⁴¹³, ta anima guciarequin; Bihotz⁴¹⁴ gucitic, ta⁴¹⁵ osoro maita zaitzadan. Ala guerta dedilla.

[31] COMULGATU, TA ONDOAN⁴¹⁶ EGUIN BEHAR⁴¹⁷ DENA⁴¹⁸

(B ETA X EDIZIOAK)⁴¹⁹

{[29] Comunioco maiera urbiltcen zaranean urbilduco zara, beguiac lurrean dituzula, ta humiltasunez, ta

⁴⁰⁷ A: *Biotcetic*.

X: *Bihotzetic*.

⁴⁰⁸ A: *bear*.

⁴⁰⁹ A-B-X: *eremedioa*.

⁴¹⁰ A: *Biotzac*.

⁴¹¹ B-X: *ta*.

⁴¹² A: *migañarequin*.

B-X: *mihiarequin*.

⁴¹³ A: *beaerriequin*.

B-X: *beharriequin*.

⁴¹⁴ A: *biotz*.

⁴¹⁵ A-B-X: *eta*.

⁴¹⁶ A: *Comulgatu-ondoan*.

B-X: *Comulgatcean, ta comulgatu-ondoan*.

⁴¹⁷ A: *bear*.

⁴¹⁸ B-X edizioek honela dute atalburua: *Comulgatcean, ta comulgatu-ondoan eguin behar dena*. Eta dakarten *Arquiveda* delakoan, honela: *Comulgatu ondoan eguin bear* [B] / *behar* [X] *dena*.

⁴¹⁹ Honako sarrera hau B (Anchuela, 1751) eta X (Rada, d.g) edizioek bakarrik egiten diote kapitulari. Ikus daitekeenez, hirugarren lerroaldean batzen da beste edizioen testuarekin.

Orrialdeen zenbakiak letra etzanez jarri ditugu eta sarrera-paragrafo hori giltza-ikurren artean sartu.

⁹³⁷ A: ta acabatcen.

⁹³⁸ A: Bederatzi-urrena.

B: Bederatzi-urrena.

⁹³⁹ A: bear.

⁹⁴⁰ A-B: cembait.

⁹⁴¹ A: dezaqueanetan.

B: di-ditequeenetan.

⁹⁴² A: eta.

⁹⁴³ A: Biotceco.

BEDERATZ-URRENAREN⁹⁴⁴ ASITCEA

Al badedi, eguin behar⁹⁴⁵ da bederatz-urren⁹⁴⁶ hau, edo Sacramentu Santuaren, edo Jesusen *Bihotzaren*⁹⁴⁷ Estamparen⁹⁴⁸ baten aiticinean, edo abrean. Lembicico otoitz, edo oracioa asitcen da, ciñatu, ta [82] *Nere Jesu-Christo Jauna*, &c. erran, ta ondoan⁹⁴⁹.

EGUNORO LEMBICICO LECUAN ESAN BEHAR⁹⁵⁰ DEN OTOITZA

Gure Jesus maitea, zure *Bihotzari*⁹⁵¹ Trinitade guciac eman ciozcan⁹⁵² graciaco ondasunac gatic, iguzu zurea dirudien bihotz⁹⁵³ garbi bana, bederatz-urren⁹⁵⁴ onetan escatu behar⁹⁵⁵ dizugun, ta conveni zaicula zuc daquizun guciarequin.

⁹⁴⁴ A: *Bederatzi-urrena*.

B: *Bederatzi-urrena*.

⁹⁴⁵ A: *bear*.

⁹⁴⁶ A: *bederatzi-urren*.

⁹⁴⁷ A: *Biotzaren*.

⁹⁴⁸ Ohikoa izan zen era soltean inprimatutako bederatz-urrenaren –kaieratxoa– Jesusen Bihotzaren estampa batekin banatzea.

⁹⁴⁹ A: *Nere Jesu-Christo Jauna*, &c. pag. 5. esan ta ondoan. Erantsi beharrik ez da *Contricioa* izeneko atalera bidaltzen duela orrialdearen erreferentziak.

⁹⁵⁰ A: *bear*.

⁹⁵¹ A: *Biotzari*.

⁹⁵² A: *ciotzan*.

⁹⁵³ A: *biotz*.

⁹⁵⁴ A-B: *bederatzi-urren*.

⁹⁵⁵ A: *bear*.

[83] LEMBICICO EGUNEAN BAICIC ERRAN⁹⁵⁶ BEHAR⁹⁵⁷ EZ DEN OTOITZA

Gure biotceco⁹⁵⁸ Jesus ona, gure oztasun, ta utseguiteac gugandic quentceco cere *Bihotzean*⁹⁵⁹ duzun ansia, ta deseo andiagatic, bero zazu cere amorearen suan gure bihotza⁹⁶⁰, ta lagun zaguzu, gure damu, ta sentimentuarequin zure *Bihotze*⁹⁶¹ sentimentu, ta nequeac arintcen, ta ez arren ucatu bederatci urren onetan escatcen dugun gauzaric. Ala guerta dedilla.

[84] *Orain erran*⁹⁶² *behar*⁹⁶³ *dira* iru Aita gure, &c.⁹⁶⁴ *Jesusen Bihotzaren*⁹⁶⁵ *iru*⁹⁶⁶ *señaleac aditcera ematen duten amore, ta penen icenean.*

EGUN GUCIETAN AITA ETERNOARI EGUIN BEHAR⁹⁶⁷ ZAION OTOITZA

Aita Eternoa, bitarteco emanic ecin gueiagorano nai dizun zure Seme maitearen *Bihotza*⁹⁶⁸, escatcen dizugu, argui ditzatzula, zu ezagutu, ta maitatceco, itsuturic vici diranac; artean, ta beti nai cinduzquegu gucienean ezagutu guc, eta gogotic maitatu. Iduqui zatzu [85] cere gracion batataturic dauden guciac, eta ecarri graciaren arguira, argui onetatic urrun dabilzanac. Ez dezala arren batec ere Jesus ona ezagutu bague, ta maitatu

⁹⁵⁶ A: *esan*.

⁹⁵⁷ A: *behar*.

⁹⁵⁸ B: *bihotceco*.

⁹⁵⁹ A: *Biotcean*.

⁹⁶⁰ A: *biotza*.

⁹⁶¹ A: *Biotceco*.

⁹⁶² A: *esan*.

⁹⁶³ A: *behar*.

⁹⁶⁴ A edizioak honako hau eransten du: *eta iru Ave Maria*.

⁹⁶⁵ A: *Biotzaren*.

⁹⁶⁶ B: *irur*.

⁹⁶⁷ A: *behar*.

⁹⁶⁸ A: *Biotza*.

bage⁹⁶⁹ gaurguero utci⁹⁷⁰. Guciac gatic il cen ezquero, guciac sar ditecela beragatic Ceruan. Beraren Bihotzean⁹⁷¹ sarturic utci nai guenituque gure Aide, ta adisquide, guc zor diegun, ta guri ongui, edo gaizqui nai diguten guciac; guciac ar dezaten zuregandic emen gracia, ta beste munduan gloria. Ala guerta dedilla.

[86] Emen escatzen⁹⁷² da, Jesusen Bihotza⁹⁷³ bitarteco arturic, erditsi nai den gucia. Guero erraten⁹⁷⁴ da:

Aña. Improperium expectavit Cor meum, & miseriam, & sustinui, qui simul contristaretur, & non fuit, & qui consolaretur, & non inveni.

V. Discite à me, quia mitis sum, humilis Corde.

R. Et invenietis requiem animabus vestris.

OREMUS

Domine Jesu, qui inefabiles⁹⁷⁵ Cordis tui divitias Ecclesiae Sponsae tuae singulari dilectionis [87] beneficio aperire dignatus es, concede propitius ut gratiis coelestibus, ex hoc dulcissimo fonte manantibus, corda nostra ditari, ac recreari mereantur. Qui vivis, & regnas in saecula saeculorum. Amen.

⁹⁶⁹ A-B: ezagutu, ta maitatu bague.

⁹⁷⁰ A: utzi.

⁹⁷¹ A: Biotcean.

⁹⁷² A-B: escatcen.

⁹⁷³ A: Biotza.

⁹⁷⁴ A: esaten.

⁹⁷⁵ A-B: ineffabiles.

EMEN, TA COMUNIOCO EGUNETAN BEHINTZAT
ERRAN⁹⁷⁶ BEHAR⁹⁷⁷ DEN, TA ANITZ VALIO DUEN OTOITZA⁹⁷⁸

Jesusen Anima, virtutez bete nazazu.
*Jesusen Bihotza*⁹⁷⁹, *amorez erre nazazu.*
Jesusen Gorputza, salva nazazu.
Jesusen Odola, amorez zora nazazu
 [88] *Jesusen Bihotzeco*⁹⁸⁰ *ura, garbi nazazu.*
*[Jesusen icerdia, graciaco viciz bete nazazu]*⁹⁸¹.
Jesusen Pasioa, indarsu eguin nazazu.
Nere Jesus ona, adi nazazu.
*Zure Llaguetan zure Bihotzaren*⁹⁸² *erdian gorde nazazu.*
*Ez nadilla ni ortic beñere atera*⁹⁸³.
Ez nadilla ni etsaien Escuetan erori.
*Nere eriotceco*⁹⁸⁴ *orduan deitu nazazu.*

⁹⁷⁶ A: *esan.*

⁹⁷⁷ A: *bear.*

⁹⁷⁸ Loiolako Inaziok oso gogoko zuen eta ordurako aski zaharra zen *Anima Christi* –Kristoren Arima– izeneko otoitza osatzen dute ondoko eskakizunek. Kristori zuzendutako eskakizunak baziren ere, haren *Bihotzaren Bederatzi-urrena* delakorako itzulita eta egokituta geratu ziren josulagunek debozio hau bultzatzen hasi zirenean (jatorrizkoan ageri ez den bigarren eskakizuna eta gainerako *Bihotz* hitzak lekuko). Honatx latinezko bertsio ezaguna: *Anima Christi, sanctifica me./ Corpus Christi, salva me./ Sanguis Christi, inebria me./ Aqua lateris Christi, lava me./ Passio Christi, conforta me./ O bone Iesu, exaudi me./ Intra tua vulnera absconde me./ Ne permittas me separari a te./ Ab hoste maligno defende me./ In hora mortis meae voca me./ Et iube me venire ad te./ ut cum Sanctis tuis laudem te./ in saecula saeculorum./ Amen.*

⁹⁷⁹ A: *Biotza.*

⁹⁸⁰ A: *Biotceco.*

⁹⁸¹ Honako eskakizun hau A eta B edizioetan baino ez da azaltzen. Hori bai, Mendiburuk Mikelestorenaren A-B edizioena bezalakoa du zerrenda guztia (ikus *Jesus Bihotz maitearen Congregacio Erregla laburrac* in 1760, o. g.).

⁹⁸² A: *Biotzaren.*

⁹⁸³ Eskakizun hau ez da A eta B edizioetan ageri.

⁹⁸⁴ B: *eriotceco.*

*Zuregana*⁹⁸⁵ eramán nazazu.

Zure Santuequin alaba zaitzadan beti secula gucian.

BIGARREN EGUNECO BIGARREN OTOITZA

Jaincoac gugana etortceco, ta beregana eramateco [89] ate, ta videtzat artu zaituen, Jesusen *Bihotza*⁹⁸⁶, egon zaitez beti idiquia, ta zabaldua, noiz nai sar gaitecen zure Aitagana, zu maitatceco behar⁹⁸⁷ dugun graciaren es-que. Iguzu zure penen pena andi bat, eta orain escatcen dizugun gucia. Ala guerta dedilla.

IRUGARREN EGUNECO BIGARREN OTOITZA

Ur garbizco iturri Jesusen *Bihotz*⁹⁸⁸ andia, egarriz itotcen⁹⁸⁹ gaude, edo zure virtute, ta devociozco urez ase naiez. Nai guenuque dembora berean, Aldare Santuan mundu [90] guciac eguin dizquitzun⁹⁹⁰ videbague, edo injurien damu andi bat, baita orain escatcen dizugun gucia⁹⁹¹ ere. Ala guerta dedilla.

⁹⁸⁵ B: *Zeregana*.

⁹⁸⁶ A: *Biotza*.

⁹⁸⁷ A: *bear*.

⁹⁸⁸ A: *Biotz*.

⁹⁸⁹ A: *itotzen*.

⁹⁹⁰ A-B: *diezquitzun*.

⁹⁹¹ A: *guacia*.

LAURGARREN⁹⁹² EGUNECOA

Jesusen *Bihotz*⁹⁹³ garbi, virtute, ta Santidadezco ispillu ederra: nai guenuque, zuri beguira gaudela, hitz⁹⁹⁴, asmo, lan, ta gogo gucietan zure irudico bihotz⁹⁹⁵ batequin guelditu, baita artu ere gugatic anitzetan, ta nion baño gueiago Aldareco Sacramentu Santuan artu dituzun videbague gucien damu andi bat, egun onetan escatcen [91] dugun guciarequin. Ala guerta dedilla.

BOSTGARREN EGUNECOA

Gure gauza, ta lan onai azqueneco izatea, edo edertasuna ematen diezun, ta *Bihotz*⁹⁹⁶ bera duzun, Jesus on maitagarria, uzten⁹⁹⁷ ditugu guciac zure escuetan, molda ditzatzun, ta utzi⁹⁹⁸ zure Aitaren beguietara atera ditezquean becala⁹⁹⁹; ta escatcen dizugu, diguzula zure escua, munducoen escutic artu dituzun videbague damu, ta sentimentu andi bat artceco, orain escatcen dizugun favorearequin batean. Ala guerta dedilla.

⁹⁹² A-B: *Laugarren*.

⁹⁹³ A: *Biotz*.

⁹⁹⁴ A: *itz*.

⁹⁹⁵ A: *biotz*.

⁹⁹⁶ A: *Biotz*.

⁹⁹⁷ A: *utcen*.

⁹⁹⁸ B: *utci*.

⁹⁹⁹ A: *bezala*.

B: *beçala*.

[92] SEIGARREN¹⁰⁰⁰ EGUNECOA

Behar¹⁰⁰¹ duguna Jaincoari escatceco Eliz eder bat cere *Bihotzean*¹⁰⁰² utci¹⁰⁰³ diguzun Jesus, amorez betea: milla esquer zuri Eliza onetan arquitcen dugun atseguin, contentu, ta dichagatic. Ortic atera bague, nai guenituque gure egunac acabatu; nai guenituque¹⁰⁰⁴, or vici garala, gueren¹⁰⁰⁵ damuarequin zure damua¹⁰⁰⁶, ta penac arindu, ta zure escutic behar¹⁰⁰⁷ ditugun gauza guciac artu. Ala guerta dedilla.

[93] ZAZPIGARREN EGUNECOA

Zure icenean, ta zure *Bihotze*¹⁰⁰⁸ amoreac gatic escatcen zaion gauzaric utcatcen¹⁰⁰⁹ ez¹⁰¹⁰ daquien Aytaren Seme Jainco Guizon eguiazcoa, zu bitarteco emanic, eta zure Aldareco videbagueen damu, ta sentimentuz beteric, escatcera goaz, erditsi nai duguna. Lagun zaquizquigu, uca ez diezagun beñere, escatcen dugun gauzaric. Ala guerta dedilla.

¹⁰⁰⁰ Akats tipografikoa da X edizio honetan argitaratu ordinala, *Eigarren* aurkitzen baitugu idatzirik.

¹⁰⁰¹ A: *Bear*.

¹⁰⁰² A: *Biotcean*.

¹⁰⁰³ A: *utzi*.

¹⁰⁰⁴ A-B: *guenuque*.

¹⁰⁰⁵ A: *gure*.

B: *guere*.

¹⁰⁰⁶ A-B: *damu*.

¹⁰⁰⁷ A: *bear*.

¹⁰⁰⁸ A: *Biotceco*.

¹⁰⁰⁹ A: *utcatzen*.

¹⁰¹⁰ A edizioak ez dakar ezezko partikula hau.

ZORZIGARREN EGUNECOA

Gure amorez urtcen zauden, Jesusen *Bihotz*¹⁰¹¹ ederra, nai guenuque gueldi litezen¹⁰¹² gure, ta gucien bihotzac¹⁰¹³ su orretan urtuac, amorez erantzuteco zure amoreari. Ez arren hau¹⁰¹⁴ ucatu, ez eta orain escatcen dugun gauzaric ere. Ala guerta dedilla.

[95] AZQUENECO EGUNECOA

Gure becatuen arantza gurutceac¹⁰¹⁵ nequez bete zaituzten, Jesus maitea, bete behar¹⁰¹⁶ dituzu zure *Bihotzeco*¹⁰¹⁷ amoreac gatic¹⁰¹⁸ graciaz¹⁰¹⁹, ta Ceruco ondasunez¹⁰²⁰ gure bihotz¹⁰²¹ gogor gaistoac. Eman behar¹⁰²² diguzu dembora berean, gure becatu itsusiac zuri eman dizuten tristuraren damu, ta tristura andi bat. Eta ez arren ucatu bederatz urren¹⁰²³ onetan escatu dizugun gauzaric. Ala guerta dedilla.

¹⁰¹¹ A: *Biotz*.

¹⁰¹² A-B: *litecen*.

¹⁰¹³ A: *biotzac*.

¹⁰¹⁴ A: *au*.

¹⁰¹⁵ A: *arrantza gurrutzeac*.

¹⁰¹⁶ A: *bear*.

¹⁰¹⁷ A: *Biotceco*.

¹⁰¹⁸ B: *omoreac gatic*.

¹⁰¹⁹ A: *graciz*.

¹⁰²⁰ A-B: *onsadunez*.

¹⁰²¹ A: *biotz*.

¹⁰²² A: *bear*.

¹⁰²³ A: *bederatzi urren*. B: *bederatzi-urren*.

[96]

JESUS BIHOTZ¹⁰²⁴ MAITEARI

Gure gusto, gure atseguin
gure Jesus maitea;
Cere *Bihotzeco*¹⁰²⁵ suan
erre zazu gurea.

Gure obenac, gure loiac
lenic quendu behar¹⁰²⁶ dira:
Ura zara, quen itzazu¹⁰²⁷;
galdu gara bestela.
Badaquigu, zaudela
gure¹⁰²⁸ amorez betea.
Cere *Bihotzeco*¹⁰²⁹ suan
erre zazu gurea

Etceuden bacarric loiac¹⁰³⁰
gure bihotz¹⁰³¹ gaistoan;
busti ta ur eguiña dago
becatuen cutsuan
Gar[...] ¹⁰³²

¹⁰²⁴ A: *Biotz*.

¹⁰²⁵ A: *Biotceco*.

¹⁰²⁶ A: *bear*.

¹⁰²⁷ A-B: *itzatzu*.

¹⁰²⁸ A: *gurez*.

¹⁰²⁹ A: *Biotceco*.

¹⁰³⁰ A-k bertso-lerro desberdina dakar: *Ez daude loiak utsic*.

¹⁰³¹ A: *biotz*.

¹⁰³² X edizioan erabili ahal izan dugun aleari 97 eta 98. orrialdeak falta zaizkio eta, ondorioz, atal gehienetan hura bezalakoxea den B edizioarekin (Anchuela, 1751) osatu dira hurrengo bertso-lerro gehienak.

(B EDIZIOA: ANCHUELA, 1751)

[99] Garbia da, idor¹⁰³³ dago

Jesus ona zurea:

Cere *Bihotzeco*¹⁰³⁴ suan

erre zazu gurea.

Arguiz¹⁰³⁵ dago beteric

Jesus zure *Bihotza*¹⁰³⁶:

illumbean gurea,

elurra bezain otza:

emen gatoz¹⁰³⁷, aguer zazu

zuanaco vide:

Cere *Bihotzeco*¹⁰³⁸ suan

erre zazu gurea.

Noizbait [noiz]bait¹⁰³⁹ arquiteú dut

bul[ar ori idiquia!

Sartuco naz, ar nazazu

Biotcean¹⁰⁴⁰ gucia.]

[*Egon behar ez oté dut*]¹⁰⁴¹

¹⁰³³ A: *bero*.

¹⁰³⁴ A: *Biotceco*.

¹⁰³⁵ A: *Aguiç*.

¹⁰³⁶ A: *Biotza*.

¹⁰³⁷ A: *Eldu gara*.

¹⁰³⁸ A: *Biotceco*.

¹⁰³⁹ Letrakera etzanik ez daramaten parentesien artekoa A ediziotik jasotako *adabakia* da.

¹⁰⁴⁰ X edizioaren logikak *Bihotzean* eskatzen du.

¹⁰⁴¹ Parentesi artean eta letra etzanez emanak dira Mendibururen *Euscaldun onaren viciera* obratik ateratako ondoko *adabakiak* [1762, 108-112], Mikelestorenaren alean ezabatuta baitaude azken bi bertso-lerroetako hizki gehienak. Hurrengo oharrean ikusiko den bezala, nabarmena da A ediziokoak desberdinak direna.

[100] [nic or be]ti gordea?¹⁰⁴²
Cere Bihotzeco¹⁰⁴³, &c.

Zure suac, zure garrac
auts eguiñen naute ni?
Gueroztic¹⁰⁴⁴ egoin ninzaque
amorez urtcen beti,
Jesus¹⁰⁴⁵, zu zaran ezquero
gure animen labea;
Cere Bihotzeco¹⁰⁴⁶, &c.

Hau¹⁰⁴⁷ cer da? Cer penac dira
dituzunac¹⁰⁴⁸ barrendic!
Zure Bihotza¹⁰⁴⁹ utci¹⁰⁵⁰ dute
dena nequez beteric!
Cein, andi ta gogorra den
daramazun nequea!¹⁰⁵¹
Cere Bihotzeco¹⁰⁵² suan, &c.

¹⁰⁴² A edizioan desberdinak dira azken bi bertso-lerroak: *Nere icaren, nere otzen/ berotceco labea:/ Cere Biotceco, &c.*

¹⁰⁴³ A: *Biotceco.*

¹⁰⁴⁴ A: *Gerotzic.*

¹⁰⁴⁵ A edizioan desberdina da segidako bertso-lerro pareak, hots, *Jesus zu zauden ezquero/ gure amorez errea.*

¹⁰⁴⁶ A: *Biotceco.*

¹⁰⁴⁷ A: *au.*

¹⁰⁴⁸ A: *dituzanac.*

¹⁰⁴⁹ A: *Biotza.*

¹⁰⁵⁰ A: *utzi.*

¹⁰⁵¹ A edizioan desberdina da ahapaldiaren azken bertso-lerro pareak: *Damuz nago, urriqui dut/ zu orrela ecustea. Mendiburuk ere aldatua ematen du: Cein andia cein latzà,/ daramazun, nequeà!*

¹⁰⁵² A: *Biotceco.*

Zure *Bihotza*¹⁰⁵³ arquitcen da
 lantzaz erdiratua:
 [101] nere culpen burdiña¹⁰⁵⁴ da

(X EDIZIOA: RADA, D.G.)

[99] [...]
 lantz¹⁰⁵⁵ erdiratzallea.
 Damuz autsi¹⁰⁵⁶ baledi
 nere barren tritea!
 Cere *Bihotzeco*¹⁰⁵⁷ suan, &c.

Arantza¹⁰⁵⁸ zorrotzac baicic
 ez dezu nere escutic:
 nere culpen arantzequin¹⁰⁵⁹
 dena zaude odolturic.
 Ah ni baldin banengo
 negar damuz asea!
 Cere *Bihotzeco*¹⁰⁶⁰ suan, &c.

Gure culpac eguin dute
 Gurutce¹⁰⁶¹ sendor ori:

¹⁰⁵³ A: *Biotza*.

¹⁰⁵⁴ A: *ezpata*.

¹⁰⁵⁵ A: *zure*.

B: *lantz*.

¹⁰⁵⁶ A: *ardira*.

¹⁰⁵⁷ A: *Biotceco*.

¹⁰⁵⁸ B: *Anantza*.

¹⁰⁵⁹ A: *aratzequin*.

B: *arajntzequin*.

¹⁰⁶⁰ A: *Biotceco*.

¹⁰⁶¹ A: *Gurutze*.

ezartcen diote culpac¹⁰⁶²
 zure *Bihotz*¹⁰⁶³ onari.
 Culpa gaisto, ta¹⁰⁶⁴ oben gogor
 oben-culpa nerea!
 Cere *Biotzeco*¹⁰⁶⁵ suan, &c.

[100] Cer nai duzu? Certan zaude,
 Jesus ona Aldarean?
 Charqueric artcen dago¹⁰⁶⁶
 amorezco lecuan.
 Charqueric pena nai du,
 naí du gure amoreá.

Cere *Biotzeco*¹⁰⁶⁷ suan, &c.
 Ez dut behar maitatu¹⁰⁶⁸
 Jesus zure *Biotza*¹⁰⁶⁹?
 artu behar ez dut nic¹⁰⁷⁰
 zure nequeen damua?
 Esque nator, zabal zazu
 sar nadir or Atea¹⁰⁷¹.

¹⁰⁶² A: culpac ezartcen diote.

¹⁰⁶³ A: Biotz.

¹⁰⁶⁴ A edizioan ez dago juntagailurik.

¹⁰⁶⁵ A: Biotzeco.

¹⁰⁶⁶ A: artzen dago charqueric.

¹⁰⁶⁷ A: Biotzeco.

¹⁰⁶⁸ A: Ez ote dut maitatuco.

¹⁰⁶⁹ A: biotza.

¹⁰⁷⁰ A: Nic artuco ez ote dut.

¹⁰⁷¹ A: Biotzeco Atea.

Mendiburu: sar-videco Atea.

Cere Bihotzeco¹⁰⁷² suan
erre zazu gurea.¹⁰⁷³

(X EDIZIOA: RADA, D.G.)¹⁰⁷⁴

ARQUIVIDEA¹⁰⁷⁵

<i>Goitz-oroco</i> ¹⁰⁷⁶ otoitza	Pag. 3
<i>Goizetic arratserañoco gauzac</i>	Pag. 5
<i>Contricioa</i>	Pag. 7
<i>Hasteco, illeco, ta urtetaco</i> ¹⁰⁷⁷ gauzac	Pag. 9
<i>Confesatu baño lenagocoac</i>	Pag. 13
<i>Confesatcecoan</i> ¹⁰⁷⁸ esan behar ¹⁰⁷⁹ den otoitza	Pag. 17
<i>Confesatu ondocoa</i>	Pag. 19
<i>Comulgatu baño lenagocoa</i>	Pag. 20
<i>Orduco otoitza</i>	Pag. 26
<i>Comulgatu ondoan eguin behar</i> ¹⁰⁸⁰ dena	Pag. 29
<i>Orduco esquerrac</i>	Pag. 34
<i>Meza enzuteco modua</i>	Pag. 37
<i>Calvarioco estacioac</i>	Pag. 61
<i>Jesusen Bihotzaren bederatzi urrena</i>	Pag. 79

FIN¹⁰⁸¹

¹⁰⁷² A: *Biotzeco*.

¹⁰⁷³ A edizioan, ahapaldien amaieran: *LAUS DEO*.

¹⁰⁷⁴ Aukibidea ez da B (Anchuela, 1751) eta X (Rada, d.g.) edizioetan baizik erantzen. Berdintsuak izan arren (orrialde-zenbakiak izan ezik), Radarenetik jasoko da ondoren doana, liburu guztiari dagokion orrialde-zenbatzea barne.

¹⁰⁷⁵ B edizioa aukibidean ez da *Pag.* laburdura erabiltzen.

¹⁰⁷⁶ B: *Goiz-oroco*.

¹⁰⁷⁷ B: *eta urteco*.

¹⁰⁷⁸ B: *Confesatzecoan*.

¹⁰⁷⁹ B: *beaz*.

¹⁰⁸⁰ B: *beaz*.

¹⁰⁸¹ B: *FINIS*.

LIBURUAREN EGITURA ATALEZ ATAL

CERURA NAY DUENAC AR DEZAQUEAN VIDE ERRAZA

D. JOSEPH MIQUELESTORENA,

Lesacaco Apezac eracusten duena.

1. Ongui vicitzeco modu labur errazac

- Goizoroco otoitza
- Goicetic arratseraño eguin behar diran, cembat gauza
- Contricioa
- Gañeraco demboran eguin behar diranac
- Confesatu baño len eguin behar diran gauzac
- Confesorearen oñetaraco baño len, esan behar den otoitza
- Confesatu ta ondoan esan behar dena
- Comulgatu baño len eguin behar dena
- Comulgatceracoan esan behar den otoitza
- Comulgatu, ta ondoan eguin behar dena
- Comulgatu ondoan eman bear diran esquerrac

2. Meza entzuteco modua

- Meza asi baño len esan behar dena
- Meza asitceracoan
- Apaiza aldarera igaten denean
- *Kyriac* asten diranean
- *Gloria in excelsis* esan bitartean
- Otoitzetaco demboran
- Epistolaco demboran
- Evangeliocoan
- Credocoan
- Ofertoriocoan
- Consagratu artean
- Hostia santu goratcean
- Caliza goratcean, ta ondotic
- Hostia santuarequin gurutceac eguitean

- *Pater Noster* esatean
- *Agnus Dei* esatean
- Comunioco demboran
- Azquen otoitz, edo oracioetan
- Azqueneco evangelioan

3. Calvarioco estacioac

- Calvarioco videa asitcean eguin bear den otoitza
- Lembicico Gurutceco otoitza
- Bigarren Gurutceco otoitza
- Irugarren Gurutceco otoitza
- Laugarren Gurutceco otoitza
- Bostgarren Gurutceco otoitza
- Seigarren Gurutceco otoitza
- Zazpigarren Gurutceco otoitza
- Zortcigarren Gurutceco otoitza
- Bederatcigarren Gurutceco otoitza
- Amargarren Gurutceco otoitza
- Amaicagarren Gurutceco otoitza
- Amabigarren gurutceco otoitza
- Amairugarren Gurutceco otoitza
- Amalaugarren Gurutceco otoitza
- Azqueneco Gurutceco otoitza

4. Acto Fedeco, Esperantzaco, eta Caridadecoac, ceñac eguin behar diradan urtean bein guchiaena

- Acto Fedecoa
- Acto Esperantzacoa
- Acto Caridadecoac

5. Jesusen Bihotzaren Bederatz-urruna

- Bederatz-urrenaren asitcea
- Egunoro lembicico lecuan esan behar den otoitza
- Lembicico egunean baicic erran behar ez den otoitza
- Egun gucietan Aita Eternoari eguin behar zaion otoitza

- Oremus
- Emen, ta Comunioco egunetan behintzat erran behar den, ta anitz
valio duen otoitza
- Bigarren eguneco bigarren otoitza
- Irugarren eguneco bigarren otoitza
- Laugarren egunecoa
- Bostgarren egunecoa
- Seigarren egunecoa
- Zazpigarren egunecoa
- Zorzigarren egunecoa
- Azqueneco egunecoa
- Jesus Bihotz maiteari

Uscaldunac garen ezquero
**Berako euskal testu administratibo berri
bat (1822)**

Uscaldunac garen ezquero
Un nuevo texto administrativo vasco de Bera (1822)

Uscaldunac garen ezquero
Un nouveau texte administratif basque de Bera (1822)

Uscaldunac garen ezquero
A new Basque administrative text from Bera (1822)

SANTAZILIA, Ekaitz
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP)

TABERNA IRAZOKI, Mikel
Ikertzaile independentea

Noiz jaso: 2019-10-26
Noiz onartua: 2020-03-09

Lan honetan Berako Udal Artxiboan gordetako 1822. urteko eskuizkribu bat dugu aztergai. Euskal testu administratibo bat da, herriko batzarrean irakurtzeko prestatua eta euskararen kanpo eta barne historia osatzeko gako batzuk ematen dizkiguna. Testuinguru soziohistorikoaz eta testuaren egiletzaz aritu ondoren, dokumentua deskribatu dugu, testua bera orrazturik eman, hizkera aztertu eta Bortzerrietako nahiz mugaz haraindiko auzo-herrietako euskararekin alderatu dugu. Azkenik, hiztegia, adizkitegia eta faksimilea ere eman ditugu.

Gako-hitzak: Bera, Bortzerriak, euskal testu administratiboak, XIX. mendea, euskararen historia.

En este artículo estudiamos un manuscrito del año 1822, conservado en el Archivo Municipal de Bera. Se trata de un texto administrativo en euskera, redactado para ser leído en la junta vecinal, que nos aporta algunas claves sobre la historia interna y externa de la lengua. Tras tratar sobre el contexto histórico y la autoría del texto, hemos descrito el documento, aportado el texto editado, estudiado la variedad lingüística empleada y comparado esta con el euskera tanto de las Cinco Villas como de otras localidades vecinas de allende la muga. Finalmente, hemos incluido un diccionario, un listado de verbos y el facsímil.

Palabras clave: Bera, Cinco Villas, textos administrativos vascos, siglo XIX, historia del euskera.

Dans cet article nous étudions un manuscrit de 1822, conservé aux Archives Municipales de Bera. Il s'agit d'un texte administratif en basque, rédigé afin d'être lu lors de l'assemblée de voisinage, qui nous apporte quelques clés sur l'histoire interne et externe de la langue. Après avoir abordé le contexte historique et la paternité du texte, nous avons décrit le document, apporté le texte édité, étudié la variété linguistique employée et comparé celle-ci avec le basque aussi bien de Bortzerriak que d'autres villages voisins situés de l'autre côté de la frontière. Enfin, nous avons inclus un dictionnaire, une liste de verbes et le fac-similé.

Mots clés : Bera, Bortzerriak, textes administratifs basques, XIX^e siècle, histoire du basque.

In this paper we study a manuscript from 1822, kept at the City Council Archive of Bera, a bordering village. This administrative text in Basque, written to be read at the neighbour assembly, reveals some keys into the internal and external history of the Basque language. For its analysis, the historical context and authorship were determined, the document described, the text edited, the linguistic variety examined and contrasted with the Basque language both from Bortzerriak and from other neighbouring villages on the other side of the border. Finally, we have developed a dictionary, a list of verbs, and the facsimile.

Keywords: Bera, Bortzerriak, Basque administrative texts, 19th century, history of Basque.

1. Sarrera¹

Ezinbertzean, gero eta handiagoa da euskal testu zaharren corpusa. Artxiboak miatu ahala eta jendea horien balioaz ohartu ahala, etengabe ari zaizkigu dokumentu berriak agertzen.

Horien barnean, atentzio berezia merezi dute, gai erlijiosotik at, bertzelako kontu administratiboez mintzo direnek, lehenak baino zinez bakana-goak direlako. Lan honetan halako bat dugu aztergai.

1822an Berako herriak mediku edo barbera hautatzeko tenorean izandako eztabaidaren inguruko testua dugu hau. Harrigarriro, Berako besten 1981eko programan faksimilea bere horretan argitaratu bazen ere, oharkabean pasatu da ikertzaileen begi aitzinetik. Hala, Satrustegiren (1987 eta bertze batzuk), Trebiñoren (2001) eta Madariagaren (2014) testu bildumetan ez dago horren arrastorik, ezta Bortzerrietako mintzoari zuzenean eskainitako ikerketetan ere.

Interes handikoa da, batetik, orduko Berako mintzoaren nondik norakoez gehiago jakiteko; bertzetik, alderdi soziolinguistikotik, sasoi hartan euskarak bizitza administratiboan izan zezakeen lekuaz jabetzeko. Horri dagokionez, egiaztatzen ari gara mugaldeko eremu honetan bereziki aberatsa dela euskarazko testu zaharren corpusa, are izaera administratibokoa, lan honetan berean ikusiko denez. Bistan dena, mugaz haraindiko herriekiko harremanek (Sara, Azkaine, Lapurdiko kostaldea...) euskara baliatzera behartzen zituzten alde banatako administrazioak, baina, horretaz gain, Bortzerrietan ugariak dira, Espainiako bertze euskal lurraldeetan baino ugariagoak hain segur, herrien barne kontsumorako euskaraz idatzitako testu administratibo publiko zein pribatuak.² Gure ustez, honetan Bortzerriek

¹ Bihoakie gure esker ona lan hau burura eramateko laguntza eman diguten Teresa Alzugarayri, Dorota Krajewskari, Fernando Mikelarenari, Oskar Txoperenari, Jose Mari Zelaietari eta testua arretaz iruzkindu duten bi adituei. Orobat, lan honek Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak babestutako *Monumenta Linguae Vasconum 5: Periodización y cronología* (FFI2016-76032-P) ikerketa proiektuaren laguntza jaso du.

² Urrun joan gabe, lan honetan berean orain arte ezezagunak ziren hamar bat testu administratibo eta pribatu berri baliatu ditugu, eta ezagutzera eman.

Lapurdiko tradizioarekin egiten dute bat, ez baitira gutxi XVIII. eta XIX. mendeetan beraietan ekoizitako euskal testu administratiboak (cf. Mada-riaga, 2018). Bai Lapurdiko bai Bortzerrietako testuetako ortotipografiek eta kaligrafiek, gainera, euskaraz irakurri eta idazteko tradizio bat agerian uzten dutela deritzogu, berteze leku batzuetan baino emankorragoa datekeena. Bada etorkizunerako ikergairik, beraz.

Lan honetan, lehenik, dokumentua dagokion testuinguru soziohistorikoan kokatu dugu (§ 2), alderdi soziolinguistikotik duen garrantzia azpimarratuz. Ondoren, dokumentuaren sinatzaileen gaineko informazioa ekarri dugu, eta egilea zein datekeen frogatu (§ 3). Dokumentua bera deskribatu dugu jarraian (§ 4), eta edizioa eskaini gero, testua orrazturik aurkeztuz (§ 5). Hizkuntza-azterketa gaineratu dugu ondotik, egileak darabilen mintzoa Berako eta inguruko herrietako testu zahar zenbaitekin erkatuz (§ 6). Ondorio zenbait aletu eta gero (§ 7), erreferentzia zerrendaren gibeletik eta eranskin gisa, testuaren hiztegia eta adizkitegia heldu dira batetik, eta faksimilea bertzetik.

2. Dokumentuaren testuinguru soziohistorikoa

2.1. Eskuizkribuaren edukia

1822ko lehenbiziko egun haietan, Berako herriak problema larria zuen: herriko medikua, Altzate karrikako Kataliñenean³ bizi zen Juan Manuel Moleda Lostra zugarramurdiarra, hil egin zen ustekabea,⁴ gazterik, berrogeita bederatzi urte bertzerik ez zuela. Haren hutsa beteko zuena hautatu behar zen, nahitaez eta ahalik eta agudoena. Argi dago estu zeudela, zeren sendagilearen heriotza 1821eko abenduaren hogeita seian izan baitzen, eta harekin loturiko idazkiak, hemen aztergai dugunak, urtarrilaren 12ko data baitu.

³ Nafarroako Errege Artxibo Nagusia (NEAN). Berako notarioen protokoloak. Jose Frantzisko Etxenike notarioa. 1809. urtea. 40. zk.

⁴ Heriotza-agirian: “...sin recibir ningún sacramento... ..no testó...”. Iruñeko Elizbarrutiaren Artxiboa (IEA)/Berako Parrokiako Erregistro Sakramentalak (BPES). Hildakoen 2. liburua (1777-1824), 29/1821.

Iduri duenez, medikuak, lehendik alarguna izaki,⁵ bazuen bere kargura alaba gazte bat bederen, izkribuan aipatzen dena (haren izenik ez, ordea). Herrian, nonbait, zenbaitek uste zuten zirkunstantzia hori kontuan hartu behar zela ordezeko berria hautatzeko, eta, horregatik, mediku ezkongabea ekarri beharko zela Berara, umezurtzaren bizilagun (bizitzarako bidaide) ere izan zedin.

Iritzi itxuraz nahiko zabaldu hori desegokia ez ezik txoil arriskutsua ere iruditu bide zitzaien, ordea, bertze zenbait herritarri, zeinek pentsatu zuten ongi arrazoituriko argudioak erabili behar zituztela, erabaki haien ustez okerrik har ez zezan herriak. Horretarako prestatu zuten, hain zuzen ere, eskuartean darabilgun idazki hau, herritarren batzarrean goraki irakurtzeko ideiarekin, dudarik gabe, hartan biltzen zirenetako aunitz eskolatu gabeak izanik, ez baitziren bertzela ulertzeko gauza izanen.

Izkribuaren sei sinatzaileek aitortzen zuten eurak ere ohartzen zirela alaba urrikalgarriari nolabait lagundu beharko zitzaiola, baina arrunt arriskutsua iruditzen zitzaien borondate hori sendagilea hautatzeko prozedurarekin nahastea. Haien ustez, barber berria bereizteko, hori ez bertzelako arrazoiak hartu behar ziren kontuan, ez baitzen nolanahikoa langile horren eginkizuna, herritarrek heriotzatik libratzeko kontratatuko baitzuten.

Erraten zuten bermatu behar zela guzien osasunaz arduratuko zenak mediku ona izan behar zuela, jakintsua eta eskarmentuduna, ahal bazen ospitaleetan kasu aunitz ikusi eta ikasi zituena. Gisa horretako argudioak ematen zituzten, ezin egokiago adieraziak, eta jakin nahiko genuke nork eta nola hartu zuen parte eztabaida mamitsu hartan. Hori ezinezkoa zaigu, ordea, balizko borroka dialektiko hartatik ez baitzaigu alde batekoen hasierako arrazoibide katea bertzerik ailegatu.

2.2. Garai historikoa

Izkribuaren goiburuan, sinatzaileek aditzera ematen dute nori zuzentzen zitzaizkion: alkatea, errejidoreak, *vecinoak* (etxejabe ziren bizilagunak) eta

⁵ Heriotza-agirian: "...viudo de María Angela de Echeverría...". IEA-BPES. Hildakoen 2. liburua (1777-1824), 29/1821.

habitanteak (etxerik gabeak, maizter zirenak); alegia, herritar guzi-guziak (betiere gizonak, hori bai, gauza jakina baita, bertan aipatzen ez bada ere, emakumeek ez zutela halako biltzarretan parte hartzeko eskubiderik). Beraz, euren arrazoibideak herriko gizon guziei azaldu gogo zizkieten, gero, batzuenak eta bertzeenak aditurik, udalak behar zen erabakia har zezan.

Ezohikoa iruditu zaigu orduko hartan maizterrei ere erabakimena espres ematea, eta horren arrazoia une hartako koiuntura historikoan aurkitu dugu: 1820ko martxoan berriz ere indarra hartu zuen 1812ko (Espainiako) Konstituzioak, zeinak maizterrei ematen baitzizkien Antzinako Erregimenak ukatzen zizkien hainbat eskubide; horien artean zegoen, adibidez, herriko batzarretan parte hartzekoa (Mikelarena, 1990).

Testuinguru politiko horrexen eragina berriz ere agerian gelditzen da testu berean aitzinxeago, sinatzaileek ematen zituzten arrazoietakoa batzuetan, beharbada pisu handienekoetan. Zehazki, azpimarratzen zutenean zein garrantzitsua zen herrirako sendagile ona hautatzen asmatzea, pobre zirenak hartaz bakarrik baliatzen ahalko baitziren; ez hala, ordea, aberatsak, zeren haiek (haiek bakarrik), behar izanez gero, ordaintzen ahalko baitzuten kanpoko bertze mediku hobe bat, euren familietako eriak artatzeko.

Hortxe berriz ere sumatzen da Espainian aldarrikatu zen Lehenbiziko Konstituzioaren oihartzuna, jakinik testu legeile hark, bertzeak bertze, estreinakoz aldarrikatu zuela toki-erakundeek arduratu behar zutela herritarren osasunaz, osasun publikoaz (cf. 321. artikulua), eta, lehenago erran bezala, 1822an, hain zuzen ere, berriz ere indarra hartua zuela, une hartan Gobernu liberala zegoelako agintean Madrilen (Hirurteko Liberala: 1820-1823).

Urte haietan Berako herriak bizi zuen kinkaren berri jakiteko argibide gehiago ere ematen dizkigu testuak; adibidez, sinatzaileek diru kutxaren aipamena egiten dutenean. Herriak kontratatzen zuenez sendagilea, udalak ordaindu behar zionez gero, kontatzen dute larri dagoela Bera, garai tristea pairatzen ari dela, eta inbidiaz begiratzen dietela tamaina bertsuko Nafarroako bertze herri batzuei (Gares –*Cares* idazten dute–, Tafalla eta Peralta aipatzen dituzte), haiek hagitzez hobeki daudelakoan ondasunetan.

Dudarik gabe, herria oraindik ere jasaten ariko zen Frantsesteak (1808-1814) eskualdean eragin zuen deskalabru ekonomikoa, historialariek euren

ikerketetan behin baino gehiagotan aipatu dutena (cf. Mikelarena *et al.*, 1998: 45, 91, 149).

2.3. Euskaraz idatzia

Izkribuaren gorputzaren lehenbiziko hitzek ere merezi dute oharra egitea. Antologikotzat jo genitzakeen lehenbiziko lerroetan, sinatzaileek ‘justifikatu’ egiten dute zergatik eman behar dituzten euren azalpenak euskaraz. Herriko Etxeko sala batean bildurik zeuden, den-denak euskaldunak ziren, eta hala eginez hobeki ulertuko zuten elkar. Erran nahi baita, denbora hartan hainbat beratarrek ez zuten erdara konprenitzen.

Ondorio argia: Berako populazioa (1700 lagun inguru)⁶ ehuneko ehun euskalduna zen 1822an;⁷ batzarrera deituriko gizon guziak behinik behin hala ziren, eta haietako kopuru segur aski handi bat euskaldun elebakarra zen. Eta, hala ere, iduri duenez, Herriko Etxean gaztelaniaz aritzea bide zen norma, agindua.

Zergatik kasu eta kausa honetan euskaraz? Uste dugu balitekeela hori ere liberalen Konstituzioaren hatsari esker gertatu izana, ordura arte halako plazatik baztertuak izan ziren herritar xeheenak ere bertara gonbidatu zituztelako. Baina jarrera hori noiz arte izan ote zen? Hirurteko Liberalak iraun zuen arte (1823ko apirila)?

2.4. Barberaren hautaketa eta hizkuntza-eskakizuna

Berako artxiboan berean bertze bi agiri aurkitu ditugu, 1822ko uztailaren 4koa eta abenduaren 30ekoa,⁸ zeinetan irakurri baitugu, gaztelaniaz, Berako

⁶ 1691 bizilagun, 1824an (Mikelarena, 1998).

⁷ Suposatzen dugu herrian izanen zela armadaren destakamenturen bat (XIX. mende hasierako ordenantzetan “*erregimentuba*” aipatzen da –Idoate & Villanueva, 1981–), eta bertan kanpotar jende ez euskalduna, baina, iduri duenez, halakoak ez zituzten batzarretara deitzen.

⁸ Berako Udal Artxiboa (BUA). 423 kutxa: osasun-langileak (1796-1935), 423/2 karpeta.

herriak batzar orokorrean erabaki zuela (“...*en junta gral...*”) medikuaren heriotzaren ondorioz (“...*por fallecimiento de Dn. Juan Manuel Moleda Cirujano anterior...*”) hutsik gelditua zen lanpostua oposizio bidez betetzea.

Ez baita ageri izangaiek nahitaez ezkongabeak izan behar zutela, garbi gelditzen zaigu izkribuaren sinatzaileen argudioek bertzela pentsatzen zutenak baino pisu handiagoa izan zutela eta batzarrak bere egin zuela haien iritzia.

Oposizioaren emaitza ere heldu da, hein batean arrazoitua. Hura epaitu zutenek sinatu zuten: Mateo Lopez eta Santos Huarte (“...*ambos cirujanos vecinos de la ciudad de Pamplona...*”), haiek ere herritarren batzarrak hautatuak. Bi jaun horiek ziotenez, bi hautagairen lanak neurtu behar izan zituzten, Pedro Jose Goizuetarena eta Manuel Lopezena, zeinek azterlan zorrotza egin behar izan zuten (“...*un riguroso examen de todas las partes mas esenciales de la Cirugía...*”). Aztertzaileek Berako Udalarari erraten zioten lasai egoiteko, biek gainditu baitzuten jarri zieten ariketa, eta bietako edozeinek ongi beteko zuela sendagile lana.

Hori adierazi ondotik, ordea, hautagai bat lehenetsi zuten, Berako Udalaren borondatea kontuan hartuz (“...*con arreglo á los deseos de Ayuntamiento para el mayor acierto en la eleccion, y mas escrupuloso informe...*”). Ez zuten argitzen zein ziren Udalaren nahi horiek eta hautatuaren zein ezaugarri balioetsi zuten, baina gure ustez euskalduna izatea ere kontuan hartu izanen zuten, ikusi dugunagatik zentzuzkoena litzatekeelako eta geroxeago aipaturiko dugun bertze agiri batean irakurri dugunak hala pentsarazten digulako.

Pedro Jose Goizueta hautatu zuten, epaileek hura hobetsita. Inon horren berri eman ez bazaigu ere, pentsatzekoa da Goizuetak euskaraz jakinen zuela, agiri horietan jartzen baitu Igantzin ari zela⁹ sendagile lanean eta ikasi ere egin baitugu sortzez lesakarra zela, aita Goizuetakoa eta ama Lantzkoa zituelarik.¹⁰ Baina, bertzalde, ezin dugu erran bertze hautagaiak baldintza hori betetzen ez zuenik, ez baitugu horretarako informaziorik aski.

⁹ BUA. 423 kutxa: osasun-langileak (1796-1935), 423/2 karpeta.

¹⁰ IEA/BPES. Bataiatuen 7. liburua (1823-1843), 19/1823 (alaba Maria Josefaren agiria).

Bidezkoa iruditu zaigu hemen aipatzea 1822ko oposizio hartan izangai hautatuak euskaraz jakitea kontuan hartu ote zuten, alde batetik, begi bistakoak diren arrazoiengatik (ondorioztatu dugun herritarren egoera linguistikoa), eta, bertzetik, Berako Udalaren artxiboko handik agudoko bertze agiri batean, gisa bereko bertze kasu baterako, betebeharrak horixe bera idatziz adierazita ikusi dugulako.

Hain zuzen ere, 1831ko irailaren 1eko agiria da.¹¹ Bertan, Berako Udalak iragartzen du bigarren mediku titularra hartu nahi duela, lehen bezala orduan ere oposizio bidez. Espresuki aipatzen da hautagaiek euskaldunak izan behar dutela (“...*Los pretendientes deven poseher el idioma bascongado...*”) eta behar bezala egiaztatu beharko dutela aitzin hartan “politikoki zuzen” jokatututela (“...*y acreditar en forma la conducta politica obserbada durante las pasadas epocas de turbulencias...*”).

Bertzalde, gure izkribuko kasura itzulita, sendagile hautatu berria 1781ean jaioa zen, eta Sunbillako Maria Andres Agesta Zozaiarekin ezkondua zegoen;¹² beraz, ez zen izaten ahalko Moledaren alabaren bikotekidea, herritar batzuek nahi zuten bezala.

3. Egiletza

3.1. Sinatzaileak

Sei sinadurak ixten dute testua amaieran. Sei gizonen izenak ematen zaizkigu, bata bertzearen gainean bi zutabetan, hiru eta hiru. Afera biziki garrantzitsua zela uste izanik, euren iritzia ematea deliberatu zuten, erabaki okerra izan zitekeenaren ondorioz herriak kalte makurrik jasan ez zezan. Nor ote ziren batzarrean denen aitzinean agertzeko pausoa eman zutenak? Nolako pisua ote zuten, nolako autoritatea, gainerako herritarrentzat?

Eskuratu ditugun agirietan ikasi dugunez, denak sortzez beratarrak ziren. Haietako hiru, elizgizonak (ez ziren elizak garai hartan Beran zituen orde-

¹¹ BUA. 423 kutxa: osasun-langileak (1796-1935), 423/2 karpeta.

¹² IEA/Igantziko PES. Bataiatuen 5. liburua (1780-1828), 2/1821.

kari bakarrak),¹³ bertze bat, oraindik ikaslea baina hura ere apez izateko bidean, eta gainerako biak, pertsona zibilak, baina ez nornahi, arlo desberdinetakoak izanagatik, bakoitzak bere itzala zuena.

Azkenekotik hasita, hona hemen, banan-banan:

a) Frantzisko Esteban Etxenike Mitxeo (1760-1827)¹⁴

Etxeniketarren familia boteretsuaren ordezkaria. 1810eko katastroan, Berako hiru aberatsenetako bat zen.¹⁵ Bazuten maiorazko bat, XVIII. mendearen hasieran Frantzisko Etxenikek sortua, hainbat ondasun biltzen zituen. Bertzalde, Frantzisko Estebanen ama, Tomasa, aitoren alaba zen,¹⁶ Donamaria-Gatzeluko Mitxeo-Ustariztarren familiakoa.¹⁷

Urtsula Minondo Zubieta goizuetarra emazte zuela,¹⁸ leinuaren oinetxean bizi izan ziren lehenik, Garmenditxipiko palazioan,¹⁹ eta gero, halabeharrez, eurena ere bide zen Altzate auzoko Iribarrean.²⁰ Iza-nez ere, XVIII. mendearen amaierako eta XIX.aren lehen erdiko gerra ekintzek bete-betean harrapatu zuten jauregia, eta dena deseginik eta hondaturik gelditu zen haien ondorioz; azkenean, erre eta suntsitu egin zuten.²¹ Behin baino gehiagotan aipatu da jauregi hura gaur

¹³ Erretorea eta sei apez ziren 1824an (IEA/Apezpikutzako Auzitegia –AA–, 2729. kartoia, 8. zk.). Haietaz gainera, kaputxinoen komentua ere bazen herrian (IEA/AA. 2731. kartoia, 9. zk.).

¹⁴ IEA/BPES. Bataiatuen 3A liburua (1729-1763), 63/1760; Hildakoen 3. liburua (1824-1842), 32/1827.

¹⁵ BUA. 361. liburua: Katastro-aberastasunaren liburua (1810). Etxenike, bertzeak bertze, etxe eta baserri hauen guzien jabe ageri da: Garmenditxipia, Bordaberria, Iribarrenea, Iribarren borda, Ezponda, Ezpondako borda, Hugainea, Hugain borda, Arotzenea, Urrola, Garzezuria, Matxikotekoneko borda eta Donsimonbaita.

¹⁶ BUA. 368 kutxa: soldaduska (1775-1858), 368/1 karpeta.

¹⁷ IEA/BPES. Bataiatuen 3A liburua (1729-1763), 63/1760 (Frantzisko Esteban semearen agiria).

¹⁸ IEA/BPES. Bataiatuen 5. liburua (1789-1812), 50/1802 (Santos semearen agiria).

¹⁹ NEAN. Berako notarioen protokoloak. Martin Legia notarioa. 1774. urtea. 61. zk. Frantzisko Etxenikek sortu zuen maiorazkoaren ondasunen inbentarioa.

²⁰ BUA. 95 kutxa: aldetak eroldan (1841-1884), 95/1 karpeta.

²¹ NEAN. Berako notarioen protokoloak. Angel Larunbe notarioa. 1867. urtea. 126. zk. Maria Frantziska Etxenike Minondoren testamentua.

egun Kaxerna izenez ezagutzen den parajea zegoela, eta tokiak frantses armadari zor diola izena 1808an Berara sartu zenean Garmenditxipia kuarteltako hartu zutelako (Baroja, 1913).

Frantzisko Estebanen anaia Jose Frantzisko apez izan zen Beran, eta, hain zuzen ere, 1822 hartan hil zen, martxoaren 30ean.²² Ez da ageri bera hil baino bi hilabete lehenago idatzi zen izkribuaren sinatzaileen artean, segur aski ordukotz eri egonen zelako.

b) Santos Etxenike Minondo (1802-1852)²³

Frantzisko Estebanen eta Urtsularen semea. Agiria sinatu zen unean, hemeretzi urte bertzerik ez zuen. Haren sinadurak agerian uzten du mutil eskolatua zela, eta badakigu orduan apez izateko bidean zela. Handik urte pare batera, oraindik ikasle zelarik, Berako parrokiako kapilautza bateko onuradun izendatu zuten, eta berak onartu, 1824an.²⁴ Hurrengo urtean, ordea, uko egin zion onurari, elizako ikasketak utzi nahi zituela adierazita.²⁵ Ezkongabe hil zen.²⁶

Halako familiako semea izanagatik, deigarria zaigu gizon gazte honen sinadura bertzeenen ondoan ikustea. Beharbada eri bide zegoen osaba apezaren ordezkoko modura gonbidatu izanen zuten parte hartzera, edo, bertzela, aitak bulkatu nahiko zuen herrian, laster abitua jantziko zuela sinetsirik.

c) Gregorio Etxegarai Zidardia (1782-1862)²⁷

Indar militarren itzala gehitzen zion Etxegaraik taldeari. 1803an sartu zen armadan, eta Frantsestea esku hartu zuen Nafarroatik kanpoko

²² IEA/BPES. Hildakoen 2. liburua (1777-1824), 6/1822.

²³ IEA/BPES. Bataiatuen 5. liburua (1789-1812), 50/1802; Hildakoen 4. liburua (1843-1870), 1/1852.

²⁴ IEA/ Apezpikutzako Auzitegia (AA). 2733. kartoia, 11. zk.

²⁵ IEA/AA. 2975. kartoia, 24. zk.

²⁶ IEA/BPES. Hildakoen 4. liburua (1843-1870), 1/1852.

²⁷ IEA/BPES. Bataiatuen 4. liburua (1775-1789), 28/1782; Hildakoen 4. liburua (1843-1870), 38/1862.

hainbat gerra ekintzatan. 1820ko martxoan Espoz y Minaren lagun-tzaile hasi zen, eta 1822ko abenduan Baztango Ehiztari konpainiaren kapitain izendatu zuten (García-Sanz, 2014). Elizaren artxiboko heriotza-agirian, armada nazionaleko kapitain teniente koronela zela jartzen du.²⁸

Jaiotza-agirian ez du jartzen sortetxearen izena; bai, ordea, aita Juan Jose Etxegarai Garmendiarena, zeina Mendigorriberea baserriko semea baitzen.²⁹ Gregorioren izena 1842ko erroldan aurkitu dugu: Altzate karrikako Mikelezkerrenea etxean bizi zen, alargun, bi seme-alabarekin.³⁰ Ogibidea zela medio, batera eta bertzera ibili beharra egokitu izanen zitzaion nahitaez, baina, iduri duenez, izkribua egin zen garaian herrian zegoen: haren emazte Rafaela Arregi Mitxelena lesakarra haurdun zegoen, urte hartako maiatzean jaioko baitzen Beran izan zituzten hiru seme-alabetako hirugarrena.³¹

d) Juan Esteban Iratzoki Ezponda (1756-1834)³²

Herriko parrokiako erretorea zen 1822an. Beraz, seiko taldean, hauxe genuke elizaren ordezkari nabarmenena. Denbora luzea zeraman kargu horretan (1795etik),³³ eta, ikusi dugunez, garai ez bereziki lasaian. Eskarmentu horrek sendotuko zuen haren figura herritarren aitzinean.³⁴

Berako Herriko Etxeko plazan jaio zen, Retonean,³⁵ denboraren bu-ruan gobernatuko zuen elizaren ondo-ondoan.

²⁸ IEA-BPES. Hildakoen 4. liburua (1843-1870), 38/1862.

²⁹ IEA/BPES. Bataiatuen 4. liburua (1775-1789), 28/1782.

³⁰ BUA. 95 kutxa: aldaketak erroldan (1841-1884).

³¹ IEA/BPES. Bataiatuen 6. liburua (1812-1823), 21/1822.

³² IEA/BPES. Bataiatuen 3A liburua (1729-1763), 8/1756; Hildakoen 3. liburua (1824-1842), 117/1834.

³³ IEA-BPES. Hildakoen 2. liburua (1777-1824), 1795eko maiatzaren 6ko heriotza-agiria.

³⁴ Aztergai dugun izkribuaz gainera, bere kargualdikoak dira, baita ere, ezagunak ditugun euskaraz idatzirik Berako ordenantzak, artikulua honetan berean gehiagotan aipatzen ditugunak, ohartu baikara bere eskuaz idatzirik dagoela bi bertsioetako bat.

³⁵ Gaur egun 'Retenea' edo 'Erretenea' erraten zaio herrian.

e) Martin Josef Hualde Legarrea (1783-1853)³⁶

Bertze elizgizon bat, apez Beran. Gurasoak merkataria zituen,³⁷ Ansoarena etxearen jabeak (aitaren aldetik heldu zitzaizen jabetza),³⁸ eta Martin Josef gerora ere etxe hartan bizi izan zen,³⁹ gaur egun berriturik Ansoena izenez ezagutzen den hartan, oraingo Foruen plazan. Ama, berriz, Alzate karrikako Iriarte etxekoa zuen,⁴⁰ eta haren bi anaia ere elizaren zerbitzari izan ziren herrian; bata erretore, Martin Joseph (beraz, ilobaren izen berekoa), eta bertzea apez soil, Juan Angel (behin-behineko erretore, anaia hil ondotik, baina tarte laburrean, hura ere hil baitzen bi hilabeteren buruan).⁴¹

Martin Josef kasu bitxi bateko protagonista izan zen denbora hartan. Goitiago aipatu dugun Hirurteko Liberalaren (1820-1823) Gobernuaren indarra amaitu eta Madrilen berriz ere erregezaleak agintzen jarri zirelarik, atxilotu egin zuten, 1823ko azaroan, bertze beratar batzuekin batera, eta Herriko Etxeko kalabojoan eduki zuten preso. Leporatzen zioten aitzineko urteetan nabarmendu izana sistema liberalaren alde eta monarkikoen aurka.

Haren kontrako auzian, hamalau lekukori deitu zieten, eta gehienak Hualderen kontra mintzatu ziren. Kontu politikak irakurri ditugu haien deklarazioetan. Konparazio batera, Martin Josefek herritik ihes egiten zuela, mozorroturik, erregezaleen aldeko boluntario talde armatuak etortzen zirenean, edo Fermin Legia beratar gudari liberal ospetsuaren laguna zela haurrak zirenetik eta harekin pozik elkartu zela sorterrira sartu zen aldietan.

³⁶ IEA/BPES. Bataiatuen 4. liburua (1775-1789), 73/1783; Hildakoen 4. liburua (1843-1870), 14/1853.

³⁷ NEAN. CR. ALISTAMIENTOS (Floridablancaren zentsua). Leg. 6 N. 27-6.

³⁸ IEA/BPES. Bataiatuen 4. liburua (1775-1789), 73/1783.

³⁹ BUA. 95 kutxa: aldaketak erroldan (1841-1884), 95/1 karpeta.

⁴⁰ IEA/BPES. Bataiatuen 4. liburua (1775-1789), 73/1783.

⁴¹ IEA-BPES. Hildakoen 2. liburua (1777-1824), 56/1794 eta 77/1794.

Azkenean, hilabetetik goiti giltzapean iragan ondotik, zigor gisara, gogo-jardunak eginarazi zizkioten (Berako kaputxinoen komentuan egin zituen, Berako gainerako apezek hala eskaturik), eta isuna ordaindu behar izan zuen.⁴²

f) Juan Esteban Garmendia Zubigarai (1779-1843)⁴³

Azkena, baina ez, horregatik, garrantzi txikiagokoa. Hirugarren elizgizona, apez soila Hualde bezalaxe, eta, Ansoreneco semearen gisara, hau ere dendarien semea zen.⁴⁴

Gurasoak Bidaburua etxearen jabeak zituen,^{45,46,47} baina ez dakigu garbi etxe hartan edo bertze batean jaio ote zen (gurasoek denda bide zuten hartan, beharbada).⁴⁸

Iruñeko San Migel Apaizgaitegian egin zituen eliza ikasketak, 1793tik 1803ra.⁴⁹ Filosofiako hiru ikasturte, *Eocis Theologicis*eko bat, Teologia

⁴² IEA/AA. 2731. kartoia, 9. zk.

⁴³ IEA/BPES. Bataiatuen 4. liburua (1775-1789), 40/1779; Hildakoen 4. liburua (1843-1870), 27/1843.

⁴⁴ NEAN. CR. ALISTAMIENTOS (Floridablancaren zentsua). Leg. 6 N. 27-6.

⁴⁵ IEA/BPES. Bataiatuen 4. liburua (1775-1789), 40/1779: "...hijo legítimo de Martín Estevan de Garmendia y Maria Fran(cis)ca de Zubigarai... dueños de la casa de Bidaburua".

⁴⁶ Bidaburua izeneko bi etxe ageri dira urte hartan Beran: bata, "*Bidaburua de Vera*" (herriari ez ezik, parrokiaren inguruko auzoari ere Vera erraten zitzaion), non bizi zen "*Josef Xabier Laviano, Presv(ite)ro*"; bertzea, "*Bidaburua de Alzate*", non bizi zen gerora izkribu hau idatziko zuena, "*Juan Esteban Garmendia, Presv(ite)ro*". Gaur egun ere zutik daude bi etxe horiek: lehena, orain San Esteban deritzon etxadian; eta bigarrena, orain Legia deitzen zaion karrikan (NEAN. Berako notarioen protokoloak. Jose Frantzisko Etxenike notarioa. 1809. urtea. 40. zk.).

⁴⁷ 1803an, Juan Esteban Garmendiak berak eskuratu zuen etxea, gurasoek eginiko dohaintzaren bidez (IEA/AA. 2666. kartoia, 17. zk.).

⁴⁸ Floridablancaren zentsuan (NEAN. CR. ALISTAMIENTOS. Leg. 6 N. 27-6), Bidaburua bakarra ageri da, eta hartan Martin Joseph Iturria izeneko maizter bat bizi zen, eta Juan Estebanen guraso merkatariak "*Casa Nueva*" izendatzen den bertze etxe batean, eta han ere maizter, nahiz eta apezaren jaiotza agirian jartzen duen gurasoak Bidaburuaren jabe zirela. Geroagoko agirietan, ordea, bai, Garmendiatarrak agertuko dira Bidaburuan bizitzen (ik. aurreko oin-oharra).

⁴⁹ IEA/AA. 2403. kartoia, 19. zk. eta 2666. kartoia, 17. zk.

eskolastikoko bat eta eskritura sainduari buruzko bertze bat egin zituen bederen; latina eta gai moralak ere ikasi behar izan zituen.⁵⁰ Fisika ikastaro bat ere egin zuen, 1795ean, Calahorra eta La Calzadako Apezpikutzako El Salvador Apaizgaitegian.⁵¹

3.2. Izkribuaren egilea

Sei sinatzaile izanagatik, haietako bat arduratu zen seien ideiak idatziz jartzeaz, argudioei forma egokia emateaz, arrazoiak apain jantzeaz. Idazkera argia da, eta egilea euskaraz eskolatua zegoela ematen du, euskal moldeaz idazten ohitua.

Gure ustez, Juan Esteban Garmendia Zubigarairen eskuak erabili zuen izkribua idatzi zuen luma. Sei sinadurei erreparatuz gero, huts egiteko kezka handirik gabe, ausartu gintezke erratera Garmendiaren izenaren idazkera dela izkribukora gehien hurbiltzen dena. Baina, susmo hori egiaztatzeko, Garmendiaren sinadura daramaten bertze testu batzuk bilatu ditugu elizako artxiboetan. Haiek eta hau alderaturik, baieztatzen ahal dugu bera izan zela izkribua idatzi zuena.

Garai hartako agiri gehienak Iratzoki erretoreak idazten bazituen ere, Juan Estebanek berak eta parrokiaren bertze zerbitzariak sinatuak ere bai baitira, Garmendiaren sinadura daraman 1828ko otsailaren 18ko bataio-agiri bat hautatu dugu egiaztapena egiteko.⁵²













Aztergai dugun testua eta bataio-agiria alderaturik, ez dago dudarik idazkera bera dugula bietan, pertsona berak idatziak direla biak. Horren erakusgarri, lagin ttiki bat prestatu, eta hona ekarri dugu (ik. 1. taula).

⁵⁰ IEA/AA. 2666. kartoia, 17. zk.

⁵¹ IEA/AA. 2403. kartoia, 19. zk.

⁵² IEA-BPES. Bataiatuen 7. liburua (1823-1843), 8/1828.

1. taula. Bi izkribuetako grafemen arteko erkaketa

Testua		Bataio-agiria	Testua		Bataio-agiria
	<D>			<A>	
	<nombr>			<tu>	
	<ga>			<p>	
	<d>			<y>	

4. Eskuizkribuaren kokapena eta deskribapena

Eskuizkribua Berako Udal Artxiboan dago, 423 zenbakia eta “Osasun langileak (1796-1935)” katalogo-izena duen kutzaren barrenean, bertako 423/2 karpetan (“Personal cirujano 1822-1854”).

Euskarria papera da: 42 cm x 30 cm-ko orri bakarra. Erditik tolesturik baitago, orri bakarretik lau orrialde ateratzen dira. Euskarazko izkribuak lehenbiziko, bigarren eta hirugarren orrialdeak hartzen ditu, goititik behe-tiraino. Lehenbiziko eta hirugarren orrialdeen goiko aldean gurutze txiki bat marraztu zuen egileak. Hirugarrenaren amaieran, data eta sei sinadura ageri dira. Laugarren orrialdean, hitz batzuk heldu dira, gaztelaniaz, edukiaren berri ematen dutenak: *1822 Memorial en Bascuenze sobre nombram[ien]to de Zirujano*.

Lehenbiziko eta bigarren orrialdeetan itzalgune batzuk ageri dira hitzen gainean, paper euskarri beraren aitzinalde eta gibelaldea baitira, baina hori

izanagatik ere aisa irakurtzen da testua. Papera, oro har, hagitz ongi kon-tserbatua dago. Baditu han-hemenka urratu batzuk, baina ez dute testuan eraginik.

5. Edizioa

5.1. Irizpideak

- Testu laburra baita, ez ditugu orrialdeak zenbatu.
- Puntuazioa gaurkotu da.
- Laburdurak hedatu dira eta gehitutakoa taket artean eman.
- Letra larri eta xeheen erabilera gaurkotu da.
- Hitzen banaketa gaurkotu da, aldaketa fonologikorik eragin ez due-nean (*garen ezquero*)
- *da* adizkiak azentu grafiko grabea darama zenbaitetan, baina ez da sistematikoa. Kendu egin dugu.

5.2. Testua oharrekin

+

Alcate, erregidore, vecino eta habitante Veracuac.

Gure yaunac:

Uscaldunac garen ezquero sala unetan arquitcen garen guciyec, uscaraz espicatcia iduritu zaigu, erresetuz beteric, gaur emen tra-tatcera duayen asuntuba, elcar obequi adituric, acertatceco. Aññ andiya eta importantia da, gure ustian, escu artian dugun asuntuba, non unen acertatciac edo uts eguitiac ecarri biar tio Veraco erriya-ri probechu larriyac edo calte lastimagarriyac. Tratatcen da barbe-raren nombramentubaz. Tratatcen da osasuna edo eriyotcia emai-ten duben oficiyo delicaduba artaz. Bada asuntu andiyagoric? Da oficiyo bat au, bertce guciyec bezala, uts eguiñez icasten dena, biño

bada diferenciya andi bat unen eta bertcien artian: unetan utseguñac dire anitz aldiz mortalac; bertcietan eztire ala beñ ere, icusten duzuben bezala zugatcetan, arguiñetan eta bertce guciyetan. Da oficiyo bat au eriyen bizcar eta costura icasten dena. Da oficiyo bat, azquenian, gaur ezpada biyar, aurtan ezpada bertce urtian, unetaz sala unetan arquitcen garen guciyec comunqui galdetu biar duguna. Emendic aterico duzube contuba, yaunac, cer atenciua eta cuidaduba mereci duben nombramentuba unec. Guc eztugu galde-tcen erriya unentzat utseguñac eguiñen eztuben barberaric: au litceque sagar omuac escatcia bezala elorriyari. Barberaren oficiyua da gaitza, delicaduba eta esponituba. Orretaz gañera, guc ere baco-chac bere estaduban eguiten tugu falta anitz, ustegabian bederen; biño billatcen dugu barber yaquintsu bat, practicua eta esperi-mentatuba, eta, al bada, hospitaletan obserbacione anitz icusi eta icasi tubena, ceren hospitaliac diren eriyac sendatcen icasteco es-colaric oberenac. Guc, azquenian, escatcen dugu barber bat aplica-tuba, eriyetara asistituba eta particularqui pobrietaz cuidatcen du-bena aberatsaz bezala. Batzubez erranen dute, eben ustez arrazoi andiyarequin, Moleda desgraciyatubaren familia tristiac erremedi-yatu biar dubela: nescachac acomodatu biar dubela errira etorri nai duben barber ezcongai batequin. Ezta gauza yustubagoric circuns-tanciya igualetan. Mereci du atenciua au familia abandonatuba orrec, ñoren calteric ezpada. Biño ezpadire circunstanciyac berdiñ? Baldin bada diferenciya andiya pretendientien artian? Bat experi-mentatuba eta habilla, eta bertcia esperiyenciyaric eta habillidade-ric gabecua? Orduan conveni da oberena utciric bertcia autatcia erri guciyen caltetan bati favoria eguitiagatic? Galdemoduba unen errespuesta ezquenuque aditu nai orain sala unetan, osasunarequin arquitcen zareten demboran, baicic guero, guatce batian gaitzac yoric errenditubac zaudetenian, etorrigo baitzayo noizpait bacochari orduba ura. Aditcen dugu erraten digutela ecarrico dutela barber ezcongaya ona, habilla, eta Iruñeco Colegiuac⁵³ onzat ematen du-

⁵³ San Kosme eta San Damian kofradiaren mendeko elkargo hau 1496. urtean sortu zen Iruñean, eta geroago Tuteran ere bai. Hiri horietan mediku aritu nahi zutenei azterketa egiteko ardua zuen. 1724-1726. urteetan Iruñekoak erresuma osora hedatu zuen azterketak egiteko eskumena, Tuterara izan ezik. 1828-1829ko gorteez bertan behera utzi zuten instituzio hori, Medikuntza, Kirurgia eta Farmazia Kolegioa sortzeko (cf. Sánchez, 2010).

bena. Nafarruaco erri miserablienetan, zortci edo amar iche tuztenetan, dire modu berian, Colegiuac onzat emanaco barberequin, errenta urte erdico escas dutela; eta Veraco erriyac, ematen duben errentarequin, contentatu biar du unelaco batequin? Orretaz gañera, Verara etorri nai duben barber ezcongaya, edocin dela, edo da esaminatu zarra, edo berriya. Baldin bada esaminatu zarra, eta ezpadu logratu partido ventajosua eta nescacha doteduna, ezta ambat siñale ona. Baldin bada esaminatu berriya, claro dago eztubela practicaric eta esperenciayaric, eta eldu dela erriya unetara aprendizco urtiac gure gostura betetcera. Izan diteque ernia, biño escarmeturic gabecua. Arrazoi andiyarequin erraten zuben dotore habill batec eun arrazoic biño guego valiyo dubela esperenciya batec, dotorecuan eta barbercuan. Ycusten dugu, dembora berian, deseyo on batetic yayocen direla nescacha acomodatceco pensamentu noblia oc. Guc ere estimatcen dugu, edociñec adifña, nescacha ori bere prendaz, eta orañic guego bere aitaren desgraciayaz. Biño permititu biar zaigu erratia dela caridade bat gaizqui entendituba ñor socorritcia berceren ontasunarequin, yabien vorondateric gabe. Eguin dezaque batec limosnaric cantidade andiyan berceren dirubaz, aren consentimenturic gabe? Claro dago ezetz. Casu berian arquitcen gara gaurco egunian. Artu dezala, bada, erriyac berce mediyo bat aren socorritceco, eta orduban emanen tugu guc ere guere deseyu onen pruebac. Bertce batzubec galdetuco digute: “Non arquitcen da zubec diozuben barber yaquintsu, experimentatu eta habilla ori? Non ditu mediyuac erriya unec guisa orretacoren bat ecartceco?” Eguiya da: erriya pobre arquitcen da. Demborac, gure desgraciayaz, tristiciac dire. Envidiya andi bat diogu guc Erribera aldeco Vera bezaleco⁵⁴ erri batzubei, ceñetan errenta onac baldin badire, eztire gutiyago barber onac eta famatubac, nola diren Care-san, Tafallan, Peraltan eta guisa unetaco bertce erri anitcetan. Ecin

⁵⁴ Testuan *bezaleco*. Hutsa den eta *bezalaco* behar duen zalantza egin dugu, baina azkenean utzi. Ez dateke *bezalako* formatik abiatutako metatesia, testuan *bezala* baita ageri den forma bakarra. Bertzalde, CHn ez da behin ere horrelakorik dokumentatzen, eta EK Cean Mendibururi egozten zaion forma bakarra hutsa da: jatorrizkoan *bezalacoa* ageri da. Haatik, OEhk badakar forma hori, non eta Paulo Iantzi (1882-1962) igantziarraren bertso bilduman (Zavala, 1968: 111, 114). Xenpelarren ahotik atereak balira bezala ondutako bertso batzuetan ageri da, hiru aldiz: gainerakoan, *bezalako* darabil.

compara guitezque erriya equin ontasunetan, biño biar guenuque, ezperen, ec duten⁵⁵ zeluba eta deseyua, guciyen onetan. Ecin badezaquegu Nafarruan den oberena, izan dediyela, bederen, pretenditcen dutenetan guisacuena. Ezta gure intenciuā ñor ofenditcia mintzamoduba unequin: ezcara personetan sartcen; asuntuba bera da precisua eta criticua. Eztezala permiti gure Jangoicuac, ceñec icusten tuben guciyen barrenac, unelaco bajezaric eguitia, ez eta pensatcia ere. Guciyen ona edo gaitza dua. Orañic obequi erranen dugu: necazale pobrien ona edo gaitza duala, ceren ongui dagona ichian, biartcen bada estutasun batian barber on batez, ecarrico du campotic bere gostura bederen; biño necazale miserable batec eztu mediyoric izanen. Acerturic oberena eguin dezagun nombramentuba unetan. Obligatu gara paratcia zuben beguiyen aintciñian ona eta gaitza, probechua eta caltia, auta dezazuben biyetaric bat.

Veran. Urtarrillaren 12[garre]na, 1822[ga]rren urtia.

Martin Josef de Hualde

Juan Estevan Irazoqui

Santos Echenique

Gregorio Echegaray

Juan Esteban Garmendia

Fran[cis]co Estevan de Echenique

6. Hizkuntza-azterketa

Ondoko lerroetan testuko euskararen ezaugarriak deskribatuko ditugu. Gainera, Berako euskara eta ingurukoa islatzen bide dituzten bertze testu zaharrekin alderatuko dugu, eta gaur egun erabiltzen denarekin ere bai.⁵⁶

Testu zaharren corpus bat eratu dugu, gurearekin erkatzeko interesgarri edo beharrezko iritzi diogunean; ez dugu, beraz, konparazio sistematikorik egin. Garai guzietako Berako eta inguruetako dokumentuak baliatu ditugu, aztergaiaren garaikideak bereziki. Salbuespen bakanekin, testu erlijiosoak baztertu ditugu, eta administratiboak hobetsi. Gainera, orain arte ezezag-

⁵⁵ Hitz hau errepikaturik ageri da, oker.

⁵⁶ Gaur egungo euskararen ezaugarrien definiziorako argitaratutako ikerlanak erabili ditugu, baina lanik aipatzen ez denetan, Mikel Tabernaren juzguak jarraitu ditugu, aldaera horren hiztuna baita.

nak ziren testu zenbait ere gaineratu ditugu.⁵⁷ Hona testuen zerrenda, ordena kronologikoan:

- 1680: Berako olagizonaren gutunak (Urrizola, 2006)
- 1680: Urruña eta Hondarribiaren arteko gutunak (Trebiño, 2001: 35)
- 1710: Albaran bat, Pedro Iriarte zugarramurdiarrak Pedro Gazteluzar Ziburuko biztanleari ordaindu beharrekoaz, Joanes Iriart, Bernart Haran eta Migel Hirigoitik sinatua (Argitaragabea, JMZ)⁵⁸
- 1716: Berako eskuizkribu bat, lur baten errentez, Frantzisko Legiak sinatua (Argitaragabea, JMZ)⁵⁹
- 1747-1751: Ziburuko kontuak eta ordainagiria, Pedro Zilbeti aroztegiarrak Gazteluzar de Etxeto ziburutarrari zor zion diruaz. Dokumentua azken horrek sinatua da (Argitaragabea, JMZ)⁶⁰
- ca. 1757: *Le Dauphin* ontziko gutunak (Lamikiz, Padilla-Moyano & Videgain, 2015)
- 1773. Berako Juan Jose Etxegaraik Madalena Garbendia amari Cadiztik igorri gutuna (Argitaragabea, JMZ)⁶¹
- 1773: Sarako erretore Jose Bizente Teillarik Pedro Bidondo “Iriarte” saratarraren heriotza kari idatzi ahalordea (Argitaragabea, JMZ)⁶²
- 1776: Saratik Berako notario Martin Legiari igorri gutuna, Lesca delakoak sinatua (Argitaragabea, JMZ)⁶³

⁵⁷ Zerrendako zenbait dokumentu argitaragabeak dira. NEANen Berako notarioen protokoloen artean gordetzen dira, Lorentzo Hualde, Martin Legia, Tomas Goienetxe eta Jose Martin Sampaul notarioen paperen artean. Jose Mari Zelaieta (JMZ) Berako Zigardibereko semeak aurkitu ditu, eta ikerketarako gure eskuetan paratu. Bihoakio, beraz, gure esker ona.

⁵⁸ NEAN. Berako notarioen protokoloak. Lorentzo Hualde notarioa. 1730. urtea. 8. zk.

⁵⁹ NEAN. Berako notarioen protokoloak. Lorentzo Hualde notarioa. 1716. urtea. 46. zk.

⁶⁰ NEAN. Berako notarioen protokoloak. Martin Legia notarioa. 1751. urtea. 11. zk.

⁶¹ NEAN. Berako notarioen protokoloak. Martin Legia notarioa. 1773. urtea. 77. zk.

⁶² NEAN. Berako notarioen protokoloak. Martin Legia notarioa. 1773. urtea. 3. zk.

⁶³ NEAN. Berako notarioen protokoloak. Martin Legia notarioa. 1776. urtea. 67. zk.

- 1783: Piarres Lahetjuzan Argainek Saratik Martin Legia Berako notarioari igorri gutuna (Argitaragabea, JMZ)⁶⁴
- 1785: Beran idatzitako gutun zatia, Larhongo kapilautzaz (Argitaragabea, JMZ)⁶⁵
- 1786: Berako idazkariaren gutuna Sara, Azkaine eta Urruñako arduradunei, Larhongo kapilautzaz (Lafourcade, 1989)
- 1788: Donibane Lohizunetik Berara igorri gutunak (Irigarai, 1972)
- 1798: Ana Grazi Iribarren defuntuaren ezkonsariaren inbentarioa (Argitaragabea, JMZ)⁶⁶
- XIX. mende hasiera: Berako Udalaren ordenantzak (Idoate & Villanueva, 1981)
- ca. 1810: Lesakako ordenantzak izokinen arrantzaren, salmentaren eta zergen gainean (Argitaragabea, JMZ)⁶⁷
- 1815: Urruñako alkateak Pasaiara igorri gutuna (Arozena, 1958)
- 1827: Sara eta Bera arteko gutunak elkarrekikoez (Trebiño, 2001: 295)
- 1827-1828: Saratik Etxalarrera igorri gutunak (Trebiño, 2001: 307)
- 1837-1838: Saratik Etxalarrera igorri gutunak (Trebiño, 2001: 335)
- 1844: Etxalarko alkateak eta Saran den iheslari batek elkarri idatzi gutunak (Trebiño, 2001: 355)
- 1846: Saratik Etxalarrera igorri gutuna (Trebiño, 2001: 363)
- 1846: Biriaturtik eta Urruñatik Berara igorri gutunak (Trebiño, 2001: 375)

⁶⁴ NEAN. Berako notarioen protokoloak. Martin Legia notarioa. 1783. urtea. Lekualdatzeak.

⁶⁵ NEAN. Berako notarioen protokoloak. Martin Legia notarioa. 1785. urtea. 24. zk.

⁶⁶ NEAN. Berako notarioen protokoloak. Tomas Goienetxe notarioa. 1798. urtea. 35. zk.

⁶⁷ Dokumentu honen signatura falta dugu. NEANen gordetzen da, Berako notarioen protokoloetan. Garai hartan Goienetxe, Etxenike eta Egozkue ziren herriko notarioak. Testu horren erdarazko bertsioa hemen aurki daiteke: NEAN. Berako notarioen protokoloak. Jose Martin Sampaul notarioa. 1815. urtea. 99. zk.

- 1847: Berako komisarioaren zirkularra (Trebiño, 2001: 379)
- 1851: Urruñako Euskal Festen programak (Trebiño, 2001: 397)
- 1852: Etxalartik Sarara igorri gutuna (Trebiño, 2001: 407)
- 1852-1853: Saratik Berara igorri gutunak (Trebiño, 2001: 411)
- ca. 1855: Lesakako bandoa (Irigarai: 1933)⁶⁸
- 1855-1856: Etxalarko bandoak (Trebiño, 2001: 415)
- 1857-1858: Anastasio Etxeberriren Lesakako predikuak (Satrustegi, 1986, 1987, 1997)
- ca. 1857: Bonaparterentzat bildutako lau *Benediciteak* eta Hiru Haurren Kantika (Pagola, 1995)
- 1858: Biriaturtik Berara igorri gutuna (Trebiño, 2001: 421)
- 1859: Saratik Etxalarrera igorri gutuna (Trebiño, 2001: 425)
- 1860 Azkainetik Berara igorri gutunak (Trebiño, 2001: 429)
- 1863: Bruno Etxenikek Bonaparterentzat Beran bildu dotrina (Pagola, 1995: 473-502)
- 1865: Saratik Berara igorri gutunak (Trebiño, 2001: 481)
- 1925: Erizkizundi Irukoitza (Etxaide, 1984)
- 1933: Berako Udal bandoak (Trebiño, 2001: 743)

6.1. Fonetika eta fonologia

Egun bezala, /j/ ahoskera aurkitzen dugu hitz hasieran, *yaunac*, *yaquintsu*, *yustubagoric*, *yoric* edo *yayocen* bezalako adibideek erakusten dutenez. Haatik, *Jangoicuac* ageri zaigu. Oso litekeena da hitz horren ahoskera belarra

⁶⁸ Agiri honek ez du datarik, baina datatzeko bi argudio daude: batetik, Nafarroa probintziazat du; beraz, erresuma izateari (1841) utzi ondokoa behar du. Bertetik, kolera izurritearen gaineko testua da, eta bigarren izurrite handia 1855ean izan zen Bortzerrietan (Erdozáin & Mikelarena, 2003: 419).

izatea ordukotz, Nafarroako euskararen erlijio inguruko hitz zenbaitekin gertatu bezala. 1680ko Berako olagizonak *yeinco* eta *jeinco*, biak ditu, eta 1786ko Berako idazkariaren gutunean *jaun* eta *yaun*, biak ditugu, Berako alkateak Sarakoari 1827an igorri gutunean bezala. Lesakako Etxeberriren predikuetan *yaincoa* eta *jangoicua*, biak kausi daitezke. XIX. mendeko Berako ordenantzetan *yaun* dago, baina gainerakoan, banaketa garbia da: 1852ko Etxalarko gutunean, 1863ko dotrinan eta Berako 1933ko bandoetan: *jaun*, *justizia*, *jangoiko* eta gisa horretako hitzak <j>-z ageri dira eta gainerakoak <y>-z.

Bokal arteko [β], [δ], [γ] eta [r] hotsen galerarik ez da ageri testuan, nahiz eta hitz zenbaiten etimologiak inoiz gertatu dela edo ahozkoan bazela iradokitzen duen: *zugatcetan* (*zuhatz* < **zuhaotz* < **zur-arotz*). Corpus historikoan ere bakan ageri dira horrelakoak, 1863ko dotrina izanik salbuespena.

Ez dago sinkoparik ez aferesirik, eta corpus historikoan ere nekez ageri da halakorik, egun ohikoa izanik ere (Iñigo, 2007). Salbuespen da 1863ko dotrina. Horretan sinkoparen adibide franko ditugu: *voronte* (< *borondate*), *espéntza*, *contsoltubac*, *confestu...* 1933ko bandoetan ere bada *illautia* bezalakorik.

Diptongoen bakantzearen adibide bakar batzuk ditugu. Hala, *uscara*, *arquitcen* eta *edociñen* ditugu, egun ere ohi bezala (Iñigo, 2007: 294). Hiatoak, aldiz, ez dira murrizten (*urtian*, *mediyuac*, *Nafarruan*), eta egun ere Bera bide da honetan gordetzaille (Iñigo, 2007, 295).

Inoiz bokal artean hasperena izan den hitzetan /g/ dago, *guatce* (< *ohatze*) eta *zugatcetan* (< *zuhatz* < *zur-arotz*) adibideek erakusten dutenez. Hala ere, [r] > [h] > [g] bilakabidea ez da sistematikoa; izan ere, *oraín* eta *orañic* dugu testuan eta ez *guañik*. Bietarik entzun daiteke egun Bortzerrietan (Zelaieta, 2008: 190), baina corpus historikoan *orañik* da ageri zaigun forma bakarra, Etxeberriren predikuetan, Etxalarko alkateak Sarakoari 1852an igorri gutunean eta 1863ko dotrinan. Bertzalde, bokal beraren arteko hasperena galdua eta bokal bilkura bakandua dago (cf. *zarra*, *al*).

Hitz hasierako herskari belarraren ahostuntzearen bi adibide ditugu *gostura* hitzean, eta 1863ko dotrinan *gostuz* dago. Haatik, XIX. mende hasiera-

ko ordenantzetan *costura* heldu da, baita Etxalarko bandoetan ere (behin *gostura*).

Ez adberbioaren ondotik herskari ahostunak ahoskabetzen dira: *ezquero*, *eztire*, *eztezala*, *ezpada* eta *ezquenuque* bezalakoak ditugu. Salbuespen gutxi ditu honek corpus historikoan ere, eta badaudenean, <d> eta aitzinetik izan ohi da, saratarrek idatzi testuetan batez ere.

Ozen ondoko txistukariak afrikatuak ohi dira, eta hala islatu ohi da grafikoki: *aintciñian*, *bertce*, *sartcen*. Mailegu gardenek (*diferenciya*, *atenciua*, *pensamentu*, *personetan*) ez dute afrikazioa islatzen eta jatorrizko grafiari eus-ten diote. Salbuespen dira honako bi kasuak: hiru aldiz *berce* idatzi da eta prolatiboaren bi adibideetan *onzat* dugu. Lehen kasuan alternantzia grafiko hutsa dukegu, baina bigarrena ez da argitzen erraza; izan ere, bi prolatiboetan forma frikaria dago, baina atzizki horren erabilera destinatiboaren adibide bakarrean, afrikatua: *unentzat*. 1786ko gutunean ere, *berce* eta *onzat* ditugu, baina *causitzen*, *darotzagun* edo *zervitzari*. Gure corpusean forma frikaria dago Sarako gutun guzietan (<x> *pro* <tz> 1747-1751ko kontuetan: *aitarenxat*), 1857-1858ko Lesakako sermoietan eta Berako 1933ko bandoetan. Etxeberriren predikuetan bietarik dago, afrikatua gehiago, eta Berako 1863ko dotrinan afrikatuak dira adibide guziak.

Gaur egun bezala eta dagoeneko Elk dakarrenez, palatalizazioa dugu [i] ondoren /n/ eta /l/ fonemetan, *eguiñen*, *aintciñian*, *habillidaderic* eta *urtarrillaren* adibideek darakustenez, *vecino* eta *esaminatu* maileguak salbuespen direla. Hitz bukaeran ere badugu *berdiñ*, *Aiñ* eta *habill* bezalakorik, baina posizio horretan gehiago dira palatalizazioa islatzen ez duten *baldin*, *orain*, *andiyarequin* eta gisakoak. Kontsonante aitzinean ere ez da palatalizaziorik islatzen: *mintzamoduba*, *aintciñian*, *yaquintsu*. Testu zaharretara jauzi eginik, Berako olagizonaren gutunetan badugu dagoeneko <ñ>-rik, eta hala da Berako gainerako testuetan ere, 1785eko gutunean, 1786ko Berako idazkariaren gutunean eta 1827an Berako alkateak Sarara igorritakoan salbu. Gainerakoan, hitz akabuan edo kontsonante aitzinean kausitzen dira salbuespen gehienak. <ll> ere testu guzietan dugu, 1786ko idazkariaren gutunean izan ezik.

Ordea, [i] ondoko /t/ fonemaren palatalizaziorik ez da testuan inon islatzen, gaur egun sistematikoa bada ere, baita Elko testigantzetan ere. Hala,

aditu, *eguitia* edo *ditu* ageri da. Bertzalde, *ematen* eta *erraten* dugu beti, eta *emaiten* behin bakarrik. Gaur egun Beran *erratten* eta *ematten* dugu, *emaiten* eta *erraiten* formatatik eratorrita. Testuko *ematen* eta *erraten* bustiduradunak izan zitezkeen, nahiz eta grafikoki ez islatu. Bustidura ez da testu historikoetan islatzen, salbu eta 1863ko dotrinan eta XIX. mende hasierako ordenantzetan.⁶⁹ Lehenean <ty> grafia ageri da sistematikoki bustidura adierazteko (cf. *atya*, *concebityuba...*), eta <tt> bigarrean (*eguitten*, *dittezela...*). Lesakako bandoan eta sermoietan ere <tt> dago. Hots hori grafikoki adierazteko zegoen arazoa edo fenomenoaren prestigiorik eza izan daitezke ahozkoan gertatzen zen hori idatziz ez islatzeko arrazoi.⁷⁰

Sistematikoki eta salbuespenik gabe dago egun ere baden *oa* > *ua* disimilazioa (*Veracuac*, *duayen*, *practicua*, *Colegiuac*, *Nafarruaco*, *mediyuac*), baita *ea* > *ia* ere (*esplacacia*, *importantia*, *ustian*, *biar*, *hospitaliac*). Corpus historikoari begiratzuz gero, XVII. mendeko Berako olagizonaren gutunez, 1716ko dokumentuaz, 1786ko Berako idazkariaren gutunaz eta 1847ko zirkularraz landara, sistematikoak dira bi bilakabideok Berako testuetan. EIk, baina, salbuespen gisa, *bear* dakar Berarako, eta ez *biar*. Sistematikoa da, orobat, *ee* > *ie* disimilazioa, baita corpus historikoan ere: *bertcien*, *pobrietaz*, *pretendientien*, *miserablienetan*, *yabien*.

Kontsonante epentetikoak ere badira. Batetik, *ua*, *ue* > *uba*, *ube* sistematikoa da (*asuntuba*, *duben*, *duzube*, *batzubei*). Salbuespen bakarra *orduan* da, bai eta, nahi bada, *igualetan* ere. Honen arrastorik ez dago egungo mintzoan, baina ohikoa izan da lehenagoko garaietan, baita Lapurdiko kostaldean ere. 1680ko Berako olagizonaren gutunetan badago eta 1680ko Urruñako gutunetan ere bai, baina ments da Berako 1716ko lurren inguruko dokumentuan eta 1785eko Larhongo kapilautzaren gaineko gutunean. Haatik, 1747-1751ko Ziburuko kontuetan eta ordainagirian ageri da, 1788an Donibane Lohizunetik Berara igorri gutunetan ere bai, baita *Le Dauphin* ontziko gutunetan ere. Berako idazkariak 1786an Larhongo kapilautzaren inguruan ida-

⁶⁹ Gogoan izan, bide batez, ordenantza honen kopia bat Juan Estevan Irazoqui apaizak egin zuela; hots, gure testuaren sinatzaileetako batek.

⁷⁰ Jatorrian funtzio adierazkorra zukeen *guti* / *gutti* txandaketak funtzio hori galdu, eta egun bigarre-na da forma bakar eta orokorra Beran. Testuan, ordea, *gutyago* ageri zaigu, palatalizaziorik gabe.

tzi gutunean badago, Cadizko gutunean ere bai 1773an, eta sistematikoa da 1822ko Berako ordenantzetan. Badago, orobat, Lesakako testuetan, Berako alkateak 1827an Sarara igorri gutunean, Etxalarko alkateak 1844an idatzian, Berako 1847ko zirkularrean, Etxalarko 1852ko gutunean eta 1855-1856ko bandoetan, Berako 1857ko *Benedicite*etan eta 1863ko dotrinan. 1930eko hamarkadako udal bandoetan (*Burubillan* bat salbuespen) eta EIn, ordea, ez dago jadanik honen arrastorik.

Bertzetik, *ia, ie, io* > *iya, iye, iyo* ere sistematikoa da, *gutyago, erriyari, desgracyatubaren, guciyec, oficiyo, eriyotcia* eta gisa horretako adibideek agertzen dutenez. Salbuespen dira *tio, diozuben* eta *diogu* adizkiak. Orobat, *pretendientien* dago eta ez ***pretendiyentien*, eta *esperienciya* bitan, baina behin *esperiencyaric* epentesi bikoitzarekin.⁷¹ Egun ere ohiko fenomeno da, eta corpus historikoan, olagizonaren gutunak, 1786ko gutuna eta *Benedicite*etako bat ditu salbuespen. Berako alkateak 1827an Sarara igorri gutunean ere salbuespen zenbait daude, baina gainerakoan beti agertzen da.

Disimilazio eta epentesi fenomenoak, gainera, erlatiboki antola daitezke. Lehenbiziko, epentesiak gertatu ziren, eta disimilazioak gero. Horrela, aisa azal dezakegu *o* batetik heldu diren *u*-ekin *ua* > *uba* fenomenorik ez gertatzea (*ventajosua, intenciu, probechua...*). Gisa berean, ez dugu *-iya* edo *-iye*-rik *e*-tik heldu diren *i* horiekin (*bertcien, urtian, biar*). Gauzak horrela, *mediyuac* forman *i* eta *o* arteko epentesia dugu, baina ez *u* eta *a* artekoa. Bertzalde, fenomenoek hierarkizatze honek erakusten digu *zeluba* hitzaren forma biluziak *zelu* behar duela izan, eta ez *zelo*; eta *omua* formak, aldiz, *omo* duela forma biluzia, eta ez *omu*. Etxalarko bandoetan hierarkia hauen kontra eginen luketen *sencilluban* eta *esperuban* bezalakoak daude, eta Etxeberriren Lesakako predikuetan *gorrotuba* bezalakorik. 1863ko Berako dotrinan *guratsubac* dago.

Jarraian, erabat garaturik ez dauden zenbait bilakabide fonologiko aipatuko ditugu.

⁷¹ Igantzín eta Arantzan <i> atonoa denean ez bide da gaur egun kontsonanterik sartzen, eta agian honako kontrako adibideek ere hori islatzen dute. Hala ere, atonoaren ondoko epentesirik eza berrikuntza bide da, eta ez omen da Berara ailegatu (Iñigo, 2007, 292); beraz, salbuespenok honen bidez azaltzeko arazoak leudeke.

Bi kasutan baino ez, [i]-k [a] asimilatu duela ematen du; izan ere, *guciyec* dugu absolutiboan (eta ergatiboan). Gainera, *litceque* adizkia ere badugu. *Guciyec* dago absolutiboan, halaber, 1773ko Cadiztiko gutunean, XIX. mende hasierako ordenantzetan, Lesakako izokinen gaineko ordenantzan, Lesakako 1855eko bandoan, Etxalarkoetan eta 1863ko dotrinan. Azken horretan *biyec* eta *zazpiyec* ere badago. Haatik, asimilazio hori ez da zenbakietatik, kuantifikatzaile zenbaitetatik (cf. *guciyec*) eta zenbait adizkitatik (cf. *litceque*) kanpo gertatzen, eta hala da egun ere (Zelaieta, 2008: 136-7).

Erakusle eta adberbioetan *on* > *un* dugu (*unelaco*, *unen*), baina ez hortik kanpo (*onzat*, *ongui*, *ontasunetan*, *non*). XVII. mendeko olagizonaren gutunetan ez dago fenomeno horren arrastorik, ezta Berako alkateak 1827an Sarara igorri gutunean ere. Orobat gertatzen da 1847ko zirkularrean eta Lesakako bandoan eta sermoietan. Lehen aldiz 1710eko albaranean dugu fenomeno gure corpusean. Berako idazkariaren 1786ko gutunean bietarik dugu. Egun ere Beran, Etxalarren eta Arantzan omen dago azkarren fenomeno, eta ez hainbertze gainerako herrietan (Zelaieta, 2008: 120).

Erdarazko *-ón* bukaera *-oi* da testuan, *arrazoi* adibideak sistematikoki erakusten duen bezala, Berako 1716ko lurren gaineko dokumentuan eta 1798ko inbentarioan ere hala dugu, eta egun ere hala bide da, *-on* sartzen ari bada ere (Zelaieta, 2008: 135). Haatik, *-ción* amaierak bi bilakabide ageri ditu: *-zio* (*atenciua*, *intenciua*) eta *-zione* (*obserbacione*). *-zio* dugu XIX. mende hasierako ordenantzetan eta 1863ko dotrinan; 1933ko bandoetan, aldiz, *condiciun* bat dago. Berako olagizonaren gutunetan, 1827ko Berako alkatearen gutunean, 1847ko zirkularrean eta 1933ko bandoetan *-zione* dago, eta Lesakako predikuetan *-zio*, *-zion* eta *-zione* daude. Egun ere lehian daude *-zio* eta *-zione* Bortzerrietan (Zelaieta, 2008: 161).

6.2. Izen morfologia

Deklinabideari gagozkiola, ergatibo pluralak marka beregaina duen jakitea ez da erraza. Ez dago horren adibiderik *guciyec* formatik landara. Lehenago erran dugun bezala, forma horrek ergatibo pluralerako zein absolutibo pluralerako balio du, baina *e* hori aitzineko *i*-rekiko asimilazioa dateke (ikus

§ 6.1 atala). Corpus historikoan, Berako testuetan bereizketa ments da, XIX. mendeko udal ordenantzetatik hasita bederen.

Datibo singularrean *-i* dugu *bati* hitzean, gaur egun *bateri* izanik formarik arruntena. Lesakako Etxeberriren predikuetan ere *bati* dago, baina *bateri* dugu 1863ko Berako dotrinan. Pluralean *-ei* ageri da (*batzubei*), baina testu historikoetan *guciyeri*, *oriyeri*, *ceñeri*, *équiri*, *zayeneri* eta halakoak ditugu.

Genitibo singularrean *-aren* dago, eta ez da islatzen egun ohikoa den *-a(i)n* bilakabide fonologikoa: *aitaren*, *Urtarrillaren*. Corpusean ere *-aren* dago beti Berako testuetan, eta *-ain* ikusteko Sarako 1827ko gutunetara jo behar dugu. Hala ere, *Evan* eta *jauman* dugu 1863ko dotrinan eta Berako 1933ko bandoetan, hurrenez hurren.

Soziatiboa *-kin* da, eta moduzko erranahia ere har dezake: *arrazoi andiyya-requin*.

Instrumentala *-taz* da pluralean (*pobrietaz*). Hala ere, perpaus osoari begiratuta, badago bertzela interpretatzerik. Testuak honela dio: *eta particularqui pobrietaz cuidatcen dubena aberatsaz bezala (...)*. Hori horrela, pobreak pluralean eta aberatsa singularrean emanen luke testuak, nahiz eta, bistan dena, ez den aberats bakar batez ari. Hala ez bada, pentsa dezakegu *-taz* zein *-az* agertu daitezkeela pluralean.⁷² Pluraleko erranahia duen *-az* instrumentalak badi-ra Etxenikek 1863an Beran bildu dotrinan: *Credua, ta articulubaz gañera, becatu unetaz, nola confestu bague utzi 'tyubenaz, eta naiz confestu 'tyubenaz ere, Eta semiac eben gurasubengana 'tyuxten obligaciuz gañera*. Dena dela, dotrina horretan *-taz* aldaera erakusleetara mugaturik ageri da. Bertzalde, Lesakako sermoietan *-taz* / *-az* bereizketa gardena da. Erabilerari begira, egun soziati-boarekin ohikoagoa den funtzio instrumentalaren adibideak daude: *Eguin dezaque batec limosnaric cantidade andiyan berceren dirubaz (...)*. Instrumentua biziduna ere izan daiteke: *biartcen bada estutasun batian barber on batez*. Erabiler motibatiboa ere hartzen du instrumentalak: *Guc ere estimatcen dugu (...)* *nescacha ori bere prendaz, eta (...)* *bere aitaren desgraciayaz*.

⁷² Testuan “*Guc ere estimatcen dugu (...)* *nescacha ori bere prendaz*” pasartea dago. Honetan ere *prendaz* plurala dela pentsa daiteke; izan ere, ‘dohain’ erran nahi du eta horiek pluralean aipatu ohi dira (cf. OEH, s.v. *prenda*).

Destinatiboan *-tzat* dago testuan, eta ez *-tako*, eta hala da egun ere (Zelaieta, 2008: 135, 190-1).

Prolatiboa ere *-(t)zat* da (*onzat*), egun *-tako* erabiltzen bada ere. *-tzat* dago corpus historikoan beti, salbu *cristautaco* prolatibo bat Lesakako 1857-1858ko predikuetan.

Partitiboa kontsonantez amaitutako hitz bati erantsi zaion adibide bakarrean, artikulua gaineratu zaio: *barberaric*. Gainerakoan, *-ik* ageri da Berako testu historiko guzietan, gaur egun (ablatiboak eta motibatiboak bezala) inesiboa ere hartzea ohikoa bada ere, *-ikan* forma eratuz (Zelaieta, 2008: 192). Halako forma inesibodunak aurkitzeko 1680an Urruñatik Hondarribira igorri gutunera jo behar dugu (*dugularican*), 1827ko Beratik Sararako gutunera (*baizican*), Etxalarko 1856ko bando batera (*cerengatican*), Berako dotrinara (*baicican*) eta 1933ko bandoetara (*lenatican*), baina bakar bat ere ez da partitiboa. EIn ere gutxitan ageri da Berako erantzunetan.

Inesiboan aipatzekoa da *Caresan* toponimoa. Berako hizkeran eta inguruan zenbait leku-izenek artikulua hartzen dute gaur egun kasu zenbaitetan; batez ere, inesiboan. Hala, *Oizan*, *Ittunan* edo *Irunan* aditu daiteke (Zelaieta, 2008: 109). Hau ere horietarik izan daiteke. XIX. mendeko Berako ordenantzetan ageri diren *Alzatatiq* eta *Alzatara* ere –izena Altzate izanik–, ablatiboan eta adlatiboan, segur aski fenomeno beraren adibide ditugu. Funtzioen artean, aipagarria da erabilera partitiboa: *pretenditcen dutenetan guisacuena*.

Adlatiboan *-ra* dugu sistematikoki, eta ez *-rat*, baita erakusleetan ere (*erri-
ra*, *unetara*). Berako olagizonaren gutunetan *-rat* dago, baita 1773ko Cadiztiko gutunean ere (*-ra*-rekin batera), baina gainerakoan *-ra* dago Berako testu guzietan, nahiz eta pare bat aldiz *gogorat* dugun eta behin *arat* 1863ko dotrinan. Gaur egun, ordea, *-ra* eta *-rat*, biak ditugu Beran (Iñigo, 2007: 297; Zelaieta, 2008: 121), baina lehena da ohikoagoa, erakusleetatik landara.

Ablatibo singularrean *-tik* dakar testuak (*emendic*) eta ez dago pluralaren adibiderik. Hala ere, ablatibo zaharraren isla ihartua dago *orañic* forman, egun bezala.

Gatozen orain erakusle eta izenordainetara.

Hauek dira testuan ageri diren erakusleak:

2. taula. Testuko erakusleak

	1. gradua	2. gradua	3. gradua
ABS	au (sg.) / oc (pl.)	ori	ura (sg.) / ec (pl.)
ERG	unec	orrec	
INS	unetaz	orretaz	
GEN	unen		aren
LEK	unetaco	orretaco[ren]	
DEST	unentzat		
SOZ			equin (pl.)
INES	unetan		
ADL	unetara		

Ikus daitekeenez, lehen graduan *on* > *un* bilakaera sistematikoa da eta hirugarren graduko forma pluralek *e-* dute.

Izenordain indartuetan *guere* eta *eben* dugu genitiboan. Berako testu historikoetan eta gaur egun ere halaxe da (Zelaieta, 2008: 139), baina genitibotik edo horren gainean eraikietatik kanpo, *eurek*, *eurekin*, *eurekeri* eta gisakoak erabiltzen dira Beran. Horien adibiderik ez dago testuan erkagai.

Izenordain zehaztugabeetan sistematikoki *edocin* eta *edociñec* dago (baina gero *ceñetan*). Lesakako 1857-1858ko sermoiek *edocin* dakarte, baita Berako 1863ko dotrinak ere, baina azken honetan *edocein* da ugariagoa. *Zeinahi* bezalakorik ez dago.

Determinatzaile sintagmako burua erakusle bat denean, sintagmako ize-nak edo adjektiboak artikulatu singularra hartzen du beti, erakuslea plurala izanik ere. Hona hemen adibide bakar batzuk horren erakusgarri: *oficiyo delicaduba artaz*, *atenciua au*, *pensamentu noblia oc*, *erriya equin*. 1847ko Berako komisarioaren zirkularrean, *ordea*, *manejo otaz* dugu. Lesakako 1855eko bandoan badago, baina bada salbuespenik, Etxalarko bandoetan ere ageri da, baita Lesakako 1857ko eta 1858ko sermoietan ere. 1716ko lurren errenten dokumentuan eta 1863ko Berako dotrinan, fonetismoetan

aberatsa eta ahozkotik hurbila izanik ere, ez da fenomeno hori ageri, eta gainerako Berako testuek ez dute horren inguruko daturik eskaintzen. Bortzerrietako testuetan maiz ageri den fenomeno da, baina hortik kanpo ere lekukotua, Bidasoaldean (Zelaieta, 2008: 109).⁷³

Eratorpen atzizkien artean, aipagarria da erdal *-miento-k -mentu* egiten duela sistematikoki, eta ez *-mendu* (*nombrementuba, pensamentu, consentimenturic*). Erdarazko *-dad*, ordea, *-dade* da (*caridade, cantidade*). Bertzalde, *-tsu* atzizkia afrikatua da ozen ondotik ere (*yaquintsu*).

Herskari ahoskabea du ofizioendako *-ko* atzizkiak, egun Beran eta oro har Bortzerrietan ohi bezala (Zelaieta, 2008: 123): *aprendizco, barbercuan, doto-recuan*.

Itxi dezagun atal hau adberbioez arituta.

Erakusleen artean *emen* eta *emendic* dago lehen graduan. Moduzkoen artean *unelaco* dago lehen graduan, eta *ala* hirugarrenean.

Espero bezala, adberbioak sortzeko *-ki* da atzizki posible bakarra: *ongui, obequi, comunque, particularqui*.

Anitz adberbioa izenaren ondoren paratzen da beti testuan (*erri anitcetan, falta anitz*). Hala ere, *anitz* aldiz dago. Corpus historikoan *aunitz* aldaera da ohikoena: *anitz* aldaeraren adibide bana dugu Lesakako predikuetan eta Berako dotrinan. Gainerakoan, hala ere, *aunitz* dago testu horietan, eta hori da aldaera bakarra gainerako testu guzietan.

6.3. Aditz morfologia

Geroaldiko marka *-n-z* amaitzen diren aditzekin *-en* da, espero bezala: *uts eguiñen*.

⁷³ Zelaietak, artikularen “gehiegizko” hedatzea hizpide, zaku berean sartzen ditu hemen mintzagai ditugun izen + erakusle egiturak, *bat* determinatzaile zehaztugabearekikoak (*trena bat*), hitz elkarketak (*trenabidia*), izen + adjektibo egiturak (*ura garbiyakín*), izen + kuantifikatzaile egiturak (*gatza guttíkin*) eta izen bereziekiko adibideak (*Urroza*), baina gure ustez ez dute hedadura bera ez testuetan, ezta eremu geografikoan ere. Nahi bada, gure testuko *ezcongaya ona* izen + adjektibo tankerakoetan sar daiteke.

N-z amaitzen diren aditzen aditz-izenetan txandaketa ageri da kasu batean: *erraten* eta *ematen* dugu bina aldiz, eta behin *emaiten*. Gaur egun *erratten* eta *ematten* baliatzen dira (< *erraiten*, *emaiten*) baina Etxalarren (Iñigo, 2007: 296), konparazio batera, edo Iparraldeko hizkeretan, ez dago bustidurarik. Sasoi hartan Beran zegoen forma zein zen jakitea ez da erraza, baina baliteke egileak forma palatala adierazi ez izana horretarako arazo grafikoak tarteko zirelako, edo prestigiorik ezagatik baztertu izana. Corpus historikoari gagozkiola, Berako olagizonaren XVII. mendeko gutunetan *-ite-* dugu, baita 1786an idazkariak idatzi gutunean. Aldiz, Berako alkateak Sarara 1827an igorri gutunean *erratea* eta *izaten* dago, eta *ematen* 1847ko zirkularrean. Forma palatala adierazten du <ty> bilkurak *erratyen* bezalakoa 1863an Etxeniketik bildu dotrinan, eta Berako ordenantzetan *erratteco* eta *errattian* dago, baina 1933ko bandoetan ments da berriz ere *-ite-* edo horren aldaera bustia. Beratik kanpo, 1855-1858ko Etxalarko bandoetan ere *-ite-* ageri da, baita 1844ko iheslariaren gutunean ere. Gainerakoan, *-(i)te-* dago Urruñak Hondarribiari bidalitako gutunetan 1680an, Donibanetik Berara 1780an igorritakoetan, Saran ekoitzitako testu guzietan, Urruñatik 1846an eta Azkainetik 1860an bidalitako korrespondentzian, Etxalarko alkateak Sarara 1852an bidalitako letran eta Lesakako 1855eko bandoan (*ematteco* batekin). Lesakako 1857-1858ko sermoietan, aldiz, gehiago dira *erratten*, *ematten*, *izatteco* eta gisakoak (behin palatalizatu gabe) *-te-*dunak baino.

Indikatibotik landako adizkietan aditz oina duten formak eta gabeak aurki daitezke, baina bigarrenak dira nagusi. Adibide guziak, gainera, *-tu* partizipiodun aditzenak dira. Batetik *Artu dezala* dugu, baina *Eztezala per-miti*, *auta dezazuben* eta *Ecín compara guitezque* bertzetik. *Hartu* aditzaren oinak duen masa fonetiko eskasa egon daiteke forma partizipioduna erabiltzearen giblean; edonola ere, gaur egun *artzala* eta *artu (de)zala*, biak aditu daitezke. Berako testuetan, oro har, *-i* partizipioak ageri dira, baina ez *-tu-*dunak, salbuespenak bakan direla (*servityu dezagun*, *bedeictu dezaten...* eta aditz laguntzailea nagusiaren aitzinetik paratzen duten ezezko perpaus zenbait).

Gaur egun, metatesia gertatzen ahal da aspektu burutugaberako *-t(z)en* atzizkiko kontsonante sudurkariaren eta adizki laguntzaileko **edun* erroa-

ren *-u-* bokalaren artean (Zelaieta, 2008: 191). Hala da sistematikoki 1863ko Berako dotrinan ere (*siñeste* 'untzu 'sinesten duzu', *eguitye* 'unte 'egiten dute'...), baina ez dago horren aztarnarik gure testuan.

Ahalera egiteko, *-ke-*dun aditzak ageri dira beti, eta ez dago *-t(z)en ahal* perifrasisrik: *Izan diteque*, *compa guitezque* eta *Eguin dezaque* bezalakoak daude beti. Egun *-t(z)en ahal* da forma ohikoena, baina *izan tteke* bezalakoak, 3. pertsona singularrean, gelditzen dira (Zelaieta, 2008: 123). Corpus historikoan, 1933ko bandoetara jo behar dugu Beran perifrasia ikusi ahal izateko, baina Saratik Etxalarrera 1827an igorri gutun batean adibide bat dago, *-ke-*dun forma zenbaitekin batera. Urte berean Saratik Berara igorritakoetan, aldiz, *-ke-*dun formak baizik ez daude. Kostaldeko testuetan, bertzalde, [aditz oina + *ahal* + *-ke*] formak ageri dira: *libra ahal desaquete* dago, konparazione, Donibane Lohizunetik Berara 1788an bidalitako gutun batean.

Espero bezala, ez dago **eradun* erroko adizkirik, eta *izan* da ageri den erroa, *tio* ala *zaigu* adizkiek ageri dutenez. Berako olagizonaren gutunetan, ordea, bietarik dugu (*diçut* & *derauçut*). Urruñako 1846ko gutunean ere bada **eradun* errorik, baita Saran 1776an eta 1837an, Biriatur 1858an eta Azkainen 1860an ere, eta Donibane Lohizunen 1788an. Etxalarren ere, 1844an *dizut* eta *datzut*, biak daude gutun berean.

Izan erroko adizkietan, Nor saileko hirugarren pertsona pluralean *dire* dago, egun bezala. Testu historikoei begiratuta, Berako olagizonaren gutunetan eta 1933ko bandoetan *dira* dago; gainerakoan, Lapurdiko kostaldekoetan, Saran, Beran, Lesakan (Etxeberriren 1857ko sermoietan salbuespen bat dago) eta Etxalarren *dire* ageri da beti. Bertzalde, *gara* dago lehen pertsona pluralean, espero bezala, baina *gare* eta *gara* bana daude 1785eko Berako gutunean. Ez dago, hala ere, bertze *gare*-rik corpus osoan, 1680ko Urruñako gutunean salbu. 1856ko Lesakako predikuan *gara/gira* txandaketa dago, bertzela.

**edun* erroak *-u-* egiten du (*duguna*). Nor-Nork saileko ahaleran *guenuque* dago, eta ez *giñuke* edo *gunuke*. Urruñan 1680an *-indu-* erako adizkiak ditugu, baita Donibanen 1788an, Urruñan 1815ean, Biriatur 1846an eta Azkainen 1860an ere. Berako dotrinan *gueniñuben/guiniñuben* 'gintuen' adizkia

dago, baita *zunuben* ere. Saran *-inu-* dago 1837an eta 1865ean. Lesakan *-enu-* ageri da Etxeberriren predikuetan, baita Berako Etxenikerenean ere, 1863an. Gaur egun *-unu-* erakoak gailentzen omen dira Bortzerrietan (Zelaieta, 2008: 148).

**edin* erroko forma bat dago ahalerazko marka duena: *litceque*. Ez du *-teke* ahalerazko marka pleonastikorik eta *i-k* eragindako asimilazioa ageri du. Egun ere hala erabiltzen da, eta hori bera ageri da Lesakako Etxeberriren 1857-1858ko predikuetan eta Berako 1863ko dotrinan. Sarako 1837ko gutun batean, haatik, *liteque* dugu, balio berarekin. Aginteran *de-* dugu *dediyela* forman, baina *dadiela* dago 1857ko Lesakako predikuetan, eta *dadiyela* 1863ko Berako dotrinan.

**ezan* erroko adizkietan *de-* gorde da 2. pertsonako aginteratik landara, gaur egun maiz galtzen bada ere. Beraz, *dezagun*, *dezala* eta *dezazuben* ditugu. Corpus historikoan *de-*dunak dira adizkiok. Bertzetik, **ezan* aditzak erabilerara trinkoa izan dezake ahatera adierazteko: *Ecín badezaquegu Nafarruan den oberena*.

Objektu zuzena hirugarren pertsona plurala denean, *di-* > Ø aferesia gertatzen da adizkietan, egun bezala (Iñigo, 2007): *tio*, *tugu*, *tubena*, *tuzteneztan*. Gaur egun ere hala da, baina herskaria palatalizaturik ageri da. Corpus historikoan, Lesakako predikuetan badugu halakorik, Berako dotrinan ere bai, eta Saran 1827an Berara igorri gutunetarik batean, 1859ko eta 1865eko gutunetan ere bai, Urruñan 1680an, Donibanen 1788an eta Berako olagizonaren XVII. mendeko gutunetan, *di-*dun formekin batera. *Dituxte* dago, baina, 1847ko Berako zirkularrean, eta bietarik Etxalarko 1855eko bandoe-tan eta 1827ko Berako alkatearen gutunean. Txandaketa, beraz, lehen tes-tuetarik dugu, nonahi.

-i(n)- erroko adizkietan objektuaren pluralgilea *-zki-* ez, baina *-it-* da: *tio* (< *ditio*). Halakoak ditugu Etxalarko bandoetan (*tioztenac*) eta 1863ko Berako dotrinan, azken horretan bustidurarekin (*tyiogun...*). 1680ko Berako olagizonaren gutunetan ageri den formak *di-* gorde du (*ditidazunac*).

Joan aditz trinkoaren bi forma ditugu orainaldiko hirugarren pertsona singularrean. Batetik *duaye* dugu, egun ere baliatzen den forma, eta bertze-

tik *dua* bi aldiz, honako egituran (*ona edo gaitza dua*). Bigarren horretan ‘jokoan egon’ adiera hartzen du.⁷⁴

Atal hau amaitzeko, aipa dezagun hiru aditzen erregimena. *Obligatu* aditzak partizipioan ez du determinatzailearik hartzen (*Obligatu gara paratcia zuben beguiyen aintciñian*). OEhk erabilera honen adibide franko dakartza, Iparraldeko autoreengan nagusiki. Berako olagizonaren gutunetan, konparazio batera, bada alerik. Hala ere, adibide guzietan osagarria adlatiboan dago, eta gure testuan, aldiz, absolutiboan. Bertzalde, *kuidatu* aditzaren osagarria instrumentalean ageri zaigu (*pobrietaz cuidatu*). Bertzetik, *behartu* aditzak ‘behar izan’ adiera du eta egitura iragan-gaitza eskatzen du (*biartcen bada estutasun batian barber on batez*), osagarria instrumentalean duela. Erabilera hau bera EHk ere (s.v. *behartu*, 4. adiera) badakar.

6.4. Sintaxia

Modua adierazteko *-rik* ageri da sistematikoki (*beteric, adituric, utciric, yoric*). Gaur egun, segur aski, *-ta* ohikoagoa da, *-a* hutsarekin batera. Corpusean ere *-rik* ugari dago, baina 1863ko dotrinan *yarrita* eta *gordeta* ageri dira. Moduzko perpausak egiteko, gainera, *nola diren* egituraren adibide bat dago: *extire gutiyago barber onac eta famatubac, nola diren Caresan, Tafallan, Peraltan eta guisa unetaco bertce erri anitcetan*.

Erlatibozko perpausetan *zein* erakoak kausitzen ditugu (*ceñetan errenta onac baldin badire, extire..., ceñec icusten tuben...*). Ikus daitekeenez, aditzak ez du menderagailurik hartzen lehen kasuan, eta *-en* du bigarreanean. Berako olagizonaren gutunetan *bait-* da menderagailua, baina 1847ko Berako komisarioaren zirkularrean *-ela* berezi bat ageri da menderagailu gisa. Lesakako predikuetan *zein* partikulak *bait-* menderagailua du beti eta hori da menderagailu nagusia Sarako eta Lapurdiko kostaldeko testuetan ere, baina Berako dotrinan *bait-*dun formekin batera menderagailurik gabeko formak ere ageri dira, aztergai dugun testuan bezala. Forma jokatugabe bat ere

⁷⁴ OEhk (s.v. *joan*) erabilera hori jasotzen du 7. adieran, baina osagarria instrumentalean duela.

bada: *emanaco*. Horretan *-ko* atzizkia *-a* partizipioari erantsi bide zaio; ez *-ta* edo *-rik* partizipioei.

Denborazko perpausetan *-enean* dago, eta ez egun gero eta gehiago horrekin batera aurki daitekeen *-l(ar)ik(an)* (Zelaieta, 2008: 147); ikus, adibidez, *errenditubac zaudetenian* adibidea. *-nean* dago Berako olagizonaren gutunetan eta Urruñatik Hondarribirako gutunetan XVII. mendean, Urruñako 1815eko gutunean, 1837ko Sarako gutunetan, Lesakako bandoan eta predikuetan eta are Berako dotrinan ere, 1863an. *-l(ar)ik(an)* denbora zentzuarekin aurkitzeko, ordea, 1865ean Saratik Berara igorri gutunera jo behar dugu eta denborazkotzat jo daitezkeen batzuk ere badira 1857-1858ko Lesakako predikuetan, baina ugariagoak dira, dudarik ere gabe, Berako dotrinan. Denborazko zentzuan *-l(ar)ik(an)* XX. mendeak aitzinera egin ahala hedatu dela dirudi.

Kausa adierazteko *zeren...-en/Ø* egitura dugu: *ceren hospitaliac diren, ceren... ecarrico du*. Egun, ordea, *zertaz* edo *zergatik(an)* da ohikoagoa. Corpus historikoari so, Berako olagizonak *zeren... bait-* du, Saratik Etxalarrerako 1837ko eta 1838ko gutun banak bezala. *Zeren...-en* dago Urruñako 1815eko gutunean, Lesakako 1857ko eta 1858ko sermoietan, Azkaineko merak Berara 1860an igorri gutunean ere bai, Berako dotrinan, eta Saratik Berara 1865ean igorri gutunean. Hala ere, Berako olagizonaren gutunetan, 1857ko Lesakako sermoietan eta Lesakako 1855eko bandoan bada *zer(ga)tik...-Ø* egitura bana ere. 1857ko sermoietan *zergatik...-en* ere badago bakanka. Ugariak dira *zer(ga)tik...-en* egituraren adibideak Berako dotrinan eta *zerengatikan...-en* dago Etxalarren 1856an, baina *zertaz* formaren alerik ez dugu inon aurkitu.

Perpauk kontsekutiboetan adizkiak ere ez du menderagailurik, adibidean ikus daitekeenez: *Aiñ andiya eta importantia da (...)* *escu artian dugun asuntuba, non unen acertatciac* edo *utseguitiac ecarri biar tio (...)*.

Aditz-izen baten osagarria genitiboan ageri da bi aldiz (*unen acertatciac, aren socorritceco*). Hala ere, ez da sistematikoa, eta ohikoa da absolutiboa (*guisa orretacoren bat ecartceco, nescacha acomodatceco, aprendizco urtiac gure gostura betetcera, ñor socorritcia...*). Corpus historikoari begira, Iparraldeko testuez gain, Berako olagizonaren gutunek ere badute halakorik (cf. *Urtubiaco drechoaren pagatzeco*), Lesakako XIX. mende hasierako izokinen arrantzaren gaineko ordenantzek ere bai, 1844ko Etxalarko alkatearen gutunak,

baita 1856ko otsaileko Etxalarko bandoak ere, bitan. Berako dotrinan ere badira, otoitz eta egitura finkatueta batik bat.

Ezeztapena edo ezintasuna adierazteko, *ezin* ageri zaigu (*Ecín compara guitezque, Ecín badezaquegu*), eta ez *-tzen ahal* egitura ohikoa gaurko egunean. Hala da corpus historikoan ere.

Hitz ordenari gagozkiola, aztergai dugun testuan aditza perpausaren hasieran kausitzea ez da arraroa, trinkoa izanik ere: *da oficiyo bat au, Tratatcen da barberaren nombramentubaz*.

7. Ondorioak

Berako Udal Artxiboan lo goxoan berrehun urte eskas eman dituen izkribuak argi eta garbi erakutsi digu urte haietan mugaldeko herrietan bizi zen jende eskolatu zenbaiten kontzientzia linguistikoa. Sinatzaileen lehenbiziko hitzak, *Uscaldunac garen ezquero*, itxuraz justifikaziozkoak izanagatik, salaketa edo aldarrikapentako ere har daitezke. Ohartzen ziren tokiko mintzaira biziaren eta mugaren bi aldeetako estatu-administrazioen aginduzko handien arteko harreman desorekatuaz. Euskaraz idaztea (gero, ahoz emateko) zentzuzko jokabide funtzionala zen, dudarik gabe, baina, baita ere, segur aski, bertako hizkuntzaren balioaren aitoprenaren eta harekiko estimuaren seinalea.

Erakutsi dugunez, mugaz haraindiko herriekiko harremanetan euskarak bazuen bere lekua, hizkuntza komuna baitzen gainerakoan gaztelaniaz eta frantsesez funtzionatzen zuen administrazioarentzat, baina ez hori bakarrik: mugaren bi aldeetako eskualde honetako herrien barne funtzionamenduan eta harreman pribatueta ere euskara idatziz baliatu izan dela ikusi dugu. Hala salatzen dute eduki administratiboko Lapurdiko eta Bortzerrietako euskarazko testu publiko zein pribatuek, bereziki ugariak baitira, XVIII. mendetik aitzina batik bat.

Hizkuntza-azterketa egiteko erabili dugun corpusean, orain gutxi aurkitutako eta, beraz, orain arte ezezagunak ziren hamar bat testu ere gaineratu dizkiogu aitzinetik ezaguna zen zerrendari. Azterketa horrek salatzen du euskara idatziz baliatzean terminologia bat bazela, erabat homogeneous ez

izanik ere, eta arau ortotipografiko zenbait ere jarraikitzen zitzaizkiela. Zenbait ezaugarri fonologiko, sinkopak eta aferesiak kasu, ez ohi ziren idatziz paratzen, ahozkoan baliatu arren. Ordea, XIX. mendeko mintzoan dagoe-neko izan baziren hainbat ezaugarri; bokalen arteko epentesiak erraterako, testu gehienetan islatzen dira. Horiek, Lapurdiko kostaldekora inguratzen dute orduko Berako mintzoa, Sarakora bainoago.

Gauzak horrela, berriki handitu den Berako eta inguruetakoko herrietako testu corpusaren azterketa egin beharko litzateke etorkizunean, eta, horri tiraka, euskara idatziak Lapurdiko eta Bortzerrietako administrazioan eta harreman pribatuetan izan zuen lekua zein izan den irudikatu beharko litzateke, ematen baitu horretan eremu soziolinguistiko bereziki emankorra izan dela hori.

9. Erreferentzia bibliografikoak

Arozena, F., 1958, «Paper zaarretan begira», *Egan*, 3-6 (1958) 145-146.

Baroja, P., 1913ko abuztuaren 7a, «La historia de un pueblo», *Nuevo Mundo*, 1022 (1913) [3].

Erdozáin, P. & Mikelarena, F., 2003, «La población de las Cinco Villas de la Montaña navarra (1700-1850). Crecimiento y estructura», *Príncipe de Viana*, 229 (2003) 393-430.

Euskaltzaindia, s. d., *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Sarean eskuragarri: <https://www.euskaltzaindia.eus>. [=EH]

Etxaide, A. M., 1984, *Erizkizundi Irukoitza*. Bilbo: Euskaltzaindia. [=EI]

García-Sanz, A., 2014, *Liberales navarros a través de sus textos (1820-1823)*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Idoate, C. & Villanueva J. J., 1981, «Unas ordenanzas de Vera en vascuence», *Fontes Linguae Vasconum*, 37 (1981) 275-281.

Iñigo, P., 2007, «Bortzirietako hizkeraren zenbait berezitasun gaurko gazteen mintzairan», *Euskera*, 52-1 (2007) 291-312.

Irigarai, A., 1933, «Dos documentos en lengua vasca», *Cultura Navarra*, 5 (1933) 195-197.

———, 1972, «Cinco cartas eusquéricas del Ayuntamiento de S. J. de Luz al de Vera (de 1788)», *Fontes Linguae Vasconum*, 12 (1972) 345-352.

Izenik gabea, 2013, *Euskal Klasikoen Corpua*. UPV/EHUko Euskara Institutua. Sarean eskuragarri: <http://www.ehu.eus/etc/kc>. [=EKC]

Lafourcade, M., 1989, *Mariages en Labourd sous l'ancien regime*. Bilbo: UPV/EHU.

Lamikiz, X., Padilla-Moyano, M. & Videgain, X., 2015, *Othoi çato etchera. Le Dauphin itsasontziko euskarazko gutunak (1757) - Correspondance basque du corsaire Le Dauphin (1757)*. Baiona: IKER.

Madariaga, J., 2014, *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Mikelarena, F., 1990, «Vecindad, igualitarismo, situación material», *Vasconia: cuadernos de historia-geografía*, 15 (1990) 152-167.

Mikelarena, F., Erdozáin, P., Paul Arzak, J., Gutiérrez, A., Abril, I., 1998, «Berako Historia, 1500-1850», *Bidasoa Ikerketa Zentroaren Koadernoak*, 1 (1998) 7-211.

Mitxelena, K. & Sarasola, I., 1987-2006, *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. [=OEH]

Pagola, R. M., 1995, *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak: Iparraldeko goinafarrera*. 2. liburukia. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

Sarasola, I. Salaburu, P., Landa, J., 2019, *Corpus Historikoa*. UPV/EHUko Euskara Institutua. Sarean eskuragarri: <http://www.ehu.eus/etc/ch>. [=CH]

Sánchez, J., 2010, *El Protomedicato navarro y las cofradías sanitarias de San Cosme y San Damián: el control social de las profesiones sanitarias en Navarra (1496-1829)*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

Satrustegi, J. M., 1986, «Textos dialectales de documentos religiosos vascos», *Fontes Linguae Vasconum*, 48 (1986) 289-314.

———, 1987, *Euskal Testu Zaharrak I*. Iruñea: Euskaltzaindia.

———, 1997, «Lesaka eta Luzaideko euskal testu parekatuak», *Fontes Linguae Vasconum*, 74 (1997) 99-128.

Trebiño, I., 2001, *Administrazio zibileko testu historikoak*. Vitoria-Gasteiz: HAEE.

Urrizola, R., 2006, «Tres cartas en euskara escritas por un ferrón de Bera», *Fontes Linguae Vasconum*, 102 (2006) 255-270.

Zavala, P., 1968, *Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak*. Donostia: Auspoa.

Zelaieta, E., 2008, *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.

I. eranskina: hiztegia eta adizkitegia

Eranskin honetan aztergai dugun testuaren hiztegia eta adizkitegia kausituko ditu irakurleak; hots, testuan ageri diren hitz eta adizki trinko zein laguntzaile guztien bilduma. Hona jakingarri batzuk:

- Hiztegia lemaka antolatu dugu, hurrenkera alfabetikoan.
- Lematizaziorako *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* eta *Orotariko Euskal Hiztegiaren* lemak hartu ditugu oinarri.
- Lema letra lodiz eman dugu, eta ondoren kategoria, etzanez.
- Hala dagokionean, kakotx bakunen artean esanahia ere eman dugu.
- Letra borobilean lema horren pean dauden testuko formak heldu dira, hurrenkera alfabetikoan eta komen bidez banaturik.
- Forma batek agerrera bat baino gehiago duenean, parentesi artean eman dugu agerrera kopurua.
- Adierak banatu behar izan direnean, zenbakien bidez egin dugu.
- Aurrizkiak eta atzizkiak hiztegitik kanpo gelditu dira.

Hiztegia

A

abandonatu *izond.* ‘babesgabea’

abandonatuba

aberats *iz.* ‘diruduna’

aberatsaz

abil *izond.* ‘trebea’

habill, habilla (3)

abilidade *iz.* ‘trebetasuna, antzea’

habillidaderic

adina *part.* ‘bezainbat’

adiña

aditu1 *ad.* ‘entzun’

aditcen, aditu

2 *ad.* ‘ulertu’

adituric

ahal izan *ad.*

al

aita *iz.*

aitaren

aitzin *iz.* ‘aurea’

aintciñian

akomodatu *ad.* ‘konpondu’

acomodatceco, acomodatu

alde *iz.*

aldeco

aldi *iz.* ‘bider’

aldiz

alkate *iz.* ‘auzapeza’

alcate

anitz *zenb.* ‘asko’

anitcetan, anitz (3)

aplikatu *izond.* ‘saiatua, arduratsua’

aplicatuba

aprendizgo *iz.* ‘aprendizaren jarduna’

aprendizco

arrazoi *iz.*

arrazoi (2), arrazoic

arte *posp.*

artian (3)

asistitu *izond.* ‘arduratua, emana’

asistituba

asunto *iz.* ‘gaia, kontua’

asuntu, asuntuba (3)

atentzio *iz.* ‘arreta’

atenciua (2)

atera *ad.*

aterico

aurkitu1 *ad.* ‘toki edo egoera batean izan, egon’

arquitcen (5)

2 *ad.* ‘bilatzen dena ikusi’

arquitcen

aurten *adond.*

aurten

azertatu *ad.* ‘asmatu, bete-betea jo’

acertatceco, acertatciac

azierto *iz.* ‘asmatzea’

acerturic

azkenean *adond.*

azquenian (2)

B**bada** *lok.*

bada

baina *junt.*

biño (7)

baino *junt.*

biño

baizik *junt.*

baicic

bakoitz *izord.*

bacoachac, bacochari

baldin *part.*

baldin (4)

balio izan *ad.*

valiyo

barber *iz.* ‘sendagilea’barber (8), barberaren (2), barbera-
ric, barberequin**barbergo** *iz.* ‘sendagintza’

barbercuan

barren *iz.* ‘pertsona baten barnealdea’

barrenac

bat *zenb.*bat (12), batec (4), batetic, batequin
(2), batez, bati, batian (2)**batzuk** *zenb.*

batzube (2), batzubei

baxeza *iz.* ‘umiliazioa’

bajezaric

bederen *lok.* ‘behinik behin’

bederen (3)

begi *iz.*

beguiyen

behar izan1 *ad.*

biar

2 *ad.* ‘[ad. + behar + ad. lag.] egitu-
ran’

biar (6)

behartu *ad.* ‘norbaiten edo zerbaiten
beharra izan’

biartcen

behin ere *adond.* ‘inoiz ez’

beñ ere

bentajoso *izond.* ‘abantailatsua, aban-
tailosa’

ventajosua

Bera *iz. ber.*Vera, Veraco (2), Veracuac, Veran,
Verara**bera**1 *erak.* 'berbera'

berian (3)

2 *izord.*

bera, bere (4)

berdin *izond.*

berdiñ

berri *izond.*

berriya (2)

bertze *izond.*berce, berceren (2), bertce (5), bert-
cia (2), bertcien, bertcietan**bete** *ad.*

beteric, betetcera

bezala *part.*

bezala (4)

bezalako *izond.*

bezaleco

bezino *iz.* 'etxejabea den bizilaguna'

vecino

bi *zenb.*

biyeticaric

bihar *adond.*

biyar

bilatu *ad.*

billatcen

bizkar *posp.* 'kontura'

bizcar

borondate *iz.*

vorondateric

D**delikatu** *izond.*

delicaduba (2)

denbora *iz.*

dembora, demborac, demboran

desgrazia *iz.*

desgraciyaz (2)

desgraziatu *izond.*

desgraciyatubaren

desio *iz.*

deseyo, deseyu, deseyua

diferentzia *iz.*

diferenciya (2)

diru *iz.*

dirubaz

doktore *iz.*

dotore

doktorego *iz.*

dodorecuan

dotedun *izond.* ‘ezkonsaria duena’

doteduna

E**edo** *junt.*

edo (8)

edozein *izord.*

edocin, edociñec

egia *iz.*

eguiya

egin *ad.*eguin (2), eguiñen, eguiten, eguitia,
eguitiagatic**egun** *iz.*

egunian

ehun *zenb.*

eun

ekarri1 *ad.*

ecarrico (2), ecartceco

2 *ad.* ‘ondorio izan/eragin’

ecarri

elkar *izord.*

elcar

elorri *iz.*

elorriyari

eman1 *ad.*

emaiten, emanen, ematen

2 *ad.* ‘Adierazten dena uste izan, iri-
tzi, jo’

emanaco, ematen

entenditu *ad.* ‘ulertu’

entendituba

erdi *iz.*

erdico

ere *adond.*

ere (4)

eri *iz.* ‘gaixoa’

eriyac, eriyen, eriyetara

erne *izond.* ‘buruz azkarra’

ernia

erran *ad.*

erranen (2), erraten (2), erratia

erregidore *iz.* ‘zinegotzia’

erregidore

erremediatu *ad.* ‘Kalteez mintzatuz,
gerta daitezen eragotzi’

erremediyatu

errenditu <i>ad.</i> ‘etsita’	esplikatu <i>ad.</i>
errenditubac	esplikatcia
errenta <i>iz.</i> ‘soldata’	esponitu <i>izond.</i> ‘arriskutsua’
errenta (2), errentarequin	esponituba
errespetu <i>iz.</i>	estatu <i>iz.</i> ‘egoera’
errespetuz	estaduban
errespuesta <i>iz.</i> ‘erantzuna, arrapostua’	estimatu <i>ad.</i> ‘balioetsi’
errespuesta	estimatcen
Erribera <i>iz. ber.</i>	estutasun <i>iz.</i> ‘larritasuna’
Erribera	estutasun
eskarmentu <i>iz.</i> ‘esperientzia’	eta <i>junt.</i>
escarmenturic	eta (31)
eskas <i>adond.</i> ‘kopuru horretara iristen ez dena’	etorri
escas	1 <i>ad.</i>
eskatu <i>ad.</i>	etorri (2)
escatcen, escatcia	2 <i>ad.</i> ‘iritsi’
eskola <i>iz.</i>	etorrico
escolaric	etsaminatu <i>iz.</i> ‘azterketa egindakoa’
esku <i>iz.</i>	esaminatu (3)
escu	etxe <i>iz.</i>
esperientzia <i>iz.</i> ‘eskarmentua’	iche, ichian
esperenciya, esperenciyyaric, esperi-yenciyyaric	Etxegarai, Gregorio <i>iz. ber.</i>
esperimentatu <i>izond.</i> ‘esperientzia duena’	Gregorio Echegaray
esperimentatu, esperimentatuba (2)	Etxenike, Frantzisko Esteban <i>iz. ber.</i>
	Fran[cis]co Estevan de Echenique

Etxenike, Santos *iz. ber.*

Santos Echenique

eurak *izord.*

eben

euskaldun *iz.*

uscaldunac

euskara *iz.*

uscaraz

ez *adond.*ez, ezcara, ezetz, ezpada (3), ezpadi-
re, ezta (3), eztire (2)**ezin izan** *ad.*

ecin (2)

ezkongai *izond.*

ezcongai, ezcongaya (2)

ezperen *lok.* 'bederen'

ezperen

F**fabore** *iz.* 'mesedea'

favoria

falta *iz.* 'hutsa'

falta

famatu *izond.* 'ospetsua'

famatubac

familia *iz.*

familia (2)

froga *iz.* 'froga'

pruebac

G**gabe** *posp.*

gabe (2), gabecua (2)

gainera *lok.*

gañera (2)

gaitz1 *iz.* 'gaizkia, kaltea'

gaitza (3)

2 *iz.* 'eritasuna'

gaitzac

3 *izond.* 'zaila, korapilotsua'

gaitza

gaizki *adond.*

gaizqui

galdemodu *iz.* 'galdera'

galdemoduba

galdetu1 *ad.* 'eskatu'

galdetcen, galdetu

2 *ad.* 'itaundu'

galdetucio

Gares *iz. ber.*

Caresan

Garmendia, Juan Esteban *iz. ber.*

Juan Esteban Garmendia

gaur *adond.*

gaur (2), gaurco

gauza *iz.*

gauza

gehiago *zenb.*

guego (2)

gero1 *posp.*

ezquero

2 *adond.*

guero

geu *izord.*

guere

gisa *iz.* ‘mota, klase’

guisa (2)

gisako *izond.* ‘egokia’

guisacuen

gu *izord.*

guc (6), gure (6)

gutiago *zenb.*

gutiyago

guzi *zenb.*

guciyec (3), guciyen (4), guciyetan

H**habitante** *iz.* ‘etxejabea ez den bizilaguna, maizterra’

habitante

haiek *erak.*

ec, equin

hain *part.*

aĩn

hainbat *part.* ‘hain’

ambat

hala *adond.*

ala

hamar *zenb.*

amar

handi *izond.*

andi (2), andiya (2), andiyagoric, andiyan, andiyarequin (2)

hargin *iz.*

arguiñetan

hartu *ad.*

artu

hau erak.

au (4), unec (2), unen (3), unentzat,
unetaco, unetan (5), unetara, une-
taz, unequin

hauek erak.

oc

hautatu ad.

auta, autatcia

heldu ad. ‘etorri’

eldu

hemen adond.

emen, emendic

heriotza iz.

eriyotcia

herri iz.

erri (4), errira, erriya (5), erriyac (2),
erriyari

hobeki adond.

obequi (2)

hoberen izond.

oberena (3), oberenac

honelako izond.

unelaco (2)

hori erak.

ori (2), orrec, orretacoren, orretaz
(2)

Hualde, Martin Josef iz. ber.

Martin Josef de Hualde

hura erak.

aren (2), artaz, ura

huts egin ad.

uts eguiñez, uts eguitiac

hutsegin iz. ‘akatsa’

utseguñac, utseguñic

I**igual izond.** ‘berdina’

igualetan

ikasi ad.

icasi, icasteco, icasten (2)

ikusi

1 ad.

icusi, icusten (2)

2 ad. ‘ohartu’

ycusten

inbidia iz. ‘bekaizkeria’

envidiya

importante izond.

importantia

intentzio iz. ‘asmoa’

intenciua

Iratzoki, Esteban *iz. ber.*

Estevan Irazoqui

irudit *ad.*

iduritu

Iruñea *iz. ber.*

Iruñeco

izan1 *ad.* 'izan'

izan (2)

2 *ad.* 'eduki'

izanen

J**jabe** *iz.*

yabien

jaio *ad.* 'sortu'

yayocen

jakintsu *izond.*

yaquintsu (2)

jaun *iz.*

yaunac (2)

Jaungoikoa *iz. ber.*

Jangoicuac

jo *ad.* 'eraso'

yoric

justu *izond.* 'zuzena'

yustubagoric

K**kalte** *iz.* 'galera'

calte, calteric, caltetan, caltia

kanpo *iz.* 'herritik at'

campotic

kantitate *iz.* 'kopurua'

cantidade

karitate *iz.*

caridade

kasu *iz.* 'egoera'

casu

klaru *adond.* 'argi'

claro (2)

kolegio *iz.* 'elkargoa (San Damian eta San Kosme kofradiarena)'

colegiuac (2)

komeni *izan ad.*

conveni

komunzki *adond.* 'eskuarki'

comunqui

konparatu *ad.*

compara

kontentatu *ad.* ‘konforme gelditu’

contentatu

kontsentimendu *iz.* ‘oniritzia’

consentimenturic

kontu *iz.* ‘ondorioa’

contuba

kostu *iz.* ‘kontu, bizkar’

costura, gostura (2)

kritiko *izond.* ‘larria, kezagarria’

criticua

kuidado *iz.* ‘arreta’

cuidaduba

kuidatu *ad.* ‘zaindu’

cuidatcen

L

larri *izond.* ‘handia’

larriyac

lastimagarri *izond.* ‘penagarria’

lastimagarriyac

limosna *iz.* ‘amoina, erremusina’

limosnaric

logratu *ad.* ‘lortu’

logratu

M

medio *iz.* ‘bitartekoa, baliabidea’

mediyo, mediyoric, mediyuac

merezi *izan ad.*

mereci (2)

mintzamodu *iz.* ‘hitzez egiteko modua’

mintzamoduba

miserable *izond.*

miserable, miserablienetan

modu *iz.* ‘egoera’

modu

Moleda *iz. ber.*

Moleda

mortal *izond.* ‘hilgarria’

mortalac

N

Nafarroa *iz. ber.*

Nafarruaco, Nafarruan

nahi *izan ad.*

nai (3)

nehor *izord.*

ñor (2), ñoren

nekazale *iz.* ‘nekazaria, laboraria’

necazale (2)

neskatxa iz.

nescacha (3), nescachac

noble izond.

noblia

noizbait adond.

noizpait

nola part.

nola

non1 *gald.*

non (2)

2 *mend.*

non

nonbramentu iz. ‘izendapena’nombramentuba (2), nombramentu-
baz**O****obligatu ad.** ‘behartu’

obligatu

obserbazio iz. ‘(zuzenean) ikustea’

obserbacione

ofenditu ad. ‘iraindu’

ofenditcia

ofizio iz. ‘lanbidea’

oficiyo (4), oficiyua

ohatze iz. ‘ohea’

guatce

on1 *izond.*on (2), ona (2), onac (2), onen, on-
zat (2)2 *iz.* ‘ongia’

ona (3), onetan

ondasun iz. ‘aberastasuna’

ontasunarequin, ontasunetan

ongi adond.

ongui

orain adond.

orain

oraindik adond.

orañic (2)

ordu iz. ‘tenorea’

orduba

orduan1 *adond.*

orduban

2 *lok.*

orduan

osasun iz.

osasuna, osasunarequin

ospitale *iz.*

hospitaletan, hospitaliac

P**paratu** *ad.* 'ipini, jarri'

paratcia

partidu *iz.* 'herriko sendagileak bere kargu duen lurraldea'

partido

partikular *ki adond.* 'bereziki'

particularqui

pentsamentu *iz.*

pensamentu

pentsatu *ad.*

pensatcia

Peralta *iz. ber.*

Peraltan

permititu *ad.* 'onartu'

permiti, permititu

pertsona *iz.*

personetan

pobre1 *izond.*

pobre, pobrien

2 *iz.*

pobrietaz

praktika *iz.*

practicaric

praktiko *izond.* 'praktikak egin dituen'

practicua

prenda *iz.* 'dohaina'

prendaz

pretendiente *iz.* 'ezkongai'

pretendientien

pretenditu *ad.* 'nahi izan, bilatu'

pretenditcen

preziso *izond.* 'beharrezkoa'

precisua

probetxu *iz.* 'onura'

probechu, probechua

S**sagar** *iz.*

sagar

sala *iz.* 'areto'

sala (3)

sartu *ad.*

sartcen

seinale *iz.*

siñale

sendatu *ad.*

sendatcen

sokorritu *ad.* 'lagundu'
socorritceco, socorritcia

utzi *ad.*
utciric

T

Tafalla *iz. ber.*

Tafallan

tratatu *ad.* 'aztergai izan'
tratatcen (2), tratatcera

triste *izond.*
tristiac (2)

U

umo *izond.* 'ondua, heldua'
omuac

urtarril *iz.*
urtarrillaren

urte *iz.*
urte, urtia, urtiac, urtian

uste *iz.* 'iritzia'
ustez, ustian

ustekabea *adond.*
ustegabian

Z

zahar *izond.*

zarra (2)

zein *mend.*
ceñec, ceñetan

zelo *iz.* 'ardura, arreta'
zeluba

zer *gald.*
cer

zeren *lok.*
ceren (2)

zirkunstantzia *iz.* 'egoera, baldintza'
circunstanciya, circunstanciyac

zortzi *zenb.*
zortci

zuek *izord.*
zubec, zuben

zuharotz *iz.* 'zurgina'
zugatcetan

Adizkitegia

E	I
*edin	*in
1 <i>ad. lag.</i>	1 <i>ad. lag.</i>
dediyela, diteque, guitezque	digute, digutela, tio
2 <i>ad. trink.</i>	2 <i>ad. trink.</i> ‘eduki’
litceque	diogu
*edun	3 <i>ad. trink.</i> ‘esan’
1 <i>ad. lag.</i>	diozuben
du (3), dubela (3), duben (5), dube- na (2), dugu (6), duguna, dute, dute- la, dutenetan, duzube, duzuben, ez- padu, eztu, eztubela, eztuben, eztugu, ezquenuque, guenuque, tuben, tube- na, tugu (2), zuben	izan
2 <i>ad. trink.</i>	1 <i>ad. lag.</i>
ditu, dugun, dutela, duten, tuztenetan	bada (2), baitzayo, da (5), dela (2), dena (2), direla, gara, garen (2), zai- gu (2), zareten
egon <i>ad. trink.</i>	2 <i>ad. trink.</i>
dago (2), dagona, zaudetenian	bada (2), da (8), dela, dire (2), diren, garen
*ezan	3 <i>ad. trink.</i> ‘egon’
1 <i>ad. lag.</i>	bada (3), badire, den, dire, diren, gara
dezagun, dezala, dezaque, dezazu- ben, etezala	J
2 <i>ad. trink.</i>	joan
badezaquegu	1 <i>ad. trink.</i> ‘jokoan egon’
	dua, duala
	2 <i>ad. trink.</i>
	duayen

II. eranskina: faksimilea


Alcari, Ciudadore, Vecino, eta habitante Veracruz
 Gure Haunac:
 Uscaldunac garen ezquero, sala unetan arguitcen garen guciyec, u-
 caraz explicancia iduritu zeigu, eraspeten berenac, gaur emen tratatze-
 ra duayen aruntuba, elcar obsequi adituac, acertateco. Alin andiya
 eta importantia da, gure urtian, ercu artian duzun aruntuba, non
 unen acertatuac do utrequinac elcar biartio Veracruz erriyari pro-
 bechu leniyac edo calte lastimacariyac. Tratatcen da Barberaren
 nombra mentubaz. Tratatcen da, oteruna edo eriyotcia emaiten du-
 ber ofiyo delicaduba artaz, bada aruntub andiyacoric? Da ofi-
 yo bat au, bera quiyec berala utrenunet icarten dena; bino bada
 diferenciya andi bat, unen eta beracien artian. Unetan utrequinac
 dire anitz adiz mortalac; beracien estie ala berena, icarten du-
 zulen berala Tratatcen, Arguitcen, eta bera quiyetan. Da ofi-
 yo bat au, eriyen birca eta costura icarten dena. Da ofiyo bat, az-
 quian, gaur expada biyar, auten expada beren urtian, unetaz,
 sala unetan arguitcen garen guciyec, comungui gal detu biadu-
 pona. Emendic atencio duzula cantuba, Haunac, cer atencioa eta
 ciudadubla mexici duken nombra mentuba upac. — Guc estugu gal-
 detcen erriya unentaz, utrequinac epuiten estulen Barberac: au lize-
 que sagax omunc eractia berala, eleriyari: barberaren ofiyya da
 gaitza, delicaduba, eta erponituba: orietaz gaitza que ere baco-
 chac bere etaduban epuiten tuqu falta anitz, utrepatien bereren; bino
 billatcen duzun Barber yaquintore bat, practicus eta erponimentatu-
 ba, eta alba hospitalatzen obrallacione anitz icuri eta icari tu-
 bera, ceren hospitalac diren, eriyac sondatcen icartec ercolacic
 oberenac. Guc arguian eractcen duzun Barber bat, aplicatuba,
 eriyetara aritituba, eta particularqui posietaz eractcen du-
 bera, alerac berala. — Barabec erranen dute, elen urtez,
 anarzi andiyarequin: Moleza derogaciatibac familia tritriac
 erremediyatu biaz dubela; nercachis acomodatubiadubela, emi-
 na etonai nai duben Barber ezconac batagun. — Eta gaur
 yuntubacoric circuntanciya gualatzen. Mexici du atencioa
 au familia abandonatuba biaz, nonen calticac expada. Bino
 expadise circuntanciya berdin? Beldin bada diferenciya ar-

diya pretendiantien zutian?; bat experimentatubla eta habilla;
 eta bentsia aperienciayazic eta habillidaderic gabecua?; Odoiban
 conueni da, odoibana utzic, bentsia autotria erri guiyen caltetan
 bati favoria eustia gatic? Galdic modulu uran ezezpuerta ez-
 querrugue aditu nai orain sala inetan, orarunarequin arguiten
 zaretan dembezan, beicic guero quatic batian gaitrac yoric ez-
 ditubac zaidetenian; etorric batrayo naizpait bacochari ordubla
 ura. — Aditcen duon exatzen dioutela, eorric dutela barbe-
 ezonpaya ona, habilla, eta Funen Colegiuac onzet emanen du-
 bena. — Afazaruac erri miseralli inetan, zortzi edo amax iche-
 tuztetenan dire modu berian, Colegiuac onzet emanaco barbe-
 reguin, eurenta utic edico ercar dutela; eta Veraco erriyaz
 emanen duben eurentarequin, contentatu biadu unelaco bate-
 quin? Onzetaz cantea Veraza etorri naizulen barbe ezon-
 paya, edocin dela, edo da eraminatu tazea edo berriya. Bal-
 dinoda eraminatu zaxxa, eta erpadu loxaru praxido ventajorua
 eta neraccha dore duna, erri ambat rinale ona. Baldinbada exa-
 minatu berriya, claso duso estubela praticaric eta aperienci-
 yazic, eta etubela erriya inetara, aprendicaz natia que cor-
 tura belitceza: izanditeque erria; bino exarmenturic gabecua.
 Araraz iniduyarequin exatzen zuben dotora habill batet, eun
 ararazic bino guero valioy dubela aperienciya batet, dotorecuan
 eta barbecuan. — Kurten duon dembeza berian derio on bate-
 tic yayscen diela neraccha acomodaturo penramentu noblia oc-
 que ere estimatzen duon, edocinec adina neraccha oxi bere pren-
 dai, eta orain guero bere aitaran deroraiyaz. Bino perxititu
 biaraziou, exatia dela caridade bat oizqui ententituba, non
 socorritia bercezen ontarunarequin yabien vorondateric oabe.
 Eorin deraque batet limornaric caridade indiyen bercezen dixu-
 baz, azen conentimenturic oabe? Claso duso ezetz. Caru berian
 arguiten oaza oizqui eounian. — Antuderala bada erriyaz ber-
 ta rudiya bat, azen socorrituro, eta orduban emanen tuon que
 bat, quere derreju onen pruebac. — Berce batzubec padeturo

digute; Non arguiten da, tubec duzuben barba yaguintu, ar-
 peximentatu, eta habilla dei? Non ditu mediyac erriya urec
 quira duetacoren bat ecarteco? Equiya da: erriya probe arguiten
 da: demborac gure da praciya, trixtiac dire. — Erriya anibar
 digu que Erribera aldaco Vera bezalea erribatubei, Cenetan
 exenta onac baldin badira, etixe outiyaco Barber onac eta
 fametubai: nola diren Caceran, Tafallen, Peraltran, eta guin
 unetaco bestu erri antuetan. Ecin compesa quiterque erriya
 equin ontarunetan; bino biarguenugue izperen, ec dutendu-
 ten zeluba eta deriyuba, guciyen onetan. Ecin baderaguen
 Nafareman den oberena, izandiyela bederen, pretenditcan
 dutenetan, quiracuna. Eta oue intencina non ofenditcia
 mintre medula unagim: ecaca peronetan sartcan: aruentu-
 ba beca da precirua eta critica. Citorale permiti oue Jan-
 goicuas, Cenec icurten tuben ouciyen baxenac, unelaco baxer-
 ric equitia ez eta periticia ee. Guciyen ona edo oaitra dua.
 Ouatc obagui errenenduon, necazale pobien ona edo oaitra
 duala; Ceren onqui deoona ichien, biartcan bada ututauru
 batian Barber on batez, ecarrico du Campotic bere costura
 bederen; bino necazala mirexable batec estu mediyoric ira-
 nen. — Acaturic oberena cominderasun nombraementuba
 unetan, obligatu gara, paratcia tuben bezuiyen aintecian
 ona eta oaitra; probechua eta caltia, autaderazuben biye-
 tatic bat.

Veran. Urtarrilloren 12 na 1822. per. utia.

Martin Jofe de Madoz Juan Ezean Irazoki
 Sanloj Echegaray
 Juan Ezean Irazoki
 Gregorio Echegaray
 Juan Ezean Irazoki



Oharrak

Mikel Zarate eta euskera baturako bideak¹

ZUGAZAGA MARTIKORENA, Lontzo
1980-04-15ean

Sarrerakoa

Jaun-andreok:

Mikeli eta haren lanari buruz zerbait esan edo idatzi beharra dodan baktotxean, itsaso zabalegi baten aurrez aurre aurkitzen nazala iruditzen jat eta, lehenengotan, atzerantz eragiten deustan bultzada ezkutu bat somatzen dot neure barruan.

Halan bere, itsaso zabal eta sakonak beti ohi dauanez, badau Mikelek bere, niretzat behintzat, zeozelan erakarri egiten nauan berezko girotze eta zirrara sakona sortuazoten deustan sorgindura eta lilura zoragarri bat.

Hori dala-eta, gure Mikelen inguruan eta haren baturantzako bidea jasotzen ahaleginduz hitzalditxu bat egin ete neikean eskatu eustenean, baietza emon neban. Asko pentsatu barik emon neban, egia esateko, baietz hori. Baina zor bat neukan eta zor hori zeozelan ordaindu gura neban. Ugari edan dodan euskereari, Derioko Udako Ikastaroei eta Mikeli hainbeste zor neutsielako, ordainsari makal eta urritxu hau eskeintzea zuzentasunak eskatzen eustala neritxon.

Mikelen heriotz urtemuga, lehenengo urteurrena ospatuz alkartu gara hemen, eta lagungarri izan daiteke guztiontzat Mikelen izaera eta pentsa-

¹ Lontzo Zugazagak hitzaldi hau 1980ko apirilaren 15ean eman zuen, Mikel Zarate zendu eta urtebetera. Hitzaldia bizkaieraz idatzia dago, eta egileak idatzi bezala argitaratu dugu. Hots, Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen zerbitzuak ez du zuzendu.

moldea, haren erizpidea eta jokabidea. Izan bere, gidari eta biderakusle dogu edo izan dakiguke Mikel euskeraren arloan, aspaldiko nahaste, ilunpe, alkar hondatze edo alkar aditu ezin ugari, antzu eta itoen artean.

Eztabaidagarria izan daiteke gaia, baina Mikelen jokabidea aztertzen eta adierazten ahaleginduko naz, neuk egin daikedan zuzentasunik handienaz.

Hiru atal izango ditu hitzaldi honek:

1. Mikelen izaera
2. Giroaren eragina
3. Euskera baturako bideak.

1. Mikelen izaera

Mikelen izaerak badauka zerikusirik nahiko beraren jokabidearekin. Nik, txikitxu nintzala ikasi neban harako *operari sequitur esse*, eta harrezkero, beti jakin izan dot izaera eta jokaera, izaera eta eginbidea ezinbesteko ezkontza baten buztarturik egozana. Mikelekin batera urteetan bizi izan ondoren, argi be argi ikusi izan dot haren bizibidea. Mikel ez da izan inorekin hasarratze-koa. Zerbait inori ezarri egiteak, bide bakar bat dagoala entzuteak, eta bide bakar hori goirik behera ezarri egin behar dala entzuteak, beti emon izan deutso tristura eta mindura Mikel bihotz-zabalari.

Biziaren maitale gartsu izan da beti, eta legekeriak bizia gogortu, leiperatu egiten dau, mogimendua kentzen deutso, izoztu egiten dau ezelako oztopo barik dantzari doan erreka. Mikel beti izan da gauzen eta izakien berezko biziaren maitale. Naturaltasunak beti poztu izan dau haren bihotza. Derioko jatordu osteko ekitaldiak, lagunekin mendira egiten zituan ibilaldiak, Lau-roetako Meza osteko alkarrizketak, auto-stopean ezagututako pertsona izenbakoakazko bat-bateko hartu-emonak, eskola osteko ikasleakazko alkarrizketa biziak, bolalekuan pentsatu-pentsatu barik egindako apustuak, txitean piteango kopletaldiak eta tertuliak dira dinodan horren lekuko.

Mikelek zerbait idazten eban bakotxean, beti eskeintzen eustan liburu edo dana dalakoa, argitaratu baino lehenago, neuk ikusi nengian. “Zugazaga” barik “Zehatzaga” haz hi, esan ohi eustan sarri burlazar eta, horregaitik,

zuzenketaren bat egiten baneutsan edo beste eretxiren bat nik azaltzean, prest egoten zan aintzat hartu eta aldatu behar zana aldatzeko.

Ondotxu ekian Mikelek pertsonak alkarrizketa bidez osotu eta aberastu egiten zirana. Berbaldiren bat egin behar ebanean beti etortzen zan haren itaunen akulugana, ez gu mintzeko, gugandik jaso eikeana bereganatu eta beretzeko baino.

Gure herriak danetariko burrukalariak eta era guztietako gudariak behar jozak, esan ohi eban sarri, eta nik ezin baztertu neikek inor eta, era berean, ez neukek gura nire lana inork baztertzerik ere. Bakotxak geuri dagokigun haritik jokatz, eta besteak baztertu barik bideak urratuz, begirune eta itzalik handienaz bizi behar dogulako.

Haren heriotz ondoko hileta-eresi baten, holantxe agertzen neban nik Mikelen izaera:

“Mikel,
berariazko nortasunen
itzal eta begirune,
Jainko eta gizonon abade,
zure zeutasunez
besteen eurentasuna
sendotu eta maitatuz
egiazko batasun egile”.

Eta nire hitzok etziran neure asmamen eta irudimenaren frutu iheskari; haren izaeraren eta hitzen oihartzun makal baino etziran.

“*Ipuin antzeko alegi mingotsak*” argitaratu barria zala, liburuaren eskeintza egin eustan, idazten zituan liburu guztietan egin ohi eustan lez. Eta holan jarri eustan eskeintza horretan:

“Lontzo,
hona hemen nire neutasuna
zeure zeutasuna
sendoagotu dagizun”.
Zure adiskide Mikelek.

Nire ustez, nerabe gaztetxu baten antzekoa izan da Mikel. Osoan senti-bera batetik, eta bestetik mundu zabal baten aurrean guztia xurgatu guraz, biziaren mozkorrean igerian bizi izan jaku.

Horregaitik, Mikelen arnaseak baeukan halango nasaitasun eta mugabakotasun alai bat, gaztetasunaren eta berezkotasunaren freskotasun igurtzi bat, halango errespeto, itzal eta begirunezko askatasun girotze bat.

Orduan, jokera eta jokaera desbardinetak lagun askok, alkarrizketa bizi eta pozgarriak, samin eta suminik bakoak, bizkortzaile eta laguntzaileak izan ditue sarri gure Mikelekin, “Mikel gurearekin”, adiskideek esan ohi geuntsanez.

Euskerearen oihala, batetik tiraka eta bestetik tiraka, tarratadaz bete eta zatitu eta sakabanatu barik, guztion lanez, jakituri az eta arduraz barriztatu, sendotu eta gaurkotzea gura izan dau Mikelek. Ola zahar eta ola barriz, euskal herriko burdina inozkorik sendoen eta argien landu nahi izan dau. Ultrakeria eta muturreko jokaera guztiek ok eragiten deutsoe Mikeli, bere barruko errotan bihotz eta birikiak garrazterainokoan, osasunaren kaltetan, eta burubideak itotze giro batean itsutzerainokoan. Hainbeste eztabaida eta amorru eta hasarre irakinen artean, Mikelen barrua sarri aurkitu izan da minduraz, erraiak har goseki batek jango baleutsoz lez, arnasestuz, ito beharrean, begiek dakusenetik, belarriek dantzuenetik bihotzak nahi leukeanera zubia luzarazteko nahi izate hutsa gitxiegi dana konturatuz.

Horregaitik esan deutsoe norbaitzuek keko-meko dagoala, ur bitara dabilela; honako itsasoak eta itsas-adarrak bat egiten daben lekuan ontzia gustura balego lez, han orekan egon eta irautea berezko eta erraza balitz lez. Ultrakerien ziurtasunaren babesa hori baino berera eta samurragoa da, duda barik, nahiz eta zingirako urak eta aterpe gozoan babestutako munduak antzukeria gorrian murgiltzeko arrisku larria izan.

2. Giroaren eragina

“Lehenaren amets zahartuaren
eta barrikeriaren haize zoratu artean
zentzunezko bide egokia urratu nahian.”

Gaurko gizartearen giro nahastuan, ziurtasun eta jarrera garbiak gura dabezan gizon-emakume ugari izatea bidezko da zinez. Izan bere, gizakientzat ezinbesteko baldintza da seguridadea, oreka eurenganatu ahal izatea. Eta holango giroa arnasten dabenen artean ez da mira egitekoa erradikaltasun eta ultrakeriak ernetzea, salda bero eta lur gurian erradikalkeriek azpiegitura ongarri eta ernari goria izaten dabelako. Holan, gure herrian, aspalidaniko nahaste izugarriak askoren begiak lausotu, bihotzak grinatu eta buruak itsutu egin ditu. Eta gehienon ezjakinak, “analfabeto” izateak, larriagotu egin dau giroaren nahas-mahas eta zurrumbilo horren eragina.

“Faszismoa sartu da konturatu gabe zenbaiten buru eta burubideetan”, inoskun Mikelek Bergarako Batzarrean. “Barra-barra ibili dira gure artean era honetako esaldiak: “Bizkaiera, eskoitiar burgesek bakarrik egiten dute”; “hemen batua baino besterik ez dugu onartzen”; “guk ez dugu andereño batuzalerik onartzen, hatxezalerik ere ez”; “espainolisten asmakizun bat da batua, euskara hondatzeko”...

Eta aintzat hartzekoa da Mikelen gogoeta: “Bakoitzak bere euskara sartu nahi du leku guztietan, derrigorrean eta arrapaladan, beste jokabiderik onartu gabe, inor ez ezer errespetatu gabe, faszisten gisa, euskara batu hau edo hori edo euskalkiak balira bezala euskararen etsai. Euskararen etsairik handiena erdara dela konturatu gabe, euskararen akatsik handiena etxeko euskaratxotik euskara literarioa dagoen aldea dela konturatu gabe, euskararen egoerarik larriena euskalkiak beren etxeetan preso egotea dela konturatu gabe, faszismoarn hatzaparpetan erortzeko arriskua dugu guztiok”.

Giro horren barruan egin izan diran hiru aukera nagusi aztertuko ditut:

2.1. Lehenaren ametsetan

Batzuren erradikalkeriak lehenera jo dau: igaro dan aldi baten minez, lehenaren minez eta amets gorpuztuez baliatu da. Horretara, euskara batua-
ren aurka dihardue jo eta ke. Euren ustez ez da garbia oraingo euskara barri hori, hatxez eta erdal hitzez josia dagoelako; hor agertzen dan joskera bera ere kutsatua ikusten dabelako.

Aranatarren giroko garbizalekeriak eragin sakona izan dau eurongan, eta garbizalekerian izan ezik ezin dabe benetako euskerarik ikusi. “Erdara asko jakin behar da euskera hori ulertzeko”, esan ohi dabe. Izan bere, alde bateko gehiegikeriak bestaldeko gehiegikeria dakar. Neuk ere autortu beharra daukat: Ipar aldeko euskaltzain batek behinola honelan esan eustan: “espainol gehiago jakin beharko nuke nik Bizkaian duzuen aldizkari bateko idazlan batzuk aitu ahal izateko”. Eta hori esan eustan euskaltzaina ez zan ultrakerien menpeko gizona.

Mikelen ustez, eta nire ustez, talde honek asko galdu dau. Talde honetako hainbat benetan ikasiak dira, eta gerra ondoren hainbat idatzi dabe, eta jakinaren segurutasunak galdu eta barriro ikasten hasi beharrak nekea sortu deutso hainbati. Nekeak eta garraztasunak eta euskaldun barri batzuk, atzo goizeko euskaldun batzuk, goirik beherako iraultza egiteko ahalmena ukan daikeelako kezkeak sumindu eta erre egin ditu. Eta hortik sortu dira, berez ernetako bedar txarrak bailirean, garrasi, amorru eta eztabaida biziak.

Eta Mikelek berak Bergaran esan ebanez, lehenaren ametsean lekutzen diranok, “Aranatarren euskera berri garbia bakarrik gura dute. Euskara batuaren, euskara batu biziaren aurkako batu bat egin nahi dute, Arana bera ere gaur bizi izan balitz ezkertiar batuzale iraultzaile bat izango zela konturatu barik. Erdizkako batu bat egin nahi dute, erdara hitz eginez eta idatziz sarri askotan, benetako batu biziaren aurka doan batukeria garbia”.

Talde honek badauka, “deigarri” bezala erabiltzen dauan esaldi bat: “Guk herriko hizketa ta hizkuntza jagoten dogu”, eta ez jakitun barri edo sasijakitun batzuk asmatu egiten daben “euskara batua” dalako hori. Jakin beharko leukie, baina, honeek ere: Mogel eta Añibarroren alditik eurengana bitartean iraultza bat izan dala, eta euren euskera, herri-herriko euskera barik, iraultza horren ondorio ere badala eta Aranatarren giroko aldakuntzakaz sordun direana. Izan bere, herri-herriko hizketa hutsez ez da baliatzen idazle bat bera ere. Herri-herriaren hizkereak adar asko ditu eta bati oratzean lekukerietan (lokalismoetan) eror daiteke erraz horrelako aukera egin dauana, beste herrialde batzuetako euskaldunentzat ilun, ulergatx eta ulertezin bihurtuz.

Halan bere, talde hori egon egiteak, bai lehen eta bai oraintsu ere, euskereari mesede egin deusala uste dot. Honetaz Mikelegaz sarri berba egin

neban, eta bata bestearengandik oso gertu gengozan arlo honetan. Hutsak eta okerrak autortuta ere, mesede ere egin dabela uste dot, sustraletan sendo iraun dabelako. Prisazko batu “standar” zaleen aukereak zorakeria gehiegitara eroan gaikizan, eta arinkeriaz, helburuen lilurak zoratuta, “laboratorio-mozkor” baten murgildu eta amildu. Arrisku horretatik askatzeko indar izan dirala uste dot lehenaren amets zaleok, nahiz eta, agiri baten behintzat, talde hori erabat galtzaileena izan. Euskereari zerbitzu bat egin deutoela autortu behar, eta ez orduan bakarrik, baita aspalditxuon ere, askoren ustez galga kaltegarri eta atzerakoi huts izan diran arren. [Izan ere, argia da berbaldia egin nebanetik gerora euskalkiek izan daben estimazinoa, nahiz eta idatzietan nahiko baztertuta irauten daben].

2.2. Geroaren ametsaren uhinetan

Lehengo guztiaren aurka dagoz aukera hau egin dabenak. Gaur egunekoa ez dan edozeri “alergia” deutoe. Lehenago ere, gizaldi biren artean baziran burrukak, eztabaidak eta alkar aditu ezinak, esan euskun aspalditxu On Jose Migel Barandiaran handiak. Oraingoan, ostera, gure aldia, “eten” bat egin da. Barrikeriaren olatu dantzari eta bizkorretan bakarrik bizi daiteke gaurko gazte asko. Barrikeriaren haize zoratueta bakarrik aurkitzen dabe arnasbiderik.

Hemen, batuaren aukerea, berez ernea balitz lez sartzen da. Sasoi bako-txak badau bere “esnobismo” bat edo bere lilura. Gazteon arteko askorengan sukarraldi eta urdurikeria bizia sortu da. Helburuaren lilurak indar erakarlea izan dau eurontzat eta, askorentzat ez da izan euskerarik orain eurak ikasten ari diran “batu estandartizatua” sortu arte. Euskalki guztiak euskal-keria dira. Ez dago euskerarik; ez da izan benetako euskerarik. “Euskara da euskaldunon hizkuntza”.

Gurasorik bageko seme-alabak edo gurasoak hil gura dabezan seme-alabak agertu jakuz, zoritxarrez, euskal alorrean. Oinarriak non dabezan? Begira:

- Lehenean murgilduta eta tinkotuta bizi diran erradikalak aurrez aurre;
- Gizaldien arteko “etena” eta alkar aditu ezina;

- Helburua behingoan lortu nahia, asmoak gaur berton egia bihurtu nahia;
- Euskara “standar” bat goirik behera guztiei ezarri nahia;
- “Snobismoaren” eta modearen bultzada;
- Barrikeriaren haizeetan hegaz egin gurea.

“Batua” askorentzat “slogan” indartsu bihurtu da eta hor ere egon da itsukeriarik nahiko, eta ezjakinen artean itsukeria ilunagoa.

Eta batuzaleon artean sortu izan da beste jokera bat ere. Gurasoak hil eta asabengana jo, gaurko euskera batua prestatu eta antolatzerakoan. Jokabide honek gogait eragiten eutson Mikeli behin baino sarriago: “Euskara batuaren sortzaile eta eragile gisa agertzen diren batzuk ere, euskara batu bizi jatorraren kontra doaz, gaurko euskaldunen euskarari jaramon handirik egin gabe Lapurdiko literatura zaharrean oinarriturik, beren euskara batua bortizki toki guztietan sartu nahi dutenean. Begira: gure hizkuntza berriztatzeko egin den ahalegin bakoitzean lehenera, iturburuetara jo izan dugu beti, alegia, lehenagoko euskal liburuetara. Eta hizkiak, hitzak, aditzak eta abar aztertu, ta eginahalak egin izan ditugu gure hizkuntza goimailartzeko, ondoko hizkuntzen parean jartzeko, jatortasunez, zehaztasunez eta logikaz eraberritu eta indarberritzeko. Baina konturatu-ta edo konturatu barik, herriko hizkuntza bizi koloretsutik alde egin dugu gehienetan. Eta zahar kutsuzko edo laboratorio kutsuzko euskara batu bat egin dugu gure herriaren eta gure hizkuntzaren kaltetan. Bilbon 1958. urteko batzarrean L. Villasantek esan zuenez, “literaturak eztu euskera bizia menderatuko eta bere bidera ekarriko. Bai zera! Guri dagokiguna da euskera biziari jarraitzea, andik barne-izerdia atera eta erriko euskerak bizituko du gure literatura, eta orobat literaturak bere babesa emango dio euskera biziari. Erritik aldendurik dabilen literatura, gezurrezko zerbait biurtzen da, izerdirik eta gizenik gabekoa. Zaletu bakan batzuek entañatzeko aukerakoa. Minoria edo gutxirengo batentzat ona” (EUSKERA IV, Bilbao, 1959, 102).

Mikel gogait eginda dago, aspertuta, zaharkeriazko kutsaduraz bizibidea eta arnasbidea ito egiten daualako jarrera horrek: “Ni neu behintzat,

egia esateko, gogait eginda nago Axularrez eta Leizarragaz. Euskararen historian [...] oso interesgarriak izango dira, euskararen aldakuntzak ikusteko, euskara zaharra ezagutzeko, baina gaurko euskara bizi batu ego-ki bat egiteko ez dut uste egokienak direnik, eta gutxiago nahi eta nahi ez leku guztietan sartzeko. Askosaz egokiagoak dira ta askosaz gaurkoa- goak, nire ustez, erdi bazterturik ditugun Larramenditarren giroko idaz- leak: Kardaberaz, Mendiburu, J.B. Agirre, Mogel, Añibarro, Aita Barto- lome..., batzuk aipatzearren, eta geroagoko Tx. Agirre, Urruzuno, Kirikiño, J. Etxepare, Hiriart-Urruty eta abar”. “Bizipenen bultzadaz” olerki liburuan, Bi 1978, 36-37 orrialdeetan irauli eban Mikelek kezka arnas xurgatzaile hori:

Bestela ito egingo nauzue, hil

“Ez!

Ez!, ez!

Ez! Ez! Ez!

Ez dut nahi gure hizkuntzaren

zaharkeriazko kutsaduraren

etengabeko zurrunbiloaren

zurrupa mareagarriaren

zorabiozko jirabiraren

goitika higuingarriaren

ezinegon larriaren

bizi ezinaren

ezinean bizi.

Ez dut nahi lehenaren itzalean

galduriko euskararik,

lehenaren lurpe humelduan

ustelduriko euskararik,

lehenaren urkamendi garratzean

hildako euskararik.

Ez dut nahi hitz, aditz, hizki

hizkuntza arkaiko ukergaitzik;

ez dut nahi axularkeriarik,
 ez dut nahi aranakeriarik;
 ez dut nahi sitsak jandako euskararik,
 euskara herdoildu hatsitu momiatu-
 rik.
 Euskara bizi berri batu gazte bat nahi dut,
 gaurko arnasa, izerdi ta odolez oratua,
 baserri ta hiriz osotua,
 gozoa ta garratza,
 leuna ta latza,
 garbia ta zikina...,
 egunerokoa,
 edozertarakoa.
 Atera nazazue,
 mesedez, faborez, otoi,
 museotik,
 kanposantutik...,
 bestela ito egingo nauzue, hil”
 (Ik. “Bizipenen bultzadaz”, Bi 1978, 36-37 orrialdeetan).

Batuzaleon jokera honek ere baditu, duda barik, bere balioak, sarritan hutsak eta okerrak nabarmenago agertu izan diran arren. Hara!

- Aurrerakoia izatea;
- Helburuetara jotzea eta idealak aurrean jartzea;
- Ikasteko gogo bizkortu eta ugaritzea;
- Urak mogidu eta hainbat lagun lotatik iratzartzea;
- Gazteentzako euskalzaletasun bultzagile gertatzea;
- Kontzientzia barria, giro barria sortzea; behar-beharrezkoa genduan batasunerako kontzientzia eta asmoa bizkortzea;
- Euskaldun barri askorentzat bide urratzaile bilakatu izana.

Eta Mikelek bizi maite dau euskeraren hiriko emari barria. Begira!

Euskararen hiriko emai

*Euskaldun berri izandakoei
euskaldun berri direnei
eta euskaldun berri izango direnei.*

“Lehen euskaldun berri,
orain euskaldun,
zuekin lotsaz beti
herri hobendun.
Euskal etorkizun
jatorraren zai
zaudeten euskaldun
ikasi alai,
mutil ta neska,
adiskide min,
zuentzat nahi dut
kantatu bat egin.
Lehen euskaldun berri,
orain euskaldun,
hiri eta baserri,
zuekin zordun.
Gora euskararen
hiriko emai,
zuengatik baita
orain kulturgai!
Gora zuen amets
eta ahalegin,
ezina egina
baita zuekin!
Lehen euskaldun berri,
orain euskaldun,
zuekin Euskal Herri
piztu dezagun”.
(Ik.” Bizipenen bultzadaz”, Bi 1978, 57-58 orr.).

2.3. Derioko asmoa

Aspaldiko urteotan ukan dogu beste jokabide bat ere, hirugarren bat, nahiz eta askok ahaztu ezjakinez edo itzitasunez, edo alboratu berenberegiz jakinaren gainean.

Derion, Seminario Ikastetxean, asmo barri bat sortu zan 1968-1969.eko ikasturtean. Amets moduko zeozer izan zan hasieran guretzat: “Datorren udarako Euskal Ikastaro bat prestatu behar joaguk”. Urte honetan bertan ere izan ei zan ikastaro moduko ekitaldi bat, Julian Olazabalaga abadeak eratua. Ni ez nintzan izan tarteko eta ez neban ezagutu; orduan ezin dot horretaz ezer adierazo.

Ondo gogoan dot Ander Manterola, Karmelo Etxenagusia eta Mikel Zarategaz egindako gogoeta, ikastaroa antolatzeke asmoa hazurmamindu guran. Ander Manterolari bururatu jakon asmoa eta, behingoan hasi ziran Karmelo eta Mikel asmoa egi bihurtu eiten ahaleginik bizienak egiten eta apunteak prestatzen. Han nenbilen neu ere, abade barri eta euskera irakasle nintzala Seminario Ikastetxean, baliabide horreek ikasleentzat “multikopiaz” prest jartzen.

Holan sortu zan Derioko Udako I. Euskal Ikastaroa, 1970. urteko uztai-lean gauzatu. Eta Udako Euskal Ikastaroa sortu zan sasoian irakiten ebilen gure artean halako burruka eta nahaste-borraste eztabaidatsu bat. Arantzazuko Batzar (1968) ospetsuaren ostean aurkitzen ginan, ilusino barriz eta bide barriak urratzeak beragaz dituan iskanbila eta tirabaira konponezintan. Urte hareetan “tojuvaboju” bizia zan gure ingurua.

Udako Euskal Ikastaroak ez dau eztabaida horretan parte hartzerik gura izan, aurreragoko eta beharrezkoago zan eginkizuna eukalako gogotan, hau da, euskaldunen ezjakintasun arrunta ezereztu, ezjakintasun hori izan dalako, gainera, nahaste, eztabaida eta burrukak ugaritu eta bizitu dituana.

Gure jokabidea nondik nora joan dan? Ahozko hizketatik hizkuntza landu batera eta euskera landu batetik euskera batu batera, euskera batua ez dalako guretzat beste hizkuntza bat, alde askotan batuta dagoanetik batua-go batera jotzea baino.

Norbaitek esango dau, beharbada, erdibide antzerako hori ez dala jatorra, garbiegia, puritanoegia dalako, honako beste bideen ezelako akats eta orban eta errurik barik, goragoko mailan, hegaran bezala, arbitro antzera dagoanaren irudia eskeintzen daualako, inoren ez ezeren ikutu kutsarazle barik balego lez agertzen jakulako.

Begira! Goian aitatu dodazan jokera bien topekadak ez dira izan guretzat urruneko, honako aharitoen topekadak kanpotik ikustea lez. Bai zera! Topekada horreek geu ere sarri jo gaitue. Ez gara ibili kanpotiko epaile zorrotz huts modura. Batzuren eta besteen alde on eta txarrak ikusi, eztabaidatu eta aztertuz gainera, gutariko bakotxaren pentsamoldeetan eta jokabideetan eragin zirkinarazleak bultzatu ditue. Ez gara egon egonean, jokalekutik kanpo, barruan gertatzen danari kanpotik begira. Geuk ere jokatu egin dogu, asko eta askoren euskerea lantzen eta alfabetatze bideetan laguntzen jardun dogu Seminario Ikastetxean, Seminario Nagusian, Udako Euskal Ikastaroetan, E.G.B. / OHOeko Irakasleen Eskolan, Deustuko Unibertsitatean, Hizkuntza Eskola Ofizialean, e.a. Langile izan nahi dogu euskal alorrean; eta indarrak lanean erabili eta eralgitea egokiagotzat jo dogu, alkarregazko buruketan nekatzea baino, nahiz eta burruka bidez ere gauzak argitu daitekezana aintzat hartu.

Gure jokabidean garrantzi handia emon deutsalgu beti helburuak lortzeko, helmugara heldu ahal izateko urratu behar dogun bideari. Oinarrizko zentzunak eta pedagogiak halan eskatuta, zehaztuz eta argituz joan da gure bidea: “badakigunetik ez dakigunera, hizketatik (lekukotik) hizkuntzara; hemen, lehenengo bizkaiera eta bizkaieratik batura”. Holan, helburuak argi ukan doguz, argi eta indar erakarle izan ditugu, baina, era berean, sustraiak ere aintzat hartu doguz eta ez doguz alboratu. Erro eta sustrairik gabe landare sendorik egin ohi ez denez, hizkuntzaren sendotasunik ere ezin daitekelako lortu, lurreen errotoa, euskera bizian sustraitua ez dagoanean.

Mikeli berari itziko deutsalgu Derioko Jokabidea azaltzen. Holan dinosku bere Euskal Deklinabidea (1975) liburuaren hitzaurrean: “Bizkaieraz nator. Bizkaieraz, Bizkaikoa nazalako, bizkaieraz azi eta ezi ninduelako, ondoen ezagutzen dodan euskalkia bizkaiera dalako. Bizkaieraz nator, bizkaieratik baturantz joteko asmotan edo, obeto esanda, batutik batuagorantz. Izan ere,

bizkaiera euskera da, euskera jatorra, betiko euskera osoaren biotzean dagoan euskera. Eta euskera dan ezkerro, euskera batua ere bada, euskeraren sustraian, oinarrian (edozein euskalkitako euskeraren sustraian, oinarrian) dagoan euskera batua, betitik batua dagoan euskera. Eta euskeraren oinarrian dagoan euskera batu ori ezagutu bear dogu, leenengo ta bein, batutik batuago baterantz joateko, erdi baturik dagoana ere batzeko, batu barik dagoana ere, azkenez, batzeko.

Baiña onexegaitik nator, batez ere, bizkaieraz: bizkaitarrentzat idazten dodalako eta bizkaitarrak ere bizkaieratik baturantz, batutik batuagorantz, euskera osora eroan gura ditudalako. Gure euskeratik euskerara eroan nai ditut bizkaitarrak berez-berez, errez-errez, igarri barik. Derrigorrean, nai ta nai ez, izkera ta idazkera aldatzea ezifia da. Egia esan, aldatu daitezke, eta beingo baten egin ere, gogorkeriaren bitartez. Baiña gogorkeria ta indarkeria ta alkeria aundia bear orretarako. Eta, gaiñera, leentxoago edo gerotxoago, gogorkeriak gogorkeria dakar, eta gogortasunik ere ez daukagu, zoritxarrez, guk eta....

Hasieratik hona, egia esateko, geroago eta argiago ikusi izan dogu euskera batu baten preminea, eta aukera hori egiteak eskatzen dituan ikasbideak antolatzea ere geroago eta ezinbestekoagotzat jo izan dogu. Gure lehenengo aukerea, ezjakintasuna kentzea izan zan. Ezjakintasunak, izan ere, zabarkeriara eroaten gaitu. Eta txokokeriak eta zabarkeriak euskerearen zatiketara eta euskera batuaren aurkako ausardia lotsagarriara garoez.

Nahiko argi ikusten genduan euskera batua ez ezik euskalkiak eurak ere hondatu geinkezana. Horixe izango litzatekean euskeraren hondabiderik aproposenatariko bat, eta erdara batura berehalaxe joteko ibilbiderik aukerakoen. Txokokeria eta zabarkeria azpiratuz eta gaudituz, oinarrizko batu batetik euskera batuaren aukerea egin genduan, osterantzean gure hizkuntzarantz hondamena aurreratu geinkeana kontuan hartuz.

1968. urtean Arantzazuko Batzarrean Lekuonak eta Mitxelenak esandako hitzak aintzat hartu genduzan: “Euskera biziko bada, batu egin bear, anka-bakartu egin bear..., bizitza dezan, eta ugariago dezan, indartsuagoa dedin, alegia; errextuta, laburtuta, batuta, geiagok mintza dezan”. (EUSKE-

RA XIII, Bilbao, 1968, 141 or.) “Ezinbestekoa, il-edo-bizikoa dela uste dugu euskera batasun-bidean jartzea”. (EUSKERA XIII, Bilbao, 1968, 203 or.)

Baina “demokrazia bidez lortu nahi baldin badugu Euskal Herri batu bat eta hizkuntza batu bat, hori errespetozko askatasunez lortu behar dugu, euskara batua eta euskalkiak errespetatuz, euskalki guztiak baturako bidean begirunez, jakituriaraz eta zentzunez jartzeko ahaleginak eginez”, Mikelek Bergaran inoskunez.

3. Baturantz

Eta hemen lekutzen da Mikelen bizkaieratik baturako jokabidea, berak “baturantz” izenez bateatu eban jokaera, haren izaerak eta haren inguruak girotze bat lortu daualako, eta girotze honek haren buru-bihotzetan helduaro bat umotu daualako. Izaerak eta giro nahastuan hartutako aukerak oinarritu dau Mikelen erispidea eta jokabidea.

Eta 1968. urtetik 1978. urtera bitartean, arlo honetan bizi izan dauan arnasea, Bergarako Batzarrean azaldu eban gehienbat Mikelek, hara hurre-ratu aurretik Derioko Mogimenduko garan batzukaz alkarrizketa luzeak izan ondoren.

1978ko Uztailaren 7an agertu jakun Mikel Izaban (Erronkari bailaran), bez-peran Lezaman 40 urtetik gorakoen herriko txapelketako pelota partidua, finala, jokatu eta irabazi ondoren. Txapeldun geratu zalako, pozarren etorren, hamasei urteko gaztetxo bat balitz lez. Ni, neure familiako talde bategaz nengoan Erronkarin, eta guztiok poztu ginan etxeko genduan Mikel geure artean ikus-teaz, eta hain pozik aurkitzeaz. Aste bete igaro genduan Erronkarin eta hango “Zaltua” ostatuan hainbat ordu emon zituan Mikelek, irailean Bergaran egiteko zan hitzaldia prestatzen, goizetan mendietara ostera batzuk egin ostean.

3.1. Euskera batua

Euskera/Euskara batu bat behar-beharrezkoa da, ezinbestezkoa da Mikelen eretxiz. Poztu egiten zan bera Deustura joan-etorrietan. Izan bere,

“euskara batuaren modak indar erakarle ikaragarria izan dau hainbat gazterengan, gazte talde batzuen buru-bihotzetan, euskaldun analfabeto, euskaldun ikasi eta euskaldun barriengan. Eta kontzientzia barri horren eraginez, gaurko gazteek etxeko, herriko eta herrialdetako “euskaratxo” gainditu eta euskara batu bat egin nahirik ari dira elkarrizketetan, kantuetan, idazkietan, hormetako pintadetan... Kontzientzia berri horren eraginez, abeslari eta ameslari, gaurko gazteek euskaraz egiten dute gure hiri zapaltzaileetako kaleetan, erdal unibertsitateetako auletan, ezina egina bihurtu gurarik”.

Eta gazteen arteko arnas barri hori guztiongana zabaldu eta hedatzea nahi leuke Mikelek. Begira: “Ez dut uste, -dino-, esanak esan ta eginak egin, orain arte honelako kontzientziarik eta bultzadarik izan denik inoiz Euskal Herrian gure hizkuntzaren alorrean. Eta euskara batua egiteko, euskaldun guztientzat ulerbide jator pozgarri izango den euskara batu bizi bat egiteko, kontzientzia hori balute euskaldun guztiek, beste hamar edo hogeitaz barrru, beharbada, euskara baturik egongo litzateke eta Euskal Herriak nortasun et zertasun berri bat izango luke, dudarik gabe”.

